

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA

(V)



ETOR

S. ONAINDIA

EUSKAL
LITERATURA

V

1915-1940



Bilbao, 1977

ETXEN LIMURUAK
Juan de Bilbao, 13
Apartado 199
Donosti

KEAR DIRAN GAIMENAKIN

..

Ⓒ Alta DINANDIA, argitaldaria
Antoniola-Lerrea (Bizkaia)

I. A. B. N. 24-400 - 972-7
Deposito legal: BI 647 - 1978

GRAFICAS BILBAO, S. A. B.º San Miguel, 8/a - AMOREBETA

AURRE SOLASA

BADA ZEREGIÑIK.—EZ dut Dante zertan gogorazi. Mendi-goizaleak, adibidez, Gorbei'ra igotzean, dala Itxina itsutik, dala Zanburu aldapatsutik, berebat Barazar aldeko Atxuri txirristko-
rretik, poz-esnetan zuzendu oi ditu begiak egindako bide-arloari
begitu goxoa eman nairik.

Olan nik, euskal literaturaren bostgarren ale oni amala ezar-
tean, neure biziko poza ta alaitasuna somatu dut biotz-barre-
nean. Egia esateko, oian trinkoan zear ibilli naiz, iñork urratu
gabeko zidor-gaindi ez gutxitan: arrigarritasun aundiz oartu
naizanez, gure kondairak eta 'literaturak itxalezko utsunak ditu
nainondik so-eginda, ta batez ere, utsune oietatik zerbait beste-
rik ikasi gabe ditugula bizi garean mende onen lenengo berro-
gei urteak. Ez gara, ba, urruti ere aldiko artatik. Zer gerta ote?
Onatx, biotatik bat: bear bada ez da orretan iñor saiatu, edo-ta
ez dugu beren bererik aro orren zilborra saratu nai izan. Biak
dituzu oker larri, iñondikan ere.

Oraingoz geure literatura saillari loturik, aitortzea samingarri
bada ere, iker-lan utsaren zelaian adibidez ba-dugu zeregiñik.
Oraindik ez du iñork ere alor orretan irizpide zuzenez lanik
osotu, errazki dakusgunez ikusmira norberekoi batekin buru-
tuak dira gai ortazko idatzirik geienak. Inguru-giroak asko esan
nai duelako, egiaren orde zuzurra aisa urkultzen zan garaian
egiñak izaki, ezta arrigarri gal ortan iñor gutxik baizik begi
zindoz ta garbi jokatu izatea.

Ori dala-ta, eusko kondairaz gaiñ, bee-beerengo maillatara jatsia dugu literatura ere. Griñak, egia da, begiak lausutzen; edestilariak, beraz, begi-garbi ari izan bearra du bere egitekoan. Sarri, tamal aundiz, norberak asmatu izkilluz burrukatu oi da, bat ere susterrik ez duten gaitan; norberak etsaiaren aurka asmatu izkilluz bota nai dizkiogu irakurleari begietara, au itsutu dedin eta geuk egizat eman nai dioguna baizik ikusi ez dezan. Gezurra dirudi, baiña olan dagigu.

Errez darabilgun tresna da gaur zabalkundea, ta begi-belarritz entzun-ikusi dugunetik errez ebatzen: ortan gure ortzak, amorrañarenak amuzkian iduri, laster atzeman eta giltzatu litezke. Gauzak, ortaz, zio barik oker iragarri ta zabaltzea gaitz izugarria danik ez esan. Geure gauzetan bear ez dan labanik ez egiteko, anitz gaitan ikasi bearra daukagu oraindik. *Itsusia* da noski, gaur onena opa dugula-ta, aurretiko jazo ta gertaerak geure eritzi zilo medarrez apaintzen jardutea; ez, ezta jokabide itxurazkoa edestian bizkarka ibiltzea.

Onakoak dira —tamalez!— gaur-egunean berton, idazle askok erdal eguneroko ta aldizkarietan euskal literaturaz agertazi dituzten lanak. Zerk eraginda, baiña? Ez nalz emen nere kabuz ari: andik eta emendik, askotxo urreratu zaizkit, nola nik, euskal literaturan buru-belarri ari naizen onek, gisa orretako geiegikeriak eta egi-ezak salatu ta artez-azten ez ditudan galdezka.

Beste aldetik, ez dira gutxi iñoren aoz itz dagitenak ere. Bi-iruk iñoiz idatzi zuten zerbait, sariketa baterako bear bada, presaz ta norberak ikusi-ala, egi-antzeko zerbait sarri, ta beste eunek ere orrixe berori ber-esango dute, orrela dan ala ez bat-ere aztertu gabe. Joera exkaxa. Ez dezagun arin jokatu kondairari ez literaturari buruz. Gaur ba-da, baita, azpi-joko agiri-agirikoa ere: norberarena ta norbere taldekoena da egia bakar-bakarrik; besteena gezurra da, ta, gezurra ez baldin ba'da ere, eder ez zaiguna ahantz-lurrez estaliko dugu, argitan ausaz dizdiz egin ez dezan. Makiña bat liburu, artikulu dagoz gaur

orrelaxe idatzitakoak. Urliak maixu-aizez esana, sandiak axe sal-
tzen du maixuki. Kontuz, mutillak! Gari artean zoragarriak
baitabil! Bestaldetik, girgixaren xirrita, beti berdiña, etzaigu
alai ere.

V'GARREN ALEA.—Boskarren ale au, laugarrenaren lerro
ia berdiñez ibilki egiña duzu. Garai artan ez nituen merezi zuten
idazle ta iüazlan asko aitatu. Laugarren zenbakia geiegi ez azi ta
larritzearren ez nituen sartu, guztiak sartzera ezkeru mukuru
konkorregia osotzen bait zidaten. Zan Bizkaian, zein Gipuzkoan
eta beste eskualdeetan askotxo ziran euskal barrutian kemen
aundiz lan egin zutenak; etzan egoki bat bera ere alboraturik
uztea: zerbait burutu duenak ez du nal, ta errazoiz, bazter
geratzerik. Izadiak zain eta muin dakarren legea duzu: zerorrek
nai ez duzunik, ez opa izan iñorentzat.

Errazoiketa orri atxikirik, ez da zuzen ez egoki au bai ta
ori ez aipatzea, euskal literaturaren kondairarik alik eta osoena
mamintzea baita nire asmoa. Ondorengoen lanak oretako dute
gure elertia inguru-giroz ta eder-senez, erdel literaturan esate-
rako Dámaso Alonso'k eta, egin duten antzera. Nik, ondoren
datozken oientzat oiñarri bezela, idazten asi nintzanean artu
nuen elburutik okertu gabe, urtez urte izan ditugun idazle xee
ta aundien bizitzak eta lanak edesten ekingo dizut.

Aurreko alean aitor bezela, danerako loratze irikia gertatu
zan guda aintziñako iru amar-urtebeteetan. XX'garren gizal-
diaren lenenetik nolako bizi-naiak irakin zirakian, garai artako
aldizkariak dituzu batez ere testigu; geroago zeaztuko dugunez,
25'tik gora ziran euskal arloan, jori ta kamentsu, parte artu
zutenak. Politika, gizarte-auzi, erti-lan, nekazaritza, baserri-gal,
olerki-teatru, jolas-kirol, uzkurtz..., labur: gure erria osatzen
tresna guztiak erabilli nai izan ziran. Gure erriaren izan naia!
Euskera biztu ta bizkortu bear! Gogora Azkue, K. Etxegarai,
Kirikiño, Tx. Agirre, Manterola, Ibagutxi, Eguzkitza, Otxolua,

Orixe, Lizardi, Loramendi, Lauaxeta, Intza... idazlerik bikaiñenen sailla, eta sail onen biran eundaka geiago, geure izkera gaizkatu nairik auzka gorrian.

Aintzagarriak ziran, izan ere, orduko lan-irritsa ta batasun anaikorra. Alkar xuzpertz bearra! Bilbao'ko «Euzko Gaztedija» ezta egungo bear aiña txalotua izango, orretan egin zuen lanagatik. Ba-zituen bere zalañtzak, gaur bezela nunbait. Baiña barnean zekarren, urduri, geroaren aal ezkutua. Ez du opa bizi erosorik, ondo ulertzen du-ta taiu orren ondorena; ez, ezta ori bere izangoa: erpiñerago jo nai du. Aldi ankerrak izanik ere, xuzpertz ta gudara: erri izan nai du, ta iñoiz ere ez gatzai, suntsidura. Ez áur-erostarik, luma artu ta burrukara. Ez du, bear bada, Jerusalem berririk jasoko; baiña alegiñak erre bai nagiak esnatzeko. Bakoitzak al dezaken neurrian erria duintzen eta eraikitzen ariko da: Ikasiz, idatziz, itzaldiz, teatruz, mendirik mendi ibilliz..., esku-mende zeuzkan tresna guztikin.

Ni garai artan eta gaurkoan ankarkulo bizi izana nauzute; ordukoa ikusi nuen gazte nintzala, oraingoa ikusi dakust urteen goitiberan laban dagidala. Gure elertían begira beti, joan-garai ura aztertu nai izan dut pizkat, ainbat paper eta aldizkari ikusmiratuaz batez ere. Konturatu naizenez, ekiñaldi ausarta izan zan ura. Azken ale bi auek orren dirdai erdi-illa besterik ez duzu. Baiña ez orregatik meritu gabea,

JARRAIBIDE EZ TXARRA.—Aldikada artako euskaltzaleak, ezin dezakegu uka, eredugarri dira guztiontzat. Zarrak eta gazteak, alkar-uztartuak, orduan egin zuten lana ez zaigu jarraibidle makal. Joanak eman bear digu biotza oraiñari gogoz eltzeko; aiek, igazitako urteetako euskaltzale bipillak egin zutena, eredutzat artu bear dugu gaurko kenkan aien antzera ari gaitezen. Aien egiña ikusia dugu, gaurkoen ekiña alangoa gogo.

Gaurko gaztediak —zaarraire ere ez iñausi ezer—lortu duten garaipenik baiñotsuena, nun-nai euskal zaletasuna loratan jartzea izan da. Au zabal aitortu bearra dago, egiak ezpaitu arpegi

bat baizik. Naiz-ta oso-osoan ardietsi ez, ortan lerrenak egin zituzten orduko aiek ere. Zein bata zein bestea ezin ditzakegu uka. Irteira izateko, antz-zentzuna esnatu bear omen da: inguruka dugunak zer-nolako aizez ari dan ikusi, norberak ere aren antzeko oiñatzak uzteko. Antzera jokatzeko ortatik dator ondorioz, naiz gizartean naiz erti-lanetan, euki genezaken irteieraren indarrak altsuena.

Egia da au ere: erriak erriari dei dagiola. Idazle ta ertilariak orixegatik nai dute batez ere antzekoen baltzu ta anai artea. Artistaren musa bakartadea dala, esan oi dugu askotan. Egia al da? Giroak asko dagike, ta ertilariari, bizi baka-tia eder ba'zaio ere, lagun-artean gurago, kidekoen eragiña —itzezkoa, idatzizkoa- begiko zaio; kritika bera ere bai, gizon jakintsua-gandik baldin ba'datorkioke. Besteen lan-gogoak eta egiñikakoak bere biziko lillura ta erakarpena dute lanera bultz-eiragiteko. Besteengan dakusgun lan- garramoreak, gu ere araxe garmazki. Taldeka jokatu zuten beste orduko gazteak; gaurkoak bezelatsu noski, ta onek beti dakarzki frutu urdiñak, onak.

Moltzo ederrak dabilta gaur euskerarekin arazotuak, ikasi ta ikasi nunbait. Olan segi ezker, epe laburraren buruan jabetuko dira —ziur asko— gure asaben izkeraz; ez irakurri ta idaztera bakarrik, aise mintzatzera ere iritxiko dira. *Iraupena* bear ortarako. Euskera da gure arima, gure odola. Ez atera zarata geiegirik. Erreza duzu «Gora Euzkadi!» abots zoliz botatzea; euskera da gure aberri mintzoa, gure arnasa: illa duzu baiki arnasarik eztun erria. Ikurriña, ederki; gudari ereserkiak, bapo, baiña oiek gabe ere antolatu dezakegu aberria. Eta euskera gabe? Ba-dira gaur baietz diotenak. Orrela balitz ere, gure erria ez litzateke egundo erri betea izango, euskerarik gabe. Iñoiz irakurri dut: «Bere izkera jatorra lantzen ez duen erriak, ez du bizitzerik ere merezi». Uste ortan zebillen Arana, ta beste milla egiteko ta auzi artean, bere asaba zarren mintzaira ikasteari eman zion, eta ikasi egin zuen aski ondo etzekian euskera.

EKAITZ-ZIGORPETIK IRTEN NAI.—Gizonaren alai-litsa ez da sarri iraupen luzekoa izaten. Euskaltzale kementsuak lanari ziarduelarik, ekaitz zakar baten laino beltzak izurratu ziguten zero urdiña, eta luzaroan izu-izotz-aro bildugarria gain zabaldu ziguna! Ondatze gogorra euskal literatur arentzat; debekatu zan euskeraz itz-egitea, kalean, elizan, etxean... Ainbat liburu ederrek sute galantak egin zituzten plazetan, beste asko lurpean gorderik, lizunak janda; euskerak etzuen tokirik eguneroko ta aldizkarietan... Ea ziran, egia esan, lur-barru lotu ziraneko azi batzuen eme-nal ta alegiñak; balña geien bat zigorpe lotsagarrian izotz artean zetzan gure zer guztia; eraso biurriak artua gure izkuntza maitea.

Ez zezakean, alere, gisa orretan iraun. Odei-ots ta jutzuri artean ere buru eraikitzen asi zan euskal idazlea. Eta erria, izuaren zarba bizkar gaiñetik dardar-azten. Aberria malte zutenak, «eusikeraren eriotzak Aberriarena ere bateratsu ekarriko» lukela-ta, lanean asi ziran berriro. Lotan, edo zigorpean egonak giñan luzaroegi. Lotsagarria! Esna adi, alper! Eta egiazko edestiak aitortuko du nortzuk izan ziran aurrelari esnatze orreri su ematerakoan. Olakoak apika ez du saririk bear, bal ordea merezi du esker ona. Gaur, euskal loratze bipilla ikusiz pozarren gaudenok, ez gaitezen lili-ori gain arnas artu nairik egokitu; begiak iratzar, goazen aurrera!

Era ona beti ederto. Neurkera ori, baiña., ez dugu beti zaintzen. Or gure akatsetatik bat. Gaur, geure izkuntzaren goraldiaz konturaturik, ez gabiltz arrokeri gabe: alderdi ta talde bakoi-tzak beretzat opa ditu garaipenik arralenak. Ala ere; ez aal dugu guztiok lan egin? Zegatik kentzen diozu zuk zeure anaiari berea duena? Zuk bezin zintzo ez al dio lanari ekin? Berdin jokatu zuten gudate aren aurreko aiek ere, alkarren leian noski; ba-zituzten beren arteko izki-mizki, altu-ezin eta lipiztak, balña euskeraren alde jokatzerakoan, eztabaida oiek albora utzi ta denak giar-lakain bat eiorik, lanari oratzen zioten. Zan giroaren aurka, oian itsuan barna bezela bide egin zuten. Aiek egiña,

guk nola ez? Arrezkero asmakizun eta tresna berriak ditugu izkuntzan eusteko, eta galtzeko. Oiek bear bezela erabilliaz, aurrera jo bear dugu. Euskera da gure arnasa, euskera gabe ez gara euskaldun. Eta euskaldun ez ba'gara, zer gara? Enda ta erri bezela, gabea, ezerez uts; nortasun berezi barik, euskaldun ez, beste edozer baizik.

GAUZAK BEREN ARDATZEAN.—Egi utsa: zer bakoitza bere erroari datxikiolarik daukazu apain eta lerdenen; andik at motz ematen du, ez bait dago bere dendunean. Guk dugun ezaugarririk bikaiñena euskera da; egiz ta egitez au onartzeko lain ezpa-gara, bide okerrez gabiltzala esan bear. Gaur txorakeri askotxo esan oi da masaillak bat ere lotsa-gorritu gabe. «Aberztaleak izan ezkerero...» kantatzen dugu; eta «Euskera dugu aberztaletasun azia erein eta erroak egin ditun gogoaren ezagugarria». Zertan gara orduan? Aizea astintzen ote gabiltz? Aoak ez al dio barneko zauri-miñaren adía? Gezur-zulo bear bada?

Gure erri zarra diru-min izan omen da; gure malak jateko lurruntsuz omen ditugu kunkuin; geure eskubideak zaintzeko ere beti izan gara errimeak; naiz sal-erosketan naiz industriar/loan, oso antxiñatik izan gara entzute zabaleko; Arana-Goiri'gandik onantza batez ere, abertzale zindo asko omen da Euskalerrian. Ekin aiña arekin izan du euskaldunak anitz arazotan. Ori guzti ori, ederto; baiña biotz-muiñez maite bear gendukean euskera bertan bera uzten ba'dugu, zer balio dute dauzkagun beste doai guztiak?

*I*rualtza garaian gaude oraingoz. Ez dugu besterik mingain eta lumaren moko. Erri zapaldua ei gara: orrela da. Baiña politika larregi dagigula-ta nago, edo beintzat merkeegia. Politika maillan jartzen ditugu gauza guztiak. Ez al dira beste alderdi asko ere begiratu bearrak? Ona egunokaz irakurri dudan aitorpen au: «Izan ere —dio Joxe Lizarralde'k—, badirudi Euskal Herrian ez dagoala problema bat baizik. Eta horrela ustekabean eta borondate onenez, gizona irentzen, txikietatzen eta birrin-

tzen ari garela uste dut. Gizakiak alderdi asko ditu izan. Gu, ordea, ugaritasun eder hori alde batera utziz, beti punto berean gabiltza mailuka. Gizatasunaren zentzua apur bat duenarentzat aspergarri ere gertatzen da beti lelo berdiña entzuten egon beharra. Areago giza pertsonaren alderdi eta arazo nagusi batzu ukitu ere egiten ez direnean. Horixe da, dudarik gabe, gure herriko aldizkarien kasua; kasu grabea eta salatu beharrekoa, noski! Iraultza egin beharrekoa izanen da, balña ez ditzagula zentzuna eta umorea gal. Bestela, gureak egin du. Azken fincan, zertarako litzateke iraultza orokorra, bienbitartean geure burua gal bageneza!» (*Zeruko Argia*, 1977, martxoa-20, 4 orr.).

Euskal idazleak, beraz, Euskalerrria ta euskalduna, beurok dituzten alderdi, doai ta gaixo guztiekin, gaitu ta aintzat ematen saiatu bearrean daude.

BIZKAIA

1915-1940

«Esnatu bearra dugu, egunetik egu-nera esnatu ere; lo egon gara, ta ez dugu lorik bear. Gauden ernai ta zur, begiak —barru ta kanpo— garbai ia zoli, irairarri bear ditugu; ez ditzagun lo-mokor euki.

Aunitz doai ditugu euskaldunok oin-dio ixillik dauzkagunak. Bein eta be-rriz, estálkia jaso ta argi joritan ipiñi bear ditugu oiek ere, gaurko naste ta aize-bolada itsu onetan noski.

Millaka urteak diralako kultura ba-len jabe gara, ta ezin dezakegu iñolaz ere gizaldiak ekarri diguten jakintza ori bazter utzi; geure geureak dira ainbat auzi ta korapillo geuk geure in-darren arnasaz bakarrik askatzekoak.

Izkuntza dugu doai oietatik aurre-nengoa, beste zer guztien gaiñetik zaindu ta jagon bear duguna; eta on-doren, orrek berari lotua lez daraman uzkurtza —aintziñatiko gure Urtzi gurtzea—, erlijioa noski.

Kondairazko une onetan bizi gara orain, etorkizun danari, geroari begira ain zuzen; gero ori, ernai bizirik, geuk denok —Morbera ta erri bezela— ma-mita, indar-azi ta urgatzi bear dugu».

O'tar Jagoba

LABURPEN

Sarri esan oi dugu gaur, euskal elertían buruz, mendeetan zear aurretikoak utzi digutena urri samarra dala, naiz-ta geuk uste baiño alor zabalago euki. Tankera ortan mintzátzeak ez digu mesede aundirik egingo, geure zabarkeriaren seme baita sarri askotan: ongi aztertu gabe ditugu oindio sail dexenteak. Norbaitek azal samarreko azterketa ondoren maisuki bota diguna, ori berori ber-esan oi dugu gaia bera sakonago aitzurtzen saiatu gabe.

BILDU PUSKETAK ERE.—Aitzol'en garaiari ekiñik noski, esku artean darabilgun literatur kondaira au, laugarren aleari zegokiona alegia, gegegi ez mandotzearren, albora Utzi genitun ainbat idazle, idazlari eta aldizkari aipatu gabe. Oiek ere aztertu nai izan düüt era eurekiri osatu V'garren ale au. Kristo'ren itzak ber-arturik, «Colligite fragmenta» —jaso pusketak— esan oi dugu. Orrela da. Merezi dute. Giza-adia, antsi ta apetak dira, euskaldunarenak, eta merezi dute arduraz, larraiñean uzta bezela, batu ta gordetzea. Pagadi lerdenean, Aralar'en adibidez, tantai tartean ederki datoz arabegi txikiagoak ere.

Bizkaitarretara mugaturik, ez dira auek zinbriki kazkarrak ere: F. Belaustegigoitia, Imanol Enbeita, B. Gaubeka, Gotzon Urrutia, Bedita Larrakoetxea, Pi Aba, Mañariko, J. A. Oar-Arteta, Bizente Ametzaga, E. Gorostiaga, Andima Ibiñagabeitia, F. Atutxa, Aita Julen Yurre, Manu Ziarsolo, Balendin Enbeita, Bizente Batiz, J. Andoni Goiria, eta auen biran beste txikiago batzuk jarraigoko bezela.

AGERKARIAK.—Gizartearen aurrerakuntzak oi-u-patarraka eskatzen duena, gogo lantzea, kultura da dudarik gabe. Gaur iñoiz baiño aukera geiago dugu ortarako. Baiña, egia esan, aurreratu bai gero? Lena ta oraiña berdiñean ipinten sartu gabe, ezta alderatzen asteko ere gudate aurreko lan-arrenkura ta gaurkoa; orduko urte batzutan, mendi beela doan, ujolak bezela eragozpenak aurkitu arren, etziran aiek zekarren bidea utzi ta beste bat artu nairik ibiltzen.

Or duzu erreskada bikaiña, egunerokoz eta aldizkariz osotua. Gaur ez dugun zerbait zeukaten aiek, lan orretan ari ziranak noski: etzuten aiek kritika ezkorrik egiten, baikorra baizik. Laiño itsu goibelean maiz urrats eginda ere, etsipen-lezan etziran iñoiz jausten; otso antzera ere etzieten alkarri oratzen bata besteari su eman eta talde-lan bikaiña burutu baizik. Interesgarria zaigu orduko agerkarien jokabidea, oindiño gutxi besterik aztertu gabea.

EUSKERA GORATU NAIA.—Abertzaleak bairik bat Bilbao'ko aldundi ta Udaletxeaz jabetuz zijoazten apurka apurka. Gure gizaldiaren bigarren amarnakoan sortu zan, Kosme Elgezabal aurrelari zala, Euskaltzaindi bat eratu nai bizia. Udaletxeak, berriz, 1918'an geienak abertzale zirala, lau euskal Ikastegi j artzeko erabakia artzen du, bi Erri bera'n eta beste bi Indautxu'n.

Egunerokoak, gero ta euskera geiago zekarren beren orri-aldetan: Kirikiño'k «Euzkadi»-n zuzentzen zuen «Euzkel-Atala» oso entzute zabalekoa zan. «Euskal Laguntza» alkarteak ainbat liburuxka atera zituen. «Euzko-Gastedija»-k ipuin-sariketak eratzen ditu 1914'an, Kirikiño, Zeferino Xemein, Jose Errazti, ta Altuna'tar Joseba maiko dirala. 1915'an, antzerki sariketa, «Euzkeltzale-Bazkuna»-k eratuta, Bilbao'n bertan; amar idazlan aurkeztu ziran: Aizkibel'dar Bingen'en «Jai Alai», Zeferin Xemein eta Karmel Errazti'ren «Olerkari biyak» sarituak; baita Jose Gartzia Goldaraz'en «Maitasun eta Gorroto» ere. Maikoak: M. Arriandiaga, Jose Eizagirre ta Kirikiño.

1916'an omenaldi ederra egin zitzaion Euskerari, Bilbao'ko Kampos Eliseos teatruan. Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-k eratu zuen jorrai-llaren bian, A. Kanpion, K. Etxegarai, G. Muxika, A. Barriola, B. Garitaonandia, J. B. Larrera ta I. Gainzarain buru zirala. Itzaldi ta musika, egun zoragarria; Kanpion, Azkue, G. Muxika ta Larreta izlari, K. Etxegarai'k eta Txomin Agirre'ek ere beren lanak irakurriz.

1.—JOSE MARIA GARATE GALLASTEGI (1860-...)

Igarri barik zorakortzen gaitue gure erriak, baita bazterrik ezkutu ta urriñenean. daudenak ere. Orrelaxe dugu Berritu, Bizkai'ko ibar panpoxa, Milloit'ik so-egin ezker batez ere. Markiña'tik Ondarru'rako bitxabalak gurutzatzen diu erdi^erdi-tik ezker-eskuma txairo zabaltzen dan erri azitxoa; basetxeak ditu or-emen zoragarri etzanik, eta Artibai dator marmarati Plazakola'tik beera... Ortxe ibai ertzean, Milloi azpian jaio zan Garate, euskal idazlea, Munisolo basetxean, 1860-9-22'an.

Oraindik gazte zala Bilbao'ra aldatu zan, eta ementxe egin zitzaigun idazle baserri tik zekarren jitari kemen berria txertaturik. Ainbat idatzi zigun «Euzkadi»-n prosaz ta bertsoz. Abertzale zintzoa baitzan, aren neurtitzak ere erri-goralpen eta maitasunez beteak genitun.

Ba-zituen beste maitasun batzuk ere. Berritu'n zegoelarik, urtero lez joan oi zan Markiña'ra, Karmen'go Amaren egunez. «Miren Karmenguari Agur» deritzan olerkian, onela dabes:

«Karmen'go Ama, Miren Garbia,
sortua orban bagarik,
iiian amasei-garren egunan
gatoz Zeugana apalik;
askatasuna Euzkadi'rentzat
Zeugandik jaritxi nairik,
bene-benetan itxaropena
Zeugan daakagu jarririk».

Amar ahapaldi dauzka poema gartsu onek, eta egun eder orretan Markiña'ra doazten zaar eta gazte guztiai Karmen'go Amari eskatu dezaioleta diotse esker ugaria, Euskalerrria dagoen uztarripetik guztion adorez atera dezagun. Gerra ostean, erria zotinka, ardiak artzain gabe, egoera itun negargarria. Olerkariaren biotz Jainko-zalea bertso jorietan bizkortzen da, galburu eldua iduri. Bilbao'n il zan.

2.—JUAN BAUTISTA ARROSPIDE ETA OMAGOXEASKOA (1869-1952)

Busturi'n jaio zan Arrospide 1869-10-7'an. Muxika'ko osagille izana urte askotan. Gernika'n il zan 1952-5-15'an, 82 urte zeuzkala. «Bizkaita; r zindo ta euzkotar agurgarrija zan, —diosku Abandotarrak—; osagille lez, erritar gustijak maite eben, ez bakarrik osagille ona zalako, euskeldunen aizkide zalako baño». Euskaldun jator eta jakintsu lez, euskeraz mintzatu: oi zan. «Izlari berrksuba zan eta izkuntzokijetan itz-egiten ebani, entzule gustijak piztuten ebazan, guztiz txalotua izanik».

Jel-azi erein garaia zan, gizaldi onen bigarren urte-amarkotik aurrera. Aldi aretan Bizkaia'n euskal izlari ta oleskari trebeak ziran ernetako batzarretan batez ere, Arrozpide, Gorgoni Errenteria, Ibiñagabeitia'tar Gal eta Enbeita'tar Kepa. Ura bai Jel-azia zabaldu bearra! Busturitarrak biztu-azten zituene beste irurak, Kepa'k bere olerkietan sarri dioskunez.

Arrospide izlari ez-ezik, olerkari sutsu ere ba-zan; laguntasun aundia eskeiñi zion beti Muxika'ko Urretxindorrari, bai bertso gintzan eta bai gexorik aurkitzen zanetan: 1929'an, Enbeita naikoa gexorik egon zan bere eztarriko gaitzepela zalata. «Euzkadi»-k, «Euzkerea»-k arpide bana iriki zuten Arrozpide'ren eskariz, eta txindi ugaria etorri zan Enbeita'ren ez-tarri bikaiña osatzeko. Orrela segi zuen berriz kanta ta kanta.

Argia zan busturitarra: lenengo ikasketak Gernika'n egiñik, osalaritzakoak Madrid'en, Paris'en eta Berlin'en burutu zituen. Bere berezitasuna; birikiak eta biotza. Arana-Goiri'ri beronek lagundu zion Sukarrieta'n bere azken orduan.

OLERKARI.—Egiazko euskalduna bezela, benetako abertzale ere ba-genduan. Abertzaleak itz-labur adierazi oi ditu bere aberriakiko ¡biozkada Idun-eztlak, oleriri-senak berojtuta bizi ba'da batez ere. Olerkari zan Arrospide, ta orrelaxe erakutsi zigun sarritan bere lan bikaiñez.

Gazte eldua zala, 1902'an, asi zan olerki lanak argitara ematen. Aien artean ona «Euzkotarrak euskotarrakin» deritzana, Aingeru Zabala'ri eztegu egunean opatu ziona (*La Patria*, 1902-3-23'an). Beste au ere ezaguna da: *Axular eguna*. 1925'an, Euskaltzaleen Biltzarra'k Sara'n ospatu zuen bere urteroko eguna, irailaren 14'an, «Gero» liburuaren ñapar idazle azkarren omenez ain zuzen. Saint-Pierre kalonjea izan zan elizizlari, ta ango erri-etxeko aretoan, Biltzarraren urteko goraberrak aztertu, ikusi ostean, Axular'i eskeiñi zitzaion merezi zu^n omen errikoi berezia, J. Etxepare'k, G. Lakonbe'k, J. M. Barandiaran'ek eta bazkuneko idazlari Jean Elizaide'k itz-egiñik. Aurretik iragarrita zegoen olerki-sariketan Arrospide'k irabazi zuen Mayi Elissague Donibanekuak eskeiñiriko makilla.

Antzerki bat ere ba-du lenengo sariz sariztatua: *Meza osteko jaya*. Antzerki au batzoki askotan antzeztua ta txalotua izan zan, bere garaian.

(Ikus *Euzko*Gogoa*, 1952, 3-4, 49 orr.; S. Onaindia, MEOE, 649 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 39 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 309 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografia*, I, 323 orr.).

3.—JOSE RAMOS AZKUNAGA ARREGI (1873-...)

Otxandio'n sortua, 1873-4-5'an. Egun berean bateatu zuen Santa Marina elizan, ordun bertako apaiz-lagun zan Bernabé Ozerin Puxana'k. Jose Ramos izena ipiñi zioten, Deunoro Azkunaga ta Fruktuosa Kastañares, biak Legutiano'koak, aita-amabitxi izanik.

Bertan ezkondu ere egin zan, 24 urte zeuzkala, ogeitabost urte zituen Tomasa Biteri Barrueta bertako alabearekin 1897-12-11 'an. Bere aitak bezela, bumi-arotz edo errementaritzatik atera oi zuen zer-jana. Geroago aipatuko dugun Karlos Azkunaga Arregi-ren anai. Ta bere gurasoen ogibideari gar aundirik ez ziolako edo, bere anaiak lez alde egin zuen Otxandio'tik, emengo eleizako ildakoen liburuetan ezta ba bere eriotzarik aurkitzen.

Araba ta Bizkai mugako erri ospetsu ontan ba-zan garai aretan euskaltzaletasunik; Arrese-Beitia, Iturzaeta, Artzubiaga ta abar idazle fiñak ziran, eta suak sua ematen: Azkunaga ere idazle biurtu zan. Azkue'ren «Euskalzale» aldizkarian «J. P. A.»-rekin izenpeturik datozen lanak —1897: «Itandua zelan, erantzuna alan», «Akiliñoren biurrerea», «Burtzalña ta laguna»; 1898: «Iaindo», «Izkirimiriak», «Amalau eta Iaindo», «Arri zukua», «Kanpai edo txiliñak», «Arrana», «Txilin itzala», «Egia ta guzurra», «Anton, semea ta astoa», «Maritxu»; 1899: «Izkirimiriak», «Peru ta Txomin», «Fraisku ta Anton», «Otzandio Vascofilori», «Txomin Bakarrik», «Kurutze Donea», «Batzoki baten eriotza bizigarria», «Itxas gertaera negargarria», «Euskalerriko neskaitillai» ta «Miragarrizko iazoera bat»— be-reak ditu ziur askorik.

Banaketan «Otzandio» ere erabilli zigun bere lanak izenperatzekoan.

Orduko beste aldizkaritan ez dakit idatzi zuenik, baiña «Euskalzale»-n ipuin, izkirimiri ta Otzandio aldeko jazoerak

gatzalez poliki zekien txipriztatzen. Euskera arin, sudur beltz maltzurrezkoa darabil geien bat, euskal jendeari atsegingarri zaiona nunbait.

(Ikus gaur Otxandio'n arimazai, dagoen Jose Astorkia'ren oar-kizunak).

4.—PRIMITIBO MALAXETXEBARRIA (1875-1948)

Axangiztarra. Aita kaputxinoa. Latin eta abar Montehano'n ikasi ondoren, Basurto'n artu zuen buruñurdunen jantzia, 1891'an. Jarraian Ondarrabi'n Jakintza ta Teolojia Leon'en ikaslaz, Leon'en bertan apaiztu zan. Bizitzarik geienean Bilbao'n bizi izan zan egotez; baiña guda-istilluak asi ziranean, Portugal'era jo ta Oporto'n jarri zuen bere egoitza; andik iru bat urtera Barzelona'ra aldatu ta emen urte batzutan gazte sarberrien zuzendari izan zan. Berton il zan 1948-11-27'an, 73 urteko zala.

Oso ezaguna zan Bizkai'n. Arima-zaintzeaz kanpo, ba-zuen egingo berezia: elizetako armcnium zaar guztiak berak konpontzen zituen.

Idazle bezela, berriz, Bizkai'ko «Jaungoiko-zale» agerkerian idatzi zigun, bere izenez eta baita batzutan «Mazelagan'dar Aya» izen-ordez ere.

5.—FEDERIKO BELAUSTEGIGOITIA LANDALUZE (1876-1947)

Laudio (Araba)'n jaiou zan 1876-9-3'an; aita, Federiko, Laudio'koa zan, eta ama, Maria Dolores, Orduña'koa. Egun berean bateatu zuen Pedro Benito Ordeñana'k. Lenengo urteetan Laudio'n eta Bilbao'n bizi izan zan, eta ez ekian euskerarik.

Ikastaroak, batxillerra, Orduña'ko jesuitetan lenengo urteak eta Chamartin'en azkenengoa, egin zizkigun. Gero, Filosofi Le-trak Eskorialen ikasi zituen; legetza, ostera, Zaragoza'n, osotu zuen, «Licenciado en Derecho» titulua ere, 1900-6-26'an, bertako Ikastetxe nagusian aterarik.

Durango'ra ezkondu zan 1907'an, Maria Ortueta Sagastagoia, Axpe'ko alabearekin: onen ama Balentin Berriotxoak *bat-teatua* izan zan; ezkondu, **Rufino del Campo**, Orduña Antigua'ko kapellau senitarteko zanak ezkondu zituen. Eta arrezkero guztian, beingoan eta betiko biotzez durangartu zalako, berton bizi izan zan 1937'rarte. Urte onetan Lapurdi'ra jo zuen, eta emen Angelu'tik, euskal-lan bikaiña burutu zigun; azkenez, Marsella ta Casablanca'tik ibilli ondoren, Bizka'ko itxas-ertzuri Arenata'ra jo zuen 1941' an, eta ementxe il zan 1947-7-23'an, 71 urteko zala. -

EUSKALTZALE.—Ezkondu aurretik, aren alabak dioskunez, txarto ta nekez egin omen zuen euskeraz, baiña al zuen guztian eta lagun zitun guztiekin euskeraz ekiten omen zion, 30 urte zitunerik batez ere. Orrela, ekiñez, zearo menperatu zuen.

Noiz asi ete zan euskeraz idazten? Erderaz ikasle zala ere idatzi zuen aldizkingietan. Euskeraz ez dakigu noiztik jarduana dugun; baiña 1918'tik aurrera agertzen dira bere euskal lanak, «Umetxoentzat», Donostiako «Euskal Esnalea»-n. Garai ontarako ederki menderatuta zeukan bere izkuntza. «B'tar P.», «Landa», «Belaustegi'tar Perderika» ta olakoak erabilli zizkigun lanak izenperatzean. Euskaltzain urgazle izan zan, lenenr gotik, Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian, 1919-10-26'garreneko batzarrean izendatua. Kezka bat zekarren biotz-muiñean: euskeraz irakatsi umetxoai. Zelai onetan egin zituen bere alegin guztiak, dozenaka liburuxka ere asmo ortaz osaturik. Ona batzuk:

1) *Por la lengua nacional vasca* (Bilbao, 1909). Bilbao Marítimo y Comercial irarkolan. 34 orrialde. Euzko-Gastedija'ren batzokian, 1909-2-14'an, irakurritako itzaldia. Gure izkuntza zarra il ez dedin, gartsuki arduratu bearra dugu. Idazten dugun guztia ere ortara zuzendu bear genuke; errez ta argi erriarentzat idatzi (Ikus «Bizkaitarra», 1909-2-20'an).

... 2) *Euskerazko ikasbide erraza. Método fácil para aprender el Euskera*. (Bilbao, 1912). Grijelmo'ren etxean. 40 orrialde. Bi eletan dator, bizkaieraz eta gaztelaniaz. Euskal gramatika bat ikusiaz, aditz-azalpena batez ere naasia iruditzen zaigulako, izutu egin oi gara. Olakoentzako da idaztiño au, iñor izutu ez dedin: norberak eskolara barik ikasteko egoki ta ariña. Gaia: itzaurre ondoren, euskal textua dator, bere itzulpenarekin; geigarri bezela gramatika pizkat, eta nola ikasi bear dan liburu ontan datorrena. Euskaldunak al zerate? Ikas ezazute euskera!

3) *Para todas las villas y para todos los euskaltzales* (Donostia, 1912). (Ikus *Euskal Esnalea*, II, 99 orr.).

4) *Umetxoentzat* (Donostia). (Ikus *Euskal Esnalea*, 1918, VIII, 27, 64, 125, 215 ta 1919, IX, 111 orr.). Ipui sorta duzu.

5) *Historia de una mujer vasca* (Bilbao, 1916). «Euzkadi» egunerokoan, gero banazean ere (Bilbao, 1931) argitaratua. 21 orrialde.

6) *Andoni Deunaren bizitzea. San Antonio Gaztea*. (Zornotza, 1919), Jaungoiko-Zale'ren irarkolan. 23 orrialde.

7) *Quiere Vd. hablar en euskera? El vascuence al alcance de todos. Guía de conversales* (Bilbao). Grijelmo'ren etxean. 42 orrialde. 31 ataletan eratuta.

8) *La unificación del euzkera* (Bilbao, 1919). J. Etxenaguski'ren irarkolan. 19 orrialde. Lan zentzunez egiña. J. Urki-xo'ren ustez, egille au dugu euskal idazlarietatik euskeraren batasunari buruz geien arduratu zaiguna. Belaustegigoitiak dioskunez, edozein euskaldunek bere-berea duen izkelgia erabili bear du aurrenik, eta gero Euskalerra osokoa, euskdgi

bakarra lez aukeratzen dana. «Indarrezko batasun ariñegia, ala ere, amets legorra dkudit», aitortzen digu J. Urkixo'k (RIEV, 1920, XI, 71 orr.).

9) *Arau nagusiak* (*Euskera.*, 1920, I, 62 orr.). Gaia: zeintzuk izan bear duten gaurkoz Euskaltzaindia'ren eginkizun nagusiak, 1920-3-24'ko' batzarrean irakurritako lana.

10) *Nacionalismo social* (Donostia, 1921). R. Altuna'ren etxean. 69 orrialde. 1907'an irakurri,ta «Euzkadi» ta «Jel» aldzkarietan nolarebait argitara eroandako itzaldia.

11) *Euskerazko batasunatzaz* (*Euskera*, 1922, III, 103 orr.).

12) *Euskerazko eskolak* (Bilbao, 1922). Euzko-Argitaldaria irarkolan. «Lenengo euskal egunetako itzaldiak» liburuxkan dator, 107-120 orr. Beste zer askoren artean, au dio euskerari begira: «Eusko-odola ez da nirea bakarrik, zurea ta guztiena baño...! Euskerea maite daigun; gurea ta guretzako egokiena da-ta; kalterik txikienik be ez dauSKU egiten, on andia baño. Gure erriaren bizitza da; euskera barik, ez euskaldun ez euskal-erririk. Erromatar, Godotar, Arabiar ta beste arerio guztien ganetik bizi da gure Erria, euskerari eskerrak. Gure bandera ta ezaugarri da; euskaldunak izatea berari zor dauSagu» (108 orr.) Durango'ko euskal jaiak, 1921-7-4'tik 8'ra ospatu ziran.

13) *Nacionalismo y confesionalidad* (Bilbao, 1931). Jesus Alvarez'enean. 46 orrialde. Bere bigarren abizenaren erdiz izenpetzen du au. «B. Landa». Itzaldi mordoa.

14) *Hacia una lucha verdad pro-euskera* (Bilbao, 1936). J. Alvarez'enean. 133 orrialde. Oso sakon eta zentzunez burururiko lana: gaurko buru-auste, istillu ta goraberak aztertu, argitu ta zuzendu naiez ari da.

15) *Juan de Izeta-Dudagoitia* (*Yakintza*, 1936, IV, 54 orr.).

16) *Euskal Lotería. Lotería vasca* (Bilbao, 1936). Jabier'ek egindako marrazkiekin.

17) *Nire Laguntzooa. Euskera ezagutzeko arriak.* (Baiona, 1939). Société d'Édition irarkolan. 12 orrialde. «Euskeralde»-k izenpetzen du.

18) *Euskeraz ikasi nai dot. Quiero aprender euskera. Jakinbide laburra. Método breve.* Makiñaz idatzita, argitaratu gabe. 104 orrialde. Angelu'n, Alderdiaren «Endara» etxean egiña. «Euskeraldie», antza, P. Belaustegigoitia'k lapur uri aretan sorturiko talde bat zan, euskeraren onerako lan zegiana noski.

Lan aukerak digutenez, laudiotar jakintsu onek kezka bizia zerabillen bere baitan, inñolaz ere aldendu eziña: iltzear ikusten zuen bere izkuntza, eta au gaizkatzearren, edozer burutu nai zuen: ikasi, erakutsi, idatzi ta elkartu. Euskalkiak elkartu ere. Euskeraentzat opa zuen batasuna etzan maiza, ez urria. 1922'garren urtean, «Euskerearen batasunatzaz» lan sakonak eskeiñi zizkigun. Gipuzkera osotua nal zuen euskera idatzirako. «Indar geyen duen gure izkelgiari lagundu bear diogu —dio—. Al-bait lasterren; gauzak berez yoaten ez utzi. Bear degun osabi-dea artzea gure eskuetan dago. Euskera maite degun^n eskuetan dago liburu ta idazkietan euskelgi bat nagusitu, Erki-arteko artu-emon guztietarako autu. Irakurlerik galdu gabe, geitu baizik, nekeak gutxitu. Errazago izango da ori Erriak itzegiten dituan izkelgietarik zabalduen, urkoen, ezagutuena izan ez-kero, indar geyen dauana; Euskal-erriko erdian aurkitu ta artuemon geyen duan Gipuzkoako izkelgia bada. Nagusitzeko lañaren erdia egiñik izango genuke» (*Euskera*, 1922, 106 orr.).

(Ikus J. Urkixo, REIV, 1909, III, 662 orr.; 1913, VII, 287 orr.; 1920, XI, 71 orr.; G. Garriga, Bol Amer. E. V., 1957, 96 orr.; Auñamendi, III, 279 orr.; ta *Diccionario*, Balzola-Bi, 424 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografía*, I, 539 orr.).

6.—KOSME DAMIÁN ELGEZABAL URRENGOETXEA
(1877-1953)

Euskeraz asko idatzi ezpa-zuen ere, euskal alorrean etzigin lan urria egikaritu. Bera dugu, beintzat, 1918'garren urtean, Bizkai'ko Aldundian geienak abertzdeak ziran garaian, lendik askoren gogoetan zetorren euskal zaingo bat antolatzeko xedea aurrera eraman zuena. Erri osoaren, edo beiñik-bein talde gain-gaiñeko baten asmotan, bizi-bizi iñarrosi oi dan burubide bat, égin-nai bat ezta egiztutzen sarri, gizaseme ausart, argi ta bizkor bat palta dalako. Oraingoan ba-zuten bear zan ori Euskaltzaindiari asiera emateko.

Bilbao'n, Artekale etxadian, jaio zan K. Elgezabal 1877-9-27'an. Marzial Garai'k bateatu zuen egun berean. Bere gurasoak: aita, Basilio, Gorozika'ko semea, ta ama, Jertrudis, Ibarruri'ko alaba. Iru mailletako ikasketak Bilbao'n bertan osotu zizkigun. Durango'ko Andra Mari eleizan ezkondu zan 1910-7-2'an, Isidra Gorostiza Ortueta'reldn, zazpi seme-alaba izanik. Abertzale zintzoa zalako, gerra ondoan gorriak ikusi bear izan zituen. 1953-7-30'n il zan.

Umetatik beintzat ez zekian euskerarik; baiña apurka apurka, ekiñaren ekiñez polito menderatu zuen. Erderaz bereak ditu lanok: 1) *Democracia y oligarquía* (*Euzkadi*, 1907, IV, 247 orr.); 2) *Un punto de Derecho Político en la historia de Bizcaya: {En quién radica la facultad suprema legislativa de Bizcaya}* (*Euzkadi*, 1906, III, 82 orrialdean asita; 3) *Crítica del Maestro* (*Hermes*, 1919, III, 415 orr.), eta abar.

Esan dugunez, Elgezabal'en euskal barrutíko lanik bikaiñena Euskaltzaindiaren sorpenari bideak urratu ta egokitzeá izan zan. Erakunde au osotu zaneke edestian dator, olako euskal alkarte berezi baten premiña adieraziaz, 1918'ko urtarrillaren 25'an Bizkai'ko Aldundian zuzenduriko idazkiaren zati bat. Bere errazoiak jartzen zituen ortarako. Ona batzuk.

«Izkuntzen gixarteko bizitza —dio—, idazle ta irakurle pillu on bat barik, ezin sendotu lei; eta ez idazle ez irakurleak izango dogu, eurek sortu bear dauzen erriyari, benetako euzkelduna izaten irakasten ezpadotsagu. Labur geldituko dira beti, bakoizdunak edo diralako, utsune au betetako batenbatzuak egiten dabezan iñungo alegin txalogarriyak.

«Lan oroen lendiko bidian agiri dira gabe orrek. Zelai muga bako bat da euzkeria edozelako naikeriyentzat. Norberen jakintzen antusia, au da ta au ezta euzkeriatzaz irakasteko, idazle geyenan alza da; iñok be eztau bere erizpena jarein gura, irauten dira aldiak eta eskarrak Jaungoikuari ozta-ozta izan arren be, zerbait aurreratzen ba gara geure lanian.

«Lenen-lenen, ba, bidia atondu bear, beragandik ondo ibilteko ta bera zuzen erabilteko. Biar-añeko notiñen Bazkun bat, aldiak bata bestiak aztertu ta al dan ondoen erabagiteko; utsunak bete; itzen ikurpena eta esanguria tñkotu; idazkera bat jarri; izkelgiak bata be ezetsi barik eta alkar geitu ta aberastuta, orobatu; idaztiyak bildu, eta azkenez, izkera garbi,makezbako, jakintz-lanetarako egoki ta erabilkorra, eusko-errien galgarria, emon dagiskun» (*Eusker*a, 1919,1920, 39 orr.).

Urte artako iraillean Oñati'n ospatu zan «Eusko-Ikaskuntza»-ren batzar nagusitik irten zan Euskaltzaindia, K. Elgeza> bal'ek gauzari eman zion bultzada ikaragarrian esker.

(Ikus *Eusker*a, 1919-1920, 39 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 311 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, III, 114 orr.).

7.—JOSE MARIA JAUREGIZAR (1883-1976)

Gure lurrak eman ditu egiazko gizonak, zintzo bezin langilleak. Nekegaitza zan Bermeo'n «Joxe komentu» esaten zioten au: gozoki-dendari, txadon-zain, antzezleri, abertzale...

Bermeo'n jalo zan 1883-7-3'an. Gaztetan gozotegi bat euki zuen bere gurasoekin. Ogibidez ortan lan egiñik ere, erriko bearrian eta arazoetan kezkatu oi zan, arrantzaleen ezal-di ta estuasunetan batez ere biotz-aundiko agertuaz. Erritar zituen, eta odolak odolari dei.

1907-2-7'an Begoña'n ezkondu zan Julia Ugalde Larrauri'gaz, bermeotarra au ere, ta iru alaba ta bi seme izan zituezan; semeetatik bat, Joseba, ontzi-burua, Zornotza'ko alaba Bego Bilbao Olabarri'rekin ezkondua, itxasoan aldendu zan ekaltz gogor baten; besteak bizi dira.

Zentzunezko kristau zanez, beti jokatu zuen bide artezez arimako gauzetan. Ez dakigu noiztik, balña urte askotan izan genduan Bermeo'ko eliz nagusiko txadon-zain, eta komentu baten bezela ixil ta langille bizi zalako jarri zioten erritarrak «Joxe komentu» ez-izena. Abots ederrekoa zan, eta makiñatxo bat kanta abestu zuen Andra Mari elizan. Eliz onetan, goialdera margo eder batzuk dagoz Uranga donostiar margolari bikalñak eginda; gure txadon-zalñaren irudia ere bertan agertzen da duinki.

Antzezleri bezela, eder zitzaion euskal antzerkia. Aspertu gabe saiatu zan bere bizitaldi osoan abes-bazkunak eratu, indartu ta antzerkiak jokatzen. Bere errikide Julen Urkidi euskal idazle fiñak, onela: «Euzko antzezleri ona zan. Abeslaria ere abots zoli ta lodikoa. Berau ikusi ta entzuteko, albo errietatik, emakume ta gizonezkorik nalkoa etorten zan Bermeo'ra. Batez ere, Ortuzar jaunaren «Oroigarriak» antzeztuten ba'zan» (*Goiz-Argi*, 1976, 11-6'an, 23 orr.).

Maite zuen bere Aberria, beronen doai, edertasun eta akats guztiekin. Euskera baltik bat. Amaren altzoan artua obeto ikasi ta ugaritzen arduraz jokatu zuen. Euskeraz idatzi zizun, gerra aurretik «Euzkadi»-k zeukan «Euzkel-Atal»-ean, eta gero «Agur»-en eta erriko agerkietan. «Karmel»-en eta «Olerti»-n ere ba-dituzu aren lanak; balña ia urtero Bermeo'ko Udaletxeak

oso apain argitara oi duen erriko jai-egitarauan idazten zuen. Autuan eder zitzaion entzuleen par-eragitea. Idatzietan orobat, beti jarri oi zigun olako gatz-pikortxoren bat. Euskalerriko al-dizkari guztiak artzen zitun, arpidetuta bait zegoen.

Urkidi'k berriz ere: «Gizon maite ta errikoia. Iñori kalterik ez egitekoa: baiña barregillea danarentzako. Ala ta guzti ere, espetxean baten baiño sarriagotan ikusi eban bere burua» (Loe. cit.).

1976-10-21'an il zan Sondika'ko Larrondo'n, emen bait zitu-
tuen eman azken urteak bere alaba ezkondu batekin. Urrengo egunean Bermeo'ko Mendiluze obitegian lurra eman zitzaion. Lurperatu aurretik, bere gogoa zanez, iru margozko ikurrin magalpean euki zuten bere soin illa. Goi-aberrirako bidea artzean beekoari agur egin nai xamurkiro.

(Ikus J. Urkidi, *Goiz-Argi*, 1976-11-6'an).

8.—KARLOS AZKUNAGA ARREGI (1884-...)

Otxandio'n jaio zan 1884-11-4'an. Bere aita: Jorge Azkuna, Legutiano'koa semez ta errementaria ogibidez, eta ama, Josefa Ramos Arregi, bertako alabea. Jaiotz egun berean uguztatu zuen Migel Axuria'k, Eustakio Olabarria ta Frantziska Arrese alta-amabitxi izanik. Otxandio'n bertan ezkondu zan 1910-1-8'an, uri artako alaba Juliana Goikolea ta Urigoitia'kin.

Ezkondu ta gero, bere emazte ta seme-alaba mordoaz, Izurtza'n bizi izan zan luzaro, emen ere, len Otxandio'n lez, Bizkai'ko Aldunetxearen landara mintegia zaintzen. «Ixurtzako «Baionaurre» etxebarri politean bizi izan zan —diosku N. A. G. ixurtzar idazleak—. Dolometa mendiko Diputaziñuaren landara-mintegia gordetako ardurea eukan, era 1936'ko gerratea bai-

ño urte batzuk lenago joan zan Ixurtzatic... Nere amak esaten dau gizon ona zala, euskeraz berba egitea gustetan jakona, tratu begiratu ta onekua danakin eta estimetan ebela errian».

Euskaltzale gartsua zan, bere anai Jose Ramos zan lez. Bizi zan erriko berriak bialtzen zituen, maiz samar, Donostia'ko «Argia» asterokora. «Alluitz» izengoitiz idazten zigun. Eta idazle berberak onela: «Euskeraz Barri-emoteillea izan zan ez-kero, bere izena ipiñi bearko da Euskal Idazlien artean, idazle apalen artean bada be».

(Ikus Berriotxo anai, *Egan*, 1966, 1-6, 139 orr.; eta gaur Otxandio'n txauburu daukagun Jose Astorkia'k bialdutako eliz-agiriak).

9.—IMANOL ENBEITA ERRENTERIA (1884-1946)

Kepa Enbeita, Euskalerriko urretzindorraren anai duzu Imanol, euskal idazle pina au ere. Muxika-Areatza'n jalo zan 1884-10-24'an. Bateatu ere egun berean egin zuen Jose Antonio Etxebarria jaupariak, alta-amabitxiak Manuel Mintegia, axangiztarra, ta Modesta Enbeita, muxikarra, biak baserritarrak, izanik.

1908'an, Ameriketara joan zan Hale'n bizi izanik. Bilbao'ko «La Gaceta del Norte»-n onela ziotsan Kepa'k:

«Gaur nago^ Manu, agur gozo bat
zeuri egin biarrian,
esanaz: Jauna'k lagun daizula
itxasoz eta lurrian.
Baña bixi ta il zaltiala
asaben Lagi Zarrian».

(1908-12-2)

Amalru urte erre zituen Hale'n ofiziña bateko idazkari. Urte mordotxu ortan idazki ta olerldrik asko alkarri egin zizkioten

bi anaiak. Epe orri betea eman zionean, Usparitxa bere base-
rriara itzuli zan berriz ere, eta 1921'an, Urkiola'n ezkondu zan
Gernika'ko alaba Balentina Barrena neska gaztearekin.

Kepa garai artan, osasun billa joanda, Bialzteri (Laguar-
dia)'n aurkitzen zan, baiña txori bizkorra aize bigun zear be-
zela, Urkiola'ra egaz egin zuen bere anal aspaldi ikusi gabea
poz eztitan aurkitzearren. Ondoren «Urretxiñola beren maltiaz»
deritzan neurtitz sentikorra eskeiñi zion. Ona len-aapaldia:

«Ozkarbi dago, aixe biguna,
pozkarritzkoa da gaurko eguna.
Bialzteri'tik Urkiola'ko
torrera egaz ein dot beingoko.

Emen alairik
nago begijok urten biarrik,
gauza gustijak ikusi nairik».

Ezkontza zoriontsu ontatik iru seme-alaba jalo ziran: Jose-
ba, Gotzone ta Itziar. Senar-emazte ta seme-alabak, ordea, Ke-
pa'k opa zien bezela, alkar maltasunean bizi izan ziran, Jainkoa,
urko-laguna ta erria biotzez malte izanik.

Geroztik, Bilbao'n lan egin eta bizi izan zan. Azken gerra
aldian Prantzia'tik ibilli zitzaizgun; baiña guda bukatzean, etxera
jorik, Gernika'n jarri zuen bere sendiak in egoitza. Lan, baiña,
Deustu'n egiten zuen, jesuiten **Ikastetxean**, «Jesus'en Biotza-
ren» Egutegian batez ere. Gernika'n il zan, beretarren ondoan,
1946-11-7'an, 62 urte zitularik.

EUSKALTZALE.—Gurasoak etxean ereindako aziak, beti ere,
erne ta arnari onak ekarten. Imanol Enbeita'k, ziñez ta miñez,
malte zuen amaren altzo epelean ikasitako euskera, ta gogoz
eutsi zion oni, nalz erbestean nalz beretarren artean^ bere bi-
zitza osoan. Gaztetan bere estudioak egin zituen arren Bujedo'n,
etzan aln ikasia ere; baiña ikasi ta idatzi berea atera zion
berezko antze-trebetasunari.

Erri-maltasuna ere amaren bularrakin edoski zigun nunbait. Azibidez eta pentsakeraz bere garaikoa genduan, garako gizon egin zanetik batez ere. Euskalerrriaren zain eta muiña ondotxo ezagutzera iritxi zan. Orrela agertzen zaigu bai bere idaztietan. Asko idatzi zuen, «Euzkadi»-n eta «Euzkerea»-n baitik bat. Etzan azal-arro ere ibilli, argiaren laztanpean bere lanak ariltzen saiatu baiño. Eta ark idatziai, jakiña, erri-nortasuna, kutsua, arnasa darite, erle-opillari ezta bezelatsu.

Etzan erriz erri bertsolari gisan ibilli, bertsolari ona zan arren; etzuen abotsik. Idatzi, ordea, esan dugunez, asko idatzi zigun, bertsotan eta itz askatuan. «Ibaizabal»-en, «Euzkadi»-[^] «Euzkerea»-n, Zornotza'ko «Ekin»-en eta «Gipuzkoarra»-n datoz aren lanik geienak. «Enbáta'tar Imanol», «Garbi-nai» ta «Uribitarte'tar Ibón» erabili zizkizun lanak izenpetzeko. 1931'tik 1936'ra ia egunera idatzi zuen zerbait, «Euzkadi»-k zeukan euskal arrian; eta azken iru urteetan berak eraman zuen dalako orri orren zuzendaritza ere.

OLERKARI.—Aita bertsolari zuen Imanol'ek, baita anai Kepa ere. Berak, aagatik, ezin etsi gutxiago izanez, eta bi oien jariora nai zuen alanbearrez. Kilkerrak oro kantari, naiz-ta ez berdintsu.

Noiz asi zitzaigun Imanol biotz barnean pil-pil zekazkin bertsoak jaulkitzen? Gazte zalarik, noski. «Ibaizabal» astero-koan dator irri-olerki bat, *Bei zarren bertsuak* deritzana, amabi aapaldikoa, Muxika'ko Enbeita'tar Kepa, Imanol eta Xanti'ren artean, txandaka, eratua. Amabi aapaldietatik sei bereak ditu Imanol'ek. Bei batzak dakigunez, batzerakoan, adarrak dantzatu oi dituzte; Imanol zan emen beiar esnea jetsi bear ziona, eta ortarako etzuela ganorarik Kepa'k arpegira bota zionean, erantzun zion anaiak:

«Ni baño geyago dok
bei zar au indarrez,

ostikoka eiten yok
ganera adarrez;
esnerik ezin kendu,
ta eu ortik barrez...
Pazentzirik artzen gaur
etzeakoat errez!»

(1902)

Orrez gero, berrogei ta lau urtetan, amaikatxo aldiz olerkia-
ren ariak dardarazia dugu. Bilbao'ko aldizkingi «Euzkerea»-n
datoz bere koplarik ederrenak. Nolako olerkari ote dugu? Kepa
bere anaiak abestu zuen beiñola:

«Olerkaririk gorenengua,
abesten dauna gotzon-irudi;
zindo, zolija ta arteza, barriz,
orratz-arija bera dirudi».

Eta zentzuna duen koplari dugu, izan ere. Gauza bakun eta
xaloak asko zituen neurtitz apaiñak biribiltzeko. Gaur erria go-
resten ba'digu, biar lugiñaren naiz eta artzaiñaren bizi-molde
bipilla.

Euskera bizi, errikoian ari zaizu beti. Arana-Goiri'ren esko-
lako, dudarik gabe, ark bait zigun erria maitatzen erakutsi.
Merezi lake onen lanakin ere bilduma bitxi bat osatzea. Egin-
go ote?

(Ikus *Ibaizabal*, 1903, bigarren urtea, 63 geia, 4 orr.; *Euzkerea*,
1931, azillak 15, 752 orr.; S. Onaindia, MEOE, 689 orr.; Auñamendi,
Literatura, III, 274 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, 135 orr.).

10.—ZIRILO URIBE TA BESOTTAORMAETXEA
(1887-1973)

Durango'n jaio zan euskaltzale zintzo au 1887-7-9'an. Santa Ana eleizan bateatu zuen Anizeto Iturriaga'k. Ezkondu ta bost seme-alaba izan zituen. Bizi, alan ere, Berriz'ko Oka'n ur-jauzian bizi izan zan, ia bere bizitzaldi osoan.

Berez ikasia besterik etzuen arren, gizon landua zan asko irakurten zuelako. Euskal bertso-paperak eta liburuak irusten zizkigun. Baita berak idatzi ere, Berriz'ko Udaletxeak erriko jaietarako ateratzen zuen Egitarauan eta. Bein, olako jaietan, bertsolari-txapelketa zala-ta, malko egin bear izan nuen; arrezkerokoa izan zan gure alkar ezaguera. Origatik ainbat olerki pixi argitaratu nion «Karmel»-en eta «Olerti»-n. Bere seme-alabak dute, gaiñera, pillo eder bat argitara emateko asmotan.

Lursagarra txiroen janari omen. Lapiko nai zartain, ondo jarten da, artean aragia naiz arraiña ba'ditu. Sabela gozatzeko ezta txarra, baba naiz urdaidun eltzari emana. Apaltzeko ere, ederki datorrena.

«Eta apaltzeko zara
arin goxoenik:
porru-naste berdean
ortik naiko janik,
ez dozu iñoiz izango
ameseta illunik»,

dio xotilki. Lursagar pitin, gazte, guritxoák zitzaizkion: eder. .

(Ikus *Olerti*, 1960, II'n. urtea, urrilla-lotazilla, 218 orr.).

11.—FRANTZISKO M. UGARTETXEA URKIETA
(1888-...)

Karmeldarren artean Aita Joxe Domingo, Markiña'n jaioa du, 1888-9-23'an, «Santa Tekla» baserrian. Larrea'n artu zuen karmeldar jantzia 1904-4-14'an, eta eliz karrera amaitutakoan, Gazteiz'en apaiztu zan 1913-9-20'an. Musikalari bikian, ia bere bizitzaldi osoan —Gazteiz'en, Erroma'n, Larrea'n eta Markiña'n—' egin izan du gazteen kantu-irakasletza ta organojotzea. Gaur ere, oraindik, ortan diardu.

Musika-lan asko osotu ditu Aita Joxe Domingo'k, Meza, Gabon-kanta, Ereserki, Txistu-doiñu ta abar. Sustraz ezagutzen du eliz-musikea eta Gazteiz'en zegoela batez ere, aomen aundikoa zan sail orretan, ango musikarieren artean itzal ez gutxiko. Atsegin izan zaio beti gregoriar kantua, ta orri eutsi ta gure eleizetan zabaltzeko bere biziko alegiñak egin izan dizkigu beti. Polifonia ere, ta kontrapuntua bereziki, maite ditu ta ari ortan ainbat lan burutuak dauzka, meza-arloan, adibidez; abesbatzéz kantatzeko bi meza «Pastoralis», «Euskal meza barria» ta abar; bere «Stabat Mater»-ek ere oiartzun zabala izan du. 1914' ari asita sariak ere ez ditu gutxi jaso.

Markiñar argiak begikoen duna euskal musika da. Berak biribildutako Gabon-abestiak, orfeoietarako «14 Canciones Vascas», «Agate Deunaren Abesti txorta» ta olakoak muñarri bikain ditugu bere musika-edestirako, Ez dezagun aztu karmeldar jai ta santuen elizkizunetarako bear diran berarizko kantu gutiekin ornidutako «Florilegio Carmelitano», euskeraz ta erderaz. Ezta, ez aztu Simon Bolibar, jatorriz euskotar eta jaiotzez amerikarango errialde askoren Askatzaille izanari atera ta aren Eunurte burua zala-ta abestu zana ta gaur ere munduan zear abestuten dana.

Aurten —1976— 88 urte ditula, omenaldi ederra eskeiñi dio Markiña'ko erriak. Ortarako, beste gauza aintzagarri: as-

koren artean, berak, Aita Joxe Domingo'k aurretiaz egiña zeukan «Markiña'ri Ereserkia» abestu zuten lenengoz eta kalerik kale. Goizean, amar ta erdietan, erriak eta Durango'ko orfeoia abestuta alkar meza Xemein'go eleizan; Arregi, Murgategi ta Erlatx bertsolarien ekiñaldia, «Zerutxo»-ren dantzak eta abar; azkenean, erriko pelota leku apaiñean egin zitzaion, Ansola anden txistu ta abesti tartean, «txapela» ta beste maite-erakutsiak ematea.

Benetako euskaltzale, Aita Joxe Domingo'k lan ederra gailendu du euskal arloan, musikaren bitartez alegia. Bere lanai euskal izkia jarten, beti arduratu izan zaigu.

12.—GABIREL MANTEROLA URIGOITIA (1980-1977)

Langille zail, nekegaitz ta euskaltzale trebe. Apaiz ona, ta apaizgoan dagozkion eginkizunai gaztetatik lotua. Kristoren itza ta Jaungoikoaren erreinua, lumaz ta mingaiñez —aitortegian atan ere— zabaldu ta arimetan bizi-azten alegiñak alegin egiñikoa. Gaur berton, 86 urte bizkar gain daramazkin arren, ortan ari izana. Euskaltzale eredugarria, euskeraren onerako batzar guztietara jo oi zuen beti, bere agiriz ta solasez batzarkideak poztu, azkar-azi ta indarra eman naiean.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.—Gizaseme jakitun —Urraburu, adibidez— eta erlijio-landan batez ere, seme-alaba askoren erri emakprra duzu Zeanuri. Ementxe jaio zan Manterola apaiza 1890-3-17'an, Arregla kalean; urrengo egunean bateatu zuen Uribe'tar Jose Antonio apaiz laguntzailleak. Gurasoak: Florentino Manterola Gortázar, Zeanuri'koa, ta Nikolasa Urigoitia Eizaga, Gaztslu-Elexabeitia'koa. Aitita-amanak: aitaren aldekoak, Tiburtzio ta Frantziska, zeanuristarrak, eta amaren aldekoak, Fruktuoso, Otxandio'koa, ta Estef ana, Galdakano'koa.

Umetan bere errian azi ta ikasia dugu, guraso Jainko-zale ta langilleen gerizpe goxoan. Gaztetan baita, Gddakano'n bere osabeagaz bizi zala, goi-deiak bultzatua, Erruperto Aranategi apaizarekin ikasi zituen latin iru urteak, iru urte auek batera. Gazteiz'ko Apaiztegia sartu aurretik, azterketa batean ontzat emanaz. 1905'tik 1913'ra, iru urte Pilosopi ta bost Teoloji ikasi, ta urte berean apaiztasuna artzeko naitaez bear zuen adiñari zain egon ondoren, 1914'an egin zan jaupari, Prudenzio Meló Gazteiz'ko gctzai zalarik.

Apaizgoa artu besterik ez, eta 1914'garrenaren amairantza Eibar'era izendatu zuten, eta ementxe bizi izan zan apaiz-laguntzaille ta moja kapillau, arima arloan buru-belarri sartua, eta euskal idazlaritzan lanik asko egiñez, 1936'rarte, ots, anai arteko burruka sortu zitzaigun arte. Urte auetan Ingalaterra'ra jo zuen ume-talde batekin, Bizkai'ko agintariek aurtxo aiek zaindu zezan aukeratuta. An egona duzu ondoren 1948'rarte. Urte orretan Euskalerrira biurtu, ta Zeanuri'n daukazu arrezkero, gaur arte, abade-laguntzaille ta idazteari atxikia. Euskaltzain urgazle, ohorezko.

EUSKAL IDAZLE.—Ugaria duzu Manterola, oparotsua benetan, anitz gai ikutu ta aztertu dizkiguna, naiz eliz-kutsukoak nalz gizartean dagozkionak. Eibar'era aldatu ta laster, 1916'an, asi zan idazten, eta etzaion geroz etdoitu bere luma azkarra, ezta auldu ere «Agur»¹en emandako artikuluetatik ikasi dezakegunez.

Zornotza'n sortu-berri zan apaiz-alkarteak ateratzen zuen «Jaungoiko-Zale»-n agertzen zaizkigu bere lenengo lanak. Zenbaki bakoitzean bi naiz iru bat lan eman oi zizkigun. «Gama», «Mitarga», «Urigoitia», «Gabirel», «G.» zerabilzkin lanak firmatzean. Illoroko zan «Jaungoiko-zale» asteroko biurtu zan «Ekin» izenakin; emen ere iru lan ematen zituen Manterola'k zenbaki bakoitzean: olaxe 1936'rarte. Baita idatzi izan du «Euzkadi»-n, «Zeruko Argia»-n, «Yakintza»-n, «Argia»-n,

«Rarmel»-en, «01erti»-n, «Redención» eta «Agur»-en. Guzti ontaz gaiñera, Kristau Ikasbide ta Liturji-arazoak ere etzion neke gutxi ekarri.

Emen argitara eman dizkigun libururik beiñenak:

1) «*Jaungoiko-Zále*» *bazkunaren urteroko elizkizunean egiñiko itzaldia* (Zornotza, 1920).

2) *Goi-izpiak* (Zornotza, 1921). «Jaungoiko-zale» irarkolan. 113 orrialde. 42 neurtitz. Egilleak onela: «Giza-biotzak yoranez beragandu gura dituan Egia ta Zorunak, ludi onetako gauzetan susterrik eztauke; eguzkiaren izpi beroen antzera goitiko igaliak dira; norberregandu gura dituanak ba, nai ta naiz ez adimen biotzak goirantz yaso bear. Auxe dala-ta, gai onetzaz urte bi oneitan egin dituan itz-neurtu geyenak, aizkidetasunak bultzatuta, egilleak idaztitxo onetan esitu dituanean, GOIZPIAK izentzat ezartea otu yako». Baita jakingarri duzu Oxobi'k zesan au ere: «*Goi-izpiak* bezalako liburu batek erakatsiko dakote bizkaitar eta gipuzkoar umeeri eskuara, Euskalzainburuen mintzaldi eta idazki guziek baiño lasterrago*. Eta bertzalde, eskuararekin batean, haur horiek hartuko dute gogo bihotzetan barna *irakatsi kistarra*» (*Gure Herria*, 1922, 51 orr.). Eta *Jesus'en Botzaren Deya*'k: «Jaungoikoa ta euskera benetan maite dituztenentzat guttiz egoki ta atsegingarriak dira *Goi-izpiak*. Izker a garbi ta leunezko lorez apaindurik eskeintzen zaizkigun neurtitz auker entzumena atsegiñduaz biotza berotu, ta burua goi-argiz beterik uzten dute» (1923, 350 orr.).

3) *Lenengo Euskal Egunetako itzaldia* (Bilbao, 1922). Durango'ko Udaletxean emanikoa duzu. Euzko-Argitddariak atera zuen.

4) *Porziunkula Nekazka* (Zornotza, 1924). Ozerin Jauregik egiña, euskeraz.

5) *Santuen Bizitza laburrak* (Bilbao, 1925). Euzko-Argitaldaria'ren irarkolan.

6) *Ipuintxoak* (Zornotza, 1929). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. Kristobal von Schmid (1768-1854) doixtarraren ipui-sail bat euskeraz. 1934'an berriz argitaldu ziran.

7) *Agirre euzkeltzale* (*Yakintza*, 1934, agorri-urrilla, 323 orr.). Txomin Agirre'ren goratarrez idatzia.

8) *Goi-izparrak* (Zornotza, ez dakar urterik). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan.

9) *Y esu-Kristoren Nekaldia*. Bilbao'ko Coliseo Albia antzokian antzestu ziran Kristo'ren Nekaldiari buruzko 40 irudi.

10) *Gabonetako Antzerki Yaunkoya*. Berrogei Gabon-irudi, euskeraztuta. Bilbao'ko Coliseo Albia'n antzestu ziran auek ere.

11) *Gotzai-idazkiak*. Guda aurretik Mateo Muxika gotzai-ñaren idazki guztiak Manterola'k bakarrik bizkaieraz jarri zizkigun, baita geroago Morcillo'ren lenengoa ere.

12) *Irugarrengoen Irakaslea*. Bizkaieraz ipiñi zuen au ere, urte askotan.

13) *Itzulpenak*. Geroztik, bai ingletetik bai prantsesetik gaztelera ere itzuli ta osotu ditu liburu batzuk. Ona:

a) *L'enseignement de la Moral chretien: La enseñanza de la Moral cristiana* (Bilbao, 1952), J. Leclercq'ena; b) *La vie du Christ dans son Eglise: La vida de Cristo en su Iglesia*. Leclercq'ena au ere. Lau argitalpen izan ditu: 1950, 1952, 1961 ta 1964; d) *Christianismes et christianisme: Cristianismos y cristianismo* (Bilbao, 1952), Gustavo Thils'ena; e) *L'homme nouveau: El hombre nuevo* (Bilbao, 1953), Lovaina'ko «Etu-des Pastorales» -etik; f) *Doctrina espiritual de Don Marmión* (Bilbao, 1953), Thibaut'ena; j) *The physical phenomena of mysticism: Fenómenos físicos del misticismo* (Bilbao, 1953), Herbert Thurston'ena, ta abar.

Argitaratu gabe dauzka auek: *Kristau-Ikasbidea* ta *Yesu-Kristoren Alatzak* (mirariak); eta azken urteotan egiñiko itzulpen au: *Maria'ren Lejiñoaren aintzat emandako Esku-idatzia* (The Official Handbook of the Legión of Mary). Ingalterra'n

zegoela Shakespeare'n izkeraz ere zerbait biribiltzen saiatu zan, liburuxka auek berak osotuak ditu beintzat: «On Truth», «Common Sense Truths», «On Peace and War»; etzuen argitaratzeko astirik izan, eta euskerara biurtzeko asmotan zegoen.

Gure Gama'k badu beste zerbait ere gogotan eukitekoa, zertzelada egokia noski: 1914'an, Jesus'en Biotzaren irudia, etxeetako ateburuetan ipintekoa, bakoitza errealean saltzen zituztela ta ondoren, «Jaungoiko-zale»-k urte askotan ormairako argitaldu zuen Egutegian ainbat lan egin zuela.

OLERKARI.—Kopla meta aundia du Manterola'k or-emen-go aldizkarietan azalduta, «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en, «Zerako Argia»-n, «Karmei»-en, «Olerti»-n... Nik, 1966-11-18'an, liburu ontarako bere lanen zeaztasun batzuk eskatu nizkionean, onela jardetsi zidan: olerkiak egitea beretzat asazkaldi bakarririk izan omen dirala, iñoiz ere ortan ari izateko asmu aundi gabe. «Ille onen 25'garrenean —ziosan— betetan dira 52 urte lenengo bertsoak egin nituala. Ilbarri dan nire adizkide kutun Ibartutxi (G. B.) jaunaren eguna zan. Eta ez dakit zelan «zorionak» emotea bertsotan urten eustan. Nire altalta bertsolaria zan, eta aren «axeak» bultzata nonbait. Bera (Ibartutxi) aurkitu nebanean, esan eustan: «Zuk bertsoak be aterako zeunkez?» —«Uste dot bayerz».

Orduntxe asi zan olerkigiñen. Lenengoa zein? *Gentza, fauna*], «Jaungoiko-Zale»-n 1918-1-1'an argitara emana. Ondoren, zoipean dagoan saguarena jazo zitzaion: bein lotsea galduz gero, ta irtenaldi geiago ta ausartagoak, alegia. Aurrerantzean geratu barik ondu zizkigun Gama'k poesi lantxoak, errez ta goxo, kistar mamiñez aseak. Berak onan: «Gero asazkaldi yarraituaz 200'tik gora argitaldu ziran «Jaungoiko-zale» ta «Zeruko Argia» aldizkingi ta asterokoetan. Oneitatik «J. Z.»-?n 1925'tik 1931'ra, 34; aurreko sei urteetakoa ez dakit, «J. Z.»-en zati bat baño ez daukat eta. «Ekin»-en 1932'ük 1936'ra, 50;

England'en nengoala, 50'tik gora dira idatzi nituanak, argitaldu bakeak. Beste batzuk «Vida Vasca»-n eta abar» (1969'an egin zidan eskutitzean).

Sakon ariñak dituzu Manterola'ren olerki-lanak, joskera ta neurkera bikaiñez biribilduak.

Bakatzeko, bego emen Mikel Zarate'n iritzia. «Euskal idazle ona da Manterola —dio—. Baiña, garbikeri giroan bizi izan da-ta, ba-ditu garbikeri batzuk bere idazlanetan, gaztetan egin-dakoetan, batez bere» (*Bizkai'ko Euskal Idazleak*, 238 orr.). Ala ere, neretzat beintzat, atsegiñago nunbait, Manterola'ren garbi idaztea gaurko askotxoren mordoillo-idaztea baiño.

Zeanuri'n il zan 1977-7-6'an. Urrungo egunean illetak erriko Andra Mari elizan, arratsaldeko 7,30'etan. Jose Maria Uriarte Gotzai jaunak mezea ta itzaldia, ainbat eliz-gizonek lagunduta. Erri osoak betetzen zuen eliza. An ziran Euskalerriko euskal idazle punterengo ta abar ere, Euskaltzaindikoak buru zirala.

(Ikus Oxobi, *Gure Herria*, 1922, 49 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1954, 652 orr.; Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1951, 144 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 1966, 138 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 127 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 1970, 238 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 539 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 1971, 126 orr.).

13.—GOTZON URRUTIA ZABALINTXAURRETA (1890-1975)

Langille porrokatua, euskal arloan ere. Oraintsu oraindik, 85 urte bizkar-gaiñ zeuzkalarik, gure kezka guztien batzarretara agertu oi zitzaigun, beti iztun eta jakintsu. «Urtez zarra izanagatik —diosku ia astero Tolosa'n egurats-lagun izan oi zuen A. M. Labalen'ek— biotzez gazte ziraun beti eta lanerako adoretzu bal Jainkoarentzat, bai Aberriarentzat. Osasunez makaldu zanean ere, ez zuan azken egunak arte bere egin-bearra bete-tzeari laga... Apaiz eta euskaldun neurrian gizon oso ta goimallakoa» (*Agur*, 1975-bagilla-21, 2 orr.).

BIZITZ-ORRIAK.—Nabarniz, gaur Gernika'koa erriz, ospetsua izan zan aintziña baten ere. Zazpi auzo ditu, zazpirak eder. Auetako baten, *Ikazuriaga*'n jaio zan Gotzon 1890-5-7'an, arratsaldeko zazpiretan. Lau anai ta bi arreba izan ziran. Amabi urtedun zala, beste bi anaiak lez, belguntzarirako deia barruan sumatu ta, Justino Mugira-Uruburu ta bere lengusu zan Jose Zabala-Arana'rekin, Balmaseda'ra joan zan ikasten. 1905'an Segovia'ra aldatu zan lekaidegaitzea asteko; iru botoak eta Filosofo'riko iru urte ikaskizunak ere ementxe osatu zituen. Oskabarte edo Santo Domingo de la Calzada'n ikasi zizkigun bost urtetan, A. Arriandiaga irakasle zalarik, Urtziztia, Zillegiztia ta Eliz-legeak. Aranda de Duero'n jaupaldu zan 1914-8-23'an. Antxe bertan irakatsi zuen aurrenik, eta urrengo urteko iraillean asita Balmaseda'n latin eta abar, ango gazteai. Ondoren, 1916'tik 1922'ra, Oskabarte'n irakatsi zuen Teolojia batez ere.

1922'an, Eusko-Ikaskuntzak Gernika'n eratu zuen Batzar ospetsua. Aita Urrutia'k, Elizak izkuntzal dien begirunari buruz, itzaldi sakon, argitasunez ondo egiztatua bota zuen. Sasoi aretan Gazteiz'en gotzai zegoen Eijo ta Garai'ri ez zitzaion egoki iruditu ta bere goterkitik bota zezala Aita ori eskatu zion ordenako nagusiari. Ta andik laster, 1923-1-7'an, Zafra'ra, Betika'ko probintzira eldu zan, an Urtziztia erakusteko: Arturo Tabera kardinala, Peinador bi anaiak, Augusto Andres Ortega ta olakoak ikasle izan zituen. Bi urte irakasten egindakoan, Jaen'go lekaidetxeko nagusi izan zan, baita Ubeda'koa ere.

Gero Sevilla'n eta Asturias'en egon zan. Erleak agertu zanean, ordea, Paris'era bialdu zuten, an aurkitzen ziran langille españarrai laguntzeko, 1934'rarte antxe jarraiturik. Urte orretan Gijon'eko nagusi izentatu zuten, ordenakoen lenengo ta bigarren Irakaskintzako etxekoa noski. Ementxe zegoela gertatu zan 1936'garren urteko gerra. Bizkai'ra etorri, bere mendekoak ere asko beintzat onera ekarri, ta emen ibilli zitzaigun izlari azkar, berak dioskunez, garai artan ere ainbat itzaldi —Santuenak, berderatziurrenak, irurrenak eta abar— or-emen egiñik. Orduantxe,

aguztuaren lenengoetan ain zuzen ere, Otxandiano'n ibilli zan, A. Zabala-Arana'rekin batera, gudarien jaupari. Makiñatxo bat gorabera izan zuen gudaldian.

1937-6-8'an, ordea, Euzko-Jaurlaritzak eskatuta, ta bere nagusi zan Munarritz Aitaren eta Gotzai ordez Bilbao'n zegoen Erramon Galbarriatu'ren baimenakin, Gorlitz'ko umeekin Prantzira aldatu ta Saint Christau Oloron ondoan egon zan lenda-bizi ta gero Normandia'n. Azkenez, ordenako nagusien eska-bidez ta, ordezkoa aurkitu ostean, euzko-agintariakin gauzak argi jarririk, 1938-4-1'an Londres'eratu zan. Emen ere etzan geldirik egon: aurrenik euzko-umeekin, gero 1939'an ludiko bigarren gerra sortu zanean, Gibraltar'etik eta Beljika'tik ara joan edo eramandako askori laguntzen zien. Inglesez laster ikasi zuen, eta Shakespeare'ren izkuntzan itzaldiak egitetik ere etzuen iñork atzeratu. Gizarterako samur ta egokia zan; aginterako trebe ta asmotsua. Beraz, an bertan ordenako sar-berrien maixu izendatu zuten lendabizi. Teolojia ikasten zuten gazteen buru gero, ta Ingalterra ta Irlanda probintziko buru azkenez. Zuen izakera gozo ta txeratsuz Elizaz kanpo zebiltzan asko ere fedezko bidera ekarri zituen.

Urte mordoan erbestean emanda, 1970'gneko udaran itzuli zan berriz Euskalerrira, ta Tolosa artu zuen bizilekutzat. Bere zartzaroan ere, soiñez ta adimenez argi ta sendo, lanari ekin zion, itzezko ta lumazko lanari alegia. Baiña mendietako tantaiak ere jausten. Eta gure Aita Gotzon egun batez biotzetik gaizki xamar zebillela-ta, Donosti'ko mibisustarren komentura aldatu ta antxe itzali zitzaigun 1975-4-28'an.

EUSKALDUN.—Egiñetatik neurtu bear dugu gizona, ez itzetatik. Ba-da ziorik euskaldunagatik esateko: «itzetan labur, egi-tetan luze». Orrela genduan Aita Urrutia. Beronek dioskunez, Segovia'n asi zan Euskalerrira ezagutzen; Gabin Garriga ara

joan eta an *Ami vasco* ta AranarGoiri'ren idazti batzuk irakurri zituanean jabetu zan euskal gogo ta izakeraren edestiaz, Os-kabarte'n, ordea, Aita Arriandiaga izan zuen irakasle.

Izlari ona zan, eta an-or eta emen amaikatxo itzaldi bota zuen bere bizitzan. Idatzi zuena ere, bal euskeraz bal erderaz, ezta urria. Euskeraz ondo zekien; lenengo etxean ikasia ta gero ikastaroetan Kanpion'en gramatikaz baliatu zitzaigun umeta-koari osotasun geiago ematearren. Ondoren, berak ere zerbalt azaldu gura euskal aditzari buruz, ta au diosku: «Euskal-aditzaren sustraiak azalduko «El Verbo Euskérico» idatzi neban. Idaztiño ori Zabala-Arana'tar Joseba'k argitaldu eban Tolosa'ko gure adiskide Mendizabal'en irarkolean. Irarri-utsak eta beste-lakoak be ba-ditu, baña ondiño apur bat biribilduz euskal-adi-tza ikasteko onenen artekoa dala deritxat» (*Kardaberaz-3*, 1974, 26 orr.).

1922'ko garillaren 5'an, Gernika'ko Andra Mari eleizan egin zuen itzaldia, «Jauparija ta Egija», euskalduna! euskeraz egitea Elizaren nai bizia dala egiztatzen zuena, Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-k argitara zion. Erderaz Madrid'ko *Ilustración dei Clero* dalakoan idatzi zuen, eta lateraz Erroma'ko *Commentarium pro Religiosis* aldizkingian; lenengoan Jeronimo deunatzaz eta bigarreanean siñismen-ausleen artu-emanetzaz. Euskeraz, Bilbao'ko *Euzkadi* egunerokoan, Paris'en zegoela batez ere, Guatemala'ko *Euzko-Gogoa*, *Euzkerea*, *Zeruko Argia*, *Jakin*, *Eguna* eta *Aguren*; Bilbao'ko Euzkaltzale Bazkunak zabaltzen zituen idazti sail «Enbor» izenekoan ere bal. «Gotzon», «Urtzago», «Urrugo» ta «Larrinetxebarri», ta abar erabiltzen zizkigun lanak izenperatzean.

Bristol ondoko Backwell'en nagusi zegoela-ta, iru urtetan beintzat, B. B. C.-bidez euskerazko itzaldiak barralatu zituen mundu guztira; amabostero ziran itzaldioi: berdintsu katala-neraz ta galizieraz ere. Balña gero, ori *politika* egitea zala-ta, galazi egin zioten.

Gizona genduan A. Urrutia, ta gak guztiok ere beti gizonki jokatzea nal zuen, gizon bezela gauzai begiratuaz noski. Ta orixe erakusten digu bere eginen eta idazti guztietan. *Euzkerea'n* (1929) argitaratu zizkigun lanetan, adibidez —«itz barrijak», «Neskutza ta Nestori», «Defensa de la voz *Neskutza* en el terreno teológico. Al Excmo. Sr. Obispo de Vitoria» ta abar— eta aurretik «Unificación Euskérica» *Euskeran* (1922, 62 orr.) azaltzen danean, oso zentzundun agertzen zaigu, eta jakituriz asea bidenabar.

Eta azkenez, bego emen aren adiskide miñak esana: «Jainkosiñismen eta euskaltasunean ez zuan bañere ukatu bere nortasun sutua... Orain urte gutxi Ingalaterra'tik Euskal-Erri'ra itzuli zanean, Tolosa eman zioten bizi lekutzat. Eta emen eta ingurako errietan apaiz-mixiolari gisa, itzaldi, meza ta elizkizunetan atsedean barik ziarduan, guztioi eta batez ere gazteoi erakus-ederra emanez».

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, Bilbao, 1968, 165 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 542 orr.; *Kardaberaz*-3, 1974, 23 orr.; A. M. Labaien, *Agur*, i975-bagilla-2i, 2 orr.).

14.—GABIN BUSTINTZA GORTÁZAR (1891-...)

Galdakano'ko Elexalde'n jaloa, 1891-10-25'an, Kepa ta Frantziska gurasoengandik. Euskal idazle ona. Bilbao'ko «Bizkaitarra»-^ «Euzkadi»^ eta «Euzko Langillea»-n naikoa idatzi zuen. Zorrotz eta zentzunez ari izan zan beti. *Bildur* ta *Goi-tarra* izen-ordeak erabilli zizkigun.

Gudaldian erbestera jo zuen, eta gaur Lavour (Frantzia) errian bizi da.

15.—G01KOETXEA ANAIK: JUAN JOSE (1891-1964)
TA FELIPE (1897-1952)

Zeanuri'ko semeak. Biak jesulagun. Juan Jose 1891-5-30'an jalo zan, eta Felipe 1897-8-9'an. Juan Jose 1908-9-7'an sartu zan jesuíta, ta. Felipe 1916-9-7'an.

Altara-gizon izan nairik eliz-ikasteak amaitu zituztenean, ia bizitza osoan, iñoiz ere aspertu barik, Euskalerrian mixio-arloan jardunak dira biok. Guztiz ezagunak Bizkai'ko errietan. Beren asmo ederrak aintziña eraman al izateko, gudu aurretik aln zuzen ere, Gernika'n jarri zuten beren egoitz arrunta, Idazteuna euskeratzen ari zan Aita Olabide'ren ondoan ziturki. Eta emendik, 1930'tik 1937'ra tartean, sutsu erriz erri egundo nekea zer zanik jakiteke, ibilliak dituzu.

Iñaki Goikoetxea'k, euskal idazle ezagun eta bi Aita aien illobak, onela dio; «Jesulagun bien asmoa au zan: Lenengo amar urtetan (1930-1940), Bizkai'ko euskaldun erriak gogo-iñarkunen bidez Jaüngoikoa'rengana jaso. Gero beste amar urtetan sozial-auzlan Euskalerria antolatu. Lanean gartsu asi ziran. 1930'tik 1937'raño Durango inguruak, Arrati'ko ibar osoa, Gernika ta Lekeitio aldeak igaro ebezan gogo-iñarkunak emonez. Ara emen zazpi urteko lanen laburpena: Bizkal'ko euskaldun erriak 116 dira. Iñarkunak emondako erriak; 56; Gogo-iñarkun taldeak: 322; Gogo-iñarkuleak: 69, 176. Zazpi urterako mixiolari bientzat ez da lan makala» (*Jesus'en Biotzaren Deya*, 1965'ko epailla, 83 orr.).

Lan bikain au, gain etorri zitzaigun guda zitalak eten zuen. 1937-4-26'rarte gar aundiz lanari ekin zioten biak. Egun ortan ordea, doixtar egazldn-ontziak lerkai (bonba) ugariz suntsitu zuten Gernika. Larri ibilli ziran bertan zeuden jesulagunak ere. Aita Olabide'k sugar artetik atera zuen «bere bizia baiño maiteago zuen *Itun Zarra*». Aita Juan Jose'k gexotetxean bertan lagundu zien, erria sutan zegoen bitartean, ara zekarzkiten gexo

ta zaurituei; Aita Felipe, berriz, kalerik kale ta igesleku guztiak ikuskatzen ibilli zan, azkenetan zeudenai batez ere Jainkoaren grazia eskeiñiz.

Ondamendi izugarri artan A. Juan Jose'k betiko galdu zuen bere osasuna: eskuiko oiña ebaki zioten eta errenka ibilli zan arrezkero guztian. Loiola'ra baztertu ta emen ere gogc-jarduntza aurrera eraman nairik, Portugalete'n iñarkun-etxe bat atondu ta beste lekaide batzuekin batera, aspaldiko lanari lotua Jau-naren Itza arimetan ereiten alegindu zitzaigun. 1964-12-24'an il zan Loiola'n, 73 urte zeuzkalarik.

Aita Felipe, gerra ostean, Logroño'tik eta Segovia aldetik ibilli zan 1943'rarte; urte onetan berriz ere leengo lanari oratu ta Gogo-iñarkunetan ari izan zan gogotsu, Bilbao inguruan batez ere. Emen il zan 1952-6-9'an, 55 urtekin.

Zeanuristar bi anaiok bezin ondo gutxik ezagutu izango du, erlijio esparruan beintzat, Bizkaï'ko euskaldunen arima; euskal erriaren sikolojiaz ondo jabeturik zeuden. I. Goikoetxea'k: «Au izan zan beti aien asmoa, auxe beren bizi guztiko gogo: Bizkal'ko euskaldun arloa zaindu, goratu ta aurreratu, bai Jainko zaletasunean, bai gizarte auzian, baita kultura gaietan».

(Ikus Iñaki Goikoetxea, *J/B. Deya*, 1965'ko epailla, 83 orr.).

16.—JOSE ARREGI GARAIGORDOBIL (1893-1975)

Euskaltzale bikain, arat-onat urduri ibillitakoa. Barakaldo osteko meatz-erri gaur «La Arboleda» deritzanean jaioa duzu **1893-3-22'an**. Beronen **aita** jatorriz Bernagoiti'koa zan eta ama Amaïtermin (Abadiño)'koa. Euskal lur erdélduñeñ sortua zalarik ere, ba, guraso euskaldunen semea zan. Gaztetatik Irun'en bizi izan zitzaizun. Baita gero ere sarri Mercedes Kruz-Lopez Larrañaga'rekin ezkondata.

Bilbao'n ikasi zuen injenieru karrera. Ori zan bere ogibidea. Azken urteotan Madrid'en zegoen, baiña udazkenerantz, Galizia'ko ibai ondoetan opor-egun batzuk eman ondoren, atsegin zitzaion Ondarrabi'n egotalditxoia egitea. Osasungarri ta eder zitzaizkion, bai, emengo ondartza ta itxas-bazterrak, eta egal oietatik ageri diran Jaizkibel magala, Aia arkaitzak eta Bidasoa, Endaia, Irun ta Pausu inguru dituztelarik.

Madrid'en il zan, 1975-11-12'an.

EUSKALTZALE.—Amaren bular gain ikasi zuen izkuntza osatzearren, Kirikiño'rekin ibillia duzu ikasten, injenieru karreran zebilela. Orrez gero ere, bizitza osoan ikasi, irakurri ta idatzi zizun gero ta obeki euskereaz jabetzeagatik. 1923'an Donostia'n eratu zan sariketa baten saria jaso zuen «Gatz pizkat on da» lanarekin.

Eübao'ko «Hermes»-en (1917-1922) azaldu zituen lenengo lanak, Heine'ren itzulpenak. 'Gero, Donostia'ko Euskal Eснаlea'n datoz (1923, XIII, 80 orr.) berak ederki adabatutako «Iz-kirimiriak». Bilbao'ko «Euzkadi»-n naikoa idatzi zuen; baiña Irun'go «El Bidasoa» izan zan beretzat aldizkaririk ederrena bere pentsamentuak eta biozkadak itzuli zitzaizun; ementxe lan egin zigun geienik, eta ementxe egin zuen ospetsu bere izenorde «Txingudi»: angoak onelaxe deritzaie Bidasoa ur-potzuari.

Jakingarria duzu liburu bezela eman zigun olerkizko au:

Heine'ren Olerkiak (Bilbao, 1927). 191 orrialde. Errementeria'ren irarkolan. Moreno'tar Kepa osagilleak egin zizkion barrurako marrazki ernegarriak. Lendik «Hermes»-en argitaratu[^] rik zeuakanakin eta beste mordo batekin, liburu arin txukuna eskeiñi zigun. Doixtar olerkari pina dugun Heinrich Heine (1797-1856)'en «Buch der Lieder» (1827) maite-kanta liburu-rik sail bat besterik ez duzu. Bi zati ditu idaztiak: I. *Bitarte*, 51 olerkitxo, ta II. *Itzulia*, 31 neurtitz.

Itzaurrean onela diosku Arregi'tar Joseba'k: «Orain urte batzak dirala, nere buruan agertu zan asmoa ta nere biotzan

sortu zan guraria gaur egiztu ta bete dira. Asmo ta gurari ori olerki-idazti au argitaltzea zan. Olerti-zalea baldin ba'zara, irakurle malte ori, noz edo bein olerki ederren bat irakurri dozula edo irakurten zagozala-ta, zure biotza dardaraka asi ta zure espanetaraño irribarreak igoten igarri edo dozuz. Orixe da, Heine'tar Endika'ren olerki samur-irritsuok lenengoz irakurri nituanean, nere biotzetik eta nere oldozmenetik sortu eragin ebena. Origaltik ba, biotz-dardarak eragitekoak ereisten dodazalako, olerkari ospetsu orren olerki txorta bat, euzkeraz jantzita, zuri eskeintzea otu yat. Gure euzkera gaizoan, zarra ba'da be, orain arte aulako idaztia egin danik ez dakit. Lenengoa ba-da ta, ori dala-ta, ausarditxo ba'deritxazu nere arlo oni, asketsi, irakurlea; lan au, daukozan utsune ta akatsak alde batera itxita, aurrean dozun idaztia, nalmen onenagaz egiña dalarik, ontzat artu egizu; ikertu egizuz astiro ta adeitsu bere orriak, adipenez irakurri bere lerroak, Heine'k egindako bide bigun-arantzatsuetan bein sartu ezkeru, ondo zuazalako; ta ez yatzu damutuko» (*Itzaurrea*, 11 orr.).

Adimen zolia ta gogamen sakonik bazuen Heine'k; balta zentzuna ere. Eta gogo-indarrok alkarregandik banatzeko olerkariak zeukan adorea etzan makala. Malte oiñazetan bizi izan zan, baiña ba zekien alaz ere biotz odoldu orren aintzinean irri ta parre ederki egiten: biotzaren odol-jarioari geiegiak egotzi arren, etzion axolik. Orixe duzu Heine, luzaroan alderrai ibilli ostean, Paris'era jo ta berton il arteiño bizi izan zana.

Euskal itzulpenak poliki taiutuak daude.

(Ikus G. Lakonbe, RIEV, 1927, 726 orr.; Bitaña, *Herria*, 1964, 740'garren zenbakia, eta *Cien autores vascos*, 1966, 35 orr.; Jon San Martín, *Escritores euskéricos*, 36 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 551 orr. ta *Diccionario*, II alea, 584 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 306 orr.).

17.—BENITO LARRAKOETXEA AGIRREZABALA
(1894-...)

Gizaseme azkar onek ez dakigu noraiño sartzen dituen bere euskal sustral luze sakonak. Malte izan ditu, eta ditu gaur ere, Euskalerriko zero-lur-itxasoak. Ain dituzu ederrak! Maite du euskal izaera. Eta malte du batez ere, gure izkuntza, eusko go-go gatzatzen duen euskera. Eta bere bizitzddirik geiena kanpurraldeetan arrotz emanagatik, atxikitasunik aundienarekin landu du amaren bularrean edoski zuen mintzaera.

GIZON.—Aita Larrakoetxea'tar Bedita, laterandar lekaldea; Aita Ipojito Larrakoetxea, «Legoaldi»-ren anaia, Zeanuri'n jalo zan 1894-6-24'an. «Nire guraso Pantzeska Andoni Larrakoetxea Gallaga ta Yosebe Agirrezabala Etkezarraga'k Zeanuri'ko Undurraga edo Urandurraga auzoan, Altxagutxi etxe bakarrean» ekarri ninduen mundura. Zazpi neba-arreba izan ziran. Undurraga'n bertan asi ta osotu zituen lenengo maillako ikasketak. Gero, Laterandar Araudun Lekalde izateko asmoz, Naparroa'ko Alzasu'ra joan zan 1907'an, an latera ta giza-ikasketak buruturik. Bi urte ondoren, Oñati'ra aldatu zan, emen azter-urtea biribildurik, iru zin edo botuak egiteko; bertan osatu zitun balta mezatarako bear zituen ikasketak, eta azkenez Gazteiz'en abadetu zan 1917-12-21'an.

Urrengo urtean Gazteiz'en egin zuen gudaritza, baita Zenbakizti-ikasketak sakondu ere, karmeldarren komentuan bizi zalarik; ondoren Oñati'n erakutsi zitun Latera, Eladera, Zenbakiztia ta beste gal batzuk. Bitartean Irakasle agiria ere lortu zuen, Iruña'ko Irakasle-Irakastegian azterketak jasanik. Ondoren balta izan genduan Oñati'ko Udal-irakastegiko Zuzendari ta Rodrigo Mercado de Zuazola izeneko Iraskuntzako Gau-irakastegiko maixu, 1936'garren urterarte izan ere. Irakaskintzan, beraz, buru-belarri sartua ibilli zitzaigun gatzetako urterik edérrenetan.

Zoritxarreko gudea zala-ta, 1937'an, Bilbao'tik Ingelanda'ra joan zitzaigun ume-talde bat, eta auekin batera, eliz-agintariak bialduta, 16 apaiz, umetxoen gogo-arduradun izateko; auetatik bat Aita Bedita izan zan. Urte betean bezela Isle of Wight'en egon zan aur oiekin, eta gero ia beste urte betean Southamp-ton'en. 1939'garren urteko iraillean, Ingelanda'tik Ameriketara-ko bidea artu zuen, bere nagusien eskabidez; lenengo ama-zortzi illabeteak Urugual'ko Meló urian igaro zitun, belguntza lanetan; 1941'an, ostera, Argentina'ko Salta urian daukagu La-terandarrak an daakaten irakastetxean. Ementxe erakutsi zuen lendabizi, gero bertako parrokian gogo4anetan jardunik; ondo-ren, urte askoz, 1970'rarte, «Belgrano» dalako irakastegian mai-xu izan zitzaigun. Zer irakasten zuen? Ingelander, Zenbakiz-tia, Pisia ta abar. 1972'an, Ameriketan agur eginda, Euskale-rrira, bere sorterrira itzuli zitzaigun, eta emen dugu arrezkeroz.

EUSKAL IDAZLE.—Eztu gutxi idatzi Aita Bedita'k. Euskal-dun zintzoak, eliz-gizonak batez ere, egin oi duten bezela, be-rezko senari jarraituz, amasei urtetako, emiak bere-beie dituan doaiez ta guk euskaldun guztiok geure geure dugun izkuntzaren ederraz konturatzen asi zitzaigun. Euskerazko lantxoak ere, bere anai Ipolito'kin batera, osatu oi zituen, bein Donostia'ko «Eus-kal Esnalea»-ra ta bein Bilbao'ko egunkariren batera bialdurik. 1926-12-5'an itzaldi bat irakurri zuen Donostia'n, au da, «Gor-beie'ko gaztagintzeá», gero «Euskal Esnalea»-ren *Itzaldiak* (1928) zeritzanean argitara emana. Azkue'tar Dunixi'k eskatuta, «Granja Modelo Fraisoro»-n irakasle izandako García Peña'ren «Patología Vegetal» liburu mardula euskeraztu zuen 1930 ur-tean edo orren baten. «Euskaltzaleak» zeritzaion bazkunak, 1929'an, *Kirikiño Saria* sortu zuen; seigarren urtekoa A. Be-dita'k irabazi zigun, 1935'garrenean: lau lan argitaratu zituen *Euzkadi-n* jarraian eta aietarik batek eraman zuen saria. Beste bein Iruña'n eratu zan sariketa bat, baiña napartarrentzat; A. Larrakoetxea'k ere igorri zuen lantxo bat, eta napartar zan ala

ez itandu ziotenean, zera erantzun zien: etzala Naparroa'n jaioa, baiña bere amaren aldetik napar-jarorritzko zala, ta beste barik saria eskuratu zuen.

1954'an biurtu zan, lenengoz, Ameriketatik ona. Pozez gainzka erbestaldi luze ondorean. Gure euskera, orraitio, kinka ta larritasunik gorrienean zegoela ikusiaz, erabaki sendoa artu zuen bere alde al zuentxoia egiteko. Orrela sortu zitzaion, ge-xoaldi batean batez ere, Shakespeare euskeratzeko asmoa. Utsaren urrengokoa, bear bada? Lan ikaragarria zan, eta gogo biurria bear ortarako; baiña ba-zuen olako zerbait Aita Bedita'k, eta edonor izutzekoa zan arazo eskerga orren aurrean etzan bat ere kikildu. Onela idatzi zidan beñola: «Asmo ori, asmo utsean gelditzeka, bete egin neban: ekin eta ekin, Shakespeare'ren antzerki guzti-guztiak gure euskerara aldatu arte. Orain astea ba-litz, ez neunkake aorretarako adorerik, baiña orduan orain baño gazteago nintzan eta adoretu nintzan; lenen antzerki gitxi batzuk euskeraratzeko asmoz, gerora guzti-guztiak euskeraratu bear nebazala, ta aor asmoa osoan beterik».

Auetarik iru «Euzko-Gogoa»-k argitaratu zizkion. Beste bat, «Binixa'ko Saleroslea» deritzaiona, Paris'ko norgeiagoketa baten sariztatu zioten. «Mirende Aipharsorho'tar Yon zana izan zan maiko beste batzuen artean, eta ak Ibinagabeitia'tar Andima zanari idatzi eutsanez, ain bikain eginda ei egoan euskeratze-lana-ta, lenengo saria berari emon-bearrean aurkitu ei ziran maikoak». Onek, gero ta gogotsuago lanari ekiteko adorea eman zion, noski. Paris'en iragarri zan nor-geiagoketa atzerrietako izkuntzetatik euskeraz jarritako lanentzako zenduen.

Ona A. Larrakoetxea'k osotu dituen lanak:

- 1) «Euskal Esnalea»-n datozen (1926-28) ipui ta alegiak.
- 2) *Gorbeie'ko gaztagintzea* (Donostia, 1828). *Itzaldiak* liburuan dator.
- 3) García Peña'ren «Patología vegetal» euskeraz. Itzulpen au, antza, galdu egin zltzalen azken gudatean.

4) *Agirrezabalentar Toma talogintzan txapeldun* (Euzkadi, 1934).

5) Shakerpsare-ren *Macbeth* (Macbeth) (*Euzko-Gogoa*, 1957).

6) Shakespeare-ren *Lear Errege* (King Lehar) (Euzko-Gogoa, 1958).

7) Shakespeare-ren *Ekatxa* (Tempest) (Euzko-Gogoa, 1959).

8) Shakespeare-ren *Komediak-A* (Gazteiz, 1974). Gazteiz'-ko Gráficas «Eset» irarkolan. 322 orrialde. 8 komedi.

9) *Komediak-B* (Gazteiz, 1974). Apaiz-ikasteg'ko Eset irarkolan. 271 orrialde. 6 komedi: 1) «Binixa'ko Salerosla»; 2) «Zeuk zelan nai»; 3) «Basatia ezita»; 4) «Ondo dator azken onik dauan oro»; 5) «Amabigarren gaua: Nalz, zeuk zer gura»; eta 6) «Negu4puin».

10) *Odol-antzerkiak-A* (Gazteiz, 1976). Eset irarkolan. 358 orrialde. 7 sntzeirki; 1) «Erromi ta Yuletzu»; 2) «Lear errege»; 3) «Otel, Binixa'ko malrua»; 4) «Atenal'ko Timón»; 5) «Macbeth»; 6) «Hamlet, DanemaTka'ko erregeseme»; eta 7) «Toril eta Kerside».

Lan auen atari legez, onela diosku itzultzaileak; «Yaietako soñeko Urain, dotore, txairo, orratzetik arako, arroz, ez aste-gunetako zirtzil... ta erdietenez, yazten dauz Shakespeare'k bere bulko, biotzaldi ta irudi zoragarri-arrigarriak ingelanderaz. Au onan dala, egoki ete zan ba, aren olango lanak euskera baldar-traketsez emotea? Sentzundunek eleuskidan olangorik paxkatuko... Oien bada, euskera yatorrez, al izan dodanik lirainen, dotoreen, txairoen eta txunkunenez euskeraztu dot Shakespeare, irakurriago ta zoragarriago, atsegingarriago egiten yakun Shakespeare».

11) *Odol antzerkiak-B* (Gazteiz, 1976). Eset irarkolan. 293

orrialde. 6 odol antzerki: 1) «Kinbelin»; 2) «Yuli Kaisar»; 3) «Andoni ta Kelopater»; 4) «Koriolan»; 5) «Tita Atdotnika»; eta 6) «Perikel Tiro'ko errege».

12) *Dramak* (Gazteiz, 1977). Eset irarkolan. 10 antzerki. 462 orrialde.

Bostok liburu mardul-mardulak. Ingelandar antzerkgille ospetsuaren lan guztiak, antzerki-saillekoak bederen, 37 bat dituzu. Au da A.'Bedita'k euskera bizirik «iraunazoteko asmoz» egin digun lana. Lan ikaragarria, eta ederld baiño ederkiago burutua. Zitu ederra gure antzerki dorrean.

Shakespeare'ren antzerkiak, teatru-lanak, ondo dakizunez, gogai eta idurikizunez asetuak daude osoro; izkeraz, ordea, eder-sen dizdiratsuz landuak. Antzerkirik geienak bertsoan daude, bertso errez, labur, ariñez egiñak. Neurria, etena ta azken txit arduraz zaintzen ditu. Millaka esaera jator erriaren agotik jasoak darabilzki, eta idurikizun biurri-biurriak. Ba-du oraindik beste doai bat ere: Shakespeare'k gaurkotasunez, edo obeki, betikotasunez jazten ditu bere lanak. Nola? Illun ez zaigu c*fiundo ere ageri. Eukeni D'Ors'ek onela: «Shakespeare'ren alaitasuna, izadiak berak duena duzu... Zer dio sortutakoa kaden, illun naiz izugarri izan? Pozik dago sortzaillea. Abesari atxikitzen. Eta aren kantuz kutsuturik, gu ere kantarkantari gabiltza. Doai au ertilari batek ere ez du izan Shakespeare'k bezin gailen».

Eta lan gotor auxe duzu A. Larrakoetxea'k euskeraz ipiñi diguna. «Ondo etorririk sutuena damotso gure literaturak —idatzi nuen nik aren lenengo idaztiari itzaurrea egiterakoan—. Bearrezkoa zan, eta, ona gaur guztiok opa genduana egi biribil biurtuta. Ez ete pozgarri ta illarrainbide? Euskeratzailleak —nok jakin?— zenbat oztopo eratsi, zenbat andarri irauli ta zenbat lo-aldi galdu ete dauz lan aundi au amaira eroateko! Baiña ba-dira oraindik gurean be, nekeak neke, egiteko gaitzak aurrera aterateko lain diranak. Orretaikoa dogu Aita Larrakoe-txea. Itzulpen onek, ziur asko, guk asmau ezin bestean aberas-

tuko dau euskal elertiarren zelaia. Atsegingarri da, izan be, Shakespeare euskeraz irakurtea; ta gaurtik orrela egin daikegu» (12 orrialdean), ..-;..

NOLAKO IDAZLE?—Trebe ta ernea noski. Ondo dakizki euskerak dituen barren-entzera ta korapilloak. Izango zituen nunbait bere buruko miñak Shakespeare itzultzean, baiña bere trebetasunari esker, lerdengi azpiratu zizkigun aurrez-aurre izan zituen eragozpenak oro. Euskera ederrez datozkigu antzerki guztiak. Iztegi ugaria du, esaera apaiñak, euskerak bere-berea duen joskera. Akatsik? Arrati'ko izkeran —lar lekukoan— egiña dala bear bada, euskalki guztietako itzik eta esaerarik asko dauzkan arren.

(Ikus *Yakintza*, 1936, 21, 176 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, Derio, 1965, 66 orr.; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 172 orr.; j. San Martin, *Escritores euskéricos*, 112 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 130 orr. ta *Komediak-A*, itzaurreen; Auñamendi, *Literatura*, III, 56o orr.).

18.—BITOR GAUBEKA (1894-...)

Bermeo'ko semea au, itxas-ertz zangar aretan bait zan munduratu 1894-4-12'an. Bere seintzaro ta gaztaroko ikas-bideak uri ber-beratan izan ziran. 1909'garrenean, Barzelona'ra, Salesianoak an daukaten «Erti-Lankide Irakastola»-ra eraman zuten, irarkola erti-lanak ikasi zitza. 1913'an, erti-ikasketak bukatuxe egiñik, Gernika'ko «Goitia-Ormaetxea»-ren irarkolan sartu zan langille zurrian; 1918'an, berriz, Zirilo Artzubiaga'k deitu zion Zornotza'ra, «Jaungoiko-zale» irarkolan lan egin zezan.

Zornotza'n urte batzuk eginda, bere gurasoakin, aldi aretan Axpe-Busturia'n bizi ziranakin alkartu zan; berton jarri zuen irar-makiña txiki bat, eta ementxe irarten zituen bere anai Galo

apaizak idazten zituen ingurrazti *Busturi'ko Ikastia* ta *Umetxuen Adizkidea*. Gerorantz, bere jaioterriratu zan, eta antxe, Bermeo'n, ezarri zitun gaur ere lanean diarduten «Gaubeka» irarkola ta idaztitegia.

Irarkola onek ainbat euskal lan eman ditu. Batzak merezi dute emen alpatzea: 1) Luis Jauregi'ren *Egizko edertasuna* (1923); *Almídko Ama Deunaren Bederatziurrena* (1925); 3) R. Ortuzar'en *Oroigarriak* (1925); 4) Kandido Basabe'ren *Ejertzioetako Gogarteak* (1926); 5) *Gomutakia*, Homenaje a D. Francisco Ucelay (1927); 6) Zamarripa'ren *Gramática vasca* (1928); 7) Zabala eta Otxamiz'en *Historia de Bermeo*, lenengo atala (1928); 8) Zabala eta Otxamiz'en *Historia de Bermeo*, bigarren atala (1929); 9) Zamarripa'ren *Anayak gara* (1929); 10) Zamarripa'ren *Kili-Kili* (1930); 11) Altube'tar Seber'en *Erderismos* (1930); 12) Ibargutxi'tar J. Gurutz'en *Eleiz Amaren Ikurtonak* (1932); 13) Altube'tar Seber'en *El Acento vasco* (1932); 14) Éuskaltzaindiaren *Euskera* (1932); 15) Belaustegi'tar Pantzeska jaupariaren *Izar Argia*, eliz liburutxoa (1933); 16) Aitor Goirizelaia'ren *Machín de Munguia* (1934); 17) Zamarripa'ren *Firi-Firi*, irugarren liburu barre-zalea (1935); 18) *Commemoración IV Centenario de las Ordenanzas de la Cofradía de Bermeo* (1935); 19) Jauregi'tar Gabirel karmeldarraren *Pisia* (1935); 20) J. A. Oar-Arteta'ren *Miren'en Senargeya* (1936); 21) Jauregi'tar Gabirel karmeldarraren. *Kimia* (1936); 22) Mogel'en *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vasco* (1936); 23) F. Amador Carrandi'ren *Ensayo bibliográfico de obras y folletos* (1940); 24) Jose Uzelai'ren *El puerto y ferrocarril de Bermeo* (1941); 25) Juan Goiria ta Unibaso'ren *España, ibérica o vasca?* (1970). Eta beste zenbait ingurrazti edo liburuxka.

Irarkola onezaz gain, Bitor'en semeak beste irarkola aundiago bat daukate Gernika'n, orain dala zortzi bat urte jarrita. Industri-lanak dira egiten dituzten geienak.

EUSKALTZALE.—Irarkari ezezik, idazle ere ba-dugu Gaubeka. Txikitatik zekian izkera edertu, sakondu ta ugaritzen saiatua. Oraindik sortu berri zan Euskaltzaindiak, 1920'garrean, euskera-batasunatzaz iritziak eskatu zituen: baita garai artan Busturia'n bizi zan Gaubeka'tar Bitor'i ere. Eta urte bereko lotazillaren 26'garrean alkarte orrek Bilbao'n ospatu zuen batzarrera, bere iritzia aurkeztu zuen, beste askoren antzean.

Batasun ori, *zelan eraldu* galdetuz onela idazten digu: «Iru euzkelgi edatuenetatik batasunerako bat autu biar litzakela esango neuke, baña besuak bastertu barik. Aunelan ba, irurotatik bat autetsi biar ba-da, berau ixan dagi jala bestiaren sustraia, aintxiñako Euzkerea'ren errua, garbi jena ta beste euzkelgi jen edertasunak etor-itz barriak sortzeko erreztasunak emon leikiana. Iru euzkelgijetatik sustraitsubena^ zarrena eta beste gustijen itur-burua Bizkai'ko euzkelgija dala, euzkeltzale jakitun eta ospatsubak esan darue.

«Bizkai'ko Euzkerea'ren aditza errezena, adikorrena ta beste euzkelgijetakuen sustraya dala esan leike, ta euzkelgi aunen izpijakerea Euzkerea'ren edertasunik bixijena, ta baita itz naspilkorrak ulertzeko izpijakerau egokija ta biarrekua be ba-dala dakusgu. Eta beste euzkelgije Bizkai'kuaren usañagaz igurtzi, eta aditza ta izpijakerea ezarri ezkeitiñuan, esan geiake batasun ori sortuta daguala» (*Euskera*, 1922, 18 orr.).

Gaztetatik asita idatzi zuen «Euzkadi», «Euzko-Deya», «Busturi'ko Kistar-Ikastia», «Umetxuen Adizkidea», «Erein-tza», «Euzkerea», «Agur» eta beste euskal agerkari batzuetan. Bere idaz-lanik aundienak: «Matxixako», «Bermeo'ko lenengo Eleizea», «Deminigus» eta «Albonika». Irarkintzaz idatzi zigan «Euzko-Deya»-n (1921, I, 59 orr.).

Izen-orde auek erabilli zituen: «Gautarbi», «Bitxor», «Kistartzale», «Etxekua» eta «Garaitz».

(Ikus *Euzko-Deya*, 1921, I, 27 orr.; *Euzkerea*, 1932, II, 180 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 7 orr.).

19.—JOSE INTXUSAGARRI (1805-...) ;

Euskaltzale amorratua jaupari au. Baita lotsor-lotsorra ere, ala jainko! Euskaldunon akats omen dugu au; Jainkoarekin eta gizonakin apalak izatera daragisku Kempis'ek, baiña goidoaiak ez ditugu iñoiz ere lakaripean ipiñi bear; Santa Teresa'k ederki dioskunez, apaltasuna egitan ibiltea dugu, ez egi--- igeska.

Intxusagarri, alere, muker dabilkigu bere gaitasunak azal-tzerakoan. Euskeraz ederki daki, naikoa idatzi zigun gerra aurretik, eta gero ere ez gitxi; baiña ez du gura euskal literaturazko liburu baten orrietan agertzerik. Au ez dugu, gero, zentzun gaberik esanda: bide ortatik ez genuke jokatu bear. Ots, zenbait liburu ta lan argitaratzen ditugun, lotsarren, antza, ezizenez, geure egiazko deitura izkutu nairik! Aburu oneri itsatsia lan dagitzut nik: geure elerti-zugatza aberats jartzeko, or-zéar sakabanturik dauzkagun kimu guztik, galdu ez ditezen, bildu ta ezkotu bearrean gaudela noski. Munduko literatura guztietan olan egin zuten, eta gaur ere orrela dagi te. Guk, zergatik ez?

Geure izakerak sarri bestelakotu oi gaitu. Bat bera ez omen gara berdintsu ortan. Intxusagarri edu ortakoa izan, lotsor, barkarti, zoko-zale; ala ere, langille porrokotu, arimazain ona. Erria malte duelako zigorra ez zaio palta izan.

Euskal idazle genduela jakiñik, bi urte lez dirala idatzi nion bere bizi-ziaztasunak bialtzeko eskatuaz; ez zidan ezer bialdu. Oraintsu idatzi nion beste eskutitz bat bostgarren ale onetan bere izena aipatu nairik. Ona (1977-4-20) zer erantzun didan:

«Aita itzalgarri: Bigarrenez «artakotzat» artu nai nozun arren, euskaldun idazle, nundik eta gaitik ete? jaupari ikastaroko urte guztietan neure amak neuri eta bijok alkarren (beti) euzkeraz idazten geuntselako? Edota, urte aretako «Ekin» as-

terokoan agertuten zīñan errien artian «Elantxobe» be ikusi gura eben ango neskatillak, neuk be idazteko eskatu eustenal jaramon egin neutseiako? Ona, zelako baldintzapean idazten neutsen: Euren esku-izki,ni ezetarako ta ezergaitik ez agertutakotan, ta «Ekin» buru zirianakaz, eurak bakarrik aitutekotan/Ala, izaten genduzan Kistar-ikasbide jaitxuetan, beti izaten genduzan «bertsolarientzat» «bertso berriak» idazten neutsezalako? Nortzuri agertuten «euzkel-idazlatzat»? Beraz, ni euzkel idazle lez enenduen ezagutzen. Ta «guzur ori» egi biurtu nal, ta euzkel-elerti edesti baten agertu be? Ez, iñundik be, nire balmenez. Egiz,, pozago itxiko nozu, ta «adizkidiago» izango nozu, zartzaroa artun ondoren, baserri zokondotxu baten, eriotzien begira dagon aguratxua nazala esaten badozu. Egia orixe da, ta ez euzko-idazle nazanik».

Idazten duena, orraitio, idazle da. Ta Intxusagarri'k «Ekin»-en idatzi zuen. Eta Elantxobe'n erriko eliz-ate galñean idatzia du. Eta neri ere, berak idatzita —argitaratzeko gogoz— Kristau-Ikasbide luze xamarra igorri zidan orain amabi bat urte. Beraz, idazle dugu. Ortakoz, nor dugu gezurti? Orri jarraiki, bada, pozik dagigu emen jaupari euskal idazle jakintsuaren aipamena.

Pipolag-Filipinas'en jaio zan arren, 1895-9-19'an, Lekei-tío'koak zituen gurasoak; len-ikasteak emen egin ondorían, Komillas'en osotu zizkigun eliz-karrerarako besteak, Maixutza titulua ere lorturik. 1920-12-18'an apaiz egin zan gazteiz'en. Eta gero, andik laster Elantxobe'ko txaunburu izendatu zuten. Gudateak emen arrapatu zuen, beti arima arloan murgil. G/eroztík, urteetan, Asturias aldean; orain, aspaldian Izpazter'en daakagu.

20.—FELIX AREITIO ARIZNABARRETA (1895-1970)

Durango'ko semea. Emen jaio zan 1895-3-31'an. 1910-4-3'an sartu zan josulagun. «Atarpe» erabili oi zizun lan batzuk firmatzeko. «Jesus'en Biotzaren Deya»-n idatzi zuen, 1923'tik aurrera, bertsoz eta itz lauz. Ementxe agertazi zuen zatika *Jesu-Kristo Geure fauna'ren Bizitza* (1924). Lau goizparretatik artu ta euskeraldua.

Lan onen asmua agertzean, au diosku berak: «Jesu-Kristo-ganako maitasun zintzuenaz eta Aberriaganako ardura laztane-naz, bizitza onen euskeraltze au egin gura geunke. Bal; Jesu-maltasunez, bere bizitzaren edestia, edesti guztien eder eta mal-tagarriena dalako; ta Aberri arduraz, Jesu-Kristoren ezaguntza ta maitasunerako, erri guztien gertu ta gaienetakua, geuria dala noski esan leitekkelako... Dakigunik beñipein, Jesu-Kristoren euskerazko edesti on eta osorik eztaakagu ondiño euskaldunen-tzat, eta ori, geure Aberriko biotza garbi ta zinduena, Jesugana-tzeko egokiena izanik. Kardaberaz'tar Abeak, Bizkala'n ibillita, eskutitzez iñuana, orain be egi utsa izango litzake: Euskalerrria lakorik, Jesu-Kristoren alde lan egin eta lan orren sorpen ma-mitsubenak atarateko, etzubela uste berak iñun aurkituko za-nik» (*Jesus'en Biotzaren Deya*, 1924, 15 orr.).

Erderaz ere aski idatzi zuen, Xabier'ko Prantzisko Deunari begira, adibidez. 1970-3-26'an il zan.

(Ikus J. San Martin, *Apéndice a Escritores euskéricos*, Bilbao, 1969» 12 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 568 orr.).

21.—SEGUNDO OLAETA MUGARTEGI (1896-1971)

Lumo-Gernikakoa semez, bertan bait zan munduratu 1896-3-24'an. Ereslari, ta dantzan batez ere maixu. Gernika'n, Mar-kiña'n eta Getxo'n, erriotako eres-batzak —bandak— berak zu-zendu zituen. Germka'koa 1919'tik aurrera.

Ereslari zurrian, dantzari talde bizkorrak sustatu ta eratzen alegeñak egin zituen. Ortarako lanak gertatu bear, eres-lanak batez ere. Berak ipiñi zizkien oietako askori euskal izki edo letrea. Adibidez: «Elai Alai», «Odol bidea» (Donosti'ko «Jarrai» dantza-taldeak 1962'an aurkeztua), «Eztai taldea», «Donibane ga-ba», «Meza osteko jala», «Kandelarixo» ta beste batzak.

Olaeta'k eraturiko dantza taldeak ibillaldi asko ta zaratatsüak egin izan dituzte Europa ta Amerika'n zear. Gaur aren seme-alabak, Bitor buru dutela, ortan ari dira gogo biziz, irra ta artazien bitartez Euskalerraren arnasa ludian zabal-azi bearrez.

Bere emaztea; Errosario Torrezuri Larruzea. Gernika-Lumo'ko «Aranbeiti» etxean il zan Segundo 1971-8-21'an; Lumo'ko kanposantuan illobiratuta dago.

(Ikus A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, 1965, II, 175 orr.; J. San Martin, *Apéndice a Escritores euskéricos*, 1969, 27 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 569 orr.; Jose Antonio Arana, *Seber AUube'ren bizitza*, «Euskera», 1974, 26o orr.).

22.—RAMON LARREA IBARRETXE (1896-1971)

Basauri'n jalo ta, 1971-12-27'an, Galdakano'n illa.

Anal arteko azken guda aurretik, alnbat bidar idatzi zuen, Basauri'tik izparrak «Euzkadi» egunerokoaren orri-aldeetara bialduaz. «Basauri'ko bat» eta «Basauritarra» izen-ordeak erabilli zizkigun bere idazkietan.

23.—JUAN ORMAETXE URIBARRENA (1896-...)

Meñaka'n jaioa, Bidezurieta basetxean, 1896-9-Í4'an. Bertan bizi izan da beti, bere baserri-lanetan aritua. Lengoan —1977-4-10—, obiratze bat zala-ta, Meñaka'ko eleiz-aurrean agurtu nuen, eta gizaseme gordiña dago oraindik; alai ta.'zirtolari.

Bertsolaria. Bizkai'ko txapelketetan batez ere, maiz aurkeztu da erri-gizon bezela, len eta oraingo bertsolariakin batera bertsoak ariltzen. Lenago, Txomin Betolaza, Dima'ko Uriarte ta Kepa Enbeita'rekin sarri egin zituen saioak, baita sariak eskuratu ere. Oraingotan, ordeaj errien inguruan zerbait danean, ara joan oi da bera ere. Ba-du etorria, zorrotasuna ta aldarte ona. Ba-daki nola ziria sartu. Gaitasun auek jazten dute, noski, bertsolaria. *Izan* ditu omenaldiak; oraintsu bi, bata Anoera'n (1974) ta Mungia'n (1976) bestea. Pozik bizi da.

«Karmeben, «Príncipe de Viana»-n eta olakoetan agertu ditu neurtitzak. Etzaizkion begiko nunbait sasoi bateko gona iñotzak; 1974'an onela kantatu zigun:

«Nere gaztetan izaten giñan
ijituak gatik esaten;
euren jazkerai begiratuta,
naikoa barre egiten.
Baña, gaurkoan, arrazoa nik
berari noa ematen:
lotsagarrizko jazki laburrik
bat ere ez da ikusten.

24.—JUAN OLAZARAN LARRINAGA (1897-1964)

Durango'n munduratu zan 1897-5-6'an. Apaiz-karrera burutu zuen Gazteiz'en. 1917'ko urrillaren l'an, kursoa irikitzean, Leopoldo Eijo Garai ordako gotzaia bertan zalarik, aurreko ikastddiko sariak banandu ziran, eta Olazaran ikasleak, bigarren Teolopi-urteko zala, Eliz-Edestian saria eraman zuen. 1920'an apaiztu ta bereala, Berriz'ko organu jotzaille izendatu zuten, urte mordoia egiñik bertan. Guda ostean Durango'ko Andra Mari elizako organista ta artxibu-zain egin zuen. Berton il zan 1964-10-3'an.

Bere eguneroko zeregin artean ba-zuen oraindik beta zer-bait idazteko ere. Santa Ana'ko elizan buru zan J- Etxeandia'k sortu ta zuzendu zuen «Tavira» aldizkarian naikoa lan argitara zigun, ikerketari buruzkoak batez ere; Durango'ko idazle Artzadun, Astarloa, Etxezarreta, Lafuente Anaiak (Durango'ko zidargiñak), Garitaonandia, ta abar.

Amurdin'ek —Izurtza'ko Berriotxo Anaiak— onela: «Argitaratu barik gelditu ziran bere esku-idatzirik geienak. Erde-raz idazten eten geienetan. On Juan'ek neak esanda, iñoiz argitaratu eban euskeraz zer ede zer «Tavira» aldizkarian. Durango'ko euskera egokia erabilten eban berak. Bilduten asi dira orain idazti danak... Argitaratu ebazan eta argitaratu barik gelditu ziranak» (*Zeruko Argia*, 1971, urtarrillak, 31).

Argitaldu barik geratu ziran oien artean *Historia de Durango* dugu baitik bat. Leopoldo Zugaza argitaldari bizkorrak aterako al du bein edo bein.

(Ikus N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 26 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 141 orr.; Auñamendi. *Literatura*, III, 441 orr.).

25.—MANU SOTA ABURTO (1897-...)

«Antzertb-k bere len-zenbakian, Cocteau euskalduna deitzen dio M. Sota'ri. «Onela deitu genezaioke —dio— Sota Aburto idazleari. Antzerkirako doai berezia du, ta euskeraz idazten asi danezker, ez dezala aztu gure Antzertitxoa». Euskaldun berria, garai artan gure izkuntza ikasiz, euskerazko lan motzak, olerkiak eta, «Euzkadi»-n argitaratzen zizkiguna.

' Bizkaiko itxas-egalean, Ondarreta'n jaio zan 1897-7-29'an. Ikasketak osatzean eta gero, gai guztietatik elertia zuen gogo-

koen, aspertu gabe idatzirik erderaz baitik bat; abertzale zintzo, euskal gaiak urratu zizkigun ele bietan. «Pyrenaica», «Euzkadi», «Euzkerea» ta olako aldizkingietan idatzi zuen.

Primo de Rivera'ren jaurlaritza erori zanean, iñundiko antzerki zaletasuna sortu zan Euskalerra osoan; antzerkia, izan ere, adierazle bizia da, jolas antzera, entzule-ikusleen biotzondo ikutu ta samur-erazteko; «zentzun guztien bidez sartzen da antzerti-gala giza soñean, gogoraño elduaz», esan zigun norbaitek. Bai, egokia ziñez erri-makasuna edatzeko; eta ortan arduratu zitzaigun M. Sota, ainbat antzerki-lan oreturik.

Guda aurreko urteetan M. Sota izan zan teatru lanen bultzatzaile ta zuzendari, Bizkai aldean beintzat, antzez-talde asko sort-azirik. Lan oietatik batzuk jatorrak dira, beste batzuk erderatik gaia artu ta euskal senez jantziak. Ba-zuen berak erderaz egiñak nork euskeraz jarri ere, J. Altuna[^], Lauaxeta. Azkenengo lana, berriz, *Bihotz apala*, Paul Giltsou antzerkigilleak euskeratu zion. Gudaldian (1937) Biarritz'era aldatu zan; eta antxe, bere etxe pherdean bizi da gaur ere, euskal lanari atxikia. Euskaltzaindikoa da.

ANTZERKI-LANAK.—Ona Sota'k erderaz idatzi ta, euskera-tzuak, gure errietan askotan antzeztu dituzten lanak;

1) *Negarrez igaro zan atsoa* (La vieja que pasó llorando). Lauaxeta'k euskeraz jarria dio «Antzerti»-k. 1932'ko jorraillaren 17'an Durango'n Kirikiño'ren omenez egiñiko, goratzarre egunean bertoko neska-mutillak oso egoki eman zuten. Balta Zarautz'en ere, beste toki askotan lez, orrillaren 7'an, Algorta'n garagarrillean eta abar, urterik urte.

2) *Iru gudari*. 1933'an, Bermeo'ko «Antzoki Barri»-ri lan auxe antzeztuaz eman zioten asiera, geroz ere erriz erri balabala ibillia noski.

3) *Libe*. Arana-Goiri'k gure Aberria jasotzearren, bere-din gairi ikutu zion, ots, izkuntza, edesti, erriketa, legedi, an-

tzerki ta abarrí. «Libe» erti-gaia ere Bizkai'ko edesti zati bati begira asmatu zuen; erdi-amaiturik utzi zigun ala ere; gero ainbat lekutan antzeztu izana. M. Sota'k osotu zuen. Onela *Antzerti* aldizkariak, 1934'ko epaillaren 3'an Bilbao'n lenengoz «Oldargi» taldeak aurkeztu zuenean: «Bost ekitalditan zati-tua dago «Libe», zein baño zein ikusgarriagoak. Antzekizuna atsegiñago izatearren, tarteka-marteka eresi abestuek entzun arazten dizkigute. Irugarren ekitaldian berriz dantzaldi polita, eztei-dantza albokarien soñuaz joa. Anitz antzezleri bear dituan antzerkia degu «Libe»; taldeka. Antzez-lagun nagusiaz gañera, erri-gizonak, aldun, gudari, sal-erosle, Uxastari, anderc, mutv... Orrenbesterañoko giza-íaideal igitu ta erakutsi araztea ez da errez» (1934, 21 orr., azal urdiñean).

4) *Buruzagiak* (Los Caudillos). P. Pearse irlandatar marri-riak ingeleraz osatu zuen (The Singer) antzerkia, izen, toki, notin eta gañerakoai euskal tankera erantsiz Sota'k erderara itzuli ta J. Altuna'k euskeraz jarria. Atalbatekoa.

5) *Gosemin* eta *Azken ordua* (La última hora). 1934'an argitara emanak, bi atal bakairekoak dira. Erderaz dauden arren, gaurko euskaldunen kezka buruz taiutuak. Sota'ren lanik eldu sakonenak, kritikalarien ustez.

6) *Urretxindorra*. 193 5'ko agarraren 14'an, Portugalete'n lenengoz antzeztua.

7) *I txar o-I txarra*. Antzerki au Bergara'n antzeztu zuten «Oldargi» taldekoak, 1930'an Euska-Ikaskuntzak eraturiko euskal jaietan; gero, Durango'n Kirikiño'ren omenez egiñikoetan berdin, eta Lekeitio'n 1931'garren urtearen azkenerantz.

8) *Siaska onduan* eta *Esttopadiak* ere bereak ditu, «Oldargi» taldeak Berenguerer'en egunetan antzeztuak.

9) *Oztin* (1932). Altuna'k euskeraz.

9) *Iztegia*. *Diccionario de Retana de Autoridades de la Lengua Vasca* deritzana, ta «La Gran Enciclopedia Vasca» argkaldariak aterea. Lenengo ale biak (Bilbao, 1976), 7. A.-*Arraia*,

432 orrialde, eta II. *Arraiari-Bethiere*, 936 orrialde. 10-12 bat tomu izango dira. M, Sota'k egiña da, P. Lafitte'k, L. Akesolo'k eta beste batzuk lagunduta. Iker-lan izugarria, iñork uste ez zuen antzekoa. Azken berrogei urteotako lañaren frutua, gizase-me langille, ixil batek ari ta ari osotu diguna.

Egillearen xedea, lan auek egokitzerakoan: Antzerki-bidez euzko biotza piztazi.

M. Sota ao-eder dugu esaten, eta luma goxo idazten. Ger-rak, ordea, aiots zakarrak lorak iduri, erditik ito zuen bilbotar gaztearen idazle atsa. Balña barne daramaguna erauzi eziña dan ezkeru, M. Sota'k ere, nalz-ta ixil samar, bere idaz-arloari muzin egiteke, iker-lanean pulunpaturik daukagu urte mordoan.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 715 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskara*, II, 178 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 570 orr.).

26.—JOSE ETXEANDIA BEASKOA (1897-1976)

Laida ta Laga gaiñeko Akorda erritxoan munduratu zan, 1987-10-4'an. Durango'n egin zituen bere lenengo apaiz-ikásketak, ikastaro nagusiak Komillas'en osoturik; Irakasle (Doctor) genduan Eleiz-Legedian. Gerra ostean Nabarniz'en eta Durango'ko Santa Ana parrokian egon zan txauburu.

Euskaltzale izan zan oso. 1961'tik Euskaltzaindiko urgazle. Bertsolari txspelketetan apal-maiko egin zuen sarri. 1959'an, «Tavira» zeritzan aldizkaria sortu zuen; bertan idatzi zigun euskeraz ta erderaz, baita besteal idatzirazi ere.

Bere liburuak: *Heroísmo y Martirio* (Buenos Aires, 1943), *La persecución en el País Vasco* (Barzelona, 1943), *Kristiñau-Ikaskizun* (Bermeo, 1947), Gaubeka, 32 orrialde,- ta *Domund Domekan euskaldun guztiak euki bear daben asmoa* (Bermeo, 1950).

Durango'n il zan, 1976-1-4'an, eta aren gorpuari lurra Ibarangelua'ko ortu santuan eman zitzaion.

(Ikus J. San Martin, *Euskera*, 1976, XXI, 368 orr.).

27.—EUGENIO LARRAÑAGA LANDABURU (1898-1966)

Anboto, Udalaitez eta Gaztelumendi-Intxorta begirale zindo ditula, ezne ta naro datzan Elorrio'n ludiratu zan Eugenio apaiza, 1898-7-13'an. Bere errian eta Gazteiz'en egin zituen abadeikasteak, 1923-3-17'an jaupariturik Zakarias Martínez gotzairenen esku ezartez.

Ondoren, 1923-1930'ra Artzeniega'n egon zan karmeldar monjen kapellau; 1930' eko maiatzetik 1931'eko azilleraño*, Markina'n arimazai; gero Elorrio'n bizi izan zan 1937-4-24' rarte or-emen ainbat itzaldi egiñik; jarraian, Bilbao'ko Kirol'en egon zan Eleiz-barrutiko gauza baliotsuak zaintzen. Bilbao jausi zanean, Santoña'ranta jo zuen Frantzira iges egiteko asmuz, baiña katigu jausi ta Santoña'ko Presondegian sartu zuten beste apaiz ta praille askorekin. Ango gela batean bizi izan giñean Eujenio Larrañaga, Juan Jose Agirre ta irurok, apaiz bi ta karmeldar bat.

1937'ko dagonillaren 28'tik 1938'ko epaillaren 12'rarte **Due**so'n egiñik, gero Nanklares-Oka'n, **Due**ñas'en eta Karmona'n bizi izan zan 1940'rarte. Urte onetan, espetxea utzita, Malaga'ko Canillas de Albaida'ra arimazai, amalau illebeta an egiñaz. Ondoren Aviles'en eman zituen zazpi urte, 1947'an Erletxetara aldatuz; emen lau bat urte betetakoa, 1951'ko epaillan, Brasil'era jo zigun; 1965'eko dagonillean Euskalerriatu zan andik, oso gaixorik, oiñetako bizienaz, eta Elorricy'n beretarren artean eman zuen azken arnasa 1966-2-10'n.

EUZKAL IDAZLE.—Izlari ona zan euskeraz ta erderaz. Gazteiz'en apaiz-ikasle zala, J. M. Barandiaran'ek sorturiko *Eusko-Folklore* taldekoa zan, opor-aldietan, euskal abesti, esaera ta ipuin batzen, ainbat lan eder egiña. Orduantxe asi zan idazten, bal «Anuario de Eusko Folklore»-n eta bai «Euskal Etnalea»-n; lenengoan, lan auek azaldu zitun: 1) *Refranes y dichos populares de Elorrio* (1921, I, 52); 2) *Canciones y romances de Elorrio (Vizcaya) y Alegría (Álava)* (1921, I, 71); 3) *Fiestas populares eri Elorrio* (1922, II, 53). Eta bigarrenean: 1) *Aserrekeria* (1921, XI, 169); 2) *Euskera maite degu* (1922, 41); 3) *Euskera zer da* Olerkia (1822, XII, 85); 4) *Izkirimiariak* (1922, XII, XII, 207); 5) *Ama, maite zaitut* Olerkia (1922, XII, 133); 6) *Euskeraz itzegin erderaz idatzi* (1922, XII, 85); 7) *Eudon eta Teodosi* (1923, XIII, 21 orr.).

Onez gaiñera berea du: *Sorkunde Garbiaren Bereratzuurrena*. (Zornotza, 1931). 39 orr. Gudak moztu ta leitu zuen oindio lora gazte baizik etzala, euskal elertientzat itxaropentsu zertoridgula noski.

(Ikus Elorrio'ko txauburu Jose Lasuen'ek adeitsu bialdu dizkidan oarrak, eta Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, IV, 6oi orr.).

28.—FELIPE ETXEBARRIA ALAKANO (1898-1945)

«Pi Aba» karmeldarra. Euskal idazle ugaria. Bizkargi azpian, eguzkira begira, dagoen Gorozika erritxoan jaioa, 1898-4-1 l'an. Tokiak eztu gutxi esan nal gerorako: ezker-eskuma dauzkagun eder-iturriak nun dauden saiatzen jakin bear, besterik ez. Alaz ere, guztiok, mendi, erreka, zelai, ibar ta etxe zuri berdiñak euki arren, batzuk ba-dute orretaz jabetzeko sena, adore ta trebetasuna; beste askok, ordea, eztizu olakorik; mendi-goizaie, zoaz Gorbei'ra neska-mutil aldra batekin, eta batzuk bertako edertasunaren aurrean birloratuta dauden bitartean, bes-

te askori ez dfe mendi orrek ezer aundirik esaten. Gorozika leku eder-ederra da: inguruko zer guztiak bertako biztanleak bezain paketsuak dira, eder-esnetan blei-blei.

Gure erriak ez ori bakarrik, doai ta altxor bikain askoren jabe ere ba-dituzu. Altxor ta ogasun oietatik bikaiñenatarikoa gak euskera dugu. Aita Pio'k, urte askoz Peru aldean mixiolari ibillita ere, etzuen iñundik ere aitzu bere laratz ondoan ikasiriko izkuntza. Orrezaz gaiñera, an naiz emen aurkitzen zala, idazteari emana bizi izan zitzaigun aspertu gabe. Ez dira urri ortan etxeokak baiño eredugarriago diranak, kanpotik ibilliagatik ez bait dute idazkortza atz-puntatik urrutiratu.

Mutiko zala osotu zituen, ementxe Larra'n ain zuzen, bere erritik ez urruti, latin eta ele ederraren inguruko ikasgaiak. Eta aspaiditik barrenean pilpilka zebilkion Jainko-deiari erantzunaz, Larrea'n artu zuen 1914-an karmeldar jantzia, urrengo urtean 1915-4-7'an profesa egiñik. Orrez gero Markiña'n, Gazteiz'en eta Begoña'n ikasi zitun jaupari karrera gaiak, 1922-9-17'an apaiztasuna arturik. Zoragarria noski zeru argitsua; baita gazte baten barrua ere, amets sorgiñez gaiñezka; ta, atzenik, gaztearen ametsak egi pozkor biurtu ziran, meza berri egunean nunbait. Kristo'ren ordezko zan!

Eta Kristo'ren ordezkoari dagokionez, prest zegoen Kristo'ren elizan apostolu izateko, eta mixiolari joan zitzaigun Peru'ko erresuma zabaletara. Karmeldarrak zazpi komentu dauzkagu lur aietan, eta Aita Pio ia beti Chocope'ko lekeratxean bizi izan zan, arima arloan aitortu ta Jaunaren Itza aldarrikatuz ta etxeok arazoak, bere bizibideko lege ta arauak alik eta zintzoen beteaz. Egikizunok gorabera, bazuen oindiño epe ta astia euskeraz idazten jarduteko ere, ta ainbat euskal lan, itzulpenak battez ere, burutu zituen Ghocope'n emandako amar urteetan.

Atseden, pizkat bear zuela-ta, baita erri-miña arindu ere, Euskalerrira egin zuen itzuli bat 1933'garren urtean. Ortan karmeldar Probintziak bere batzarra ospatu zuen nagusi berriak izendatzeko; era A. Pio'ri ere Zornotza'ko karmeldar Ikastetxe-

ko irakasletza ta bertan ateratzen zan «Karmen'go Argia»-ren zuzendaritza eman zizkioten. Andik iru urtera, berriz, Markiña'ko nagusi ordeko egin zuten, eta antxe gertatu zan anai arteko gerra sortu zanean.

Bizkai'ko guda-zalaparten amaikeran bere etxean aurkitzen zan, au da, Gorozika'n. An nintzan ni ere, gudarien kapellau, ta 1937-4-30'an gabeko amaikak inguruan, gūda-oiñak ur-ur zeudela-ta, Gorozika utzi ta Larrea'ra etortzen lagundu nion: ez nuen nik geiago iñon ikusi. Baiña A. Pio'k, beste bost karmeldar —Aita Jose Antonio, Zipriano, Plazido biak —Zabala ta Astobiza— ta Urbano Manzisidor— lagun zituela, aurrenik Frantzia'ra ta gero Beljika'ra jo zuen. Andik Kolonbia'ra aldaturik, Bogota'n gaixotu ta azkenez, Peru'ko Lima urian il zan 1945-2-1'an.

. EUSKAL IDAZLE.—Beti zin eta alasoko bere biziaren luzean, idazle oparotsua izan zitzaigun A. Pio karmeldarra. Pazifiku itxas-egalean zegoelarik ere, bazuen euskal arloan zoiak txikartzeko adorerik. Antxe, Chocope'ko komentuan itzuli ta Zornotza'n argitaratu zuen bere «Kisto'ren Antz-bidea». Andixek bialtzen zituen zenbait lan «Karmen'go Argia»-rako ere.

Aipagarri dituzu aren liburuak:

1) *Kisto'ren Antz-bidea* (Zornotza, 1926). Jaungoiko-Zale'ren irarkolan. 400 orrialde. Kempis'tar Toma agurgariak idatzitako «De Imitatione Christi», lau liburutan zatitua, idazti ospetsua duzu, euskeraz ipiñita. Iru argitalpen izan ditu, beraz ezta gutxi-estekoa: 1926'an lenengoa; andik amar urtera bigarrena (Zornotza, 1936), On Zirilo «Ekin»-en zuzendariak egiña, ta irugarrena neuk osatu nuen (Bilbao, 1956), **Record** irarkolan. «Goi-zale» du izenburu. Ta, ain zuzen ere, esku-liburu antzera erabiltzeko, goiz-gabeko otoitzak, autortza, Jaunartzea, Meza santua, Gurutz-bidea, Jose Deunaren zazpi domekak, Jesus'en Biotzarekiko eraspenak, Agurtza deuna ta ondo ilten laguntzeko erea erantsi nizkion, guztiz 544 orrialde egiñik.

2) Aita Granada'ren «Guía de pecadores» (1556), izkuntza askotara itzulia. Argitaratu gabe oraindik.

3) Sales'tar Frantzisko Deunaren «Introduction a la Vie Dévote» (1608). Argitara barik au ere.

Lan azke bezela, geien «Karmen'go Argia»-n idatzi zuen, 1933-36'ra bitartean beronen zuzendari zala bereziki. Aurrenen zetorren lana beronena izan oi zan beti, sakon eta mamitsuki idatzia.

Irakur ezazu zatitxo au, Agurtza deunaz:

«Zeruko Ama goratzeko diran eraspentak beti dira goragarri; beragan ba onoimen ain ederrak ikusten doguz, eta gugan, barriz, bera gpraldu bearra. Eta eraspent oneitatik bat eta ederretarikoa izan be, Agurtza (Errosarioa) da; otoitz maitagarri onetan Maria'tzaz gogoratuaz gañera, bere bizitza goznartu nai dogu; bere izen gozo ta ederra esan eta esan artean, Mariari bere egikizunetan begiratu gura dautsagu; onetara ba bere ize-na obeto esan daikegu; baña guk esaten dogun izenik samurrena ondoen goratzeko, berau erabilli ebanaren bizitzari begiratzea da onena.

Maria'k berak be naiz eta beti onoimentsu iraun, ludi (mundu) onetako goraberatan beti jazoera bardiñak ez ebazan euki; batzuetan poztasunen artean aurkitzen dogu, bestetzueta atsekabeen artean, eta emen lurrean ez, baña gero an goian, betiko aintzan. Augaitik gure bizitzak be atal asko daukoz eta danok eztira bardiñak izaten, eta Maria'ren antza artugureaz bere ondoan jarten gara, ta Aingeruaren agurraz asten gáiakoz» (*Karmen'go Argia*, 1935, Urrilla, 233 orr.).

Euskera errikoi garbia darabil beti. Itzulpenak, ordea, bere lan guztiak bezela, txukun eta arduraz burutuak daude,

(Ikus S. Onaindia, *Goizale*, atarikoan, eta *Larrea eta Karmeldarrak*, 1968, 96 orr.; L. Villasante, HLV, 366 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 263 orr.).

29.—NIKOLAS BARRENETXEA TA URIBASTERRA
(1898-...)

«Yurre'tar Julen» Aita kaputxinoa. Igorre'n jaio zan 1898-12-5'an. Altzatzu'n latin (1910-15) eta ingurukoak ikasi ostean, Sangotza'n jantzi zuen buruñurdunen soiñekoa. Ondarrabi'n (1916-19) Jakintza ta Iruña'n (1919-23) Teolojia ikasitakoan, Iruña'n artu zuen apaiztasuna, 1923-3-31'an.

Iru urtez Euskalerra gaindiko elizetan berari zegokion arloan lan egin eta batera «Irujarrengo Prantziskotarra»-ren eta «Zeruko Argia»-ren orrietan idazten zuten idazleen buru izanik, 1927-8-16'an, aurreko egunean Mateo Muxika gotzalaren eskuetatik Iruña'n mixiolari-gurutzea artuta, Txina'rako bidean jarri zan, beste iru kaputxino lagun zituelarik. Lenengotik, au da, 1927' tik 1954'rarte, 27 urtetan, iñoiz ere Txina'tik irten gabe, Kansu'n lan egin zigun; ogetazazpi urte oietatik amazortzi Mao-Tse-tung'en mendean eman zituen; agintari gorri onek, azkenez, bota zuen andik beste euskaldun mixiolari mordoa legez. Mao'k alere gezurra merke saldu, «berak ez zitula bota, beren kabuz zijoaztela» esaten omen zuen, baiña pixkaka pixkaka mixolari guztiak uxatu zituen txinar eskualdeetatik.

Aita Yurre ta Soloeta, biak arratiarrak, azkenerarte iraun zuten mixio-lurrean, betiko lekuan, beste guztiak irtenak izanagatik. Balña 1953-12-31'an Mao'ren gudariak joan zitzalzkie mixiora, ta biak indarrez bota zituzten andik. Bultzi ta kamioetan luzaro ibilli ta gero, urrengo urteko urtarrillaren erdirantza Txina'ko muga igaro ta «zurezko zubi txiki-txiki batetik» Hong-Kong'era sartu ziran. Aita Yurre'k Manila'n artu zuen bi illabete geroago Euskalerrirako ontzla, ta arrezkero emen dabilkigu euskal lurrean, lendabizi Ondarribi'ko komentuan eta 1957'ko udagoenetik Altzatzu'koan, beti lanari lotua, jakiña.

EUSKAL IDAZLE.—Etxetik zekian mintzaira obeto ikasten saiatu zan eliz-karrera osatzerakoan, Ondarribi'n eta Iruña'n batez ere, lantxo batzuk «Euskal Esnalea»-n —*Gogo garbia* olerkia—, adibidez, argitaraturik; gero, mixiolari joan aurretik, *Idazleburu* izendatu zutenetik nunbait, «Irugarrengo Prantziskotarra»-n eta «Zeruko Argia»-n idatzi zigun maiz samar.

Txina'n mixiolari zebillelarik ostera, ba-zuen astia, ba-zuen beta, «Zeruko Argia»-n, «Jaungoiko-Zale»-n, Bilbao'ko «Euzkadi» egunerokoan eta Gazteiz'ko «Gure Mixiolaria»-n ainbat lan argitaratzeko. Gerora ere eztu gutxi idatzi Zornotza'ko «Karmel» eta «Olerti»-» ezezik, Bilbao'ko «Agur»-en eta Raiona-ko «Herria»-n eta «Alderdi»-n eta Donosti'ko «Egan»-en. Bere izenaren orde z sarri erabilli dizkigu «Motxogan::» ta «Itarka».

LIBURUAK.—Onez gaiñera, liburu sailla du argitara emanda ere. Ona:

1) *Loramendi : Bedoña'tar Joakin Abagai Kaputxinoa* (1907-1933). *Olerti ta idatzi guztiak* (Zarautz, 1960). Itxaropena Argitaldaria. 193 orrialde. Bilduma, aurritza ta oarrak, Yurre Aitarenak; ataria, «Orixe»-rena. L. Mitxelena'k onela: «Igaz,, Loramendi-ren omenez Bedofia'n egin zan jaiddiaren ondoren dator «Loramendi» zenari eta euskal poesiari aspaldidanik zor genion liburu eder au. Orduko sariketan leen saria eraman zuten idazlanak ager ziran «Euskera»-n. Orain berriz Loramendi-renak berarenak, neurtitzak eta prosa, datoz liburu onetan, maitekiro bilduak eta argitaratuak. Biltzaillea Yurre'tar Yulen Aita Kaputxinoa izan da eta Bedoña'tar Joakin Kaputxino-gai zanaren lanak arretaz ta osotoro biltzeaz gaiñera, argibide ugariz jantzi ditu. Ori gutxi eztela, aren bizitza eta lanak ederki azaldu ditu bilduman ipiñi dion itzaurrean».

2) «*Loramendi*» (1907-1933) *eta aren garaia* (Bilbao, 1962). «Olerti» bilduman dator, «Esku azalak» deritzan alean, 41'gn, orrialdean. Lan onek irabazi zuen Euskaltzaindiak 1965-

9-20'an antoiatutako nor-geiagekako elerti kritikazko bigarren saria. N. G. (Nikolas Altzola-Gerediaga)'k onela: «Liburutxo onetan Loramendi olerkariaren bizitzari ta euskerazko lanai buruz idazten dau Aita Yulen Yurrekoak. Loramendi Ven denporako euskal literaturaren barri ugari be emoten dauz: gal atsegiña ta ondo egiña. «Urrezko gizaldia euskerarentzat» esaten deutso XX gizaldiari».

3) *H-garren Batikano Batzarra* (Zarautz, 1965). Itxaropena. I. Lenengo aldia, 23-garren Yon Aita Santuak asi ta burutua. A. Villasante'k onan: «Gaurko izkuntzetan literatura ugaria egin da, ta egingo da oraindik, Konzilioaz. Gure euskera gaxoan naiko urri aurkitzen gera, bai ortan eta bai beste milla gauzetan ere. Orregatik gure txaloak, zorionak eta eskerarrak merezi ditu Aita Yurre Kaputxinoak. Konzilioaz liburu bat osoa eman digulako. Nola izan zan Konzilioaren asiera, ango itzaldiak, eztabaidak, goraberak eta joerak: ori guzti ori kontatzen du. Lenengo ekiñaldiaren kronika bat bezela da, *beraz*. Egillea makiña bat urtean mixiolari izana da Txinako lurraldeetan. Baiña Euskerantzako duen garra ez da orregatik bat ere epeldu. Aitzitik findu ta azkartu bal. Oso gustara irakurri det liburua burutik burura, batez ere gaiak berak tiratuta. Ez da ori, tamalez, euskerazko liburu danetan gertatzen».

4) *II-garren Batikano Batzarra* (Gazteiz, 1967). Esset irarkolan. 354 orrialde. II. 2-garren, 3-garren ta 4-garren Aldiak, 6-garren Paul Aita Santuak jarraitu ta amaituak. Euskalerriko aldizkari guztiak goretsi zuten idazti au. Askoren artean, ona Estibalitz'eko beneditarren nagusi dan Ixidor Baztarrika'k idatzia. «Egilleak —dio— Batzar nagusiaren 2-garren, 3-garren eta laugarren aldien kondaira ematen digu. Batzar aldi auek Aita Santu berria izan zuten zuzendari: 6-garren Paul. Orregatik Aita Santu orren buru argi ta esku trebea nunai ageri dira. Ona emen gal nagusi batzuk: Erlijiosoen biziera eraberritzea, Laikoen apostolutza, Erljio askatasuna, Eliza gaurko

mundo berrian, Elizaren míxio-lana, Gaztediaren kristau-aziera... Gai bakoitza laburki ta argi adierazita dago: batzordeen lana, gotzaien iritziak, eztabaidak eta erabakiak... Gaurko kristauak jakin bear du zer eskatzen dion Batzarrak. Ta orretarako dator liburu». Peña Albizu Xabier'ek, berriz, onela: «Agur, aspaldiko... Pozaren pozaz jaso det zuk eskeñi didazun liburu ederra. Eskerrik asko, eta nere eskerron beroenaz batera, artu ene biotz-barrutik dagizudan zorion-agurrik gartsuena. Lan bi-kaiña egin dezu... ez ortan gei! Bal mamíñez eta bai izkeraz ongi baiño obeto deritzait zure lana. Atsegiñik aundienaz agurtzen zaitut eta beko zuzenbidera «amar ale» bialtzea eskatzen dizut, biar bertan igorriko dizudan jiro-postala artu orduko».

Bi liburuok, izan ere, Eliz-Batzar nagusiari buruz euskeraz egindako lanetatik ederrenak dira. Batzar orretan buru-belarri egon zan, agiri danez, Aita Yurre; zur ta ernai zer jazoko; ori-xegatik burutu zizkigun bi liburu ezin obeak. Bear zuen Euskalerrriak an erabillitako gai sakon aiek argi ta aisa emanik zekarzkin liburu bat, eta olaxe egin zigun A. Yurre'k Il-garren Patikano Eatzarrai zegokicn inguruetakoko albiste ta berriak mamitsu ta erre, luze ta zabal, gertatu-ala gure erri xumeari eskeñirik. Or biderik aukerakoena Batzar aretako gorabera guztiak sustraiz ezagutu al izateko.

Gipuzkeraz arilduta daude bi liburuak. Akatsik? Ez bear bada. Neri maiz esan didate: «Baiña zergaitik ez dozu idazten bizkaieraz?». Ibiñagabeitia'tar Andima'k bein idatzi zion A. Yurre'ri, egin zuen lana txaloka artuaz. «Zure gipuzkera —ziotsan— oso da ederra eta garbia; bizkaierazko zenbait esakera darabilzlázula? Eta zer: Ez al gera barasuna irixtekotan ari? Gaiñera bizkaitarrok ari gera batasun bidean lan andiena egiten, giputxek eurek baiño milla bidar aundiagoa, eta txalo jo bearrean, arrika egiten digute oraindik ere. Baiña zuk zure bidetik, Aba malte orrek, euskera eder, garbi eta argia erabili-liaz, orain arte bezela».

Euskalkien batasun zalea dugu A. Julen. Beiñola, Arantzazu'ko billera nagusian lantxo polit bat irakurri zigun Euskera-ren Batasunari bumz. «Euskalkien batasuna orain bereala? Ala oraindik ez? —zioan—. Urteen tontoretetik gure mende oneri, bere azken laudenera doanari, begiraldi bat ematean, laster ikusten det Euskerak aldaketa ta aurrerabide aundia egin duela mende onen asieratik gaurdaino. Eta Euskerak darabilen ibilleran, «Gipuzkoera» gallenduz doala. Ego aldeko Euskalerrian esan nai det. Beraz batasuna berez bezela datorrela. Gertikizun onen aurrean, ona zer burutazio datorkidan. Aurrena galdera bat egitea da. Zertarako ba larritu ta itoka bezela ibilli nai, berez datorren zera batean? Berez datorrena, guk egiñikakoa baiño ohea izango baita... Ta orrela iñor ere naigabetu ta bidegabetu gabe, egingo bailitzake gaiñera... Ta ain zuzen ere, ori bear degu: Euskalkien batasuna ez dakigula izan, alegia, euskaldunok bereizteko, bat egiteko baiño...» Altube, Orixe ta beste askoren iritziz sendotua, Baiona'ko «Alderdi»-n argitara zuen lantxo au (1969? 5-6, 250 zenbakla).

«Zeruko Argia»-tik dakusgunez, olerkiak ontzen ere bazekian.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 648 orr.; L. Mitxelana, *Egan*, 1961, 1-3; N. A. G., *Egan*, 1963, 4-6; A. Villasante, *Aranzazu*, 1965; Iñaki Eizmendi, *Zeruko Argia*, lorailak 14 ta 21, 9 orr.; I. Baztarrika, *Estibalitz*, dagonilla-urrilla, 1967; «Aizti», *Aranzazu*, dagonilla-iraila, 1967; *Principe de Viana*, Iruña, 1961, uztailla, 17-garren zenbakian; *Alderdi*, Baiona, 1969, orrilla-bagilla, 250-51 zenbakian; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 51 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 132 orr.; *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 131 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 596 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografía*, I, 463 orr.).

30.—JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA (1902-1976)

Barinaga'ko semea, an bait zan jalo 1902-an Gazteiz'en osotu zigun apaiz-karrera. Gudaldian, oraindik karrera bukatu gabe, Bilbao'n egin zuen lan «Eguna» eratu, zuzendu ta aurrera ateratzen. Nazionalak Bilbao'n sartu zirenean, Barinaga'go bere etxera biurtu zan; baiña laster, andik Bilbo'ra itzuliazi ta eriotzako zigorrez gaiztetsi zuten, «Eguna» zala-ta. Zigorra arindu, arat-onat ibilli ta karrera bukaturik, meza berria esan zuen. Gero, Arrasate'ra.

Gazteiz'en ikasle zala, guztiz euskalzale agertu zan. «Kardaberaz» saillekoa genduen, «Arretxiñaga» izen ordearekin lan jator asko egiñik, toponimi, ipuin eta aiegitan batez ere. Barbier'en ipuin mordo bat bizkaieraz ipiñi zigun. «Eguna» egunerokoan lan ederra egn zuen, baita gero Arrasate'ko Lankide Kuxatík ere. Berton il zan, 35 urtez lanari ekiñik, 1976-11-29'ai.

(Ikus A. Zubikarai, *Kardaberaz-5*, 1977, 74 orr.).

31.—ANTONIO ARTZA LLONA (1899-...)

Lur-giroak egin oi gaitu aberri-zaie. Norbere lurra, norbere aberri! Izatearen sakomilloan, ondo gorderik, daramagun zer-bait duzu, azaldu eziña. Guztiok gaude beronen osatasuna bllatu bearrean. Egiaren atzetik kezkatu gabiltzan bezela, lur-giroaren beteak garabiltza, urak errota-ardatza legez.

Gisa onetakoa genduan Artza euskal idazlea. Txorierrin sarkaiderrantza daukazu Lujua erritxoan munduratu zan 1899-12-5'an. Gaztetatik zekien euskeraz, eta 1931'tik beintzat, bere erriko albiste ta izparrak azaltzen dira «Euzkadi» egunerokoan, berak Luiu ta Getxo'tik bialduta.

Erbestera jo zigun azken gerraldian, beste askok bezela noski; eta arrezkeroz Arjentina'n daukagu, Buenos Aires'en batez ere, kargu garrantzitsutan ere zer erantzuna izanik. Eusko Ekin-tzak) buru izan zan, adibidez, 1954'tik 1966'ra; «Laurak Bat»-

eko buru 1957'tik 1958'ra, ta Eusko-Arjentinaz Bazkunen Álkarteko buruzagi 1963'tik 1964'ra; «Euskaltzaleak»-en buru 1965-1966.

Buenos Aires'eko «Euzko Deya»-n eta Donostia'ko «Zeruko Argia»-n idatzi du, «Txao» ta «Torkatiko» goitizentzat erabilirik.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 43 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 606 orr. ta *Diccionario*, IIFgarren alea, 93 orr.).

32.—ERRÓSE BUSTINTZA OZERIN (1899-1953)

Euskal literaturan erabili zizkigun izen-ordezkoak: «Mañariko» ta «Mañari'ko Erróse». Izurtza'ko seme argi Bitaño'k onela: «Euskeraz asko ta ondo idatzi daben idazle bat dogu. Batez be idatzi ebazan elezar antzerako kontuak dira aipagarrienak. Bere buruz asmetan ebazan kontu politak, asmakizun aundia eukelako. Erriko jendeak agoz-ago erabilten dabezan sorginkontuen antzerakoak egiteko euki eban ekarri aparta» (*Egan*, 1963, 73 orr.).

Bustintza'tar emakume argia Mañari'n iaioa duzu, Arrueta auzunean, Zumelaga etxean, 1899-9-3'an, gabeko bederatzi ta erdietan; urrengo egunean eman zion bataio-ura Frantzisko Belaustegi apaizak. **Bere** gurasoak: Felix Bustintza Lasuen, arri-gillea, ta Marzelina Ozerin Arriaga, biak mañaritarak. Kirikiño'ren illoba.

Gerra garaian erbesteratu bearra izan zuen; orrela, Frantzia'n egotaldi polita egin ostean, Mañari'ratu zan berriz ere ta ementxe bizi izan zan beti, bere aizpa ta Kirikiño'ren emazte Basili'rekin. Etzan ezkondu. Atzenik, ementxe, bere Zumelaga etxean il zan, leuzemi edo odol-zurbil gaixoz, 1953-8-20'an, arratsaldeko ordu bi ta erdietan. **Bizente** Irasuegi'k eman zizkion azken sakramentuak.

EUSKAL IDAZLE TREBE.—Beiñola, MEOE osatzerakoan esan nuena, ez baitasun gabe, aitortu nezake gaur ere, mañaritar onetzaz; «Idazle biotz-samur ta ezta, mitxeleta egon-ezin antzera, mendi, baserri ta arkaitz-zulo zear ipuin tximel billa, iñoiz nekatu etzana» dugu emakume argi au. Irudimen azkarra du, bere errikoen agotik jasoriko ipui, esaera ta elezarrez edesti ta kon-taera zoragarriak eratzeko.

Naiko ugari idatzi zuen «Euzkadi» egunerokoan, «Euzko-Enda»-n (1939-40), «Gernika»-n (1951, 156 orr.), «Karmel»-en (1956), «Jesus'en Biotzaren Deya»-n (1952), eta abar. 1930'tik 1936'ra bitartean, ia astero bialtzen zitun «Euzkadi»-ra Mañari'ko izparrak, baita sarri idazlari sakonak ere: lan mamintsuokin liburu irakurgarria osatu genezake. Olerkitxo ariñak ere utzi zizkigun. Azken urteotan, aren ipui ta elezarrak Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-n eta «Anaitasuna»-n, *Euskalerriko Ipuñak* izenez, J. Kerexeta'k eman zizkigun argitara.

Nolako gatza ta joskera zuen Errose'k jakin dezazun, irakur mesedez, *Sorgin-Idaztija* deritzan ipuitik zati bat. Bein batean, «Irakorta» baserriko mutillari, basotik etxerantza zetorrela, lamiña bat agertu zitzaion bide ertzean, eta irriparrez, alkar-izketa goxo ondoren, liburu bat eman zion bezuza bezela; liburu ark, alere, zoritxar guztiak gaiñ ekarri zizkion. Egun batean, ikaraz, mendirantza arin abiatu, otoitzean ari zan agure bat aurkitu zuen, eta «ni gaiztoa ta ori deuna» bere kolkorako esanik, eremutarraren aurrean belaunbikotu zan. Onek, «sorgin-idaztia» Jon done aurreko gauean sugartara jaurti ta gero, beatza mendi batera zuzenduz, mendi ortara igo ta bertako gurutzearen oiñetan gau osoan otoitz egin zezala, agindu zion. Mutillak, esan eta egin, eremutarrak agindutako guztia bete zuen zintzo-zintzo ta, aurrerantzean, «Irakorta» basetxeko mutillak ez zuen ezetari-ko ezbearrik izan.

IRITZIAK.—Idazle bikaintzat jo izan dute beti. Bitaño'k gisa onetan: «Mañariko izango zan, ziur asko, elezarretzaz edeski ta

ipuiñak idazten lumarik irudimen aberatsenetarikoak» (*El Bidasoa*, 1955'garreneko urtarrillean). Arrese'tar Emeteri ta Mañariko'ri eskeinitako goratarrez zioan au.

Berriz ere onela: «Gal ta bide errez-egokiz, antze ta elerti balio ziurrezko idazlanak lortu zituen. Nun ota dugu orren ezkutua? Egizale izan zitzaigun bere izakeraren ariora, ta jalo ta il zan bere txoko laztaneko baserritarren kontaeretan argi-erazi ta mugitu zan» (*Cien autores vascos*, 16 orr.). Mañari, izan ere, tokiz ta jendez, orri dagokiona duzu, aukerakoa iñolaz ere. Untzillaltz, Mugarra, Urkulu, Eskubaratz, Salbigain, sorgin-lamiña ta maltagarriz beterik, egokiak dira, berezkoak noski, elezar-galak eskeintzeko, leize beltz, saguxar eta baserri-jende misteriotsuz gaiñezka.

M. Zarate'k: «Olerki eta kantu-letrak bere alnbat egin eban. Aberatsak dira bere idazlanak etnolopia aldetik. Euskera erreza, errikoa darabil; noizik-bein, garbikeritxo batzuk ditu» (*Bizkai'ko euskal idazleak*, 220 orr.).

Ibiñagabeitia'tar Andima'k: «Trebea duzute Mañariko Erróse ipuiak idazten, gure artean garalenetakoa nik uste oraingo ontan. Ba dizu irudimena, eta ba dizu batez ere biotzondo» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 5-6 zenbakiak, 27 err.).

A, nolako idazti bikaln-bikaiña osatu genezaken Mañariko'ren ipui-lanak osorik emanda!

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 756 orr.; Bitano, *Egan*, 1963, 73 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, multikopiz, 1965, 42 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 16 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 59 orr.; M. Zarate, *Bizkai'ko euskal idazleak*, 1970, 219 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 331 orr. ta *Diccionario*, Bi-Caballe, 625 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografia*, II, 177 orr.).

33.—EUSTAKIA ALTZOLA LIZUNDIA (1899-...)

Izurtza'n munduratu zan 1899-9-19'an, «Tontorra-Altzola» deritzan etxean. Gurasoak: Aita, Nikolas Altzola Solaguren, Izurtzakoa, ta ama, Frantziska Lizundia Intxaurrealde, Abadiño'ko Matiena auzuneko «Etxenagusia» etxeko alaba, ta Aita Lizundia domingotar mixiolariaren arreba.

Gaztetan moja sartu zan Durango'ko Klarisetan, eta emenxe bizi da gaur ere, 76 urtekin. Sendi jainkozalekoa dugu, agiri danez, lekaipe au, beste iru aizpa ta neba bat ere, bada, Jainkoari zeatzki eskeiñiak izan ziran: Bemardiñe, mojaetxe onetan bertan il zan; Juana, Durango'ko Santa Susana komentuan, gerrateko lerki-ausiabartzan zauritu ta Basurto'n il zan; Josefa, berriz, Adoratzizetakoa Limache (Txile)'n il zan. Eta nebea, Marista Anaia, Brasil'en mixiolari, 1974'an il zan.

EUSKAL LANA.—Garai bateko neskatilla asko legez etzan alfabetatu euskeraz idazten; baiña bere etxean ikasitako izkeraz ederki mintzatu izan da Eustala, eta gaztetatik mintzatu ere. Gero, urteetan aurreratuta, asi zan euskeraz idazten, ia irurogei urte eukazala, azken urteotan naikoa idatzirik.

Senitarteko duen mojatxo onen lanak aztertu dituen Nikolas Altzola Gerediaga'k onela idazten dit: «Zail egiten jakon ortographia barria, eta orregaitik jarraitu dau bere gisara erabilten graphia. Puntuaziñoak-eta be, bere gisara erabilten ditu, ajolatasun aundi barik. Esanguriek arduratzen dau geiago, azalezko apaiñok baiño. Mojaetxe barruan ainbeste lekutako mojalagunekaz bizi izan dalako (gipuzkarrak, naparrak, bizkaitarrak) sarritan zalantzan ikusten da bere euskera aberatsa, baiña garbi ikusten da *I*xurtzako euskaria dala bere jatorrizkoa. Lapsus batzuk be agertzen dira noiz edo bein; askotan ez. Buru argiko emakumea dala, garbi ikusten da».

Zor idatzi *ote* digu euskal literaturara agertu bai agertu ez daukagun emakume argi onek? Mota askotako gaiak urratu dizkigu, agi danean. Bitañok berriz ere: «Gai ugeri klasifikatu leike bere idaztíen artetik; Izkuntza gaiak (itzak, esaerak, lekukotasunak, eta abar); Etnoloji gaiak (ipuiak, pasaixuak, gertakizunak, kantuak eta abar); personen bizitzak; famili, adiskide ta ezagunen barriak; erlejiño, aszetika eta mistika gaiak... Argitaratu barik dagoz kontixu geienak. Ipui bat bakarrik argitaratu zan «Egan» aldizkarian».

Gaiok geienok eskutitz erara idatzita dauzkazu. Berrogei ta amar bait onako ditu. Eta oietan sartuzen ditu ipui, etncloji-gai ta abar. Amalaugarren eskutitzean dator ipuitxoau: «Joss Mendibe sarra, gau argi baten iretargiyen argitasunaz ebillen, soloari-giyetan ganau bustarri bategaz, da onetan ikusi eban argi ill ara bat pasetan zalasolo eskumatik sier. Solo ori eguen orma sarratuen, da orma kanpotik pasau zien argi illara ori, da ganauek ain sustau ein zien ze, ikotike asi, da eskapau ein utsien etxerañõ da sustaute, zer ein estakiyela gelditu san, da onetan eyatorren bakarrik kojatxo bat, da esan eiyutzen onisek berbok: «Ene gisontxue, gaba gabekuentzako da, da egune egunekuentzako, da or aurrien juen dan illariek erreparau bautsun, txarto biersaiñun, baya geyau saso onetan esaites etorri ona barrio». Da Jose Mendibek pentsetan eyeban Purgatoriyoko arimak ziela...». (*Amalaugarren eskutitza*: 1963-2-28).

Izurtza'ko «Tontorra-Altzola etxetik ezta Eustaki mojea bakarrik izan euskerazko idazki edo eskutitzak egin dituna; baita onen neba Satur Altzola ta aizpa Bitoriana Altzola'k ere ortarako oitura izan dute; eta lau lengusu-lengosiña auek: Maritxu Elejabarrieta Altzola'k, klaristarrak, euskeraz erakutsi du Durango'ko lekaimetan; eta Frantziska Uria Altzola'k Oñati'ko Bidaurreta mojaetxean; Nikolas Altzola Gerediaga ezaguna dugu euskal literaturan; eta Satur Altzola Gerediaga. Bi billoba Garbiñe Altzola Egiraun eta Saturtxu onen nebak ortan saiatu

izan dira; Garbiñe'k, gaiñera, Izurtza, Mañari, Berriz, Garai ta Durango inguruko izparrak maiz bialdu izan ditu «Agur» eta «Zeruko Argia» aldizkarietara.

(Ikus V. Parral, *Vida Vasca*, 44 zenbakian, 201 orr.; Auñamendi, *Diccionario*, I, 66 orr.; N. A. G., *Tontorreko Altzola-Lizundia'tar Eustajia-ren Euskal Idaztien Lerrokada eta Zatiak*. Argitaratu gabe, oraindik. 1975 urtean egiña. Amabost folio-orri).

34.—JUAN ATUTXA (1899-...)

Jesulaguna. Zeanuri'n, Undurraga goiko auzunean jaio zan 1899-3-26'an. Lenengo ikasteak Undurraga'n bertan osotu ziotuen, berrogei urtetan Zeanuri'n maixu izan eta erriko Udalak, esker onez, Udal-etxean bertan oroitarri eder bat jarri zion Agustin Intxaurre'ekin.

Elizgizon izan nairik, 'amairu urtekin Durango'ra joan zan, Latiña ta giza-letrak ikasteko. 1913'an Komúlas'era jo zuen, an eta Loiola'n ikasirik elederra, izlaritza ta erretorika. Jakintza Oña'n ikasi zuen, eta Teologia Oña'n eta Belgika'ko Marneffe'n. Oña'n jauparitu zan 1931'an, Iñaki Deunaren jaiaren aurreko egunetan.

Irakatsi ta irakatsi eman du bere bizitzaldia, urte askotan latin eta beste zerbaitzuk, Durango'n, Kolonbia'ko Barranki-11ah, Xabier'en... Azken urteotan Durango'n bizi da, gaixo samar.

EUSKALTZALE.—Maite duguna ez dugu inñolaz ere aiztu ta saiets uzten. Ezta A. Atutxa'k ere bere basetxe loratsuan ikasi zuen euskera. Elizgizonari dagokionez, Loiola'n zegoela asi zan obeto, sustraiz ikasi ta gure izkuntzak dituen barne-izkutu guztiekin jabetzen, gerora ere ortan egiazki arduraturik.

Orrez gaiñera idazkortza erabiltzen ere bizkorra izan zai-
gu. Aita Chalbeaud jesulagunak beiñola, urte mordoan, lan-
gilleen artean Batza bat zeakan, «Jesus Obrero» zeritzana.
Aienitzat lau orrialdeko illeroko bat irarten zuen, «Si o No»
idazpuruarekin. Illeroko au A. Atutxa'k jarten zion euskeraz,
«Bai edo Ez» izenarekin.

1969'an, *Gogo-Yardunek*, Loiola'tar Iñaki Deunarenak, es-
keiñi zigun, bizkaieraz ipiñita. Bilbao'ko Encuademaciones Bel-
gas irarkolan. 94 orrialde. Onela diosku sarreran: «Gogo-Yar-
dunek deritxan idazti txikia, baña egi ta irakatsi sakonez andia,
Iñaki Deunak egin eban. Onetariko gogo-yardunekin berak on
andia artu ebanetzkeru, besteek be artu leikiela bururatuta, idaz-
ti baten ipintea erabagi eban. Uste eban berak besteei egin lei-
kien onik andiena auxe zala. Ta izan be gogo-yardunen lagun-
tasunarekin lenengotatik aldi oneitaraño zeinbatu-ezinala gizo-
nezko ta andrazko onbiurtu, ta asko deuntasunaren mallarik
goienetara igon dira. Iñazio Santuaren gogoyardunak indar an-
dia daukie gizonak onbiurtu ta onean iraunerazteko. Jaungoi-
koaren bildurra ta maitasuna suzpertzeko gaiek erabiltetik dator
indar au...Gogo-yardunen idazti osoa lenengoz Olabide Errai-
mun Aitak gipuzkeraz ipiñi eban, ta gero beste Jesulagun batek
yarri dau. Ta ona emen bizkaieraz. Egin leikien ta nai gendu-
ken on andia egin dagiela Gipuzkeraz ta Bizkaieraz be, erderaz
ta beste izkera askotan lez».

Orain irarkolan dauka —La Gran Enciclopedia Vasca'k ate-
rako dio—, irarrita noski, laster salgei jarriko dan Euskal-Adi-
tzari buruzko lan luze-sakon bat; lan ori biribiltzen ari izan da
urte askotan. Osasunez urri dabillen arren, beste gauza andirik
egiteko ez-ta, «lagundu egin nai izan dautser gizon andiei apur-
txo bat», dio berak.

35.—SORNE UNZUETA (1900-...)

Abando-Bilbao'n munduratu zan 1900-11-27'an. Malxutza ikasi zuen, baita egin ere Errigoiti, Plentzi, Lemona ta Berango'ko euskal ikastoletan.

Errepublikan etorri zanean batez ere, 1931'an asita, itzaldi asko egin zituen, euskal emakumeak erriketa ta politikan dauzkan betebeharrak euskeraz eta erderaz aldarrikaturik. Gerraldian Frantzia'ra iges egin zigun, Paris'ko «Euzko~Deya»-n olerki batzuk argitara emanaz. Gaur Euskalerrian aurkitzen da.

EUSKAL IDAZLE.—«Euzkerea»-n, «Euzko Deya»-n eta «Euzko~Gogo»-n azaldu ditu batez ere, bere idazlanak, itz lauz eta bertsoz. «Utarsus» goitizena erabili du sarri bere lanak izenpetzean.

Eder izan zalo bere arloko gaiak erabiltea. Ikastolan ikusi ditun gaitzak eta erreztasunak, esate baterako, umetxoak euskeraz ta erderaz ikastean. Oso zentzunez bñribildua du «Ikastoletan bi elez» deritzan lana. Ona zatiño bat; «...Umiak ikasten dabe —diño— elia euren amaren ezpanetarik, baña ikastolara juan orduko eztakije euren bixitzan erabilliko dabezan itz gustijak, eun batzuk baño. Ikastolara juanda asten da euren gogua zabaltzen.

«Asikeran umiak dagoz bildurtuta, ixillik. Irakaslia, euzkelduna ixan arren, irakatsi gustiak egiten dauz erderaz. Noz-edo-noz, ulertzen ezpa-dau, egiten dautso euzkeraz apur bat berari. Lendik ikastolara asi ziranak, nagusi]jak, geyen dakienak, baita irakasliak be, artu-emon gustijak egiten dabez erderaz. Urte bat edo urte bi barru, ba-dakije erderaz, euskeraz dakijen beste ume euzkeldunak. Ordurako ikasi dau irakurten ta idazten, eta ordubantxe asten da bat benetan, bere gogua zabaltzen, landuten, irakatsi barriakaz. Ondurik aurrera ikasten dau benetan elia..., ta zein ele? Atzeritarrena. Erdel-iztija,

España'ko Edestija, baita Ludistija be zelan? Anei bider esango dau «españatarrak ixan genduzan», «españatarrak daukoguz...» (*Euzkerea*, 1930, XXII zenbakia, 606 orr.).

Euzko-odoleko txiletar olerkari garbai Gabriela Mistral antzera, poesi samur ariñak ere landu zizkigun garai batean.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 701 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 53 orr.).

36.—JOSE ANTONIO OAR-ARTETA (1900-...)

Axangiz'en munduratu zan 1900-2-18'an.

Gaztetatik, goi-deia zuela barnean susmaturik, Lekeitio'n ikasi zituen latin eta gizarte gaiak, J. B. Eguzkitza irakasle zuela. Jaunari eskerka egoten omen da «gizaldi onetan izan danik sermolaririk onenetarikoa ta latin be ezin-obeto ekiana» maixu izan zuelako. Aldi aretan zillegi zan-eta, iru urtean osotu zituen lau urteko ikaskuntzak.

Gazteiz'en eman zituen Filosofi ta Jainko-gaiak. Eta Burgos'en, eliz-karrerako azken urtea ikasiaz, epaikari guztien iritzi onez, Lizenziatura iritxi zuen Teologian. Ondoren gudaritza egin zigun, Gazteiz'eko «Gipuzkoa» gudari taldean. Ala ere, Afrika'ko gerra zala-ta, Algeciras'era eraman zuten Primo de Rivera'k Alucemas artu zuenean. Gudaritza bukatuta, Araba'ko Letona erritxoan egon zan arimazai; baita gero Bizkaï'ko erritxo bat edo bestean ere, ta azkenez Markiña'n txauburu-lagun; 1936'an, Markiña utzirik, Bilbao'tik, Santoña'tik, Santander'tik zear Prantzira jo zuen; emendik Beljika'ra ta ondoren berriz Prantzira. Alemanak Frantzi artu zutenean, Ziburu'n bizi izan zan eliz-laguntzaille, 1947'garrenaren azkenerarte.

Amar urtez erbesteko aize latza arnastu ondoren, 1947'an, euskal erriratu zitzaigun. «Gorriak ikusita», diosku berak. 1950'-

garren urtean Lemoniz'eko arimazai izentatua izan zan, berton 24 urtetan ainbat lan osaturik, bai eliztarren artean eta bai eliza berriztatzen. Gaur Gernika'n daukagu zartzaro goxoan.

EUSKAL LANA.—Euskal idazle bezela ezaguna baldin ba'da, geiago oraindik sermolari legez. An gerra aurrean —1936?— Nerbion'go mixio ospetsua izan zanean, beste mixiolarien artean zan Oar-Arteta ere. «Jesus'en Biotzaren liburutzua» argitaratu zuenean, M. Lekuona'k egin zion itzaurrea, eta onela mintzatzen zaigun: «Sermolaria degu onen egillea. E agun du. Itza errex, oso errex dario nun-naitik. Errex eta ugari. Izketarako errextasunak ordea, ez dio bat ere kalterik egin, bear zan argitasunari. Argi darabil, oso, bere esagaia. Eta egoki, oso egoki. Ez du idaztiak, bear ez dan gogorkeririk. Biziro gozoa ta atsegiña du irakurtzea» (IX orr.).

1) *Aratuzteko Iru-urrena* (Zornotza, 1930). Garai artan, zerbait ziran errietan beti egin oi zan, irain-ordainketa bezela, aratuzte iru-urrena. Sarda ta Salvany'k egiña duzu euskeraz.

2) *Jesus'en Biotzaren Illa* (Zornotza, 1931). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. 172 orrialde. Ba-zan aurretik ere gai ortaz Azkue'k egiña, baiña au egokiago dugu, neurritz ta gaiez. «Genduan»-en ordez «geba» ta olakoak darabilzki, baiña aditz-forma auek ez dira bereak, Jaungoiko-Zale'ko sasi-jakituren batek erantsiak baiña.

3) *Manuale Sacramentorum*, euskeraz (Zornotza, 1934). M. Lekuona'rekin batean. «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. Ama Eleiza Deunaren Sakramentuak eman eta geixoai Jaunaren besoetan ilten laguntzeko liburua. Abegi oso onez artua izan zan.

4) *Baltzeoa, pekatu ete da?* (Zornotza, 1936). 13 orrialde.

5) *Miren'en senargeya* (Bermeo, 1936). Ipui edo nobela duzu, baiña ez egilleak asmatua, jazotakoa ipui antzean jarrita baizik. Nobelari datorren gizon ori Gorgoni Erreterria'k, elan-

txobetar euskal idazle ta Bizkai Diputazioko alduak ezagutu omen zuen, eta eriotza or diñoan bezela barik, Ibarrangelu ta Elantxobe artean gertatua omen da.

6) *Misterio del matrimonio* (Bilbao, 1949). Verdes-Atxirika'renean.

7) *Liturgi-gaiak*. Gurpide jauna Gotzaln zalarik Apaiz-Batzorde bat sortu zan eliz-gauzak, meza ta abar, euskeraz jarri ta azaltzeko. Ortan lan egiña dugu, Ibargutxi, Manterola ta beste batzuekin, Oar-Arteta ere.

8) *Begoña'ko Ama Birgiñari Bederatzi-urrena* (Bilbao, 1963). 30 orrialde. «La Editorial vizcaina» irarkolan.

Ba-ditu beste bi bederatzi-urren ere; Mikel Goi-alngeruarena ta Ixidor Deunarena. 1936'tik 1950 tartean etzuen zer aundirik idatzi, beti zigorraren izupe neketsuan bizi izan zalako batez ere.

Erbestetik zala, ala ere, osotu zuen itzulpen jakingarri bat: Arras goterkiko kalonje M. Adam jaunaren *Sermons et Instructions* itzaldi liburu lau ta dotorea euskeraz ipiñi zigun osorik. Ez du oralndio argirik ikusi, baña merezi du.

Joskeraz eztu esateko akatsik. Orrez gaiñ, errikoi ta argia duzu geienik. «Euzkadi»-n (*Sasi Ezkontza*, 1934), «Ekin»-en, Anaitasuna»-n eta «Karmelen idatzi du.

(Ikus *Jakintza*, 1933, 319 orr.; San Martin, *Apéndice a Escritores euskéricos*, 27 orr.; Labayen, *Teatro Euskara*, II, 175 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 53 orr.).

37.—FRANTZISKO ALTUNA MENDIOLA (1901-...)

Ander eta Miren Andone senar-emazteengandik Zornotza'ko Boroa Auzunean jaio zan 1901-12-31'an, «Parola-beko» basetxean. Etxebarri'n bizi da gaur.

Lanbidea Zornotza'n ikasita gero, Galdakano'ra aldatu zan bizi izaten, urte batzuk geroago Basauri'ra joanik. Mendigoizale bizkorra duzu.

Baita idazle errimea ere. «Euzkadi» egunerokoan, eta «Euzko» asterokoan noizik-bein, azaldu zizkigun bere euskal lanak. «Basatxori bat» izen-ordekoa erabilli zuen.

38.—BIZENTE AMETZAGA ARESTI (1901-1969)

A. Ibiñagabeitia'k bikainki osatzen digu Ametzaga euskai idazlearen gizantza. «Orra —dio—, aspalditik Ametzaga'tar Bingen'ek gure artean lantzen dun arloa: itzul-lana. Ederki erakutsi dizkigu euskeraren gaitasunak gaurdaño argitara ditun itzulpen ederretan: «Hamlet», «Adiskidetasuna» eta berrien berri, «Platero ta biok», Juan Ramón Jiménez olerkari ospetsuaren» (*Euzko-Gogoa*, 1954, 70 orr.). Ortan luzaro saiatua dugu, izan ere.

Algorta'n, Getxo udal-barruan munduratu zan 1901-7-4'an. Ikasle ona, Eskubide-gaiak urratu zituen sakonki, 1918'an Valladolid'en karrera ortako titulua aterarik. Garai artan arduratu zan baita umetatik etzekian euskera ikasten, idatzi ta mintzatze-raiño ikasi ere. 1931'an Getxo'ko aiuntamentuko ziñegotzi da; bertako diru-arazoak-eta zintzo eramaten alegindu zan. Orduan ezagutu nuen nik egiazko euskaltzale bezela ere.

1936'an, gerra aroan, Eusko-Gobernu barruan Lenirakas-kintzako Buru izan zan, azkenez 500 bat umekin erbestera jo bear izanik. Donibane Garazi'n egon zan zati baten, ondoren beste ume-talde batekin Ingalaterra'ra aldatuaz. Urteak joan urteak etorri, Arjentina'ra jo zigun.

Etzan geldi egotekoa. Ta laster oratu zien euskal lanai; 1943'an, esaterako, «Instituto Americano de Estudios vascos» sortu zanean, alkarte ontan agertzen zaigu Ametzaga. 1947-1955 bitartean Montebideo'ko Ikasgu nagusian «Euskai Kul-

tura» erakutsi zuen, baita bertako Goi-Kulturaren Ikastetxean euskera ere. 1957'rantza Venezuela'ra joan zan, uri artan lan egiñik euskal dorrean batez ere beste amabi bat urtean.

Karakas'en il zan 1969-2-4'an. Euskaltzaindiko urgazle genduan 1957'tik.

EUSKALTZALE.—Euskaldun berri izanik ere, beingo batean jabetu zan gure izkuntzak ditun izur eta biurgune guztiakin. Euskal idazle bikaiña dugu, eta itzultzaille batez ere. Eta olerkari goxo. Nolako aoxuria ote zuen? Gizona, dauzkan irriks eta aokotik ezagutu oi dugu. Ametzaga'tar Bingen'i, idazterakoan, ipuiak, elezarrak, saioak eta olerkiak atsegin zitzaizkion. «Euskera aldezko esakunak» da aren lenengo lan argitaratua (*Euskal Esnalea*, 1925). Gero datoz bestea, eta oparotsu.

Ona algortarraren lanik garaienak:

1) *Itz oroigarriak* (*Euskal Esnalea*, 1928, 50 orr.). Urte berean Donosti'ko «Euskalerriaren Alde»-k jarritako saria jaso zigun Cervantes'en «El Licenciado Vidriera» euskeraldu zuelako.

2) *Hamlet* (Buenos Aires, 1952). William Shakespeare'ren trajeri euskeraz. 205 orrialde. Itzulpen oni buruz A. Ibiñaga-beitia'k: «Gure euskerak berez, antziña kutsua dizu, eta antziña kutsu ori Hamlet'en itzulpenean ere bete-betean ikus dezakegu. Euskerak ez dio bat ere urritu indar bere-biziko ori Shakespeare'ren ingeles textuari, ar© geitu egin diola esango nuke. Leizarraga'k darion zaar-kutsuz bere itzulpena gantzutu du Ametzaga'k» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 9-10, 19 orr.). Ingeles idazle aundi onen LXVI'garren amalaukoa ere euskeraratu zigun (E. G., 1954, 135 orr.).

3) *Adiskidetasuna* (*Euzko-Gogoa*, 1952). Kikeron'en «De Amicitia» euskeraz, zatika. Urte berean irabazi zuen «Argia»-k eratutako literatura leiaketako saria.

4) *Platero ta biok*. Illots andaluzitarra (Montebideo, 1953). Juan Ramón Jiménez'en «Platero y yo» euskeraztuta. 109 orrialde. Florensa irarkolan, Karlos Gonzalez Mendilaharzu-ren irudiakin. A. Ibiñagabeitia'k: «Poesiak beti ditu izkutune berezi ta zirkun-zarkun itzuli-galtzak. J. R. Jimenez'ek liburutxo ortan, Platero mandakoa laguntzat artuz, lirika goitarrez bere lana oretu du. Dizdiratsu, margo ñabarrez izadi betearen oiar-tzuna, itz sotil eta gogamen sakonetan gatzatua damakigu. Alare ez du Ametzaga'k olerkiaren gogalok saldu bearrik ukan euskeraz jazteko. Ortan datza aren meriturik nabariena. Aren lirika gure izkeraren txanbilletan ixurtzeko itz eta esakera egokienak arkitu ditu. Ez dio euskerak ukorik egin itzulari azkarrari» (E. G., 1954, 3-4, 70 orr.). 1974'ko jorraillaren 26'an Huslva eta bide batez Moguer ikustean, an J. R. Jiménez'en etxe-liburutegian idoro gendun Ametzaga'ren «Platero te biok», beste itzulpen askoren artean.

5) *Plini gaztearen idazkiak* (*Euzko-Gogoa*, 1951, 11-12, 31 orr.).

6) *Reading Baitegiko leloa* (*Euzko-Gogoa*, 1954, 169 orr.). Oskar Wüde'ren «The Reading gaol», euskeraz.

7) *Prometen burdinetan* (*Euzko-Gogoa*, 1959, 74-106 orr.). Aiskilu'ren trajeria euskerazturik.

8) Descartes'en *Ikasbideari buruzko Itzaldia* (E. G., 1963, eta *Egan*, 1963, 197 orr.).

9) *Jamaika'ren idazkia* (*Rev. Soc. Bol. de Venezuela*, 1966 12-17).

10) *Lur-miña* (*Egan*, 1960, 140 orr.). Goethe'ren antzera.

11) *Simon Bolibar'en eskutitza* (*Egan*, 1964, 116 orr.).

Erderazkoak, berriz, auek:

1) *Jesus Muños Te-bar* (Caracas, 1959), Edgar Pardo Stolk'ekin bat.

2) *Hombres célebres de la Compañía guipuzcoana* (Caracas, 1966), Pedro Grases'en itzaurreakin.

3) *El hombre vasco* (Buenos Aires, 1967). Or-emen emandako itzaldien bilduma euskal gaiezkoa. «Ekin» liburu sortan dator.

4) *El general Juan Uslar* (Caracas, 1966).

5) *El elemento vasco en el siglo xviii venezolano* (Caracas, 1966).

6) *Vicente Antonio de Icuza, comandante de corsarios* (Caracas, 1966).

7) *Bolívar y los vascos* (Caracas, John Boulten Eraikitzako Boletin'aren 63'garren zenbakian dator. Aldizkari au Ametzagak sustatu zuen urte mordoan.

Luma erreza zuen euskeraz ta erderaz, ta ez da arrigarri bere lanak eguneroko ta aldizkari askotan aurkitzea. Orratik, ba, aren lan osoa aipatu eziñez, gogora ditzagun beintzat Montebideo'ko *Boletín de Filología-n* eman zizkigun itzaldi ta bes-telako lanak, euskal abizenetaz (1952, 449 orr.) ta euskerari buruz (1943, 91 orr.) batez ere.

OLERKARI.—Eder zitzalon Bingen'i bere oldozkun aratz sakonak itz-neurtu liralñetan dizditsu dotea. Algorta'n bizi zalarik, euskerazko olerki xamur asko zeuzkan egiñak. 1933'rantza, J. Aitzol'ek eratzen zitun poesi-leiaketan agertzen zaigu. Ondoren, berriz, or-emengo aldizkarietan argitarazi zizkigun kopla ederki borobilduak. Urretxua'ko olerki-jaietarako «Otoia» deritzana, adibidez, pentsamentuz ta egituraz ederra duzuna; Dabid'en L'garren eresiko itzok, «irazan egizu enegan biotz garbia» eredu arturik, gotorki dabes Jalnkoaren errukia. Munduko bideak —eta bere barrua— sasiz makuru ta gilgil ikusiaz, goimiñetan dager (*Eusko Olerkiak*, 1933, IV, 73 orr.).

«Lur-miña» deritzana txukun egiña duzu; Goethe'ren antzera antolatua dala dio berak. Jaioteritik urruri egaztu bearra latz zitzaion ezmezik gabe, ta doixtar koplari gurenari bezela, atzerri-leiatillatik aberria erakusten zion biotzak intzira goxoz. Onela abesten digu seigarren aapaldian:

«Ezaguna al duzu itsaso gaiñean
kokatu uritxoa, arkaitz gorrietan?
An nire begiak lenik zabal nitun,
an gaztezaroa bizi ta amestu nun,
andik aita zarrak dei eiten didate.

Araxe, araxe,
Lur-loa dagidan eraman nazate».

Au idaztean, bere Algorra, bere Getxo zerabilen —bai ori-
xe!— gogotan. Lur-miñak ez parkatzen.

IRITZIAK.—Labur esanda, kultura-lan bikaiña da, ziñez, Ametzaga'k egin ziguna. Ta onek —ez aka— mesede ezin-obeia dakarkio gure izkuntzan. Izkuntz jalkia gura digu euskerak, eta ortarako bat ark egiña, mundako literatura jatorretatiko lanak euskal soiñeko dotorez jantzi. Euskal elertían goiak eta beiak edertu bearra daukagu.

A. Ibiñagabeitia'k onan: «Alegiñak egiten ari dira euskal idazleak aberri-izkera gaitu ta asmo garaienatarako ere egokitzen. Ezbairik gabe, xede ori iristeko biderik egokiena, itzulpena da, ots, gure artean ezagun ez diran arrotz-idazleen bulko ta gogoetak, sakonenak ere, euskeraz, zintzoki taiutzea. Ortara oldartu ziran, aurrenekoz, ainbat erri-izkera zokoratu, egun elerti gaindegiak iritxi dituten ainbat izkuntza. Ez daukagu zertan iardun aipaketa luzeegian, aspergarri litzake bada. Orra, aspalditik Ametzaga'tar Bingen...» (E. G., 1954, 70 orr.).

Hamlet'en itzultzea dala-ta, Nik'ek onela: «Ametzaga jaunak egin duan ekiñaldia ikaragarria iduritzen zaigu. Izan ere antziñako ingeles zarrean dagon «drama» izugarri ori euskerara aldatzea, olgeta ezta. Esan oi dute ondo itzultzeko idaztiaren mamia ondo ausnartu bear dala, bestela azala baño ezta aldatzen beste elera. Ta *Hamlet'cn* mamia sakon-sakona dogu; baño Ametzaga'k ausnartu ta bikain itzuli du, aldian dituan edertasunak ondo orraztu ta azalduaz» (*Gernika*) 1953, 121 orr.).

Darabilen euskereari buruz A. Ibiñagabeitia'k berriz ere: «Arrigarria benetan, euskaldun berri batek ain sakonM euskera ikas d izatea, bere erraietatik euskera osotuaren zitu bikañena ateratzeko... Ontan iardun bear genuke, Ametzaga'ren ariora, beste idazle guztiak ere; euskera bikain eta bakar bat, edozertarako gai diteken izkera bat euskaldun eta euskotar guzientzat antolatzen» (E. G., 1952, 9-10, 19 orr.).

Eusebio Erkiaga'k: «Legegizon egin zen Salamanca-n, izkuntza ikasi bilakatu, ingeles, frantses, griegu, latín eta euskera ikasi bait zituen... Laguntzalle izendatu zuen Euskaltzaindiak eta harén izkera geroago ta jatorrago ta atsegiñago zen» (*Euskera*, 1968, 285 orr.).

(Ikus Gabino Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1953, 39 orr., 1954, 56 orr. ta 1957, 126 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 1954, 734 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1954, 2-4, 41 orr.; M. Zirikiain, *BAP*, 1956, 106 orr.; K. Muxika, *Bol. Amer. E. V.*, 1953, 35 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1952, 19 orr. ta 1954, 70 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 483 orr. ta *Diccionario*, A-Amuzti, 628 orr.; J. San Martin, *Escritores, euskéricos*, 25 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 151 orr.; Andei M. Irujo, *Bol. Amer. E. V.*, 1969, 28 orr.).

39.—ZIARSOLO'TAR MANU (1902-...)

Bilbotarra dugu gizaseme langille, umoretsu ta antzerkiari emondako au. Euskaldunok beti izan gara langille, zein geure lurraldean, zein atzerrian; ez dugu zalantzik, geure onoiementatik bat orixe da, lan-zaletasuna. Itxas-ertzeko aizeari kresalsunda daiion legez, umore onaren piperra ere berezko dugu. Ta irugarrenez, izkirimiri, ipuin eta esaera bizi-bizien gatza berriz egundo ere etzaio palta euskaldun erneari. Iru doai oiekin jantzia duzu «Abdetxe», ezizen onez baita ezaguna gure literaturan.

%

EUSKAL IDAZLE.—Umetatik zekien euskeraz. ZeHen ori, baiña, obeki landu ta ikasten saiatu zan; soro bat, izan ere, sasz estal ez dedin, landu egin bear da. Orrela Manu, berez^ koari lagundurik, euskaltzale ta idazlari errime gertatu zitzaigun oindio gazte zalarik. «Euzkadi»-ko euskal atalean asi zitzaigun idazten, Kirikiño aundiak ortara beartuta. Kazetari bezela ortxe agertzen zaigu beste euskal idazle talde politaren artean.

Eta Ibaian'ek onela; «Langille oiei eskerrak lurra gertutzen joan zan euskera utseko egunkari bat sortu al izateko. Eta egunkari ori mirariz edo Bilbo'n 1937 guda artean jaio zan. «Eguna» izenez bost illabeteen, Bilbo erori arte argitara atera zan. Bizia eman zioten gizonek: gure omen beroa merezi dute» (*Euzko-Gógody* 1952, 1-2, 27 orr.). Gero esango dugunez, egunkari orren zuzendaritza Ziarsolo'ren eskutan zegoen. .. •

Noiz egin cte zan euskaltzale? Amaika-amabi urteko mutikoa zala, 1913'garren urtean, «Euzkadi» egunkaria sortu-berri zalarik. Berak onela: «Euskaldun nintzan arren, izkuntz-maltasuña lo egoan nere barrenean, ta «Kirikiño»-k, bere egunero-ko euskal-yardun alayaren bitartez itxar-azi eustan. Bai pozik irakurten nebazala aren erri-esakerak! Arrezkero, egunero, maitaleak maitea itxaro oi daun lez itxaroten neban aren «Euzkal-Atala». Ta ezagutu bage, maitatzen asi nintzan. Amazortzi urte nebazanean, ezagutu-nai-ta, bere landolara yoan nintzan, apurtxo bat lotsati, bere irakurle nintzanezko «titulu» utsakin. Ark egin eustan arrerea! Besarkada ta guztiko arrera maitea. Ta ala be, len baño lotsatuago lotu nintzan. «Kirikiño» ez bai zan beste edozein gizonen tankerakua. Apostolu baten antza eban eta zan. Aretxa lez sendo ta lerden. Bizar politez oso serioa. Betaurreko biribillen ordez, ilgoran illargi erdiak izaten dabirudikoak eroazan. Gure korbatearen lekuan, lazo bat txori eginda. Soñez, yakituriz, izakeraz, bere bizikoa zan. Lotsatuko ez zan ba amazortzi urteko mutiko ez-yakiña alako apostolu baten aurrean!».

Bairia barne-igarle azkarra zan Kirikiño, ta edu orretan aolku billa joan oi zitzaizkionai kezkek eta dudamudak uxatu ta gozo-arintzeko ba zuen bere biziko doairik ere. Manu'k darrai: «Laster uxatu eustazan kezkek eta lotsak, bere yadun atsegingarriarekin. Irakurtzen ikasi baneban, idazten be ikasi bear nebala esan eustan, errezago zala-ta. Adorez bete nindun eta zirriborro batzuk egiten asteko esan, berak orraztuko eustazala-ta. Bakotxak berak al dauan neurrian alegindu ezker, Euskera berpiztuko genula. Olantxe asi nintzan ta berari eskerrak nozu gaur nazan idazle apurtxo. Badakit, nirekin egin ebana beste eundazekin be egin ebala, beste ainbeste idazle sortuaz. Iñoiz ausnartu dot, bera izan ezpazan, bear bada, gure izkuntzari buruz ardurabako bat izango nintzala» (*Gazi-gazak*, 1976, 145 orr.).

Mañaritar jakintsuaren bultzadari esker, bada^ ainbat euskal lan oretua dugu. Eguneroko ta aldizkari auetan, beintzat, bere lanak irakurri ditzakegu: «Euzkadi», «Ekin», «Euzko», «Erri», «Jagi-Jagi», «Gudari», «Bizkaitarra», «Tierra Vasca», «Euako-Deya», «Anaitasuna», «Euzko-Gogo», «Karmel», «Olerti», «Zerako Argia» ta abar.

Maizuak ez du alperrik aizea astindu bear. Baiña^ zer, entzuleak, ikasleak jaramonik ezpa-dagiote? Onek ez du esan nai denak berdin diranik: Ziarsolo'k arretaz jaso zituen Kirikiño'ren esan eta irakatsiak, eta aren jarraitzaille zintzonenetariko bat egin zitzaigun Bizkaia'n. M. Zarate'k onela: «Kirikiñoíren jarraitzaillea da Abeletxe eta erri-erriaren filosofia umoretsuagaz egosten ditu bere idazlanak» (*Bizkai'ko euskal-idazleak*, 243 orr.).

Ona zelako' piper-miñez abailduta dauden Abeletxe'ren ipuiñak. Irakur au, miliaren artean bat;

«Pello-Koxe, Koxe-Pellipega-na yoan zan kontseju billa. Onek:

—Zer yazoten yak, ba?

—Ezkontzeko aukera bi yuadaz. Bata, alargun aberatsetarikoak dok, baña etxoat maite. Bestea barriz, oso txiroa, baña maite-maite yoat. Zeñegaz ezkondu?

—liño! Alakoetan biotzaren deiari erantzun bear izaten yakok, mutil! Ezkondu adi txiroagaz!

—Eskerrikasko. Orixe egingo yoat. Deituko dauat garaiz ezteguna.

i

—Aizak; alde baño lenago esaistak: Nun bizi dok alargun ori?»

Goi-argiak ikutua, koplara-erloan era bide-egiña dugu. «Karmen'go Amaren Egutegian», «Olerti»-n eta «Karmel»-en badiu olerki jasoak.

Itz-lauz ta neurtuz ornidutako liburu gozamin bat oraintsu argitara du: *Gazi-gazak* (Donosti, 1976), Edili'k bere «Txindoki-sorta»-n. Gazteiz'ko ESET irarkolan. 146 orrialde.

ANTZERKI-IDAZLE.—Erriari, Grezi'tík asita, beti izan zaio eder antzerki-lana. Euskaldunari are geiago. Antzerkiak bere mamia bear du, ta jantzia, biak atsegingarri. Gai xee ta ariñak, bizikiro erabilliak izan ezkeru, beri zaizkigu eder; aomen aundiko giz-egintzak ere, gaztediari baitik bat atsegin zaizkio ta ernai egon oi da aien goraberak ikusi ta entzuten. Abeletxe'ri, bere garaian, eder izan zitzaion teatru-gai erreza. Asko idatzi zuen, ia antzerki geienak ekitaidi batekoak. Gerra aurretik Euzko Gaztedia bezela, gerra ondoren ere bazan Bilbao'n antzez-talde bat, «Txinpartak», dantza ta teatru, jendea begi-belarri osoz adi eukitzen zekiana. Gazte-talde orrentzako eratu zizkigun bere lanak Abeletxe'k.

Bereak ditu teatru-lan auek; «Jai arratsalde baten», «Arzafañaren ametsa», «Goiz-otoia», «Afal ordua», «Bermio'ko portuan», «Atsoa gaztetu bear dogu», «Gabon gabonetan», «Jai aurrekoa», «Sorgiñak Etxaburu'n», «Eztegut'erdi», «Kata-

lin errotako», «Agur Donibane», «Saku jantzia», «Bertsolari saruketa», «Eguberri aizeak», «Paris'era gogo txarrez», «Gogozar Berdizkunde goizean», eta abar.

Oietatik nabarmenenak irurok izan dira: «Eguberri aizeak», «Bertsolari sariketa» ta «Gogozar Berbizkunde goizean». Lenengoak, 1956'an, Donosti'ko «J. Urkixo» mintegiak eratu-tako antzerki batzaldian, len-saria irabazi zuen, eta beste biak, 1959'an, deduzko aipamena merezi izan zuten. Lenengoa «Egan»-en dator (1956, 5-6, 191 orr.); besteak esku-idatzizkoak dira oindio. Noiz-edo-noiz osotuko al dute oiek liburu mardul bat; eusko teatru idatzia ugari xamarra dugun arren, lan oiek antzeztu naita dabiltzan gazte taldeak ez dute izan oi aukera aundirik, tamalez. Origatik, iñoiz argitaldu gabeko lanok, eta agortuak, alik ariñen irarri bearrean gaude.

IDAZLE ONA.—Aldarte umoretsua dutenak, idaztean, ez dira sarri txukuntasun billa ibiltzen; datorren legez, iturritiko ura iduri, aldatu paperera, aük eta lau, errez, ariñen ta kitu. Idazle izen aundukoak ere ortara iritxi bear omen du, ta ortara irixten ei da izen aundia artu al izateko.

«Kirikiño» etzan, bere ipuiñak biribiltzean, lora billa ibilli; ezta aren ikasle ta jarraitzalle «Abeletxe» ere. Baiña biak, Mañari'tarra ta Bilbo'tarra, jendeak eder ditu ta oso irakurriak dituzu. Irakurria izan, ez ote da au idazle baten ametsik gai-Uenena?

Txasta ezazu, otoi, Abeletxe'ren zatitxo au nolako euske-rea duen jakin dezazun. «Gure Erria —dio— txikia dan arren, munduko edozein aldetan aurkitu oi dala euskelduna, sarri entzun dot, eta zuek be aituko zenduen. Ezagutza ta agur mai-tagarridc maiz, eta izkirimiri barregarriak eurrez sortu oi dira, alakoetan. Azken oneitako bat edo beste kontauko dautzube-taz gaur, txolarte au ortarako dogun ezkeru.

«Bermiotar itxasgixon batek (pillotua berau) Egipto'ko Cairo'ra lenengo osterea egin ebanean, emaztea eruan ei eban lagun bere ontzian. Uria ezagutu bear ba-ta, ango kaleak zear yoyazalarik, pralle bizarduna ikusi eben aurrez-aurre; baña ez edozelako bizarrakin! Zabal da luze, gerririk-bera sabel-gañeraño elduten ei yakozan. Senar-emazteon ondotik igarotzean, bermiotar emakumeak bere esakera bereziaz esan ei eban arriturik:

«—Abe, Marie! Jokatu neki, bizarrok eztirala beriak!

«Prallea bapatean lotu, ta bere esku-gañetan bandeja baten lez bizirrak arturik, irriparrez eskiñi ei eutsozan esanaz:

«—Nal al dozuz ikusi, neureak badira ala ez?

«Andreak, apurtxo bat lotsati, tirakadaxo bat egin ei entson, orrela igarririk, eleiz-gizonaren okozpeko lur-marduletan txairo erne ta azitakoak zirala bizarrok. Esan bearrik ez, prallea euskalduna zala ta barriketa gozua izan ebela. Eta ondoren, bermiotar pillotuaren ontzian alkarrekin bazkaldu eben irurak, Izaro'ko bis-aparretan baillegozan lez» (*Gazi-gazak*, 71 orr.).

(Ikus *Egan*, 1956, 5-6, 819 orr.; L. Villasante, HLV, 122 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 181 orr.; San Martin, *Escritores euskéricos*, 62 orr.; Ai. Zarate, *Bizkai'ko euskal-idazleak*, 243 orr.; Karmen'go Amaren *Egutegia*, 1962, 53 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 75 orr.).

40.—JUAN ABASÓLO LEKUE (1904-...)

Aita Ambrosio, karmeldar gotzaiña. Zornotza'n sortua 1904-9-23'an, Larrea auzunean. Jaunaren delari erantzunik, Larrea'n egin zuen profesia 1920-9-25'an, eta Markiña'n, Gazteiz'en eta Begoña'n lekaide-ikaskizunak osotu ostean, Gazteiz'en egin zan mezako 1927-9-24"an. Jarraian Gazteiz-en ber-

tan erakutsi zuen Filosofia ta Begoña'n Teoloji-gaiak. 1931'an Ernakulam (India)'ra karmeldarren Ikastetxe nagusira bialdu zuten nagusiak ikasle talde batekin, an ere euskaldun ikasle auen maixu egiñik; 1933'tik 1950'rarte Alwaye'ko Ikasgu Apostolutarrean irakatsi zuen Filosofia ta Teolojla.

Bitartean, Vijayapuram'go gotzai-aulkia iñor gabe aurkiturik, bertako Gotzai izentatu zuen Aita Santuak 1949-12-25'an. Begoña'n, karmeldarren elizan sagaratu zuen (1950-6-11'an) Eliz-Ordezkarri Kaietano Cicognani'k eta, India'ra biurturik, urte artako urrillaren 19'an artu zuen legeki bere aulkiaren jabetza Kottayam'ko Artzai Onaren eliz nagusian.

Lan ederra bete zuen bere gotzaingoan. Ona eliztarrai zuzenduriko artzainidazki ta adierazi batzuk; 1) *The message of peace*; 2) *Closing of the Seventh Centenary of the Holy Scapular*; 3) *Manner of writing Accounts*; 4) *Mission Sunday*; 5) *Catholics and coming Eleccions*; 6) *Aots and Decrees of the First Plenary Council*; 7) *De Doctrina Religiosa tradenda*; 8) *De libris Paroecialibus*; 9) *Occasione Congressus Eucharistici Internationalis. Barcinone mense Maio 1952*; 10) *De Zalo Sacerdotali*; 11) *De Divini Verbi praedicatione*; 12) *De Matrimonio*; 13) *Priests Day*; 14) *Ordo ad visitandas Paroecias*; 15) *De Scholis A catholicis, Neutris et Mixtis vitandis*; 16) *The Teaching of Catechism*; 17) *De disciplina servando quoad ieiunium eucharisticum*; 18) *Annus Marianus*; 19) *De Pietate Sacerdotali*; 20) *Legio Mariae*; 21) *Family Rosary Crusade*; 22) *De Regali Beatae Mariae Virginis dignitate*; 23) *De Officio Catechistarum*; 24) *De recta Sacramentorum Administratione*; 25) *De peccato mortali*. Eta gaiñerakoak.

1971-4-20'an, 21 urte gotzain lez eta 40 mixiolaritzan egin ondoren, Vijayapuram'go gotzaingoa Elizak nal duenez bertako batí utzia, Euskalerrira etorri zitzalgun. Arrezkero, Markiña'n eta Hoz de Anero'n karmeldar komentuetan bizi da, barne-bizitzari osorik emana ta albo goterkietako gotzaiai

beren arduretan lagunduaz, ordenak ematen —Begoña'n (1971), Orduña'n (1972), Gazteiz'en (1973-74), Delika'n (1973), Arantzazu'n (1974), Burgos'en 1975), Santander'en (1976)—, adibidez.

EUSKALTZALE.—Zazpi bat urtean, au da, Markiña'n, Gazteiz'en eta Begoña'n ikasle zala, ixillik baiña gogotsu, ikasi zigun Anbortsi Aitak —onela izenpetzen zituen bere lanak— amaren magal beroan edoski zuen euskera; etzuen, berriaz esan bear, askoren jokabide biurria ontzat artu, umetan zekiten izkera aztutzekoa noski. Taldeka lan egiteak ba-ditu bere alderdi txalogarriak: suak sua ematen: lanerako nork arnasa zirriztatu bearra izan oi dugu. Ikasretxetan bikain da taldeka jokatzea. Edu ortan egin ziguten aldi artako karmeldar ikasleak, Begoña'n baitik bat; alen artetik euskal idazle bizkorrak jalgi ziran, naiz-ta gero or-zear ibillirik, mixiolari geienak, abagune geiegirik ez izan idatzi ta euskal arloan lanari lotu ta idazkortza inarrosteko.

Aita Abasólo ikasle zala aldizkari txiki bat zeukaten —bego emen aren aipua—, alkar bero-azi ta euskeraz idazten ikasleko bere bizikoa: «Adarra», ta geroago «Gau-txori»; gure egunotan Billaro'ko Sakramentinoak «Amas», Urretxu'ko Pasiotarrak «Lalaketan», Oñati'ko Laterandarrak «Erein», Lazkai'ko Beditinoak «Jaunaren Deia», «Arantzazu'ko gazteak «Jakin», Irun'go Lasaitarrak «Nora?», Begoña'ko karmeldarrak «Gogoz», ta abar, izan dituzten bezela. Auek dira, izan ere, gazteai kemen berezia sar-azteko zer egokirik ba'da, benetan egokiak. Gisa ontako lekaidetxe barruetako agerkerietatik irtenak dira gaur-eguneko idazlerik jori ta bipillenak.

Aita Anbortsi ezta lo egotekoa. Erea izan zuenetik asi zan idazten. Len-lanetatik igartzen zaio nola ikasia zuen euskera: aditzera bizi-biziak darabilzki ta esakera txanbeliñak. Ba-zuen nun idatzi ta eguneroko maixu-lanak uzten zizkion bitarteak

euskal lanak osotzeko izan oi zituen. 1931'ko urtarrillaren lenengoetan sortu ta kalera zan karmeldarren aldizkari berri «Karmen'go Argia», bizitza laburrean ainbat mesede Euskal-lerrian ekarri ziona. Berton datoz, lenengo zenbakitik, Aita Anbortsiren lanak- gai sakonez ari da: Teresatxo Deunari buruz lan luze sakona biribiltzeko asmotan zebillen, alegia, onela esanez: «Teresatxo Deuna'ren arloa egoki^egoki yator-ko aldizkingi oneri... Bertan agertuko diran bere irakaspen ak biotzean berez-berez sartuko dakioen lurrin gozoa izango da».

«Gizona» izan zan asieratik artu zuen beste sail bat, eta onetzaz gizaizti edo antropoloji osoa biribilzeko gogoa zeukan noski. Lenengo artikuluan izadiko gauzak zer diran, euren edertasuna ta abar adierazi ostean, onela dio: «Gizona baña gorputz (sona) bakarrik ezta, b^ore izantasuna osotuten dauan beste atal bat be badau: atal au arimea da. Eta gorputz alde- tik, orren gelgarria bada be, arimearen ondoan zer ikusirik eztau, a onegaz bardinduta ustelkeri bat baño ez da-ta. Orre- gaitik bara bestea baño ederragoak diran atal bigaz osotuten da gizona, izaki eder-ederra ta besteak baño askozaz be ede- rragoa da, beraz. Beste izakiak Jaungoiko-aztarrak baño ez- tira, gizona barriz Jaungoiko irudia» (*K. Argia*, 1931, urtarri- la, 26 orr.).

Ostantzeko gaiak ere urratu zizkigun, Efeso'ko Batzar Na- gusia, ta abar. Baiña, esan dugunez, 1931'ko dagonillaren erdi- rantza, India'ra jo bear izan zuen, eta geroztik naiko zeregin leporatu zioten irakasle, mixiolari ta gotzai bezelaxe.

Sari batzuk. 1930'an, «Euskal Esnalea»-k, aurreko urtee- tan egin oi zuen antzera, bere sariketa iragarri zigun. Batzal- diko gaiak naiko ugariak ziran. Irugarren gai edo zenbakian Cervantes'en nobela bat eskatzen zan euskerara itzulita: be- deratzi aurkeztu ziran; A. Anbrosio'k aurkeztu zuenak, «Li- cenciado Vidrifer»-k jaso zuen lenengo saria. Laugarren gai

edo zenbakirako lau lan artu ziran sariketa maian, eta A. An-brosio'k bsre «Jayotzez itsu ta gor diranak euren lo aldiyetan zer amestu dagikie?» lanarekin len-saria eskuratu zuen.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1931, XXI, 128 orr.; *Boletín Oficial de la Provincia de San Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos*, 1956, II, 28 zenbakia, 386 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 369 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 5 orr.).

41.—JON ZUGAZAGA ETA LARRABEITI (1904-1932)

Larrabeiti luiuvar (ikus Laugarren Alea, 19 orr.) bertsolariaren illoba. 1904-6-24'an Laukiniz'en jαιο ta 1932-4-4'an Gal-dakano'n illa.

Osabaren ereduz bertso-zale errimea genduan. Olerkiz gai-ñera, naikoa idatzi zuen «Euzkadi» egunerokoan eta beste al-dizkari batzuetan. Egurats-igarle ere izan zitzaigun, Bilbao'ko eguneroko ortan ortze-gaiez sarri samar artikulua azalduaz.

Izkuntza-zale porrokatua zan, ikasteko erreztasun itzala zeukana. Ingelera, prrantses, doitzera ta esperanto asko ondo zekizkin, antza. Itzaldiak egiten omen zituen esperantoz. Eus-keraz erakutsi zuen urteetan. Naiz-ta gaztetan asko ikasi ga-bea izan, berez zitzaigun azkarra. «Alogorri» izen-ordea era-billi oi zuen bere idaz-lanetan.

42.—EULOJIO GOROSTIAGA ETXEBARRIA (1904-1932)

Zeanuri'ko semea, antxe bait zan munduratu 1904-3-11'an Masmelena etxean; egun ber-berean ugutz-urez kristautu zu-ten. Bere gurasoak: Mariano Gorostiaga Olibares, Zeanu-

rikoa, lugiña, ta Sorkunde Etxebarria Agirre, Arteagakoa. Aiton-amonak: aitaren aldetik, Ramon Gorostiaga Zuluaga, Ipiña'koa, ta Maria Roleta Olibares Uriarte, Zeanurikoa.

Elizgizon izan nairik, Gaztelu-Elexabeitia'n eta Gazteiz'en egin zuen' bere karrera. 1927'an apaiztu zan, eta bertatik Nafarrate (Araba) erritxoa izan zan bere legezko egoitza arimazaintzen asi ta jarduteko; etzuen an denbora aundirik egin, baiña bere erria maite zuelako, «euskal usaiñez beterik itxi eban» andik alde egitean. Yunreta'n egon zan gero, geixozain eta arduradun. Azkenik, 1929'tik Arrati'ko baillaran Areatza (Billaro)'ko elizan egin zuen apaiz-laguntzan. Berton il zan 1932-9-13'an, goizeko 11,30'etan, ¿Ibarreko sukar-ustelez. Biaramonean ospatu ziran il-elizkizunetan Arrati osoak erakutsi zuen abade langille arekiko maitasun beroa: ume txikiak ere, Eulojiok maitatzen irakatsi zien aiek, erakutsi ederrez eman zuten beren maixu onaganako esker gartsua.

EUSKAL LANA.—Ikasle zanetik dabilkigu euskal gaietaz kezcatsu, zerbait opildu nairik. Jakintza ta Teoloji ikasi birtartean, makiña bat lan eder egiña da, Apaiztegiko beste lan-kide batzuekin; 1924'tik 1930'ra, J. M. Barandiaran'ek eta, zirikatu ta zuzendurik batez ere, ainbat lan datoz bereak «Anuario de Eusko-Folklore»-n, Zeanuri'ko ta inguruerako etnografi edo abenda-elestiz osatuak, IV, V, VI, VIII ta X aleetan bereziki.

Orrez gaiñera, Donostia'ko «Euskalerrriaren Alde», Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya» (1930, 109 orr.) ta Zornotza'ko «Jaungoiko-zale» ta «Ekin» aldizkarietan idatzi zingun. Erri-kanta biltzaille bikaiña ere ba-genduen; 1932-8-7'an Eusko-Olerti Eguna Ernani'n. Leiaketa auetan sail berezi bat zan, erri-olerkien sailla. Urte aretan Gazteiz'ko Kardaberaz

Akademiak jaso zuen gal ortako len-saria, Ander Ezenarro'k bigarrena, Gorostiaga'tar Euloji'k irugarrena ta Intza'r Dámaso Aitak laugarrena.

Argitara zituen liburuak;

1) *Jesukristoren Nekaldia* (Bilbao, 1928)). Euskeralp:na. «Editorial Vasca» irarkolan. 13 orrialde.

2) *Sakramentu Deuna'ren Domingo Aba* (Zornotza, 1929). 100 orrialde. Oso polita, argazki, idantzezki bete. «Amilgain» idazleak «Euzkerea»-n: «Gorostiaga almadiaren idatzija argi-argi dago idatzita, edonok ulertuteko modüban. Domeka abea jayo zanetik, Belmonte'ko lekaretxign il zan arte, bixitzaren izparrak, ziatz-ziatz emoten dausku?. Eta ez bakarrik ori, baita goguan iratzi biarko genduzan egi sako-nak esan be» (1929, 191 orr.).

3) *Jesukristoren Bizitzea umientzako* (Zornotza, 1931). Jaungoiko-zale irarkolan. 38 orrialde. Oso txukun irarrita au ere. «Euzkel-idazle onen idatzijakaz, euzkera errazaren zaliak diranak, pozik be pozik ixango dira, Gorostiaga jauparijaren euzkerea errezetan be erreza da-ta» (*Euzkerea*, 1931, epailla, 593 orr.).

4) *Autorkuntza edo Konfesiñorako gertaera* (Zornotza, 1932). Jaungoiko-Zale'ren irarkolan, bigarrenez; 1928'an atera zan lenengoz. 38 orrialde.

5) *Arrati'ko Deya* (Zornotza, 1931). Bi urtetan azaldu zan. *I*rasi ta zuzendu Gorostiaga'k egin zuen. Lau orrialde zeuzkan euskera utsean. *I*llean bein agertzen zan. Bere asmoaren opilla: Arritiarrai kultura eskeiñi, erlijio ta galñerako gai guztien kultura, alik lauen, erriari eman. 29 urtekin il zan; luzaro bizitzekoa izan ba'litz, lan ikaragarria osotuko zigun enura gabe. «Euzkerea»-k onela zioan 1931-5-15'an:» «Arrati'ko Deya» aldizkingi barrija dogu. Berrija ta ederra. Lenen-

go zenbakija gure eskub:tara eldu da ta atsegiñez beterik irakurri dogu. Euzkera utzez idatzita dago ta ondo baño obeto» (625 orr.).

Azken bi urteetan, «Arrati'ko Deya»[^] naiz «Ekin»-en baserri gaiak eta langilleen auziak arrotzen gogotsu zebillen. Arnas zabalekoa zan, eta «Ekin» nai zuen goi-maillako aldizkari, berari atsegin zitzaizkion arlo oiek aztertzeko batez ere. «Ekin»-ek, gaiñera, «zuzendari berezi bat izan dagian domu edo kapitala batzeko alegin izugarriak» egin zituen.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos Apéndice*, 1969, 22 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 167 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, IV, 90 orr.).

43.—JOSEFA ANDONI AGIRRE LEKUBE (1904-1960)

Legegizona. Bilbao'n jaio zan 1904-3-6'an. Orduña'ko Jesuitetan eta Deusto'ko Ikasgu nagusian burutzen ditu bere ikasketak. Gazte argi ta eragillea, Bizkai'ko Gaztedi Katolikuan buru lez asten du bare agiriko bizitza. Ogei ta zazpi urte zituela, 1931'an, Getxo'ko¹ alkate autu zuten, eta urte ortan bertan Bizkai'tik eta Naparra'tik Kortietarako aldun izendatzen dute; Madrid'en izlari bizkor agertzen da. Eusko Estatutoaren alde lan dagi, Jeltzale Alderdian indar aundiko dalarik. 1932-11-19'an berriz ere autatua da aldun Bizkai'tik, eta 1936-2-18'sn irugarrenez, Bizkai'tik orduan ere.

Gudaldian, 1936T0-1'an, Kortiak Euzko Estatutoa aintzat artzen dute, ta urte bereko urrillaren 7'an, Gernika'n bildutako alkateak Euzko jaurlaritzaren Lendakari izendatzen dute, bere mendeko agintari, erritar eta gudarien artean lotsa, begirune ta lan-irritsa piztazo ta zaindurik. Bere agintaldi laburrean ainbat gauza osotu zituen: Euzko Unibertsidad; edo Ikastola Nagusia «Eguna» egunerokoa, Jaurlaritzaren «Bc-

letaña» (euskera batuan agertzen ziran emen agiri ta gaiñerako zeaztasunak), euzko dirua, ixindi-paparalc, egal-bidaiko azalak eta abar irarri ziran. Bilbao jausi zanean, Santander aldetik ibilli zan, eta gero Frantzi, Barzelona, Belgika, Akmani, Amerika ta gaiñerako errialdeetarik, baitik bat, guda ostean igeska erbestera jo zutenen arduraz urduri.

Paris'en il zan 1960-3-22'an. Bere gorpuari Donibane Lobitzun'en eman zitzaion lurra. K. Mathieu gotzaiak egin zuen illeta itzaldia.

IDATZIAK.—Ele ederra zuen naiz itz-egiteko, naiz idazteko. Euskeraz ederto zekian, etzuen askorik idatzi; bai, ordea, bere alde nola jokatu ta batez ere euskal izkelgien artean: nola baterantza jo. Izlari zolia zan, eta Ego-Amerikan emandako mintzaldiak berariz bardute arnas berorik, baita urtero Egu-berrirantza bialdu oi zuen Gabon-mezuak ere.

Ona bere lanik jakiñenak:

1) *Entre la libertad y la revolución, 1930-1935: la verdad de un lustro en el País Vasco* (Bilbao, 1935). E. Verdes-Atxiriká. 593 orrialde. Bigarrenez ere aurtan argitaratu du Bilbao'ko «Geu» argitaldaria. Atsegiñez irakurtzen dana; edesti aldetik oso zeatza.

2) *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín* (Buenos Aires, 1943). «Ekin» etxe argitaldaria; 426 orrialde. Beste birritan ere «Ekin»'ek argitaratu du, 1944'garren urtean. Antonio Gerenabarrena (Zornotza, 1910) karmeldar Aitak itzuli zigun euskerara. Ba-da ingles itzulpena ere.

3) *Cinco Conferencias pronunciadas en un viaje por América*: «Mis impresiones sobre Alemania», «El sentido histórico de la dignidad humana y de la libertad entre los vascos», «La posición de un creyente ante la crisis de la caridad», «El Padre Vitoria visto por un vasco», «El sentido democrático,

el sentido nacional y el de la libertad de los pueblos en los momentos actuales» (Buenos Aires, 1944). «Ekin» irarkolan. 257 orrialde.

4) *A todos los vascos. Mensaje de Navidad* (Txile, 1942).

5) *Mensaje de Gabon* (Paris, 1947-12-24). «Euzko-De-ya», Mexiko, 1948.

6) *En el XVIII Aniversario de la Constitución dei Gobierno de Euzkadi* (Paris, 1954). Euskeraz ta erderaz.

7) *La Unidad vasco-catalana* (Nueva York, 1943).

8) *Le problème basque, vu par le Cardinal Goma et le President Aguirre* (París, 1938). 224 orrialde. Bernard Gaset'en irarkolan. Badu ingles eta alemán itzulpena ere

9) *Discurso pronunciado ante el micrófono de la Radio Euzkadi el día 22 de diciembre de 1936* (Bilbao, 1937). Editorial Vasca'k argitaratua. Frantsesez eta ingleseaz ere zabaldu zan.

10) *Tres discursos dei Presidente Aguirre (del 1 de oct. 1936 en el Congreso Español; Contestación al discurso de proclamación de Presidente pronunciado por el Representante de la República española en Guernica; Discurso dei 22 de dic. de 1936). Documentos para la Historia del País Vasco* (Mexiko, 1937). «Aberri-Aldez»'en argitalpenak. 40 orrialde.

Onezaz gaiñera, ainbat aldizkaritan idatzi zuen, gal askotaz uste zuena adierazirik.

(Ikus *Alderdi*, Baiona, 1960; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1956, VII, 96, 96'orr.; Auñamendi, *Enciclopedia General*, A-Amuzti, 201 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 60 orr.).

EGUNEROKOAK. ALDIZKARIAK

Joan gizaldiaren azkena ta gauden onen lenengo lau urte-amarnakoak zuzenki arakatu gabe dauzkagun arren, kale egiteko bildur aundi barik, au aitortu genezake; euskal adimen-lanak, ots, azken gudaldi aurrekoak, gaurkoari alde aundia egiten diola. Ugari ta gailenago agertzen zaigu. Eguneroko ta aldizkariak dira, batez ere, ori adierazoten digutenak. Erderaz naiz euskeraz, nolako zerrenda sortatu dezakegun, orduko denak aipatzera ezkerro! Ona batzuk Bizkai'tik aragotu gabe:

ERDERAZ.—«El Bilbalno» (Bilbao, 1837), titulu berdiñez agertu zan 1840'an eta 1857'an ere; «Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya» (Bilbao, 1848), astean ku aldiz, astear-te, eguen eta larunbatez ateratzen zan, lau orrialde zeuzkala, Santa Maria kaleko Larunbe alargunaren irarkolan; «Laurac-Bat» (Bilbao, 1850-1882), Juan E. Delmas'ek sortua ta aldikada baten berak zuzendua; Korreo kalean argitaratzen zan, Delmas'ek berak an zeukan irarkolan; azkenerantza, Biana'ko seme zan Rikardo Muela ta Udondo'k zuzendu zuen; 1876'an 26.000 arima zeuzkan Bilbao uriak, eta iru agerkari ta Boletín bat azaltzen ziran bertan: «Irrurac-Bat» izan zan XIX'garren mendean Bilbo'n agertzen zan egunerokorik zarrena. «Euskalduna» (Bilbao, 1858-1871); «La Guerra» (Bilbao, 1874), Manuel Etxebarria'k irasia; Kale Barrian atera zan Joakin F. Mayor-enean, Bilbo inguratuta egon zan bitartean; onen ondoren etorri zan «El Noticiero Bilbaíno» (Bilbao, 1875-1936), bizitza luzekca; «El Ibaizabal» (Bilbao, 1876), astean birritan azaltzen zan, astelen eta eguastenetan; etzekarren politika gaiez ezer, izpar orokor, salerosketa, industri ta meatz-arazoak baizik; andik laster, Sabin Goikoetxea'k irasi ta 1879'raiño iraun zuen «El Correo Vascongado»-ri utzi zion tokia; «La Voz de Vizcaya» (Bilbao, 1880); «Batasuna» (Bilbao, 1880-1883), kar-

listena; «La Unión Vasco-Navarra» (Bilbao, 1880-1890); «El Vasco» (Bilbao, 1884-1898); «El Diario de Bilbao» (Bilbao, 1888-899), monarki-zaleena; «La Cantabria» (Bilbao, 1893-1897), eguneroko katolikua; «El Combate» (Bilbao, 1897-1899) erkal-zaleena; «Bizkaitarra» (Bilbao, 1893), Arana-Goirik sortua; «El Correo Vasco» (Bilbao, 1899-6-4), Arana'k irasia, 103 zenbaki; «La Abeja» (Bilbao, 1889), illerokoa, jakintzaz eta literaturaz osotua, J. Astui'ren irarkolan, 1889'ko lotazilletik 1890'ko orrilleraño atera zan, **R. M. Azkue** zuzendari zuela, sei ale ta 192 orrialde; «El Euskaro» (Bilbao, 1898), zuzendari Jose Azillona Garai, Azillona markesa zuen; «El Abra» (Portugalete, 1900), 1900'tik 1910'ra asterokoa; gero illerokoa 1912-8-11'tik 1928-11-10'rarte; «La República» (Bilbao, 1890-1904); «El Vizcaino» (Bilbao, 1898); «El Liberal» (Bilbao, 1901-1937), erkalzale-sozialistena; «La Gaceta del Norte» (Bilbao, 1901), monarkikuena; «La Cruz» (Bilbao, 1901), integristena; «Euzkadi» (Bilbao, 1901-1915), Arana-Goiri'k sortua; «Euzkadi» (Bilbao, 1913-1937), Euzko Alderdi Abertzalearen egunerokoa; «Jel» (Bilbao, 1907); «Baserritarra» (Bilbao, 1897-5-2), 18 zebaki, Teófilo Guiard zuzendari zuela; «La Patria» (Bilbao, 1901-1903), asterokoa; «Patria» (Bilbao, 1903-7-5); «Aberri» (Bilbao, 1906-5-8), iru urtean 130 zenbaki; abertzale asterokoa; abertzale asko espetxeratu zituztelako, «Aberrija» tituluz atera zan 1908-11-25'tik litazillaren 26 rarte, sei zenbaki; 1916'tik eta 1921'rik aurrera **Bilbao**'ko Euzko Gaztedien asterokoa izan zan, 1923-5-27'tik beriz Euzko Alderdi Jeltzdearen egunerokoa; 1923-9-22'an, Primo de **Rivera** Madrid'eko Gobernuauren buru jarri zanean, ixildu zan 99 zenbaki atera ondoren: Manu Egileor, Alderdi Jeltzale ta Batza'ren (Euzkadi) arteko aitu-eziñetik ernetako eguneroko onen zuzendari; «Askatasuna» (Bilbao, 1910), «Aberri ta Askatasuna» taldekoen asterokoa; «El Norte» (**Bilbao**, 1916), erkalzaleena; «La Tarde» (**Bilbao**, 1917), kultur-aldizkaria; «Diario de Vizcaya» (**Bilbao**, 1917-1919), arratsalderokoa; «La noche» (**Bilbao**, 1924); «Dia-

rio Vasco» Bilbao, 1923-10-3 - 1933-11-4); Excelsior» (Bilbao, 1925), 1931-4-8'tik aurrera «Excelsius», kirol-egunerokoa; «Txistulari» (Bilbao, 1928), 1927-9-20'an txistularien batzar aundi bat ospatu zan Arrate'n, 120 txistulari ta jende-mordoaz; antxe sortu zan baita, Sandalio Texada'k eta Mundaka'ko txistulari Eleuterio Lekue'k asmatuta, *Euskalerriko Txistularien Alkartea*, beronen lenengo Buruzagia Eduardo Gorosarri izanik; onek beti euki izan du, 1928 ezkerero, bere izpar-emaille «Txistulari» aldizkaria; 1936'an ostendu zan, baiña 1955'an berriz asi zan, eta arrezkerero, euskal uriburuetan txandaka, utsik egi-teke, atera izan da; «Acción Vasca» (Bilbao, 1931), Eusko Indarrekoen agerkaria; «Acción Nacionalista Vasca» Bilbao, 1932-1933), arnabosterokoa, onen ostean etorri zan «Tierra Vasca» (Bilbao, 1933-1937); «Lan-Deya» (Bilbao), Euzko-Langilleen Alkartea, (E. L. A.) 191 l'an sortu zan, Euzko Alderdi Jeltzalearen babesean, aldi laburrean ainbat bazkide egiñik; «Dei» au izan zan Alkarte onen agerkaria; «Euzko» (Bilbao, 1932), Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra goiburuz; «Jagi-Jagi» (Bilbao, 1932-9-17), Anjel Agirretxe zuzendari dala, asteroko ontan idazten dute *Gudari* (E. Gallastegi) *Txauka* (Manu Sota) ta beste batzuk; «Euzkadi **Roja**» (Bilbao, 1936-1937), komunistena.

EUSKERAZ.—Aitatu ditugun erdal-agerkariok ere, *Aberri'k* eta *Euzkadi'k* oroz gaiñ, euskal-lanak naikoa ugari zekarzkiten arren, ba-ziran Bizkaia'n euskera utsean zeroztenak ere. Ona: «Euskalzale», (Bilbao, 1897-1899) «Ibaizabal» (Bilbao, 1902-1903); «Jaungoiko-zale» (Zornotza, 1912-1932); «Euzko-De-ya» (Bilbao, 1916-1923), Euzkaltzale Bazkuna'k argitaratua; «Jesus'en Biotzaren Deya» (Bilbao, 1917-1936), Aita Josulagunena; «Euskera» (Bilbao, 1920-1936), Euskaltzalndia'ren agerkaria; «Euzkerea» (Bilbao, 1929-1936), «Pizkundea» Bazkuna'k aterata; «Karmen'go Argia» (Zornotza, 1931-1936), karmeldarren illerokoa; «Arrati'ko Deya» (Zornotza, 1931-1932);

«Ekin» (Zornotza, 1932-1936); «Frantziskotarra», bizkaieraz; Busturi'ko «Kristau Ikastia» (Gaubeka); «Gazteen Laguna» (Zornotza, 1930-1936); «Eguna» (Bilbao, 1937) egunerokoa; «Catequesis» (Bilbao, 1917), abadeentzako erderaz ta euskeraz; eta abar.

«EUZKADI» ALDIZKARIA (1901-1915)

Joandako gizaldian, bi gudate izugarriatik edo, euskal kontzientzia beintzat lo bete okagarrian geneukan gure sorgua. Ez erri xeak, ez jakintsuak etzuten garrik beren nortasuna jagoteko. Atzerri sundaz blei-blei zetozten bertoko egunkariak; berdin aldizkariak. Ba-ziran auetakoak: «Revista de las Provincias Euskaras» (Gazteiz, 1878-1880), «Revista Euskara» (Iruña, 1878-1883), «Euskd-Erria» (Donosti, 1880-1918), «Revista de Vizcaya» (Bilbao, 1885-1889), ta abar. **Balña**, «Revista Euskara» ta «Euskal-Erria»-z landa, besteak aintzat ere etzuten gure elea artzen. Garal artako eguneroko, aldizkari ta alkar-teak aztertzeraz ezkerro, kultur-giro txit urria didorogu Aranas Goiri'tar Sabin'en egunetan. Etzan iñor ere ausartu Euskalerriak berezko zitun buru-jabetza ta eskubideak mai gaiñean jarri ta eztabaidatzen.

Aranatarrak —Koldobika ta Sabin—, bi gizaseme gotor, ditugu aulezi orrez lenik konturatu ziranak. Sabin'ek batez ere ezin zuen eraman lozorro orren eztena: iratzar bearra zegoen nun-nai. Eta bere apostolutza asi zuen. Orrek, ordea, luma eskatzen, zabalkunderako idazkortza. Luma artu zigun, ba, atzartean, luma zorrotz galtzairuzkoa: bere bizitzaldi laburrean —38 urtekin il zan— siñistu ezin-alako ereintza burutu zuen.

Asko idatzi zuen Aranak: bere «Obras Completas» (Buenos Aires, 1965) deritzan liburuak, aren jaiotzetiko eungarren urtea zala-ta, **Beyris-Baiona**'ko Sanbindiar **Batzak** argitara emanak,

2478 orrialde dauzka. Baiña banazean argitaldu zizkigun idazti, gutun, edesti-txorta, aur-irakurgai, alderdi-eztabaida ta olakoz gaiñ, aldizkari bezela auek agertazi zitun: 1) «Bizkaitarra» (Bilbao), 1893-6-8'an jaio ta 1895-9-5'an gobernuaren erabakiz itzali zana, egunkaria, 32 zenbaki; 2) «Sakel-Egutegia 1897'rako» (Bilbao, 1896), 48 orrialde; 3) «Baserritarra» (Bilbao), 1897-5-2'an jaio ta 1897-8-29'an, aurrekoa lez, goitiko aginduz debekatua, asterokoa, 18 zenbaki; 4) «Lenengo Egutegi Bizkaitarra» (Bilbao, 1898); aurreko urtekoa sakelerako izan zan, bigarren au ormarakoa; egun bakoitzerako orri bat daaka, orrelako erdel-egutegiak bezela; Amorrortu'tar Sebastian'en irarkolan; «Ixendegi Euzkotarra» ere biotan dator; oso ederra duzu, 365 orrialdekin; 5) «El Correo Vasco» (Bilbao), egunerokoa, 1899-6-4'an jaio ta urte berean, gobernuak, Euzko-Alderdi Jeltzalea ixillarazteko antza, prentsa lege gogor baten bidez itzalia; orduan Bilbo'n agertzen ziran «El Noticiero Bilbaíno», «El Diario de Bilbao», «La Voz de Vizcaya», «El Nervión» eta «El Porvenir Vasco»-k beintzat aurrera jarraitu zuten; 6) «Euzkadi» (Bilbao, 1901-1915); 7) «La Patria» (Bilbao), asterokoa, 1901-10-27'an asi ta 1903-6'ren azkenerantza galezarria, 88 zenbaki; 8) «Patria» (Bilbao), asterokoa; aurreko aldizkaria ixillazi zutenean, abertzale kementsuak zazpi alak egiñaz, izena ta artezkaria aldaturik, auxe atera zuten 1903-7-5'tik abandotarraren eriotzararte.

* * *

Bizia zan, goiko idazti-zerrendak darakusgunez, Arana'ren euskal aberriakiko lan-bearra. Etzuen ez, zurrún, geldí mugi-gabe egoterik. Eragozpena jartzen zitzaionean, ugoidearena egin oi zuen, beste zoko batetik bidea urratu. Gisa orretan dagi Arana'k. Ingi bat debekatzen ziotenean, beste bati oratu. Orrela sor-azitakoa duzu «Euzkadi» iru-illabeterokoa ere, «Revista de Ciencias, Bellas Artes y Letras» noski. «El Correo Vasco» ixi-

Ilazi ziotenean, oneri ekin zion, Bilbao'ko jakitun eta enparauak zerbait euskal-kulturatu naiean. Eta, aln zuzen ere, auxe izan zan, diotenez, Arana'ri atsegiñen izan zitzaion aldizkaria.

Euzkotarrak eta euzkaldunak esnatzea zan orduko bere asmo nagusia: «Euzkotarrak langilleak dira; lan ori beren aldez egitera ba'dakarzkigu, auzia irabazita daukagu». Ortan saiatu zan euskeraz zeldtenak eta etzekitenak euskalduntzen, bere lanak euskeraz ta erderaz argitaldurik. «Euzkadi»-k bere lenengo zenbakian lanok zekarzkin: Arana'ren «Euzko» (1-55 orr.), «De Arte», XVIII'garren gizaldi azken aldiko musika ta musikalariak: Bach, Händel, Haydin, Mozart, Beethoven, Chopin, Mendelssohn, Webwe, Schumann, Wagner, Grieg, Brahms, Svendsen, K. Eleizalde'k egiña (56-68), Zabda-Ozamtz'en «El Palacio-Castillo de Arteaga» (69-74), ta Albe'tar Ander Kepaul'en «Pasatiempos mentales» (75-79). 80 orrialde zeuzkan guztiz, eta «Sociedad Bilbaína de Artes Gráficas», Gran Vía, 28 garrenean, argitaratuta zetorren.

Bigarren zenbakia 1901 'ko bagilleán agertu zan, 226 orrialdek osoturik. Lan auek; ZabalarOzamiz'en «El por qué del Palacio-Castillo de Arteaga», Arana'ren «Análisis y Reforma de la Numeración Euskérica», Eleizdde'ren «Notas sobre la Patria y Apellidos de San Francisco Jabier», eta abar; irugarren zenbakia 1901'ko iraillean agertu zan, eta berton zetozten Arana'ren bi lanok; «Los Juegos Florales en Bilbao» ta «Conócete a ti mismo»; eta laugarrenean (1901-iraila), azkenez, Arana'k il aurretxoan burutu zuen lan eder bat; «Análisis y corrección del Pater Noster dei euzkera usual». Centro Vasco-ri eskeiñi zion onela; «Jaungoikuari euzkeraz *Pater Noster-a* esango dau-tson lenengua zeu Bilboko Centro Vasco ixango zara ta zeuretzat ixan biar da au argira urtetean onen egilliaren bijotz-agurra».

Eta lenengo urteko laugarren ale onekin itzali zan «Euzkadi». Arana'k zioanez etzeukan bear aiñako euskarri ta magalpe-rik eta bere «sakel gaixoa etzan gauza bakarrik arlo ain ausartari

buru egiteko. Sar-irtenak garbitu ondoren, zor aundi samarrari erantzun bearra zuen, eta iñori eskatzea ez omen da bizkaitar-bizkaitarrena; aberria da, ez bera, maite duten guztien laguntza bear-izanean aurkitzen zana: maite duenak eskatzeke ematen.

Baña etzan betiko itzali. Arana il zan arren, adoretzu zetozten onen jarrailleak, Zabala-Otzamiz, K. Eleizalde, Kirikiño ta Arriandiaga batez ere, ta «Euzkadi» bere bigarren aroan, 1905'ko epailiean asi zan berriro ere kaleratzen. Elexpuru Anaien irarkolan, eta 86 orrialde zekarzkin. Malatzean, uztai-Uean eta urrillean atera ziran beste iru aleak; guztiz 398 orrialde. Lan jakingarriak: Zabalaren «La primera guerra carlista», Eleizalde'ren «Acerca de una supuesta irregularidad en el verbo euskérico», Kirikiño'ren «Asaben ogasunak», Osear Rocheleen «El Alcalce de Tangora», Zabala-Otzamiz'en «Union y Fueros», Eleizalde'ren «Arana Gorri, poeta»; olerkiak euskeraz ta erderaz, Miangolarra, Ramon Basterra, F. Ituribarria, Bustintza, Eleizalde ta gaiñerakoenak. Orrelaxe 1910'rarte.

Bost urteko ekiñaldi eder ondoren, irugarren aroa asi zuen 1910-1-1'an; aurrerantzean, gaiñera, illabete biñakoa izango da, jakidi, erti ta elertían buruzkoa; beraz, sei zenbaki urtean. Eleizalde, Zabala, Errazti'tar Karmel, Lope Aulestia, Omabeitia'tar Karmel, Aita Bera, A. Eusebio Etxalar, Aita Soloeta, E. Arantzadi, Bustintza, Jel-alde, Joseba Eizagirre dira geien idazten dutenak. 1913'tik aurera, K. Eleizalde agertzen da ar-tezkari bezela.

1914'ko garillean, illerokoa egiñik, laugarren aroa asten du. Lenengo orrian eusko ikurdia dakar. «Gure ingurti onen 4'g, aldiaren askundian, ixan bedi —dio— geure lenengo agurra «Euzkadi»-ren ikurpen agerkoi orrentzat». Eta azkenengo zenbakian —1915'ko azilla-lotazilla—, Irakasliari onela: «Eu ilda gero geure lepuan artu gayuan *Euzkadi ingurtija* erabiltea. Bai-yakiguk, ziñez, euk baxen ondo etxuagula egiten, baña gogo osoz, ta asmo zindoz yarabilguk. Eta egunotan eugana gayua-

zak geure gogo samindubok eure goguz batuten maite-maite yuagun Aberri au Jel'gana zuzen eta zintzoro eruateko, adore-billa».

Aldizkingi jaio onek, idazle jakintsu askoren lanak euskeraz ta erderaz argitara eman ez-ezik, idazti sailtxoa ere atera zuen; adibidez: «Gipuzko Lutelestiya», erriarentzat eta eusko-ikas-toletarako batez ere; «Abertzale-aberri-saltzaliak», bizkaieraz; «Euzko-Gogua», iru ekitaldirako antzerkia, Nikolas Biar'en «Alma Vasca», Joseba Altuna'k euskeraztuta; J. Altuna'ren «Afijos del Euzkera», era abar.

« J E L »

Beste abertzale talde kementsu batek «JEL» sortu zuen 1907'an, naiz era urte gurzarako. Eusko-gaiak ikasi ta ikertu naia nabari da beronen inguruan. Elebitza zerabilten idazleak, euskeraz ta erderaz beren lanak taxuturik.

1907'garren urte barne azaldu ziran zenbaki jakingarrietan, idazle auen lanak daurkikeguz: *Erderaz*: Kondaño, Luis Eleizalde, Luis Mari Urkixo, K. I. Arrupe, Eduardo Urrutia, Koi-küli Anasagasti, J. M. Estefania, Luis Azkona, Laumaiki, Santos Urrutia, Arze'tar Danel, Adrián Loiarde, Bizente Agirre, Santiago Meabe, Mikel, Agustin M. Salaberria, Jabier Gortázar, eta abar.

Euskeraz, ordea, auek: Mibibus, Juillar, Nemesi Mendizab-d, Zesareo Miangolarra, Besozabd, Araluzet'ar Andoni, Joseba Aurrekoetxea, Eleizalde'tar Koldobika, Maitierxea, eta abar.

Anrzerki-leiakerak eratu zituen noizeanka.

«BIZKAITARRA»

Maixua itzali arren, Abando'koa noski, arek ereindako azia erne ta garatuz zijoan. «Jel» eta «Aberrija» zituzten orduko abertzaleak beren zabalkunderako. «Euzko Gastedia», 1901'ngo azulean Bilbo'n irasi zana, gero ta indartsuago zebillen. Itasle talde bat zenduen lendabizi, erakunde arauak Arana'k berak eman zizkiona: «La Patria» aurrera eramateko lan ikaragarria egin zioten gazte aiek, larunbat gau ta igande goizetan batez ere.

1901-5-30'an Larriraaga'ra eraman zuten Sabin, eta andik irten arte, ots, 1902-11-1'rarte, berak jarraitu zuten «La Patria»-ren lana; orduan, premia asmotsua dala-ta, eratu zuten beren alkartea; tolda, berriz, Erronda kalean, geroago Jose Etxenagusia'ren irarkola egon zan zenbakian. 1903'garreneko iraillean,, Manu Egileor, Feilx Landaburu, Juli Eretzuma ta Pedro Durañona'k idenpetuta, Bilbao'n gazte abertzaleen talde bat eregi bear zala idatzi zuten. Beren batzar eta zabalkunderako gauzeari su eman ziotenak auek izan ziran. Felix Landaburu, J. Eretzuma, Jose Itzaga, Jose Mari Goia, Erramon Mari Lenitz, Jabier Gortázar, Luis Mari Larrea ta besteren bat. Tokia edertze-lanak amaitu ondoren, 1904-2-14'an ospatu zituzten askunde jaiak, Juan Arrese Etxebarria'ren eta Luis Urrengotxea'ren itzaidiakaz. Gazte aien eragiña geroztik uiol antzo zabaldu zan plaza, bide-kurutze, zelai, mendi ta abarretan agiriko batzarrak egiñik, eta ainbat izlari ta idazle sortuaz, orri egazlari, ingurti ta liburutxuak ugari argitara emanaz, etenga[^]-beko zalbalkundearen bidez abertzale gko bizi-biziari garra jar-eraziz. «Itxarkundia» izan zan gazte aien ereserkia.

1908'garrena urte txarra izan zan abertzalentzat; ainbat izan ziran biraokatuak, salatuak eta espetxeratuak. «Jel»-ek lan ederra egiten zuen eta «Aberrija»-k, balña maizegi zigorra zuten bizkar gain; eta «Jel», margo-edergariridun aldizkariak, betiko itzali bearra izan zuen 1909'an. «Euzko-Gastedia», alan ere,

urduri zebillen euskal kulturaren alde. Berdin Euzko Alderdi Jeltzalea: Arana'k irasitako «Euzkadi» aldizkaria Alderdiak beretzat artu zuen 1909'an, urte ontatik illeroko egiñik.

«Euzko-Gastedia,»-k beretik «Bizkaitarra» sortu zuen, ikurritz onekin: «Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra». 1909-1-2'an atera zan lenengo zenbakia. Idazkola ta Banakola; Barrenkale, 40, 1, Bilbao; gero, Santa Maria, 17, 2.º, eskuman. Asterokoa; 4 erri luze-zabal. 14'garren zenbakitik Bizkai-Buru-Batzarra'rena.

Euskeraz ez dakar askorik lenengo', baiña urterik urte ugarituagoz zijoan. Auek idazten dute batez ere euskel-saillan. Untzalu'tar Jon, K. Enbeita, Kirikiño, Jonpe, Arzubiaga, Eloorrieta, Txori-Toki, Pizkunde-zale, Orue'tar, Ixaka, Errebido, eta beste.

Ez, etzuen luma zorrotzez «Tradición Vasca» (1909), zarrontzaleen asterokoaren aurka bakarrik burruka izan, baita euskerearen alde ere, il etzedin eta ardura gabeko askoren loa arindu zedin. Mundu guztiak, zekianak eta ez zekianak euskeraz mintzatzea nai zuten; or-emen nun-nai eraikitzen zituzten batzokietan ez-ezik, edozein ikastola ta ikasgutan euskera ikasten zan; ixango ta ibillaldiak eratzen ere etziran nagiak, beren artean euskeraz egiten uri-buruetan ere maite zutela ta aintzat artzen beren elea gure baserritarrai adierazteagatik sarri askotan.

Aldizkarian ere, euskeraz ta erderaz, takean potean jartzen zituzten olako oarrak norbere izkuntza ikasteko zeukaten bear-kuna gogora ekarriziaz. Kirikiño'k, adibidez; «Euzdeldun guraso askok ardura barik ikusten dabe euren seme-alabaen ezetsi edo mesprezijua euzkerearentzat, etxeko ele edo berbetea, geure abenda garbijarena danarentzat. Egija da onetariko gurasoak ezagutzen doguzala kokolotzat; kokoluak ezpalitzaz, ba, eleukie laketuko galtzen euren etxian antziñeko asabakandik etorri dan ele garbija». :

«Ondiño geyago. Bai-dira gurasuak, ardurea artzen dabenak euren semiak erderaz egin dagijan beti, alde gustuetan, eta eurak be, mordoloka ixan arren, ekiten dautse, uste ixanik onela

jaunago dirala, andiki usain geyago dabela. Onetaiko gurasuak eztauke lotsarik, eta buru oneko notin edo personaentzako zentzunbakuak dira. Guraso euzkotar onak ba dozube ixan, zuben seme-alabak euzkeraz itz-egin dagijela, ez bakarrik etxian, alde gustuetan, batez be arrotzen aurrian. Geure ele edo berbetae danik onena ixan biar dau guretzat, eta maitien ixan biar dogu» (*Bizkaitarra*, l'go urtea, 35^{gn}. zenbakian).

IV'garren urtean, 1912-11-25'an, bere 205'garren zenbakian, au iragarten zigun: «1913'ko zezeillaren l'an, 6 ta 8 orrialdeko «Euzkadi» eguneroko abertzalea agertako da». Eta 1913'ko urtarrillaren 25'an atera zan « Bizkaitar ra»-ren azkenengo alea, eusko-gaztediaren alde batez ere lan oso bikaiña Euskalerrian burutu ondoren nunbait.

« E G U T E G I A K »

Egutegiak, ots, zabalkunde era onek beti izan du bere garrantzia. Garai ta toki guztietan izan ere. Arana-Goiri, erorita zegoen Euskalerriko gauzak arteztu nairik zebilela, laster oartu zan uts onekin. Eta bere Egutegia atera zuen, sakelerakoa: «Egutegi Bizkaitarra» (1986-11-7), Bilbao'n, Amorrortu'ren irarkolan, Jardines, 3-Berastegi, 1.

Bizkaia'n lenengoa zan berau, pizkat eratuta beintzat. Arar na'k au diño', irakurleari dagitson aurkezpenean: «Ona geure Bizkai maitian euskeraz argitara urteten dan lenengo Egutegija. Berton aurkituko dozuz ixenak euskeraztuta. Pantzeraz edo prantzesaz itz-egiten daunak, pantzeraz dauka ixena; españeraz edo gastelanaz egiten daunak, españeraz dauka ixena; edozein erritako gixonen ixenak euren izkerakuak dira... Zegaitik, ba, eztaukagu guk euskerazko izenik? Geure izkerea, euskera zar ta ederra, ezta gixonen izkerea, ala? Geu, bizkaitarrok eta euskeldun gustijok, ezkara Jaungoikuaren semiak eta zerurako deitubak, beste gíxonak legetxe?»

Urrengo urtetako, ots, 1898'rako, bi egutegi argitaratu zioten: bata sakelerako ta bestea ormarako. Onela zeritzan: «Lenengo Egutegi Bizkaitarra». Amorrortu'tar Sebasten'en irarkolan auek ere. Ormarako lez, Euzkadi'n lenengoz argitalduri-koa dala diosku.

Oso mardula ta ederra duzu ormarako au, geroztik gurean egin ez dan lakoxea. Sarrerako «Agur»-ean, onela dasa; «Bigarren aldiz eltzen naz zeure eskubetara, irakurle maitia; baña orain, orma baten esegi nagijentzako gerturik natorke. Igaz era bat bakarrik neukan; aurten bi daukadaz: bijok, bizkaitar zinduaeren eskubetarakuak; baña bat, igazkua lakoxla, sakelan sartzekua; beste au, ormean ezartzekua. Baña egija da, era bi orrek eukitiarren, nik itz-egiten dautzudana itz bat utsik dala, sortzen daun gogua bat dalako: gogo *Jaun-Goikua eta Lagizarra*"ren zalia. Onek maitetan ba-dozuz, neu be maiteko nauzu. Bestelan, uretara jaurti nagixu, gotzaiztozale ala arrotzaliaren eskubetan eztodialako nik ibilli gura. Abertzalia naz. Bizkaya da nire aberrija; eta bere anayak, Araba, Gipuzkoa, Laburdi, Nabarra, Zuberoa ta Benabarra. Eta bere Jauna, Goikua».

«Egutegi Bizkaitarra». Ormarakoa. Bilbao'n, Elexpuru Analen irarkolan. Arana'ren eriotz ostean asi zan, eta polito jarraitu zuen. 1910'an (III urtekaldia), au zekarren asikeran: «Urte batzubetan uts eginda, gaur barriri yatorzu bizkaieraz idatziriko egutegi ormarako au, abertzaliak eginda. Aurrerantzian ezkeunke gura urterik igaro daiten egutegi au agertu bakarrik. Abertzalia da berau; Jaun-Goikua lenengo, ta urrengo Euzkadi, gauza gustijen gain maite dauzana. Zeuk ba, abertzalia ba-zara, maiteko nauzu. Ezpa-zara, be, irakurri nagixu, ta ixan leiteke asijeran baño aizkideaguak ixatia zu ta ni urriaren amayan. Zaraia naiz etzarala abertzalia, agur dirautzut bijotz-bijotzetik, opa dautzudala urte zori-ontsu bat, osasunaz ta baikiaz eldu zadizen beste urteko agurra neuk zeuri zuzendu arte. Agur». Eguneroko eguzki-gorabera, izkoren, santu ta abarrez gaiñera, Bizkai'ko zenbat nai edesti-zati, gizon gurenen egipen

arrigarri, ipuin, izkirimiri, olerki, esaera zar ta besteak zekarz-kin. Urrengo urterako, gipuzkoarrak ere zerbait bear zutela-ta, bizkaieraz era gipuzkoeraz idatzia, «Egutegi Euzkotarra» atera zan Tolosa'ko Lopez irarkolarakin batean. Batzorde bat zegoen ortarako, ta urteetan irauin zuen. «Euzkerea» aldizkariak onela zesan 1930'ko lotazillaren 30'an: «Pizkundia» deritxon bazkuna argitaldu dau oraintsu «Egutegi Euzkotarra». Egunotan jarri da salgei sei txakur anditan. Egutegi au euzkera utsian idatzita dago, Bizkaiko euzkera samur ederrian idatzita. Irakurgai politik eta mamin sakondunak daukoz; balta barregarriak be, izkkimiritan-era edozenbat».

Ondoren datoz; «Egutegi Bizkaitarra» (Bilbao, 1933), ormarakoa, E. Verdes Atxirika'ren irarkolan azaldua; 365 orrialde.

«Egutegui Bizkaitarra» (Bilbao, 1934), «Euzko-Idazkaltza Euruba»-k Verdes-Atxiriká'renean 1935'rako argitara emana.

«Egutegija» (Bilbao, 1936), «Editorial Vasca»-k 1937'rako argitaldua.

«Egutegitxoa», Taipingfo-Txina'ko josulagun mixiolariak argitaratua. 16 orrialde.

«Euskel-Egutegi Txikiya» (Bilbao, 1915). Bizkaieraz. Grijelmo'ren irarkolan.

«Jaungoiko-zale»-k ere berea zuen, oso irakurria.

« P I Z K U N D I A »

Bazkuna bat dugu au, 1916'an Bilbao'n sortua, «Euzko-Argitaldaria», Euskalerrian dagozkion idaztiak argitaltzeko euskaldun sutsu batzuk eratuta. Gure elerti-pizkundera opa zuten bizi, ta irakurleak zer irakurri izan zezaten eta idazleak ere pozbidea, antolatu zuten erakunde ori.

Ona beren asmoak; «Idazle abertzalienen alegiñak urte askoetan sakabanatu dira izparringi edo ingurriyetan. Alegiñ oriek

ingoski iraunkorretan bildu ta lotzeko^ biarra dago. *I*ndar guzti oriek bidebateratu biar ditugu alboetatik eta bana-banaka illundira jausita, aztu ta galdu eztezen».

Eta jarraiki: «Gure asmua da, beraz, euskerazko ta erderazko idaztijak argitaltzia, Elejakin'tzaz, Edestiya'tzaz, Anbiolajakin'tzaz, Elertiya'tzaz, Olertiya'tzaz, ta itz batez, jakidi ta erti oroetzaz».

Nundik asi ere adierazten digu Bazkunak. Lenengo, Kirikiño'ren *Euskel-ipuintxuak*, Lande Abaren *Mir&ntxu* españeraz; eta ondoren, Aznar eta Zubigarai Imanol'en *Exhortaciones a la juventud del país*, egille askoren *Euskal-Olerkiak*, Walter Scott'en *Ana de Geierstein* ipui luzea, Eleizalde'tar Koldobika'k españeraz jarria, A. Kanpion'en lanak. Arana-Goiri'ren «Opera Omnia», eta abar. Gogotsu asten dira lanean, esanik: «Lan berri onetan abiyatzen gera, gure asmo au onuratsuba izango dalakuan, gure gogua itxaropnez beterik».

Batzorde bi sortu ziran: Batzorde Argitald'aria ta Batzorde Eanakaria; bata, idazti-gaiak eskatu, aztertu ta irartze-lanaren ardurea bere gain izango zuen; besteak, Bazkunaren diru-goraberak izango ditu bere ardurapean. Batzorde Argitald'aria auek osatzen zuten: M. Arantzadi, Alberto Atxika-Allende, Dunixi Azkue, M. Aznar Zubigarai, F. Belaustegigoitia, J. Eizagirre, Enrike Eguren, L. Eleizalde ta Jose Mari Goia'k. Batzorde Banakaria, berriz, Serapio Espartza, Xabier Gortázar eta Silber Zaldua. (Ikus *Euskal Esnalea*, 1916, 135'gn. zenbakia, 221 eta 136 zenbakian, 233 orr.).

«EUZKADI» (EGUNEROKOA)

Abertzaleen egunerokoa, «Bizkaitarra» asterokoaren ostean etorri zana. 1913-2-1'an asi ta 1937-6-17'raiño iraun zuena. Plaza Barririk lenengo, ta Bidebarrieta'tik irtetzen gero. Egu-

neroko indartsu, argi ta gotorra, bere 24 urteko bizitza labur-
rean. E. Arantzadi'k ematen zion sua, bere luma zorrotz txin-
partatsutik irtendako lanakin.

Sasoi artako- edesti-uneak egiz ta zeatz azaldu nai ditunak,
naitaez, orri oek aztertu bearko ditu; ez gero aztertu bakarrik,
baita bertan datzan euskaldun pentsakera arteza begirunez jaso
ere. Ikusi ta arakatu nai duenaraitzat, Bilbao'ko Aldundi-artxi-
büan dago bilduma osoa ale aundi biribilletan: orrela egiña naiz
ni, ots, zeazki arakatu, Muxika'ko Urretxindorraren olerki ta
bertsoak oso-osorik jaso nitunean.

«Euzkadi»-k ain zuzen ere «Euzkel Atal» ospetsu bat zeu-
kan, interesgarria oso euskal literaturarako. Kirikiño'k zuzen-
du zuen dalako atala, ia orrialde osoa, ta ortixek sutu ta bizkor-
tazo zituen anitz euskal idazle. Ortxe dauzkazu beren lanak;
ortxe idatzi zuen Enbeita'tar Imanol'ek —Uribitarte'tar Ibón—,
Orixe'k, Lauaxeta'k... eundakak. Lauaxeta'k, esaterako, 1931'
tik aurrera, urte bi ta erdian, ia egunero idazten zuen zerbait
«Azalpenak» zeritzan saillean, eguneroko izparrik ktenenak
noski.

Orduko euskal idazlerik geienak azaldu zuten lantxoren bat
«Euzkel Atal»-ean. Kirikiño, dakigunez, zirikatzaille fina gen-
duan, eta errez bide-ematen zien eztabaideri ere, uskal gaietaz
sakondu ta argia atzeman nai zanean. Iker-lan txalogarria burutu
zan sarri. Erriak, bere alderik, bizi-bizi jaraitu oi zuen zuzen-
darien jokabidea. Baita zer askotan euskera bapo ikasi ere.

«HERMES»

Euskal-Erriko jakintsuen illerokoa. 1917-1922. 79 zenbaki.
Beste agerkarien artean ere txaloka artua izan zan, gizon prestu
baten eskutik zetorren era, «Gure cridaren gogo-sendopenean
lan egin, auxe zan bere xedea: gure balioak, oiturak eta inte-
resak indar-azo ta aurrera atera, elkarlan estuan.

Jesus Sarria'k sortu ta zuzendu zuen; lankide ta idazleen artean, Euskalerrian lendik ere kultura ta ikerketa lanean zebiltzanak eta oraindik asi-berri ziranak, agertzen ziran; aiek eta auek arnas bizia emango zioten aldizkariari.

Erti aldetik, azal ta mami, guztiz ederto egiña zetorren. *Irudi* ta apaingarri dotoreak, eusko margolarien lauki bitxiak, jauregi, dorre-etxe ta oroigailuen argazki lilluragarriak, dena argi ta garbi. *Labur*; K. Etxegarai'k dioskunlez, ordurarte Euskalerrian izan zanik eta aldizkariik ederrena.

Lau bat urte dirala, Huelva'tik Sevilla'rakoan, *Rio Tinto*'tik laster, eskuira artu genduen *La Rábida*'rako bidea; monastegi ospetsu artara orduko, Moguer erri zuria ikuskatu genduen eta berton, jakiña, Juan *Ramon Jimenez*'en etxeko liburutegia: antxe dago, oso-osorik, oindio azalezatu gabe, «Hermes aldizkaria. *Ikus Euskalerraren Alde*, VII, 80 orrialdean.

«EREINTZA»

Illerokoa, Euskadi'ko Nekazaritza Zalngoaren erantzukia. Lau ale bakarrik, 1936'ko lotazilletik 1937'ko epilleraíño.

«E U Z K O - D E Y A »

Euskal lurra ta beronen gauzak zoritxarpean ikusirik ez zan arritzekoa, gaiñ zuten uztarria astindu ta egoera ohea billatu nai izatea. Euzko-gaztediak batez ere leia dager bere bazkune, ibillaldi, ikasibear eta aldizkariekin. Norbere naiz alderdi politiku baten asmo ta eritziak edarazteko agerkariak dira aukerakoan. Arana itzaliz gero ere, abertzaleak ba-zituzten oietakoak: «Jel», aitatu dugun «Euzkadi», «Euzko-Deya» ta abar, gizaldi onen lenengoetakoak noski.

«Euzko-Deya», Bilbao'n 1916'garrenean «Euzkeltzale-Bazkuna»-k sortua. Euskera utsean zetorren, Arana'ren eskolako Euskera ta eusko gaiak zebiltzan, iñoiz ere aspertu barik. Diktadura eltzean ixildu zan, amairu bat urtetan euskaltasunaren ereinketa bikaiña egin ondoren.

Idazle auen lanak agertzen dira lenbiziko zenbakitik; Urrutia'tar Gotzon, M. B. S., Satarka, Amilgain (Esopo'ren alegiak euskeratuz), Mibisus (Dabid'en eresiekin), Legoaldi (ementxe datoz Grimm Anaien ipuiñik asko), Oyarbide'tar Kepa (naskaldija), Zkikunegi'tar Joseba, Bingen, Gaubeka'tar Bitor, Azparrren, Zabala-Arana'tar Joseba, Zuzatarra, Biargiña, Tabina, Tea, Arteza, Utarsus, Gatarlol, Barrondo, Alburuzi'tar Serapin, Larreko ta abar.

Istillurik izan oi da gutartean, eta geien bat denok dugun burua erakutsi naiak eraginda. «Euzko-Deya», zala zalakoa, nasteak zio noski, ori ala besteagatik, Euzko Alderdi Jeltzaleak muzin egiña izan zan. Eta, 1921'ko irailerrantza, VI'garren zenbakian (49), onela adierazi zuen, «Jaun-Goikua ta Aberrija beti bijotza» zeritzan lanean, bere biotz-miña: «Orain urte batzuk, Jeltzaletasuna ta Jel-Alderdia bixi ta sendo egozarian, «Euzkeltzale Bazkuna» sortu zan. Zetarako? Euzkera-bidez Euzkadi gure aberrijaren alde egiteko. «Euzkeltzale-Bazkuna»-kuak, beraz, jeltzale-euzkeltzaliak gintzazan. Gure ustia zan aberrijarren gogor ta zintzo jokatutia, alik gogorren eta zintzuen. Eta aberrijaren alde egiteko bide asko egozan-eta, Euzkera-bidez artu geban. Uste nagusija aberrijaren zoruna geban. Zorun ori jaristeko, azkatasuna. Azkatasunera elduteko, Euzkerea.

«Ikurriz ori bekokijotan iratzita, lanian asi gintzazan. Eta sendo asi be. Urtiak juan, urtiak etorri, aurrera, beti aurrera egiten geban. Arana-Goiri gure Irakasle bakarraren irakaskintzea oso-osorik, ezer kenduteka, lepuan artuta, amaika bide egin genduban! Zama aztuntxuba, baña gozo-gozua ixan da guretzat. Batzutan nekez, bestietan atsegiñez, Sabin'en uste

osua lepaldu ta urre-gorrija bai'litzan jabón eta zaindu dogu. Orain be kutxan sartuta daukagu, ondorenguai oso-osorik emoteko. Euzkadi'ren alde z inarduteko berak zirikau gauz. Aberrijarren egin doguna berari zor. Sabin'gandik arturiko jeltzate-tasunak eragin dausku,, egin dogun gustija egiteko. Euzkerea ikasi ta irakatsi, Euzkerea landu, Euzkerea zabaldu... Orregaz burestun bat egin dogu aberrijari opalduteko, berau azkatu ta zorunera eruateko.

«Lan orri urte askotan ekin dautsogu: gastetako urte loratsu ta ederrenetan. Eta orain, urtiok igazita^ itxura n^gargarrijan ikusten dogu buruba. Jel-Alderdiaren Agindarijak, gure odolaz ta aragiz sortu ta sendotu zan Alderdijaren Agindariak, ostikada bat emonda, bertatik jaurti gabez... gu, Sabin'en ustia garbi ta zindo jabón baño besterik egin eztozunok. Sari ederra emon dauskuben sari ja... Bijotza lertu-zorijan dogu, miñaren miñez. Alderdi-barruban gengozanian jeltzale-euzkeitzale osuak, oso-osuak ba'gintzazan, orain, Alderditik at gagozala be, jeltzale-euzkeitzale osuak, oso-osuak gara. Eta jeltzale-euzkeltzaliak ixanda, Euzkadi ta Euzkeraren alde gogor ta zintzo, len baxen gogor ta zintzo, jokatuko dogu. Jaun-Goikua ta Aberrija bij otzan».

Zenbat zabalera zuen «Euzko-Deya»-k? «Jaungoikozale»-^ 1917'an, 5'garren orrialdean, onela: «Euzko-Deya», amabosterokoa, lau orri andiduna. Bilbao'n, Bidebameta, 14-2.º».

«EUSKALTZAINDIA»

Aurreneko puntu bezela bego emen A. Villasante'k oraintsu esana, ots, izkera-zaingo onen jomuga azpi-marratuaz diona: «Euskaltzaindia Institutio bat da, 1918 urtean, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nalarroako lau Diputazioen babespean sortua. Helburu eta xéde bezela du euskeraren alde lan egitea,

hizkuntza honen idazlegintzarako argibideak eta arauak emotea, ta abar. Euskal Herriko eskualde, euskalki eta euskera mota guztien ordezkariak daude bertan. Euskaltzaindiak kultur-jakintzaz bakarrik du zer ikusi eta deus ez politikaz ezta iñongo taldekeriaz ere. Pluralismorik jatorrena egon da beti eta dago orain ere harén barnean. Euskaltzaindiak garbi ikusi du beti euskera herri baten ondasuna dela, eta herri osoarena, gaiñera, eta hain zuzen horrexegatik, ez du nahi ondasun hori talde baten eskuetan eror dadin» (*Euskera*, 1973, 237 orr.).

NOLA JAIO ZAN EUSKALTZAINDIA.—Batasumk noiznai indarra du sortzen. Aintziñatik zan, egia esateko, olako batasun kezka, euskerari buruz ain zuzen ere. Gure elea, euskaldi askotan zatitua ikusteak min ematen zuen; zailla zan nunbait berau zaintzea, ta gaiñera, igarri gabe, malda beera zijoan: erdera lursail aundiakin jabetua zan, etxeoak zabar zebiltzalako ta erbestetar asko onera zitzaizkigulako. Zer egin?

Aurrenik bateratu euskaldun guztiok, geure nortasunaren ikur eta ezaugarriarik bikaiñenari arnas emateko. Gizaldi onen lenengoetatik ba-zan arnasa ezarri nairik. Abandotarra, gure zer guztien zuzpertzaille bipilla, itzalia zan; baifia aren oiñordekotza etzegoen esku auletan. Euskerak ba-zituen bere adiskide miñak, euskal lur-gaiñ osoan trebe lan zegitenak. Baita ba-zan euskaltzale guztiak talde gotor baten bildu ta gogortzeko asmoa ere; orixe zan «aspaldiz geroz euskeraren adiskideak biotzean zekarten ametsa».

Elezaingo, akademi bat sortu nai zan. Biziro nai ere. Arterago, egia esan, egiñak ziran orretarako saio batzuk, lei ta alegiñak noski. Darrigol izan zan ortan aurrenik saiatu zana, 1830' en; baiña bear baiño lenagoko eriotzak erzion utzi prest zeukan asmoa aurrera eramaten. Garai artan bertan Okendo'ko Ulibarri euskaltzaleak ere xede berdiña azaldu zigun. Geroago, 1886'an, Durango'ko euskal jaietan gai ortazko lan eder bat saritua izan zan, Aristides Artiñano'ren «Proyecto de Acade-

mia Bascongada» (Barzelona, 1886); Arana-Goiri'k bere alde-
tik, lan au ta bere egillea, goratuaz, artikulua jakingarri bat ar-
gitara zuen Donosti'ko «Euskal-Erria» aldizkarian (1886-7-20,
XV alea), idazpuru onekin: «El Proyecto de Academia Bascon-
gada del Sr. de Artiñano».

Urte berean, K. Kannemann eta T. Linsehnmann doixtar
euskaltzaleak, Berlin'en beren *Baskische Gesellschaft* (Euskal
Iagundia) jaso zuten, balta amar urtez iraun bear zuen «Eus-
kara» agerkaria argitara eman ere. Etxekoak eta arrotz jakin-
tsuak, bada, idazle ta iztunak, asmo ori, akademi bat sortzekoa,
arduraz ikertu ta eratzen asiak ziran, euskal erriko euskaltzale
benetako guztiak alkarganiatu ta baltzu4anie(an jartzen asiak
noski.

Euskaldunok, ala ere, nekez jartzen iñoren esan-barru. Or-
duan ere, ta noiz ez?, muker aldeztu zuen bakoitzak bere al-
derdi. Egin ziran alegiñak euskal baltzu bat sortu ta euskal-
kiak bateratzeko, baiña ordukoz beintzat etzan ezer lortu. «Eus-
kalkiak bateratzeko —dirakurgu «Euskera»-n, 1919-1920, 37
orr.—, 1901'ko dagonillaren 11'an, Hendaya'ko batzarrak era-
baki zuan alderdi guzierako euskaltzaleen artean Lagundi edo
Alkartasuna bat irasi bear zala. Balta orixe urrengo urtean,
Urruñ'a'ko euskal jaietan, Arbelbide apaiz jaunak ozenki aitatu
zuan. Baña andik laster, sail orreri burua emateko, Euskaltzaleak
Ondarribia'n bateratu ziranean, beren aburuak ezin elkarri josi
izan zituzten ta bakoitzak bere aldera jo zuan. Lapurdí, Bene-
barre ta Zubero'koak *Eskualzaleen Biltzarra* derioten baltzua
jarri zuten, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroa'koak berena
Euskal Esnaleaken izenarekin jasotzen zutelarik. Gerora (1907
ko dagonillaren 12'an) *Eskualzaleen Biltzarra'koak*, Hendaya'n
bildurik, autarkiz bere Lagundk *Euskal Esnalec^rekín* jostea
erabaki zuten, baña alaere baltzu biok banakaturik jarraitu
zuten».

Onela darrai aipatu idazleak; «Orrelako sail gogorra buru-
ratzeko, asmo aundiko langilleak baño, indar ta dirudunak bea-

rrago dira. Egikizun aĩn astunaren aurrean, gizonak berak makal gelditzen dira: betoz ortarako Aldundiak. Euskaltzaindia'ren jaiotza Bizkai'ko Aldundiaren lana izan da».

Noiz JAIO ZAN.—Ete, egiazki, Bizkai'ko Aldundian beĩnik-bein ba-zebillen olako kezka ta urduritasuna. 1906'an, Adolfo Gabriel Urkixo'k, Aldundiaren buru zalarik, bere lagun eta mendekoal berak asmatu zuen euskal akademi baten egitaraua eskeĩni zien, «Academia de la Lengua Vascongada» zeritzana. Geroago sortu Euskaltzaindiaren araudi geiena Urkixo jaunaren lan eder aretan aurkitu liteke. Ikus RIEV, I, 31 orr. Asmo ori, baiña, zergatik etzan aurrera eraman? Zerk uts egin zion? Berak ere, Urkixo'k, galdera berdiña dagi; zer dala-ta etzan aurrera eraman izan A. Artiñano'ren ideia? Oztopo bi zeuden, antza, naiko gogorrak: ez ei zegoen iñor, naiz-ta izen aundiko, orduko euskaltzale guztiak bateratzeko gal zanik; ezta orrelako erakunde bati eusteko lain diru zeukanik ere. Euskal Di-putazioak, alere, or bideak urratzeko lain ba-zirala, uste zuen. Eta, izan ere, zoztor oiek alderatu zituztenak gure Aldundiak izan ziran.

Gora aundiko egikizunak —nork ez daki?— epe luzea bear izan oi dute prestatu ta aurrera eramateko. Aldundietan ere etziran danak eritzi batekoak, eta giza-adiñai baterantza eragin al izateko ele askoren ondoren giroa sortu bear. Urte askoren buruan orrela egin zan Bizkai'ko Aldundian ere. Asko egin dezake sarri gizaseme kementsu baten gogo onak eta gizaldi onen bigarren amarkoan ba-zan, eta aldun izan ere, Bizkai'ko Di-putazioan euskaltzale bizkor bat: Kosme Elgezabal. «Orra azkenez —dio «Euskera»-k, pozarren—, urrezko izkiz Euskaltzaindikk bere etxeko atari gaiñean ezarri bearko duan eguna: 1918'ko Urtarrilla'ren 25'garrena. Egun artan, Bizkai'ko Aldundiaren jauregian, Elgezabal'tar Kosme aldun bikañak euskeraz idatzitako atal bat bere kide argitsueri irakurri ta eskaini zien» (*Euskera*, 1919-1920, 39 orr.).

Kosme Élgezabal izan zan, bada, Bizkal'ko Aldundian euskera sartu zuena, ta Euskaltzaindiaren araudia eskeñiaz sartu ere. Merezi du-ta, bijoa emen —orrela dagi «Euskera»-k ere— idazki ausart ori.

Onela dio: «Jaunoi: Benetan urgazi bear dogun aurreneta-rikoen lan ardan, nekeza berez ta gure erriya bizi dan bereiz-kiñakaz egiztu ta atonduteko gatx-gatxa, agertzen yaku irakas-kintsiena. Jakiñezak eta naikunde zitalak sortu dabezan zentzu-gabeko ustiak, ezaupen okertuak aberriyatza, jakintz-atzerrita-rren sarkunde bidebakoak, bere artezkari andikiyen erizpen be-darrak eta gure buruaz aspddiyan ixan oi dogun arduraezak, ekarri dabe oralngo gure erriyen egoera tamala. Asko deuseztu ta iya gustiya iragiteko lakoa.

Olako inguru bageaz, notin ta aldra bikain batzuen alegiñak, onek urgazi ta zabaltzeko almen eraldu bat izan ezik, alperrik dira. Eta egipidiaz baiña naikunde obiaz gura dogu, geure ger-kunde au txiro ixan arren, jakádia irasi ta zabaldu; idazti ugari iratzi; euskertia indartu, obetu ta berari dagokiyon abegiyaz artu dayela txoniztegi, ikastol eta irakastoHyetan; bera geure artu-emoneko lenengoetarikoen lankiya izan daitela, euskertiak euzko-notintasuna sendotu dagiyan. Naikunde zintzoa, baiña dagokazan bidiak artzen ezpadoguz, elduko etxakuna...

Gogo zabal batek eta ezetan bez berekoyak eragin bear dauz iragiko dan Bazkunen antolakizuna, izakera ta bizkitza. Egiyari ta abertzaletasunari begira eritzi batzuk danen galn edozelan ipiñi nai barik, emongo dauskuz eztabaida bare ondoren, euzkerien aran azterkariyak. Asmo onek, euzko orori dagokiozalako, eztira esi bear Bizkal egaletan. Garalpen gixajoa geure .erkiyan xedatuko bageunke bera! Gipuzkoa, Araba, Naparra ta Parantzeko 150.000 anayak entzungo dabe, orixe bai, geure deya eta ekarriko dauskue. euren laguntza, gagozan eunkiyan bizi edo ilteko epaya artuko daben asaben mintzari, zor yakon maitasunaz.

Iraskunden eustazpiyak ixango dira... 1.n Bizkaya, Gipuzkoa, Araba eta Naparraren **Diputaziño** eta Parantzeko euskeldunen ordezkariyen keriz ta babespian, irasten da Bazkunde bat... ixenaz, euskeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orabatu ta zabaltzeko. Bere erabakiyak, agintzallen sorospen eta almena eltzen dan aña, bear-etsiko dira; eta agintzalle ovek ukutzen daben euzkel-gal oroetan beragana zuzenduko diTM. 2.n Ogei lagunek osotuko dabe Bazkandia eta izango dira Euzkadi'ko erki ta izkelgi gustiyan ordezkariyak. Euskeraz lan ondoen egin daue euzko edo atzerritarrek, euren zertzelada gairik (biztokiya, erritasuna, t.a.). Bazkunde bertan bazkide egizkorrak sartu ezin ba- dire, lagun omengarriak bezela ixentau leikioe Bazkundiak. Onak ez dira izango ogeitik gora. Baita be jarten dira bazkide lankidiak, Bazkundiak aldunduta zeregin mugatu batzuk egiztuteko. Onexen jardunkuntzia, ordaindua izango da, eta bere zenbakuna bear dan beste.

3.n Illian bein gitxienez batzauko da Bazkandia; eta Araudiyak tiakotu daben sariya emongo yake batzaldira datozeanai. 4.n Jarten dira oraindik... lagun, Lhande, Campion, Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Beñastegigoitia, Basabe, Euzkeltzale-Bazkunako bat, Eguzkitza?. Lopez Mendizabal, Urkixo (Julio), Agerre (Iruñakua), eta Bayona'ko «Eskualduna» ren ordezkari bat. Jaun orrek gertuk[^] dabe Bazkundiaren Araudiya. 5.n Bein eratu ezker, bsretuko dau bere jartokiya.

6.n 10.000 laurlekogaz urrien urgaziko dau Bizkal-Diputaziñuak. Zergaiti barriya egin arte eralgi bear dana, Ogasun-Batzordiak bereztuko dau nundik atara. 7.n Asmo au ta beratzaz ezarriko dan erabakia egiztuteko jakin erazoko jakoe, euren gozoko ta txindiz laguntza eskatzen yakoela, Euzkadi'ko beste **Diputaziñoeri** eta Parantze aldeko euzkeldunai. 8.n **Diputaziño** bakotzak aututen daben **Diputadua** sartu ta izango da nagusi Batzorde gerlian, Bazkandia bear dan lez jarri arte.

Bilbon, Lotazilleko 12.n. 1918. Kosma Elgezabd'tarra. Landaburu'tar Peli (*Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 1919-1-14'an).

Agiri au ezarri ondoren, onela darrai «Euskera»-k: «Bizkai'ko Aldundian Elgezabal'ek bere gaia agertu arteraño Euskaltzaindi bat j artzeko egin izan ziran indarketa guziak argal, mee ta makal izan ziran. Ondoretsurik auxe baizik etzan izan. Orregatik Euskaltzaindia egun artan jaio izan zala esan litzake. Bilboko Aldunditik Donostia, Gazteiz ta Iruña'ko Aldundietara asmo au zabaldua, laurak erabaki zuten Oñati'ko Batzarrera arloa eraman ta an txedea amaitzea» (42 orrialdean).

OÑATI'KO BATZARREAN.—1918'ko irailla. Oñati jai-soiñekoz. Eurrez lagunartea, ara ta ona; bertako ta kanpotar, ezin zenr batu-ala. Eusko-Ikaskuntzaren batzar nagusia dugu. Berton da Euskaltzaindiaren arloa ere. Batzar ori asi ta bertatik dabil Kosme Elgezabal «Bizkai'ko aldunak, len-bailen, Bilbo'n erabakiriko Euskaltzaindi orren arloa mai gaiñean jartzea» eskatzen. Beingoan atxiki bear asmo orri buruzko lanean.

Iraillaren lenengotik zortziraiño iraungo zuen batzarrak, eta bien bitartean etzegoen lo egoterik. Ain zuzen ere, izkuntzaren ardura zuten jaunak, iraillaren lauan, ortarako, Euskaltzalndi egikizuna aurrera eramateko, alkartuak ziran. Lendabizi, jakiña, ainbat galdera urratu ziran, eta aurrenik bi atal edo sail osatzea erabaki zuten: Eliztia ikertu ta garbituko zutenena lenengo, ta izkuntza jaurri ta gordeko zutenena bigarren. Eztabaida txiki bat bertatik; Antonio Ozamiz batzarkideak au: «Zuek, mai orren aurrian jarriak zaudetenak, zuek Euskeraren argi garbiena zeraten ezkeru, ongi itzegiteko legeak erabaki itzazute ta gu zuen aburuari jarraituko gatzazkio». Eta K. Eleizalde'k jardetsi: «Ez. Lan aundi ortarako guk emen eztauzkagun indar eta argiak bear dira, arretaz bururatu bear dan arloa da-ta». Mai-buru zegoen Txomin Agirre'k eskatuta, autarkiz erabaki zan sail bi oiek osotzea.

Bi lan-motak nola bururatu? K. Elgezabd'ek bi batzorde bakarka jartzea eskatu zuen: bata, Euskera zaindu ta gordetze-ko, ta Euskera ikertzeko, bestea. Eleizalde'k, ordea, onela: «Niri, aldiz, Batzorde ortan bi lan-mota oierarako biar diran gizonak bildu ditezkeala deritzat. Jakintza uts-utsean, egune-rozko bearra begiratu gabe leporaño sartuak bizi diranak bar dira: oyeri dagokie euskera ikertzeko lana. Beste batzuk izkun-tza, ez bakarrik hura ikertzeko baña geienik gizonen artean gorde ta zabaltzeko, gogoan darabilte: oyexek Euskeraren zain ta banatzaillak izango dirade ta guziok buru bakar baten men-pean dabiltzala sail osoagoa beteko dute» (*Euskera*, 1919-1920, 45 orr.).

Ondoren, Aita Olabide, Mikel Urreta ta K. Eleizalde'k Euskaltzaindi berriaren araudia eratu zezakean batzorde bat izen-datu naia agertu zuten ezkerero, Elgezabal, Urreta, Azkue, Olabide, Agirre, Eleizalde ta Biziola ortarako autaruak geratu ziran. «Jaun oyeri, amabost eguneko epearen barruan, bere aburua edozeiñek ager zezakealarik, ta gero berak izparringien bidez araudi gaia ezagutarazi lezaketela erabaki zan». Oñati'ko Batzar-rran era orretan eman zioten amaia.

LENENGO BATZARRAK.—Emetik errez atera dezakegunez —eta lendabiziko euskaltzaiñak berak ere orrela aitortu zu-ten— Euskaltzaindia «Eusko-Ikaskuntza» —ren alaba, naiz-ta askatua, dugu. Biak, beraz, alkar-laoa egingo dute euskeraren alderako. Aita Olabide txit eragille zebillen, eta bere aldetik Batzordearen izenean araudi-gai bat landu zuen, esan epea amaitu zanean bere batzarkideai eskeiñi zien, eta urrillaren 17'an Bilbao'n baturik, arduraz aztertu zuten gaia, ta bi xede auek artu zituzten: «1'n, Olabide'ren gaia aintzat artzea; 2'na, Euskal-Erriko agerkarien bidez ezagutaraztea, iñork orre-taz aburu berriren bat eman naiko bazuan, onenbeste egunen buruan eldu-arazi zezan» (Ikus *Euzkadi*, 1918-10-24'eko zen-bakia).

Andik eta emendik naikoa izan ziran gal orretaz beren eritzia agertu zutenak, idazki ta agoz ain zuzen ere. Agozkoak entzun eta idazkiak aztertu ondoren, azaroaren 17'an, Bilbao'ko Aldundiaren aretoán alkartu ziran Azkue, Txomin Agirre, Aita Olabide, Eleizalde, Urreta ta Biziola, ta» «batzuen gaiak onartuz, besterenak ukatuz, bere lana betiko zuzendu ta gogortu zuten». Euskaltzaindiak sarri argitara du bere Araudi au: «Euzko Argitaldaria» (Bilbao, 1920) lenengo aldiz.

<<Euzko-Tkasikuntza>>-ri eskeiñi zioten Araudi egin-berria, ta onek bere gain artu zuen Batzordeak egindako lana, baita idazki eder bat itsatsirik berau Euskalerriko Aldundieri bialdu ere (*Eusko-Ikaskuntza'ren Deya*, I, 2'garren zenbakia). Lau euskal aldundiak laster erantzun zuten, Euskaltzaindiaren xedea onetsiz, eta «Eusko-Ikaskuntza»-ri agindu zioten gaiñera «Araudiak aitaruriko gizonak bil zitza ta orien bidez Euskaltzain berriak izendatu ta izkeltzaindia azkenez jarri zezan».

Ortarako, ba, Eusko-Ikaskuntza'k dei egin zien, 1919-9-21'án, Donosti'ko Aldundi jauregira Oñati'n izendatutako lau euskaltzainai: Azkue, Kanpion, Eleizalde ta Urkixo jaunai; baita deituak izan ziran gaiñerakoak autatzeko, K. Etxegarai «RIEV»-en izenean, Pierre Broussain Baiona'ko «Eskualduna» izenean, Txomin Agirre «Euskal-Esnalea»-ren izenean, Aita Intza «Irugarrengo Prantziskotarra»-ren izenean, Zirilo Artzubiaga Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-ren eta «Jesus'en Biotzaren Deya»-ren izenean, T. Alzaga «Euskal-Erria»-ren izenean eta G. Mujika «Euskalerraren Alde»-ren izenean. Bilutakoak eskatuta, Julian Elortza'k egin zuen Buru ta Anjel Apráiz'ek Idazkari, biak «Eusko-Ikaskuntza»-n ere pentzu berdiñak zeuzkatenak.

Ongi-etorriak eman, irakurtekoak irakurri ta beste giza-legezko eskabideak alik zeatzen bete ondoren, alkar-izketa zabal bete euki zuten auteskundeetara jo orduko. Lengoez gaiñera zortzi euskaltzaih oso aukeratu bear zituzten, eta autarkietara jorik, ia biotz eta ao batez autatuak gertatu ziran: Txomin

Aguirre, Pierre Broussain, J. B. Adema —Onek etzun artu nai izan eta bere ordezt Martin Landerretxe jarri zuten—, Erramon Intzagarai, Jose Agerre, J. B. Eguzkitza, Aita Olabide ta Pierre Lhande.

Jaio ta koskonduz zioan erakunde berria. Legeak agindua beterik, batzar eratzen asi zitzaigun, Bilbao'n, Donostia'n, Iruñia'n... Donostia'n, Gipuzkoa'ko Aldundiaren jauregian izan Zan lenengoa, ta arrezkero, au da, 1919-10-7'tik 1920-10-7'rairaino, 22 batzar egin zituen Euskaltzaindiak. Lenengoa, urrillaren zazpikoa ta bigarrena, urrillaren ogei ta seikoa, etziran nolanaikoa izan, autatzeak, erabakiak artzea ta abar, lan oso zail, gupera ta adeitsua baizik.

1919'ko urrillaren 7'an autatzeak egin zituzten, goiz eta arrats batzaldurik. Alkietan zeuden: Julian Elortza, Gipuzkoa'ko Aldundi ta Eusko-Ikaskuntza'ren Buru zana; Anjel Apriaz, Eusko-Ikaskuntza'ren idazlari lena; Agerre, Agirre, Azkue, Broussain, Kanpion, Eguzkitza, Eleizalde, Intzagarai, Lhande, Olabide ta Urkixo, euskaltzainiak. Ongi-etorritzko agurra eman, idazlanak irailaren 21'ko batzarrean egiña ezagutarazi ta beste gorabera batzuk atondu ondoren, Euskaltzaindia'^ Elorza jaunak eskatu zuenez, bere Burua aukeratu bear zuen. Ezbai bat bertatik: betikoa ala epe batekoa izango zan au? Geienak aburu oneri bildu ziran; «epe batekoa izan bear zala, bi urtetakoa, baña bera bietan ta geiagotan autatu litezken».

Araudiak diona irakurri-ta gero, autarkietara jo zuten euskaltzainiak; len inguruan etzitun iñork ere bear ziran balak beretu; bigarrenean, oster, Azkue, zazpi autarkiz, autatua izan zan. Elortzak berealaxe Azkue Euskaltzaindiaren Buru izendatu zuen. Onek, berriz, lendakarizko alkian jarri ta, euskaltzain guztiai eskerrak emanik, esan zien: «Eskerrak, lagun maiteak, aulki onetan eserarazi nauzutelako. Ziri ta sari dedala uste det zuen autatze au: ziri, aurrerantzean oraiñarte baino ere gogorrago lan egin dezadan; sari, lan egin ditudanen ezaugarritzat. Gure egipidea (programa) beste bi itz auetan sar edo diteke:

emeki ta *gizonez*. Emeki, bigun, astiro; baina ez emakume bezela, gizonai dagokitenez baizik: Gure lanetan beaztopoa, era-gozpen ta buruauste, zirikada ta nayezak maiz izango ditugu enura bage. Iraunkor ta gogotsu bagera, azken on batera elduko dira gure lanak». Gero, beste arduretarakoak autatu ziran: **Diruzain**, J. Agerre; **Liburuzain**, J. Urkixo, ta **Zadorlari**, K. Eleizalde.

Esandako urrillaren 26'an, ordea, beste auteskunde batzuk burutu ziran: euskaltzian deduzko ta urgazleena. Ortarako, illaren zazpiko batzarrean garai artan omen geienen zeukaten euskaltzaleen izen-zerrenda bat zabaldu zan batzarkideen artean, «zetorren batzarran autatu bear ziranen izenak nork berak ondo gogoratu ta begizta zitzan».

Deduzko Euskaltzaintzat onek jo ziran: **Patrizio Orkaiztegi**, **Hugo Schuchardt**, **Julien Vinson** eta **C. C Uhlenbeck**. **Urgazletzat** auek: *Bizkai'n*: **Seber Altube**, **Federiko Belaus-tegigoitia**, **Ebaristo Bustintza**, **Jose Maria Errazti**, **Luis Gonzdes Etxabarri**, **Juan Krutz Ibargutxi**, **G. Manterola**, **Nazario Oleaga**, **Amantzi Urriolabeitia** ta **P. Zamarripa**. *Gipuzkoa'n*: **Toribio Altzaga**, **Pedro Lardizabal**, **Juan Bautista Larrera**, **Manuel Lekuona**, **Isaak Lopez Mendizabal**, **G. Mujika**, **P. M. Urruzuno** ta **Joseba Zinkunegi**. *Naparroa'n*: **Teodoro Arburua**, **A. Celestino Kaparroso**, **A. Eusebio Etxalar**, **Fermin Irigara** ta **Nikolas Ormaetxea**. *Araba'n*: **Odón Apraiz**. *Lapurdi'n*: **Blaise Adema**, **J. B. Daranatz**, **Pierre Dourisburu**, **Jean Saint-Pierre**. *Benabarre'n*: **Jean Etxepare**, **Julien Hegi**, **G. Lakonbe**, **Frederik St. Payme**. *Zubero'n*: **J. B. Constantin**, **Felix Larrieu**, **Justin Menditte**, **J. Urruztoi**. *An-emen*: **J. B. Darrikarrere**, **H. Gavel**, **R. Menendez Pidal** era **J. Saroihandi**.

Nun izango zan Euskaltzaindiaren bizitokia? Bilbao'n ala **Donosti'n**? Bilbao autatu zan Eleizalde'ren eskabidez, uri onek erakutsi zuen errikoitasunari zelanbait erantzutearren. Alkarte onek bear zuen bizipidea ere izan zezan, Eusko-Ikaskuntza'k emango zion elpidez gaiñ, Euskalerriko Aldundi, Udaletxe ta

«beste Baltzu ziñekoeri» laguntza eskatzea erabaki zan. Orrela egiñik, Bilbao'ko Udalak eta Bizkai'ko Aldundiak batez ere bertatiko baten eskeiñi zuten Euskaltzaindiak bear zuen egoitza, ta diru-urgazpena.

LENENGO ERABAKIAK.—Euskaltzaindiak ba-zuen, gorago aitatu dugun agiriko araudiaz gaiñera, beste bat barnekoa, lenengo batzarraldietan mamitua, «Euskaltzalndiaren barneko araudia». Eta onakoetan oi danez, ainbat gauza eztabaidatu zituzten lege tinkotzat artu aurretik.

Lenen eztabaidan jarri zana, au izan zan: gure izkuntzaren izenak daraman len itz atala *euzk* ala *eusk* danetz. «Azkue'k, *eusk* antziñakoa ta euskal-alderdi geienak darabilten itz ta elekera zala; ta Eguzkitza'k, orain beñik-pein askok, ta bdinba geienak Egoaldeko Euskal-Errian *euzk* ¿ásatela, aipatu zuten». Arloa luze aztertuz gero, autarkitara jo ta *eusk* otsaren alde agertu ziran geienak.

Bigarren atalera jorik, galdetu zuten: euskara ala euskera-«Lan garratza, guzien aburuak bateratzea. Iparrald'eko iru euskaltzaiñak ta Napartar bid<, «a»-ren alde; «e»-ren alde Bizkai eta Gipuzkoar bostak. Lenengo autarkian ori. Bigarren «a»-tíar bat «e»-tiartu zan. Irugarrenak beste bat «e»-ren alde bildu zuan. Beraz, «e»-ren alde iru bakarrik aurka ziralarik, *euskera* jarri bear zala erabaki zan».

Eta ondoren, «Euskera» zan ezkeru, nola esan orren izenlaguna, euskeldun da euskaldun? Autarkitara jo ta euskaldun ezarri bear zala itzartu zan. Eta nola esan erderazko «académico», euskabam ala euskaltzain? «Tzain»-en alde irakurkizun mamintsua osotu zuen Eguzkitza'k; Azkue'k, berriz, «zain»-en dd|e. Iru aldiz autarkitu ta azkenen «tzain»-ek amar autesletik seirenak bildu zituen. Donostia'n, 1920'ko urtarrillaren 7'an zan au.

Urrengo egunean, 8'an eta Donostia'n bertan, Euskaltzalndiaren ikurritza «Ekin eta Yarraí», eta beraren ikurdia Areitz

Gurutzeduna izango zala erabaki zuten. Eta beste zer asko aztertu ostean, idazkeratzaz jardun zan. Eztabaida barik, ¿zki-ikur aunitz egokietsi ziran. Bakar bat astiroago begiratu izan zan, «s» busriari (eliztian esan oi dan bidez) dagokiona. Autarkitara yo-ta (aurtarki batzuk aurka zeudelarik), izki aren ikurtzat «x» autetsi zan. Beraz, Euskaltzaindiak beretzakotu duan euskal abeze auxe da: *a, e, i, o, u, ü* (Sudur-aboskienrztat, euskalkiren baten bear balira, izki orren gaiñean marra txiki bat jarri); *b, d, dd, f, g, h, j, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, x, t, tt, ts, ix, tz, y, z*. Euskaltzaindiak gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die arren, ahal dalarik beintzat, idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagiela».

Eta ain zuzen ere, euskal erriko idazle geienen oar au bialdu zien: «Donostian, illa aunen 7'an Euskaltzaindiak izan eban Batzarrean, abots batez, darrain erabagi auxe artu eban: «Gure Errian agertzen diran albistari edo izparringi oroei eskatu, euskerari dagozkion gai guztietan, naiz idazkera, iztegi ta enparuetan, Euskaltzaindi aunen erabagiak onetsi ta eurentzakotu dagiezala».

Gure mendi-bizkarretako areitz-tantaiak, naiz-ta aize ta euri truxuak zakarkiro astindu, nekez doaz lurrera. Orobat euskalduna ere, gaizki dator iñoren esanera, goitik beerako agindu zorrotzegira batez ere. Orrela jazo zan Euskaltzaindiaren arren orrekin ere. Sabindiar eskolak eta mugaz andikoak beintzat ez zuten gar aundirik erakutsi; Kirikiño'k berak etzitun alkarte orren araudiko gauza batzuk begi onez ikusten. «Jaungoiko-Zale»[^]ren Artezkariak baietz zion Bazkunak gaurgero aintzat artzen zituela erabaki aiek; «baña lenbiziko Batzar nagusian idazle bakoitzari nayen zuan idazkera erabiltzeko eskubidea eman zitayola ta, urrengo batzar nagosia egin arte beintzat, «Jaungoiko-Zale»-ren idazleak ezin beartu ditzakela». Geienak, ala ere, Euskaltzaindiaren agindura zeuden, Eusko-Ikaskuntza, Udalak eta abar berariz.

Eta ba-zijoan aurrera bere lanetan. Ba-zuen laguntza ere; Bizkal-Aldundiak 40.000 laurleko emango zizkion urtero. Onek eskatu zion gaiñera, «uri ta auzo sar-bideetan ezarri dauzan izen-idazkunak begiratu ta aztertu dagizala, uts ala okerren bat ba'lego, bete ala zuzentzeko». Batzorde bat sortu zan orduan, Azkue, Eguzkitza ta Eleizalde'z eralduta. Ondoren bezela, gauza egokia zala-ta, Araba, Gipuzkoa ta Nafarroako Aldundiei ere berdin egin zezatela, eskatu zitzaian.

Euskeraren batasuna ikasteko ere batzorde bat osotu zan, Olabide, Eleizalde ta Azkue maiburuko zirala; Kanpion eta Broussain'ek aurretik egin zutena ontzat emanda, idazleen eritzia aztertu bear zuten auek; bakoitzak itz gutxitan bere izpidea emango zuen, eta Euskaltzaindira igorri, eta azken eritzia, artuko ziran lanak aztertu ta gero, Euskaltzaindiaren aldiroko batzar baten emango zan. «Euskera» agerkarian ikusi dezakegunez, lan txalogarria burutu zan arlo onetan.

Labur: Euskaltzaindiak, asiera-asieratik, ainbat arazori ekiñez, lan baliotsua egin izan du beti. Azkue jauna izan zan beronen zuzendari, urrenez urrun autatua, Alkartea sortu zantetik gizaseme ain langille ta jakintsua il zan arteño, au da, 1919'tik 1951'ra. Gero auek izan dira: Iñazio Maria Etxaide (1952-1962), Jose Maria Lojendio (1964-1966), M. Lekuona (1968-1970) ta Luis Villasante.

« E U S K E R A »

Len eta orain oiñean dagona dugu erakunde bakoitzak, al izanik, bere albiste papera eukitea. Euskaltzaindiak ere bear zuen berea. Eta, 1920-7-23'an, bere emeretzigarren batzarraldian, «Euskera» ateratzeko erabakia artu zuten Gipuzkoa'ko Aldundi-jauregian alkartu ziran euskaltzaiñak. Lenengo iru utsune ornidu zituzten. Bi illak ziran uste gaberik: Txomin Agirre (1920-1-14'an) eta Pierre Broussain (1920-4-30'an), eta

irugarrenak, J. Agerre'k utzi egin zuen, lanpetua zebilela-ta. Seber Altube, Tx. Agirre'ren ordez, Lakonbe Broussain'en ordez eta Aita Intza Agerre'ren ordez euskaltzain gogortuak izan ziran.

«Euskera» izango zan Euskaltzaindiaren errolda-izena. Eta lenengo zenbakia ateratzeko ardura Aita Lhande'k artu zuen, alkarteak berak eskatuta. Eta zuberotar argia bertatik asi zan lanean, aurretik zeuzkan gai ta lanak zeazki sailkatu ta tajuturik. Lendabiziko «oarrean» onela dio; «Gure euskal oitura zaarren araura, norbaitek, berekin, adiskidearen etxera arrotz bat daramanan, etxeko nagusiari, nor dakarkion esan oi dio. Orrelaxe niri ere, irakurle maitea, nere euskaltzainkideen lanak ezagutaraztera noalarik, lenik, arrotz oriek nortzu eta nolakoak diran ta ze lanak bururatu dituzten, xee xeei esan bear nizula, gogoratu zait».

Eta orixe dagi aurrenik, euskaltzain-kideak —euskaltzainak, deduzkoak eta urgazleak—, nortzuk diran eta ze lan osotu duten adierazi. Bi illak gogorazi; Agirre'z onela dio: «Euskaltzaindi jaio-berri au bere lanaz lagundu ezin dezakean Agirre maiteak zeru goitik urgaz dezala!». Eta Orthez'en itzali zan lankide gartsuaz; «Azpandar guziak betiko aren itzaldi ederrez oroituko dira, batez ere ango illerrian, igarotako azillaren 11'an «Gudako illez» egin zuanaz. Oraindik il baño len egun gutxi zala, Ezpeletan bildurikako nekazarien aurrean itzaldi eder bat eman zuen «arbola landatze bearraz».

Ondoren dator Oñati'ko batzarraren berri, Euskaltzaindia nola ta noiz jaio zan esanik. Gero, Euskaltzaindiaren lenengo urteko batzarrak. «Mila bederatzireun eta emeretzigarren urteko urrillaren zazpirak, mila bederatzireun eta ogeigarreneko urrillaren len eguneraño, Euskaltzaindiak —dio— bere kideak batzarrean ogei ta bi bider bildu zituan. *Bilbo'n*, 1920'ko otsailaren 16 eta 17'an; epaillaren 24 eta 26'an. *Donostia'n*, 1919'ko urrillaren 7 ta 26'an (goiz ta arrats); azaroaren 13 (g. ta a.) ta lotazillaren 23'an; gero, 1920'ko urtarril edo ilbeltzaren 7 ta

8'an, jorraillaren 25 ta 26'an, orrillaren 24 ta 25'an, garagarri-llaren 22 ta 23'an. *Iruña'n*, 1920'ko uztaillaren 23 ta 24'an». Jarraian, Euskaltzaindiak egunetik egunera bere batzarretan egiñiko lanak zeazki damazkigu. Iruña'n, Bigarren Mailla'ko Ikastolan, eukitako batzarrean adierazi zuen Lhande'k: «Euskera» agerkariaren lenengo zenbakia zelan eratu daben eta gai orrezaz egin dauzan lanak irakurri ebazan, eta orón aburuz aintzat artuak izan zirean» (*Euskera*, 1919-1920, 78 orr.).

Bigarren zenbakian sartu zituen: 1) *Euskaltzaiñen Ikerazterpenak*: a) «Gure Academia» oni dagokion euskal-izena»; b) «Oar batzuk geigarritzat»; d) «Euzkera ala euskera?»; e) «Euskalzain ala euskaltzain»; f) «Irugarren txostena»; g) «J'ren otsa eta idazkera»; h) «Euskalki ala euskaigi?»; j) «Erderatiko itzak, itz-barriak eta antxiña-itzak»; k) «Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beiñolako itzak»; l) «Arau nagusiak»; m) «-Kari atzikia», eta abar. II) *Euskaltzaindiaren agiri ta erabakiak*; eta emen datoz urre barruan eratu izan ditun ipuin labur ta luzeen sariketa; «Euskera»-ren lenengo zenbakia dala-ta artu dituzten agurrak eta aurkako zer-esanak.

Bigarren urteko len-zenbakian gaiok aurkitu zenezazki: «Seber Altube euskaltzain berriak egin zuen sarrera itzaldia ta R. M. Azkue euskaltzain buruak zuzendu zion ongi etorria, Bilbao'n, 1920-12-2'an; eta bigarren zenbakian: «Intza'r Dámaso Aita buruñurduna ta Georges Lacombe Yaunaren Sarrera itzaldiak eta Olabide'tar Erraimun Aita Josulaguna ta Resurrección Maria de Azkue Euskaltzainburuaren Erantzupenak».

1920-1921 urteetako «Euskera» aleak Tolosa Prantzikoan atera zitun Aita Lhande'k, Edouard Privat'en irakolan, berau ango Goi-Ikastetxeko Irakasle zan eta. 1922'tik, au da, irugarren urtetik aurrera beti, Bilbao'n argitaldu izan da, «Eusko-Argifaldaria»[^] geienik. Zuzendaria ere aldatu zuten, A. Lhande'ren ordez Nazario Oleaga jarriaz.

Irugarren urteko lenengo alean euskeraren batasunari buruzko lanak datoz. Eta onan idazten digu zadorlari berriak:

«Aspaldian, euskeraren batasuna bear edo-litzatekela-ta, euskalariak biziroye daragoyoe. Gai onetzaz, euskaldun oroen aburruak, naiz aoz, idazkiz, artzea erabagi eban Euskaltzaindiak, orretarako batzar bereziak Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Asparrenen atondurik, eta euroetan, asko ez arren, txosten oargarriak bildu zituan. Guztiak agertzea erabagi dau Euskaltzaindiak eta zenbaki onetan argitaratzen dira, aurkeztu ziraueez, ezer bere orraztu bage, bakoitzaren egileak erabiliriko idazkera ta izpiakera ber-berakin».

Lanok datoz ondoren: 1) «Informe de los señores académicos A. Campion y P. Broussain»; 2) B. Gaubeka'ren «Euskaltzaindiak»; 3) Ayengiz'tar Iñaki Abaren «Euzkera batasunétzaz»; 4) A. Ipolito Larrakoetxea'ren «Txostena»; 5) N. Ormaetxea'ren «Unificación del Lenguaje Literario»; 6) L. Jauregi'ren «Euskaltzaindiari»; 7) Madariaga'tar Angeru Abaren «Euskeraren Bakuntzeaz»; 8) Urrutia'tar Gotzon'en «Unificación euskérioa»; 9) Nikolas Kortés'en «Señor Director de la Academia de la Lengua Vasca»; 10 Anabitarte'tar Agustin'en «Euskeraren Batasunaz Azparren'en irakurririkoa»; 11 Zabalá-Arana'ren «Euzkera bakarria biarra ote degu?»; 12 Kruz Goienetxe'ren «Euskaltzain Yaun agurgarrien aitzinean»; 13) B. Garitaonandia'ren Txostena; 14) Aita Oyeregi'ren «Euskeraren batasunaz»; 15) Belaustegigoitia'tar Perderika'ren «Euskerearen batasunatzaz»; 16) Eguzki tza'ren «Euskera idatziaren batasuna»; 17) Azkue'ren «Euskeraren batasunaz». Guztiz, 132 orrialde.

1922'gn. urteko bigarren ale edo zenbakian, Euskaltzaindiaren 2. en urteko batzarretako agirien ondoren; 1) Eguzkitza'ren «Zabalak idatzitako adizpiakera batzuetzaz zerbait», eta 2) Aita Intza'ren «Naparro'ko Aditz-laguntzallea zuketazko esakeran». Guztiz, 92 orrialde. Irugarren zenbakian: 1) A. Intza'ren «Burrunda'ko euskalkia»; 2) Azkue'ren «Institut d'Estudis Catalans»; 3) Eguzkitza'ren «Bai» ta «ez» aditz aurrean; 4) Azkue'ren «Bai-aditz irribiatu aurrean. Guztiz, 79 orrialde. Eta

laugarrenean: 1) «Euskaltzaindiaren irugarren urteko batzar-
rak»; 2) Eguzkitza'ren «Bai ta ez» aditz-aurrean. Azkue jau-
nari erantzuna»; 3) Azkue'ren «Cuestiones fonético-ortográfi-
cas», eta 4) Altube'ren «Ba ala bai?». Guztiz, 70 orrialde.

Eta edu orretan jarraitu zuen, beti zintzo-zintzo, bere txos-
tenak eta lanen agiriak ematen. Beronek argitaratu zizkigun
Azkue'ren «Morfología» (1965), ta Gipuzkera osotua» (1935),
S. Altube'ren «Erderismos» (1930). «El Acento Vasco» (1932)
ta «La Vida del Euskera» (1935), Agustin Anabitarte'ren
«Usauri» (1930) ta «Donostia» (1933) eta beste ainbat olako.
Baita liburuxka saila ere; adibidez: «Reglamento interior de la
Academia de la Lengua Vasca» (Bilbao, 1919); «Euskaltzaindia-
ren barneko Araudia» (Bilbao, 1920); «Euskaltzaindiaren sorta-
raua» (Bilbao, 1920); «Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak»
(Bilbao, 1921), 1921 urteko Iraillaren 4-8 bitartean Duran-
go'n egindako euskal-jaietan irakurri ziranak; «Ipuin Laburrak»
(Bilbao, 1922), B. Garitaonandia'k umetxoentzat egiñak eta
Euskaltzaindiaren idazti batzaldian saritutakoak; Azpeitia'tar
Julene'ren «Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz» (Bilbao¹, 1922);
«Euskal-Abestiak», lenengo urteetakoak bakarrik zenbatuz.

«JESUS'EN BIOTZAREN DEYA»

Jesus'en Lagundiko Aitak illean illean ateratakoa; Otoitz-
Bialguntzaren Zabaltzaillea. Idazkola ta Banakola, «El Mensa-
jero del Corazón de Jesús» (Bilbao). Bizkaieraz eta gipuzkeraz;
lenengo urteetan bi aldizkari ziran, gero batean bildu ziran
arren. 1917'garren urteko urfaiilean agertu zan len-zenbakia,
Elexpuru Anaien irarkolan. Eskeintza au zekarren bizkaieraz-
koak: «Jesus'en Biotz euskaldunak ainbeste maita dabezanari
opa ta emoten deutse bere albistari au euren bear, neke ta
atsekabe guztiakaz Aita Agustin Kardaberaz'en anaye ta jarrai-
zalle Idazlanak». Illerokoa zan, amsei orrialdeduna.

Orduko aldizkari ta egunerokoen artean abegi onez artua izan zan. «Jaungoiko-Zale»-k onela, 1917'ko otsailleko zenbakian: «Aldizkingi barrija agertu da. Otoi-bialguntza ta Jesus-Biotza'rekiko eraspena gure erri maitean indartu ta zabaltzeko dator; augaitik «Jesus'en Biotzaren Deya» izentzat artu dau. Urtarrilla ta Otsalla'ko zenbakijak artu doguz eta atsegiñez dakusgu txukun, apain ederki idatzita dagozala, euzkera garbi ta errezez. Gure irakurliak eztira atzenenak ixango aldizkingi eder oni laguntzen».

Lenengo zenbakian, bizkaierazkoan, auek idazten zuten: **Rendido Basabe** lekeitiarrak, Florentino Ogara zornotzarrak, Julian Egia mungiairrak, Nikolas Ormaetxea orexarrak; eta bederatzi orrialde Jesus'en Biotzaren Berri Onez, errietaryk igorritakoz orniduta. Eskabide au zetorren asieran: «Gure illeroko albistari onek Jesus'en Biotzaren oneraspena ta Otoitz-Apostolaua Euskalerrian zabaltzeko diran ezkeru, bertako erlijua ta oitura onak goratu ta euskaldunen biotz zintsoetan ondoondora sartzeko ere ba dira. Orrexagaltik guztiei eskatzen diegu, euren erretako eleizkizun eta gauza on jakingarri guztiak Bilbao'ko gure irarkolara, zlatz bialtzeko... Erri bakoitzeko egite ta gertaerak bertako izkeraz ipiñiko ditugu. Gipuzkoa'tik datozenak, gipuzkeraz; Bizkaikoak, bizkaieraz. Era onetan Naparra'k eta Laburdi'tarrak edo beste edozein euskerazkoak». Eta lenengotik iritxi zitzaizkien berri onak **Durango'tik**, **Segura'tk**, **Zornotza'tik**, **Azpeiti'tik**, **Laukiniz'tik**, **Azkoiti'tik**...

Aldizkari txairo au aurrera zeramatenak idazle trebeak ziran, zein jakituraz eta ezin euskera aldetik. Eurotatik batzak aipatzekotan, ona izen-zerranda au: Lorenzo Zabala, Kandido Basabe, Jorje Agirre, Jose Malaxetxebarria, Leon Lopetegi, Luziano Olabarrieta, Bernardo Egaña, Joakin Azplazu, Florentino Ogara, Erromualdo Galdos, Julian Egia, Luzlano Agirreolea, Felix Areitio, Juan A. Arostegi, **Raimundo Laskibar**, Juan Imatz, Frantzisko Agirreolea, Patxi Sarobe, Pedro Lardizabal, Jose Uranga, Zenon Aranburu (gotzaia), Bitor Iriarte, Leon

Olabarrieta, Migel Iriarte, Felipe Zugazaga, Feliziano Gastamintza, Jesus Joaristi, I. M. Manzisidor, Juan Bautista Lazpita, Frantzisko Goñi, Juan Laspiur, Manuel Arin, Frantzisko Apalategi, Migel Aizpurua, Estanislao Gorospe, Zipriano Arana, Erroke Iriarte, Jerman Azurtza, Jesus Iturrioz, Iñaki Goenaga, E. Argarate, Liligorria, M. M. Zubiaga, J. Zaitegi, Iriondo, K. Egibar, **Bustindui**, Soluxe, Andima, Lauaxeta; Orixe'k ere ementxe argitaldu zizkigun bere lenbiziko lanak, prosaz ta bertsoz.

Auetatik batzuk aipamen zabalagoa merezi dute. Bijoia:

— *Joakin Azpiazu Zulaika*. Donostia'n jaioa, 1887-10-23'an. Lenengo ikaskizunak bertako Marianistetan egin zituen, eta batxiller-ikastaroak Tudela'n. 1902-9-8'an sartu zan josulagun, 1915'an mezako egiñik. Jakintza ta Elertietan Irakasle egin zan 1913'an, eta Eskugoan 1918'an. 1953-4-20'an il zan. Euskeraz ta erderaz idatzi zuen; «Jesus'en Biotzaren Deya», «**RIEV**», «Idearium», «**Razón y Fe**», «**Revista dei Trabajo**», «Etudes», «Fomento Social» eta olakoetan. Gizarte gaiak urratu zizkigun geien bat. «Yakintza»-n eta «**AVASC**»-en auek azaldu zituen: «El socialismo en su aspecto vasco» (Bilbao, 1932), «Una página social» (Donostia, 1933), «Union interfederal en el Pais Vasco de trabajadores católicos» (Donostia, 1933), «La Universidad social obrera vasca de Bilbao» (Donostia, 1933). Durango'ko euskal jaietan «Euskera zarraren apurtxoak» itzaldia, «Euskalegunetako itzaldiak» (Bermeo, 1926) liburuan datorrena.

— *Frantzisko Agirreolea*. Bergara'n jaioa, 1899-4-23'an. 1914-10-14'an sartu zan jesuita. 1965-1-26'an il zan. Ba-zuen anaia bat ere jesuita ta euskal idazle, Luziano, 1896-1-11'an jaloa ta 1962-6-30'an illa. Ikus nola idazten zigun Prantzisko'k: «Adorea ta sinismena izan omen ziran beti Xabier'tarren ondo-reko onena: baño aitona beti aurrena, ba dugu, burruka ta eztabaida guztietan, bera zan beti tzapeldun. Baño aitonari

etzion onegatik ajolarik, etzun lurrezko kabirik nai-ta, beti iraun bear zion kabia lortu nai zun. Agatik bera bezin esku zabalik ez omen zegoen inguru aietan» (*J. B. Deya*, 1922, epailla, 81 orr.).

— *Florentino Ogara*. Etxano'n munduratu zan, 1877-3-16'an. 1891-7-30'an sartu zan josulagun, 1936-10-24'an illik. Euskal idazle gartsua. Lenengo zenbakitik asi zan J. B. Deya'n idazten. Izlari ibilli zan erririk erri. Europa'ko len-gerrea zalata, bake billa, Durango'n egiñiko ibildeunean esandako itzok adierazgarri dituzu. Gorroto ekaitzak astindu zituen Europa'ko erri, zelai ta tontorrak. Zergatik? Gizonak, Jainkoa aztu ta arrokeriz puztuta zebiltzalako. «Aztu eben —dio— Jauna, aztu eben bere legia, aztu ebezan Eleiza Amaren aginduak, eta orduan Jaunak zer? laga zituan bere eskutik, eta, lur-ikara baten, etxerik aundien ormak eta tresna guztiak goitik bera jausi ta nastu ta apurtu ta auts biurtuten diran legez; olantxe Europa guztia dardar geratu ziran, eta agintari askoren zigorrak ausi ziran berez, eta koroï eder asko lurreratu ziran, eta mundako aundi ta nagosiak bildurrez begiratu eutsen alkarri, eta dana bete zan ikaraz eta odolez eta illuntasunez» (*J. B. Deya*, 1917, urtarrilla, 11 orr.). Aita Olabide'k bere *Itun Berria* (Bilbao, 1931) argitara zuenean, Aita Florentinok jarri zizikion Ebaingeli ta Bidalien Egiñetako oarkizunak.

— *Leon Olabarrieta*. Durango'n jaio zan 1872-2-20'an. 1886-6-26'an sartu zan jesuita, 1931-12-12'an illik. Urteetan idatzi zigun J. B. Deya'n, euskera samur garbian. Berdin onen anai Luziano, 1879-1-7'an jaio ta 1960-11-29'an illak ere.

— *Juan Imatz*. Baldo'n ludaritu zan 1900-3-29'an; 1919-6-21'an josulagun sartu ta 1949-10-11'an il zan. Euskal idazle fina.

— *Pedro Lardizabal*. Ziburu'n sortua 1880-9-13'an. 1895-7-13'an sartu zan josulagun. Izlari ta idazle lez lan asko burutu ondoren, 1928-4-29'an il zan. Irakur bere poxi au: «Gure dantzak. Gazte jendia! Irakurri Baiona'ko obispo jaunak idatzi dituen itz eder oek: «Frantzisko Sales'tar deunaren iritxiz,

dantza berez da gauza ez ona ez txarra; baña an ibiltzen diren erak egineraz dezakete txirriskor eta gaizto. Badire Euskalerrian eta Biarno'ko zenbait eskualdetan dantza batzuek lizunak ez direnak: guzien aurrian egin ditezke kalterik gabe. Baña dantza pyek lenagoko mendetakoak dira, iñoiz ere ez baitzen billatzen garbiki jostatzea baizik. Oraingo mundutarrei etzaizkote atsegin, garbiegiak diralako» (*J. B. Deya*, 1920, epailla, 95 orr.).

— *Leon Lopetegi*. Azpeiti'n jaio zan 1904-4-1 l'an. 1920-5-20'an sartu zan josulagun. Oraindik bizi da. Euskal idazle leuna, *J. B. Deya*'n batez ere naikoa idatzi duena. Izlari bezela ba-du entzutea.

— *Iñaki Goenaga*. Azpeitiarra au ere, an bait zan munduratu 1905-1-1 l'an. Jesulagundiko lenengo, gero utzi zuena. Bizi da. *J. B. Deya*'n asko ta ederki idatzi zuen, bai itz lauz eta bai neurtitez; beronen ipuiak atsegiñez irakurtzen diranak dituzu. Beronek euskeratu zuen, oso ederki, Schiller'en «Wilhelm Tell» antzerki gurena. «Yakintza»-n dator 1934 ta 1935 urtetan. «Sistiya» izen ordea erabilli digu sarri.

— *Zenon Aranburu*. Urretxua'n jaio zan 1879-7-9'an. Loiola'n sartu zan josulagun, 1897-5-31'an, 1912-7-30'an apaiztasuna arturik. Txina'n mixiolari luzaro, Wuhu'ko gotzal izendatu zuen Eleizak 1936-10-11'an. An zegaela, ainbat euskal Lan bialdu zitun *J. B. Deya*'ra. Ango matxiñada ostean ere bertan jarraitu zuen, iraultzailleak azken batean, 1954'an, Txina'tik bota zuten arteño. Euskalerrira itzulirik, Bilbao'n, Iruña'n eta Loiola'n egon zan amabost urtetan. Loiola'n il zan 1969-4-2'an.

— *Migel Maria Zubiaga*. Segura'n jaioa, 1903-9-29'an. 1920-7-21'an sartu zan jesuíta. Izlari ta idazle bezela aski eza-guna. Idatzi, aldizkari askotan idatzi digu; «*J. B. Deya*», «*Karmen'go Argia*», «*Ekin*», «*Argia*», «*Argla'ren Egutegia*» ta abar, beti bizi ta gatz-ozpiñez kuin-kuin. *J. Zaitegi*'k, 1924'garren urtean Loiola'n ikasle zirala, orduko gazte talde eder batek zeuzkan asmo bikaiñak gogoraziz, gure idazleari buruz au dio: «Gu-

tarteko zen Zubiaga, *Zorion-bidea* liburu zoragarria argitaratu-berrí duena ta gerra-ondoko euskal-izlarkik maitatu ta zuzenena, nik uste» (*Olerkiak*, Lauaxeta, Bilbao, 1974, 6 orr.).

— *Felipe Zugatzaga ta Galiarzagoitia*. Zornotza'n jaio zan 1866-2-5'an, eta biaramonean ugutzatu zuten. Eleiz-deia izanik, berton ikasi zituen «ainbeste jaupari ta lekaideen irakasle izan zan Iñurritegi'tar **D. Jorge** abade agurgarri aregaz», latiña ta gaiñerakoak. Apaiz-ikasketak Gazteiz'en osotutakoan, Loiola'ra jo zuen, jesuíta izan nairik. Zintzo, apal ta guztientzako ab-gi onekoa izan zan beti. Izlari punterengoa, euskera jatorrean. Kristo'ren Berri Ona ereiten zebillela, baiña, biotzeko gaxuak artu zuen, eta Loiola'ra bazterturik, antxe, gazteen arduradun zala, etengabeko lana burutu zuen itzez eta lumaz. Bertan il zan, 1929-1-24'an. Gaztetan asi zan idazten: Azkue'ren «Euskalzale»[^] datoz bere lenengo lanak: «Jesusen Lagundiko Aita Aranatar Jose Iñigo euskalzale argiaren bizi-barri laburra» (1897), «Matxin Mungiarra» (1899), «Zutagape» izen-ordez eta abar. Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n idazten zuen, era onek argitaratu zion, 1927'an, «Aita Gurea» liburutxo ederra. Bero-retzaz «Jaungoiko-Zale»-k; «Au ez da besterik aspalditxoan euskeralduten iñarduen Aita Señeri'ren «Mana dei Alma» deritxon idazti ospetsuaren ataltxu bat baño. **Dana** amaituko ez eban bildurrez, atal ori bein-bein argitaldu giñayala eskatu euskun, ta ondiño igaro dan Lotazilla'n iñoskun: «Aita Gurearen» pillo biak eldu yatazan. Eskerrik asko. Arpegi ona dauko ta begial atsegingarri yake... Señeri'ren «Gogoaren Mana»-ren lenengo lau illabetiak Nagusien eretxipean dagoz. Idazti biren-tzako lain dauke; idazti bakotxak illa bi arturik. Onetzaz ezer egiteko erarik ba ete daukazue?». «Suleze edo gaiztokia idegita» deritxon Pinamonti'ren idaztiñoa be, berak euskeralduta, emen daukagu aspalditxoan, argitara urteteko txanda noz elduko» (*Jaungoiko-zale*, 1928-2-1'an, 32 orr.).

— *Patxi Sarobe*. Lesaka'ko semea, an jaio zan ba 1906-4-21'an. 1921-9-2'an sartu zan josulagan, eta **1950-12-21'an** il

zan J. Zaitegi'k dioskunez, Loiola'n «júnior» taldea osotzen zuen 1924'an, eta orduantxe asi zan aurretik zekian euskera apaindu, aberastu ta idazten: «Estrabon-i buruz azterketa sar kona eman zuena».

— *Bitor Iriarte*. Durango'n jaio zan 1897-2-26'an. 1912-3-6'an sartu zan jcsulsgun, 1961-10-20'an illik. Izlari ona, bere anal Erroke bezela. Idazkortza ere ez zerabillen gaizki. Ona «Ama negarrez!» deritzanetik zatitxo au; «Gura beste lortu dabe Judatararak. Biotz-biotzez gorroto daben Jesus, galdute dago. Kurutze baten josita, lapurren erdian, bere lepotik barre ta irri dagiela, ilko da. Katamotz galtegarri bat ba'litz lez, ez litzake ainbeste biotz gogor ikusiko. Bere txorikuma ostoak, txio ta txio, negarra eztarritik dariola, txoriak billatzen dauz. Semia ostu dautsoela badaki Mariak, lapurrak, biotz-bako gíxonak dirala susmatzen dau; baña norantz juan dira? Ez daki lapurren bidia; orregaitik bertan aurkitu dauzen emakume batzuei itandu dautse: —Ikusi al dozue nire Semia?— Nor dan ez dakigu, andre. Bere antza eta mosu-belarriak ezautuko ba'genduz... —Ai ene! Bere antza... Ederra da, gixon ederrik iñoiz ixan ba'da; oskarbiko ixar bi dirudie bere begiak; bela baxen baltza da lepotik bera polito jausten yakon ule kiskortua; arpegia oster a uso zuri bat baño zuriagua; bere irri-barria, begien poza, goguaren osasuna, Lfano mendi aldeko tantaiak baxen lerdena; basauntza eta oreinkumiaren antzekua da nire maitia» (*J. B. Deya*, 1926, ilbeltza-urtarrilla, 84 orr.).

— *Manuel Arin*. Andoain'go semea, an bait zan jaio 1865 12-3'an. Jesus'en Lagundian sartu zan 1872-9-28'an, eta 1943-12-17'an il zan. Etzuen askorik idatzi euskeraz, baña A. Olabide'k bere «Itun Berria» argitaratu zuenean, Ogara'k eta Emanuel Arin'ek egin zizkioen erri-izkeraz Idezteuna argitaratze koan Elizaren aginduz ezarri bear zaizkion argibide ta oar-kizunak.

Ez luzatzearren ez ditut geiago aipatzen. Baiña leialki diot: auek eta banaka aitatuak eta urrengo aterako aitatu gabe utziak,

gerra aurrekoekin soilki sail ederra osatzen zutela Jesus'en Lagundiko euskal idazleak. Ekaitz ostean motelxe ba'dakuskigu ere, aiek ba-zuten, Kardaberatz eta Mendiburu'ren oboa eten-gabe, euskal arnasa gartsua.

« E U Z K E R E A »

Ariosa pixutsua bizkar gaiñetik kendua izan zaneko garaian jaioa dugu aldizkari jeltzale au ere. 1929'gko urtarrillaren 15'an asi zan. Aro bi ezagutu zituen: lenengoa, 1929-1933, illerokoa, iru ale, ta bigarrena, 1934-1936, illabitik beingoa, ale bat. Bilbao'ko Gran yia-46'garrenean zeukan Idazkola ta Banakola. Ta «Pizkundia» bazkunak ateratzen zuen.

Eusko gaztediarena zan batez ere, ta zintzo ere zintzo lan egin ziguten orduko gazteak. Argi, asmotsu ta ziñezkoa noski egin erri aldeko naikaria. Beren eguneroko lan ostean, biotz-zauskadarik ederrenak aberriarentzat izan oi ziran. Euskera zan berariz beren amets urdiña; alkar-inkeza ta saio bizian euskera ikasten zuten, gaurko tresna egoki lez, kultura ta aurrexakuntzaren edagaillu bikain berau izan zedin.

Izkuntza, arimaren arnas. Euskera, gure izkuntz. Ao-ezpain au erabili, au ikasi, au jantzi ta apaindu. Xede obarik? Jantzi daigun Euzkera, deika zebillen K. Enbeita:

«Euzkera zarra erdi-billoxik
dardaran darabil otzak.
Au ikusirik, ez laguntzeko
nun dira euzko-bijotzak?»

Ez, ez dute nagi jarraitu gura egiteko ortan. «Ludiko elerik aberatsena ixatez —dio eskeintzan—, baña bixikera motela, bere semien alperkeria erakutsiaz. Baña Euzkeltzale-Bazkuna'ko gaste kementsubak ereingo daben azija ixango da, Jaun-goikua lagun, onuratsuba».

Lankide ziran berton: Luis Arana-Goiri, Jaizkibel, Anjel Zabala, K. Enbeita, Manu Sota, Garbi-nai, Lauaxeta, J. Altuna, Nabarritzarra, Onintze, J. Barbier, Legia, Luis Garai, Eskibel, E. Etxezarraga, J. M. Arratia, J. Uruñuela, Utarsu, Endaitz, Kanpion, Agarel, J. M. Izaurieta, Gisatsola, Martin Otxoa Ojarabide, Argarri, Amilgain, Elias Agirre, Kirikiño, Txadonzaya, J. Zinkunegi, eta abar.

Irugarren urte astean —1931-1-15— Uribitarte'tar Ibón (Imanol Enbeita'k) idazten zuen; «Euzkerea» gure aldizkingi eder au jayo zala, gaur dira urte bi, gaur urtarrillaren 15'garrenian. Eta bein urte bira ezkeru umia, kaskondutxuba egiten da-ta, amearen altzo ganetik lurreratu guria sortu oi yako, baita lurrian bakarrik onez txipi-txapa ibilli guria be. «Euzkera» onez ibilten ikasita dago, ta ondo ikasita egon be! Onez ezeze, barbetan be polito ikasi dau! Ondiño gastia da, ume-umetxuba da ondiño!, urte bi bakarrik daukoz-eta. Baña gogua, a gogua!, zarra be zarra dau umetxu onek! Umetxu onen goguk, zarretan be zarrak!, ixan biar ba, amaren, Ama Euzkerea-ren goguagaz jayo zan-eta. Ama Euzkerea-ren goguagaz jayo zan, ta jayo zanekeoxe asi zan euzkereatzaz eta abar, irakatsi ederrak zabaltzen. Urte bijan, 24 aldiz urten dau txaidera, bere 20 ingoskijak irakurgai mamin eta ederrez bete-bete eginda».

1934. Bigarren aroa. Bi-illerokoa, 72 orrialde. Irakur lengo zenbakiko azalpena: «Euzkeltze- **B**azkuna'k bixi-eragin dautsan EUZKERIA aldizkingijak ezin ukatu daike Arana-Goiri' tar Sabin'en bide argiz ibilli gura daula. Arek arakatu leuzan geure eliaren eskutu gustijak eta jakintza-arauz mugartu leuskuzan bere ezaugarrijak. Onez ganera, aberri barik genbiltzanoi, zoragarrijena dan aberri jau, lurralde menditsu ta eder onetan jarri au, ezagutu erazo leuskun. Ama onen altzoz at ezin dogu ezer zuzendu, ez euzko-gixarte arazuetan, ez adilan-barrutijetan. Geure alegiñak eztauke elburu bakarrau baño: Euzkadi,

«EUZKERIA ezta urtengo arau onetatik. Oso barriztauta agertzen da gaur, azalez ezeze mamiñez bere bai. Geure aberri-

jaz zerikusirik eukiko daben gai gustijetzazko idazkai sakonak argitalduko dira berton, baña beti abertzaletasunari dagokijcn eraz. Orretarako dei-egin yake idazle gorenguai; idazlanik sako-
nenak, barriz, idaztiño berezietan zabalduko dira. EUZKE-
REA aldizkari jan ikusi gdnkeguz (geukez) sberriko korapillo
gustijak azkatuta, batez bere, euzkerean, edestijari, errijan, ira-
kaskintzeari, gixartekintzeari, ta abar dagokijezanak. Belanik
belaun jaso doguzan irakatsijakaz aberri baroja sendotu nai
dogu. Ikurritz batek dikur elbutu au: *Jaun-Goikua eta Lagi-
Zarra'k*; auxe izan zalako Sabin'en bijotzan erne eta Sukarrista'
ko illobi ganian igartu barik iraungo dan bigi (lora) usaintsuba».

«JAUNGOIKO-ZALE» (1912-1932)

«Jaungoiko-zale» lenengo alkarte bat izan zan, apaiz-alkarte
bat batez ere. Kristau-arloan lan egin bearra zegoela-ta, orta-
rako bildu ziran euskaldun apaiz-talde ugaria: millatik gora
ziran urte gutxiren buruan. Beren zabalkunderako orri bat
zuten aurrenik, 1912'tik izen berdiña zeramana. Sastakoan, ale-
re, aldizkari biurtu zan, ogei urteko bizi joria izan zuena.

Apaiz aukerako ta bana-banakoak, bizkaitarrak geien bat,
bildu ziran agerkari orren inguruan, arnasaz ta jakitez urteetan
eutsiko ziotenak: Gabriel Manterola, Gurutz Ibargutxi, J. B.
Eguzkitza, Zirillo Artzubiaga, J. A. Oar-Arteta, ta gaiñerkoak.
G. Manterola izan zan lenengo artezkari, ta Z. Artzubiaga il-
arteko idazkari. Oiñarri auen gaiñ jaso, zintzo ta egundo as-
peltu gabe ekin zion artutako bideari. Amabosterckoa zan le*
nengotan, eta zortzi orrialde zeuzkan; 1922'ko urtarrillaren le-
nengotik, 12 orrialde.

Diruaz ere etzebiltzan gaizki. 1917'an «Jaungoiko-zale» baz-
kunaren seigarren batzar nagusia zala-ta, garillaren 4'an, Euska-
lerrri osotik berrogetamar bat bazldde alkartu ziran Zornotza'n;
meza ostean euki zuten billera ta, aurreko urtean egiñiko lan

eta diruen gorabarak garbitu ondoren, lendakari, diru-zain ta itundari barri bi autatu bear zirala-ta, autarkiak banan-banan atera ta gero, diru-zaiña ezik besteak lengoak izan ziran autatuak; diru zaintzarako Urriolabeitia'tar Paul, Amantzi'ren anai apaiza aukeratu zuten; onela eratuta geratu zan Bazkunaren Artezkaritza: Lendakari, Eguzkitza; idazkari, Artzubiaga; diruzain, Urriolabeitia; itundari: Manterola, Lasutegi, Zuloaga ta Ibagutxi.

Zornotza'ko txauburuak, batzar ostean, irarkola bsrria onetsi zuen. «Ikaratuta gelditu ziran —diosku On Zirilo'k— bazkidean ain tramankulu ederrak ikusita, amesetako ikuskizunen bat zala uste eben. Ori ondiño gustija gerturik ez egoala! Alakoxe lan ederrak egiten dauz alkartasunak!» (*Jaungoikozale*, 1917, garilla-15, 6 orr.). Irar-tresna aiek, zoritxarrez, azkenengo gerratean suak irunsi zituen geien bat.

1922'an, orri geiagoz ateraten asi zanean, «Urte Barri» titulupean onela zekarren: «Emen daukazue JAUNGOIKO-ZALE mardotuta, barriztuta, apainduta. Len baño orri bi geyago irakurgai ederrez betiak, beste bi iragarki edo anunt'ijoak ipinteko, azala barriz sendo ta txukuna ta gustijau apaingarri ederrez jantzita, euskeria be errezagoa; orixe izango da aurtengo JAUNGOIKO-ZALE... Barrikuntza onek gure bazkunaren aurrerapena dikur. Oso txiro jayo zan bazkun au. Abade txiro batzuk, iñori laguntasunik eskatu barik, ta zarata barik sortu eben-ta, ezin besterik izan zitekian. Baña gero, beronen lan onuratsua agertu danian, bazkidiak geitu dira, languntzailliak eldu yakoz, kistar zintzoak eskua luzatu dautsie; ta urterik urtera sendotu ta indartu da, beronen argitaigunak ugaritu ta edertuten» (1922-1-1'an).

Orrelaxe amabostero, 1931-12-15'rarte. Gero EKIN etorri zan. Auek dituzu berton geienik idazten zutenak: G. Mante-rola, G. Ibagutxi, Guridi'tar Leonardo, Belautegi'tar Pantzeska, Jokin, Urrutia'tar Gotzon, Bargundia, Lontzi Aba, Larizon-
do, Albizuri'tar Serapin, Kermeilda Manzisidor, Otarka, J. A.

Oar-Arteta, Pi Aba, K. O., Ureta, Zugatzaga'tar Pillipa Aba, P. Zamarripa, Txopitea A., Andoni, Izurategi, Mendiondo, Txogo, Eukeni Larrañaga, E. Gorostiaga, Yurre'tar Julen Aita, Larrakoetxea'taír Bedita, J. B. Eguzkitza, Urban Manzisidor, Iturri, Aita Anjelo', Legoaldi, Alexander Sagarna, Ayengiz'tar Iñaki, Atarra ta abar. Olerkari auek genitun: Jautarkol, Maruri, Lontzi Aba, Gabirel, Lauaxeta, Teñe, Astixe, Goiria, Orixe, E. Larrañaga, Garbi-nai, Egiarte, Mazelagan'dar Aya, N. Etxaniz.

Aldizkariaz gaiñera, 1917'ko urrillean asita, illero, «Eleiz-Orria» ere ateratzen zuen. Mung'i'ko txauburu argiak, bere eliztarrai, onak izateko noski, bear zituzten oar eta irakatsiak egiteko, sortu zuen orri ori. Ona zergatik gaiñera: «Orrexe-gaitik —dio— Mungia'ko eleiz-parrokiak erreztasun guztiak ipiñi nai dautsiez urriñen bixi diranai be, yakin dagien Jaungoikoa ondo serbidu, arimak santutu ta betiko zoriona irabazteko bidia. Kalian, bata bestien aoz be, eleiz-barriak errez yakin oi dira; ez alan urriñeko baserri etxietan».

«Jaungoiko-Zale»-k bere kasa darrai: «Uste dogu beste errietan be txauburuak laster asiko direla onetariko Orriak zabaltzen. JAUNGOIKO-ZALE'k aintxiñatsu (II zenbakia 1912'ko urrillan) gai onetzaz zerbait esan eban. Gure Bazkuna au sortu genduanian berarizko asmua zan parrokiya bakoetak bere Orrija euki egian alegindutia. Ba-duaz, ba, gure asmuak betetara, Jaunari eskerrak. Gernika, Durango, Bermeo, Lekeitic, Markiña, Arratia ez ete dira igituko?» 1917'tik beintzat, Busturi'n ba-zan antzeko bat: «**Busturiko kistar-ikastija**», orri biduna.

Gazteakin ere berarizko ardura zeukan, eta illero ateratzen zituen bi agerkari txiki: «Gaztien Laguna» mutillentzat, eta «Zeruko Izpitxoak» Maria'ren Alabentzat.

Beste lan bat ere, asieratik gogoz artu zutena «Jaungoiko-zale» bazkunakoak au izan zan: Euskal Kristau-Ikasbidearen batasuna. **Bost** dotriña beintzat ezagutzen ziran aurretik; Mar-

kina aldean Mogel'ena zerabilen, Gernika aldean Busturikoa, Durango ta inguruetan Arzadun'ena, Arratia'n bertakoa ta Orozko'n Laudiokoa. Bateratu bearra somatzen zan, b^raz. Zer egin ortarako? Gazteiz'ko Meló Alkalde gotzai jaunarengana jo zuten eritzi billa, ta onek Batzorde berezi bat eratu zuen ortarako ardurea bere pentzutuan artu zezan. Batzorde orrek lenengo egin zuena au izan zan: Astete'ren dotriña oiñarriztat artu ta gaztelerazko Ikasbidea bateratzea. Ori burutu ondoren, urrengo lana aski erreza zan: euskal itzulpena etzan izan zaila. J. B. Eguzkitza'k egin zuen bizkaieraz eta M. Lekuona'k gipuzkeraz. Ainbat aldiz argitaldua izan zan, eta Euskalerrian euki ditugunetatik eder-ederrena nunbait.

Liburuak argitaratzen ere etzuen Bazkuna onek lan urria osotu; konta ezin ala dira bere irarkolatik irtendakoak: G. Manterola'ren «Goi-izpiak» (1921), «Ipuintxoak» (1929), Eguzkitza'ren «Andra Maria'ren Loretako Illa» (1919), «Argi Donea» (1933), «Gizarte-auzia» (1935); G. Ibagutxi'ren «Jaungoikoa-ren Legeko Aginduak» (1925), «Eleiz Ama Deunaren Ikurtonak edo Sakramentuak» (1932), «Edesti Deuna» (1936); Maruri'ren «Biotza abeslari» 1927), «Kristiñau-Ikasbidea» (1921), «Jesus Señari Zortziurrena» (1918), «Bazkide-Ixendegia» (1931), «Eliz-Abestiak» (1925), «Gogalben-Erakusbidea» (1923); Arrese-Beitia'ren «Olerki-Txorta»; Tene'ren «Olerki ta Idazkiak»; M. Oiartzabal'en «Zerurako bidea» (1922); Izurragi'ren «Jerusalengo osteran semeak amari» (1923), «Jesus Aurraren Sorora Teresatxo» 1925); J. A. Oar-Arteta'ren «Jesus'en Biotzaren illa» (1931), eta abar.

« E K I N »

1932'an, esan dugunez, «Jaungoiko-zale» lengo izatea utzi ta «Ekin» asteroko biurtu zan. Otsaillaren 6'an atera zan lenzenbakla, bere aro berriaren aurreneko urtean. Gisa orretan,

beti zintzo, utsik egin gabe, astero, jarraitu zuen 1936'ko uztail-
llerarte, gerra txinpart zorigaiztokoak ñirñir egin zutenen arte.
Lizarra'ko Eusko-Araudia (Estatuto) garaia zan sortu zanean.

Aldarri au zekarren lenengo zutoi biren erdian: «Ortik
zear batak eta besteak JAUNGOIKO-ZALE'ren orde, astero-
koa bear dogula esan dauskue. Bearrekoa dala diñoan asteroko
ori, emen dator. Euskaldunak!, onen bizia zuen eskuetan dago.
Nok idatzi ba-daukagu, Jaungoikoari eskerrak; baña irakurleak
be bearrezkoak doguz, eta euskerazko asteroko au zeuok, eus-
kaldunok, izan ezik, nok irakurri ete lei?

«Baserritarrak!, zuentzat berarizko sallak ekarriko ditu as-
teroko onek: lugintza edo labrantzan egin leikezan aurrerapi-
deak, abereai, ganaduei dagokiezan ardurak, gexotu daitezanean
eta albeteriari dei egiteko era naiz astirik eztagonean, euren
gexorik ezaugunenak osatzeko zer egin bear dan ta olako gau-
zak be ekarriko ditu. Orduan zuek edozer dakizue —esango
dau, bear bada, baserritar destañazaleren batek. Ez: guk edozer
eztakigu; baña zuek jakin bear dozuena, naiz itandu nai daus-
kuzuena, zuei adirazteko gai dan gizona, latro-zilloari baño ez-
pada be aurkituko dogu.

«Asteroko barririk nausienak eta merkatuetako gora-berak
be ekarriko ditu. Zer besterik? —Jaunaren Ebangelioa ta kris-
tiñau-ikasbidea be azalduko dauz. Gizasemea laroñeko patarra
baño geyagorik eztala-ta, il ezkeru txakurra bai'litzan, eortzi edo
lurperatuaz, guztia amaitu dala siñestuazo gura leuskigue orain
iñoiz baño arroago dabilizan gangar andi batzuk; baña guk,
euskaldunok, olako tentelkeririk eztoгу ontzat artzen eta artu
nai bez. Oin biko patari orreik baño gizonago gara; burua beie
lekuan daukagu; lurrera ezeze gora begiratzen be bardakigu ta
gorako bidea erakutsiko dauskun argia nai dogu. Au dala-ta
zozolistoen asmoak nora garoezan be esango dogu».

Gure xede ta asmorik onenak sarri, su-ziri pareko dirdira
atera arren, dirurik ezagatik, otsean lurrera oi dira. «Ekin»-ekin
etzan orrela gertatu. «Jaungoiko-zale» bazkunak milla bat baz-

kide zituen; auen laguntzaz eta beste milla ta bosteun arpide-
dunez ornituko zuten irakorlako xaupea. Bestalde, ba-zuten lan
gogoa ere. «Zerbait egin bearrean gagoz —idazten zuten—;
igitu ezpa-gaitez, ugarrak jango gaitu. Aspaldian eldekorri edo
gorriña baño eztana ba-dabil bazterretan; edonundik gorriña
dator eta gure erri au gorriñak jango ezpa-dau, argia ta ira-
kaspén onak, matsak sulf atoa baizen bearrak eta bearragoak ditu.
Oraingo aldi au ezta, ziñez, lo egiteko aldia, itzarrik egon
bizkor ibiltekoa baño». Au idazterakoan sortu-berria zan Er-
kala, ta gaiztakeri itzalak egiten saiatua ere bai.

Garai artako aldizkarietan oitura zanez, eta gaur ere berdin
Ipar-Euzkadi'n, «Ekin»-ek toki zabala eskintzen zien ernetako
berriak Astero, ia orrialde oso bi zekartzin Bizkai ernetako izpar
eta albistez beterik. Izparkari errikoi aiek, ostera, gaurko ka-
zetariak bezela, idazle ññ eta zuurak genitun. Orobat «Euzka
di»-n naiz «Argia»-n idazten zutenak ere.

Merezi dute-ta, ona «Ekin»-en agertzen diran erri izparka-
rien artean oso ezagun batzuk: Elantxobe'ko «Lili-erreka», Ger-
nika'ko «Aiko» ta «Belu-Mendu», Lemoniz'ko «Imanol», Ea'ko
«Praisu'ren Lobia», Abadiño'ko «Urkiolape», Mundaka'ko
«Artaña», Eibar'ko «Izparkari», Galdakano'ko «Goikoko»,
Aulestia'ko «Ilunzar», Albitz-Mendata'ko «Oiz-Azpiko», Berri-
tu'ko «Mallu-Errekako Paulo», Markiña'ko «Gau-txorija»,
Elorrio'ko «Jarraille», Gatika'ko «Garrarte», Zeanuri'ko «Ba-
serritar bat», Ereño'ko «Jel-orde», Ondarru'ko «Gurutz», La-
rrauri'ko «Tdu'ko Mixua», Otxandio'ka «Urigoiko», Mañari'ko
«Mañariko», Areatza'ko «Euzkaltzale bat», Urkiola'ko «Iruare-
txeta», Isparter'ko «Otoyope», Bolibar'ko «Gerraiz...». Guztion
artean «Larreko» napartarra aurrelari: astero bialtzen zuen
zerbait Iruña'tik, beti ernegarri ta jakitun. Oroitarri bat bear
lukete guztiok, Aita Donosti'k Agiña'n daukan langoa noski.

Gaiak, itz-lauz ta bertsoz, bizi ta jatorrak ziran; ez erlijioa-
ri buruzkoak soilki, baita lu intzari, mariñelak munduko izpa^rai,

aste barruko goraberai, abereen osasunari, merkatuari ta olakoai buruzkoak upelka ematen zituen, gure erriak poz-esnetan irakurleen zitunak.

«ARRATI'KO DEYA»

Zeanuri'ko seme Eulojio Gorostiaga apaizak, 1931'an, sortutako aldizkaria. «Jaungoiko-Zale»-k argitaratzen zuen, illean bein; lau orrialde zeuzkan, euskera utsean. Bi urtetan atera zan, sortzaillearekin itzalirik.

Azaltzen asi zanean, «Euzkerea»-k onela: ««Arrati'ko Deya» aldizkingi barri ja dogu. Barri ja ta ederra. Lenengo zenbaki ja gure eskubetara eldu da ta atsegiñez beterik irakurri dogu. Euzkera utsez idatzita dago ta ondo baño obeto idatzita be. Illian bein agertuko da, itxuraz, oraingo'. Geruago ixan leike sarrijago argitaldutia. Beronen asmuak dira gustiz txalogarriak: Arratiarren alde zintzo jokatutia, euron aldez alik geyen egiñaz. Bide batez, euzkotar gustijen alde egingo dabe aldizkingi maitagarri ori ataraten dabenak».

Eta «Karmen'go Argia»-k: «Arrati'ko Deya'ren ixenaz argitaltzen asi dan illoroko barri au Arratiar zintzo ta begikoen adimenak argitu ta biotzak zindotuteko alagalakoa da. Irakurgai onak biotz-adimenak zuzendu ta Jaungoikoanagatzeko dauken indarraren barria daukon Arratiarrik, «Arrati'ko Deya» ta «Karmen'go Argia» irakurri barik ezta geratuko» (1931, bagilla, 191 orr.).

«KARMEN'GO ARGIA»

Karmeldar Abak argitalduten daben illerako aldizkaria. 1931-1'an asi zan irtetzen. Idazkola ta Banakola, Larrea-Amorebieta. Irarkola: «Jaungoiko-Zale»-rena (Zornotza). 32 orrialde

zenbaki bakoitzak. Aita Doroteo izan zan lenengo zuzendari, gero A. Martin Uriarte, eta azkenez, 1933'tik gerrararte, pi Aba gorozikarra.

Karmeldarrok naikoa komentu dauzkagu Euskalerrian. Ego-ki zan, beraz, beste ordenetakoak zeuzkaten antzera, guk ere aldizkari bat izatea. Zertarako? Sortzailleak argi ta garbi adierazo zituzten zeuzkaten asmoak. Orduan azaltzen ziran beste aldizkaria! agur gozoa egin ondoren, au idazten du «Jalzkibel»-ek (Aita **Doroteo**'k): «**KARMEN'GO ARGIA** jayo berria da, baña ala ere asmo aundi ta egokiak dauzka bere gogoan. **Iturri** baten urak garbi ta osasuntsuak izanarren, sorkeratik irtenda lasai, biderik gabe, uzten bazaie, laster loitu ta alperrik gelduko dira, ta ez osasuntsuak baizik kaltegarriak biurtuko dira noski».

«Euskaldun biotza zuzenkor, garbi ta ongillea da, beraz iturri ona; baña bere kementasun eta jokerari bide onak ematen ezpadizkiegu, laster lasaitu, okertu ta gaiztotuko zaizkigu. Bide orreik irakurgai on, izparringi zuzenkor eta aldizkari garbiak dira. Ortarako irakurgai lasaiak kendu ta eskuetan irakurgai garbiak jartzea baño oberik eztago. Egarria aitu ta gosea asetu bear zaio euskel biotzari, ta aspaldi ezkeroz Euskalerrian ere irakurgai gose ta egarria gogotik sartu da. Augatik, euskerazko irakurgairik ezpadu,. erderazkoak, eta askotan loi ta lasaienak, irakurriko ditu, ta aldizka-aidizka biotza pozoitu ta kristausinismena otzituko zaio, ta beraz, euskaltasun guzia galdurik arkituko da.

«Egarri ori aitu ta gosea asetzeko **KARMEN'GO ARGIA**'k janari garbi ta gozoak aldizka, illero ekarriko dizkigu, Karmen'go baratz ederrean nai aña janari arkituko ditu-ta; baita ur garbi dizdiratsuak ere bere iturritik maiz bialduko dizkigu. Orrezaz gañera, lora eder usaintsuak banatako ditu **KARMEN'GO ARGIA**'k Euskalerrian, bere Karmel lorateglan lorarik bikañenak ugari arkitzen dira-ta... Oraindik geiago: Argia zabaldu nai du ugari Euskalerrian, bere izenak ere ori esan nai

du-ta; sinismen sutsuz kristau-eginbearrak betetzeko gauzarik bearrekoena argia da noski, gogo argia. Eta azkenez, euskera-
ren alde garbi ta kementsu lan egiteko asmoz sortu da».

Asmo auek aurrera eraman zitzairen, berriz, idazle talde polita agertu zan, gari-ebagilleak soro orizkara igitai dizditsuz doazten bezela, beren arloan lanari goizetik gauera ekin nairikan. Askoren artean, auek ditugu lenengotik asi ziranak: Aita **Doroteo**, **Martin**, **Lontzi**, **Goiria**, **Urbano**, **Anbortsi**, **Legoaldi**, **Aramaio**, **Bernardo**, **Arratzu**, **Pi Aba**, **Emaldiko**, **Santi**, **Elorrieta**, **Anjelo**, **Iñaki**, **Segundo**, **Garatxama**, **Larraitza**, **Zubiaga'tar M. M.**, **Sebasten**, **Durarde**, **Luki**, **Etkezuri**, **Peru Azkoiti**, **Batiz**, **Sabin Gerrikabeitia**, eta ebar.

Y * *

Auek eta beste batzuk, karmeldar idazle-lorategian, berarizko aitapena merezi dute. Eta orrela dagigu, bakoitzari berea ematea zuzentasunaren eskabidea dala-ta.

Esanak esan, naiz-ta zeinbatentzat aznai ta zimiko izan, elizgizonak izan dira lengo gizaldiak zear —apaizgaitegi ta lekeretxetan— euskera geien landu ta sustatu dutenak. Ai, ba legite beste ainbeste gaurko Unibersidadetako gazteak! Begoña'ko karmeldar ikasle gazteak, esaterako, 1922'tik aurrera, «Adarra» zeritzan aldizkaria atera oi zuten, berentzako, eskuz idatzita orduan, oso polita, zorrotz zartatsua, marrazki ta eresiz apaindua. Aita Ipolito zuten irakasle ta ortara bultzatzaille. Eta bere jaiotegunean onela agurtzen zuten adar-jotzaille zarra adar-jotzaille gazteak. Asketsi, Ipolita —zioan batek—, zure begirunearen aurka ba nator, egia esan bear detana izan ezkeru, ixilik ezin naiz egon-eta. «Adar-jotzaleak zure jaiotegunean ezer esar teke egotean, biotz gogordunak izango giñake. Gure euskerazko lan guztietan, zu, Ipolita, zu bakarrik zaindari zintzo-zintzoa izan zera. Ez degu gure bizitza guztian ordainduko, zuk gugatik egin dezuna. «Adarreko» idazlanak zurekin pozik gaude. Uste det, zalantzik gabe, egun aretan, zorioneko eguna! «Adarra»

baño aldizkingi obeagoa eukitean, gure idazkortzak zurearen ondoan aurkituko dituzula... Ortarako, Ipolitito, gertu bear gaituzu, gure euskerazko lanak orraztuaz, moztuaz, luzetuaz eta atzanean apainduaz, oso txukun-txukun irten dedin. Orain arte, zu gure laguntza ta irakaslea zeralako, bide zuzenean gabiltz. Eskarrik asko, Ipolitita; eta zure jayotegun ederrean, «Adarjotzalle» guztien «zorion-agur» bakun-bakunak artu egitzu» (1922-2-26'an). Gazteak beti dituzu esker oneko.

Amabosterokoa zan barne-aldizkari au. Berton idazten zuten batzuk Ameriketean eta beste batzuk Euskalerrian arima-zaintzan lan egin izan dutenak. Gabirel, Gotzon, Amantzi, Kodobika Mirena Zulategi, Modesta, Lonarta, Adolba, Ebaista, Pi, Bernarda, Gontzal, Balendin, Artur, Narkis, Emulen... 1927'tik aurrera, bere IV aroan, auek: Sekunda, Zapal, Arratzu, Amezti, Jagoba, Txipli-Txapla, Pitxi-Patxa, Zotz, Jai-Jai, Larreneta, Ukubil, Txaparra, Betikoa ta abar. Oztopo batzuk zirala-ta, urte betean lez ixillik egonda, berriz atera zan 1929'gneko jorraitilean «Izenge» tituluarekin, gazte auek lankide zirala: Danel, Txirrikiton, Eustasi, Neu, Gireuja, Zubibarri, Errogeli, Lizarribar, Txomin. Urte bereko urrillean, ostera, titulu onekin atera zan: «Gautxori». Olan jarraitu zuten urte osoan, lengoak eta berriak —Batiz'tar Bingen eta Goiria'tar Andoni, adibidez— lankide izanik.

Gisa ortako ikastolan euskera landu zuten batzuk gero irakasle ta idazle punterengo izan ziran. Ona:

— *Jose Sotero Uñonaguena Garro: Aita Errapel*. 1890-4-22'an Bolibar'en jaioa. 1908-4-13'an karmeldar egiña ta 1916-6-17'an Gazteiz'en mezakotua. Altzo, Larrea, Donosti ta Eibar'ko komentuetako nagusi. Euskal izlari trebea Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n; gerra ondoan espetxean egon zan iru urtetan. «Karmel»-en eta «Principe de Viana»-n idatzi zuen: urtero agurtu oi nindun bertsoan. Sen aundi ta izakera txeira-tsuduna; otoizlari, ta edozeiñi on egiteko gertu zegoena. Mar-kiña'n il zan 1975-2-1 l'an.

— *Alejandro Manzisidor Atutxa: Aita Urban*. Lemoña'n jaio zan 1894-2-26'an. Naparruko Alesbes-Billafranka'n len-ikasketak osotu ondoren, Larrea'n jantzi zuen 1910-2-26'an karmeldar soñeko, Begoña'n 1913-12-15'an apaizgoa arturik. Gazteen irakasle izan zan Markiña'n ainbat urtean. Erkal garaian Ernakulam (India)'era jo zuen gazte talde batekin, an ere irakaslaritza egiñik. Txile'n il zan 1974-1-12'an. «Euskal-Es-lanea»-n, «Jaungoiko-Zale»-n eta «Karmen'go Argia»-n idatzi zuen. Markiña'n maixu genduala, Donosti'ko «Euskal-Es-na-lea»-k erutzen zitun elerti-batzaldietara lantxoak bialtzeko amaika alegin egin oi zigun ikasle giñanoi.

— *Isidoro Manzisidor Atutxa: Aita Kermeilda*. Lemoarra, emen bait zan jaio 1898-4-4'an. Aita Urban'en anai. Larrea'n burutu zitun bere len-ikaskizunak, eta gero bertan jantzi zuen 1914-5-29'an Karmen'go Amaren soñeko zuria. 1921-4-24'an mezakotu zan. Ondoren Larra'ko ume-ikastetxean egin zizkigun pare bat urte maixu. Nire ta nire ingurukoen irakasle izan zan. Beronek irakatsi zizkigun euskeraren asimasiak. Eta, jakiña, gudaritza zala-ta, Peru'ra bialdu zigutenean, gure biotzak zaus-kada sentikorra izan zuenik ezin ukatu. Andik ere, ainbat gaztek idatzi oi zuten, «Karmen'go Argia»in eta berak zirikatuta'. Lurralde aietan lan onurakorra egin ondoren, bertan il zan 1952-3-14. «Taungoiko-Zale»-n idatzi zuen (*Ikus* 1922-2-1'an, «Ama ta Umia deritzan lana).

— *Fabián Goioaga Goioaga: Aita Erremigi*. Zeanuri'n jaio zan 1904-2-15'an. Larrea'n, 1920-9-1'an, karmeldar jantzia artu ta eliz-kerrera egin ondoren, Bogota'n eman zuen lenengo meza berria, 1930-7-27'an. Markiña'n ikasle zala, Donosti'ko «Euskal Esnalea»^n idatzi zuen «Jesus Aurraren (R.)»-izenarekin (*Ikus* 1922, 226 ta 149 orr.).

— *Joakin Mugiro Iribas: Aita Bernarda*. Aldatz (Nabarra)'n sortua 1897-1-15'an. Billafranka'n len-ikasketak egindakoan,

Larrea'n artu zuen praille jantzia 1914-7-6'an, Gazteiz'en 1922-6-18'an meza esanik. Txile'n egin zigun arima-zaintza. «Adarra»-n eta «Karmen'go Argla»-n idatzi zuen.

— *Akilino Uriguén Perea: Aita Segundo*. Etxano'n jaio zan 1905-5-16'an. Larrea'n jantzi zuen 1920-9-1'an karmeldar soiñekoa, eta eliz-ikas-urteak amaitu ostean, 1928-6-1'an abestu zuen meza berria. Begoña'n Urtzizia ikasten zebillelarik, «Gautxori»-n idatzi zuen etengabe, ta gero India'n mixiolari zala ere, sarri bialdu zituen bere lanak «Karmen'go Argia»-ra.

— *Leon Aranguren Astola: Aita Leon*. Olaeta (Aramaio)n munduratu zan 1906-4-19'an. Larrea'ko aur-ikastetxean lenikasikizunak egiñik, berton artu zuen karmeldar jantzia 1923-7-7'an. Begoña'n mezakotu zan 1931-6-25'an. Gerra ostean gorriak ikusi bear izan zituen, urte mordoia giltzapean egiñaz. Guda aurretxoan, Marluña'n gazteen irakasle zala, aueri ainbat artikulu idaztazi zizkien, eta beronek ere, urteetako lana, Karmeldar Eraspen liburu bat dauka argitaratzeko gertu. Abots mamsuz, euskal izlari zolia.

— *Iñazio Beaskoetxea Aranbarri: Aita Eustasi*. Bilbao'n jalo zan, 1906-2-5'an. 1923-8-5'an sartu zan karmeldar, eliz-karrera osoturik Begoña'n jauparitz_a artuaz 1931-6-29'an. Organujotzaille ona, Larrea'n, Billalranka'n eta Txile'n, eta gaur Altzo'n. 1922'an asi zan idazten «Euskal Esnalea»-n. (Ikus Auñamendi, II, 516 orr.). Bertan argitara zitun «Jeronima Deunaren esakunak», 1924, 126 orr. Beronen lanik ederrena, ala ere, Txile'n zegoela egiña da: A. Mokoroa'ri lagundu zion, zintzo-zintzo, laster argitaratuko duen euskal esaera bikaiñez edertutako iztegi mardul-mardula osatzen.

— *Juan Magunagoikoetxea Zarragoitia: Aita Isidro*. Arratzu'n jaio zan 1907-4-19'an. Larrea'n artu zuen karmeldarren jantzia 1923-7-7'an; Markiña'n, Gazteiz'en eta Erroma'n osotu zuen eliz-karrera, Erroma'n bertan jauparitza arturik 1930-9-20'an. Begoña'n azaldu zuen Apologetika 1932-33 bitarteko ikastaroan; bertauk Karmel Mendira doa, an iraunik 1939'rarte.

1940'an Portugal'en daukagu, 1951'tik 1963'ra A. Probinzialaren ordezkari izanik. 1969'an Begoña'n daukagu, erdi-gaixorik, baiña beti langille. Berton il zan 1975-2-19'an. «Karmen'go Argia» sortu ta laster, Erroma'n aurkitzen zala, asi zan euskeraz idazten; asko ta mamintsu idatzi zigun beti. «Arratzu» izenordez.

— *Maximiano Pérez Arenaza Arroniz*. Roibeji (Araba)'n jaio zan 1907-7-13'an. Latin ta giza-jakintzak osotu ostean, Larrea'n jantzi zuen karmeldar abitua 1923-8-5'an. Gazteiz'en Filosofia ikasten zegoela utzi zuen ordena, ta andik urte batzuetara il zan. Donosti'ko «Euskal Esnalea»-» (1926, 187 orr.), datoz bere euskal lanak.

— *Balentin Burálde Barroetabeña: Aita Andres*. Markiña'n jaioa 1907-2-12'an; karmeldar jantzia: 1923-7-7. Kolonia'ko Leiva'n artu zuen apaizgoa, ta arrezkero Laterri artan, eta batez ere Tumaco'n, egin izan du arimazaintza. «Karmen'go Argia»-n idatzi zuen, mixio-lur gietako berriak goxo-goxo edestuz.

— *Marzial Ibarbia Anabitarte: Aita Akilino*. Donostia'n jaioa 1908-9-9'an. Larrea'n artu zuen karmeldar jantzia 1924-7-7'an, eta eliz karrera bukatu ondoren, Gazteiz'en eman zuen lenengo meza 1932-5-21'an. Olerkiz eta itz-lauz lan egin zigun gaztetan. Ikus «Euskal Esnalea», 1923, **120**, **160**, **164** eta 220 orrialdeetan. «Karmel Gizkarbiaren M. A.» darabil lanak zinatzean.

« E G U N A »

Euskal egunerokoa. Euskera utsean, oraiñarte izan dugun bakarra, ziur asko. 1937'gko Urte Berri egunean agertu zan lenengo zenbakia, ta gudateak Bilbao'n iraun arte —au da, urte ortako bagillaren 16'arte— agertu zan, egunero, baten ezik. Eusko Gobernuak sortu zuen eta bere pentzura atera zan.

Zuzendaritza, aolkulari, idazle, idazkaritza, irarkola ta gai-kerakoak onela ziran: Manuel Ziarsola zan Zuzendari ta Agus-

tin Zubikarai Zuzendari-orde; aolkulari ta arduradunak: Ander Artzeluz («Luzear») eta Artetxe'tar Luki. Idazle autak (redaktoreak): Eusebio Erkiaga, Jose Mari Arizmendiarieta eta Alexander Mendizabal, Idazkaritza, lenengo Korreo kalean, «Euzkadi» egunerokoaren goian, leenago «Excelsius» ateraten zaneokan; gero, Gran Via kalean, «Indatzu» etxean.

Irarri, ostera, lenengo pare bat illetan «Euzkadi»-nean iraritzen zan; gero «La Gaceta dei Norte»-rena zan tokian. Bertan ateratzen zan «Lan Deya» erderazkoa ere. Neurria, orduko egunerokoena zan; orriak, geienetan zortzi, ta iñoiz amar. Idazlanak eta izparrak bakar-bakarrik zekartzin; iragarkirik bat ere ez, goikoen aginduz. Zortzi-amar milla zenbaki ateratzen ziran; iñoiz geiago ere bai; kalean saltzen ziran, baiña guda-oïñeko gazteen artean batez ere zabaltzea naiago zan,

Izpar-iturriak? Gerra aldia zan, urduritasunez eioa. Jazoera billa ibilteko etzan denborarik; da ere, al zana egitea zegokion talde erne ari, ta etzuen gutxi egin. Bertoko izparrak alik zeatzen batzen zituzten, eta erderazkoak teletipoz artu ta euskeraz jarri: orixe zan aien eguneroko lana.

Ba-zituzten idazle lagun batzuk zintzo jokutzen zutenak; oietako bat, «Basarri», ia egunero idazten zuena. Baita sarri idazten zuten Bizente Batiz karmeldarrak, Engartzi Arantzadi'k (il aurreko azken lana «Eguna»-rentzat egin zuen), F. Belaus-tegigoitia'k eta abarrek.

Gisa berean, ba-zituzten errietatik edo kaletik etortzen ziran berriak ere. Berri-emalle auek oso zintzoak ziran; «Artibai» (Jose Ituarte), «Aitza», «Andoni» (Andoni Alberdi), «Atarrene», «A-Bi» (Antonio Arozena), «Aixerixa», «Artargi», «Aki», «Arrats Beran» (Sabin Muniategi), «Atapi», Mikel Arrutza, Julene Azpeitia, «Barrenoso» (Tomas Agirre), «Biar» (Juan Jose Badiola), «Bizargin» bermeotarra, Josu Altuna, «Bereko», Pefalo Bernedo, «Bortane», «Balbin», «Biritxinaga», «Erriko», «Ele-zale», Juan Abando, Gabino Murua, «Gixabaran», «Gudari», «Gudari-zar», «Gurutzondo», «Ixaka», Sebastian Alus-

titza, «Ilintxa», «Ibaigane», «Irrist», «Iturmendi», «Iturralde», «Iturrigorri», «Iñ-ol», (Iñaki Olabeaga), «Ibarbi», «Igerra», «Illunpe», Jazintzo Karraskedo-Olarra, «Kutartxo», «Kai alde», «Kayekoa», «Luzear» (Ander Artzeluz), «Laudatz», Maite Gabilondo, Txomin Arruti, «Mendigain», «Montxor», «Mandazketa», Txomin Olano, «Okerzale», «Ogoñope» (Antonio Ruiz de Azua), «Oker», «Otarmi», «Oizko argala», «Otarri» (Onaindia'tar Jagoba), «Or kenpon», «Pakezale», Gorgonio Renteria, «Patxi Goiztarra», «Pagadoi», «Sorgintxu», «Txirri», «Txindorkumia», «Txori-erreak», «Txingar», «Tontorreko», «Uzturre» (Fausto Leunda), «Urtzago» (Gotzon Urrutia), «Utarre», ««Uxapeta», Julen Urkidi, «Urriña», «Xelatari», «Zetargi», «Zar-zale», «Zaimutz», «Zulo», Uribitarte'tar Ibón (Manu Enbeita), «Zer-esanlari» ta abar.

Egia aitortu nai baldin ba'dugu, benetako alkar-lan txalagarria izan zan zuzendari, aolkulari ta idazle aiek, dunba ta izkilots arteko egun larri aietan burutu zutena. Erri ta guda-oiñean eurrez zabaltzen zan «Eguna», eta gure gazte gudariak garda berotan irakurtzen zutela esanaz, ez diot inñolaz ere gezurrik, Nik neuk, eta nire ingurumari beste askok, gau-ordu luzeak eman oi genitun, Elgeta'n, LTbera'n eta Basalgo'n aurrenik, eta gero Bizkargi'n, Meñaka'n eta Gamiz-Fika'n, euskal eguneroko aren orrialdeak irunsi-bearrean. Zergatik ori? Euskeraz zetorrelako, eta baita egi-zale zalako ere, apika: orduko izparringietan, izan ere, auxe zan, gerran galdu naiz irabazi, gauza zan bezela adierazten ziguna. Eta gizasemea egi-zale berez izan nunbait.

(Ikus Agustín Zubikarai'ren oarkizunak; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 94 orr.).

«EUSKALERRIA»

Bilbao, 1934. Tradizionalisten asterokoa.

GIPUZKOA

1915-1940

«Ordurako atzerakorik ez duen pausoa emana zegoen: asmoz emana egitez ez bada ere, lasterrago baitabil ben gogoa begia baino. Urrats hori «Euskaltzaleak» bazkunak egin zuen, Aitzolen eskutik, bai, baina Lizardi zuela tronpetari. Aldakuntza hau da, noski, egungo ezker-eskuineko diahktikoek «nolakolasunean jauzia» dei lezaketena, eta barka biezadate bai Osak eta bai Iralaren segiziokoek nik hitzak, ezjakinaren podorioz, behar bezala erabiltzen ez baditut: ni, lege zaharrekoa izanik, harako San Tomas nâhiz Quine-ren «ez (P eta ez P)» hori natxeko. Salto horrek, nolapait esan, otxandiarraren «Ama Euskerearen azken agurrak-n-etik honat harik eta tolosarraren «Eusko bidaztiarena»-raino garamatzi edo garkartzi.

»Bide berrien billa agertu zitzaigun Lauaxeta («Euskaltzeak»-en joerarekin zituen har-emanetz zerbait gehi dezaket neronek ere) eta giro berrien aitzindari bezala Lizardi: ez ziren lekuko izan, igarle baino urte luzeen buruan baizik mamituko ez ziren bide eta giro berrien igarle. Ernamuina han zegoen, ordea, gero nork asma zezakeen lehorte gogorrenaren erdian nozituko zen ernamuina-» (L. Mitxelena, Deia, 1977-6-8, 1 urtea, 1 zenbakia, 2 orr.).

LABURPEN

Ain txarto ez datorkigu emen, beñola Paul Picasso'k, «Gernika» orren ederki margoztu zigunak esana: «Margogintzan ez da ezer billaketa. Idoro, orixe duzu dana. Margozten diardularik, aurkitu dudana adieraztea da nire xedea, ez inñolaz ere billa nebillena erakustea. Ertian asmoa ez da naiko, egiñak bear dira».

Antzekoa gerta zait neri ere. Gure euskal literaturaren kondaira biribiltzerakoan, bostgarren ale ontarako gai billa nenbillela ziurki, ez nekian ariak zer ikarriko zidan, geroaren berririk ez bait dugu jakiten. Lar konturaratu gabe, geienetan oi danez, asi nintzan gaiak metatzen. Utzi nituen gero, illabete luzez ezer egiteke. Itzuli bat egin nien berriro, begitu xamur bat ere bai, eta askotxo zirala, ikusi nuen; pixkaka pixkaka gaiak berak eskuratu zídaten sail eder mukurua.

Labur esan: ez nuen uste orren bikaiña izango nuenik. Or Gipuzkoa'n bakarrik nolako izen-erreskada! Gerra aurrekoak auek ere, geienak bederen, i9o8'a aurretik jaiok dituzu-ta. Laukia margozten ari danari legez jazo zait: igarri gabe, lauki eder-ederra egokitu zait begipean.

Eta danetatik egokitu ere! Emen dituzu jakintza-zaleak, emen iztegi ta saio-egilleak, emen olerkariak, emen teatru ta bertsolari zirikatzailleak, emen buruenik ipuin idazle gozoak.

JAKINTZA-ZALEAK.—Euskalerrriak, euskal lur onetan bizi dala, urteak zear aoz-ao ekarri digun jakituri berezia, euskal filosofia, bertsolari zelaian, M. Lekuona'k arakatu ta eman digu inñork es bestean, bere *Literatura oral euskérica* liburu mardulean, eta beste idatzi batzuetan; J. M. Leizaola'k eusko olerkia irakatsi du bost aletan; T. Etxebarria, oso barrukoS! dagerkigu itz lauz ta bertsoz; Jose I. Zinkunegi'k Balmes'en «El Criterio» ipiñi digu euskeraz, gure elea gai sakon soille-tarako ere balio duela adierazorik.

IZTEGI TA SAIO-EGIIXEAK.—Auen artean, or duzu leenen, Muxika'tar Palgida, Aita jesulaguna, urte luzeetako lan-frutu bezela «Diccionario Castellano-vasco», 1897 orrialdekoa eskeiñi diguna, eta oraindik ere ortan ari dana, langille porrokatu ta aspergaitza. Or Isaak Lopez-Mendizabal, oraintsu illa, ainbat libururen egille; or Aita Mokoroa, euskal esaera pillla eskerga batu ta sailkatzen.

OLERKARIAK.—Ez ditugu iñundik ere atzenengoak bostgarren ale onetan datozenak: Jon Garbizu, M. Lekuona, Jautarkol, T. Agirre, N. Etxaniz, T. Etxebarria, I. Olabsaga, T. Monzon-Olaso, A. Zugasti, eta abar.

TEATRU-IDAZLEAK.—Antzerki-garra motots-gorri zebillen garaia zan. Zaletasun ura zala-ta, azaldu zan «Antzerti» aldizkaria, A. M. Labaien jaunak sortua, ta i932'tife 1936'ra txit zintzo kaleratu zana; 54 zenbaki guztiz. Or J. Karraskedo-Olarra, J. Olaizola, K. Eleizegi, Etxaniz, M. Dolores Agirre, Monzon-Olaso...

BERTSOLARI-ZIRIKATZAUULEAK.—Beste batzuen artean, ortan jardunak dira «Zeleta» ta Hemandorena. Doe aparra da, izan ere, gai izanik ere lotsaz zokoratua dagoanari, lanean ari, daiten, arnas ematea. Gogo Gurenaren zazpi doetatik^ bat Aolku-doe baita.

IPUIN IDAZLEAK.—Txorien, langilleen eta santuen goraberek ondu zizkiguten idazle dirdirrak —M. Itziar, R. Argarate ta I. M. Manzi-sidor—, ertzean utzita ere, ba-ditugu garai ontan, ipuiñari batez ere, gogotsu ekin dioten gizaseme ta emakumak. Gogora batzuk: J. M. Barandiaran, G. Muxika, A. Anabitarte, R. Murua, Tefie, «Arritokieta». Azken biok bereziki, amaika gauza eder idatzi dute umetxontzat!

1.—JUAN JOSE AIERBE IRASTORTZA (1876-...)

Altzo-Muño'n jaio zan 1877-8-27,an.

Apaiza. 1899'ko abenduko denporetan apaiztu zan. Gero Egiluz eta Beizama'n eta Umieta'n egin zuen arima-zaintza Urnietako erretore izanik 1922'tik aurrera. Bertan il zan, 1957-8-20'an.

«Euskal Esnalea»-n idatzi zuen. Ikus 1912'garren urtean, bere artikulua «Goxo-Goxoa». 1913'an, Tolosa'ko euskal jaietan, sari polita eskuratu zuen. Eujenic-Urroz apaizak erderaz egiñiko «Compendio de la Historia de Tolosa» euskeraz ipiñi zigun, eta ederki antza danez, beronek eraman zuen beintzat jai aietako elerti batzaldiko len-galan eskatzen zan len-saria, Tolosa'ko Udalak ematen zituen 150 pezeta. Maikoak —Artur Kanpion, J. Urkixo, Txomin Agirre, Karmelo Etxegarai ta G. Muxika'k—, onela idatzi zuten, 1913'eko garagarrillaren 20'an; «Euskera garbian egiña dago, eta itz berri geieigigabe. Erraz irakurri liteke eta irakurleak ez du buru austerik izango berak zer esan nai duen asmatzeko. Tolosa uriko edestia euskaldunen artean euskeraz zabaltzeko egokia da idazti au, eta gure iritzlan oni eman bear zalo saria» («*Euskalerrriaren Alde*, 1913, 420 orr.).

Onek ba-zuen beste anai bat ere, Altzo'n 1878-12-8'an jaioa Pelipa Aierbe Irastortza, Bergara'n eta ZizurkÜ'en arimazai. Eta gerra ostean, erdi-zigcrtua, Markiña ondoko Aginaga'n bizi izana. Naikoa idatzi zigun. «Euskal Esnalea»-n eta abar.

(Ikus *Euskalerrriaren Alde*, 1913, 423 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 192 orr.).

2. ISAAK LOPEZ-MENDIZABAL (1879-1977)

Izkuntzalari jakintsu, euskaltzale zintzo ta idazle gurbilla. Bere urteak izan arren, lanari atxikia bizi izan zaiguna. Zeleta'k oraintsu: «Emengo gudaldiko urte negargarriak, eta geroago beste batzuk, Argentina'n naigabez igaro ondoren, osera Tolosa'raturik, berriro bere jalotetxe kuttunean bizi zaigu orain, atseginki, ain maiteak ditun seme-alaba Xabier, Izaskun, Itziar eta Mirtha errañarekin. Urteak urte, osasunez ongi; gorputzez sendo; zentzu ta adimenez oso argi; ta oroimenez edo memoriz, arrigarraro jantzirik aurkitzen zaigula somatzeak, txunditurik utzi gaitu benetan, biotzez besarkatu naiaz bere etxean ikertu degunean. Ikusmenez edo bistaz —ori bai—, itxuantz aurkitzen dala, nabaitu degu; baiña, mingañez, oso jardunlari. Nork bera ixildu?» (*Aranzazu*, 1975, 529 zenbakia, 144 orr.).

Tolosa'n jaioa dugu Lopez-Mendizabal, 1879-4-11'an. **Ber**ton il zan 1977-2-27'an, 97 urte bete zituelarik.

LIBURUGILLE OSPETSU.—Etxean ikusia aurrak ikasia, esan bear emen. Isaak'en etxean aspaiditik zan arrunta liburu langintza, 1750'garrena inguruan asita nunbait. Len-urte aietakó liburu zarrak galduak dira, baiña amazortzigarren gizaldian, adibidez, Frantzisko Lalama'ren etxean, Lopez-Mendizabal'en aurretikoenean, argitaratu ziran Agustin Kardaberatz'en lan batzak: *Mezako Sakrifizio ta Komunio sagraduaren gañean Doctrina* (1782, bigarrenez), *Kristaubaren Jakinbidia* (1783), *Ondo iltzen ikasteko ta ondo iltzen laguntzeko Ejerzizioak* (1787), *Aita S. Iñazio Loiolákoren Ejerzizioak* (1790), ta abar.

Frantzisko Lalama au, alnbat euskal liburu argitara ekarri zituen, Isaak'en amonaren aita zan, Zegama'n sortua, baiña jatorriz **Bizkai'**ko Karrantza'koa. **Ber**az —dio Isaak'ek— euskeraren aldeko nere zaletasuna nere aurrekoetatik, noski, datorkit. Nere amak eta nere amonak liburu aek gertatzean ongi

irakurri eta orrazten zituzten eta argatik oker gutxi arkitzen ditugu beretan. 1878'an nere amak Naparroa'ko Lodosa'n jaioa zan giza gazte eta gudako egun aetan ezagutu zuen Tolosa'ra asko etorri zalako, eta berarekin ezkondu zan. Ainbeste gora-bera eta naigabe izan ginituen ondoren ez zan bada arritzeko ni ere lengoen bidean jarraitzea euskal liburu asko etengabe egiñaz ondorengo urte guzietan» (Loe. cit.).

1818'an il zan Frantzisko Lalama. Zortzi urte aurretik onen alaba Josefa Antonia ezkondua zan Goiaz'ko seme Iñazio Mendizabal'ekin; 1839'an il zan au, ta J. Antonia alargun lotu zan. Eta Lalama il ostean ere liburu asko —euskerazko otoitz-idaztiak, GorosabePen «Bosquejo de las Antigüedades de Tolosa» (1853), Gerriko'ren «Kristau Doktriña guztiaren Esplikazioaren Sayakera» (1858), ta abar— irarri ziran arren, Mendizabal'en alargunaren alaba Eusebio Lopez lodosatar gazteakin ezkondu zanean, irarkola onek indar berezia artu zuela, esan bear dugu: 1878'tik aurrera lan izugarria burutu zuen. Lan txiki asko ta askoren artean, ementxe argitaratuak dira Aizkibel'en Iztegia (1883), Kanpion'en «Gramática» (1884), Novia de Salzedo'ren Iztegia (1887), J. I. Iztueta'ren «Gipuzkoako dantza gogoangarrien Kondaira» (1895), Aita Henao'ren «Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria» (1894), Aita Mendiburu'ren «Jesusen Bihotzaren Debozioa» (1882) eta «Ototz-gaiak» (1904), Juan J. Mogel'en «Maiatz-illerako berba-aldiak» (1885), ta abar.

1929-3-11'an il zan Eusebio Lopez, 83 urtekin; eta onek egundo ere nekatu gabe osatu zuen lana aurrera eraman zingun, indar berriz azkortuta, bere seme Isaak'ek, irarkola liburuen ikurtzat zekarren «Sinismen alde-Aberri alde» goiburuari iñoiz ere muzin egin gaberik.

EUSKALTZALE.—Nolako aizeak epeltzen duen asko esan nai du gizaseme baten bizitzan. «Iritzi garbi eta iakingarriak agertu ziran aldian jaio nintzan ni, eta nere asmo beroa gure euskera

maitearen alde gogoz eta biotzez jarraitu nuen». Astarloa, Novia de Salzedo ta olakoen iritzi illun samarrak albora utzirik, Arana-Goiri, Kanpion eta olakoen iritzi garbien aroagatik dio ori. Garai berri onetako euskaltzalea dugu Isaak.

Bere sorterrian egin zituen len-ikasketak, 1897'tik aurrera Deusto'ko Ikastetxe Nagusian; jarraituaz, eta bere lege-karrerako lau azken urteak Madrid'en bere aitaren adiskide Jose Goia Urkina zumaiarraren etxean eginik. Emen, Azkue zanaren «Euskalzale»[^] irakurriaz, oso euskaltzalea ziran biak; «guk orduan gabero biltzen giñanean —diosku Isaak'ek— izaten genduen alaitasuna ez da erreza esaten». Onezaz gain, bein —gurasoen erakutsi eder!— Bidasoa'z beste aldera eraman zuen, ango euskaldunak ezagutu zitzaiz; eta Isaak'ek; «Berak zituen adiskide asko nere lagun bezela egin ziran eta ortik sortu zan ere nere zaletasuna alde artako analen alde».

Adiskidetasun oien ondorioa izan zan gero, 1901'an Endaia'ko Erri-Etxean osatu zan billera; Lapurdí ta Baxenabarra'tik Hazparne'ko sendagille Broussain eta gainarakoak ziran batzar ortan, emengo aldetik berriz Serapio Muxika, J. K. Gerra, I. Lopez Mendizabal... Batzar orri izena jarri bear zitzaiola-ta, «Eskualtzaleen Biltzarra» ipiñi zioten. Orrela dazagugu arrezkero guztian. Urrengo urtean ere Ondarrabi'n ospatu zuten batzarra, Arana-Goiri'k bere ortografía lana aurkeztu zueneko. 1904'an, ordea, Irun'en, eta abar.

Gaztetako giza-ar-eman eta lanakin gogo-beroturik, aspertu gabe jokatu digu euskal erriaren eta beronen izkuntzaren alde, **ainbat** artikulu ta liburu osatuaz. Aldi bateko «Gipuzkoarra» asterokoa sortukeran, an genduen Isaak ere irasle bezela: Aita Azkoitia prantziskotarra «Tel-alde» izen-ordekoaz ainbat idatzi zuenaren eta Andres Amunarriz tolosarraren laguntzarekin, berak zuzendu zigun, kemenez. Euskal eguneroko, asteroko ta aldizkariak lekuko, euskal gaietaz batez ere, ez digu gutxi idatzi bere bizitzaldi luze ederrean. Euskeraz ta erderaz, berdin erabilu izan du luma.

Ona argitaratu izan dizkigun liburuetatik sail bat.

1) *Cantabria, la guerra cantábrica y el País Vasco en el tiempo de Augusto* (Tolosa, 1899). 80 orrialde. Jakintza ta Letretan Irakasle egin zaneko lana, tesisa.

2) *Fueros de Guipúzcoa* (1903). Eskugoan maixu egin zanekoa.

3) *Aita Santu Amargarren Pio'ren Dotriña laburra* (Tolosa, 1907). 104 orrialde.

4) *Manual de Conversación erdera-euskera* (Tolosa, 1908). bigarren (1918) eta irugarren (1932) irarkaldiak ere Tolosa'n, eta laugarrena (1962) Donosti'n «Izarra» irarkolan, eta bostgarrena, Zarautz'eko Itxaropena etxe argitaldaria: 368 orrialde. Izen, aditz eta esakeren iztegiak, alkar-izketak, idazkiak, esaera zarrak, iragarkiak eta euskel iztegitxoak. Azken irarkaldiak 368 orrialde. L. Mitxelena'k onela; «Euskeraz zerbait dakienak, eta are zerbait ikasi nai duenak, laguntzaille bizkorra dauka orain liburu argi, trinko eta ongi banatu orretan. Orrelakorik asko eztago: ene ustez, eztago deus ere orren parekorik».

5) *Zenbakiztiya* (Tolosa, 1913). 32 orrialde. Umetxoentzat aritmetika laburra.

6) *El Euskera* (Bilbao, 1915). 12 orrialde. Bilbao'ko Euzko-Gastedija'n emandako itzaldia.

7) *Diccionario castellano-euzkera y euzkera-castellano* (Tolosa, 1916). Lopez'tar E.'ren etxean. 654 orrialde. Bigarrenez ere Tolosa'n (1932) argitaratu zan; 1.168 orrialde. Leningo zatia (Erdel-euzkeí-iztegia) Bera'tar Erroman Mirena Aitarena duzu. Ogetaz urteetan ainbat erabillia ta mesede egiña dugu iztegi mamitsu au.

8) *Umearen laguna* (Tolosa, 1920). Euskeraz irakurteko ikasbidea. Tolosa'n (1931) irarri zan berriz ere, Txiki'ren marrazkiekin. 64 orrialde.

9) *Xabiartxo* (Tolosa, 1925). 144 orrialde. Euskal irakurgaiak, Txiki'ren marrazkiekin. Sei irarkaldi izan ditu: bigarrena, Tolosa'n (1932), irugarrena Buenos Aires'en (1943), lau-

garrena «Karmel» aldizkariaren ardurapean, nik 1959'an Bilbao'n egiña (142 orrialde), bostgarrena Xabier Peña'k eta biok Bilbao'n (1966) egiña eta seigarrena egilleak berak Tolosa'n oraintsu argitaratua.

10) *Nekazaritza* (Donostia, 1930). Leizaola'ren irarkolan. 209 orrialde. 1929'an «Euskalerrriaren Alde»-k eratu zuen txapelketan saria eraman zuen Euskalerrriko nekazarietzat egindako liburu onek. Berrogei ikasgaitan ederki azaltzen ditu nekazariak etxe-aldean izan oi dituzten lan, arazo ta ardurak.

11) *Martin Txilibitu* (Tolosa, 1931). Euskal agaka edo abeze umeentzat. 16 orrialde. Irakurbide laburra.

12) *Euskal Ikasbide erreztua*, Txiki'ren marrazkiekin.

13) *¿Quiere Vd. hablar en euskera?* (1932). 56 orrialde.

14) *Seaska abestia* (Tolosa, 1932). Lopez Mendizabal'enean. Bi ekitalditako komeria. G. Martínez Sierra'ren «Canción de cuna» euskeraz. «Antzerti»-n dator, 1932 azaroa-abendua'ko 11'an eta 12'en zembakian.

15) *Erleak, beren bizitza eta oiturak* (Tolosa, 1933). 28 orrialde 15 apaingarrikin.

16) *Voulez-vous parler le basque* (Donibane Lohitzun, 1938). 62 orrialde. Mendisko'kin batera egiñiko lana. Bigarren argitalpena 1947'an.

17) *Otoitzak*. (Buenos Aires, 1942). J. Hebbelynk'en marrazkiakin.

18) *La Lengua vasca: Gramática, conversación, diccionario vasco-castellano y castellano-vasco* (Buenos Aires, 1943). 351 orrialde. Geroago Itxaropena'k ere argitaratua.

19) *Breve historia del País Vasco* (Buenos Aires, 1945). «Ekin» etxe argitaldaria. 192 orrialde.

20) *El País Vasco, descripción general* (Buenos Aires, 1946). «Ekin» argitaldaria, 114 apaingarriz. 230 orrialde.

21) *El idioma vasco, testigo excepcional en la Historia* (Buenos Aires, 1953). *Eta Bol. Amer. E. V.* dalako aldizkarian beste euskerazko lan asko.

22) *Gramática Vasca abreviada* (Buenos Aires, 1954). 86 orrialde. Erdal-euskerazko ta euskal-erderazko iztegiarekin.

23) *Etimologías de Apellidos vascos* (Buenos Aires, 1958). Sebastian Amorrortu ta Semeen irarkolan. 794 orrialde. Lan ikaragarria, euskal abizenai buruz. L. Mitxelena'k: «López Mendizabal jauna goiz asi zen lanean euskal-soroan eta ezta oraindik gelditu. Lekuko izan bedi, lekukorik bear balitz, Buenos Aires'en oraindik argitara berri duen *Apellidos vascos* arri-garria» (*Egan*, 1962, 4-6, 314 orr.).

Lan-zerrenda jori ontatik dakusgunez, egundo ere etzaigu zabar eta larru-lazo agertu tolosar argi au. Nalz euskeraz naiz gatzelaniaz su ta ke ekin dio euskal barrutian lanari. Eredu bi-pilla guztiontzat, noski. Merezi du, gaiñera, gure goratarre ta omena. Egiña dugu onako zerbait, baiña ez geiegi. Euskaltzaindiko aspalditik, Euskaltzaindiaren eztei-jaiak zirala-ta, 1968-12-4'an, Naparroa'ren Uriburuan izandako batzarrean, 1919'tik Euskaltzaindiko laguntzallle diranak ohorezko izendatzea erabakita zegoanez, beste batzuen artean, I. López-Mendizabal eta R. Menendez Pidal izendatu zituzten.

Aipatu Batzar orretan, Euskaltzalndi buruak, beste askoren izenak goraipe ondoren, onela dio Isaak'i buruz; «Eta ez nua geiago jarraitzera, bañan bai auxe aizkenik esatera: asko zor diegula, eta zor ori *aitortzea* dagokigula «aurrelari» (precursor) diran aiei, aien ondotik etorri geran guztiok. Beste izen bat geiago oraindik euskal-kulturaren alorrean bein ere aztuko ez dana: Ixaak Lopez Mendizabal. «Ixaka» *neka-eziña* —Nork ikusi du iñoiz gure Ixaka, eskuak tolestuta geldirik?— idazle ta argitaltzalle; eta beti Euskeraren alde lanean. Urrunetako *periplo* luze ta onurakor baten ondoren, gaur berriz ere, bere Tolosa'ko txoko maitean daukagu: urte askotarako! (*Euskera*, Bilbao, 1971, 19 orr.).

Nolako euskera, jori garbia, darabilen jakin nal ba'duzu, irakur itzazu bere euskerazko liburuak, eta «Gernika»-n, «Euzko-Deya»-n, «Bol. Amer. E. V.»-n eta olakoetan idatzi zizkigun artikuluak. Il zanean onela idatzi zuen Praga'tar euskal idazle zintzo, Tauer'tar Norbet'ek: «Min handi-handia sentitzen dut neure bihotzean. Aspaldiko adiskide laztan bat galdu dut... Lopez Mendizabal-dar Ixada jauna... Euskal Herri guztian ongi ezaguna zen irarkola famatu baten jabea zen Ixaka jaunarekin 1926' urtetik aurrera euskarazko' eskutitzen bidez harremanetan nengoen. 1936' urtean sortu zen gerrateak gure ekar-idaztea eten zuen. Nire adiskide maitea bere Aberria utzi beharrean izan zen, beste euskaltzale asko bezala. Buenos Aires-era ihes egin zuen, eta hango euskotarren artean babes-toki bat eurkitu. Bere bizileku berrian jarraitu zuen euskararen eta Euskal Herriaren onerako lanean. «Ekin» izeneko etxe argiáldaria erai-ki zuen. Liburuak ugari, bai euskarazkoak, bal erderazkoak, euskal arloak erabiltzen dituztenak, argitara eman zituen. Mundako gerra akabatuta eta nire Aberriak azkatasuna lortuz gero gure eskutizketa berriz hasi zen. Bere euskarazko eskutitzak irakurri nituen beti arreta haundiz. Bere lerroetatik nabari zaigu abertzaletasun sakona» (*Zeruko Argia*, 1977 maiatzarl, 35 orr.).

(Ikus G. Lacombe, RIEV, 1908, II, 675 orr.; J. Urkixo, RIEV, 1920, XI, 74 orr.; Norbert Tauer, *Bol. Amer. E. V.*, 1954, 38 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1962, 4-6, 314 orr.; L. Villasante, HLV, 421 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 517 orr.; Juan Garmendia, «Zeleta», *Aranzazu*, 1975, 529'garren zenbakia, 12 (144) orr.).

3.—ANBROSIO ZATARAIN (1881-1966)

Usurbil¹ en sortua dugu Anbortsi. Euskaltzale jatorra, gaztetan bere euskal lanakin sariak ere jaso.

1921'an. Donosti'ko «Argia» asterokoa sortu zutenean, an genuen Zatarain ere sortzailleen artean. Nakazari-orrian idaz-

ten zuen batez ere, gure baserritarren gaiak ederki arrotuaz. Ainbat eskutitz artzen zituen ango ta emengo lugiñak idatzi, ta erantzunez guztientzat zeukan ark aolku ta zer esan ugaria.

«Lugin-zale», «L. Z.» ta «XXX» erabilli zizkigun lanak izenpetzean.

Donosti'n il zan, 1966-12-20'an.

Txasta zazu laburki, zer giro egingo duen nola ezagutu-ta, ondu zigun lan laburtu au:

«Batere giro-neurririk (Barometrorik) gabe zer egoaldi egingo dun jakiteko ezaupideak badira. Laño bakan eta gutxi daudenean, eta laño oiek borobillak eta ertza bizikoak baldin badira, egoaldi ona egingo dula esan nai du. Naiz aiñ borobillak ez izan, doi doi ikusten diran lañoak badaude ere, egoaldi ona egingo dula esan nai du. Goiz goizetik eta iparraldetik eta ipar eta sortaldetik lurrun aseko baldin bator, eta eguzkiaii ateratzen utziko ez baliokela bezela dagozenez, egualdi ona egingo dun ezaupidea da ori ere.

«Egoaldi ona biyaramonian egingo du, bezpera illunabarrian ortzadar edo Errcmako zubiya azaltzen danean. Eguzkia ezkutatzerakoan, zerua orantza edo garrantza egon ezker, eta illuna asten danean, intz aundiya erortzen bada, orrek ere urrengo egunean egoaldi ona egingo dula esan nal du; baño, eguzkia ezkutaratzerakoan zeruak urre kolorea artuko balu, aizea datorrela esan nai du. Goizeko lauetatik bederatzik bitartean ebiya egiten asten bada, bezperan egoaldi ederra zalarik, geienetan ez da ebi iraunkorra izaten, eta ostera egoaldi ona etortzen da. Orregatik sortua da aspaldik esaera zarra «goizeko ebiyak ez dula peregrinua izutzen».

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, III, 466 orr.).

4.—AITA BASILIO GERRA (1881-1967)

Legazpi'ko semea. Frantziskotar. 1897'an egin zuen profesia, ta Arantzazu'n Jakintza ta Teolojia Olite'n ikasi ondoren, 1907'an abestu zuen lenengo meza. Gero mutikoen maixu izan zan Arantzazu'n 1908'tik 1915'ra bitartean. Kuba'ko komentuetako Aita Nagusiaren ordezkari izan zitzaizgun 1922'tik 1928'rarte.

Idazle bizkorra genuen. Lanik naikoa dauka euskeraz ta erderaz, Ordena barruko aldizkarietan, eta baita euskal usaia zuten kanpokoetan ere. Sei urtez egon zan Habana'ko komentuan eta antxe asi zan idazten, «San Antonio» deritzan illerokoan baitik bat; aldizkingi ontan aurkitzen ezmezik gabe bere elertizko lanik sakon lerdenenak, lendabiziko urteetan bada bere.

Geroragcan «Arantzazu»-n idatzi zizun asko xamar. Eta bere lanetatik atera dezakegunez, gizaseme kultura zabalez jantzia duzu: aren lumatik datorkizun oro trebe ta egoki neurtua, oldozpenez eta sentipenez oparotsu, ozen ta ederki esana duzu.

«Arantzazu» aldizkarian ba-du euskeraz olako alkarrizketa sail eder bat «Martintxu»-rekin, «Gatesbi» gezur-izenez izenpetuta. Alkar-izketa auekin liburu bat borobildu nairik ibilli zitzaigun A. Gerra. Osotu ote zuen egiazki? Merezi lukete argitara ekartzea. Ez al dute izango esku goxoren bat?

Donosti'n, Atotxa'ko komentuan il zan, 1967-3-11'an.

(Ikus *Homenaje...* 145, 179, 187, 349 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 160 orr.; jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 324 orr.).

5.—GREGORIO MUJIKI MUJIKI (1882-1931)

Euskaltzale bikain onek, gure endarinkuntzaren eta euskal nortasunaren alde ipiñi zituen bere su, adore ta ataza guztiak.

Ormaiztegi'n jaio zan 1882-12-24'an. Bere aita, Serapio Mujika, Gipuzkoa'ko Artxibuen begiratzaille ta kronista, ta ama, Iñazia Mujika. Amabi urte zeuzkala, 1895'an, Beasain'era aldatu zan bizi izaten, eta an asi zuen batxiller karrera, urren-go urtean Bergara'ko Aita domekarren ikastetxean jarraiturik; azkenez, **Donosti'n** osotu zituen mekanika injienerutza ta industri maixutza. Geroztik beti Donosti'n bizi izan zan. Eta bertan il zan 1931-7-22'an, 49 zeuzkala. Errenderi'n obiratu zuten bere gorpua, sendikoen illarrietan.

IDAZLE BIZKOR.—Gazte zala asi zan idazten, euskeraz ta erderaz. Eta, jakiña, bere aurreneko lanak, euskerazkoak, Bergara'n ikasketak amaitu ta **Donostia'n** aurkitzen zala egiñak dituzu: Bilbao'ko «Ibaizabal»-en (1902-1903), datoz aren lenengo olerki arin politak. Arrezkero idazteari ekin zion egundo ere aspertu barik. «Euskal-Erria»-n, «Euskal-Esnalea»-n, «Euskalerriaren Alde»-n, «Euzkadi»^n, **RIEV**-en, «Vida Vasca»-n, «Novedades»-en, amaika iritzi-emate eder agertzen da berak idatzita.

Berak zuzendu zitun «Euskal-Esnalea» ta «Euskalerriaren Alde» 1911'tik 1931'te: bere lanik jakingarricnak bi aldizkarietan datoz. 1907'an asi zan gaillentzen, sortu-berri zan «Euskal-Esnalea» bazkunaren idazkari izendatu zutenetik. Literatura batzaldietan, an eta emen, sariak beranagatzen ditu; izlari trebe, aomen ederra irabazi du; Bilbao'ko «Euzkadi»-n artikulu atsegiñak, baita **Donostia'ko** «El Pueblo Vasco»-n eta «Argia»-n ere. «Euskal-Esnalea» ta «Euskalerriaren Alde» aldizkarien bitartez, ainbat idazle berri sortu, goratu ta bizkortzen ditu: bi aldizkariok urtero eratzen zituzten elerti-batzaldiak etziran auntzaren gauerdiko ezgul bakarrik. «Eusko-Ikaskuntza»-k antolaturiko Euskal Batzarretan (Onari, 1918; Iruña, 1920 ta Gernika, 1922) zenbat lan eder burutu zuen G. Mujika'k!

Ona bere liburu batzuk:

A) EUSKERAZ; 1) *1907'ko uztaillaren 28'an, Elgoibar'ko Euskal jaietan irkurritako itzaldia* (Donosti, 1907), 7 orrialde; 2) *Eibar'ko seme ospetsuen berri batzuek* (Donosti, 1908), Donostia'ko Euskal Itz-Jostaldien Batzarrak, Eibar'ko euskal jaietan saritua, 36 orrialde; 3) *Ernani'ar ospetsuak. Iturriaga. Kardaberaz. Urbieta* (Donosti, 1910), 132 orrialde; 4) *Lorak eta Ogi* (Irun, 1910) ipuia, 12 orrialde; 5) *Pernando Amezketarra* (Donosti, 1925), bigarrenez ere Donostia'n (1927) eta irugarrenez Zarautz'en (1948), 100 orrialde.

B) ERDERAZ; 1) *Trueba, su significado en la moderna literatura vasca* (Donostia, 1914), 74 orrialde; 2) *El espíritu de la economía* (Bilbao, 1922), 94 orrialde, N. Oleaga'k euskeratu zuena; 3) *Historia de Eibar* (Donosti, 1911), «Euskalerriaren Alde»-n dator 1911, 1912, 1913 ta 1914'etan; 4) *Monografía histórica de la Villa de Eibar* (Irun, 1910), 511 orrialde; 5) *Sembrad con amor!* (Madrid, 1921), ipuia, Ander Amonarriz'ek «Naitasunez erein!» izenpuruakin euskeraz jarri ziona (Donostia, 1930), 12 orrialde; 6) *Tradiciones y costumbres*, «Primer Congreso de Estudios Vascos» liburuan, 619'garren orrialdean datorrena. Or-emen sakabanaturiko artikulua batzuk «Añamendi» sortak atera zuen «Los Titanes de la Cultura vasca» idaztitan datoz.

Idazle bezela, oso jatorra dugu, arin, errez, sakon. Izaera zuen orrelaxe, ta izate barruan dakarguna laster azalera agertzen. «Argia»-ren «Astea» sailla bai goxo eskintzen zigula, gai ezerezetik makiña bat gauza eder jalki-aziz. A. M. Labaien'ek dioskunez, euskal antzerkiari bultzada polita eman zion, «Saski-Naski» taldeaxen bitartez baitik bat; berak itzaurrezten zitun talde onen lanak. «Izarra» komeri-sortan erdikide zan, eta Deñoka'tar Goserio»-z, beste batzuen laguntzaz, *Utzi bearko*, (Do-

nosti, 1919), *Neskame berria* (Donosti, 1920) ta *Gizon bikañak* (Donosti, 1920), beintzat, «Izarra» sortan datoztenak, bereak ditu.

Lumaz ari zitun gai guztiak euskal lurrarekiko maite-sutan gaiñezka daude, bai euskerazkoak eta bai erderazkoak. Idaztearren soilki ez du iñoiz idazkortza eskuratzen, zerbait —eta zerbait ori euskal gauzetaz— esateko baizik. Utzi zizkigun olerkiak ba-dute mamiñik.

Izenorde aukeratuak zizkigun; «G. de Biona», «Zarzaie». «Bildari», «Jeme», «J. M. de Oyarbide», «J. de Zumuarregi» ta «Deñoka'tar Goserio».

(Ikus *Euskalerraren Alde*, 1931, J. M. Estefanía, E. Aranzadi, F. Arozena, M. Urreta, A. M. Labaien, A. Orueta, E. Arrese ta beste batzuen lanak; *Euzkerrea*, 1931, 699 orr.; RIEV, 1931, XXII, 639 orr.; S. Onaindia, MEOE, 870 orr.; G. Garriga, *Bol. Am. E. V.*, 1957> 185 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 163 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 431 orr.; J. Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, V, 508 orr.).

6.—JOSE OLAIZOLA (1883-1969)

«Zeruko Argia»-k onela idatzi zuen Olaizola il zanean: «Bera beterako gizona!... Burutik oiñetaraiño gizona!!... Euskaltzale jatorra ta Euskaltzaindiko laguna zan bera. Gaitz maltzurak eraman du azkenean; baiña bere mundu ontatik joatea, kandelargiarena bezelaxe izan da. Biziorik gabeko gizon onek etzeukan azken-ordua mintzeko ezer. Eta bere gorputzak eztu miñik, ez estutunk izan bizia eskeintzerako orduan. Aakenengo iru egunak itzik gabe zegoen; baiña lendik ondo prestatua zegoen bere biziaren kontua Jaunari emateko. Fede zaarreko gizona. Lepotik bera bere Errosarioak zintzilik zituala agertzen

zitzaigun bere ogean... Musikalari bikaiña, azken urte auetan ere, Euskal Abesti Leiaketetan aurrengo sariak irabazten ikusi degu. Ta bere abestiei, berak jartzen zizkien itzak ere. Olerkari izan degu. Euskal-idazle, antzerkigille ta zer ez?... Gerrate aurretik, sarri Donostia'ko Udaletxean ziñegotzi izana, etzuan lan gutxi egin Euskal-Oiturak, dantza, eresi, antzerki, euskaljai ta bertsolari-saioak aizatzeke ta arrotzeke. Ta Jaunak eraman digu!...» (Z. A-, 1969, garagarrillak, 22, 1 orr.).

EIZI-ZEAZTASUNAK.—Ernani'n sortu zan 1883-1-27'an. Kultura zabaleko gizona. Musika-zale zan gaztetatik, eta irurogei ta bi urte egin zizkigun Donostia'n Santa Maria'ko elizan organu-jotzaille, au da, 1906-10-1 l'tik il arte guztian ango legezko organu-jotzaille bera zan.

Gaztetan, baiña, nundik sortu ote zitzaion musikarako garori? Etxaniz'tar Nemesio'k onela: «Bere etxean aurrena, bere amaren eta anal-arreben artean, erakutsi zuan musikarako zekarren gaitasuna. Asierak, Ernani'n bertan izan zituan, Manuel Zendoia maixu argiaren begipean. Gero Erriko Etxeak zeukan Akademian jarraituko zuan. Ba zan aldi aretan Donostia'n, Euskalerrria kalean, «Amigos del Pals»'koak sortutako «Erri Ederretako Akadémiá». An jarraitu zuan gure gizonak bere musikaikasgua. Etxe artako malxu sonatuak izan ziran, Alfredo Larrotxa, Manuel eta Jerman Zendoia, Bonifazio Etxeb erria ta Gregorio Anton del Saz, beste batzuen artean. Ba zuten bertan pedalier eta bi zerrenda-tekla zituan organua, ta an ekin zion Olaizola gazteak bere saiaketak moldatzen» (*Euskerá*, 1968, 285 orr.).

Etxe artan ba-zuen «La Coral» zeritzan abesbatz bat ere, ta au kantarien erabakiz sakabanatu zanean, «Orfeón Donostiarra» biribildu zuten. Lenengotan Sekundino Esnaola zan faldearen zuzendari; solfeotarako maixu, berriz, Olaizola gaztea izendatu zuten, saloetako pianu-lana ere beroni egotzirik. Se-

kundin Esnaola abots sendoetakoa, Manuel Arruti tenorra, bere anai Gabriel operetako abeslari ospetsua, ta beste batzuk, abesbatz onetan ikasi, bikaindu ta izen aundiko egiñak dituzu.

Musika-saillean, Santa Maria'ko organu-jotzea bere gain artu zuenetik asi zan nabarmentzen. Azkar bai azkar zetorren eta. Etxaniz'ek au ere: «Urrengo urtean (1907), Abuztuko Andre Mari Jaietan, aditzera eman zuan bere lenengo abesti aita-garria: «Assumpta est Maria» izeneko abestia. Remijio Peña baritonuak abestu zuan bere bakar-kantua. Orkestako lagun izan ziran egun artan, besteen artean, Zuaznabar aita-semeak. Au gerora, Donostia'ko alkate izatera elduko zan. Arrezkero, gure Joxe'k etzuan arnasarik artu bere lan ugarian. Eliz-Abestietan eta Euskal-doiñuetan geroago ta aberatsago izan zun bere emana. Usandizaga, Aita Donosti ta Aita Otaño, bere lagun izan zituan aldi artan. Nork kontu ditzake gerora Olaizola Joxe'ren lanak, eta leiaketa sariak? Gogora ekartzekoa izango da ere, gure gaztearen leia «Euskal Txistularien Elkartea» sortzeko. Lan bikaiña egin zuan gero, Zabalo anaiekin, Antekera Azpiri, Gregorio Muxika, Pepe Mendizabai, Jose Agirre, Zaldua ta Aita Donosti'rekin batuta, «SASKI-NASKI» agerraldiak prestatzen. Alakorik eztegu ezagutu beinere, ez len eta ez gero» (*Loe. cit.*, 286 orr.).

Udaletxean birritan izendatu zuten bigarren alkate. Eta bere garaiko erabaki ederren artean bat, Donostia'k bear zuen ura ekarteko Artikutza erostea izan zan. Euskal lanengatik, berriz, Euskaltzaindia'n artu zuten laguntzaille bezela. Omenaldiak ere izan zituen: 1968'an Euskaijerri osoak Donostia'n eta Bilbao'n eskeiñi ziona oietatik bat, oso bizkorra.

Zartzaroan, itzali aurretxoan, onela ikusi zuen Jose Artetxe idazleak Donostia'ko kaleetan zear; «Soiña zuzen, bizar zuri ondo kuidatua, begi-aurrekoak drist-drist, burua txapelakin txukun estalita, pixka bat oker antxa» (*Z. A.*, 1969, lorailak, 25, 3 orr.). Bere nagusitasunezko ibillera berezian noski baiño noskiago.

ANTZERKI-EGILLE.—Teatru-zaletasun izugarria zegoen garai artan, ots, gizaldi onen asieratik onantza batez ere, **Donosti** ta inguruetan. Ezta, beraz, zurtzekoa orduko gizaseme jatorrak erria antzez-lanez jaso ta kulturatu nai izatea. Or-emen ospatu oi ziran euskal jaiak ere, zuzpergarri bikalñak zitzaizkien ortan. Olaizola'k ere, beste askoren artean, bere aletxoa ipiñi gura izan zuen kulturatze arlo orretan. Ogetabost urte zitueneko agertu zan beintzat teatru-lan ederrakin. Ona sallka gerora osatu zituen batzuk:

1) *Markesaren alaba*. (Argitara gabe). Iru ekitaldi ta bost laukiko drama. 1908-9-5'an, Eibar'en euskal jaiak. Antzerki-saillean saria eraman zuen. Donosti'ko «Teatro Prinzipal»-ean antzeztu zan lendabizi, 1908-12-21'an, Santo Tomas egunean.

2) *Zorigaiztoko eztayak* (1909). Ernani'ko euskal jaietan aipua izan zuena.

3) *Ingélesaren euritakoa* (1909). Bi egintzako antzerki, Ernani'n Udaletxeko aretoan, ango euskal jaietan, lenengoz antzeztua.

4) *Itziartxo edo Ama zerutarraren eskerra* (1909). «Euskal Esnalea»-k eraturiko ipui-txapelketan bigarren aldera jaso zuena (Ikus *Esku-egundiya*, 1910, 23 orr.).

5) *Oleskari zarra* (Argitara gabe). 1916'an **Donostia**'ko Udaletxeak antolatu zuen antzerki-konkurtsuan bigarren sariz sarizatua. Idilioa ekitaldi bitan; egilleak letra ta musika. Eusko Ikaskuntzaren lenengo Batzarra zala-ta, Oñati'n aurkeztu zan lendabizi 1918-9-4'an; baita gerora ere maiz samar antzeztua izan da.

6) *Zori gaiztoko eguna*. Abelino Barriola'ren lirikazko antzerki oneri Olaizola'k jarri zion musikazko eres-doiñua.

7) *Biar arte?, ja jai!* Egintza bateko antzerkia, 1919'an **Donostia**'ko Udaletxeak eraturiko batzaldian len-saria ardietsi zuena: Quinteros anaien «Mañana de sol»-eri jarraiki egiña. **Donostia**'n, Leizaola'renean irarria.

8) *Gora, gora antziñako legiakl* Donostia'ko «Gipuzkoarra» asterokoak eraru zuen batzaldian sarizatua ta 1922'an «Kaiku» asterokoak argitara emana. Iru ekitalditako antzerkia.

9) Beste auk ere, kanta ta abar, bereak ditu: «Basa-jau-na», bakar-izketa, «Ume zurtza», «Amets urdiñak», «Biotz-illun», «Urte leioak», «Asto txistularia», «Sorgiñeta», «Oñaze-egdpean», «Malte, oroi!», «Agur, izar ori», «Kun-kulun», «Udazken danean», «Oyan ederreko lilia», «Asparren'go jale-tan», «Aizak i, Praiskutxo», «Gurutzearen onetan», «Aurtxo, lo», «Mendietan», «Eperarren goiz-abesti». Eliz-kutsuzkoak altatu gaberik. Kantu ta itzak, bere-bereak geienik, egoki eza-riak ziran, malxu bezela landuak. Jaso zuen saririk euskal mu-sika batzaldietan, azkenengo orduralño jaso ere.

Itzaldiak eman zituen euskeraz bai antzertiari bal musikari buruz; 1929-12-22'an «Sekundino Esnaola'ren omenez»-koa ta abar. «Euskal Erria», «Gipuzkoarra», «Txistulari» ta ola-koetan idatzi zuen. «Ereslari» erabilli zigun lanak izenpetzeko.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 138 orr.; *Zeruko Argia*, '969> garagarrillak, 22, i orr.; N. Etxaniz, *Euskera*, XIII, 1968, 285 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 175 orr.; Auñamendi, *Lite-ratura*, III, 488 orr.; Inozenzio Olea, *Zeruko Argia*, 1969, garagarri-llak, 29, 2 orr.).

7.—JOSE MARTIN ARRUE GALDOS (1884-1960)

Aita Arrue prantziskotarra Aretxabaleta'n jalo zan 1884-5-4'an. 1899'an profesa Zarautz'en, eta Jakintza (Filosofia) Arantzazu'n eta Teolojia Oliten ikasi ondoren, 1908'an jauparitu zan. Irakasle legez, Jeogralia ta Musika azaldu zituen 1909'tik 1911'ra, ta musika bakarrik gero. Arantzazu'ko musikalanak, Aita Arregi'k eta, adibidez, amalkatxu soiñu ezti entzun-arazi

die an inguruetako mendi-tontor zut eta arkaltzai. Oietakoa duzu Aita Arrue ere, aurretik zetorren oiturari jarralpen bizia emanik.

Organu-maixuak asid lan izan oi du gure komentuetan. A. Arrue'k da ere ba-zuen astia erritarren aotik kanta zarrak jarduteko ere. 1921'an, esate baterako, Donostia'ko «Argia» as-terokoak eres-batzaldi bat antolatu zuen. Arrue'k iru melodi, erritar ta erlijio-kutsuzkoak, or-emen bildu ta batzaldi artara bialdu zituen: saritua izan zan. Esku jarri zuen edozertan, an; txe daurkigu aren ao goxoaren tanta berezia ere.

Idazle bezela, «Aranzazu» zuzendu zuen iru urtetan, —1922-1925—. Itz askatuan eta bertsoz egin zituen lanak erdi-alal, erdi-negar, dotore oldoztu ta adieraziak dauzka. «Euskalerriaren Alde»-k saritu zion *Iru damatxo* abestiari buruz osotu zuen lana (Ikus, XII, 1922, 121 orr.).

«Aranzazu» illerokoa 1921-5-16'an asi zan argitaratzen. Lenngo idazleen artean gendukan A. Arrue ere; aurreneko zenbakian agiri ta bere «Loretxo bat geure Amari» olerkia. Ona aapaldi bat:

Zeure izen ona aranzatzera,
Zeu goraltzera natorkitzu;
ondo artu, ba, onetsi, Ama,
geure loretxoa, «Arantzazu».

Aren lumatik zetorrena arin ta jator zetorren beti. Letrak lantzeko ba-zuen gatza ta erretzasuna. Eder zitzaion Euskalerriko folklore, elezarra. Soro orretan aurkitzen zigun sarri bere idazkortz erneak mamintzen zituen lanen gal bizia. Zeozer sallkatzekotan, lan oietatik diot, ona auek;

1) Aurrenik, «Aranzazu»-n, «Misiones Franciscanas» eta «Apostolado Franciscano»-n euskeraz ta erderaz idatzi zizkigun artikuluak.

2) Or-emen argitaratutako *Eres-lanak*. Auek batez ere: a) *Arantzazura*; b) *Ave Maria*; d) *Marcha de la Juventud Antoniana*; e) *Gozos a San José*; f) *Salve Regina*; g) *Bilbao'ko Euzho-Gastedijaren «Euzkel-Abestijahy* argitaratzean esku artu zuen A. Arrue'k ere; *Mendirik mendi* deritzana, *Arruetarra'k* izenpetua, berea du.

3) Eusko-*Ikaskuntzak*, 1918'an, Oñati'n ospatu zuen Bazarrean, itzaldi au irakurri zuen A. Arrue'k: *La música de Iglesia en la historia del País Vasco. (Primer Congr. de E. V., Bilbao^ 1919, 445 orr.)*.

4) *Amaya* (Leipzig, 1920). Jesus Guridi (1886-1961) jaunaren iru ekitalditan: erderazko itzak Jose Maria Arroitauregi'k, eta euskerazkoak, Aita Arrue'renak: Bilbao'n eman zuten leenbizikorik, 1920-5-22'an. *Mirentxu* ere berdin, Bilbao'n leengo 1910-6-30'an emana, Etxabe'k erderaz eta Arrue'k euskeraz.

Sendi-odoletik zekarren musikarako zaletasuna. Juan Gorosari izan zuen eres-maixu. Arantzazu'ko ikastetxean (1896-99) ikasi zuen pianua, ikaskide zuen Aita Arregi'rekin; eliz-karrean ere gogotsu eman zion arlo berberari, ta, azkenez, J. Guridi'k erakutsi zion musika idazten eta eresgailluak jotzen. Eliz-karrera bukatu ostean, Arantzazura bialdu zuten nagusiak, eta ementxe musika irakasle ta organu-jotzaille bizi izan zan 1927'rarte; jarraian Madrid'en (1927) daukagu, gero Tolosa'n (1931) ta azkenez Bilbao'n (1934), emengo komentuko nagusi. Tolosa'n il zan 1960-4-2'an.

(Ikus Donosti'ko *Argia*, 739 orr.; *Zeruko Argia*, 1957'garreneko neguillean, lenengo orr.).

8.—JOSE MARIA AGIRRE ANTIA (1885-...)

Euskal idazle ixil apal onen zeaztasunak ao-goxoz damazkigu N. Kortazar'ek.

Antzuüla'n ludiratu zan Agirre Antia, 1886-1-2'n. Jose Migel bere aita, Antzuola'koa zan, eta ama, Balentina, gazterik illa, Urretxua'ko Bian baserrikoa. Mutikotan, Bergara'ko Mieka basetxean eman zituen urte batzuk; gero, aita dargunari lagundu zion, amalau urtekin Antzuola'ko larru-fabrikari langille sarturik. 1905-6-6'an, Antzuola'n lanik etzalarta, Durango'ra jo zuen; amar urtez emen ekin zion lanari.

Ementxe, gure Astarloa jakintsuaren uri onetan artu zuen gainera kultura pixkat ere. Berak onela: «Ni oso ez-jakiña allegatu nitzan Durango-ko erri ederrera, bañan gauza asko ikasi nuen amar urtetan: nik Durango-ri asko zor diot, lagun aundiekin bat egin nualako. Eskola asko ikasi nuen, musika eta kantetan kanpoko errietara juten giñen». Lurdes'era eta, osterak egin zituen abeslari bezela.

1915'an, ordea, Uzarraga'ko maixu izendatu zuten. «Gabon jaietan etorri nitzan —dio—; Durangotik penetan largatu ere, malko ugariak ixuriaz». Antzuola'ko eskola ontan emanak ditu urte-mordoak, zertzireun bat ikaslek beragandik erakaspenu artuaz. 1943'an, Urtsuia Aranguren Larrañaga'rekin ezkondu zan, bederatzi seme-alaba sorturik.

Gerra aurretik batez ere, au da, 1920-1930 bitartean, Donostia'ko «La Constancia»-n argitaratu zituen euskerazko kronikak. Ba-ditu argitaratu gabe ari ta oni buruzko bizitz-notak euskeraz osotuta.

Gure izkuntzan eutsi ta aurtxoen artean, erlijioaz batera euskaltzaletasuna ere, zabaldu ta indartu nairik, sarri erakutsi izan du euskal dotriña bere irakastegian.

(Ikus Iñaki Linazasoro, *La Voz de España*, 1965-4-23'an, 16 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 141 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 16 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 522 orr.).

9.—DIONISIO AZKUE ARREGI (1885-1964)

«Dunixi», erderaz ederki ta euskeraz gutxi besterik idatzi ez ziguna. Bergara'ko semea? Donostia'n il zan 1964-10-3'an. Izparkille ta margolari, bietan eder. Margolari bezela, eder zituen Euskalerriko ikuspegi, alderdi eder eta ikuskariak; margoerakusketa batzuk antola zituen, adibidez 1930'an Donosti'ko Iñaki Deunaren Batzar-lekuan eta 1949'an Udaletxeko Erti-Aretoetan. Aomen gaitza lortu zuen olako erakustaldiekin.

Idazle legez, «Mi pueblo, ayer» (Donosti, 1932) erdel liburuarekin irteera aundia euki zuen. Ederti-krikitu bezela gaiña artu zigun batez ere. «Yakintza», «Vida Vasca», «Libro de oro», «Munibe», BAP, «Egan» ta olakoetan idatzi zuen.

Euskeraz «Esku-Egundiya»-n asi zan idazten. Labur zurrian, ona an datorren «Damu det» lantxo. «Egarri beroaren amaigarri eske —dio—, urrutiko iturrietarontz, Zereakgandik iges, itzuli ziñan, o, nere gogo!... Nolatan zatoz gaur ostera? Ez du arrotzen zorionak zure naia bete? Etzaltuzte atsedendu alen baratzeke loriak? Ez da zure gosea alen ogiyarekin asetu, eta zure egarriya alen urarekin juañ?... Gezurra zan arrotzen zoriona? Arantzez beteak alen loreak? Beltza aien ogiya? Pozoituba alen ura?... Ez, arren, samindu, bañon poztu, gogo gaxoa, amaren magalera zatozalako. Ara nola abegi samur-samurra dagizun berak... Sendiya ere, jal antzan, poz pozik gertu da ta, senide damutuba laztantzeko» (1910, 44 orr.).

1929-5-12'an itzaldi eder bat eman zuen Donosti'ko «Ate-neo Guipuzcoano» aretoan. Gaia: *Atzoko Donostiya*. Lizardi'k onela; «Euskel-idazle «Dunixi»?... Ta ez bada-ezpadakoa. Igaro-údaberriz entzun genion itzaldi eder-askoa Donostia'n. Baña, erderaz batez ere eman oi digu bere gogamen zoli-meearen berri. Eztaki nornaik gaztelera aln apain ta biziki erabiltzen. Esaera ta itzak aukerako ditu, ezetsu, mami; ta adierazgaiari ain dagokie zeazki, uste baitet, ez bera ez gu oar gatzaiola norbaitek eskutik idazkortza ken ta erraztilla (brotxa) ipiñiko ba'lio,

aldapena igerri gaberik baietz yarraitu margoz lan itzez asiari, ta are gu ere, leen-arian, «margozkia irakurtzen». Orain, bada, adisldde-antxean, galde txiki bat. Zuk, «Dunixi», barruan alako idazle yatorra daramazun orrek, euskera ere bikainki daldzularik, zer legikezu euskel-elertiaren alde, tarteka-tarteka, erderaz aritzeari utzi gabe, gure baratzatxora egonaldi batzuek egi-tera ba'zentoz?... Ez aal zinduket alperrik zirika!» (*Itz-lauz*, Donostia, 1934, 89 orr.).

Ez dakigu zerk ala nork eragiñik, baiña andik ogei bat urtera euskeraz idazten asi zitzaigun. «Egan»-en datoz auek: *Gure lurraldea* (1955, 1-2, 8 orr. ta 3-4, 50 orr.); *Mavxice Utrillo* (1955, 5-6, 32 orr.); *Jayotza baten aurrean* (1956, 5-6, 103 orr.); Prosper Mérimée'ren «Le voleur bienfaisant» *Lapur ongillea* (1957, X, 147 orr.); Georges Courteline'ren «Le Petit malade» *Mutiko gaxoa* (1957, X, 284 orr.); *Astoa pintore* (1958, XI, 205 orr.).

10.—JOSE INDALEZIO ZINKUNEGI ARRUTI (1886-1964)

Sendalari ta euskaltzale. Eredu bikaiña ikusi ta ikasi nai duenarentzat. Bi arloetan langille aintzagarri. Barnean zuena egitez adierazten alegindu zitzaigun, bere bizitza osoan. Giza-seme jatorra, euskaldun fededun. Zarata aundirik atera ez arren, Zarautz'en zeakan bere txokotik, mediku ta euskal idazle bezela etengabeko lana egin ziguna.

Errexil'en jaio zan 1886-4-29'an. Sendi onekoa: anai bat ere ba-zuen karmeldar mixiolaria urte askotan Kottayam (India)'n. VaUadolid'en ikasi zuen mediku karrera, ta ikastaroak amaitu ta laster Zarautz'en jarri zan osakintza lanean. 1914'an ezkondu zan Aia'ko alaba Marzelina Zabala'rekin: zazpi seme-alaba izan zituzten, bost mutil eta bi neska.

Zintzo ta leial agertu izan zan beti. Idaztitegi eder baten jabe zan, atsegin zitzaion ba irakurtea. Guraso ta kristau bezela, noiz-nai ta nun-nai eman zuen ikasbide ezin-obeia. Jakintsu bezela, maite zuen ixiltasuna, ta pentsatzea. Berezko bait du gizonak gauzaen mamiña jakin naia.

Euskaltzaindiko urgazle genduan.

1964-1-9'an itzali zan, ainbat urtetan bere ogibideari loturik bizi izan zan «Mundo Mejor» deritzan auzotegiko bere etxean.

Bilbao'ko «Euzko Gastedija»-k 1914'an eraturako ipui-sariketan saria jaso zuen bere «Euzkel-ertijak eta abertzaletasunak» lanagatik eta Donosti'ko Euskal Esnalea'k eraturako irakurgai sariketan ere berak jaso guen *Maite det baño...* lanagatik. Urrengo urtean Bilbo'ko Euskaltzalndiak egin zuen ipui sariketan, berdin *Pedro Mari*, bere lanarekin.

ITZULTZAILLE.—Eguneroko zeregiñak bete ondoren, bazuen oindio astia, oiko nekeari bere lasaia emanik, zerbait irakurri ta idatzi egiteko ere. Ortarako, giza-barrena pizkat eza gutu ezkeru, egokiena ta errezena itzultze-lana dala, aitortu bear dugu. Barnera jo ta ausnartze aundi barik egin dezakeguna baita. Zmkunegi'k ba-ditu bere buruz egindako lanak, baiña itzultzaille izan genduan batez ere. Eta itzuli zizkigun lan aue-tatik batzuk argitaratu zituen, baiña beste sail eder bat argitara gabe utzi zigun. Ona auetariko batzuk:

1) *Irizpidea* (Donostia, 1914...). Balmes'en «El Criterio» duzu euskeraz jarrita. Donostia'ko «Euskal Esnalea»-n daukazu, 1914-1924. 28 urte zeuzkan lan au asi zuenean. Itzulpen onetaz Gabin Garriga'k: «Euskaldun izan eta jakintza-gogai batzuetarako asmatu ditun itz berri batzukaz jabeturik, *Irizpidea* irakurri ta ez duela ulertzen esan dagianak, aitor beza obeki ez duela filosofirik ikasi. Ezta itzultzaillearen izkera ulertzen ez duela-ko, ez: berri egiten zaiona gaia da, an darabilen zera».

2) *Erraondoko azkenengo atabalaria: Popatxo: Yan-Pier Bidari*. Kanpion'en lanak dituzu auek, Zinkunegi'k euskeratuta.

3) *Eusko-Abenda, bere sendotasuna len, orain eta gero* (Donostia, 1920). Lenengo sailla. 1919'g. urteko jorraiaren 6'ean irakurritako itzaldia.

4) *Kirolak, ongile ala kaltegarri}* (Donostia, 1928). Boskarren sailla. 1925'g. urteko jorraiaren 19'ean irakurritako itzaldia. Sakon eta zentzuki egiñiko lana; oberik nekez kirolal buruz.

5) «Euzko-**Deya**»-n argitaratu zitun (1956): *Kepa Deunaren Ollaskoak, Kozko Muñoa* ta abar.

6) Euskaltzaindiari buruz argitaratu zuen: *Academia de la Lengua Vasca. Es posible y conveniente su creación?*

7) *Opera Zigor* (Bilbao, 1957). Saritua. Kanpion'en *Sancho Garcés*.

8) *Pedro Mari* (Kanpion-Etxabe).

9) Argitaratu gabe, beste lan askoren artean, auek utzi dizkigu: 1) *Oneraspen bidea*, Sales'tar Frantzisko deunaren «Introduction a la Vie dévote» euskeraztuta; 2) *Ferval Apaizaren Ixilpekoa*, Silvaln Roche'ren «Le secret de l'Abbé Ferval», eleberria; 3) *Nora eraldu zuten Petrus, maitasunak eta aztikeriak*. Aubers'ko Aselea, elezarra, Prantzeratik itzulia; 4) *jbarró-la*, Emanuel Robles'en «Montserrat», Arzeluz'tar Ander «Luzear»-ek prantzeratik euskerara biurtzen asi ta Zinkunegi'k amaitutako antzerkia; 5) *Aur ezkuntza*, Juan Bardiña sendagilleak egiña, euskeraz; 6) *Yon'ek edaria zergatik utzi zun?* Jazinto Benavente'na euskeraz; 7) *Ugorkeriaren aurkako irakas-kintza*, Dumuid sendagillearena; 8) *Kisto sendian*, ezkonduentzat gogakerak, lan jatorra; 9) *Osasun bidearen amarkuna*, lan jatorra; 10) *Euskal iztegia*, bakatu gabe; 11) *Ume erretzalleák*, lan jatorra; 12) *Asmatzen}*; 13) *Edari ugorduneñ buruz amar iritzi*, lan jatorra; 14) *Osasunaren amar aginduak*, lan jatorra;

15) *Ugorra* (alkoola); 16) *Yate edateari buruz esakun yakinga-riak*; 17) *Aurren osasun ona adir azten duten aztarnak*; 18) *Illak il, ipuiña*.

Gerra aurretxoan Bruño Argitaldariai euskal *Zenbakizúya* ateratzerakoan, Zarautz'eko Sallestarrakin batera, Zinkunegi'k ere esku artu omen zuen. Idazle jator bezela, bere joskera ederragatik, Seber Altube'k bere «Erderismos» liburuan txaloak joten dizkio. Eta, izan ere, ba-du nortasuna errexildar argi ta langille onek euskeraz jartzeko liburuak aukeratu ta gure izkera biurtzean.

Luze samarra dan arren, ona Balmes'en «Irizpidea» itzultzea amaltzerakoan, jarri zizkigun itzok: «Urte askotxo dira, amabost edo geiago. Gaztelerriko goituri batean arratsalde batez nere adiskide ta ikaskide batekin egurasten nenbillen. Euzkotarrak biok, urrutiko aberria oroiturik berazaz ta bertako gauzetaz elekatzen gendun. Gure Erria'ren maitatzalle berotzat esten giñuzen biok gure buruak. Nere lagunak ez zekian euskerarik. Yardun ta yardun, euskeratzaz itzegitera ere eldu giñan eta bera euskera ikastera zirikatu nairik asi nintzan. Alako batean bion adiskide zan beste euskeraz ez zekien, baña ikasten gogoz ziardun euskotar bat yarri nian eredutzat. Nere laguntza eskañi nion. Amaika gogarpen egin nizkion; guztiak alperrik. Nik zenbat ate ark ainbeste maratilla. Ari ta ari nardaberaki esan zidan, euskera berak ere ikasiko zuala, baña Kimiztia ta Osakiztia ta beste orrelako yakidi-idaztiak euskeraz idatziko ziranean. Aterakeri ark min eman zidan. Bere apeta ulertu nuan. Ordura baño len ta ordu ezkeroztik orrelako ergelkeriak entzun izan ditut bein baño geiagotan. Iñoiz ez det ordea ainbesteko miñik artu. Eta min ura izan zan orain bukatu' dedan lan onen yatorria. Orduntxe artu nuan yakidi gairen batezaz euskeraz idazteko asmoa, orrelako ergelkeriai itzez baño egiñez erantzutea euskerarentzat obaritsugo izango zala iritzi-ta.

«Geroztik yakidi batzuetako galetzazko -idazkaiak or-emen argitaldu ditut. Orrekin ez nitzan asebetetzen ordea. Eta lan

sakon, eder ta onuragarri bat yo nuan begiz. Bein baño geiagotan atsegiñez ta onuraz irakurritako *El Criterio*, Balmes yakinztari aundiaren lan ospatsua, yakintsu batek zuzenki «Gogoaren osasunbide egizkoa» deitu ziona. Bera euskeraz yartzea izango zan esan eigel ayentzat erantzunik onena, nere ustez. Norbaitek yalridien yakidia deitu zion yakintza, filosofi gaiak erabilli litzaken euskera, ez ote da ba beste edozein yakiditzaz izatzeko gauza izango? Bal, alea. Orain bakatutako *Irizpidea* au argitaltzen asi nitzan ezkerero, askok galdetu izan díate, artu nuan lan onen zergatia: idatzitako lerro auek izan bitez ayei ta beste guztiai erantzuteko» (*Euskal Esnalea*, 1924, 244 orr.).

Euskal literatura, beraz, zorretan dago gizaseme aundi onekin. Merezi lake bere lan guztiekin osoturiko liburu eder bat argitaratzea. Gure kulturarako ta euskeraren onerako, ernarazle errimea genuke.

(Ikus *Euskera*, I urtea, Ií'garren atala, 83 orr.; *E. Esnalea*, 1924, 186 orr.; N. Altzola, BAP, 1964, 318 orr.; *Euskera*, 1963, 491 orr., *Egan*, 1964, 132 orr. ta *Cien Autores vascos*, 52 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 62 orr.; Ángel Gobeo, BAP, 1964, 460 orr.; G. Garriga, *Bol Amer. E. V.*, 1960, 187 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 435 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Eúskaro*, II, 181 orr.).

11.—TORIBIO ETXEBARRIA IBARBIA (1887-1968)

Euskal idazle jator onetzaz, au diosku J. San Martín'ek: «Munduak ain urri emon dittuan gizonetariko bat da (Toribio), lurreko nekiak gaindu dittuana. Arbolia letz, gizona be, bere iraturik ezautzen da onduen. Ibiltarixa, bai ideaz ta bal egin-tzaz, bere asmurik onenak eskeñiaz pasau da mundutik. Iñoiz on egiñaren paguari begiratu barik, naiz ta azkenerako bere bu-rua erbestietan ziar urriñetako lur otzetan eratxitzera konde-nauta» (*Ibiltarixak*, Aurretiko agirian, 5 orr.).

BIZI OSTOAK.—Eibar'en jaio zan Etxebarria 1887-4-27'an, Txilio kalean. Etzan iñungo eskola nausitan ibilli; baiña argia zetorren umetatik, eta bere buruz ikasia zuen zekian guztia. Damaskino-lanean ari izan zitzaigun gaztetan; baiña laster, 26 urte zituela, Eibar'ko Udaletxeko sekretaritzan sartu zan. Ordurako jakintzaz ere kezkatzen asia genduen, baita langille arazoetan sartua ere gogai ta ideiaz sozialista zan. Eibar'ko sindikatu, koperatiba ta beste alkarte guztiak interesgarri zitzaizkion gaztetatik. Bera izan zan, «Alfa», langilleen koperatiba sortu ta aurrera! eramatean, zuzpertzallle berezi ta amabost urtean bertako zuzendari. Geroago, Errepublikara garaian, Campsa'ren ordezkari izan zan iru urtean Gobernuak berak izentatuta, eta azkenez bertako zuzendari.

Guda denboran erbestera bearrean aurkitu zan. Aurrenik Prantzia'n ibilli zitzaigun alderrai; gero Londres'en, Mexiko'n, Irlanda'n eta Karakas'en. An zein emen, beti izan zuen sendikoen berotasuna. Zertik bizi ere ba-zeukan noski, ta umetatik zekarren griñari askatasuna emanik —umetatik bait zan liburu-zalea—, idazteari ekin zion setaz ta jarraiki. Nik ez nuen aurpegiz ezagutzen, baina eskutitzez bai: alkarri karta naikoa egiñak gara, «01erti»-n bere lanak azaltzen nizkionean batez ere.

Edozein idazleren poza? Sortu ditun semeak —lanak— argitaraturik ikustea nunbait. T. Etxebarria erbestean egin zitzaigun idazle, ta lenengotan etzuen izango girorik bere sorpenak argitara emateko; baiña gerora izan zuen. Eta onek bai emango ziola egiazko poza! «Ibiltarixanak» (Zarautz, 1967) argitaldu ziotenean, poz-eztitan idatzi zidan Karakas'tik, liburua bera opalben onekin andik igorriaz; «Aita Onaindia'ri, bedorren irakurlari urrin baten galduak, Etxebarria». Urruti baten galduta ikusten zuen bere burua.

Andik laster, «Nunc dimittis» abestuaz, Karakas'en bertan il zan 1968-4-18'an. J. San Martin'ek, amaitzeko: «Munduak ain urri ematen dituan gizonetariko onek damutubearrezko gauza gutxi izango zuan bere barnean, ta bai kontzientzia nun-

nai zabal eta lasai agertzekoa. Erlijio problemak bizi guztian kezkatu zuan gizon onek ez dakigu azken itzik jaso al izan duan, baiña zerurik bada an izango da iñor izatekotan» (*Euskera*, 1968, 284 orr.).

EUSKAL IDAZLE.—Euskaltzaindiko laguntzaille. Euskeraz ta erderaz idatzi zizun. «Arratetiko bat» erabilli zuen izen-ordez. Gerrarik iges, Bordele'n zegoela asi zan idazten, eta ondoren aspertzeka astindu zuen bere idazkortz arin sakona. «Euzko-Gogoa», «Euskera», «Egan», «Olerti», «Zeruko Argia» ta «Eibar» aldizkarietan atera ziran aren lanik geienak, bertsoz eta itz-lauz. Aurretik «El Socialista»-n ere idatzi zizun. Ona argitaratu zitun liburu batzuk:

1) *Flexiones verbales de Eibar* (Bilbao, 1963-64). «Euskera»^ dator lan au, **VIII-IX**, 53-130 orrialdeetan, bere emazteak lagunduta egiña. Amar bat milla itz dauzka, esakeraz, istoriz ta gañerakoz ederturik.

2) *Lexicón dei euskera dialectal de Eibar* (Bilbao, **1965-66**). Arrate'tikuen izketia. «Euskera»-n dator, **X-XI**, **1-658** orrialde. Bere emazteak lagunduta osotu zuen antza liburu eder au. Iztegi antzera, amar bat milla itz dauzka Eibar aldeko izkelgian erabiltzen diranak, bertako esakera, istori txiki, folklore ta olakoz josia.

3) *Metafísica a Urcola* (Mexiko, **1966**). Liburu sakona au ere, munduaren izateari buruz bere iritziak azalduaz.

4) *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo* (Mexiko, 1966). Jakingarria.

5) *El Hijo del Hombre* (Mexiko, **1966**). Kristoren bitzta gaurko kristautasuna begipe duelarik.

6) *Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración* (Mexiko, **1967**). Salo bikaiña iru gal ortaz. Erderazko lanok Mexiko'ko «Impresiones Modernas, S. A.»-k argitara zitun.

7) *Ibiltarixanak. Arraie'tikuen izketango alegiñak* (Zarautz, 1967). 495 orrialde. J. San Martin'en itzaurreakin. Auxe duzu

Toribio'ren idaztirik ederrena, ia guztia bertsoz egiña. Bost zati ditu. Bi lenbizikoetan, beiñola Eibar'ko Erriko Etxean bere lagunakaz izan zituen izketak gaitzat arturik, jakingarri diran gauza guztietaz osotzen ditu olerkiak, gramatikari lar begiratu gabe, bere erriko euskeran, munduaren asieratik Eibar eta eibartarrak gizatu ziranezko guztia aizaturik. Irugarren eta laugarrenean, irudimenari naiko bekoki ta aukera emanaz, bere ibilteak —ortik «ibiltarixa»—, ateraldiak, gertatuak, autu-mautu, ele-mele ta olakoak damazkigu bertso biribil neurkera askotakoetan. Bostgarren zatia itz-lauz daukazu ta Biblia'ko itzulpenak, eta Napparroa'ko Margarita erregiñaren ipuiñak ere euskeraz. Lan guztiok atsegiñez irakurten dira; ala ere J. San Martin'ek onela: «Azken urteko beartsua, esate baterako, IV'garren liburukuak, askoz obeto eiñak daré. Egiñaz, ikusten da, asko obetu ebala bere bertsozintzia. Lastimia egilliak berak lengotik azkenera, barrien-barriz, orraztu biar eza. Obetuagotuta geldittuko ziran» (*Loe. cit.*, 13 orr.). Eibar'ko izkeraz idazten du beti. Ilburukoñ, «Ibiltarixanak» liburuaren irabaziak Eibar'ko gaixoetxerako utzi zituen.

8) *Ondakiñak* (Argitara gabe). Egilleak azken orduan egiñiko ondar-bilduma. Au ere ezta urria izango.

9) *Viaje al país de los recuerdos* (Argitara, gaberik). Bi ale. Bere gaztaroko jazokun eta oar-ikasizko bizikizunak.

Auetxek dituzu auncu-maundikaT. Etxebarria'ren idatziak.

IRITZIAK.—Anitzek goratu dute T. Etxebarria'ren lana, beronen errikide J. San Martin'ek, ezta arritzekoa, batez ere. Onez gaiñ, biren aburuak beude emen.

P. Lafitte'k onela; «Toribio Echebarria ez da gero nor-nairi Eskoletan guri ibilirikan ere, hainitz irakurtzearen bortxaz, laster bildu zuen jakitate: kargu ederrak eman ziozkaten bai koperatifetan, bal herriko etxean, eta gostu hartu zuen izkiriartzén erdaraz eta euskaraz. Erdaráz filosofia eta zozialismoa aipatzen zituen. Sort-herriko eskuararen hiztegia eta aditza ere

bi liburu handitan ezagutarazi ditu, ez du hain aspaldi. Oraiko obra hau harrigarrietarik dela erranez ez gira espantu hutsetan ari. Jendeak hunkitzen dituzten gai guzietara hedatzen da, ala bizi, ala sendimendu, ala jakitate, ala sineste, ala zuzen, ala lur, ala heriotzé.

«Ez ditake erran nehoren filosofian arras emana dela, harén zozialismoa ere nehunerekoa da: alta harén erlisioea, nahiz Biblez hazia, ez dakigu nungo elizetakoa ditaken: bainan ezin aka baduela kar, eta dena bihotz dela. Eskuaraz ez dugu behin ere irakurri luma batetarik jalgirikako hoinbertze bertsu bizi eta gogoetagarri. Ez izanik ere Heine filosofiarekin hanbat adox, daukat erakusten duela bederen eskuarak jasan dezakela elhe perttoli batzuez bertzerik. Hori ere zerbait bada» (*Herria*, 1968).

Eta M. Zarate'k: «Azkue Eusebio ta Arrese Beitiaren anzera, erri-olerkari bat dogu Toribio. Eta Euskalerrria ta euskaldunak (Eibar eta eibartarrak, batez bere) ezagutzeko berebizikoak dira aren liburuak. Euskera aldetik bere, Azkue ta Arrese Beitiaren girokoa dirudi. Erri-erriko euskera darabil (Eibarkoa), erritarkeri ta guzti; eta itzez, aditzez ta esakeraz oso aberatsa da. Eibarko euskera «mordoUloaren» kontra berba egiten dabenak ixiltzeko erakutsi ederra» (*Bizkaiko euskal idazleak*, 196 orr.).

Eta nik, odolez Markiña aldekoa naizen ezkeru, au diot: Bizkai'ko euskal literaturan nausi dugun Prai Bartolome'k, Altube'k esan zigunez, «goitik asi ta beeraiño», eibartarren aditzera erabilli zuela bere liburu mamintsuetan. Gaiñera, T. Etxebarria bera ere, Aginaga aldekoa genduan, jatorriz.

(Ikus J. San Martin: *Ibiltarixanak*, itzaurrea; *Euskera*, 1963-1964, 53 orr., ta 1968, XIII, 283 orr.; BAP, 1968, 3 ta 4, 455 orr.; *Zeruko Argia*, 1968-5-5'an; *Escritores euskéricos*, 73 orr.; P. Lafitte, *Herria*, 1968; ta *Bulletin du Musée Basque*, 1967, 38 zenb., 179 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 193 orr.; Karlos Santamaria, *El Diario Vascos* 1968-4-28'an, Donostia; Auñamendi, *Literatura*, IIL 475 ori.).

12.—KINTIN MUXIKA OIARBIDE (1887-...)

Idiazabal'en jaioa 1887-10-30'an, «Petroliñarena» erriko elizatik urbil daukazu etxean: an zeukan bere amona Petronila Aseginolaza'k dendatxo bat. Kindin idazlea, ala ere, gaztetan bere gurasoekin Errenderi'ra aldatu zitzaizun eta emen bizi izan Goiko-kalean, eta gero Donostia'n. Amazortzi-ogei urtedun zala, osaba aiton zuen Andres Aseginolaza'k Argentina'ra eraman zuen onek an zeukan lanbide baten lagundu zezalon.

Komertzio-ikasketak egin zituen. Andoain'go alaba Teresa Goikoetxea'rekin ezkondu zan; lan egiñik poliki bizimodua aurrera atera zuen, eta gaur, zartzaro ederrean, nasai ta atse[^]gintsu bizi da bere seme ta bir-semeen itzalpean. Bizitz alperra berein gaitzen zulo dala-ta, eder zalo baratzeke zugaitz, lore ta ondoskoak zaindu, iñausi ta lantzea.

Ortaz gain, euskal literatura ere lantzen digu, «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos», «El Bidasoa», «Egan», «Herria», Montebideo'ko «Euskal Erria», Buenos Aires'ko «Euskaltzaleak», «Euzko-Deya», «Tierra Vasca» ta olakoetan euskeraz idatzirik. «Euskal Kulturaren Alde» deritzan alkarteak sariztatu zion *Katu Abarkaduna* (Paris, 1962) ipuia, gero Buenos Aires'ko «Tierra Vasca»-k argitaldua.

Nola idazten ote zuen? Nun-nal aurkituta ere, euskera ikasi ta idatzi dezakegula jakiñean jarri zaitezten, irakur zazu Idiazabal'dar jatorraren idaz-zati au. Euskal gaietan aitua zan, baiña emen gaixo dagoen adiskide nola ikusi bear dugun adierazirik idazten digu.

«Naigabe bat bezela datorkit oroipenera —dio—, azkeneko aldiz gaxo gaxo-etxean egon nintzan aldia. Asmo onakin bañan igarri gabe, erle mordo bezela, adizkide ta alde ordu guzietan nere inguruan ikusten nitun. Oean gaxo noizbalt egon ba zera, ba dakizu zer dan ori. Batzuek eta besteak, indarra ta poza eman nalean, beren egonaldiak azkengabe luzatzen dituzte ta zu arren alde egiteko, atsedeen pitin bat artzen uzteko esateko bildurrez.

Gaxoa ikusi nai dutenen nabaipena aundi erreza izaten dalako, gaxozaiñ eta sendagille berberak ere askotan zalantzan egoten dira zorrotz izateko.

«Gaxoetxetik irtenda sendagille ospetsu batí esan nion, ikusleek nolako estuasun aundian euki ninduten askotan. —Ikusaldiak? asarre—. Guzioren osasunerako biotz-miñ eta minbizia bera baño ere batzuetan okerragoak izaten dirala nere artean askotan uste izaten det. Astelen goizetan, oiturazko ikusaldia sendagilleak egitean, beren gaxo asko, batez ere aurrak, igandeko ikusleen istilluengatik gau txarra igarota gaizkigotuak arkitzen dituzte. Zergati ori beragatik gaxo askoren sendatzea asko luzaten da; ta batzuek iltzea, batez ere oraindik luze biziko liraken biotzetik gaxo dauden agureak, ez da gauza bakana. Sendiko urbillenak izan ezik, gañerako guzien, gelan sartzea debekatako ba litzaeike ez litzake gertatuko orrela» (*Bol. Amer. E. V.*, 1954, 106 orr.).

(Ikus N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 38 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 526 orr.).

13.—JULENE AZPEITIA ETA GOMEZ (1888-...)

J. San Martin'ek: «Azpeitia'tar Julene'n ipuiak erria zuzenki dute iturburutzat, ta bere eskuz eztiki apainduak dirá. Batez ere, aurrentzako idatziak. Julene'k bere bizi guzia aurren malxtra igaro du, ta, bere ipuin auetatik kanturako geran bezela, ongi ezagutzen du umeen mentalidadea» (*Amandriaren altzoan*, itzaurrean, 10 orr.).

IRAKASLE. Zumaia'n jaio zan Julene, 1888-1-8'an. Lenengo maillako Irakaskintzako maixtra, Donosda'n eta Bilbao'n ikasirik. Lenengo Bilbao'n erakutsi zuen, eta gero Abadiño'n eta

Astorki Etxabarri jaunen etxean, Bilbao'n eta Zumaia'n. 1911'an Valladolid'en egiñikako nor-geiagokotan lenengo zenbakia atera zuen, ondoren maistratza Ea'n egiñik.

1916'n Eskauriatza'tar Endika'reldn ezkondu zan, Mexiko'ra joanik: antxe asi zan euskeraz idazten eta «Arritokieta» bere izenordea erabilten: ango Euzko Batzokiak Iñaki Deunaren omenez, ospatu zuen jaietarako idatzi zuen. 1920lan Euskalerrira dator berriro, eta Bizkai'ko Aldundiak bere Auzo-Lkastoletarako iragarri zuen norgeiagoetan berau geratu zan aurren eta Ikastola oietako maistra guztien Buru izendatu zuten. Urrengo urtean, kargu ori utzi ta Zornotza'ko San Migel auzunean erakutsi zigun; gero, berriz, 1936'rarte, Abadiño'ko Mendiola'n eta Matiena'n beste ainbeste.

Irakasle arloan zintzoa izan zaigu beti, egiazko emakume bati dagokionez. Ona Julene Albizuri, Axpe'ko alaba jator eta irakasle aspergaitz izanak dioskuna: «Urte asko da Azepeitia'tar Julene irakaslea ezagutzen dodala. Abadiño'n zortzi urtetan, Matiena'ko Bizkai-Auz-&Ikastoletan, biok izan giñan irakasle. Zortzi urte aiek nere gogoan utzi eben oroipena ukastalotzaz, umeetzaz eta irakasleatzaz, ez zait iñoiz gutxitu... Azepeitia andreari maitasun aundi bi aurkitu dizkiot beti biotzean: bere gurasoen Euskal Erria, erri onen izkuntzaz (beti Ama Euzkera esateko oitura du), eta Euskal Erriko umeak, mutikoak batez be. Mutikoentzat aparteko era dau erakusteko, aziera ona biotzetan ereiteko, eta sentimentu onak euren gogoetan esnatzeko. Idazti Deuneko Jose'ren edesti ukigarrra eurai azaltzean ikusi dodaz amaika urteko mutikoak negarra begi-ertzean dabiela... Euskal Erriari deusan maitasuna, berriz, «Egunero Arrate'ko Ama'ren irratan» izendunean eta, Ama euskera biotzean zein sakon sartua daukan ikusi gentzake bere alde egin dauzan lanerarik, geien-geienak diru ordaiñ gabe».

Onela jarraitzen du oraindik; «Euskeraren alde lana egiten nekatzen ez dan emakumea da Julene Azepeitia. Ikastolan lan aundia egiten eban umeai bi gauza buru-biotzetan sartzeko:

biargiñak izan bear ebiela era dirua aurreztuteko oitura umeztatik artu bear zala. Biargiñak eta zintzoak ba'ziran, munduan defendiduko zireala esaten eutsen» (*Zuentzat*, itzaurrean, 9 orr.

Gerra zala-ta alderrai ibilli ondorean, 1947'an Bizkai'ko Diputazioak Gorliz'ko Aur-Osategian daüzkan eskoletan sartzen da; zigortzen dute, ta 1955'tik aurrera Markiña'ko Urberuaga'n irakasten du. 1958 ezkerero, ordea, maistra-oi, Durango'n bizi da.

EUSKAL IDAZLE.—Esan dugunez, 1916'an, Mexiko'n asi zitzaiGUN idazten. Errimiñak jota zebillen erbeste artan. Berak dio: «Ezkon berritan, Mexiko'n nengoelarik, beti nengoan lenagoko oroipenez errimiñak ikuturik. Izan ere, Iparragirre'ren bertsoa: «...egia, alde guztietan toki onak bal dira baña biotzak dio: zoaz Euskalerrira». Onelako gogoeta batean, nere senarrak galderu zidan: «Aizu; gauzak ondo irteren ba'digute, era uste dugun bezela, urte gutxi barru aberrirutzen ba'gera, zer egingo zenduke geure erriaren alde?». Eta nik beriala; «Zumaia'n Nautika'ko Ikastetxe bat egingo neuke; Lekeitio'n bezela, Portugalete'n bezela».

Matiena'ko auzo-ikastolan aurkitzen zala, 1925'an, Bizkai'ko AurrezH-Kutzak jarritako sariketan, bere «Instituciones pre y postescolares que pudieran crearse alrededor de las Escuelas de Barriada de Vizcaya» lanak irabazi zuen lenengo saria. Balta, urrengo urtean, Kazeres'eko «Caja de Previsión y excelencias del Ahorro» lanak jaso zuen. 1933'an «Kirikiño» saria eraman zigun «Euli baten edestia» lanarekin; urte berekoa du «Cómo puede el maestro contribuir al estudio dei Folklore vasco» itzaldia, Euska-Ikaskuntzaren udako Batzarrean.

Naiko idatzi du euskeraz, beti goxo ta argi. «Euzkadi»-n, «Argia»-n, «Euskera»-n, «Ekin»-en, «Yakintza»-n, «Egan»-en, «Zeruko Argia»-n, «Karmeb-en eta abar agertzen dira bere lanak. «Euzkadi»-n, esaterako, «Euzkotar umien aldez» saillean astero idazten zuen. Euskaltzaindiko urgazle.

Ona Julene'n idaztietan zenbait;

1) *Osasuna, merketza ta yanaritzaz* (Bilbao, 1922). Euskaltzaindiak saritutakoa. Editorial Vasca irarkolan. 54 orrialde. Sukalde liburua. Atsegiña ziñez, geroago ere zatika argitaratua.

2) *Irakurri maite* (Bilbao, 1932). Verdes-Atxirika'ren irarkolan. Lenengo ingurraztia, euskeraz ta erderaz, Euzko Ikastola Batzak aterata. Iru liburu ziran azaltzekoak, baiña guda zala-ta batez ere, etziran azaldu.

3) *Azeri jauna* (Bilbao, 1960) «Karmel» aldizkariaren babespean.

4) *Amandriaren altzoan* (Zarautz, 1961). Kuliska Sorta bilduman, 45-46. 178 orrialde. Egilleak eskeintza ta eskabi-dea: «Neure semea: Euskeraz idatzi detan liburutxu au, zure aitari ta zuri eskeintzen dizutet. Eta, ene seme, nere gurasoak neri egin ziraten, eta nik zuri egin dizutan bezela, zuk ere, zeure umeeri, euskeraz itz egitea eskatzen dizut biotz-biotzez».

J. San Martin'ek sarreran dion au ere jakingarri dugunik ezin uka genezake. «Arrigarria da, benetan —dio—, gure erriak agozko literatura orren aberatsa izanik, Mazkiz txiroa izan bearra. Era guztietako ipuñen jabe gera, ta bertan ditugu lenagoko sinismen, kondaira ta oñturen etorkizunak. Orregaitik, beti gustatu izan dira errian orrelako ipuñak; batez ere ongi eratuak arkitzen diranean. Ta oraingo auker bikain tajutuak eskeintzen dizkigu Azpeitia'tar Julene'k... Erri-miñez, 1949'tik 1952'ra bitartean idatziak dira Burgos'en maixtra zegoala. Ta, 1954'an, Euskaltzaindiak antolatu zuan ipuin sariketan bigarrenengo gelditu zan. Lenengokoa Aita Felix Bilbao'ren «Ipuin-Barreka» izan zan. Bata bezin bestea on-onak dira, gure artean idatzi ez diran bezelakoak, batez ere euskeraren aldetik... Julene'n gatza umeak zaletzekoa da. Bere moldeak orain baño lenagotik zuen euskal Hteraturan leku berezia. Maiz irakurri ditugu bere idazklak «Arritokieta» izen-ordezkoakin, ta 1956'an

Biarritz'ko *Eusko Kulturaren Alde* alkarteak antolatutako aurrentzako ipuin sariketan bigarren gelditu zan, «Goizeko izarra» ipuin politarekin».

5) *Ume euskalduna!*, euskeraz idazten eta irakurtzen nola irakatsi (Donostia, 1961). Donostiar Udaletxeko aretoan eman zuen itzaldia.

6) *Umien Adizkidia* (Bilbao, 1962).

7) *Odolak odolari dei* eta *Martxela* (Egan, 1969).

8) *Krabelin gorriak* (Egan, 1970). «Karmel»-en, *Auntza Baratzan* eta olako ipuin politik eurrez ditu.

9) *Zuentzat* (Donostia, 1974). Donosti-Aurrezki Kutxak. Argitaratzailea: «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S. A.». 217 orrialde. Aurrentzako ipui ta irakurgaiak. Eskeintza: «Zueri, Eskauriatza eta Bilbao'tar Jabier ela Alfonso; neure semearen seme, ta neure biotzaren zati ederrak zeraten illoba maiteak. Zueri eskeintzen dizutet liburu au, beti euskeraz itz egin dezazutela, bide batez, eskatuaz». Edorta Kortadi Olano'ren marrazkiak dakazki apalngarri.

Len aipatu dugun Julene Albizuri ta Armendaaz'en Gozenze'k onela: «Gaiak, erak eta luze-zabal-sakontasunak umeentzat neurtuta dagoz. Lan danak dira astunkeri gabeak, eta gai bat edo beste, naiz gaia azaltzeko era umeentzat aiñ ariñak ez dirala iruditu ezkeru, irakasleak ipiñiko dauz umeen adimenen neurrian. Nere ustez euskeldun umei euskeraz irakurtzeko zaletasuna sortzeko liburu berarizkoa da» (10 orr.).

IRITZIAK.—j. San Martin'ek: «Euskera erreza du, batez ere umeentzako bezelakoa (baita nagusi askok ejenpluztat artzeko bezelakoa ere), apaltasunez egiñak baña bizi-biziak... Urri dira euskeraz «Amandriaren altzoan» bezin liburu onak aurrentzat. Geiago esango nake; oraindik zentzunera sartzeke dauden umeentzat ere euskera trakets ta baldarrean egindako liburuak ikusten ditugu, pedagogiaren funtsik gabe» (*Sarrera*, 10-11 orr.).

Eta L. Mitxelena'k liburu berbetan buruz: «Azpeitia'tar Julene andrearen izena ongi ezaguna da euskaltzaleen artean. Mesede asko egin dizkio leen gure izkuntzari, baiña bear bada guztiak baiño mesedegarriago izango delakoan nago azkeneko Iburu au... Aurrei dagokienez, eztut zalantzarik, neronek ikusi baitut zein gogoz eta erraz, artzen dituzten. Eta orixe zen bearezkoena» (*Egan*, 1961, 1-3, 150 orr.).

(Ikus *Yakintza*, 1935, 14, 93 orr.; J. San Martin, *Amandriaren itzaurreta ta *Escritores euskéricos**, 47 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1961, 150 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 527 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 418 orr.).

14.—ERROBUSTIANA MUXIKA EGAÑA (1888-...)

«Teñe» izenordez ezagunago dugun euskal idazle ta olerkaria trebea. Emakume idazle guztiak legez, ezpiritu goxo leun baten jabe da, ta aren lumatik irtendako oro ere, idatziak lekuko, orrelaxe dituzu.

Deba'n munduratua 1888-5-24'an, eta bertan, bere jaioterri muñuñu pontean eta beretarren artean, jatekoz ornidutako denda baten arduradun, bizi izan da bere bizitzaldi luzean. Argi ta azkongea, astia izan du orrez gaiñ, artu ta utziaz, euskal ian txaixoak osatzeko ere. Biregarro iduri, tarteka marteka sarri egin dizkigu kantaldi ederrak. Bertsoz ta itz askatuz egin ere. Aren lanetatik, sarituak ez dira gutxi izan.

EUSKAL IDAZLE.—«Euzkadi»-n, «Argia»-n, «Gure Herria»-n, «Jaungoiko-zale»-n eta olakoetan agertzen dira Teñe'ren idazlanak. Aldikada baten naiko ugari, izatez ere.

Ona banazean argitara dizkigun lanak:

1) *Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak* (Zornotza, 1923). «Jaungoiko-zale irarkolan. 126 bat orrialde. «Euskaltzale Bazkuná»-k saritutako lana. Opalitzat: «Zuri, Itziar'ko Ama Nes-

kutza maite orri opaltzen dizut, nere lenbiziko idazki au. Ar zazu maitez, eta onetsi, euzkeldun emakume artean, Jel-aldez emaitz ederrak bildu ditzan».

XIX idazki ta ogei ta bi olerki dira guztiz. Euskaldun emakumeai batez ere au diotse itzaurrean: «Ara emen idazti baten bilduta, «Miren Itziar»-! zuzendu nizkan Jel-aldezko idazkiak, baita nere olerki txiroak ere, «Aberri» eta «Zargaste» euzkel idazle argi eta abertzale sutsuen asmoan erantzunaz, zuen, ainbeste abertzale zindoen laguntasunari eskerrak. Lenago ere eza-gutzen dituzue; eta ez bertan billatzen ibilli elertiaren bikaintasunik, ezta jakintza sakon baten irakatsirik, ezta ere gogo-epantsuen gorargirik; ezer orrelakorik ez dezute arkituko-ta. Eakar-bakarrk billakatu Aberria maite-maite duan biotz baten naimen cna; bertan arkituko dezuten guzia onexek arazia da-ta».

Idazki labur sakonak dituzu, euskaldun ama diranai zuzenduak bareziki. Auek Aberria ta bere izkuntza maite izaten erakutsi bear die beren seme-alabak Ederki dio: «Euzkeldun eta ama: zer geyago bear du emakume euzkotarrak bere ele aldez lanik ederrena egin al izateko? Bere umetxuak euzkeldun eta euzkeltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garrantzi aundidun bat, eta euzkera aldez eragioen aundidun bat. Amaren magalian ikasitako izkuntza oi du geyen-geyenean gizonak izkuntz berea, eta amaren magalian maitatzen ikasitakoa, beti maiteko duen izkuntza; eta auxe da euzkerak, biziko ba'da, bear-bearreko duana: bere eletzat artu eta maitatuko duten semeak. Abek, berriz, dasakizudan bezela, emakumeak eman lezaizkio iñork baño obeto, osoago, beretzakoago» (52 orrialdean).

Olerkiak berdin, xalu ta gozo egiñak daude, neurkera ugariz, nalz arrantzaleak naiz amonari, naiz ikazgiñai, naiz biotz maitaleai zuzenduak. Bere garaian izan zuten olerkiok arrakasta ta atzerik. Watson Kirkconnell jaunak esaterako, bere olerki liburu *European Elegies* (Otawa, 1928) osotu ta argitaratu zue-

nean, Tene'ren *Udazken-ala* artu zuen bilduma artarako, ingelera jarrita. Zazpi ahapaldi dauzka poema era yaukalean egiñiko onek. Ona bostgarrena:

«Amaitu dira, bai, neska-mutillen
itur-ondoko egonak,
gogorki ditu ba ortik bidaldu
euriyak edo bisutzak.
Ai, bai luze itunak maitalientzat
neguko gau illun baltz-baltzak,
ames egitera deitzen ez ba'leu
sukalde zarreko suak».

2) *Gogo-oñazeak* (Tolosa, 1934). Lopez-Mendizabal'enean. «Antzerti», 34-35-36 zenbakiak. 72 orrialde. Iru ekitaldidun antzerkia. «Antzerti» aldizkariak antolatutako II'garen antzerki-sariketan lenengo saria ••—250 laurleko— eraman zuena. «Lan txukun eta ederra —zioten epai-maikoak—. Gertaera egokiak eta esakera-egikerak areago. Ongi, mamiz eta joskeraz. Lenenatalean ez lituke gaizki, baño, zenbait laburtu-aldi ta emazte. Euskel antzerti barrutian «aurrera» dionetakoa da antzerki txalogarri auxe». Talde askok eta toki askotan antzeztu izan dute.

3) *Gabon* (Tolosa, 1935). «Antzerti», 46 zenbakian. Umentzako antzerkia. Au ere, 1934'an Tolosa'n ospatu zan II'garen antzerti-sariketan, bakarrizketa, aur-jolas edo antzeko lantxoak saillean, saria —75 laurleko— jaso zuen ekitaldi bateko antzerkia. Epai-maikoak: «Umientzat antzerkitxoa» dio egi-lleak. Ta egiz, alaxen dala esan beariko. Tajuzkoa, bai gaiez, bai iraute-neurriz eta bai ikasbidez. Euskera polit-erreza». 13 orrialde. Au ere malz emana da. 1957'an A. M. Labaien'ek onela idazten zuen «Egan»-en: «Tolosa'ko gazte-talde batek *Bixente* Pepe Artola'rena ta *Gabon* Teñe andereñoaren aur-antzerkitxoa «bota» digute ta oso ederki asi berriak izateko».

4) *Juan Jose* (1936). Iru ataldun antzerkia. Lan ontaz onela idazten dit Tene'k: «Ni, 1936'ko jorraillean, Oñati'n

egin zan «Asamblea Mariana Diocesana»-ra aurkeztu nintzan, «Certamen Literario» saillera. Amabi gai ziran, batzuk erderaz, besteak euskeraz. Nik bidali nuan iru ataidun antzerki bat, JUAN JO'SE, saritua izan zan. Gai bakoitzerako sari bat bakarra eta nereak berea irabazi zuan. Diruaz gaiñera «Diploma» eman zidaten On Mateo Mujika ¡Gotzai jaunak izenpetuta, berak eman ere. An laister, illabetera, gure guda. Gu bezela gure Gotzai jaunak emendik alde egin bearra izan zuan Prantzi'ra. Gazteiz'en beste Gotzai berri bat eta beste kontu batzak... Ez beintzat euskerarentzat onak. An galdu zan nere antzerkla, ta beste askoren lanak» (Deba'tik, 1973-ren Abenduak 5).

5) *Cuadernos de vascuence hablado* (Zarautz, 1968).

Labur: ainbat ipui ta lan arin ditu or-emen sakabanatuak, Deba'ko erri-jaietarako atera oi izan dan egitamuan batez ere.

1964'an Ondarru'n ospatu zan literatur batzaldian, «Nekazari bizitza» sailleko saria Tene'k jaso zigun. Sari au dala-ta, Tene'k berriro: «Gerora, Don Domingo Agirre jaunaren eunurte-urrenean, Ondarru'n Lore-jaiak egin zituzten 1964'an, idazle berezi onen omenez. Jaialdi onetan, euskeraz ta erderazko elerti sariketa izan zan. Nik bidali nuan nere lan bat gai ontara: «Premio a la mejor narración en euskera sobre la vida rural vasca», eta sari au irabazi nuan».

Lan guztiokatik itzal aundia izan diogu beti debatar euskal idazle xamur liraiñari.

(Ikus Oxobi, *Gure Herria*, 1[^]2[^], 576 ta 624 orr.; S. Onaindia, MEOE, 848 orr.; Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1966, 66 zenb., 144 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 133 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 174 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 530 orr.).

15.—JOSE RAMON IRIGOIEN IRAZU (1888-...)

Ordenako oiturari jarraituz, garai artan batez ere, Oiartzun'go Joxe Mari Aita zan deitua. Oiartzun'en munduratu zan 1888-11-19'an, Lekarotz'en jantzi zuen kaputxino soiñekoa 1905'an, urrengo urtean Sortzez Garbiaren egunean profesia egiñik. Ondarrabi'n ikasi zigun Jakintza ta Iruña'n Teologia, 1914-12-20'an mezakoturik.

Ondoren Altzatu'n egon zan latin ta ingurukoak ikasten zeuden mutilen irakasle, ortan jardunik 1924'garren urterarte. Urte ortan nagusi egin zuten Sangotza'rako, ta ola bateko edo besteko komentuetako nagusi jarraitu zuen zori txarreko gerrararte. 1937'garreneko azaroan Txile'ra joan zitzaigun mixiolari, euskal errietan etzuela erderaz predikatzea gura, saiatzen zutelako. Txile'n ere emengo ta ango komentuetan buru izan zan sarri; baita komentu oroen gaiñeko aolkulari ta gazte asiberrien zuzendari ere. 1955'an Euskalerrira itzuli zan berriz ere, an naiz emen arimen artean lan ederra egiñik.

EUSKAL LANAK.—Idazle aspergaitza. «Zeruko Argia»-n datoz batez ere aren lanak. Aldizkari eder onen asieratik asiztzaizun Aita Oiartzun, «Oyartzuna» izenez, etengabe idazten. Ipuintxo politak eder zitzaizkion, gaztetxoai zuzenduak, argi, garbi, errez ta arimatar osotuak. Batez beste «Zeruko Argia» argitara izan zan urte guztietan, urte bakoitzean sei bat alako lantxo izan oi ziran. Aldizkari onen bigarren aroan ere, 1954-58 urtetan alegia, berdin lan egin zizun. Onen ipuin-bildumakin liburu txanbeliña osatu dezakegu, gaur bizi-bizi darabilgun ikastola arazotan umetxoai laguntzeko sorta bikaiña izango litzake noski.

Beiñola, guda aurretik, 1935-6-2'an, «Euskaltzaleak» bazkunak gorasarre polita eskeiñi zion *LoramendVú* Bedoña'n, oleriti eguna ere bertan ospatuz, eta olerkari il-berriaren etxean arri-

orogaillu eder bat jarririk. Egun artan Olano gotzaiak esan zuen mezea jendeketa gaitzaren aurrean, eta Oiartzun Aitak izan zuen mezako itzaldia.

(Ikus *Zeruko Argia*, 1963, dagonillak 18, 25 zenbakia; Auñamendi, *Literatura*, III, 481 orr.).

16.—JOSE MIGEL BARANDIARAN AIERBE (1889-...)

Euskalerrian, gure gauzai buruz, gure Etnolojiz —erlijio-salllean bereziki—, Euskalerriko Arkeolojiz ta euskal gizabidez, gutxi bezela urte askotan lan egin digun gizaseme argi, trebea.

Adi, otoi, Gazteiz'ko apaiz-ikastetxean beronen ikasle izan zan Anastasio Arrinda'ri: «Don Jose Miel'en irurogei urteko lanak, zeinek neurtu? Berak idatzi dituen aiña orrialde bearko giñuzke... Irakasle izana degu Gazteiz'ko Seminario Aundian, eta bera an zegoan artean izan zun Seminarioak bere aunditasun berezia. «Gimnasium» eta «Idearium» aldizkariak (Seminario-koak, alegia) ortxen daude lekuko eta testigu... Mutil gazteak giñan garai aietan, burruka garaiko mutil gazteak, bizarra laban aundiakin ebakitzen genduenak.

«Giroa zegon aire guztietara zabaldua. Burruka giroa; burruka agintaritzaz lortzeko, burruka kalean nagusi gertatzeko, burruka ideolojiak zabaltzeko, burruka ekintza guztietan. Munduko aize zabalak gure erritik pasa oi ziran; baiña, argi ta garbi, sator-jokorik gabe, mozorro-jantzirik gabe. Bakoitzak ba-gene-kigin nor zein zan eta zer joka-bide zeraman.

«Burruka-giro artan Don Jose Miel genduan argi-emaille. Berak gure begi-bista zabaltzen zigun. Kultura gaietan eta gizarte-arazo guztietan bera gendakan leio-irikitzaile. Gure buruko ikusmena 180°tan zabaltzen zigun mundu zabaleko arazo guztietan. Nik ez dut orrelako ezitzaillerik izan beste bat. Izketaldi bakoitzean zekarkigin berebiziko argi-aberastasuna. Esko-

latik at ere artu-emanak giñuzten alkarrekin, eta alkarte bakoi-
tzeko krisallu bat pizten zigun gure buruko ganbara illunean»
(*Kardaberaz-3*, 1974, 42 orr.).

BIZITZA.—Ataun-San Gregorio'n munduratua dugu 1889-
12-31'an, «Perune Zarra» deritzaion etxean, Murkondo aldean.
Gaur «Sara» etxe berrian bizi da, Aralar saietseko trokarroan
noski, Euskalerra osoko argi dizditsu dalarik.

Nun egin ote zituen bere eliz ikasketak? Baliarrain'en, Gaz-
teiz'en eta Burgos'en; ikastaldi bereziak, ordea, Paris'en, Kolo-
nia'n, Leipzig'en eta Bruxelas'en. 1923-36 tartean Gazteiz'en
irakasle, Agirre-Ikastetxeko buru ta Ikastetxe nagusiko Buru-
ordezko izanik. Euskaltzain osoa, ta Espaiña'ko Akademian baz-
kide 1926'tik. Ainbat itzaldi egiña Euskalerrian, Barzelona'n,
Zaragoza'n, Madrid'en, Santander'en, Salamanka'n, Paris'en,
Bruxelas'en, Oxford'en, Holanda'n, Oporto'n eta abar. Euska-
lerrian eta erbestean ainbat tokitako Iker-sailletako bazkide.

Itziar'ko Urtiaga leiza-zuloan lanean ari zala gertatu zan
1936'eko guda zalaparta. Prantzia'ra alde egin zigun, eta emen
Lapurdi ta Eaxenabarre inguruan berriz ere lanari, folklore ta
arkeoloji iker-lanari ekin zion gogotsu. Sara zuen geienik bizi-
leku, ta eskualde zoragarri oni buruz amaika gauza eder argitar
ratu zigun «Ikuska» ta «Eusko-Jakintza» beronek sortu ta zu-
zenduriko aldizkarietan. 1953'an etorri zan, ostera ere, bere
txokora; eta geroztik Ataun'en daukagu, biotzez maite duen
bere sorterrian. Or eta emen, amaika goratarre egin dizkiote
azken urteotan. Baita merezi ere.

EUSKAL LANA.—Edu askotan egin genezake geure erriaren
alde. Azkue zanak bere iztegi, gramatika ta or-emengo eleza-
rrakaz, eta Aita Donosti'k erriaren ezpan-gain dardarati zebil-
tzan kantu-biltzez, beuren erriaren arima gaizkatu nai izan
zuten bezela, Barandiaran'ek ere Euskalerraren joana, Etnoloji

ta Arkeoloji ikerpenez, salbatu nai izan zigun; eta or dauzkagu gaur bere 260 idazlanak, **Retana** jaunak «Obras Completas» izenburuakin 14 ale lciditan argitaratuko dizkigunak.

Ataun'go «Tentil-baratza»-n asi zitzaigun lanean, 1916'an. Andik laster izan zuen artu-emana Arantzadi ta Eguren jaunekin; arrezkero, irurak batera jokatuko zuten arkeoloji-lanetan. 1921'tik «Euzko-Ikaskuntza»-koa dugu; urte berean sortu ta zuzendu zigun, gaur ere oraindik jarraitzen duen «Eusko Folklore», euskal gauza zar saillean esan ezin alako lana egin diguna. 1922'an Tilburg (Holanda)'n ospatu zan Uzkuertz-ernolojiari buruzko Laterriarteko Batzarrean esku artzen digu, geroztik beste olako askotan bezelaxe.

Aldizkariotan idatzi du: «Idearium» (1934), «G-immasium» (1927), «Eusko-Folklore» (1921), **RIEV**, «Paideuma», «Zephirus», «Surge», «Euskalerriaren Alde», «Euzkadi», «Gure Herria», «Munibe», «Yakintza» (1933), «Eusko-Jakintza» (1947), «BISS», «Ikuska» (1946), «BSVAP», «Egan», «Euzko-Gogoa», «Vizcaya», «Bulletin du Musée Basque», «Euzko Enda», «Gernika», «Anales del Museo dei Pueblo Español», «Boletín de la Institución Sancho el Sabio», «Enciclopedia» de B. Estomés Lasa, eta abar.

Erderaz ditu bere lanik geienak: 1) *Ataun en la Edad Media* (Donostia, 1916). Euskalerriaren Alde'n dator, 1916, 486 orrialdean; 2) *Breves instrucciones para el investigador folklorista* (Gazteiz, 1921); 3) *Apuntes de Geología* (Gazteiz, 1932); 4) *Breve historia del hombre primitivo* (Gazteiz, 1931); 5) *El hombre primitivo en el País Vasco* (Donosti, 1934); 6) *Huellas de artes y religiones antiguas del País Vasco* (Gazteiz, 1935); 7) *Mari, o el genio, de las montañas* (Donosti, 1928); 8) *Mitología del Pueblo Vasco* (Gazteiz, 1921-1928), iru ale; 9) *La religión des anciens Basques* (Enghien-Beljika, 1923); 10) *El hombre prehistórico en el País Vasco* (Buenos Aires, 1953); 11) *Mitología Vasca* (Madrid, 1960); 12) *El mundo en ja mente popular vasca*, lau ale (Donosti, 1960, 1961, 1962 ta 1966); 13) *Obras*

Completas, amalau ale. Lenegoa; *Diccionario ilustrado de la Mitología Vasca y algunas de sus fuentes* (Bilbao, 1972); Bigarrena: *Eusko-Folklore* (Bilbao, 1973); irugarrena: *Ikuska 1.*", *Artículos y Conferencias* (Bilbao, 1973); laugarrena: *Ikuska 2.*", *Monografías de la vida popular* (Bilbao, 1974); bostgarrena: *Ikuska 3.º*, *Monografías y comunicaciones a Congresos Internacionales* (Bilbao, 1974); seigarrena: *Ikuska 4.ª*, *Artículos y comunicaciones a Congresos científicos* (Bilbao, 1974), eta abar.

Euskeraz ere ederto daki, ta lumaz orretan aritakoa dugu. Ona liburu bezela argitaratu dizkigun euskerazko lan batzuk: 1) *Eusko-Mitología* (Bilbao, 1922), «Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak»-en eta Donosti, 1924'an; 2) *Euskalerriko Leen-gizona* (Donostia, 1934), ta *Eskual-H erriko Leen-Gizona* (Baiona, 1942). «Aintziña», III, 11 orr.; 3) *Ele zaar* («Eusko Jakintza»-^ 1947-195), zazpi lan; 4) *Eusko-mitologiaren ikaspiderako* («Euzko-Gogo», 1954-55), A. Ibiñagabeitia'k euskeralduta; 5) *Axular'en itzala* («Gure Herria», 1957, 97 orr.). Eta gaiñerakoak.

Amaira dezagun bizi ta lan-zeazketa labur au, asieran aipatu dugun idazlearen itzakin; «Aranzadi eta Eguren, Arkeoloji gaietan, Don Jose Miel'en lagunak ziran; baiña, Etnolojiak berari zor dio bizia Euskalerrietan. Berak jaso zituan il-zorian zegoen euskal-animaren zantzuak, eta bera izan da arlo onetan lan egin dutenen suspertzaille eta gidari. Betirako galduko ziran Euskalerra zaarreko animaren agerpenak berak jaso zituan eta oiekin Arkeolojiaren bideak argitu. Nik uste, gure Erriak ez diola zor diona sekulan ordainduko». Gezurra diola begitantzen al zaizu?

(Ikus, labur zurrian, *Homenaje a Don José Miguel Barandiaran*, Auñamendi «Anexa», 1963, 4 ta 5; Espasa, *Apéndice* 1957-58, 58 orr.; *Gran Enciclopedia del Mundo*, Bilbao, 1967, 502 orr.; Pedro Anasagasti, *Aranzazu*, 1963, iraila, 258 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 534 orr.; Juan San Martín, *Escritores euskéricos*, 49 orr.; Jon Bilbao,

Eusko Bibliographia, I, 446 orr.; Auñamendi, *Diccionario*, Balzola-Bi, 91 orr.; J. M. Retana, *Obras Completas*, itzaurrean; A. Arrinda, *Kardaberaz-3*, 42 orr.).

17.—KATALINA ELEIZEGI MAIZ (1889-1963)

Donosti'ko alaba, emen bait zan ludiratu 1889-4-6'an. Emakume ona ta euskaldun jatorra. Gaixotia zan umetatik, bizitzak iraun ziona iraun zion sortzetik zekarren biri-odietako marrantak ere; arnas-neke ori gora-bera, orraitio, ba-zuen kemenik euskal zelaian lan egiteko.

Burgos'ko Maixu-Ikastetxean osatu zuen bere karrera, maistra karrera nunbait. Eta ondoren, osasun griñatan beti, **Donostia'n**, **Oiartzun'en**, **Bidania'n**, **Amasa'n**, **Ituren'en**, **Burgos'en**, **Madrid'en** eta azken ogetasei urteetan **Lizarra (Naparroa)'n** bizi izan zan. Berton il zan 1963-11-19'an.

Arimaz onak diranak, edo-ta gorputzez gaizpera, minxko, auetakoak errez jo oi dute aizkurtz-altzora beren neka ta oiña-zeen aringarri billa. Katariñe guttiz Jainko-zalea izan zan bere bizitzako egunetan. Asko irakurtzen zuen, eta atsegin zitzaizkion oso literatur-gaiak. Baita sarri urbiltzen zitzaizkion lagunekin alkar-izketa gexoa ere, gogoko zuen.

TEATRUGILLE.—Emakume argia zan. Euskera maite zuen. Eta irakasle karrera amaituta laster asi zitzaigun antzerki idazten. Ogetazapi urte zeuzkanerako sariztatu zioten lenengo teatru-lana.

Ona aipagarri lau antzerkiok bederik:

1) *Garbiñe* (Tolosa, 1917). Lopez'enean. 74 orrialde. Iru egintzetan eratutako antzerkia. 1916'an **Donostia'ko** Udaletxeak antolatu zuen teatru-batzaldian saritua, ta 1916-12-21'an **Donosti** bertako Teatro Printzipalean lenengoz emana, eta geroztik ere oso sarritan: **Gaztelu'ko** «Gazte Alaiak» bereziki **Ordizia'n**, **Tolosa'n**, **Ernani'n**, **Beizama'n**, **Gaztelu'n**, **Azpeiti'n**,

Urretxu'n, Zizurkil'en eta abar antzeztu dute. Amabost bat urte dirala, onela idatzi zigun A. M. Labalen'ek: «Goierriatik Beterrira ibilli ta gero gure antzezlari-taldeak aztertzen Gaztelu'koak aipamen berezi bat merezi dutela esango nuke. Gipuzkoa'ko errixka txikienetakoak izanik garalenetakoan artean gallendu da. Urte guzian zortzi ala amar jaialdi eratuko zituzten. Etxean ez ezik etxetik kanpo geienak. Lau bost bat antzerki-lan berri ikasi dituzte. Bateren bat luze ta joko-lagun ugari duna «GARBIÑE» bezelakoa» (*Egan*, 1960, agorra).

2) *Loreti* (Donosti, 1918). Loiola'tar Eneko Deunaren irarkolan 102 orrialde. Iru egintzetan egiñikoa. Donosti'ko Udalak 1917'an eratu zuen Euskal batzaldian saritua, eta uri bertako Teatru Printzipalean 1918-12-21'an antzeztua.

3) *Jatsu* (1934). Iru ekitalditako drama. Naparroa azpiratu zueneko du gal.

4) *Erauso'ko Katalin* (Argitaratu gabe).

Arras ongi artuak izan ziran Eleizegi'ren antzerki-lanak. «Antzerti» aldizkariak onela idazten zuen 1932'an: «Eleizegi'tar Katariñe andereñoak oso tajuz kondaira-antzerkia lantzen du: «Loreti» ta «Garbiñe»-k arrera ezin ohea ta txalotuak izan dira toki guzietan» (*Antzerti*, 1932, 13 orr.).

Eta urteak aurrerago: «Gala beste batzak ere erabillia izan arren, Pérez Galdos'ek esaterako bere «Marianela»-n, egilleak antzez-lagunak margoztean euskal ikur berezia ezarri nai izan die, ta giro ortan doa antzekizun osoa.... Ezta lipar batean ere aultzen auziaren gero ta indartzenagoz dijoan lillura; elkarizketak egillearen asmamena ta leuntasuna ditu nabari, ta izkera aldetik jatortasun ikasgarria diragarkigu. Nor dugu egille au? Eleizegi'tar Katariñe andereñoa; goi-goitik dabillen antzerki lana osotu digu, ospe aundiko teatrugilleak ere doi-doi gaintitzen dituzten uarri ta eragozpidetako ederki azpiratuz. «Garbiñe»-k ez dirudi asi-berri danaren lana, eldu dan baterena

baizik. Ortik atera daiteke Eleizegi andereñoa, astean, eldu egin dala» (T. Altzaga, *El Liberal Guipuzcoano*, 1917-12-24).

(Ikus A. M. Labayen, *Teatro Euskaro*, II, 58 ta 165 orr.; N. Kortazar, BAP, 1963, 371 orr., *Herria*, 1964-1-23, 3 orr., ta *Cien autores vascos*, 53 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 45, 140 ta 188 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 76 orr.; Gaztelu, *La Voz de España*, Donostia, 1963-11-27; Auñamendi, *Literatura*, III, 430 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, 112 orr.).

18.—ISIDOR EZENARRO GOENAGA (1890-1961)

Kaputxinoa. Lizartza'ko Ander Aita. 1890-2-3'an jaiotako zana Tolosa'tik urbil, Lekunberri'rako bidean, Araxes errekoan datzan Lizartza'n. Lekarotz'en len-ikasketak egiñik, Sangotza'n kaputxino soiñekoa artu, eliz-karrera osotu ta Iruña'n apaiztu zan 1914-12-20'an. Ondoren Ondarribi'n Filosofia irakatsi zuen, gero urte batzuetan Lekarotz'en batxiller-ikasleen maixu izan zan.

1926-9-10'an, nagusien aginduz, Txina'rako bidean jarri zan. Berarekin zijoan Aldaba'ko Gregorio Aita ere, geroago Larrañaga gotzai izango zana. Txina'n, Pingliang'en ibilli zan mixiolari erne, 1952 urtera arte. Urte onetan, Mao Tse-Tung'ek andik botata, Euskalerrira itzuli zan. Bederatzi azken urteak Ondarribi'n igaro zituen. Aste betez min-biziaz eri egonik, 1961-3-29'an il zan.

EUSKAL IDAZLE.—Lizartza Aita euskal idazle ona zan, balña, tamalez, etzuen berak aal alna ta nal aiña idatzi. Irakasle zala noizean bein idatzi oi zuen «Zeruko Argia»-n; Txina'ra joan zanez gero, berriz, urriago idatzi zuen, nalz-ta beti zer-txobait. Euskera asko ta ondo zekian; euskalki guztiak ezagutzen zituen. Eta trebetasun ederra zuen labur ta poliki idazteko. Ba-zuen akats bat: bere buruaz iritzi apalegia zuela; besteak berak baiño obeki idazten zutela, uste zuen beti.

«Zeruko Argia»-n eman zigunetik gaiñera, bereak ditu lanok:

1) *Mendiburutar Sebastian Aita* (Bermeo, 1926). Gaube-ka'ren irarkolan. 12 orrialde. 1923'gn. urteko iraillean, Euskal-tzaindiak Donoztebe'n eratu ta ospaturiko euskal jaietan irakurritako lana.

2) *Apuntes léxicos de la Traducción bajonavarra de «Alfonso Rodríguez»* (1782). Donostia, 1967.

3) *Eliz-itzaldiak*. Berak or-emen egiñak dituzu, eskuz idatzita. Garbi ta argi. Yurre'tar Julen Aitarenak dira gaur.

(Ikus *Bigarren Euskal-egunetako itzaldiak*, Bermeo, 1926; *Anuario del Seminario de Filología vasca «Julio de Urquijo»*, I, 1967; Aiaa Yurre'ren oarrak).

19.—AGUSTIN ANABITARTE IRATZU (1891-...)

«Euskal literaturan nabarmendu diran eleberri idazleetatik bat dugu Augustin Anabitarte», dio N. Kortazar'ek.

Donostia'n jaioa, 1891-11-20'an. Gaztetan ikasi zuen b:re ogibidetza, salerosketa batez ere, ta ortik bizi izan zaigu. Ikusmiñetan, lurralderik lurralde ibillia, Afrika'n batez ere.

EUSKALTZALE.—Euskaltzain urgazle. Ta «Euzkadi»-n, «Euskai Esnaiea»-n, «Gipuzkoarra»-n, «Euskera»-n, «EID»-en, «Gure Herria»-n, «Argia»-n eta «RIEV»-en idatzi izan digu.

Ona argitalduta dauzkan lan batzuk:

1) *Espartiña, Euzkadi'n sortua al da?* («Euskal Esnalea», 1918, 143 orr.).

2) *Gernika'ko Batzarra. Oroitz samurra* («Eusko Ikaskuntzaren Deya», 1922, IV, 15'gn. zenbakia, 15 orr.).

3) *Kirolak. Igariketa* («Euskal Esnalea», 1919, IX, 63 orr. eta abar).

4) *Euskeraren batasunaz Azparren'en irakurritakoa* («Euskera», 1922, III, 83 orr.).

5) *Neska-mutilleri dirua aurreratzen erakusteko* (Donostia, 1923). Eneko Deunaren irarkolan. 45 orrialde.

6) *Antziñako Olimpiar jolasak* (Donostia, 1925). Martin eta Mena'renean. 52 orrialde. Balta ba-dator lan au «Itzaldiak», 1926, IV, 1-50 orr. ere.

7) *Don Kijote-ren atal bat euskeratuta. IX'g. atala* (RIEV, 1928, XIX, 608 orr.).

8) *Usauri* (Bilbao, 1931). Editorial Vasca'k aterata. 146 orrialde. Euskaltzaindiak, 1929'an, jarritako «Schuchardt Saria» irabazi zuen irakurgaia. «Euskera» aldizkarian (1930, XI, 3 orrian asita) ere ba-dator.

9) *Donostia* (Bilbao, 1932). Editorial Vasca'k irarri zuen. 153 orrialde. Euskaltzaindiak antolatu zuen «Schuchardt Saria», 1932, eskuratu zuen nobela onekin ere. «Euskera»-n ere badaukazu, 1933, XIV, 101 orrialderik aurrera.

10) *Poli. Mutil umezurtz baten ibillaldiak* (Zarautz, 1958). Itxaropena Argitaldaria. 139 orrialde. «Kuliska Srota»-n dator, 23-24'garren zenbakian.

Nobela au dala-ta, ona egilleak: «Poli-k emen esan baño galztakeri geiago egin zituan. Ala ere, naikoak. Bakarrik munduan, gurasoak aldegiñak, ikasbide onik ikusi ez, barkagarria zaigu Poli. Ain bakarrik ere, eskerrak bere buruaren jabe zala. Ain jabe ere, nai zuan aldera jotzen zuan. Jo ta utzi, ostera jotzeko. «Igual» ara, onera bearrez. Zer gogoak eman, bizimodu berria gure mutikoak. Aguro aspertu. Bide berria artu ta lenagokoa iñori ezere esan gabe utzi, nai zuan artan bertan. Beñere ez sari-zai. Gaztetandik ernetu bear izan zuan bere burua. Bearrak asko erakusten du. Goizero zer jan arkitzen bazan ere, ez iñoren mende. Bakarrik munduan asi zanean —berak noiztik jakin ez— gazterik asko, bere aaiez billatu bear izan zuan bizimodua. Ta atxituta ere errez laga, beti esku-utsik ibilliarren. Jainkoak bearra berdintzen duala baleki bezela ibiltzen zan. Txoriaren irudi berbera zan» (*Asi-itza*, 7-8 orr.).

11) *Aprika-ko Basamortuan* (Zarautz, 1961). «Kuliska Sorta» 49'garren zenbakia. 105 orrialde.

12) *Patrones y capitanes de yate* (Donosti, 1958). Erderaz.

IRITZIAK.—N. Etxaniz'ek: Oraintxe irakurria nazue POLI irakurgaia. Bere ariñean, errez eta pozik irakurtzekoa benetan... **I**xillik egona ainbeste urtetan, berriro emen datorkigu bere ale atsegiña eskaldunoi eskeinka. Ordu onean! Euskal-giroa mami-tzeko ezta txantxetako lana. Oraindik, egia esan, gure gallurrera ezker a eldu; baña aldapan gora daramagun bide onetan, laguntzalle ona dateke onoko liburu berri au... Euskera gozoa ta erreza du geienetan. Kontatzeko grazia ere, ezta txikia. Pozik dijoa gogo liburu onen orrietan. Akats txiki batzuek eztituanik, ezin ukatu. Gure zorioneko aditz orrek kokka batzuetan irrist eragiten dio idazle jatorrari. Irakurri bezela, lerrotxo batzuek liburu-ezpañetan egin dizkiot. Ona bat edo beste: «Poli'k ezin ZUAN iñola ere biak alkartu»; ZITUAN jarri ba-lu, zuzenago, noski. «Txalupa neska lirain baten antzeko igidura zerabilkian»; TXALUPAK jarri ba-ligu, egokiago zitekean. ZERABILLEN ere, norbaitzuek ZERABILKIAN baño jatorragotzat ar dezakete. «Naiago zuten azalduko BA-ZAN...»; AZALDU IZAN BA-LITZ, obeto josia ez ote, aurreko ZUTEN'ekin?» (*EuzkchGogoa*, 1958, orrilla-daguenilla, 430 orr.).

Eta L. Mitxelena'k: «Euskal-eleberrigileetan gehiena —xuberotarrek dioten bezala*— dugun Anabitarte jauna agertu zai-gu berriz ere plazara, zori onean, *Usauri* eta *Donostia-ten* urren irugarrena den irakurgai onekin. Luzaroko ixil aldiak eztaio batrete etorria urritu ez eztarria moteldu... Irakurgai onek eztaio bil auzi larririk: eztaio iñoren gogorik kezkatuko ezta biotzik erdiratuko ere. Ezta bearrik ere. Bere bidetik dabil egillea, kontakizun arin, otxan eta jostarien bidetik. Eskubide osoa du, jakina, eta gure arteko irakurlerik geienek eztaio noski orregatik kargurik artako» (*Egan*, 1958-3-6, 239 orr.).

Egia aitortzeko, iru irakurgaiok —*Usauri, Donostia ta Poli*— ez dute, ez, auzi «larririk», kezka-min esatekorik, izubiderik; baiña egilleak, ezarian ezarian, ereiten digu gatz-pikor ederrik bai gai-matazan eta bai euskaldun joskera, itz eta esakunetan. Errez, bizkor ta txukun idazten du.

Poesi bat ere, «Itxaso non den», argitara zigun *Gure Herria*, 1922, II, 37 orrialdean.

(Ikus N. Etxaniz, *Euzko-Gogoa*, 1958, 430 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1958, 3-6, 239 orr., eta 1962, 4-6, 312 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 27 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 543 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, I, 157 orr.).

20.—JOSE RAMON ZUBILLAGA (1891-1975)

Bedaio (Tolosa)'n, 1891-1-3'an, ludiratu zan Zubillaga, «Apez-etxe-zaarrean» aln zuzen ere. Amar urtekin, 1901'an, lendabizi artzain bere errian eta gero arotz ikasten Tolosa'n ibilli ondotik, Arjentina'ra doa. An ezkondu zan, 1928'an, Mariana Saldubehere Altzugarai'kin. Buenos Aires ondoko Ramos Mejia errian il zan 1975-12-25'an.

EUSKAL IDAZLE.—Bizia, latza dugula esan oi da. Eta, naiz-ta guztientzat ez, orrelaxe da izan ere. Bedaiotarrak beintzat, Ameriketara itxaropenez kuin-kuin joan arren, burruka egin bear izan du bizi-modua aurrera ateratzeko. Ta ba-dakizute zer asmo artu zuen? Bere bizitzako gora-berak idatzi. Bai liburu jakingarria idatzi ere. Aita Antenio Zabala'k, liburu ori argitaratzean, onela: «Ameriketako euskaidunen bizitza edo «indianotza» zer dan, orain ikusiko degu egiaz. Alegia, egiazko indianotzaren libururik ez genduan, eta utsune au onek beteko du. Izan ere, liburu au irakurtzean indiano guzien bizitza irakurtzen ari gerala ematen du».

Gaztetan eta gero ere, bizitzarekin latz jokatu bear izanagatik, zartzaroan izan du eretia bere biografi txukuna osatzeko.

«Nik orain —dio— aldia edo denbora ugari daukaten ezker, zerbait adierazi nai dizut nere 65 urteko ibilli-aldiak, nola egiñak izan diran, nere ogi-puskaren billa. Lautatik baten erdia ezin nezake bada aipatu, neronek nai detan bezela. Baña nik al detan guzia egingo det bada ongi-xamar adierazteko euskera maitean. Irurogei ta amabi urte betetzera noalarik, Argentina'n asten naiz bada nere azkenengo lana ikasten, ta eztakit noiakoa aterako ote zaiten; izena du «LARDASKETA». Lardasketa au, gure izkuntzan nai det bada idatzi».

Aita Antonio Zabala tolosarrak argitaratu dio: *Lardasketa*. («Auspoa», 40-41 zenbakiak, 1964). 264 orrialde. Errez ta polito idatzita dago. Bizitza osoko xeetasunak garbi ta zeatz adierazten dizkigu'. Ezta liburu asmatua, gertatua baizik. Euskal literaturarentzat aberasgarri izango litzake noski, gure Idaho'ko artzaiñak, Miami'ko pelotariak, arat-onat itxasoz mariñelak, eta mixiolari euskaldunak, gisa orretan jokatuko ba'luteke.

Ba-ditu beste iru liburu ere: *Euskaldunak Argentinan* (Buenos Aires, 1972), «Ekin»-ek argitaratua; eta argitara gabe utzi zituen *Ene sorterria* ta *Aralar'ko lapurra*.

(Ikus A. Zavala, *Lardasketa*, itzaurrean; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 97 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 173 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 542 orr.).

21.—MIKEL AINGERU OLANO URTEAGA (1891-1970)

Aita kaputxinoa. Guam'go gotzaia. Altzo-Azpi'n jaio zan 1891-9-29'an. Amaika urtekin bere jaioterria utzirik, kaputxi-noak Lizarra'n duten *Ikastetxera* jo zuen latin eta abar ikasten; 1907'an jantzi zuen Sangotza'n kaputxino soiñekoa. Ondarrabi'n eta Iruña'n Jakintza ta Urtizitia ikasi ondoren, 1915-12-18'an apaiz egin zan. Andik laster, iru urte baiño len, 1918-1-8'an Itxas Paketsu (Ozeano Pazifiko)'ko *Guam* ugartera doa mixiolari.

Etzan geldirik egon iñoiz ere. Ara elduaz bat, bertako izkuntza ikasi zuen sei illabetez. Txamorroz jabetu ta arima-zai, an dugu geroztik ugarte baztertu artan. Lenengo iru urteetan Agat'eko apaiz lagun egon zan; gero Sumai'ko apaiz-aita; ondoren, bi aldiz, sei urtez Mixioko nagusiaren onulari, eta 1934-7-9'an Erroma'tik Guam'go Mixioko Apostolu-Ordezkarari edo Gotzaitako izendatu zuten, Lagina'ko gotzai izenez.

1935-5-5'an, Donosti'ko Artzai Onaren elizan eta Artzai Onaren egunean, Gazteiz'ko Gotzai Mateo Urrestarazu'k eman zion Gotzaitzkoa, Iruña'ko ta Barzelona'ko gotzaiak lagun zituela. (Ikus Zeruko Argia, 1935, garagarria, 86 orr.). 1935'tik 1945'ra arte, beraz, Guam'go gotzai izan zan; 1945'an, ordea, munduko bigarren guda zala-ta, Ipar-Amerikarrak an ipar-ame* rikar bat gotzai izatea nai zutelako, ipar-amerikar kaputxino bantentzat lekua utzi ta bera Manila'ko euskaldun kaputxinoen artera joan zan. An ere bai mixiolari bezela eta bai gotzai bezela etengabeko lana egin zigun.

Bein eta betiko Euskalerrira etorri zitzaigun 1960'an; 1970'an, ordea, gertakizun aundia zan Guam'en; bertan jaiotako len-gotzaiaren sagaratzea. Gotzai berriaren sendikoak eta ango kristauak ara deitu zioten joan-etorriko xaupenak euren kontura garbiturik. Eta ara joanda, gotzai berriaren sagaratzean esku artu zuen pozarren; baiña orra, bospasei egunen buruan gaizki senti ta bertan il zan santuki. Lenago mixiolari ta gotzai izan zan lekuak zaintzen ditu aren gorpu-ondarrak.

1970-5-21'an itzali zan, Guam'go uriburu dan Aña'n, beeko lurra zeruaz aldaturik.

EUSKALTZALE.—Umetatik asi ta il arte, bizitza osoan edo, euskaldun jator agertu zitzaigun. Apaiztu ondoan, bi urte doi-doi izan ziran eta biak Ondarribi'ko komentuan egin zitunak: emengo dotriña berak zuzendu zuen, euskeraz dana. Euskal iztun eder bezela, ainbat itzaldi egin zituen or-emen; *Irugarrengo Prantziskotarra* zalako zortzi orrialdeko aldizkari txikian

naikoa idatzi zuen; Guam'ko ugartetik, ordea, eskutitzak sarri eta, noizpeinka, mixio-lanak bialdu oi zituen Iruña'ko *Zeruko Argiara*. Euskera argian idatziak ditu utzi zizkigun lanak.

Benetako euskaltzale zanetik, biotzez malte zuen euskal jendea, ta azken urteotan Donosti'ko kaputxinoen komentuan bizi zalarik, itzez ta egitez euskaldun jendeari ta euskerari on egiñez etzan egundo aspertu.

(Ikus *Zeruko Argia*, 1934, dagonilla, 314 orr., ta 1935, garagarila, 86 orr.; *Karmen'go Argia*, 1935, bagilla, 54^{gn}. zenbakia, 116 orr.),

22.—IÑAZIO LARRAÑAGA LASA GOTZAIA (1892-1975)

Kaputxinoen ordenan, Aldaba'r Gregorio Aita; 1892-10-4'an jalo zan Oria'ko Alegi ondoan, gaintxoan aurkitzen dan Aldaba errixkan. Altxatzu'ko kaputxinoetan egin zituen latin eta abarrezko ikasteak, gero, 1909'an, Sangotza'n buruñurdunen jantzia arturik. Eta lekaide-karrera bukatu zuenean, 1919-4- 19'an apaiztu zan Iruña'n; bertatik Lekarotz'era bialdu zuten nagusiak irakasle. Sei urte irakasle egindakoa, 1926' an Txina'rako bidea artu zuen mixiolari.

Gizonaren zerbitzuan zoli jokatu zuen an, Kansu urrutitiko probintzian arimazai. 1930-5-2'an Pingliang'eko Apostolua! Buruzagi izendatua izan zan, eta 1950'garren urtean «Prefektura» au Erroma'k goterki biurtu zuenean, Aita Larrañaga Buruzagi izatetik Gotzai izatera iritxi zan, urte ortako garagarrillaren 25'an Shanghai'n Gotzaintza arturik. Andik laster, orraitio, Txina'ko gobernuak atzerritar mixiolariak kanpora botatzeko erabakia artu zuen ezker, mixio-lur aiek utzi egin bear izan zituen. Eta, 1953-7-19'an Euskalerrira iritxi zitzaigun. Ondarrabi'ko komentuan bizi izan zan arrezkero. Batikano'ko Ií'garren Eliz-Batzarrean, Mixioen Batzordeko Irizle edo Onulai izan zan, Kardenal Agagianiani Buru zalarik.

EUSKAL IDAZLE.—Umetatik zekien euskera, ikasiz eta idatiz obeturik, arduraz jagon zuen bere bizitza guztian. Txina'ra

joan aurretik, Lekarotz'en maixu zala asi zan idazten Iruña'ko «Zeruko Argia»-n, emen bait dira agertzen 1921'tik aurrera ondu zituen euskal lanak. Txima'ra zijoalarik, eta an mixiolari zebilela, lenengotan batez ere, ainbat lan igorri zitun aldizkari artara. «Izaskun», «Aldaba'r G. Aita» ta «P. Gregorius» dira erabilli zituen izenordeak.

1923'garren urteko iraillean Doneztebe'n ospatu ziran «Euskal Jaietan» Muxika'tar Errobustene'k gipuzkeraz egiñiko *Emakumeak eta Euskera* lana Aita Larrañaga'k ipiñi zuen napparraz; baita Zalba'tar Jose'k egindako *Agoteak Naparoa'n* lana, berak irakurri zuen. Ikus *Bigarren Euskdegunetako Itzaldiak* (Bermeo, 1926); Gaubeka'ren irarkolan.

Txina'tik Euskalerriratu zanean, euskal lanean jarraitu zuen, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1957'an. Berak sortu zuen Ondarrabi'n «Pan-Pin» umetxoentzako ddizkari jostari ponpoxa. Zoli-zoli joan oi zan Euskaltzaindiaren batzarretara, batez ere agwikoetara. Aldikada batean Donostian, Aldundiaren jauregiko aretoan, illabete oro mintzaldiak eratzen ziran; oieta-ko bat egin zuen A. Larrañaga'k, «Txina'ko bizitza ta oiturei» buruzko mintzaldla noski.

Ondarrabi'n il zan, kaputxinoen lekaidetxean, 1975-2-18'an.

(Ikus Urtubia, *El Bidasoa*, 1957, VIII, 3; Bitaño, *Herria*, 1958, II, 13; Auñamendi, *Literatura*, III, 549 orr.; Yurre'tar Julen A., oarrak, *Euskera*, 1975, XX, 547 orr.).

23.—JUAN GARBIZU SALABERRIA (1893-1930)

Koplari ezagun au Lezo'n jaio zan 1893-7-5'an, Zabalenla etxean. Bere gurasoak, Kandido ta Maria, eguneroko eskulanez bizi ziran arren, zaiñeran edo zekarren arterako aierkunde ta jainua: Elias Salaberna'ren lengusu ziran amaren aldetik eta bost anai Juan, Daniel, Tomas, Liborio ta Jose ere, idazle ta musikalari ditugu.

Oñati'n ezkondu zan Juan 1919-11-23'an, arrezkero Pasai Nausian bizi izanik. Errenderi'ko «Real Compañía Asturiana»-[^] zink-fabrikan lan egiten zuen, eta 1930-3-23'an, ara zijoalarik, burdin-bidea igarotzean, bultziak jota il zan.

OLERKARI.—Gazterik il zan, baiña amaika bat urtetan nairoa idatzi zigun, bertsoz batez ere. «Aranzazu»-n asi zan idazten 1919'an, gero «Euskal Esnalea»-n, Baiona'ko «Gure Herria»-[^] «Argia»-n, «Zeruko Argia»-n eta Buenos Aires'ko «La Baskonia»-n jarraiturik. Argitara gabe ere, kopla mordoa utzi zuen.

Olerki ta osterantzeko batzaldietan lortu zitun sariak: 1924'an, Baiona'ko «Gure Herria»-k eratu zuen batzaldian aren poema «Ostegun Deuna»-k deduzko saria artu zuen, eta «Euskera arrobotzat» zeritzanak aipamen berezia. 1928'an. Luñ[^]o Udaletxeak eratuta itzulpen batzaldia, Mantxa'ko Kixote'ren IX'garren kapitulua biurtu bear zan euskerara: J. Garbizu'k eraman zuen saria. 1929'an ere sarituak izan zituen Cervantes'en «La Señora Cornelia »-ren itzulpena, «Aizkorri ta itxar soa» alkar-izketa ta «Txori a.usarditsuak» ipuiña; gogotsu ta jasez zebillen ibilli ere bere euskal lanetan. Eta au ere, egiⁱHd euskerari emanda, bere bizi-arorik bikaiñenean gorantza zijoala, Jaunak eraman zigun, aurretik eta gero Aita Errenderi, Lizardi, Loramendi, Lauaxeta ta besteekin egin zuenez.

Edozer zan beretzat olerki-gai. Iturri urtsuak lez, borborka zerion itz olerkitsua. Ederki ezagutzen zuen bere izkuntza, amaren magalean ikasia. Eta kontaezin ala poma txanb'lin utzi zizkigun or-ernengo agerkarrietan sakabanatuta. Eder zuen «Aranzazu»-n idaztea, ta emen azaldu zizkigun, aski sakon ta oartsuki, urte barruko illabeteen zertzeladak; «Ibeltza» (1929. IX, 26), «Otsailla» (1929, IX, 50), «Epailla» (1929, IX, 88), «Jorrailla» (1929, IX, 120), «Orrilla» (1929, IX, 150), «Gara-garrilla» (1929, IX, 178), «Uztailla» (1929, IX, 213), «Da-

gonilla» (1929, IX, 236), «Iraila» (1929, IX, 280), «Urrilla» (1929, IX, 306), «Azilla» (1929, IX, 344) ta «Lotazilla» (1929, IX, 370).

Ba-dugu oraindiño zer bildu fa nun ikasi. «Zubigar»-en —onela izenpetzen zituen bere olerki-lanak— idatziak osorik batu ta kopla sorta bikaiña mamitu genezake. Ai, ba'geneza noizbalt! Gure euskal lurra ta gauzak, gaur bezela noski, lar lorrinduak ikusiz, atsekabezko ereskin-aria jo zigun geienik; eder zaizkigu, beraz, aren biotz-ekai ta erostak. Gurutz asko didorogu gure mendi, ibar eta bide-ertzetan; goiz batez olerkariak, bidez zioala, maite zuen adiskide bat il zaneko oroigariaren aurrean geldi loturik, onela dabes;

«Ta au ikustean ezin aztu nik
aiskide ura emen il zala...;
bere aldezko nere otoitzak,
arren, Goikoak entzun ditzala...!»

Bizitz bidean, sarri nunbait, arantz-zitzadak biotz-mamia oiñazetan jarten. Zer egin? Olerkariak: «Apal makurtu ta artuko degu zoruna, noizpait, neurri gabean».

(Ikus Emeteri Arrese, *Aranzazu*, 1930, X, 127 orr.; Aztertzele, *Euskal Esnalea*, 1930, 79 orr.; S. Onaindia, MEOE, 866 orr.; Berriotxo Anaia, BAP, 1962, II, 43 orr.; Auñamendi, II, 429 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 583 orr.).

24.—JOSE GARTZIA GOLDARAZ (1893-...)

Ernani'n jaio zan 1893-10-27'an. Komillas'en egin zuen eliz-karrera, Jakintzan, Teolojian eta Eliz-Eskugoan ikas-agiria arturik. 1918'gneko abenduan apaiztu-da, gazte oraindikarren. Valladolid'eko eliz-nagusiko Irakurle kalonjetza lortu zuen, azterkizunen osteko nor-geiagokan. Gero, Madrid'en Rota'ko idaz-

kari egon zan, ta ondoren Madrid bertako eliz-nagusiko kalonje-buru. 1944-8-10'an Orihuela'ko gotzai izendatu zuen Aita Santu Pio XII'garrenak, eta andik bederatzi urtera Valladolid"eko gongotzalntza eman zioten.

EUSKALTZALE.—Gaztetan baitik bat, euskal soroan lan egiña duzu gizon jakitun au. Ogei urte besterik etzitun sari bat jaso zuenean. 1913'an, garagarrillaren 24'tik 29'rarte euskal jaiak ospatu ziran Tolosa'n. Idazti, eresi ta argiduri batzaldiak egin ziran. Bostgarren gaia, komeri gaia zan; bost lan aurkeztu ziran: «Berean goxo», «Zintzotasuna», «Guztiya leike», «Gurutzearen debozioa» ta «Masustak». «Zintzotasuna»-k irabazi zuen bigarren saria, ta G. Goldaratz gaztearena zan. Maikoak onela aitortu zuten: «Asko aukeratutako itzera dauka, bear bada aukeratuegia. Irudizko gertaerak erakusten dizkigu, eta orregatik ezin eskatu lekiokoe gaurko eguneko gertaerak agertzen dituenari eskatzen zaion egiatasunik; baña idazti onen ibillera askotxo makaltzen da, eta ez degu uste lendabiziko saria eman bear zaionik. Onentzat bigarren sari bat ipiñi degu» (*Euskalerrriaren Alde*, 1913, 421 orr.).

Bereak ditu antzerki bi auek:

1) *Zintzotasuna*. Iru ekitaldiko antzerkia, 1913'an Tolosa'ko euskal jaietan 50 pezetakin sariztatua.

2) *Maitasun ta gorroto* (Bilbao, 1916). 1915'an Bilbao'ko *Euzkeltzale Bazkuná*'k eratu zuen teatru batzaldian, bigarren gaiean, M. Arriandiaga, Jose Eizagirre ta E. Bustintza malakoak zirala, saria irabazitako antzerkia. «Euzko Deya» etxe argitaldariak Grijelmo'ren irarkolan argitaratu zuen.

Ba-dauzka olerkiak ere, nalko bipillak. Ondarribi'ko euskal jaietan, 1914'an, saritua du, adibidez, *Itxasoral* deritzana.

(Ikus *Euskalerrriaren Alde*, 1913, 372 orr.; S. Onaindia, MEOE, 813 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 167 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 554 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 592 orr.).

25.—MANUEL LEKUONA ETXABEGUREN (1894-...)

Txartel onen asieran aukerakoa deritzait beñiola Fausto Arozena'k jalgi zuena: «Aundia da benetan On Manuel Lekuona'ren nortasuna. Aurrerapen asko; zor dizkio euskal jakintzak. Olerkari ta euskaltzaiña, bere erriarentzat bizi izan da beti. Ta bere erriari eman dizldo, Gazteiz'ko Apaizgaitegian euskera, gerkerata eberkerata irakasle zalarik, azaldu izan zituan adimendoai aundiak. Bañan euskerari zor ba'dio bere nortasun aundi ori, ez dio gutxiago zor erti-landan izan zituan endore zorion tsueri» {*Kardaberaz-!*} 1973, 33 orr.). Baita jakingarri dugu J. L. Zubiarre'k «Guipuzkoa 73» dalakoan idatzia ere: «Jakintza gai askotan nortasun berezi bat duan gizona da On Manuel Lekuona. Ikasnai aundikoa ta saiatua, ixilla ta arrokeririk gabekoa, jakintsuak oi diran bezela. Orain 83 urte jaio zan Oiartzun-en. Ondo irabazia du, ba, bere nortasuna. Ta bere adimen argiari ta bere lanerako gogo biziari esker, ameslari ta adoretu ikusten degu oraindik ala ere, bai aolku zuzen bat, apaiz bezela, emateko, ta bai, jakintsu bezela, Euskal erriko jakintzaren alde leiatsu jokatzeko ere» (*Loe. cit.*, 31 orr.).

Oiartzun'en jaio zan Lekuona, 1894-2-9'an. Apaiza. Gazteiz'ko Apaizgaitegian osotu zizkigun bere eliz-karreíako ikaskizunak, 1906'tik 1916'ra noski. Urte orretan artu zuen apaizgoa, ta arrezkero, gerrararte, bertan erakutsi zuen, izkuntzak batez ere. Ondoren urteak eman zituen Kalahorra'n, ango katedraleko artxibu zain. Aspaldi danik, osterata, Andoain'go «Eguzki-Alde» txoko bikaiñean daukagu, «Berrospe» ikastetxe-ko kapellau ta irakasle dala.

Gaztetan eta zartzaroan, leen Gazteiz'ko Apaizgaitegian ogei urtetan eta gero beste ainbestetan Andoain'en, Lekuona'k lan eskerata burutu digu euskal kulturaren barrutian. Askot idatzi du euskeraz ta erderaz, zenbait gairi buruz, baiña euskal literaturari ta Euskalerriko eirtiarri buruz batez ere. Ainbat itzaldi emonak ditu gai oietaz. Euskaltzain osoa da 1951'tik, eta

1967'tik, iru urtez, beraren Buru. Naiko omenaldi izan ditu or-
emen egiñak; azkena, 1967-4-24'an, Oiartzun bere erriak eskeiñi
ziona.

IDAZLE TA ERAGILLE.—Gazte zalarik asi zan idazten, eta
leengo ta gaurko aldizkari ta eguneroko guzlietan aurkituko di-
tuzu Lekuona'ren lanak. Lankide izan da baitik bat: «Euskar
lerriaren Alde», **RIEV**, «Euskera», «Eusko Folklore», «Antzer-
ti», «El Bidasoa», «Rioja», «Berceo», «Principe de Viçna»,
«Okrso», «Euzko», «Egan», «Zeruko Argia», «Jaunaren Deia»,
eta abarren. «M. L.» ta «Berrospe» maiz erabilli ditu lanak
izenpetzean.

Eragille bezela, Gazteiz'ko Apaizgaitegian beronek sortu
zuen ikasle gazteen artean «Euskal Idazle Eskola», 1924'an
noski, ta «Kardaberaz» izena eman zion. Ikastetxe artan Mi-
xioetako Bazkunak «Gure Mixiolaria» sortu zuen; Jose Migel
Baran'diaran'ek «Gymnasium», garai artako jakitunen pentsa-
kera obeto ezagutzeko; eta Manuel Lekuona'k aitatu dugun
«Kardaberaz». Jakintsuen bizinaia, aurki.

Ona Lekuona'ren idatzirik jasoenak:

1) *La métrica vasca* (Gasteiz, 1918). Mantepío Diocesano
irarkolan. 44 orrialde. Gazteiz'ko Apaizgaitegian, 1918-1919'ga-
rreneko ikastaroa astean, egiñiko itzaldia. Euskal olerki neurke-
ran buruz sakonki ari da, euskal azentua, oskidetza ta gaiñera-
koak, kopletan erabilli oi diranak, jakiña, oso ederki aztertu ta
adieraziaz. Gure bertsoak, latíñak eta gerkerak legez, silabaka ez
baiña doiñuz neurtzea obe litzakigula, dio labur zurrian. Olako
zerbait agertzen ei da gure antziñako kanta zarretan: Lastur'ko
Milia'ren «Eresia», «Lelo il Lelo», «Atharratze jauregia», «Pia-
nu niz» «Oñazez», «Txoriñua kaiolan», «Uso xuria», eta antze-
koetan.

2) *Gazteizko Eliz-barrutiko Kristau-Ikasbidea* (Gazteiz,
1918). Dotriña au, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n urteetan erabillia,
ederki ere ederki egiña dago, euskera garbi, gozo, argian. Biz-

kaleraz J. B. Eguzkitza'k ipiñi zuen. Lekuona'k, onez gaiñera, garai aretan Goterkiko «Boletín Oficial»-ak zekarzkin euskerazko Gotzai-Idazkiak itzultzen zituen.

3) *La poesía popular vasca* (Bergara, 1930). «V Congreso de Estudios Vascos» liburuan dator.

4) *Gabon Kantak* (Gazteiz, 1933). «Anuario de Eusko Folklore»-n.

5) *Literatura oral euskérica* (Donostia, 1935). Itxaropena irarkolan. «Beñat» idaztiak. 168 orrialde. Eusko Ikaskuntzak Bergara'ko billeran «Erri-jakintza» gaia erabili zuen, eta M. Lekuona'k an azertu zitun «Kopla Zaarrak» era «Bertsolaritza», nasaigo ta zabalago adierazirik, damazkigu liburu mardul onetan. Bost ataletan banantzen du liburuaren muiña: J. Aoz-aozko literaturaz asi-masiak. II. Euskal Literatura errikoia. III. Bertsolaritza. IV. Kopla zaarrak. V. Apain-olerkia.

Liburu onek jaso zuen gure aozko literatura zor zitzaion maillara. Gure erriak, baita, ementxe ikasi zuen gure bertsoak barnean duen ederraren ederra. Orduantxe asi ziran, zer lur zapaltzen zuten zekitela, bertsolari txapelketak eurrez antoía-tzen. Danok dakigu nolako indarra zuten gerra aurretik. Eta danok dakigu nolako jentetzak daramazkiten atzetik gaur-eguneko bertsolari zar eta gazteak.

6) *Eun dukat* (Tolosa, 1935). Lekuona anaiak, Manuel eta Martin'ek egiñiko antzerkia, bi eMtalditan. Lopez-Metúddzabal'enean. «Antzerti», 41-42 zenbakiak. Arrasate'ko «Bedia» antzokian antzeztu zuen Oiartzun'go «Mendiburu» taldeak, garagarrillaren 2'an, urrengo egunean Olerti jala zala-ta. Iritzi-emailleak onela: «Aurten garaipen aundienetako iritxi duan lana «Eun dukat» ori ba-degu. Benetan antzerki errez argi ta polita... Lekuona anaiek «Eun Dukat»-en egilleak txaloak erruz entzun zituzten. Gure zorionak ere jaso itzate. Tendea pozik gelditu da».

7) Teatru-saillean ba-dauzka euek ere: J. Barbier'en *Sorgiñak* eta P. Lartzabal'en *Akülomendi* ta abar, gipuzkeraz jarrita.

8) *Jesu Aurraren Bizitza* (Donostia, 1948). Eresidun aurpoema.

9) *Gorotzika'tik Gurutzia'ra* (Donostia, 1952). «Euske-
ra»-n ere ba-dator. Euskaltzaindian sartu zaneko itzaldia.

10) «Egan»-en (1954) poesi auek azaltzen ditu: 1) *Bele-
nen*; 2) *Bizia maite irria*; 3) *Tanz-lied*.

11) «Egan»-en berriz ere: «Urkixo jaunaren liburute-
gia», «Aita Olabide'ren ITUN ZARRA», «Pernando¹, Amez-
keta'n», Lizardi'tar X.'en «Biotz-begietan», «Edertiak Gipuz-
koan», «Gabon-kantak», «Jesus'en Jaiotza edertian», «Bizirik
dago, ala il zan», eta abar, 1956-57 urteetan.

12) *Gero* (Zarautz, 1954). Itxaropena irarkolan. 483 orrial-
de. «IV Argitara-ddia Euskaltzaindiko Lekuona apaizak pres-
tatua eta aintzin-solastua», Euskaltzaindia'ren ardurapean. Ka-
lagurri'n izenpetzen du, 1954-2-9'an. Jardun ederra prestatzai-
lleak Axular'en idazti giar oni ezarri diona: egillearen bizitza
ta liburuaren argitaratzez gain, lañaren kritika apur bat ere ba-
dagi, ta urdazubitararen idaztankera, joskera, esaera ta ede-
rrak argi jarten dizkigu, balta idazle bezela ditun akatsak ere;
*zeren, ezen, ezik, zein, zeñnek, hain... non, hain... ezen, nola,
ala*, ta olakoak. Cuique suum.

13) *Del Oyartzun antiguo* (Donostia, 1959). Onen antzeko
beste monografi asko ditu: «La Catedral de Calahorra», «Igle-
sia de Santiago de Calahorra», «Iglesia de San Andrés de Cala-
orra», «Cienda Tomista», «Fuentes de la M. Rafols», «Pam»
quia de San Pedro de Lasarte», «El Monasterio de MM. Brí-
gidas de Lasarte», «La Iglesia parroquial de Andoain», «Dos
Grecos en Guipúzcoa», «Santa Klara'ren kanta zahar bat», eta
abar, geienak BAP-en argitara emanak.

14) *Zigorj* (Zrautz, 1936). Izen bereko operaren izki-libu-
ruxka.

15) *Itzaldiak*: «Gure pertsulariak», «Mondragoe sutan», «Deikia aditzetan», «Berrospe», eta abar, «Euskera»-n, «Egan»-en, «Kardaberaz»-en... datozenak.

16) *Escollos de nuestra Historiografía* (BAP, 1971). Euskal Edestia nai duenak, M. Lekuona'k sarri esan duenez, kontuan izan bear ditu edestiaren laguntzaille diran beste gai batzuk ere: etnoloji, gizarte-erakundeak, toki-izenak, aldi bakoitzeko oroigarriak... Eta ortan alegindu zaigu oiartzuar jak'ntsua: berak aurkituak dira bi «greko» Gipuzkoa'n, Gatzaga'n, bata ta Zestua'ko fcaeta'n bestea; baita berak aurkitu digu, Astigarrabia'ko San Ander elizan, erromaniku-aurreko leio luze bat, perra mokokoa.

16) *Bi antzerki ta bi itzaldi* (Zarautz, 1965). Antzerki biok, auek dira: *Eun Dukat* eta *Ameriketako osaba*.

17) *Gerrateko nere amabi kantak*. J. Urkixo'ri egin zitzaion Omenaldi-liburuan dator.

Ainbat libururi ezarri dizkion itzaurreak, atzenez, jakingarriak dituzu.

Olerkari lez, ez digu askorik ondu, baiña ondu duena erritaiuz daukagu. Nere *Milla euskal Olerki eder* bilduman sei sartu nituen On Manuel'enak, eta nesan: «Irakur eta ikus zein ezti, errez ta polit egiñak diran!» Gaur ere berdintsu diot.

Egunokaz ari dira beronen omenezko liburu Bilduma (3 de) zabaltzen; ondoren etorriko bere idatzi guztien txorta.

IRITZIAK.—M. Lekuona, artista dugu euskal literaturan. Beroren lumak eman diguna, txukun eta aratz egokitua da. Ni ez naiz ibilli billa, baiña izango ditu dudarik gabe —nork ez?— bere akatsak, uts-eziñak ez balt gara. Iritziak gora-bera ere, Lekuona'k berean jarraituko du: or izango dogu beti, geure ikasbiderako ain zuzen, bere lan bikaiña, euskal gaietaz batez ere.

Sarreran aitctrtuaz gaiñera, irakur zazu euskal idazle biren aitorra. «Auñamendi»-koak M. Lekuona'ren *Literatura oral vasca* (Donostia, 1965) bigarrenez atera zutenean, L. Mitxe-

lena'k onela idatzi zigun; «Duela ia ogeitamar urte, 1936-ean, argitara zuen «Zabalkundea»-k orain «Auñamendi»-k atera duen liburu onen ainzindaria: ainbeste bider aipatu eta erabili izan dugun *Literatura oral euskérica* eder ura. Bere saillean, ez dugu izan geroztik aren ordezkorik ezta inguratzeorik ere. Eta orain, agerraldian berrian, osaturik dator erri-teatro zatiak erantsirik: Zuberoa'ko pastoral batenak eta Barrutia'ren *Acto*-arenak. Euskal gauzatarako gogorik duenak irakur beza lehenbait-lehen liburu aberats bezain argi au, ezagutzen ez badu. Ezagutzen duenak ez du zer esan bearrik, bein ta berriko joko baitu, iñok eragin gabe, iturri garbi orretara» (*Egan*, 1965, 176 orr.).

Gogoangarri duzu au ere: M. Lekuona ez da egundo ere gaztetan artu zuen bidetik okertu, ez zearrean joka ibilli; au da, orduan egoki ta bidezko iritzi zitzaion jokabidea, euskerari buruzkoa noski, naiz ortografiari naiz erri-idazkerari gagozkio-la, beti ontzat eman eta jarraitu izan du. Ez da izan ez aizea nora zapiak ara oietákoa. Ezta bear ere! Iritziz aldetzea, noizik bein, gizonarena dugun arren.

1958'an, Orixe'ren Euskaltzaindkn sartzea Leitzan. Bazkal ostein dantza saioa ederra izan zuten, bertako dantzak dantzaturik. Eta M. Lekuona'k: «Guztioi atsegin aundia eman baitzigun alako dantza txukunak. Ez ba, Euskalerrian dantza ederrik ez dalako; bañan Lekza'ko dantza onek ba-du beste eus[^]kd-dlantzek ez duan zerbait. Itzal eta begirune eder batez gaiñera, beste zerbait: dantza errikola izatea» (*Egan*, 1958, 7 orr.). Or M. Lekuonaren idatziak duen lerden-eragiña ere, errikoi duzula.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 915 orr., ta *Kardaberaz Aitaren Omenadia*, Donosti, 1971, 130 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1965, 1-6-, 176 orr.; P. Lafitte, *Gure Herria*, 1967, 3'garrena, 188 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 12o orr.; *Euskera*, 1968, 249 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 173 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 554 orr.; Juan San Martin eta Serafín Basauri, *Hegatsez*, 212 orr.; *Kardaberaz-2*, 1973, 31 orr.; J. L. Zubiaurre, *Guipúzcoa* 73).

26.—JAZINTO KARRASKEDO-OLARRA (1895-...)

Erle uxatuak ez omen du abaraskarik sortzen. Amaikaxo euskaldun ara ta ona erabilliak, edo-ta ibilliak izan diran arren, erri-maitasuna, geienik beintzat, beti adierazi izan dute. Ibilliaren ibilliz nekatzen ba'gara ere, euskalduna ez bait-da berea maitatuz nekatzen.

Orrelaxe dugu Karraskedo'-Olarra'tar Jakinda ere. Billabona'n 1895-2-10'an munduratu. Gizaseme jatorra ta antzerkigille fina. 1925'tik 1928Va bestelako lanak ere Donosti'ko «Euskal-Esnalea» aldizkarian agertu arren, euskal literaturan antzerkigille lez goratuko dugu beti.

ANTZERKI-LANAK.—«Euskaltzaleak» zeritzan bazkunak, 1933'an, Tolosa'ko «Antzerti» aldizkariaren bidez teatru-batzaldi bat iragarri zuen, «euskel antzertiari aurrerapen bultzada ematearren». Anízerti-lanak jatorrak izango ziran, norberak sortutakoak eta ez beste izkerarik itzuliak; ekitaldi bat da geiagotan egiñak izan litezken. Iru bakarrizketa ta zortzi antzerki aurkeztu ziran iragarritako batzaldian. Bi ziran J. Karraskedo'renak:

1) *Txokolo, txerri-tratalari* (Tolosa, 1933). 1933'ko Antzerti'ren batzaldian Bigarren saria irabazitako Bakarrizketa. Ta:

2) *Etxe-aldaketa* (Tolosa, 1934). Ekitaldi bateko antzerkia, lenengo saria —250 pezeta— eraman zuena. Epai-malkoak onela: «Eder-ederra, bizi ta bikana. Gaiez txalogarria, izkeraz biribilla, antzez-legez oso-oso. Erakuspen ederrak yalgitzen ditu. Gañera ikas-errez ta antzez erreza». Eta aldizkariaren zuzendaria: «Gure zorionik sutsuenak... Karraskedo-Olarra billabonatar idazle argiari, aurtengo aritzerti-sariketan txapeldun geldi dalako. Aspaldidanik zaigu ezagun Karraskedo idazlea ta antzertirako zaletasun eta leiaz lanean ari zala ba-genekigun. 1933'ko Antzerti-saria neke-ordaña bezaio ta aurrerantzean gora igotzeko asnas berri ta zirikada».

3) *Gari Usaia* (Tolosa, 1936). 1935'an ere, Ill'gn. Antzerki sariketan lenengo saria irabazi zuen. Epai-maikoak au: «Iru ekitalditakoa. Agire'tar Txomin'en «Garoa» nobelako gai ber-bera. Ez da beraz egillearena. Bañan baserritako biziera eta euskal sendiaren ekandu griñak bikañago azaltzen ditun euskal irakurgairik ezin autu. Ganera, gertaera ta notin aukeratzeak, joskerak eta antzerkiratzeak eman dizkio noski bere lanak. Eta ain egoki egin ditu! Ain bizia, betea, eta begi-asegarria somatzen degu etengabean antzeztokia! Saria ongi merezitzat opa diogu». 1936-5-17'an, Antzerti-Eguna; goiz eta arratsalde jal ederrak, «tokiz, jendez eta antzezkizunaren ederrez» ordurarte ospatu zituzten beste guztiak ondu zituna. Arratsaldean, Victoria-Eugenia antzokian eman zuten lenengoz.

4) *Laratzean sua*. «Toribio Alzaga» antzerki saria bi urterik bein ematen du Euskaltzaindiak; 1965'garrenekoa lan onekin irabazi zuen J. Karraskedo'k.

Ba-ditu oraindik beste antzerki batzuk ere: «Gure semea» ta «Etxerako nor?», adibidez.

(Ikus *Antzerti*, Tolosa, 1935; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 163 orr.; Auñamendi, *Literatura*, 563 orr.; *El Dia*, 1936-5-19[^]; *Yakintza*, 1936, 21 zenb., 239 orr.; *Euskera*, 1973, XVIII, 284 orr.).

27.—JUAN J. ELORRIAGA GOMEZ (1895-1922)

Zumaia'n jaio zan 1895-6-24'an. Apaizgai. Latin-ikasketak Andoain'en osotu ta gero, Burgos'era joan zan Jakintza-gaiak ikasten. Azkar, zintzo ari zan gaiak ikasten, elizgizon egiazkoa izan nairik. Euskalerritik urrun, errimiñak ikutua noski, **D**oncs-ti'ko «Argia»-ra bidaltzen zitun koplak eztiak, biotz-xamurketak adierazteko olerkia baiño bide egokiagorik ez zegoela-ta.

Burgos'tik Arrika'ra bialdu zuten armak artzera; eta antxe il zan. Bere ama ta sensdeei ainbat karta idatzi zizkien. Gorgues-Tetuan'dik, idazki xamur-xamur bat egin zion, 1922-6-24'an,

bere egunean noski, urruti zeukan bere amari, eta andik ama-
bostgarren egunean il zan. Ara iritxi ta laster ondu zuen olerki
biozbera au, «Gudari» deritzaiona, «Solferiño'ko Itsua»-ren an-
tzera egiña:

«Arnak artzera deitu ninduen nere erritik urrutira,
Etorri nintzan burua itzuli²--- beti erriruntz begira,
beti erriruntz begira.

Geroztik eztet ni jaio nintzan erri maitea ikusi,
Geroztik dabil alaitasuna aurpegitikan igesi,
aurpegitikan igesi.

Antxe bai zaizkit nere amaren laztan gozoak gelditu,
Biotz-biotzez maite ditudan nere lagunik onenak,
nere lagunik onenak.

Orain urruti... illun bizi naiz: ez ditu ikusten begiak,
Euskal-erriko itxaso zabal, Euskal-erriko mendiak,
Euskal-erriko mendiak.

Ez ditu ikusten sagasti, soro, basetxe, zelai ederrak,
Garó, gaztaindi, ainbesteraño nik maite nitun bazterrak,
nik maite nitun bazterrak.

Argatik orain illun bizi naiz; ez nau poztutzen goizian,
Iñoiz poztutzen nindun bezela, eguzkiaren argian,
eguzkiaren argian.

Ez du orain ez, illunabarran, lengo dizdira izarrak...
Dana samindu bai-du neretzat naigabearen indarrak,
naigabearen indarrak».

Ba-ditu geiago ere modu onetan biribildutako neurtitz
eztiak.

28.—IÑAZIO ALFONSO EZKURDIA (1895-...)

Kaputxinoen ordenan Donostiar Gabriel Aita, Donosti'n sortua da 1895-8-2'an. Lekarotz eta Altzatzu'n ikasi zituen latin eta abar, 1911'an Sangotza'n praille soiñekoa arturik. Ondarribi'n Jakintza ta Iruña'n Teoloji osotu ostean, Iruña'n bertan apaiz sagaratua izan zan 1920-4-3'an. Gerra bitartean eta ondoren Pratzia'tik eta Portugal-tik ibillita, 1942'an atzera Euskalerriraturuz, lenengo Lekarotz'en amar urte bezelatsu ta gero —gaur ere bai— Donostia'n bizi da. Sei urtez bertoko nagusi izan da, baita gero komentu guztien gaindiko Aolkulari ere.

IDAZLE.—Meza berria emanda laster, 1920'an aurreko urtean sortua zan «Zeruko Argia»-ren banakaritza artu zuen. Orduantxe egin zitzaigun idazle, ta euskera gorengoenan bear ezta ere, luma ugarikoa izan da. Lekarotz'en ikasleen gogo-zuzendari zala, otoitz liburu batzak mamitu zituen, Donosti'n nagusi zegoela Lourdes'ko Amari buruzko liburuxoak osotu zizkigun bezelaxe.

Aita GabriePek erderaz idatzia da «La Dirección espiritual...», A. Iraizoz'ek idazpuru onekin, «Arimaren Zuzenbidea» (Gazteiz, 1952), euskeraz jarria ere. Norentzat egiña? «Arimaren bizitzan zuzen ibiltzeko ta irauteko aolku edo erakutslak, Kristori benetan jarraiki nai dioten kristaudentzat», dio sarreran.

(Ikus Aita Yurre'ren *oarkizunak*).

29.—FRANTZISKO ARIN DORRONSORO (1895-1949)

Lizarrusti'n beera gatzela, Ataun baiño leen, San Gregorio auzotegiaz txil dagizu, troka barruan, Aralar'eko ixurkiak sartalderantz oben dagien toki babesean. Ortxe jaio zan

Aita kaputxino zala Ataun'dar Ilario zeritzaion gizasem: jainko-zalea. Iruña'n apaiztu zan 1921-3-26'an. Bertatik Txile'ra joan zan mixiolari ta antxe bertan, urterik asko igaro ondoren, Santiago uriburuan il zan 1949-4-3'an.

EUSKALTZALE.—Idazle bizkor agertzen zaigu. Eta, iñolan ere, erbestera joaterik izan ez ba'lu, euskal idazle jatorra genduan. Apaiztu aurretik asi zan «Zeruko Arg'ia»-n idazten, 1919'eko agorreko zenbakian «Bi konkor» deritzan ipuin polita eskeintzen zigularik. An Pazifiku egdetik ere, iñoizka, bialdu zizkigun bere lanak: 1927'eko urrillean azaltzen dan «Per-nando-keriak», esaterako, ederki pipermindua datza.

Erderaz ere, au beintzat, utzi zigun; «Guía del Catequis-ta según el método psicológico de Munich» (Buenos Aires, 1942). Iru ale aundi, Brasil'en ere portugeseza itzulita (1959) atera zutena.

(Ikus Aita Yurre'ren *oarkizunak*).

30.—DANIEL GARBIZU SALABERRIA (1895-...)

Lezo'n jaiou zan 1896-4-9'an, eta biaramonean bataiatu zuten bertan Juan Bateatzaillearen eleizan. Bere gurasoak, Kandedo ta Maria, lezotarrak; «Zubigar»-en anai. Bertsoak ontzen azkarra. Lezo'ko eleizan ezkondu zan 1926-6-2'an. Aspaldi danik Errera'n bizi da.

Donostia'ko «Argia»-n idatzi zuen, «Iruzubi» goitizenez, baita «Euskal Esndea»[^]! ere. Ipui politak eta poematxo bixiak dauzka osotuak eta argitaratuak. «Jaizkibel Mendi» poematik Euskaltzaindiaren saria eskuratu zuen.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1930, XX, 205 orr.; S. Onaindia, MEOE, 882 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 571 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 583 orr.).

31.—KLAUDIO SAGARTZAZU SAGARTZAZU
(1895-1971)

Onela «Zeleta»-k: «Orain dala ogeitabi-berrogeitabost bi-tarteko euskal egunkari, astekari ta aldizkarietan, maizki aurkitu oi gendun, Eltzo, Zubigar, Jauregi ta Enbeita'renaren inguruan, Sagartzazu'ren «Satarka» izenordea. Eta bere olerkiak, ordukoak bezela oraingoak ere, euskera garbi ta ulerterrezean taiutuak, mintzoera berdiñekoak eta arau berdiñekoak dira. Edozeñek ez duan doai nalgarri au, erraz somatzen degu ondarrabiar olerkariaren neurtitz intzatsu oietan barna. Eta gizon bezela noiakoa dan, edo noiakoa izan ditekean, bere gorputz aundi, arpegi zabal, begi urdin eta irudi barretsuak ongiño adierazten digu» (*Euzko-Gogoia*, 1958, 111 orr.).

Ondarrabian jaioa dugu Sagartzazu 1895-10-30'an, bizi guztian bizi izan zan Tiendas kalean, 13'garren zenbakian. Ortxe jaio, bizi ta il ziran bi anaiok, Klaudio ta Dionisio, biok gaiñera ezkongai edo mutilzar porrokatu; etziran ezkondu, euskerarekin ezik.

Klaudio'k etxegintza zuen bizibide, kontratista bezela. 1953'an, ni, nere *Milla euskal olerki eder* osatzen nenibillenean, ara joan nintzakion; ez nekien nun bizi zan, baiña bai etxegintzatik bizi zala; ta berebillez Ondarrabi'ra iritxi nintzanean, bertatik galdetu nuen kalean bertan, ea nun ote zegoen Sagartzazu olerkariaren etxea. Eta ots-otsean erantzun zidaten: «Orduzu». Bertan neukan izan ere, zugaitz eta lorez inguraturiko jar-leku batean eserita. Gizon errime ta txeratsua. Itz-aspertu bitartean, ainbat berri, datu ta zeaztasun eman zizkigun nik nai nuen lanerako: arrezkero, eskutitzez, artu-eman ugari ta miña izan genduen biok. «Karmel» eta «Olerti» aldizkarietan, olerkirik asko argitaratu nizkion.

1966'garrenetik Euskaltzaindiaren laguntzailleetarikoa zan. Esan dugunez Ondarrabi'n, bere sorterriko kabi beroan itzali zitzaigun 1971-11-23'an, Euskal Literaturan toki berezia merezi duen olerkari gozo biguna.

OLERKARI SAMUR.—Edestitik dakigunez, munduko artistak •—olerkari ta musikalanak baitik bat— Venezia'ra ta, joan oi dira, uri apain zoragarri oietako edertasunak ikusi ta txastatuaz, goi-argia —olermana— esnatu, azkortu ta indarrazteko asmoz nunbait. «Satarka»-k —Sagartzazu'tar Kauldi— eztu olako barne-azkortzaillerik bear kopla sentikor eta gozoak oretuteko. «Ondarribia erri arrantzale ta udarako leku apaña ez-ezik —diosku Ayalde'k—, euskel-olerkari on eta askoren sorterrria ere ba-da.

«Onetakoa dugu Sagartzazu'tar Kauldi, SATARKA. Ogei urte zitula, 1925 gn. aldean, Donostiko Tomas Deun egunean ospatu oi zan Euskal-jaian irabazi zun bere lenbiziko saria. SATARKA-k berak dionez ura izan du egun pozgarriena bizi guzian. Egun artan, amakin (olertian sarri aipatzen dun ama arekin) joan omen zan Ondarribitik Donosura saria jasotzera. Gerroztik, danok dakigunez, SATARKA-k irabazitako, sari ta dedu-aipuak aunitz izan dira, Bidasoaz aruntz-onuzko Euskalerrian egiñiko txapelketetan» (*Intza begietan*, Donostia, 1957, azalean).

Donostia'ko Lore-Jokuetan, 1918-12-21'an lendabiziko «accésit» bere *Udaberri* lanagatik; 1920'an bardintsu izan zuen, Donostia'n eta Urretxua'n; balta Donostia'n, 1923'an, bere «Agur, Mirentxu» ta «Artzayaren abestia»-gatik; 1924'an, Baiona'ko «Gure Herria»-k eraturako txapelketan, Larresoro'ko Aintziart-Killot'ek egin eta emaniko *makila* eskuratu zioten bere «Ez dezu maite» olerkiagatik; 1925, Ondarribi'ko euskal jaietan, olerki bi sariztu zizkioten, «Bidaso'ko lurraldean, agur», len-galan, eta «Udaberria» bigarreanean, Pedro Mourlane Mitxelena, Emilio Navas, Isaak López Mendizabal eta Biktor Garitaonandh maiko zirala. Eta orrelaxe gerotara ere.

J. San Martin'ek egiazki dio; «Satarka», Luis Jauregi «Jaurtarkol»-ekin batean, euskal literaturaren lirikaren lehen bide

urratzalleetakoa genuen noski. Eta Aitzolen inguruan, 1930'ean, «Euskaltzaleak» izeneko olerki berrizte mugimenduaren eragi-leetakoko bat izan zen» (*Euskera*, 1972, 285 orr.).

Guda aurreko ta osteko euskal aldizkaririk geienetan ager-tzen dira Satarka'ren neurtitzak; baiña gerra ondoren, *Oleri'n* idatzi zuen bereziki. Aldizkarietako emaitz ugariz gaiñera, li-buru bi utzi zizkigun argitalduta.

1) *Txinpartak* (Donostia, 1922). 124 orrialde. Jatorrak di-tu geientsuak, baiña itzuliak ere bai, Biktor Hugo ta Heine'renak bairik bat. Liburu ontan datozen jatorretatik ezagunena *Aur-txoa seaskan* dugu nunbait: J. Olaizola'k musikea jarri zion, eta geroztik txit ezaguna duzu poema au.

2) *Intza begietan* (Donostia, 1957). Valverde'ren irarko-lan. 129 orrialde. Bere guraso Jose Leon Sagartzazu Sopolarte ta Bruna Sagartzazu Yartzari eskeiñita dago. Ayalde'k onela: «Intza begietan...; Amaren oroï xamurra, beste Ama il-zorian ikustea, lore igartuak, guda zitelen ondoreak, txori abeslari-eriotzak, eta olako beste oleri-gaiek intzaz bustita ditute oler-kari onen begi argiak». Erdal-itzulpenarekin dator. Amalau oler-ki dira guztiz.

M. Lekuona'k egiten dio sarrera. Beiñola Oiartzun'go ba-serri baten bezela, gerizak, ale gorritan noski, geriza ongi elduak ikusten ditu Satarka'ren olerki idaztiaz; eta goiz-txori kanta-riak. «Goiz asi ziñan —diotsa— zu ere kantuan. Gazte-gazte-rik. Zure barruko sentierak kantari. Eta oraindik ere lengo, be-tiko ozen eta goizriar jarraitzen dezu zure arlo zerutarrean ja-rrai. Kantari».

Eta aurretik kantatu ta joan zitzaizkigun olerkari batzuk go-gorazten ditu. Onela darrai: «Zurekin asitakoak, asko, geienak, ixildu ziran. Eltzo ta Zubigar ziranak dauzkat orain gogoan. Eltzo Astigarraga'koa, ta Zubigar Lezo'koa. Jaungoikoa'k era-man zituan, zeru ederrean kantuz jardutera, emen oi zuten ze-rutar jario ta etorri ber-berarekin. Zu, gure artean utzi zinduan Jaun onak, goiz asitako jardun esnatiarrari guretzat jarrai ze-

nezaion. Eta zak, Taungoikoa'ren dei ta doai jatorrari jarraikoz, pier iraun dezu gaur arte... Eta gaur, zure biotzaren opari bezela, Erriari, zure Erri maiteari, Euskalerrri malte, errukarriari, zure kantarik ederrenaz orniturik, sortatxo bat eskeintzea gogoratu zaitzu. Zer nal dezu nik esan dezalzudan, adizkide malte? Ondo, oso ondo egin dezula. Zerutik ere zure lagun izandakuak orixe ber-bera esango balt-dizute» (*Intza begietan*, 8-9 orr.).

IRITZIAK.—Zeleta'k: «*Intza begietan...* Aurtengo Bakaldun-egun oroigarrian, Zeru'tik jetxi ba'litzakigu bezela, eskura zitzaigun azal apañez eta marrazki politez jantzirik idazti nalgarria. Eta atsegiñez jaso ta arretaz, urduri, irakurri degu, asi ta baka, dan-dana. Balta arduratsu tolostu ta idaztitegian gorde ere, aurtzaroran gure guraso maiteak kolkoan ezarri oi ziguten Kutuna'ren gisa» (*Enzko-Gogoa*, 1958, 110 orr.).

Nik beñola: «Gaztetan ar-nabargintzan ta gaur etxegintzan jarduna. Gizon artez ta zintzoa, sari lan bitartean be bertso neurtzen ekiten dautso. Idurimen ugaria ta biotz biguna ditu, geienez. Berak egiñak oro batean bildu ezkeru, olerki-txorta gizen antola daiteke».

L. Mitxelana'k: «*Intza begietan*. Eztakit zer esan bear duen poesi-mota onezaz egun edo biarko kritikak. Nik beintzat ezin dezaket gai onetan kritikarik egin. Au baita aurretan, besterik bazen ere enekienean, ezagutu nuena; au, euskaldun guztiok, balta zekenak ere, biotzean gorderik daakagun xoko minbera orretaraiño sartu zitzaidana. Geroztik irakurri dut oberik eta goragokorik, balña eztut bestetan sumatu ustekabeen artu nin-duen aurtzaroko ikara berri aren bizia» (*Egan*, 1958, 1-2, 105 orrialde).

Eta azkenik, J. San Martin'ek: «Euskal literatura murritzian bere toki berezia merezi du olerkari samur honek» (*Euskera*, 1974, 285 orr.).

Norekin ibilli, edo-ta zer irakurri, orlakoaren kutsua errez izan oi dugu geure lanetan. Sagartzazu arima goxo baten jabe

genuen sortzetik, eta gero irakurriz —Heine, Tagore, Juan Ramón Jiménez— goxoago biurtu zitzaion barrena, ta auxe duzu bere kopletan ematen diguna. J. R. Jiménez'i eskeiñia da «Txindorra-ren eriotza» deritzana; ark erakutsi omen zion kanta zarrak kantatzen «ta alngeruaren seaskatxo emeki ibiltzen». Kauldi'k olerki ortan J. R. Jiménez'i buruz dioana, guk gaur Kauldi'z esan dezagun:

«Asko maitatu dezun gure lur zarrean
Egin zazu lo... ta atsedan lore artean!»

(Ikus Oxobi, *Gure Herria*, 1922, 360 orr.; S. Onaindia, MEOE, 855 orr.; J. Artetxe, *Camino y Horizonte*, 68 orr.; M. Lekuona, *Intza begietan*, itzaurrean; H. V. B., *Gure Herria*, 1958-5-22; Zeleta, *Euzko-Gogoa*, 1958, urtarrilla-otsailla, no orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1958, 1-2, 105 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 153 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 510 orr.; J. San Martín, *Euskera*, 1972, 285 orr.).

32.—LORENTZO BEREZIARTUA BALERDI GOTZAIA (1895-1968)

Lan eta aginpide sortaz korkor ibillita ere, an naiz emen euskeraz itz-egiten saiatu zanak merezi du, euskal lanik osatu ez arren, gure literaturan aipamen urri bat bederen.

Bidania'n munduratu zan 1895-2-28'an. Eliz-ikasketak Gazteiz'ko apaiztegian eta Komillas'koan egin zituen, 1919-12-18'an mezarako sagaratua izanik. Berguenda'n egon za bi urtez arimazai. Ikasiak sakonagotu nairik Komillas'era doa berriro ere, ondoren Andoain'en eta Saturraran'en apaizgai gazteen irakasle egiñik. Ondoren Santander'ko kanenigu izentatu zuten.

Andik, 1944'an, Zaragoza'ko Gongotzaiñaren ondora doa, ta ura il zanean aren ordezkotza dagi, Siguenza'ko gotzai izentatua izan zan arte. 1963-8-7'an Donosti'ko eliz-barrutiko gotzal egin zuten, eta berton il zan 1968-10-23'an il zan. Bost-

sei gotzai izan ziran aren illetetan; Iruña'koak, Arturo Tabera Araoz jaunak esan zuen mezea, baita itzaldi sentikorra egin ere, azkenean euskeraz zati polit bat irakurriaz.

Bereziartua'k maite zuen bere jaioterrian ikasitako euskera, ta al zuen toki ta une guztietan euskeraz mintzatzen alegintzen zan, dala elizan, dala kalean naiz etxe-barruan. Eliz-barrutían sartu ta bertoko aginpidea artu zunetik, euskeraz ta erderaz izan ziran aren itzaldiak, balta aren artzain-idazki ta Goterkiko gainontzeko idatziak. Eta bere aldian, zoriak ala naita, liturji berriko textuak, berak bultz-eraginda noski, euskerara biurtuak izan ziran. Ez al dugu au, nolabait esan, puzkeri pixkaten lege?

33.—JERONIMO SARASOLA TREKU (1896-...)

Tolosa'n jalo zan «Muniti-bekoa» baserrian, 1896-9-29'an. Aita kaputxinoa. Altzatzun ikasi zuen latin, 1914'an Sangoza'n lekaide jantzia arturik. Ondarribi'n Jakintza ta Iruña'n Teologia ikasi ta 1922-4-15'an apaiztu zan. 1931'rarte Filosofia erakutsi zuen Ondarribi'n, ondoren Txina'ra, Pingliang'o kaputxinoen mixiora joanaz. An ogei ta bi urtez lan egin ostean, Mao Tse-Tung'en komunistak bota egin zuten Txina'tik, eta Larrañaga gotzaiarekin batera Euskalerrira etorri zan.

EUSKALTZALE.—Buru argiko gizona, Larrañaga gotzaiaren laguntzaille, bizitza osoan egiazko euskaldun eta euskaltzale agertu zitzaigun. Txina'ra baiño len gutun bat edo beste argitara zuen euskeraz. Baiña gero Txina'tik sarri bialdu oi zituen bere lanak «Zeruko Argia»-ra, euskera ederrean idatzita. Ona Txina'ra orduko mamitu zizkigun lanak:

1) *Eliz-Abestiak* (Tolosa, 1926). 99 orrialde. Izenik gabe argitara zuten Ondarribi'ko Irugarren Ordenakoak.

2) *Irugarren Ordenakoan Induljentziak* (Donosti, 1926). 36 orrialde. Au ere izenik gabe.

3) *Jaun-artzeko otoitz laburrak* (Irun, 1925). 16 orrialde. Valverde'ren irarkolan. Izenik gabe.

Txina'tik bialtzen zitun lanak izenpetzeko, noiz edo noiz «Tolosa'ko Pedro Bautista» ta «Pedro Bautista A.», baiña geienetan «Tolosa'r Pedro Bautista» darabil.

∴ (Ikus Yurre'tar Julen Aitaren oarrak).

34.—FAUSTO AROZENA ARREGI (1896-...)

Ona donostiar —Donostia'n jaioa bait dugu 1896-7-15'an— zindo auta bat; ixil, argi, langille, gizatiarra. Gaztetako ikasteaz baliaturik, alnbat artikulu ta liburu ondu dizkigu, euskeraz ta erderaz, euskai erriari buruzko galetaz geien bat. Aspalditik orainsu arte, Gipuzkoa'ko Aldunetxeko artxi-bu-zaingoan lan egin du, beti txeratsu, adikor ta maitagarri.

IDAZLE.—Berandu samar asi zan idazten, ogetamar bat urte zeuskala. Eta bertsoan, ain zuzen ere; Donostia'ko «Junior» eta Arantzazu'ko aldizkari «Aranzazu»-n (1926) agertzen dira bare euskal lanak, euskal poesiak: euskeraz ta erderez, beti izan zaio atsegin musaen ar-emana. «Eusko Ikaskuntzaren Deya»-n (1925) eta «Egan»-en (1955 ta 1957-58), ere ba-datoz bere euskerazko lanak.

Baiña idaztirik geienak erderaz zukutu zizkigun. Ona garrantzitsuenak *edo: Narraciones Folkloricas* (Donostia, 1923), *Doña Blanca Gar ees* (Córdoba, 1925), *Don Carmelo de' Echeagaray y la historia del País Vasco* (Donostia, 1926), *Re-seña histórica de Rentería* (Donostia, 1930), *Guía de Guipúzcoa*, S. Mujika'rekin bat (Donostia, 1930), *Gregorio de Mújica y Mújica. Vida y obras de un vasco ejemplar* (Donostia, 1931), *Suma de las cosas Cantábricas y Guipuzcoanas* (Donostia, 1944), *Biografía y laudes de la Caja de Ahorros Provinüiol*

de Guipúzcoa (Donostia, 1946), *La casa de Zumalacárregui* (Donostia, 1948), *El País Vasco visto desde fuera* (Zarautz, 1949), *Guipúzcoa por San Ignacio* (Donostia, 1950), *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio* (Donostia, 1956), *Garibay* (Donostia, 1960), *Nuestra pequeña historia* (Donostia, 1961), *Diccionario biográfico vasco* (Donostia, 1963), *Guipúzcoa m la historia* (Madrid, 1964, eta abar).

Orrezaz gaiñera, RIEV-en eta BAP'en batez ere, konta ezin-ala liburuen iritzi-emate ageri da. Gizaseme jatorra noski, bere lamdola ixilletik ainbat gai azertu ta aizeztatu zizkiguna.

(Ikus N. A. G., *Egan*, 1964, 1-6, 168 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 34 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 569 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 286 orr.).

35.—JESUS MARIA LEIZAOLA (1896-...)

Donostia'n jaio zan 1896-9-7'an. Lege-karrera ikasi zuen. Paris'en bizi da gaur Euzko-Gobernuko lendakari dala. 1937' gneko urrillaren lenengoetan Euzko Gobernuua eratu zanean, Agirre Lekube'tar Joseba Andoni izendatu zuten Buru ta J. M. Leizaola Zuzentza ta Kultur Zaingoko arduradun, besteak beste. Giza-erakunde guztien antzera, ta gudaldian batez ere, eukiko zituzten aurreneko euzko Gobernu artan sartu ziran gizonak beren utsaldlak, baiña asmo zindo sendoz jokatu zutenik ezin dezakegu ezpaian jarri. Agirre il zanean, 1960'an, Leizaola izendatu zuten buruzagi, erbestean zegoen euskal gobernuarena, alegia. Orrela jarraitzen du gaur ere.

IDAZLE BEREZI.—Ainbat gauzatarako ditun doaietatik ezer kendu gabe, Leizaola'k idazle-deia izan du bereziki. Ikasi ta idatzi, ortan ari izan da eguneroko arazoak utzi dizkioten tarte

guztietan. Euskeraz ta erderaz ondu dizkigu gauza eder asko euskal literaturari buruzkoak. Ona beronen lan eta liburu batzuk:

1) *Literatura vasca* (Barzelona, 1923). «Espasa»-n dator, XXIII garren alean, «España» artikuluan.

2) *Yakintzaráko gaitasuna* (Donostia, 1924). Euskal Esnaleaken «Itzaldiak» liburuxkan daukazu.

3) *Contribución de los vascos a la formación y a la ciencia del derecho* (Donostia, 1935). 49 orrialde. Bigarrenez (Bilbao, 1937), 80 orrialde.

4) *A propósito de la poesía popular* (*Yakintza*, 1936). IV, 94 orr.

5) *La frontera vasca contra moros* (Bilbao, 1937). 91 orrialde.

6) *Euzkadi'k Iberia lurraldeko erriak alkartu* (*Iberia*, 1945).

7) *Estudios sobre la poesía vasca* (Buenos Aires, 1951). «Ekin» argitaldaria. 212 orrialde.

8) *Etudes sur la poésie basque. A propos d'un rythme* (Baiona, 1951). «Gure Herria»-n, 178 orrialdean.

9) *La ((.Crónica» en la poesía popular vasca* (Buenos Aires, 1961). «Ekin»-en, 224 orrialdekin.

10) *1808-1814 en la poesía popular vasca y otros estudios* (Buenos Aires, 1965). «Ekin» argitaldaria. 300 orrialde.

11) *Romances vascos y Literatura prehistórica* (Buenos Aires, 1969). «Ekin» argitaldaria. 302 orrialde.

12) *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la Poesía Vasca* (Buenos Aires, 1974). «Ekin» argitaldaria. 170 orrialde. Euskal Oleríáatzazko bost liburu auek, taiuz ta zentzuz egiñak, Iruxo'tar Ander Mirena'k batez ere eraginda argitaratuak dituzu. Bai egilleak —bi bertsolari (Zapirain ta Jelorde) ta bi olerkari jantzi (Monzon-Olaso ta Iratzeder) aztertzen dizkigu azken liburu ontan— eta bal argitaratzallleak ez ote dute txalorik merezi?

13) *Gure olerkariak* (Euzko-Gogoa, 1956). Auek aztertzen ditu iru lan jakingarri tan: 1) *Mitxelena, erri-abots olerkariya. N. Etxaniz. Iratzeder.* (Orrilla-Gaiilla, VII, 24 orr.); 2) *Onaindia'ren ikus-mende zabala- Salaberry, berri-zalea* (Utzailla-Dagonilla, VII, 8 orr.), eta 3) *Orixe. Oxobi* (VII, 106 orr.).

Onelako lan asko idatzi dizkigu «Euzkadi», «Gipuzkoarra», «Argia», «Bl Día», «Yakintza», «Euzko-Deya», «Euzko-Gogoa», «Euzko-Enda», «Alderdi», «Gure Herria», Galeuzka», «Diario Oficial», eta abarren. Geienik, ala ere, eusko olerkiaren inguruan. Ba-ditu beste bilduma batzak, ele bietan, orain dik argitarara eman gaberikan.

NOLA IDAZTEN DUEN?—Oso txukun, bai euskeraz eta bai erderaz Irakur euskerazko txaiial au, Orixe olerkariari buruz. «Miramar, 1954» aztertzen du aren poesi-lanetatik, eta dio: «Otoitz bat da, eta uzkurtz-olerkiyan sartu genezake. Baño*, otoitzari erantsiya, filosofi olerki bat dago. Gu gizonak, soñaren eta gogoaren bikoia geranak, batasun —barrengo batasun— billa gabiltza, gure buru-austerik aundiena edo degu ori. Eta sona ilgo dana eta gogoa illezkorra ditugun ezkeru, biko batasun orrek gure bizitzaren korapillorik aundienak sortzen dizkigu. Gure adimenak nun edo nola biko batasun ori ezagutu? Orixe'k olerki ortan, filosofi bidetan ariaz, gaueko otoitzari erakusten digu iya ikutu añaz;

«Buru ta biotza alde banatara
doazkit egunez, bi Uran iduri;
gauaren mendean bat biurtzen dira
ezin bakanduaz: ordun naiz bat-bat ni».

Soñaren izaera eta gogoarena ez izanik berdiñak, bikotasuina agertuko da nai ta mai-ez, eta olerkariyak esango du:

«Egonaan iardun, iardunean egon»,
era
«Ari naiz, ba-nago».

Batasun egiazkoa agertzeko gu oso-osoa illezkor biurtu bear. Orretarako, Jaungoikoa gudan bear» (*Euzko-Gogo*, 1956, VII, 106 orr.).

«Barazar» izenordea erabili du iñoizka.

(Ikus, *Yakintza*, 1933, I, 207 orr.; G. Garriga, *Bol. E. Amer.*, 1952, III, 58 orr.; E. M., *Gernika*, 1953, 22, 54 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 572 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, V, 32 orr.).

36.—LUIS JAUREGI ETXENAGUSIA (1896-1971)

Aita Intza'k onela ñabartzen du Jauregi'ren olerki-sena: «Alditán bere gogoraldiak gertaera ezerezetatik artzen ditu egarako bideak eta irakurlea esnarazko gairik ederrenak. Aldietan zorrotza da bere luma, ta irudipenak atsegiñenetatik ba-daki gogoraldirik ukigarrienak ateratzen. Galak eskatzen dionean ba-daki xamur eta gozo izaten ere. Aldietan azkeneraño izkutatatu egiten du irakurleari geienik eragingo dion kudipena, eta bi itzetan josten du bere gogor aldi guzia. Egia da, banaketan ba'da, laburpenen bat edo beste ematen diela itzei, baño izketan ere noiz-nai egiten direnak» (*Biozkadak*, XII).

Errenderi'n munduratu zitzaigun «Jautarkol» —Jauregi'tar Koldobika—, 1896-6-19'an. Apaizgorako deia izanik umetan, Komillas'en osotu zituen ortarako ikaskuntzak, Eliz-Legedian Lizenziatua ta Urtziztían Irakasle (Doktor) irtenik. Mezakotu ta laster, arima-zain daukagu, 1923'tik, SaliniUas de Buradón (Araba) erritxoan; 1926'tik, Ataun'go San Gregorio'n, urte berean Altzo-Goiko'ra aldaturik; geroztik Anoeta'n, Matxinbenta'n eta Urrestilla'n egon zitzaigun, eta azkenez, 1958'tik, Zarautz'ko Karmeldar Lekaimen kapillautza egin zuen. Emenxe il zan, 1971-2-2'an. Gizaseme apal eta mistikua genuen. Atsegin izan zitzaion, beraz, toki bakar ezkututan bizi ta lan

egitea, ez berez erabe ta uzkur zalako, bere gogo-giroak orixe eskatzen ziolako baizik. Txori kantariak ere saiorik bikaiñenak izkutuau egiten omen dituzte. Nola ez olerkariak?

.EUSKAL IDAZLE.—Olerkari genuen, ain zuzen ere, Jautarkol, olerkari lirikua; 1919'tik 1930'ra bear bada, Arrese'tar Erneten ta biak, sail ortan bakar xamar ibilliak dira. Euskeraz ederki zekien, eta gizonki zerabillen euskal idazkortza.

Komillas'en ikasle zala asi zan idazten, eta arrezkero guztian, bai euskeraz eta bai erderaz ez digu gutxi idatzi, beti errez, garbi ta eder. «Euskal-Erria»-n, «Euskal-Esnalea»-n, «Zeruko Argia»-n, «Argia»-n, «Euzkadi»-n, «Ekin»-en, «Argiaren Egutegia»-n, Errenderi'ko «Bertsolariya»-n, «El Día»-n, «Yakintza»-n, «F,usko-01erkiak»-en, «Aranzazu»-n, «Euzko-Gogoa»-n, «Libro de Oro»-n, «01erti»-n, «Euskera»-n, eta abar, agertzen dira bere lanak. Ango ta emengo batzaldietan sari ederrak jaso zizkigun.

Euskaltzaindikoa zan, eta beti zegoen gertu nalz eskatzen zioten idazlan bat osatzeko, naiz itzaldi bat eratu ta mintzatzeko. Eskabidea beretzat agindu zorrotz izan.

Ona argitaratu zizkigun lanik beiñenak;

1) *Egizko edertasuna* (Bermeo, 1923). Gaubeka'ren irarkolan. 56 orrialde. Ipuin luzea, Euskaltzalndiaren babesean argitara emana, ta len-sariz sarizatua.

2) *Ipuiak* (Donostia, 1924). Iñaki Deunaren irarkolan. «Argia» asterokoak argitara emana. 80 orrialde.

3) *Biozkadak* (Iruña, 1929). Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan. XV-106 orrialde. Aita Intza'ren itzaurrea. Poesiliburua, 50 olerkirekin.

Naiz-ta luzetxo izan, ona A. Intza'k koplaidatzi oni egin zion sarreran dioskuna; «Bi bide daude gure olerkariak beste edozein izkuntzetakoak bezin bikañak izateko. Gure erritarren berezko bertsoak begiztatu, ta euskeraz itzegin eta euskaldun onai entzun. Gure erritarren berezko bertsoak esan nai dut

begiztatzeko, ba-diralako bertso berri asko argitara emanak; baño askotan ez ain erritarrak eta ezta ere bildu gabe dauden beste asko bezin onak. Erritarren berezko bertsoak deitzen ditut ba, erritarren agoz-ago beren abestie-tan dauzkatena. Ez-tira asko, baño bai egokiak... Oiek, berezko etorrian, erriaren biotzeraño sartzeko artzen dituzten irudipen berak, orra gure olerkari onen olerki gai egoki, adikor ta zabdkorrena. Oien irudipenak eta gogoraldiak nonbait errazak dira agertzeko, egokiak euskaldunaren biotza bereganatzeko; orra ba^ olerkariarentzat bide ebakitzaiUe gaitzak, asmaketa berriak bururatu ta aien era berean azaltzeko»...

Eta. liburua aurkeztuz, dio: «Baño euskal olerkari ona izateko, esan dugun guzia eztu naikoa gizon ikasiak. Bear du euskeraren joskera ondo ezagutu. Ta artarako esan degun bigarren gauza, au da, erritarrekin asko itzezin. Gogoan artu beren esakera ain bizi, erraz eta egokiak. Gaur zuen eskuetan jartzen dizutedan liburuan auxe ikusten dut. Euskal esaera, garbi baño garblagoa; bere irudipenak argi ta erraz emanak; irudipen bat artzen du ta zearo ta osotara azaltzen du, eragozpen guzien ganetik triskatuz».

4) *Maite-Opari* (1936). 1935'an, Bedofia'n «Loramendi»-ren omenez ospatu zan Euskal Olerti Egunean, saritua izan zan olerki au, zillarrezko adarrez ain zuzen ere.

5) *Ipuiak* (Zarautz, 1953). *Itxaropena*'k Kuliska Sortan, 4'garen zenbakia. Bigarren argitalpena? Ez osorik; an ba-dira emen ez daudenak, eta emen ba-dira an ez daudenak. 74 orrialde.

6) *Loramendi olerkaria* (Euskera, 1960, V, 235 orr.). Bere poesi-lanaren azterketa, bera bizi izan zan garaiari buruz-buru.

7) *Xenpelar Bertsolaria* (Zarautz, 1958). *Itxaropena* Argitaldaria, Kuliska Sortan, 25-26. 142 orrialde. Bizitza ta Ber-

tsoak. Muiña: Itz-aurrettoa. Bertsolaritasuna Euskal-Errian, Xenpelar bertsolaria. Xenpelar'en bertso-berriak. Erligio-gaiezko bertso-berriak. Azken-itza.

Idazti-egilleak itz-aurretxoan: «Ez da nere asmoa Xenpelar'en bertso guziak argitaratzea, aren berri eman, ta zerbait ezagun-aztea baizik. Xenpelar'ek il zanean, 34 urte besterik ez zituan, eta utzi zizkigun Bertso-Berriak asko ta era guzitakoak dira. Oietatik batzuek, mota guzietakoak, ipiñiko dizkitzut. Ezagunak izango zaizkitzu noski, baña, bizirik iraun dezaten, jaso ditut emen. Nere gogorik biziena, gure euskeraren alde zerbait egitea izan da, ta liburutxo onek egingo duelakoan nago. Gaur, orrelako liburu errazak eta ariñak bear ditugu ugari, euskal-liburuak irakurtzeko gogoa, euskaldunen artean piztu ta bizitu dedin».

Euskera goraturik, onan darrai: «Euskera euskaldun guziena ta euskaldun guzientzako da. Gure pitxirik aberatsena degu. Oraindik askoz geiago: Euskal-Erria'ren anima degu Euskera. Euskera il ezkeru, Euskal-Erria ez litzake izango Euskal-Erria, beste Erri bat baizik. Euskaldun danok, beraz, gure izkuntza zarrari eustera ta indar-ematera gaude beartuak. Euskaldun gurasoak dira batez ere, gai oni buruz, geien-geien lezatekenak. Lotsagarria benetan, guraso askok ontan agertzen diguten zabarkeri ta ajolagabekeria».

Eta Xenpelar'en doiñuai buruz; «Xenpelar'ek bertsoak ez ezik, bertsoak kantatzeko doiñuak ere asmatu zizkigun eta gerroztik bere ondorengo bertsolariak erabili oi dizkigute. Emen-txe arldtuko dituzu doñu **oiek**».

8) *Paskual Duarte'ren Sendia* (Zarautz, 1967). Kamil Jose Cela-raí «La familia de Pascual Duarte» nobela euskeraz. Itxaropena, Kuliska Soria'n, 62 zenbakia. 168 orrialde. Karlos Santamaria'ren itzaurrea. Itzulpen atsegiña.

Zerrenda onezaz gaiñ, il aurretxoan, bere olerki-bilduma bat burutzen ari izan zan; neri esan zidanez, laster irarkolara

eramateko zeukan. Nun ote dugu gaur bilduma ori? Aita In-tza'k beretik, idatzi didanez, bukatua du aren olerki guztien sor-ta, ta askorik luzatu gabe irarkolara eramateko asmotan dago.

OLERKARI.—Idazle bakoitza bere arnasak darabil, berdin olerkaria ere. Jautarkol'ek bere arima berezia zuen, eta orixe utzi zigun, osto ertzetan tanta iduri, bere bertsoetan dardarka. Barnean zituen atsekabe ta pozak adierazten erabilli zizlugun irudipenak, egoki, nare ta adikorrak ziran oso. Aren adimen ar-giak sorturiko gogai ta burutapenak, erri asko ez jakiñak be-rak ere naiko errez ulertzeko modukoak. Etzan bertsolari mai-llako, ez poeta illun-zale, bai bien arteko euskaldun olerkari jator, gauza ederrak ederki adierazten zekiana.

Argarri dugu geienik J. Ariztimuño"ren iritzia olerkiari bu-ruz; bigarren Eusko Olerkiak liburuan au diño: «Irudipenez ugari, olde-asmoz apain jantziak Tapia-perurena ta Jauregi bal dagerzkigu. Minkuntz zintzoaz aberatsagoak dira ordea: Uriko bikañenetakoak bai zaizkigu biak. Irudipena eta minkun-tza naasi, biotz-muñ iturri barneak ahapaldietara oparotsu, arro, nabarmen datorzkiote. Erromantiko ospatsuen izpiak iku-tutakoak ditugu bi olerkari oiek. Lizardi, labur, legor, adi-galez izarra: Jakakortajarena, asmoz eta eraz errikoi; Jauregi eta Tapia-Perurena irudiz ugari, minkuntzez bigun» (XVIII orr.).

Eta IV'garren alean (133): «Ez genduan liburutxo au biri-bilduko Yauregi'ren olerki gozoak orrialde oietan irar-azi ez ba-genituan. Olerkari leun eta gogo meedun onek «Yakintza» ri laguntza bikaiña eskeiñi dio igazko zenbakietan. Eta zorra nolabait ordaindu naiaz, ona emen gure esker-ona argitara azaldu. Esukeltzaleei beti zaie atsegin, eta atsegin ezik, oler-kari onen bertso garden, aratz eta ederrak irakurtzea. Beste edozeiñenak baiño ariñago eta bizkorrago ulertzen bal dituzte» (137 orr.).

(Ikus, *Euzkerea*, 1929, 191 orr.; S. Onaindia, MEOE, 979 orr.;

L. Mitxelena, *Egan*, 1958, XI, 240 orr.; Zeleta, *Euzko Gogoia*, 1958, IX, 696 orr. ta 1959, X, 281 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 108 orr. ta *Euskera*, 1972, 291 orr.; Auñamendi', *Literatura*, III, 500 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 474 orr.).

37.—ANTONIO MARIA LABAIEN TOLEDO (1898-...)

L. Mitxelena'k beiñola: «Labayen jauna eraberritzeko gogoz euskal teatroan agertu zen ezkerro —eta aspaldixko agertu zen, emen bere lanen berri laburrean ikus ditekeanez—, eztu utsik utzi aurreneko artan artu zuen leku jaso. Patxadan, itobearrezko presarik gabe, aurrera darama asieran artu zuen asmoa, gero eta trebeago, gero eta maixuago. Eztie berritasuna ez berrikerieri muzin egiten, baiña eztu uste aize berriei atea zabalzabalik irekitzeaz geiegizko irabazirik izango gendukeanik. Leialki dabilkio ondotik atzoko teatroan, atzokoa ez ezik, gaurkoa eta betikoa ere delakoan. Eztabill oker noski» (*Egan*, 1962, 4-6, 308 orr.).

GIZONA.—Tolosa, beiñola Gipuzkoa'ko uriburu izana ta gizaseme jator askoren seaska, ederki nabarmentzen zaigu euskaltzaleen artean ere. Ementxe jaioa da Labaien jauna, 1898-1-12'an.

Bertoko Eskolapio ikastetxean egin zituen len-ikaskizunak, gero Zaragoza'ko Komerzio Eskola Nagusian amaiturik goragokoak. Ondoren, sendian zeukaten —eta daukaten— industrian asi zan lanean, orrela jarraiturik 1936' garreneko gudateraiño. Guda txinarrak etzaizldon bat ere gogoko, ta aietarik iges egin naita Lapurdi'ko Sara'ra jo zuen bere sendiakin, zortzi urtean bertan bizi izanik. Ekaitz tximista-laiñoak zerbait ematu ziranean, berriz Tolosa'ra. Eta emen dugu geroztik, urteetan aurrera joanagatik, beti euskal arloko zer-edo-zer esku artean duela. Euskal gauza ta erdal izkuntzetaz zaletua.

EUSKAL IDAZLE.—Euskera jagon eta jasotzeko egin duen lanagatik, antzerki-alorrean batez ere, guztiz aintzagarri dugu Labaien. Euskerazko lenengo lanak 1918'garren urtean argitaratu zituen orduko egunkari ta aldizkingietan. Donostia'ko «Argia» asterokoa izan zan aren idazki luzetxeagoai leku eman ziona. Beste zenbait lanen artean ibillaldi baten artikulu-sailla «Bidez-bidez» izenpean, Baiona'tik Bilbao'ra bitarteko txangoa erriz-erri kontatuaz. Humboldt'ek joan dan gizaldian egiña zuen antzekoa.

«Argia»-k ba-zuen bere «Egutegia», urte mordoan antolatu zuena. Atal batzuk eman zituen or ere Labaien'ek; guztietan aipatuena «Aralar» zeritzan lana, mendi-kate ta bazterren berri zeatz eta edergarriak bildurik. Lan ori norbaitek gaztelera biurtu zuen, eta ondoren, katalanera itzuliaz, «Centre Excursionista»-[^] aldizkarian agertu zan. Garai aretako «Pyreneica», Tolosa'n ateratzen zanean ere, arki ditezke L. Ayanbe'k izenpetutako artikuluak. Esan dezagun, bada, Labaien'ek «L. Ayanbe», «Ibaian», «Etxekorena», «Aspaldiko», «Ibargi», «Matxingorri», ta abar, erabili ditu lanak izenperatzean.

Orretzaz gaiñera, 1930/1936 urte bitartean «Yakintza» aldizkarian naiz euskeraz eta naiz erderaz idazlari asko azaltzen ditu zer-naiz gaiez. Guda gandua gaiñ erorita gero ere etzan lanegitez gelditu: Sara'n zegoelarik ainbat lan osotu zigun. «Gernika» aldizkarian aren lanak agertzen dira. «Euzko-Gogoa» erbesten jaiio ta kozkonduetako aldizkarian aurrenetako lankide azaltzean zaigu, ta bertan irakur ditezke aren lan mamitsu ta umotak bai antzerki eremuan eta beste gaietan. «Egan», «Karmel», «Olerti», «Zeruko Argia», «Agur» eta olakoetan ere takian takian ikusi dogu aren izena edo izen-ordea. Labur: aren lan jator eta itzulpenak mordoka dira.

Ona, antzerkiak alde, liburu bezela eskeiñi dizkigun lanak:

1) *Tajuz eta zentzuz* (Baiona?). 36 orrialde. Fernando Etxekorena goitizena darabil.

2) *Filosofiazko Jardunak*,

3) *Elizanburu* (Donosti, 1955). Escelicer etxeak argkarar tua. Lendabizi «Egan»-ek emana (1955, 1-2, 23 orr. ta 3-4 orr.). Lapurditar olerkari aundiaren bizitza ta lanak deritzan biografi idaztiñoa da, 31 orrialdekoa. «Gure Herria»-k gero xeetasun ugariak erantsi dizkio lan orri saratar poetaren zernola guztiak osatuaz.

4) *Euskal Antzertiaren edestirako apur batzuek* (Tolosa, 1933). L. Mendizabal'enean. 18 orrialde.

5) *Compendio del poema «Euskaldunak» de Orixe* (Zarautz, 1950). Itxaropena'k irarrita. 222 -XV orrialde. Orixe'ren poema dalakoaren bilduma euskeraz ta erderaz gaia xeatuaz errez ta argi ematen digu.

6) *Escenas papeleras* (Zarautz, 1947). Idazlan asko azaldu ditu or-emengo aldizkarietan ain euskaldun dugun paper langintza gaiez. Bide-utratzaille ederra, benetan, gure ingi-gintzaren kondairarako.

7) *Sasi-batasuna* (Tolosa, 1975). Gaurko euskaltzale gazteak artutako joera ez da, bere ustez, gari garbizko joera, euskera idatzari buruzkoa noski. Orren aurkako idaztiñoa duzu au.

6) *Teatro Euskaro* (Donosti, 1965). I alea.

9) *Teatro Euskaro* (Donosti, 1966). II alea. 190 orrialde-«Añamendi» bildumak Zarautz'eko «Itxaropena!» irarkolan argitara emana. Lenengo liburuan euskal antzerkiaren edestia ariltzen duen bezela, bigarren ontan ark or-emengo aldizkarietan euskeraz ta erderaz azaldutako lan-atalak damazkigu. Gal orretan biak oso baliotsuak.

10) *Teatrogintza eta Yakintza* (Zarautz, 1973). «Kuliska Sorta», 77. 144 orrialde. Iru atal ditu liburuak: lenengoak, *Agar'en seme Ismael* deritzan antzerti-lana, 1970 urtean «Agora» Teatru-saria irabazitakoa, 1971-3-28'an lenengoz Urnieta'ko «Egi-Billa» taldeak antzertua dakar; bigarrenak mintzaldi bat, ots, *Aspaldiko teatrozale bat oraingo teatroaren* aurrean, egi-lleak, 1965-9-25'an Donostia'ko Erri-Liburutegian emana eta

«Egan»-ek 1966'an argitaratua; irugarrenak saiakera bat, ots, *Teatroa erbeste ta gurean*, aurkezten digu. Liburu atsegiñ?, teatru zdeentzat.

11) *Muñagorri eskribau, pakegüle ta juerozale* (Donostia, 1976); M. Lekuona-ren itzaurrearekin. 442 orrialde.

12) *Teatro Osoa* (Bilbao, 1977). **Retana**'k aurten argitaratu dizkio antzerid-lan guztiak, ale mardul bitan.

Arruntenik artu oi dugun dei berezi ortaz kanpo, beste apeta naiz ekadura txikiren bat ere izaten dugu geien batez geure barrunbe ixillean. Labaien'ek ere bai; musika griñak joa ibilli zaigu, ta BAP aldizkarian adibidez zenbait saiakera emanak ditu gal orretzaz: «Mocoroa, apóstol de la Música», «Situación de la Música», «Iparragirre», «Variaciones sobre el mismo tema», ta abar.

13) *Eliezer igarlea. Ebreo izkuntzaren Pizkunde*[^]. (Gazteiz, 1977), Kardaberaz Bazkunak. 25 orrialde.

ANTZERKIGILLE.—Baiña aitatutako lan guztiok gure elerti ta kulturazko edozein gaiez siñalagarri bai ditugu ere, A. M. Labaien arretaz eta gogo bereziaz Euskal Teatro langintzari lotua bizi izan da. 1921'garren urtean Donostia'n «Txinparta Buruzagi» komeria sariztatu zioten, bereala «Kaiku» aldizkariak argitaratu zuena. Arrezkero, ea etengabe antzerki-lanak sortu ta argitarazten joana dugu, bidenabar sari asko irabaziaz. Aren izena orrela antzerkigilletzat ezagutu ta txalotua izan da.

Eta nola ez? 1932'an ark sortu zigun *Antzerti*, euskal Antzertiaren illerokoa, guda garala tarteko izan ezpa-litz, gaur ere bere arloan ari izango zana. 54 zenbaki agertu ziran, zein baiño zein teatro-lan bikaiñagoz agertu ere. Ibalan'ek aldizkari artan bereak eta iñorenak ager-azi zituen, antzerki-giroa goíen-malllaralño jasorik.

Ona bere lan-erreskada galanta:

1) *Txinparta Buruzagi* (Donosti, 1921). Komeria ekitaldi bitan. Donosti'ko Udaletxeak 1920'an eraturiko batzaldian sariztatua.

2) *Ostegun gizena* (Tolosa, 1930). Navarro, Dei Teso y Cía. irarkolan. 16 orrialde. Umeentzako ekitaldi bateko antzerkia, saritua.

3) *Euskal-Eguna* (Tolosa, 1931). Lopez Mendizabal'enean. 62 orrialde. Iru ekitaldi tan, Iztunde Akademiak sarizatua.

4) *Maya* (Tolosa, 1932). Ballet. Andre «Maya» erregiña. Lopez Mendizabal'ek, «Antzerti», 2'en eta 3'en zerbakia. 3 orrialde.

5) *Mateo Txistu* (Tolosa, 1932). Lopez Mendizabal'enean, 26 orrialde. «Antzerti», 4'en zerbakian. Egintza bakarra.

6) *Iparragirre* (Tolosa, 1933). Lopez Mendizabal'enean. 46 orrialde. Bi ekitaldi ta azken-zati dun antzerkia.

7) *Berezi* (Tolosa, 1934). Lopez Mendizabal'enean. 8 orrialde. Henriette Charasson'en «Separation» parantzeraz idatzitako antzerkia, euskeraz. Ekitaldi batekoa.

8) *Irri-itzaldia* (Tolosa, 1934). Lopez Mendizabal'enean. 6 orrialde. Eztaietarako. Antziñako «Joyeux Sermón de Mariage» batetik euskeraz. Bertsotan.

9) *Gizon bizarpeituti eta Emazte bizartsuti...* (Tolosa, 1935). Lopez Mendizabal'enean. 23 orrialde. «Antzerti», 43'en zerbakian. Bi ekitalditako jostirudia.

10) *Iruñxeme* (Tolosa, 1936). Iru ekitalditako antzerkia. Lopez Mendizabal'enean. 56 orrialde. «Antzerti», 53-54 zerbakian. «E. B. B.'ko lendakari agurgarri Ziaurritz'tar Dorota'ri Iruña'n 1935 garagarillaren 30'n ospatutako Aberri Egunaren oroiz Egilleak».

11) *Muga* (Baiona, 1954). Darracq'en irarkolan. «Eusko Jaldntza»-n, 1951, V, 293 orr., ta 1952, VI, 194 orr. 16-XIII orrialde.

12) *Lurrikara* (Guatemala, 1955). «Euzko-Gogoa», 1955, VI, 115 orr. Lau ekitaldikoa.

13) *Jostuna* (Baiona, 1956). «Euzko-Gogoa», 1956, VII, 20 orrialdetik aurrera. Bi ekitalditan, neskatxa bakarrentzat.

14) *Petrikillo* (Donostia, 1956). «Egan»-en, 1956, 3-4, 112 orrialdean. Ekitaldi bateko irri-antzerkia.

15) *Jokua ez da errenta* (Zarautz, 1960). «Kuliska Sorta»-[^] 41-42. Itxaropena'k irarria. 159 orrialde. Iru ekitaldiko komeria.

16) *Gálztaundi* (Donostia, 1961). Ekitaldi batekoa, gizon-koentzat. «Egan»-en dator.

17) *Mdentxo alargun* (Tolosa, 1962). «Auspoa» bilduman, 17'garrena. Iru ekitalditako antzerkia.

18) *Bai esalea, Ez esalea* (Zornotza, 1963). «Olerti» bilduman dator. A. Brecht'en «Der Ja sager and der Nein sager», euskeraz.

19) *Gizona ta Kidea* (Donosti, 1963). «Egan»-en daukazu. F. Dürrenmatt'en «Der Doppel-beanger», euskeraz.

20) *Neskatilla Ezkongai* (Donosti, 1964). «Egan»-en au ere. Ionesko'ren «La jeune filie a marier», euskeraz.

21) *Su ta gar* (1965). «Les assureurs», euskeraz.

22) *Domenjon de Andia* (Zarautz, 1965). «Kuliska Sorta» bilduman, 58'garren zenbakian. Iru ekitalditako antzerkia.

23) *Su emoillean* (1966). Max Frisch'en «Die Brandstifter», euskeraz.

24) *Pestaburu* (1967'ko «Orixe» saria).

25) *Perretxiko jatea* (1967).

26) *Lapikoa* (Zornotza, 1969). «Olerti» bilduman. Plauto'ren «ulularía», euskeraz.

27) *California... Ku-ku!* (Zarautz, 1969). «Kuliska Sorta»-n, 69'an.

28) *Agar'en seme Ismael* (Zarautz, 1973). «Kuliska Sarta» bilduman, 77'garrenean. 52 orrialde.

29) *Mesner*. Rouseau'ren «Le devinder village», euskeraz. Argitaratu gabe.

30) *Bastian eta Bastiane*. Argitaratu barik.

Zerrenda au naiko ezpalitz, eta antzerkigille egikizuna, Teatruari buruzko kritika lan anitz burutuak ditu, esan dugunez;

baita zenbait itzaldi emanak ere, «Antzerti»-n, «Yakintza»-n, «Egan»-en, «Euskera»-n eta olakoetan argira ateratakoak. Gaur ala ere teatro gaiezko lanak utziaz joan dala dirudi. Nik orain bost bat urte geiago etzuen egiten, galdetzen nion karta batean; eta arek erantzun: «Azken urteotan giro galgarria sortu bait da gure artean. Euskaltzale gazteek artutako joera ez zan egokiena gure euskal kultur arentzat. Beste ekintza bideak, bortxa, indarkeria ta iraultza bera gogokoago zituzten eta atzera arazi dute euskal teatroaren aurrerapena. Azpi-jan eta bekaizkeria ere ez dabilta alen alegiñetatik urruti. Au guztia dala-ta, beste kultura zeregiñetan leiatzea atsegiñago zait, eta bide ontatik jarraitzen dut».

Ikus-menean dagoanez, gizaseme ornidua dugu Labaien, bere bizitzaldi oberena euskal antzertiari eman diona. Ez al da goresgarri?

Ba-ditu, azkenez, atsarte uneetan onduta, kopla bizkor sotillak ere. Eta esan dugunez, «Maya» ta «Irri-itzaldia» antzerldek bertsoan daude.

Olerkari lez, omenaldi berezia egin zitzaion Larrea'n, 1977-11-20'n, Olerti Egunez.

Euskaltzain osoa da 1951'tik.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1016 orr.; G. Gaxriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1957, 86 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1962, 4-6, 308 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, ni, orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, no orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 578 orr.; Iñaki Muxika, *Jakin* aldizkaria, 15 zenbakia, 15 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, 536 orr.).

38.—TEODORO HERNANDORENA (1898-...)

Zizurkil'en jaio zan 1898-11-6'an. Agin-sendagille. Bilbao'ko Galxotegian osotu zitun lenengo ikasteak, gero Zaragoza'ko ta Madrid'eko Ikasgu Nagusietan jarraiturik. Ondarrabian bizi da gaur, bere ogibideari atxikirik.

EUSKAL IDAZLE.—Euskal bertsolaritza bati izan du begiko. Bertsolarien nor-geiagokak eratzen maiz ikusi izan da. Baita oieri buruz lan ederrak idatzi ere idatzi dizkigu. Baiona'ko «Herria»-n, «Zeruko Argia»-n, «El Bidasoa»-n, «Anaitasuna»[^] eta «Principe de Viana» aldizkariaren euskerazko ataletan ari izan da batez ere.

BERTSOZALE.—Esan dugu; bertsozale porokatua da zizurkildarra. Lapurdi'n egin izan duen egotaldian bereziki bertsolarien saioak jartzen etzan nagi ibilli; bertsoak idatzi ta irakurtzea, izan ere, atsegingarri baldin ba'da, askoz alai-une eztiagoak ematen dizkigute gure errietako plazetan batez bertsoan ari diran gizaseme jatorrak. Gisa ontako jaialdi ederrik eratu izan du Hernandorena'k. Baita ortarako bertsolariak billatzen alegindu ere. Olako asko dira gure nekazari, ikazgin, artzain eta antzekoen artean; ba-da bai egurra. Nun ote? Or koska! Gutxien uste dan tokian.

1946'ko agarraren 22'an, bertsolari saioa nai zuten Donibane-Lohitzun'en. Mattin, Goikoetxea ta olako batzuk bazituzten; baiña geiago gura. Nun aurkitu? Ona nola billatu ta saiora ekarri zuen T. Hernandorena'k Ximun Ibarra ere. Berak konstatzen digu onela:

«Mattin'eri bezela, Goikoetxea'ri ere azken agurraren aurretik derrigorrezko galdera zuzendu genion: — «Txapelketa ortara etor liteken beste bertsolaririk ezagutzen dezu?» — «Ez dakit etorri nai dun; baiña, bada emen, gurekin lanean ari dan ñapar bertsolari bat». — «Ikusi genezake?» — «Bai, gelditu zaitte emen zure aurrekin bazkaltzen. Dagoana partituko degu eta bazkal denboran ezagutuko dezu eta baita ere, agian, bertsoan entzun». — «Oso ondo deritzait». Eta orrela, Goikoetxea'ren bitartez, Irati'ko txabola batean ezagutu gendun Ximun Ibarra, Sunbilla'ko bertsolari jatorra.

«Mendiko langilleekin bazkaldu eta ttotta pixka batekin «berotu» ondoren, Goikoetxea'k zirikatu zuan gure ñapar bertsularia. Baita ere onek patxara ederreko bertsoan erantzun.

Bereala konturatu giñan bertsolari tajuzkoa zala, etorri ugarikoa eta, jakiña, neuragabekoa zan gure poza, laugarren bertsolaria «sarean» zegoala ikusirik.

«Saioa bukatu ondoren, onela mintzatu nintzaion: — «Badakizu, Ximun, zergati etorri naizen Goikoetxea'ren billa, Irati'ko baso ontara. Eta oso pozik oartzten naiz «tiro batekin bi uxu» botako ditudala. Zuk ere txapelketa ortara etorri bear dezu. Dagoaneko bi ba-ditugu, Iriarte izeneko beste bat ere bai ziur asko eta zurekin laugarrena izango litzake. Eta lau bertsolari-ekin saioketa polita egin liteke.

«—Barkatu, baiña ni ezin juan niteke —erantzun zigun kolpez Ximun'ek; eta arrituta utzi gindun ustegabeko erantzun orrekin.

«—Zergatik bada ezin dezu etorri?» «—Begira, nik neguan errira, Sunbilla'ra itzuli bear det. Eta euskerazko festa batean ibili naizela jakiten ba'dute, zigortuko naute. Gure errian euskeraz «itzegite utsa» ere galerazia dago eta, ondo ulertuko dezun bezela, askoz ere okerrago izango litzake..., bertsoan aritzea. Ez, barkatu, baiña nik ezin dezaket». «—Ori dana egia dala, badakit, Ximun. Euskeraren aurkako gorrotoa zenbateraiñokoa dan ere bai. Egun oietan jakindu det Juzgadoon gure seme-daben euskerazko izenak marraskatu eta... erderazkoak ezarri diozkatela. Ori dana egia da, zuk diozuna alegia. Baiño zuk ez det uste beldurrik izan bear dezunik. Nork jakin bear du Sunbilla'n zu, Irati'ko basoan dagoan gizon bat, Denibane'n izandu dala bertsoan? Ori oso arrigarri izango litzake. Nere iritziz, eziñezkoa». «—Ala izango da, baiña nik ez det arrixkurik nai», zion Ximun'ek». (*Principe de Viana*, 1975, epailla, 6 orr.).

Egiñalak egiñik ere, ain bertsolari jatorrari txapelketarako baiezkorik ezin aterazi. Sunbilla'n ala ere, «Zubikoa» sendagille

zan eta aren izenez bataiatu zuten Ximun. Etzioten iñork igarriko. Eta orrela eraman zuen Hernandona'k Ximun Ibarra («Zubikoa») Donibane'ko euskal festetan bertsoetan egitera.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 97 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 598 orr.).

39.—TOMAS AGIRRE URDALLETA (1898-...)

Errexil, Ernio azpiko erri pertxenta, basetxe zuri-gorritz ezin obeki jantzia. Emen jaioa dugu gure Agirre'tar Toma, «Barrenoro», 1898-2-24'an. Salgaien artekaria. 1936'gneko gerra tartean Sevilla'ra aldatu zan, eta antxe daukagu arrezkero guztian. Maria Dolores Agirre'ren neba, biok euskal idazle, Toma'k gerra ezkerero ezer idatzi ez digun arren.

EUSKAL IDAZLE PIZKOR.—Gerra aintziñako sei urte loretsu aietan euskal elerti zelaian ildoak urratu ta azia ereñez zoli lan zegitenean artean aurrengo bezela daurkigu Barrenoro. Onan J. Zaitegi'k: «Barrenoro gezur-izenez daritza Agirre'tar Toma. Yayotzez errexildarra duzu, biotzez bilbotarra. Beso zaintsu-sendoak ta sorbalda eskergaren indarra baño gogorrigo, altsuago ta onuratsuago duzu bere adimen-indarra. Gaxte-gaxterik bere ikasketak asi zitun. Bere ikaskideak diotenez, etzan ikasle makala izan batez ere elerti gaitan. 1930 g. urtezero bere idazlanen zantzuan naukazu. Ao-sapaia ur biurtzen bai-zitzaidan. Ameriketako oyan irzaltsuetan barna pozik irakurtzen nizkizun bere irakurgai ariñak. «Euzkadi» izparringiaren euskal-atafean idazten zizun. Gero ere bai eskuarki» (*Euzko-Gogo*, 1950, l'go zenbakia, 13 orr.).

Urte oietan, ia beti euskal literatur gaiez, eten gabe idatzi zuen, itz askatuz eta lotuz idatzi ere. 193 l'an, Tolosa'ko oleri jaietarako iru poesi aurkeztu zizkigun; urrengo urtean irabazi zuen«Kirikiño» saria ere, «Amaika nekeen semea dek ogia» ar-

tikuluarekin, Orix (1930) ta J. B. Eguzkitzaren (1931) ondoren. Eta sari ori irixtean «euskel idazle bikaiñen artean sartu genun —diosku J. Zaitegi'k—. Arrezkero, eten gabe eta alegiñez yardun du idazten».

Emen argitara zizkigun liburuak:

1) *Gazigozoak* (Bilbao, 1933). Verdes-Atxirika'tar E.'re-
nean. 105 orrialde. Leendik ere izparringietan azaldutako lanak
geientsuenak beintzat. Ona gaiak: «Loreti», maitasun edesti
txairoa; «Larretxe'ko sorgiña!», irakurgai lilluragarria; «Mikel,
arrantzale zangarra», giza-irudi zindoa; «Moringer zaldunaren
edestia», Walter Scott'en olerki-kantua, itz lauz; «Baroja idaz-
lea nere begi-ninietan», elerti-zirrindak; «Papini'ren irudipen-
amesak»; «Errusi'ko zabaldietan barrena»; «Goazik baserri-
aldera: Amaika nekeren semea dek ogia!», «Kirikiño» saria
irabazi zuen lana; «Silvio Pellico'ren biozkadak». J. Zaitegi'k:
«Ageri danez, legartzako baso-loreari, sasi-tarteko lili urdin apa-
lari ta yauregi-ormako larrosa gorri ezti ostutzen dion erle
langille antzo, Barrenso'k gizarte, politika, ederti ta abertzde-
gaiak yalkiaz idazti ederra eskeñi digu adiguri zurrian» (*Loe.*
at., 13 orr.).

2) *Uztaro* (Bilbao, 1937). Eleberria. «Editorial Vasca»
irarkolan. 316 orrialde. Bigarrenez ere «Editorial Vasca»-k (Bil-
bao, 1950) atera zizun. 320 orrialde. T. Agirre'k, izan ere,
badu asmamena nobelarako bereziki; nortzu edo pertsonak bizi-
bizi jarten dizkigu begi-aurrean, eta irudi-jolas bizkorrez ara-
gitzen ditu maite-kondairatxo atsegiñak. Orixegatik, ez da arri-
tzekoa bere sasoiko idazleen artean, itz lauz batez ere, bikaiñe-
netarakotzat joten ba'zuten askotxok.

«Euzkadi»-n eta «Yakintza»-n idatzi zigun berariz. Baita
«Libro de Oro» (1934) deritzanean ere «Eutrapelia literaria»
lana.

OLERKARI.—Irudimen azkarreko agertu zan olerti-zelaian
ere, 1931'an. «Euskaltzaleak» Tolosa'n antolatu zuen Olerti

batzaldira iru poesi bialdu zituen: *Jose Migel Amerika'ra bi-dean, Zein ederra dan kezka-gabeko atsedena!* ta *Donosti'ri*. Lizardiren *Urte-giroak ene begian* izan zan sariatua; baiña an aurkeztu ziran orduko olerkaririk gaillenenak, M. Lekuona, Tapia-perurena, Jautarkol, Tx. Jakakortaxarena, Loramendi ta abar. Eta auen artean, Agirre'tar Toma.

Olerki aiek liburu legez argitaratzerakoan, J. Aitzol'ek egin zien aintzin-solasa, ta onela zesan; «Irudipenez ugari, olde-asmoz apain jantziak Tapia-perurena eta Jauregi bai-dagerzkigu. Minkuntz zintzoaz aberatsagoak dira, ordea: uriko bikañenetaoak bai-zaizkizu biak. Irudipena eta minkuntza naasi, biotz-muñ iturri barneak ahapaldietara oparotsu, arro, nabarmen datorzkiote. Erromantiko ospetsuek izpiak ikututakoak ditugu bi olerkari oiek. Lizardi, labur, legor, adi-gaiez izorra: Jakakortajarena, asmoz eta eraz errikoi: Jauregi eta Tapia-perurena irudiz ugari minkuntzez bigun. Oetakoxea, erdizka bada ere, Agirre'tar Toma, oraingoz lendabizi, olerkari antzo datorkiguna. Edermenaz orritsu: orritsuregi, agian, adi-izpi zolien kaltegarria. Goiargiak sututakoa, benetan, gipuzkoar ertilari au» (Eusko Olerkiak, II, 1931, XVIII orr.).

IRITZIAK.—Aitzol'enaz gain ona J. Zaitegi'rena ere. «Izkera bizi, guri ta apatza darabil —dio— eta itz polit, txanbelin eta taxak atsegin zaskio. Euskal-elerti barrutian Barrenso'oren itz-laua berela, berri ta kementsua duzu. Gure artean eragin andia egingo dulakoan nagokizu. Itz garbi, aratz, ugari ta poxpoliñak bakarrik ez darabiltzi... Azal zindo-gardenaren azpian, ibaia iduri, sakon, bero, bizi, yoan doa izaki guztien funtsa. Dana bere xeetasun esanguratsuenaz.., Orain-arteko idazle ainitzen itz4aua, ardagaia baño legorragoa zenun eta gelatsuan dingilizka oi diran abarkak baño igarragoa. Beraz, Euskal-elerti berbizkunderari bultzada sendoa erautsi dio bere idurimen zoragarri ta argiari esker Barrenso'o'k. Onen idaztietan, olerkariak ere, iz-

kera landu ta orraztua gertu idoroko dute. Lore-pitxi oiek lagun, arrobietako arri aundiak atera ta elerti-yauregi ikusgarria eraiki al izango dute» (*Euzko-Gogoa*, 1950, l'go zenbakia, 14 orr.).

(Ikus *Yakintza*, 1933, 318 orr.; J. Zaitegi, *Euzko-Gogoa*, 1950, l'go zenbakia, 13 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1024 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 18 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 588 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 57 orr.).

40.—GARMENDIA KORTADI'TAR JON (1898-...)

Idatzia irakurten omen, eta nik aurtemin irakurria; «Ikurriña ez da esanairik gabeko trapu zaar bat bakarrik. Ikurriña, zerbait geiago da. Ikurriña, esanai aundiko irudi bat, ikur-itz bat, ikur-buru bat da. Bere barruan, berak adierazten digun maitagarritzko gauza bat dago. Gauza ori, aberria da. Baiño, ikurriña, oraindik, ori baiño zerbait geiago da. Etnia aldetik, kondaira aldetik eta jeografi aldetik, aberri batek duan batasuna. Erriko nortasuna, erriko izkuntza, erriko lege zaar eta oitura, erriko kultura, folklore ta abar... gogoratzen dizkigun batasunaren irudi bat» (Txalintxo, *Goiz-Argi*, 1975, urrilla, 8, l'go orrian). Garmendia, ikurrin orren esanalpean ibillia duzu bere bizitza osoan, zintzo ta esnai.

BIZITZ-ORRIAK.—Lasarte'n jaio zan «Largo-enea» etxean, 1898-3-21'an. Bertako eskolan egin zituen lenengo ikasteak, 1903-09, Solabarrieta maixuakin. Bere kasa egiñikoak ditu gaiñetikoak. 1910'garren urtean Soraluze'ra aldatu zan bizitzez, bere gurasoekin, izkillu-taller bat an balt zuen jarri bere aitak; antxe bizi izan zan 1931'rarte. Bertan ezkondu zan 1922'an, iru seme-alaba izanik, Iñaki, Ibón eta Begoña.

1931'an, osasunak beartuta, Soraluze'tik Logroño'ra aldatu bearra izan zuen, bere sendiarekin. Errioxa'n, uri nagusi artan

iraun zuen 1934'garren urterarte; geroztik Tafalla'n, 1937'garren urtea bitartean; Zornotza'n, 1939'rarte; Bilbao'n 1944'rarte; Iruña'n, 1956'rarte, ta arrezkero, Donosti'n bizi da.

Umetatik zekarren bizi euskal griña. Eta, ogibidez saloski-salketa (biajante) izan arren beti, lankizun ontan Euskalerrria ta Espaiña'ko uriburu nagusienak ikusteko erea euki izan du; ta oraindik eundaka itzaldi emateko aukera ta abagunea. Anai arteko gudaketa aurretik batez ere, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko erri-j aietan, Bilbao'n, Donostia'n, Iruña'n eta Bartzelona'n sarrri ibilli zaigu mintzari. Azken urteotan, iru aldiz, «Urkixo Mintegia»-n bereziki. 1944'tik ara, «Begoña» liburutegia zuzendu zuen aldikada batean. Gaur esateko lan gabe, patxada goxoan darama zartzaroko sorta.

EUSKAL IDAZLE.—1914'an asi zan euskeraz idazten, garai artako euskal eguneroko, asteroko ta aldizkarietan. Or-emen eundaka artikuluaak dauzka azalduak. «Gipuzkoarra», «Napar-tarra», «Irrintzi», «Euzkadi», «El Día», «Euzkerea», «Euzko-Gogo», «Argia'ren Egutegia», «Zeruko Argia», «Egan», «Karmel», «Olerti», «Aranzazu», «Agur», «Príncipe de Viana» eta «El Pueblo Vasco» dira batez ere Garmendia'ren idazlanak dakarkiten paperak, bizkaieraz, gipuzkeraz ta naparreraz ekarri ere. «Kirikiño»-gandik ikasi zuen bizkaieraz idazten; «Larreko»-gandik naparreraz eta «Jeme»-gandik gipuzkeraz. «Jeltzale» izenordea zerabilen bizkaierazko lanetan; «Berrizki», naparrazkoetan, eta «Zeleta», gipuzkerazkoetan. Azken izenorde au erabilli digu geiengien.

Oso tu dituen lanik geienak bere ibillaldietako berridunak eta euskal liburuetzaz, bertsolarietzaz, eta euskal idazle jakitunekin euki izan dituen elkar izketak dira. Baiña irakurgarrienak eta ederrenak, M. Lekuona'k iñoiz esan duenez, «Orixe-Omenaldi» liburu mardulean, 11, 45 ta 51'garren orrialdeetan, agertzen diran auek dira noski: 1) *Orixe, euskaltzain*; 2) *Orixe eta Bedaio'ko Txistularia*, eta 3) *Jainkoa'k ekarri nau onera...*

Bere bi semeak ere, Iñaki ta Ibón, euskal idazleak dira, aitaren oiñ-errestuak jarraituz; bata, Iñaki, *Irudidun Itxas-Iz-
tegia* deritzan liburu aundiaren egillea da, ta bestea, Ibón, «Arantzazu», «Zeruko Argia» ta «Agur»-en idatzi izan duena.

Ba-ditu «Zeleta»-k, teatru ta itzaldi, liburuxka bezela argi-
tara ekarriak ere. Ona:

- 1) *Itsutasun madarikatua* (1921). Iru egintzako jostirudia.
- 2) *Joxanton'en Eriotza* (1922). Ekitaldi bateko antzerkia.
- 3) *Patxi kirten* (1923). Bakar-izketa,
- 4) *Euskadi'ren izate eta aberastasuna* (1932). «Argia'ren
Egutegia»-n dator, 57-71 orrialdeetan.

- 5) *Euskeraren iraupena eta Euskal Literaturaren aurrerar
pena* (1955). Itzaldi ederra.

- 6) *Lasarte orain SO urte* (1958). «Euzko-Gogoa»-n (VII,
36-59) lenengo ta banazezan atera zuen, azal egoki batekin. Aur-
tzaroko oroipenak.

- 7) *Azkue'ren omenez Bilbao'n ospaturiko euskal-jai biotz
ukigarria* (1957). *Egan*, IX, 72-79 orrialdeetan.

- 8) *Xenpelar, XVIII eundiko bertsolaria*. Oraindik argitara
gabe. Itzaldia.

Olerkiak ere biribildu zizkigun, «Orixe'ri ongi etorria» (*Euz-
ko-Gogoa*, 1955, VI, 4), ta «Orixe eta Zaltegi jauneri, ongi eto-
rria» (*Euzko-Gogoa*, 1966, VII, 9-10), esate baterako. Eta
«Olerti»-n eta «Arantzazu» -n datoztenak.

1966'garren urtean euskaltzain-laguntzallle autetsia izan
zan; eta, 1969'an, «Orixe» zanaren omenez beronen jaioterri
Orexa'n ospaturiko euskal jaietan, berak egin zuen omen-eskeintz
itzaldia, Euskaltzalndiaren izenean. Orrez gaiñera, Euskaltzain-
diak urtero eratu izan duen «Xenpelar Saria» deritzan sariket-
etan, epai-maiko izan zaigu.

OMENALDIA.—1972'garren urteko urrillean, «Euskal Astea»
zeritzan zazpi eguneko omenaldia eskeiñi zioten bere erritarrak
Lasarte'z idatziak dituen idazlan errikoiengatik. Euskal aste

urrillaren 11'an asi ta iian 21 bitartekoa izan zan, egun oietan abestaldeak, dantzariak, «xalaparta» saldoak, bertsolariak eta izlariak esku arturik. Bertsolarietatik Agirre, Etxebema, Lazkano ta Lizaso izan ziran; izlariak, berriz, Pedro Artetxe, Juan Mari Lekuona, Jose Murua, Manuel Lekuona eta erriko txauburu Olaziregi.

Azken egunean, jaialdien ostozko gaillur bezela, «Erri-Meza» abestu zan eliz nagusian, eta meza ondoren, «Cine Lasarte» deritzan antzokian, M. Lekuonaren itzaurre ostean, Zeleta'k berak, omenduak, «Lengo ta oraingo Lasarte» gaiean, itzaldi mamitsu errikoa egin zuen. Gero, euskaldunon artean oitura sendoa danez, 217 bakaldarren artean, bazkari, ederra ospatu zan «Txartel» jatetxean. Bazkari artean eta bukaeran, Basarri'k, bertso gartsuak abestu zituen.

Egun batzuk geroago, ospakundearen oroigarritzat, zurezko liburu zoragari baten omen-oroikia eman zioten Garmendia'ri. Liburu ori izki soil bereziz oso ederki ornitua duzu. Bere bi atal zabaletan onela dio;

«Zure erria aurkitutzen da,
gaur, zorionez betea,
eskertu nairik Euskera'n alde
izandu dezun arreta.

Oraindik ere zure antzeko
batzun bear gera-ta...
Zeru ta lurren Jaunak, luzaro,
gorde zaitzala «Zeleta»,

Garmendia eta Kortadi'tar «Zeleta», Euskaltzain ta euskal idazle ospetsuari, bere sorterriak eskeintzen dion Omenaldiaren Or engarria. Lasarte'n, 1972'gko. Urrillaren 2 l'an».

Labur: Garmendia'tar Jon izlari ta euskal idazle ugaria da. Errez ta ondo darabil bai mingaiña, eta bai idazkortza. Erria du oiñarri bere euskerak, naiz-ta erriagandik zerbait gorago jo gurarik agertu sarri. Ezta mordoillo zale, bai txukun-zale.

(Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1957, 1-2, 121 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 124 orr., eta *Zeruko Argia*, 1957, 43-44, urrilla; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 87 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 591 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 603 orr.).

41.—DIONISIO SAGARTZAZU SAGARTZAZU (1898-1958)

«Satarka»-ren anai. Ondarribi'n jaio zan 1898-4-13'an.

«Fralso» Laboran eskolan ikasi zuen, eta zaletasun biziz ikasi ere nekazaritza-gaiak. Origaitik edo, gaztetan, Gipuzkoa'ko Aldundiak ordainduta, Gernsey (Inglaterra'n egon zan gai oiek sakonago ikasi naiez. Gero, Donostia'ko Villa María Luisa-n lan egin zuen urte askotan, geroztik Prantzia'n eta Naparroa'n bizi izanik. Bere azken urteak Ondarribi'ko «Domintxoena» bordan eman zituen. Ezkongea zan. Eta 1958-6-5'an itzali zitzaigun, jaio zan etxean, au da, «Olio» deritzaionean, Tiendas kaleko 13'garren zenbakian.

Idazle dugu. Iruña'ko «Zeruko Argia»-k atera zituen aren lanak: *Nekazañtza-Gaiak*. Gipuzkera zerabillen, arin bezin errez.

(Ikus N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 136 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 152 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 359 orr.).

42.—JUAN IRURETAGOIENA APESTARAN (1899-...)

Zarautz'en jaio zan 1899-3-28'an, Frantzisko Iruretagoiena Agote ta Tomasa Aiestaran Isasmendi'gandik. Errian bertan Lasailletarren ikastetxean osotzen ditu bere lenikaskizunak, latin eta gizatar gaiak Andoain'go apaiz-ikastetxe txikian egiñaz, Amasei urtedun zala Gazteiz'ko Seminariora joan zitzaigun filosofia ta teolojia ikasten. 1923'an apaiztu zan, urte berean

Riaizteri-Laguardia'ko Erregeen Andra Mari eleizako apaizlaguntzaille izendatu zuten, eta emen iru urte igaro ostean, 1926'an Zarautz'eko Iñurritza auzotegiko kapillautzan daukagu.

Gudatean, 1936-9-19'an, iskanbil-zale etzalako, Frantzia'ra jo zuen, erbesteko ogi latza iru bat urtean janik. 1939'an Euskal errira, zan berriz ere, eta bartatik Santander'era bialdu zuen gotzaiñak, Villasevil'go txauburutzta egin zezan. 1942'an euskal erria zan berriz ere, eta bertatik Santander'era bialdu zuen zatxoaren ardurea eman zioten; 1945'an udazkenez Aia-Altzola'ko parrokian dagi arimazaintza, amaika urte ta lau illabetea egin ere; 1957'gnekko epailletik aurrera Aduna'n dagi orobat, amaika urte ta bi illabetea; eta, 1968-5-23'an, azkenik, Aduna'ri agur eginda, bere jaioterrira itzuli zan. Berton bizi da gaur ere.

Lan egin duen toki guztietan eliztarrak oso malte izan dute beti. Aduna'ko erriak, esate baterako, bezuza edo esku-erakutsi bikaiña eman zioten andik alde egitean. Beronen artzain-lana ain atsegiña izan bait zitzaien, ango sendi-buruak urrezko domina batekin jai egin zioten; domina orrek bere aurkian Gernika'ko Zugatza darama, idazkun onekin: «Gernika'ko arbola da bedeinkatua euskaldunen artean», eta atzean: «Aduna'ko erriaren oroigarria». Aduna'ko gazteak ere, beren alde-rik, Kristo'ren Azken-Afaria eskeintzen diote, zurean landuta.

EUSKAL IDAZLE.—Giza-oldeak eta zoriaren ekiñak arat-onat maiz erabillia izanik ere, ez du apaiz jator onek egundotan muzin eginda utzi euskal auziari buruzko jardun betea. Gazteiz'ko Apaiztegia teoloji ikasle zala asi zitzaigun idazten eta euskal gaiak aztertzen, garai artan ikasgu ortan sorturiko «Kadaberraz» bazkunakoa zalarik ain zuzen ere. 1921'garren urteko «Anuario de Eusko Folklore» aldizkarian bere lan auek agertzen dira: 1) *Canciones de Navidad. Ataun, Alsasua, Zarautz* (I, 67 orr.); 2) *Refranes y dichos populares de Zarautz y Ataun*

(I, 55 orr.); 3) *Creencias de Zarauz y Aya* (I, 83 orr.); 4) *Le-yenda de Aya y Zarauz* (I, 98 orr.); 5) *Medicina popular de Zarauz y Aya* (I, 119 orr.).

Garai orretan asi zan «Euskal Esnalea»-n antzerkitxoak lantzen ere. Ortxe daakazu *Gau-ostatua* (1921, XI, 16 ta 31 orrialdeetan), atal bateko antzerkia, gero separata legez (Donostia, 1921, 19 orr.), Martin, Mena ta lagunen irarkolan atera zana.

Bereak ditu beste iru antzerkiok ere:

1) *Atso poxpoliña* (Donostia, 1929). Martin, Mena ta lagunen irarkolan. Izarra Antzerki Sailla, 21, eta «Euskal Esnalea»-[^] 1929, XIX, 73 orrialdean.

2) *Otarka aza* (Euskal Esnalea, 1929, XIX, 209 orr.). «Canasta de berza» ipuiña, antzerki biurtua.

3) *Sutan biotza* (Zarauz, 1931). Eusko Argitaldaria. 174 orrialde. Xenaro Xabier Vallejos'ek erderaz egiña, Iruretago-yena'tar Juan apaizak euskeratua.

Antzerki au zala-ta, taiu ontan idatzi zigun «Zeruko Ar-gia»-k, 1932'an: «Erderaz ezagutzen genun antzerki au, baño euskeraz ez. Ardura aundiz irakurri degu eta ez atsegin txi-kiagoaz. Bere itzultzalea euskaldun jator, zaintsu ta bizia ager-tzen zaigu ortxe. Itzuketak asko galtzen dute zenbaitetan; ba-tez ere gazteleratik itzultzen danean. Baño *Biotza sutan* irakur-tzen duen edozeñek, lendik erderaz egiña dala ez baleki, ne-kez igarriko lioke. Euskal esakera garbia dakar geienetan. Po-zik irakurri liteke besterik ez balitz ere, euskera geixago ikas-tearren. Zenbait itz gutxi erabiltzen diranak, edo egilleak asma-tuak ere ba ditu, baño naiko argiak, aria galdu gabe ta zer esan niko duan gelditu gabe irakurtzeko. Illunxeagoren bat baldin badu, bertan dakar erdal-itza ere. Jabier'tar Frantzisko donea-ren biotzeko sua gori-gori bai agertzen dala ortxe. Irakurtzen ari geran ariora, gero ta zaletasun biziagoa eransten dio ira-

kurleari. Eta esango nuke gero ta xamurrago dariola esana ere idazleari. Erriaren ikuskari izango dan antzerkia dala gogo?n idaki du, ta onek poztutzen gaitu» (1932, otsailla, azalean).

Orrezaz gain, gerra aurretik, eliz-itzaldizko bi idaztiok ere argitaratu zituen:

1) *Igandero'ko Berriona* (Zarautz, 1931). Itxaropena argitaldaria. 145 orrialde. I Zatia.

2) *Igandero'ko Berriona* (Zarautz, 1936). II Zatia. Itxaropena Argitaldaria. 208 orrialde. Urte osoko igandeetako meza-itzaldi edo homiliak dira. Bigarren alean Andre Mariaren bi itzaldi ta Pelaio Donearen bat dakarzki; azken onetaz au dio berak: «Eleiz-itzaldi au 1925'rren urtean Zarautz'ko Zaindariaren jaiean egiña da».

Argitara eman gabe auek dauzka:

1) *Kristau-Ikasbid&aren Erakutsaldiak Itzálditan*, M. Adan deduzko Kanonigo ta La Ventie'ko parrokuak iru zatitan egiñak eta prantzeratik euskeratuak. I Zatia: *Sinisingintza*. II Zatia: *Aginduak*. III Zatia: *Grazia. Otoitza. Sakramentuak*.

3) *Fabiola'ren Mirabea: La Esclava de Fabiola*. Neska-toentzat bakarrik. Lau ekitaldi ta goratzarrea; J. Bellafon Rose'k egindakoa, euskeraz.

Iñoiz Musaen maitale ere agertu zaigu. Ona «Gazi-Gozoak» deritzana (*Egan*, 1957, X, 20 orr.):

Zure jai, jolas, ametsak
beazun biurtzen dira
min, garratz azken aldira
zure jai, jolas, ametsak.

Zure biotz zirimitak
egarriz zorion billa
soñu
zurrut

ikus naspilla
illun-amilla...
Zure biotz zirimitak
egarriz zorion billa.

Aingeru txintxin otsera
zure biotza etxera
zure *lo*, kezka gabea...
zorion betea.

(Ikusi G. Garriga, *Inv. Bibli. Vasca*, 1961, 186 orr.; J. San Martin, *Apéndice a Escritores Vascos*, 1969, 23 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 170 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 603 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 434 orr.).

43.—NEMESIO AGAPITO ETXANIZ ARANBARRI (1899-...)

Euskal idazle ta olerkari yaio, gain-gaiñeko baten aurrean gaude. Etxaniz'ek sortzen duen guztia xamur, arin ta atsegin-garria da. Urteak dirala ulea zuri duena izanik ere, gudate ondoko idazlea duzu; aurretik zerbait idatzi zuen, baiña oso gutxi. Geroztik eskeiñi dizkigu, sail asko urratuaz, bere fruturik orizka ta elduenak. Onen lanetan ez da ezer illunik, ez eta milikarik, bai ordea ernegarririk. Ontan, beiñola **Rilke** Praga'ko olerkari gorenak esana datorkit gogora, ots, goizegi egiten diran olerkiak ez dutela kanorerik; ortarako bizi guztiko jakituria ta eztaia bildu bear ei dira, ta azkenean bertso-sail txiki bat borobildu. Etxsniz'ek olan jokatu duela esan dezakegu: liburu meta aundirik ez digu osotu, baifia osotu duena jakituriz eta antzez gaiñezka duzu.

GIZONA.—Azkoiti'n jaio zan 1899-12-19'an. Lenengo eskolak bere erriko Lasailktax Andienean artu zituen, amar ur-

teko zala latiña Balda etxean ikasirik. Bi urte igaro zituen gero Lekarotz'en, Aita kaputxinoen ikasguan ikasten. 1912'tik 24 bitartean Komillas'en ikasten du eleiz-karrera; garai aretan, bertan ziran Orixe ta beste euskaltzale porrokatu batzuk ere, maixu ta ikasle. Eta, jakiña, suak ez parkatzen, noberari ere galda itsasten bait dio.

Ikasaldietan etzan muker ibilli, txintxo ta burutsu baizik. Filosofia ikasi zuen bitartean, 1919-20, lenengotan Lizenziatu egin zan eta Maixu (Doktor) titulua atera gero gai ber-berean; urtizitia ikasten zuela berriz, 1923-24, Teolojian Lizenziatu zitzaigun. 1924'an artu zuen apaizgoa. Aurrenik, Azkoiti'n eta Deba'n egin zigun, langille aspergaitz, arima-zaintza. Aspal-dian, ala ere, Donostia'n daukagu mojatxu batzuen kapellau.

EUSKAL IDAZLE.—Inguruko giroak, esan dizut, badu in-darra, ta N. Etxaniz ere Komillas'en ikasle zala asi zitzaigun lantxoak mamitu ta orduko aldizkarietara bialtzen. «Euskal Es-nalea»-[^] «Argia»-n, «Euzkadi»-n, «El Día»-n, Zeruko Argia»-n eta «Jaungoiko-Zale»-n datoz batez ere aren lanak. Geroztik, «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, «Zeruko Argia»-n, «Karmel-en, «O1erti»-n, «Agur»-en, «Principe de Viana»-n eta abar izan dugu lankide.

«Amilaitz», «Erratzu», «Artiz'tar Xabier» ta olakoak era-billi dizkigu lanak izenpetzean. Euskaltzaindiko urgazle da.

Ikus argitaratu dituen lanetatik batzak:

1) *Arraldea* (Donostia, 1923). Ipui zarra. Liburuxka po-lita. Iñaki Deunaren irarkolan. 30 orrialde. «Argia»-ren Idaztiak.

2) *Olentzero* (Donostia, 1926). Euskal Esnalea'n dator, XVI, 225'garen orrialdetik aurrera.

3) *Azkoiti'tik Elgoibar'era. Katuin-zuloa* (Donostia, 1927). Euskal Esnalea, XVII, 6 ta 34 orrialdeetan.

4) *Itziar'ko Andre Maria'ren kondaira laburra ta Bedera-tziurrena* (Zarautz, 1949). Itxaropena irarkolan.

5) *Nola idatzi euskeraz?* (Zarautz, 1950). Itxaropena irarkolan. 54 orrialde. Kartak, idazkiak eta abar.

6) *Kanta-kantari* (Bilbao, 1952). Aur-jolasak; maite-kantak; izadi-abestiak. Ordorika'renean. 80 orrialde.

7) *Urrategi'ko Andre Mariari Bederatziurrena*.

8) *Egintza katolikoatzaz*. Itxaropenak irarria.

9) *Kristau-Ikasbidea bertsotan* (Bilbao, 1952). I. Mailla. Musika ta itzak, irakasleentzat. II. Mailla. Itzak bakarrik, aurrentzat. Ikasbidea. Ordorika'renean. 47 orrialde.

10) *Arantzazuko Amari poz-jarioák* (Zarautz, 1954). A. Ibiñagabeitia'k onan: «Erdal-errietakoak, poz-jario gogorrek izan dira: Ama Birjiña ta santu guztien ohoretan idatzi oi zituén... Gure artean ez nun poz-jariorik ezagutzen. Iñoiz txikitán San Antonio'ren omenez erderaz nere errian kantatzen zitutenak entzunik nago ala ere. Beraz Etxanizar Nemesi olerkari aipatua asi zaigu lenengo poz-jarioka, Amilaitz'ek badu antze, badu idurimen, badu jario. Baiñan poz-jario oietan elkorregi deritzait. Arantzazuko gertari eta edestiari lotuegi dabilkigu. Asketxoago bear zukean idurimenari zabalune geiago emanaz. Gure erriari ere atsegin zaizkio irudimenaren ateraldak, antzetsuki ta egoki antolaturik daudenean batez ere. Ala ere euskera txukun eta argia darabil eta gure erriaren atsegiñak egingo ditute poz-jario auek» (*Euzko-Gogoa*, 1954, V, 208 orr.).

11) *Maite-kantak* (Euzko-Gogoa, 1951). Amar dira guztiz.

12) *Izeko aberatsa*. Iru egintzadun eres-antzerki irritsua. *hulearen negarra*. Iru egintza ta antzezbua dituan zorigaitz-antzerkia (Gazteiz, 1952). Montepío irarkolan. 120 orrialde.

13) *Gabriela Mistral (1889-1957)*. Itzulpenak: «Balada», «Eskaria» ta «Andre Irakaslearen kanta». *Egan*, 1957, 1-2, 90 orrialdean.

14) *Itun Zarreko Kondaira. I. Jaungoikoaren Erria nola sortu zan* (Paris, 1955). Fleurus'ek argitara emana. Bondallaz Jaques Abak ondua, euskeraz.

15) *Euskal-Antzerkiak* (Zarautz, 1958). Kuliska Sorta bil-duman daude: «Gabak zekarren eguna», iru ekiñalditan, Arantzazu'ko leiaketan lenengo saria jasotakoa; «Maite ere neurritz»; «Zotzean bizia» ta «Gabon Zauria».

16) *Ito edo ezkondu* (Buenos Aires, 1954). Biktor Ruiz Añibarro'ren «Las Mujeres de Berrigorria», euskeraz. «Ekin» argitaldaria, 43 zenbakia.

17) CCC Akademia'ren *Curso de Vascuence con discos* (Donostia, 1961).

18) *Kontu-kontari Antzerkiak*. (Zarautz, 1958). Antzerkien artean dator, 135 orrialdean, Prosper Marimée'ren *Mateo Falcone*, euskeraz. Eta «Egan»-en, 1955.

19) *Lur berri-billa* (Donostia, 1967). «Izarra» irarkolan. 415 orrialde. Liburu bikaiña, tarteka marteka, ark agindu ta onek otoi, astünerik astiune egiña. Irakur egilleak sarreran dioskuna. «Gure bizitza osoan —idazten du—, euskal-miñez jota ibilli gera danean. Gure amesak bati alde batera jotzen zuten: euskerari LUR Berriak eskeiñi; gure izkuntzan bide berriak urratu nai izan dizkiogu. Eta ortan joan zaizkigu egunik onenak. Aldiz, gure amesak eta asmoak bete al izan ditugu; aldiz, gure lanak ezta bear zuan mugarik eta maillarik iritxi».

Liburu ontan danetatik datoz, azken urteotan burutu ditun lanik ederrenak noski, Testamentu bezela. Onela darrai: «Euskaldunok olerkietan beste errietakoen mailla ondu al izan degu. Baiña euskal antzerki ta nobela, oraindik idazle yayo baten zai daude! ta beste sail batzuetan ere, atzeratxo gaude, noski. Nere aldetik, egin ditudan lanetatik onaurldak artu ta geroko gizaldiei eskeiñi bear nizkien nere AZKENITZ bezela. Euskal Testamentu bat bezela dijoakizue, beraz, nere liburu au. Esango ba-nizue bezela: «Ni, euskera lanean, oneraiño iritxi naiz. Zuek, ortik aurrera joka zazue bikain, gure izkuntzaren burruka irabazi arte».

Ondoren, argitara dituen lanak izentatu ostean, onela didaz: «Oiek izan dira nere lanik nagusienak. Gero, zenbat lan-puxke-

ta, euskal egunkari ta adizkarietan zabalduak! Eguneroko ogia irabazteko, ostera, gogoz kontrako lanetan, zenbat ordu alperrik galduak! Eta gogozko lanetarako astirik ez. Gure biziak egun gorriak ikusi ditu. Euskal-miñak, ala ere, gure nekea jasotzen eta gure illunpeak urratzen erakutsi digu. Gure erriaren burrukak eman dio gure biziari bere argi ta lanerako akulua. Ondorengoak jasoko al dute noizbait gure lañaren frutua!»

Ez, Etxaniz'ek ez ditu orduak alperrik galdu. Euskal arloan betetu duen lana ez da urria izan, frututsua baizik. Azkoitia[^] jakintsu au izatez dugu urduri, baita pizkat ezkor ere, ta ortik bere esanak. Gorriak ikusi ditula? Eta zenbait euskal idazlek ez 40 urte auetan? Ez du iñoiz trabarik izan mingaiñean: biotzak sentitua beti ager-azi du ao goxoz; egia esateak ordea, istilluak sortzen, eta berau paketsu ta pake-zale ere, agintariak eta maiz erabilli digute mundurik ara ta zirkin-zarkun. Origatik, baiña, beti ekin dio euskal lanari gogo beroz.

Saririk asko eraman du Etxaniz'ek bere idaz-lanakin. Liburu ontan datozenak ainitz sarituak izanak dira. Nobela, irratsaio, ipui, antzerki-jclas, olerki..., liburu txanbeliña nunbait. Irakurriz, barne-zirrara gexoa dakarkiguna.

Zati auek dakarzki: 1) *Eleberri laburra*: «Ameriketan galduak»; 2) *Ipuiak*, sei oso politak; 3) *Irratsaio txangoak*, Txan txangorria ta Gazte aizeak (IV); 4) *Irratiráko ipui antolaturik*, zazpi guztira; 5) *Irrati antzerkia*: «Izarren bidetan»; 6) *Olerkiak*, iru sailletan 49 guztiz; 7) *Abestiak*, lenengo sailla: aur-absetlak, 19 kanta; bigarren sailla: gazte-abestiak, 52 kanta.

1966'an ondu zigun idazti au. Onek darakusagunez, bada, N. Etxaniz apaiza duzu azken bolada ontan ain ozenki dabilkigun euskal kanta berriaren aita; bera asi zitzaigun, eta urteetan ek:n zion, lur berri billa ta gazteen arteko euskal musikari batez ere, bide berriak urrau nairik. Sarri ikusi izan dut, pianu aurrean eta arkatza atz-ar-tean, jo ta kanta, abesti berriak asmatzen.

OLERKARI.—Ezpiritu kezkatu baten jabe dugu Etxaniz. Gauzak, ingurumariko mundua, eder-jarioka ikusten dakiana. Giza-biotza ere ondo ezagutzen du. Eta A. M. Labaien'ek, azkoitiar antzerkigillearen «Bizia zotzean» aztetzerakoan diona, ber-esan dezakegu emen, au da, nolana ere poeta ta pentsalari zorrotz dugula, ta olakoak «jarduna, bere gain artzen ba'du, atera lezaickela txinparta ederrik entzule-ikusleen biotzak ikutzeraño». Orrela da Etxaniz poeta ta pentsalari; bizi ta giartsu da, jardun mingotsa ere goxo ta irripartu biurtzen diguna; eta gauzak euskeraz «goitar irritsu eta errikoa esaten iñor gutxik» irabaziko diona.

«Euskal Esnalea»-n asi zan olerkitxoak azaltzen. 1926'an, *Andre Maria'ri* agertu zigun, eta *Eztu nai kabirik*, 1927'an. Guda ondoan «Euzko-Gogoa»-n, «Olerti»-n, «Principe de Viana»-n, «Egan»-en eta abar, konta-ezin ala ondu dizkigu, beti arin, labur ta zoragarri, Heine, Campoamor, Bilintx eta olakoen pareko. Batzaldi askotara aurkeztu izan da, baita sari ederrak eskuratu ere; beñola J. Zaitegi'k,an Guatemala'tik, olerti-sorta konkurtsu bat iragarri zigun, eta olerkari-mordoak jo genuen ara; 1955'an emana izan zan saria, eta Zaitegi'k «Euzko-Gogoa»-n: «Olerti saillean, gure batzaldian sarituak izan ziran olerkari goitarren poemak agertzen ditugu. Sari bakarra «Bizi nai» Mitxelena'tar Salvatore olerkariaren poemak eraman zun; oso-osorik irakur zenezakete orrialde oietan. Dedu-aipua Etxaniz, Onaindia eta Aurraitz'ek ukan zuten. Oien poemak ere, guziak izan ez arren, geienak beintzat, ementxe arkituko dituzute. Benetako antologi zoragarria, iñoiz gutxian euskeraz ikus ditekena» (*E. Go.*, 1955, orrilla-lotazilla, 65 orr.).

«Lur berri-billa» idaztia osatzerakoan, olerki pillo bat aukeratu zuen bertarako, lendik egiñak eta berriak ziranak noski. Berak onela: «Euskaldunok bertsotarako beti izan degu alako zaletasun apur bat. Aspaldi asiak giñan lan onetan, baiña 1950'garren urte alderarte, ez nuan ezagutzen erderazko azkenengo olerkarien lanik. Konbentu zaar bateko kapellau nengoen aldi

aretan; mendi aldean eta alako «bohemia» antzeko girotan. Orduakoak izan ziran, nere ustez, sortu zaizkidan olerkirik onen-
txoak. Erderaz, Machado ta gerokoak irakurri berri niotzan. Juan Ramon, Alberti, Alexandre, Gerardo Diego ta bsste aien sasoikoen lanak, bertso libretan iritxi zutena erakutsi zidaten; eta orduan ekin nion BERTSO LIBREAR egiteari...

«Gerora sortu ziran «Donostia» ta beste olerki askatuak. Xorta bat olerki gure ikastoletako aurrentzat ere ondu det. Or ikusiko dituzu. Mirande zuberoarra, Aita Xalbatore Mitxelena, Aita Xanti Onaindia eta Aurre-Apraiiz'taír Balendin, izan nitan lenengo nere aldi aretan olerkari-lagun. Gerora gazte-sail ugaria sortu zaigu. Gure orduko «vanguardismoak» jo ta pasa dituzte gazteok. Azkenengo, gure Aresti'k jo digu txistua. Eta gure gazteok, gizarte-gaia oso artua dute beren olerkietan. Aien ondoan, gure olerki auk, aide zaarregia izango dute norbaitentzat. Gabriel Zelaia ta Blas Otero'ren alboan, oso lengoak gera. Ala ere, nik emen utzi nai der, nere alea. Euskerak aurrerago egiten ba'du, pozik artuko degu gerokoa ere» (*Olerkiak*, 211 orrialdean).

Labur: aide zaarreko naiz berriko, bertso lotuak naiz askatuak erabilli, Etxaniz apaizaren lumatik irten olerkiak, eta gaiñontzeko lanak —antzerki, irratisaio, aur-abesti ta gazte-kanta— beti zaizkigu atsegingarri. Burutsu ta emankor izan zaigu noski, berak orrela uste izan ez arren. Oraindik gordin dago, euskal arloan lan egiteko moduan. Nik, beraz, amabost bat urtean «Olerti Egunetan» batez ere lankide bizkor izan dudan Etxaniz'i esango nioke, Labaien'ek beiñola esaten ziona: «Plauto erromatar komerigille otsaundikoak lan ederrenak zartuta gero ondu omen zituen. Beraz, Etxaniz jauna, lore-loream (¿) zaude, adinean bide ortauk jarraitzeko. Garaipen koroia laister dukezu buru zuriaren gañean». Nik uste, ala ere, euskal idazleak, adiñari jaramonik egiteke, il arte lanari ekin bear diogula.

(Ikus Andima Ibiñagabeitia, *Euzko Gogoa*, 1952, 9-10, 21 orr.; G'tar I., *Gernika*, 1953, 23 alea, 122 orr.; F. de M., *Gernika*, 1953,

24 alea, 188 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1017 orr.; J. M. Leizaola, *Euzko Gogoa*, 1956, VII, 28 orr.; M. Lekuona, *Egan*, 1957, 1-2, 115 orr.; L. Mitxelena, HLV, 160 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 107 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 71 orr.; A. M. Labaien, *Egan*, 1-5, 98 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 37 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 247 orr.) .

44.—JUSTO GARATE ARRIÓLA (1900-...)

Bergara'n jaioa, 1900-5-8'an. Osalaritza ikasi zuen gaztetan Madrid'etik eta La Plata (Argentina)'tik Irkasle egiñik, eta gaur ere Argentina'ko Mendoza'n orixe du ogibide. Gai ortaz, gaiñera, ikaskizun bereziak osotu zituen Freiburg, Paris, Heidelberg eta Berlin'en.

IDAZLE PORROKATU.—Ikasia dugu, euskal gaietan batez ere. Konta ezin ala lan mamitu dizkigu bere lumak, guda aurretik Donostia'n eta Bilbao'n zegoelarik, eta gaur Andes garaitik urbil, idorotzen dala. Euskeraz eta erderaz idatzi du. 1922'an asi zan euskal lanak «Euzkadi»-ra bidtzen, eta arrezkero lankide izan zaigu **RIEV**, «Vida Vasca», «Eusko Ikaskuntza», «Euzko Deya», «Gernika», «Eusko Jakintza», «Bol. Amer. E. V.», «Gure Herria», «Principe de Viana», «Euzko-Gogoa», «Muni-be», «**Davar**», «Anuario de Eusko Folklore», «Euskalerriaren Alde», «**Runa**», «Euskal Esnalea».

Euskal gai barrutian ere, geien batez gai bitxiak izan zalzkio atsegin: erleak, adibidez, Agotak, izarkiak, txapelak, izkilluak, antziñako esku-idatziak, euskal-iztegia, euskalkiak, erriak, itzulpenak nola osotu, atsotitzak, txerrena euskeraz, adar-antzeko buru-jazkiak, itxorkunak, txertaketak, toki-izenak, ipuiñak, ziñerak, toki-atzizkiak, eta olakoak. Gizaseme gurenak ere goretsi ditu: G. Humboldt, A. Farinelli, Azkue, Bismark, Lope Agirre, Henningsen, Gartzia Salazar, Txaho, P. Astarloa, E. Kant, H. Stewart Chamberlain, J. G. Percival, Oinenart, Maistre, Unamuno, eta abar.

Ona argitaratu ditun liburu batzuk:

1) *Los estudios de medicina en el País Vasco* (Donostia, 1929). Aldundlaren irarkolan. (RIEV, 1929, XX, 37 orr.).

2) *Polémica entre «El Liberal» y «La Gaceta dei Norte». El padre Laburu en la biología* (Bilbao, 1930). Dotxao'ren irarkolan. 70 orrialde.

3) *Viaje a Navarra de Chaho* (Bilbao, 1933).

4) *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* (Bilbao, 1933). Probintziko irarkolan, XV-222 orrialde. Baita beste lau lan ere gai beretaz: Donosti, 1934; Buenos Aires, 1946 ta 1951; Bilbao, 1963.

5) *Ensayos Euskarianos* (Bilbao, 1935). Mayli irarkolan. 239 orrialde.

6) *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* (Bilbao, 1936). Probintziko irarkolan. 161 orrialde. «Junta de Cultura Vasca» dalakoak irarri zion.

7) *Viajeros Extranjeros en Vasconia* (Buenos Aires, 1942). «Ekin» euskal Argitaldaria. «Biblioteca de Cultura Vasca»-ko 3'garren alea. 184 orrialde.

8) *Cultura biológica y arte de traducir* (Buenos Aires, 1943). «Ekin»-ek. 284 orrialde. Senda-nasketa ondoren dator kigu euskal itzulpenak ditun korapillo mordoa.

9) *El viaje español de Guillermo de Humboldt (1799-1800)* (Buenos Aires, 1946). IX-531 orrialde. G. Humboldt'eri buruzko irugarren lana.

10) *Cuatro ensayos sobre España y América. Versiones y estudios por Miguel Unamuno y Justo Garate* (Buenos Aires, Mexiko, 1951)- G. Humboldt'ez laugarren lana.

11) *Erleak eta Eriotza* (Euzko-Gogoa, 1954, 5-8 zenbakia, 122 orr.).

Euskeraz nola idazten duen jakin nai izan ezker, irakur «Eusko Ikaskuntza»-!! (1934, 62 alean, 12 orr.) datorren «Sen-

dagilleak eta landara ikasleak» idazpuru duena. «Eneko», «Eneko Mitxelena», «Elorregi», «Eio», «Eneko Zilueta», «Txeru Arriola» erabili ditu bere lanak izenpetzerakoan.

Euskaltzaindikoa duzu, ta Buenos Aires'ko «Instituto Americano de Estudios Vascos» dalakoan atalkide oso.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 85 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 52 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, 577 orr.).

45.—ANTONIO ITURRIOTZ URIZAR (1900-...)

Eibartarra, uri langille ontan bait zan jaio 1900-3-12'ari. Bertako «Izkillu Eskola»-n egin zituen lendabiziko eskola asiasiak. Gerra aurretik izkillu maixu zan Eibar'en; geroztik, orbel aizeak eramana, Mosku'ko Ikasgu nausian eskolatu zan Politika Jakindian. Mexiko'n bizi da gaur.

Euskaltzale bezela, «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, «Eibar»-en, Mexiko'ko «Euzko-Deya»-n eta Buenos Aires'ko «Tfcsra Vasca»-n idatzi du. Itzultzeari ere ekin dio, ta Pio Baroxa'ren *Zalakain el aventurero* ta *La Leyenda de Juan de Álzate* beintzat euskeratuak dauzka, baiña irarri gabe oraindío.

Nola idazten ote? Ona «Egizko gartaera bat» deritzan ipuie-tik zatiño au: «...Egun baten, aita ardandegian zarataz zebillen artean, bildu etxekoek eta artu zuten erabakia ark zeukan setakeri nabarmen eta alkekitsua nolabait burutik atera erazotzeko. Ta biaramonean seme nagusien biak txit banazki itze-gin zioten, txaldankeri ura bertanbera ta beingoan laga zezala larderiatur. Seme aiek, eztabaida luze ezkeru, aitaren baia ar izan zuten, sakon eta gozoro pozez beterik arkitu ziran. Etxe artara, berriren berriz, itzuli zan bizimen egokiaren atsegiña» (*Euzko-Gogoa*, 1956, VII, 21 orr.).

Ona baita euskaldun askoren gertaera bat ere. Erritik erauziak izan diranean, eibartarrak baitik bat, euskal, idazle gertatu zaizkigu. Or Iturriotz, or T. Etxebarria...

(Ikus *Euzko Gogoa*, 1955, VI, 94 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 106 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 49 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 451 orr.).

46.—FRANTZISKO ETXEBERRIA TOLOSA (1900-...)

Gizonaren balioak ba-ditu bere neurkerak. Olabide'k ogei bat urte eman zituen bere Biblia euskeraz jarten; Frantzia'ko Tolosa'n 1942'an beste bizitzaratu zanean, amaiturik utzi zigun itzulpenak 1958'an ikusi zuen irarkolako argia, itzultzailea ilda amasei urtera noski. Biblia osoaren itzulpena zan; orduko euskaltzaleak, beraz, Orixe, Martin Oiartzabal eta abarrek, gauza oso-osoa egitea nai zuten; leendik ere A. Olabide'ren adiskide ta laguntzaile ziran auek, eta goenengo argitalpen onetan eskua sartzea opa zuten. Baiña ez, ortan Aita Frantzisko Etxebarria'ren eskuz kanpo, etzan beste iñorenik sartu.

Irakur oni buruz Aita Akesolo'k dioskuna: «Testamentu Berria —1931'an irarritakoa— itzultzerakoan bezela, Zaarrean ere beren laguntasuna eman nai zioten, eta iñoiz berarengana ere iritxi ziran olako asmoz. Lana argitaratzerakoan ere, naiko zuketen, noski, parte artu. Lagundiko nausiek, ordea, beren gain artu zuten egiteko ori, eta beren arteko bati eman zioten arazo guztia: Asiako bazterretan mixiolari zebillen aita batí: Frantzisko Etxebarria, euskal-olerkari ta idazle azkarrari. Onek bildu omen zituen Olabide bere anaiaren paperak: itzulpena aztertu, osotu., zerbaitetan berritu ere bai. Dabiden salmoak, esaterako, Pio XII-garensk eragindako latin-itzulpena aurrean izanik, tankera berri emmda daude» (*Jaunaren Deia*, 1972 abendu, 326 orr.).

Andoain'go «Berdilladi» basetxean munduratu zan 1900-4-23'an. Urtzi-deia barne oartuki, ortarako ikasketak Andoain'en bertan asita, osotu zizkigun; eta apaiztasuna artu ondoren, Ezkioga'ko apaiz-izendatu zuten, eta andik laster *Itxaso*'ko txanburu. Ortan zegoela il zan B. Garitaonandia, **Donostia**'ko «Argia» asterokoaren zuzendaria; zaldibartarraren utsunea andoaindarrak bete zuen, 1929'garren urtean.

Etzun zuzendari lanean luzaroan jardun. 1929'an bertan Loiola'ra jo zigun jesuita izan nairik. Erkalak 1931'an Jesulagunak beren etxeetatik uxatu zitunean, Aita Etxeberria'k beste aita ta ikasle jesulagun askorekin Belgika'rako bidea artu bear izan zuen. Andik laster, Xabier deunak lez mixiolari deia entzunik, Txina'ra zuzendu zituen bere oiñak. An, Wuhu uria;ñ egin zuen, 1940'garren urtean, beie profesa nagusia. Formosa'tik dabilkigu gaur ere.

EUSKALTZALE TA EUSKAL IDAZLE.—Apaiz-gai zanetik erakutsi zuen euskalmin ez urria; amaren magaletik zekian euskera sakondu, txukundu ta aziagotzen saiatu zan etengabe. Apaiztu ondorean, berdin. 1920'an elerti-batzaldia **Donosti**'n, eta Frantzisko Etxeberria'ren «Erriko jayetan» ipuiak accésit darama; urrengo urtean ere «Euskal Esnalea»-ren sariketan berdin, andoaindarraren «*Irakatsi euskeraz*» eta «Euskera nola ikasi?» sari-irabazle. «Ezkioga auzoan —dio J. Aitzol'ek—, Santa Luzia baselizako apraiz zala, aspalditik euskeraganako zebilkion zaletasun gar bizia agertu zuan... Euskera indartzearren, apaiz bezela zezaken lanaz asegabe, irakasle izateari lotu zitzaion. Baselizaren gibelean auzo eskola eratu ondoren, aurtxoei euskelgaiak, irakurtzen eta idazten, irkastera bere burua beartu zuan» (*Eusko Olerkiak*, 1933, Itzaurrea, V orr.).

Orduantxe, gaintxo artako bakartade goxoan aurkitzen zala así zan arnas aundiko lanak aurrera eramaten, gero bizitz-zidorean zearka-mearka ta okerretora lez jarri zitzaizkion ez-usteko gertaldiak beste bide-jardun batzuetatik eramán ba'zuten ere.

Bergili'ren *Eneis* euskerara biurtzen asi zan; poema eder onek ditun XII idaztítik lenengoaren 612 bertso burutu zizkigun, Donostia'ko «Euskal Esnalea»-an (1928, 24 39, 81, 116 ta 193 orrialdeetan) datozenak. Aurretik ere aldizkari ontan argitaratuak zituen: «Dirua biotz», «Euskera-gayak. *AI*, noiz?» eta «Euskeraren ugaritasuna» (1921), «Ortzia saritzat», olerkia (1922), «Izkirimiriak» (1923), «Elustiza'tar Juan Bautista» (1927), ta abar.

Orregatik, bada, ez da bat ere arrigarri olako idazle trebe ta euskal-mindua ikusirik, «Argia» sortu ta diruz ta arnasaz aseteroko bezela goi-goi zeukaten aiek beronen zuzendaritzarako andoaindarra begiz jo ta aukeratzea... Aitzol'ek onela: «Idazle trebea, txukuna, luma errezekoa asteroko orretan agertu zitzaigun. Zuzendari bezela, ordea, zuzen, zorrotza. Yaungoikoa, siñismena eta euskera zaintzeko arazoetan ez bai-zuan iñolako epelkeri eta nagikeririk ezagutu nai izaten» (*Loe. cit.* VI orr.).

Txina'n mixolari, ba-zuen bere lan-arlo berezia; baiña Mao-Tse-Tung'ek andik jaurti zuenean beste askorekin, erdi-unetik iges egiñiko ziba lez geratu zan. Orduantxe ere —ta gaur Taiwan'en— euskal kezkek joa zebilkigun. Berak onela: «Txina'n nintzala, eta batez ere gorrien menpera yausi ondoren, lau urte Luzez iya ezer egiteko aukerarik gabe etxe-zuloan egon bear izan nizun artan, amaikatxo eta amaikatxoan gure izkuntza ederraren zuztarrak agirian ipintzeko «burutazioak» izaten nitun». Argi dakusgunez, nun-nal ta beti kexadura ta egosmen berberak zigorkarazia.

Eta, ziur asko, bere biziko pozaldia izango zuen noski, arrotz eskualde aletan ere, Jesulagundiko Nagusiak, Aita Olabide'ren *Idazteuna* argitaratzeko bear ziran prestaerak egin zitzaala agindurik, Euskalerrira etor-azo zutenean. Euskalerriratu zitzaigun, bai, ta dalako Idazteuna'ren argitalpenari buruzko gorabera, orrazketa ta abar, burutsu ta bipil azkeneraiño eraman.

Ona laburki nola jokatu zuen argitalpena burutzeko. Aita Olabide Tolasa'ko kalean kamioi batek jota il zanean, komentu

bertan aurkitzen zan Aita Galdots eibartar jesulaguna ere, euskal itzultzaile argi ta biblialari ez exkaxa. Lendabizi, antza, onek jaso zituen gazteiztarraren lanak, eta gero 1955'an Aita Albardi gazteiztar jesulagunak ekarri zituen Bilbaora; 1956' garren urtarrillaren lenengoetan, beintzat, Aita Etxeberria'k bere eskuetan zeuzkan A. Olabide'ren esku-idatziak. Aita Juan Arrióla ta Felix Areitio ziran itzulpena ongi zegoen ikusteko; Arriola'rekin egon eta oni zegokiona bukatu ostean, 1957'garreneko udazkenean, Valladolid'era jo zuen, bere puskak arturirik, an bait zegoen Aita Areitio bular-estu zebillela-ta. Jesulagun durangar au jakintsua zan idazteun-gaietan, eta bion artean poliki osotuko zuen zegokien lana.

Egia esateko: A. Olabide'ren itzulpena ikusi, ark zerbait aztertu, onek zerbait berritu ta irugarrenak bestea osotu, Testamentu Zaar ta Berri azpi-oar egokiz Olabide'k berak egiñak ere ornitu, itzaurreak eta liburu bakoitzaren sarrerak dotore ta mamintsu jarri, ta sekulako argitalpena eskeiñi ziguten, Euskal-erri osoak txaloka artu zuena, ziurrik asko. Aita Akesolo'k onan: «Pozgarri zan, benetan or zan, mami biurturik, aspal-dietako amesa, or zan ainbeste euskaldun berantetsirik, luze-irizirik zeuzkan liburua. Zorion-itzik atera zan askoren ago eta lumetarik: zorionak Jesusen Lagundiarentzat, zorionak euskerarentzat, zorionak Euskal-erriarentzat. Bazan goresmenik ere Hburuarentzat eta itzultzailearentzat. Gasteizko aldizkari batek zionez, jakintsuentzat gogoangarri izango da liburu ori betiko, janari gozo erdi-jakintsuentzat, eta euskara sakonago ikasteko gogo-pizgarri; apalzentzat, berriz, erriari bere maillan baiña euskera bikaiñagoan irakasteko lagungarri» (*Jaunaren Deia*, 1972, 327 orr.).

Aita Etxeberria, bere kasa libururik argitara ezpa-digu ere, idazle oparoa izan da: egundo aspertu gabe oratu ta ekin dio lumari, euskal lumari, ain zuzen. «Euskal Esnalea», «Euzko-

Gogoa», «Karmel», «Egan», «Olerti», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Zeruko Argia» ta olakoetan idatzi du, maiz xamar «Abalegi'tar P.», «Ibiltar», «Utsa» izenordeak ere erabilliz.

OLERKARI.—Ba-daki Etxeberria'k. gauzai alderdi ederretik begiak jarten, eta ondorioz zentzun-eragiñetan barnea ere—adi-[^]mena ta biotza— zauskadaka bilakatzen. Len eta orain, eder zaio andoaindarrari neurtitz arin, txairo, euskal kutsakoak biribiltzea. «Euskal Esnalea»-n datoz bere len-zituak; «Euzko-Gogo»-n eta «Egan»-en geroagokoak.

Baiña, 1933'an, Urretxua'ko Olerti jaietarako, atzerritik ain zuzen, bialdu zuen *Bost Lore* zeritzan poema luzea Mn azaldu zitzaigun olerkari jator bezela. Lau zati ditu poemak, 74 aha-palditan. Arin, sentito, ulert-erreza.

Entzun J. Aitzol'i: «Uste ez genuela Etxeberria'tar Pantzeska olerkari agertu zaigu. Ez genekin olerkaria zanik. Bai euskel idazle yaio zala. Bertso lanetan ez bai genduan beñiere sumatu. Alaz ere, bat batean «Bost Lore»-ren egillea zala yakiñik, nai ta nai ez olerkaritzat ezagutu bearrean gera. Epailleak olerki auxe aukeratu bai-dute aipagarriena bezela. Beraz, IV'garren Olerti Egunekeo guduan txapeldun uste ez genuena garaille. Iparragirre Bertsolariaren gorazarre egunean,,. 1933' ngo uztaillaren 16'an, «Bost Lore» goreneko olerkaritzat aukeratu izan zala yakin arazi ziguten» (*Eusko Olerkiak*, 1933, IV, Itz-aurrea, VI orr.).

>

Olerki au etzan poesi utsa, ezta berezkoari ala izadi— zaüskadai bakar-bakarrik itsatsia ere. Etzan Lauaxeta ta Lizardi'ren oinkadai jarraiki egiña; alere ba-zuen zer berezia zoragarri egiten zuena. Onela J. Aitzol'ek: «Zeatz eta astiro aztertu ondoren amaika gauz sotil eta aratz arkitu ditugu. Baita, oraindaiño izan diran olerkariei ere irakaspen ederrik erakutsi lezaieke «Best Lore» onetxek. Alegia, gorengo ertilariak gaurdaiño taiutu ez duten erara eder-gaiak, antz-iduriak, eta amets éreduak, eusko kutsu yatorraz asma eta sor lezazketela, euskaldü-

nén begiak ikusi eta beroien irudipenak arasi dituzten lege an tzero eta ez atzerritar ertilariak erakutsi diguten gisara» (*Loe. cit.*, VII orr.).

Olerki onen azterketan oiñarriturik, J. Ariztimuño'k eusko elerti-kerak berezi edo estetikari buruz lerro mamitsu jakin-garriak oretu zizkigun. «Bost Lore» poemak badu edertasunik nal duzun aldetik so-eginda, baiña edertasun ori goi-goi jarten dute malz, oso sarri, d'arabilzkin eusko irudiak, irudi ta oldozkunen joko biurriak. «Ez ditu —dio Aitzol'ek— irudi-oldozkun bikotasumak ertilari arbasoak taiutzen zituzten era ber-berara gertatzen «Bost Lore»-aren agilleak, baiña aien eta onen eredu-oldozkunen senidetasuna garbiro edozeiñek, irakurri utsik, oar d'ezake. Aiek, antziñakoak noski, kera berezi oneri iraunkorrago eutsitzen zioten, ez beste gaurko olerkari onek. Bertsolari zarrak euskel-gun biziagoa txertatzen zien idurial eta bertso giazragoak taiutzen zituzten» (*Loe. cit.*, XXVI orr.).

Aitzol'ek, baiña, etzitun beti eskatzen gaurko olerkariantzat eüsko-kutsú jatorrena duten irudiak. «Olermen eta irudimengoari eder» zalo, zion, zeruak zear lokabe ibiltzea; bebiltza zelai- zabaletan, ez ditezela mendi ateetan ito. Baiña euskal kutsu orrek piperminduta ba'dabiltzkgu, askoz ere obeki.

Euskaltzaindikoa da.

. (Ikus *Eusko Olerkiak*, 1933, IV'garrena; S. Onaindia, MEOE, 967 orr.; L. Villasante, HLV, 360 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 72 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 49 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 259 orr.).

47.—LUIS ORMAETXEA ARRATE (1900-...)

Eibar'en jalo zan 1900-7-9'an. Industri-galetan teknikoa. Etxagin-orde edo aparejadorea. Eibar'ko Armeri Eskolan zuzendariaren ordezkio izana, ta gero gerratea zala-ta, itxas aundiz bestalderatu ta gaur ere Buenos Aires'en bizi dana.

Euskaltzalea, eibartar askoren antzean. Buenos Airesko «EuzkoT)eya»-n eta «Tierra Vasca»-n eta Mexiko'ko «Tierra Vasca»-m idatzi digu; bere sorterriko auzune oiarekin gogoratuz «Isasi» erabili du lanak azpi-markatzeko.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 145 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 52 orr.).

48.—PAULO KEREXETA URRUTIA (1901-...)

Euskal idazle aspertu eziña. Len eta orain, luma poliki darabillena.

Aretxabaleta'n jaio zan 1901-12-19'an. Lenago aitatu genun Ugalde'tar Peli'ren laguna, ta euskal zeregiñetan laguntzaille zintzo izana. Urte mordo dala Arrasate'n bizi zaigu, ta andik ari da euskal albistarietara berriak bialtzen.

«Kirikiño»-ren ikasle au ere. Gerra aurretik, 1918'tik 1922 ingururarte idatzi zuen geien. Beti «Euzkadi» egunerokoan: Arrasate ta inguruetako izparrak ziran batez ere bere lumak aizatzen zituen gaiak. «Udalaltz» izen-ordez firmatzen zizkigun lanak.

Gaur ere idazten digu, «Agur»-en eta «Goiz-Argi»-n baitik bat. Naiz-ta ixil-xamar lan egin, ba-dute beren zera, ta txaloak merezi dituzte, ernetako izparkari auek. Erri-albistak, izan ere, atsegiñez irakurri oi ditugu. Zergatik? Labur eta gatzez idatzita daudelako, geienik.

Aspaldion «Keixeta» izen-ordea darabilgu.

49.—JUSTO MARIA MOKOROA MUXIKA (1901-...)

Bego ementxe lenen L. Mitxelena'k «Erraondo-ko Azken Danbolinteroa»-ren itzulpena dala-ta, «Egan»-en diona: «Emen dagoen euskal-usaia eta lotsa gaiztorik gabeko etorria bestetan ere sumatua dut: gipuzkoar autore zaarretan eta erri-izkera lasaietan. Liburu zaarrak, ordea, nekez topatzen dira eta eztitugu beti gogoz irakurtzen, aietan —eta baserritarren mintzaeren ere bai— agertzen baitira alako itz eta esaerak gure belarri minberentzat mingarri direnak. Batzuen eta bestearen mami aberatsa eskeintzem digu orain A. Mokorca'k, «zeña»-rik gabe, iñor asaldu eztedin. Gipuzkera zer den jakin nai duenak, beraz, badu nora jo, geiegi nekatu gabe» (*Egan*, 1958, 106 orr.).

Tolosa dugu Aita Mokoroa'ren sorterri, antxe bait zan munduratu 1901-5-28'an. Bere gurasoak kristau ziñezko ta euskaltzale jator ziranez, ez da nunbait arrigarri semea ere aien ezpala izatea; aita, Baleriano Mokoroa, irugarren alean esanik utzi genuanez, euskal arloan, olerki ta antzerkian ain zuzen, lan ederrik laga ziguna. Semeak ere bide beretik jo bear noski.

Tolosa'n bertan osatu zitun lenengo ikaskizunak; 1914'an, mutiko zala, eliz-karrera burutu nairik, Eskolapioetan sartu zan, Tafalla, Iratxe ta Zaragoza'ko Ikastetxeetan ortarako bear gaiak ikasirik. 1924'n artu zuen apaiztasuna, Mateo Mujika gotzaiaren esku-ezartez. Geroztik, irakasle trebe, or-emen, Narparroen eta Txile'n batez ere, erakutsi zuen, gaur ere ortan jardunik. 1933'an, bere Ordenako Euskal Probintzia, ots, «Vasconia», sortu zanean, Probintzi berriaren Buru egiten zuenaren Laguntzaille ta Idazkari izendatu zuten, 1936'ganreneko guda-dirarte ortan jarraiturik.

Burgoikeri ta garait-usteak ekarri zigun ekaitz naspiltsutik aterpe billa Frantzia'ra bidali zuten bere nagusiak, eta Aire-sur-Adour'en apaiz-gai gazteen irakasle egon zan 1940'ko urri-arte. Ameriketako egoaldera aldatu zuten berriro, Txile'ara, an beste zortzi urte egiteko. 1955'tik 1958 bitartean Bilbao'ko

Errekalde kaleko Ikasgu nagusiko Zuzendari daukagu. Eta emen jarraitzen du gaur ere, bertako gazteen irakasle. 1958'an, Madrid'eko «Escuela de Idiomas»-en prantses Izkeran Maixu Diploma ofiziala atera zigun, eta Frantsesa irakatsi izan du geroztik, batez ere.

EUSKALTZALE.—Irakaskintzako zeregin askoz zanpatua izanagatik, beti sortu izan du Aita Mokoroa'k euskal alorrean lan egiteko txolarte ta beta ere: arteka marteka lan betea burutu digu euskal ainitz gaietaz. Jatorrizko lez duen kezkarri abagune izan-ala eman dio eskapena. Ezin uka dezakegu ortan gogarrri dugunik.

Mezakotu baiño leen asi zan lanak idazten. 1923'an, lendik eta gero ere maiz egin zuen bezelaxe, «Euskal Esnalea»-k sarikera eratu zuen, eta IV'garren gaian A. Mokoroa'ren «Oker baten ondorea» saritua. Urrengo urtean ere, bere «Omen gure anaiari!» ta «Euskaldunen simiskizunak» saria merezi izan zuten. Orobat 1925'an, lenengo gala eta laugarrenean A. Mokoroa'ren «Gizabidea» ta «Euskeraren etorkizuna» sariztuak. Eta orrelaxe beste ainbat alditan.

1920'tik agertzen dira bere lanak «Euskal Esnalea»-n; «Argla»-n ordea 1924'tik aurrera; bardin Iruña'ko «Zeruko Argia»[^] eta «La voz de Navarra»-n ere. Txile'n zegoelarik, ainbat euskal artikululu azaldu zitun ango «Euzkadi»-n, idazpuru onekin: *Gure baratzeko loreak*; euskal idazleen bilduma izan bear zuena. 1948'an, Buenos Aires'en ospatu zan euskal itzulpen sariketlan lendabiziko saria berak eskuratu zuen.

Liburu bezela auek argitaratu ditu;

1) *Euskeraren etorkizuna* (Donosti, 1928). *Itzaldia* libu[^] rúan dator.

2) *Genio y Lengua* (Tolosa, 1935). 263 orrialde. Tolosa'ko Mokoroa Anaien Liburutegiak Beasain'go Frantzisko Ezkiaga'ren irarkolan irarrita. Garai artan, gerra aurretxoan, kezka bizia zebillen euskerari buruz gure idazleen artean. Eus-

kera mintzatua gero ta beerago zijoan, eta idatzia ere ez zebillen antza bide egokiz. Ori salatuz J. Aitzol'ek ainbat artikulua ondu zizkigun «Euzkadi»-n; baita «Kepa» batek «Euzkerea»^ ere. Altube euskaltzaiñak orduantxe atera zuen bere «La Vida del Euskera». Aita Mokoroa berriz, ezin kenka orretan ixillik egon, eta liburu au osotu zigun; euskaldun izateak zer eskatzen digun azaldu ondoren, gogarketa mordoa ematen digu euskal senari ta izkuntzan buruzkoak. Liburu sakon eta giartsua nunbait, betiere atsegiñez irakurten dana.

3) *Curso de lengua vasca* (Txile, 1943).

4) *El problema del vascuence* (1952). Aita Villasante'ri egindako karta.

5) *De vida o muerte. Operación de salvamento* (1956). Arantzazu'ko Batzarrean irakurri zuen txostena. Euskal idazleak señera ekarri nairik, betiko kezka azaltzen du zauri bitan.

6) *Erraondo-ko Azken Danbolinteroa* (Bilbao, 1958). Arturo Kanpion'en Ipuia, irugarren aldiz, bere gisa euskeraz antolatua. Ellakuria'ren irarkolan egiña. 22 orrialde. Anjel Badiño'ren lau marrazkirekin. L. Mitxelena'k onela: «Leenago argitaratua izanak ez dio ezer kentzen Aita Mokoroa'ren itzulpenari. Beste argitaraldiak, izan ere, ez dira erraz arkitzen. Ezta kit gaiñera onelako euskeralpen bat bear baiño geiagotan argitarara ote ditekian, ain da euskalduna, erraza, garbikeririk gabe garbia, ugaria. Erderazkoa baiño luzeagoa dela, eta zer? Izkuntz eredu bikaiña da itzulpen au, itzulpena izan arren. Or gabiltza beti gipuzkera delako euskaiki ori osatzen, berritzen eta egokitzen. Ba ote dakigu, orratik, zernolako den obetu-bearrean ari geran izkera? Neri beintzat —ikasiagoengatik enaiz ari— deus ere ezta kidala iruditzen zait «Ibar»-en itzulpen au irakurri ondoren» (*Egan*, 1958, 106 orr.). Bigarrenez «Euzko-Gogoa»-k argitaratu zuen, 1952'gko 9-10'gn. zenbakian eta 1955'gneo 3-4'gn. zenbakian.

7) *Lengua vasca de hoy y de mañana* (Zarautz, 1971). 116 orrialde. Itxaropena irarkolan. «Añamendi» bilduma, 10'garren alea, Anexa. Zortzi galderari erantzuna ematen die liburu onek, euskeraz ta erderaz batzuk, eta azkenez euskera batuari buruz leenagoko euskaltzaleak esan zutenen txorta txikia dakar. Len-galdera au duzu: «Ba ote da, euskalkien artean, guztiek berezko eta elkarrekiko duten muinik, euskera dei dai-tekeenik? Zertan datza, zure ustez, muin hori?».

8) *Egiaren Billa. Zentzuz eta gizabidez* (Bilbao, 1973). Ellakuria'ren irarkolan; 51 orrailde. Luis Mitxelena'ri erantzunaz, Gcirigolzarri'tar Xabier eta J. M. Mokoroa'k egindako liburuxoa. L. Mitxelena'ren «Idazlari Hautatuak» argitara zutenean, an «Azken ordukoak» izen-buruarekin agertzen ziranak, asko jarri zituzten kezkatu. Oien artean Mungia'ko gaztea, Goirigolzarri. Onela berak sarreran: «Nire moduan beste batzuk geratuko ziralakoan, kezkatu beterik, azken orri orretan ezteakada mingor geien jartzen dautsazan gizon ospetsu onegaz alkar-izketa bat egitea erabaki dot, era onetara gauzak argi jartzeko asmoz... Ori dala-ta itaunketa au eratu dot, ta ondo egongo litzake A. Mokoroa'ren pentsakeragaz egon ez arren bere, erantzun oneik irakurtea; bere eretxiak gizon jakintsuan eretxiak dira, ta beste gizon jakintsu batek kritikatu izan dan ezkeru, bien arteko eztabaida onetatik argi apur bat geiago gura rteake... Nik itaunak jarri dodaz; A. Morokoak dau itza». Badu piperra liburu onek.

9) *Ortik eta Emendik* (Argitara-gai). Urte askotako lana, esakera zaar eta euskal erriak etengabe aotan darabilzkiti itz jatorrez ornituriko 92.000'tik gorako fitxa-sail txit mardo. Oralnduk orain, literatur arlo onetan asi berri nintzala, idatzi nion A. Mokoroa'ri bere esku arteko lanez zerbait jakin nai nuela-ta. Onela erantzun zidan: «*Ortik eta emendik* zer dan eta zertan dan itz gutxitan ezin esan nezake. Zerorrek begiz ikusi al bazendu, obeto jabetuko ziñake nere lan ontaz». Eta Bilbao'ra joan nintzan batean, ikustalditxo bat egitera joan nin-

tzakion pozik. Dana erakutsi zidan. Ura bai lana! Au ta bestea miretsiz, aneika galde egin nizkion. Irripartsu, nik nai beste azalkizun opa zizkidan. «Kardaberaz» taldeak bere gain artua du lan eskergea au argitara emateko arloa, Idioloji iztegi bat izango dugu, eder ta bikalña. Betorkigu alik ariñen!

Esku-zarta beroak merezi ditun arren, gure txalorik eztu bear A. Mokoroa'k lanerako. Guk uste baiño idazti geiago aztertu ditu, zaar eta oraingo, urteak dirala esku artean dakarren lan gotorra biribiltzeko; makiñatxo bat txartel osotu du euskal idazle ta esale jatorren emaitzez jantzirik. Guztiontzat lan bikaiña dagigulako gure eskerrik kartsuenak merezi ditu; aren lanerako gogo sendoa, berriz, bekigu eredu darabilgun arloan. Ortaz, Muxika'tar Errupin'ek onela idazten zuen Lazkau-tik: «Guretzat, gazteontzat, eredu dizdiratsu izan daiteke. Orrelako asko bagenitu euskaldunon artean, ziuurki gure biotzeko euskera gaxoa lalster balño laister indar-berritako litzake udaberriko zugaiz mardularen antzo» (*Yakin*, 1959, 10 alea, 79 orr.).

Euskaltzaindikoa. «Ibar», «Argizale», «Iparralde» izen-goi-tiak erabili ditu.

(Ikus B. Estornes Lasa, *Estética vasca*, Buenos Aires, 1952; S. Onaindia, MEOE, 863 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1958, 106 orr.; Errupin Muxika, *Yakin*, 1959, 10 alea, 77 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 131 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 65 orr.).

50.—TOMAS GARBIZU SALABERRIA (1901-...)

Lezo'n munduratu zan 1901-9-12'an, San Juan kalean, 15'-garren zenbakian, urrengo egunean bataloa arturik. Kandidb ta Maria'ren seme ta gorago aipatu ditugun Juan ta Tomas'en anai. Musikalari ta euskal idazle. Donostia'n bizi da.

Musikalari lez, naikoa idatzi du: 1) *Euzkel Abestiak* (Tolosa), iru abots berdiñetan; 2) *Eusko Eresiak* (Tolosa, urterik gabe, ta Barzelona, A. Boileau ta Bernasconi); 3) *Oroi-miña* (Tolosa); 4) *Euskal Meza*, ta abar.

Euskal idazle bezela, ordea, «Euskal Esnalea»-n dauzka batez ere, naikoa olerki ta osterantzeko, 1924'tik 1929'ra bitartean.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1927, XVII, 189 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 68 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, 583 orr.).

51.—IÑAKI OLABEAGA TA ALDANONDO (1901-...) ^

1901-10-14'an Donostia'n jaio zan, «Kanpanaro» karrikan, Parte zarreko jatorrizko kaleetakoa. Donostiar zarrentzat «Joxemarifar Kaxkariñak» zuen ezizena. Aita, Donato Olabeaga Zumalabe, Donostiarra ta itxasontziko pilotu, bere garaian eso ezaguna, bertako kai aldean; ama, Manuela Aldanondo Berra, Astigirri 3ga'ko Xanitomendi'ko baserri batekoa: etzuen bein eré erdera ikasi. Bost anal ta iru arreba izan ziran. Bat, Iñaki, Salletarra egin zan. Manuela arreba lekaime, «Karmeldar Miiolarien» taldean sartu ta Peru-Lima'n il zan.

Garai artan Salletarrak Frantzi'tik botata izanik, Donostira etorri ziran batzuk, eta «Aingeruen Ikastetxe» iriki zuten ta ara joan zan gure mutikoa, erdera ta lenengo letrak ikastera. Ordun sortu zitzaion Iñaki'ri euskal-erdel burruka. Ikastetxean dana erderaz, kalia ia dana, baiñan etxean nai ta nal ez euskeraz egin bear. Ume-aroan or ibilli zan meza-mutíl bal Donostiko kaleko Sari Pedro'n, bai Santa Teresa, karmeldarren elizan, eta bai Santa Maria parrokian.

Amalau urte zituela Irun'go Lasalletarren Nobizio-etxean sartzten da. An erdera ta frantsesa bapo sakondu zituen, balña baltá zoritxarrez euskera ziaro aztu ere. Amasei urtekin, urte bateko nobiziadu ondoren, Bujedo (Buxgos)era irakaslaritzako ikasgaiak eta azterketak egiten. Or bai euskera benetan aztu zuela. Lelengo aldiz Donostira etxeratu zanean, gurasoak euskaraz ta semeak erderaz ekin bear. Geroztik ez-izen bat jarri zioten etxean: «Ara emen guretar maketo ikasia».

Emeretzi urte zituela Irun'go San Martziai ikastetxean asten da maixu jardunetan. Bera izango du bizitzako lana. Ordun sortzen zaio euskal zaletasuna. 1922'an Baiona'ra bialdu zuten komertzio ta gaztelania erakusten. Iru urte egin zituen an. Gero bizitza osorako profesia egin ta osasunez makal zegoela ta Barakaldo ondoko Arboleda'ra bialdu zuten nagusiak. Emen urte bakarra egin eta berriz igorri zuten Irun'go San Martziai ikas-Cetxera; berton osatzen du frantses ikasketa ta inglesaz ere jabetu.

Errepublika etorri zanean, abertzaletasunak indar aundia artu zuela ta Estatutoa ba-zetonrela-ca, berekin batean ikastetxean elebitza zetorrela-ta, Anal nagusiak euskal textuak sortzea bultzatu zien anai batzuei, Iñaki tartean zala. Garai artakoak dira Bruño'k argitartu zituen *Zenbakiztia* ta *Neurkizfia*. Guda etorri zalako, or geratu ziran baita, eskuz idatziak, «Euskal-Eliztia» euskera utsean eta «Euskai Idazleen Antologia».

1936 urtean gaude. Gerralda. Iñaki anaiaren bizitza arriskuan zegola-ta, Anai nagusik Frantziko Ipar aldera, Annappes erritxora bialtzen du; Lille inguruan datza erri ori. Zortzi urte egin zituan an, Lilleko Ikastetxe nagusian ikasle jarraitu ta etxean gaztelera maixu bezela. Zintzoa izanik, noski, Buruzagi-ordezkariz izendatu zuten. Gero Europa'ko guda orokorra. Ango ikasleekin igeska oiñez ta gosez egin zituen, doixtarren egazkiñen lerkal biidurgarrien pean. Zorionez danak bizirik irten ziran.

Arat-onat ibilli ondoren, 1944'an artu zuen Anai nagusiaren deia berriz Euskadi'ra biurtzeko. Baiñan doixtarrak etzioten igaro-biderik eman ta Ustaritz'en eskola ematen egon zan alemanak joan arte. Or asi zan euskeraz eskola ematen. Gero, Euzkadi'n sartu bai, baiñan Zaragoza'ra bialdua izan zan. An ere buruzagi-ordezkariz izandatu izan zan. Frantsesa ta inglesa erakustea zan bere lana.

Andik lau urtera Zarautz'en daukagu. Eta ementxe asi zan euskeraren alde burrukan. Mutillak euskeraz danak zekiten,

baiña ez irakurtzen era ez idazten etzekken; beraz, arrak asi zitzaigun gogor. Ikastetxeko^ nagusi zala, ainbar euskal kanta erakutsi zien mutikoai. Baiña etsaia beti ennai: «Madrid'en «separatista» zala saiaturia izan zan eta Peña Garikano'k, orduan Gipuzkoan gobernadore zanak, Gipuzkoa'tik jaurti zuen.

Anai nagusiak Sestao'ra bialdu zuen. Gero, andik Bilbao'ra. «Ediciones Bruño»-ren arduradun jarri zuten. Garai artan asi zan San Anton'go euskal mezak 14 urte zear, orain arte, zuzentzen. Baita 16 eliz parroki tan izan da euskai illetak zuzentzen oar-arazle (monitor) bezela. Gaur Lasaiuetarrak lenengo euskal elkarteak sortu dutela-ta, or dago Ibarrekolanda kalean, zazpi anai euskal ikasleen nagusi.

EUSKAL LANA.—Ez du askorik idatzi, baiña bere lumatik irtena ezti-markatza bezin goxoa duzu. «Egan»-en, «Nora?»-o, «El Bidasoa»-n, «Euzko-Gogo»-n, «Olerki»-n eta abar idatzi digu. Sestao'n aurkitzen zalarik, beta apurtxo bat zeukala-ta, olerkietan jarduten asi zan. Olerki oiek gero iru liburutan eman dizkigu, oso poliki. Ona:

1) *Gogoetan* (Bilbao, 1972). San Anton Katekesla. 75 orrialde. Poesi-sail ederra. Neurkera askotan, berezko senez eginda maitezko ta osterantzezko lan -legunak.

2) *Maite dedana* (Erandio, 1975). Telleria irarkolan. 117 orrialde. Lau sailletan banatzen da liburua: 1) *Saiaketak* (17 lan); 2) *Amalaukoak* (6 olerki); 3) *Bertso tankeran* (9 olerki), ta 4) *Antzin Liturjiko Jai-egunetan zear eta Begoña'ko Amari* (olerki bat). Neurri askotan taiutuak auek ere, ulerterrez ta goxo. Etxebarria'tar Juan AnjePek dagitso itzaurrea, ta onela mintzatzen da: «Anai Olabsaga'k Jainkoa ta Jainkoarekikoak maite ditu benetan: Gizadia ta Izadia. Diliges proximun tuum: urrago ta maiteago. Orregaitik eusko lurra ta eusko gizona biotz-erraietan daroaz samurkiro. Izadia eder ta gizadia azke nai

ditu...». Sentipen aundiz moldatuak daude neurtitzok. Eta biotzak itz egiten dizu. Euzkera goxo, xamurra darabilkizu», beinola Basarri'k esan zion bezela.

3) *Biotz iturritik* (Bilbao, 1977). Berogei olerkiz jantzitako idazti mardula, oso ederld irarrita. Idurimen eta biotzondoz gaiñezka. 108 orrialde.

4) Badu oraindik beste idazti bat ere, itz lauzkoa: *Salle'ko Juan Bautista'ren Bizitza laburra* (Irun, 1955).

«Txotx» izenordea erabilli zuen.

52.—LUZIANO ARISTIZABAL (1902-...)

Oartzun'en jaio zan Aita Frantziskotar au 1902-1-8'an, «Arkale» baserrian. Baserrian jalotzeak, berriz, —ba al daki-zu?— bapo laguntzen dio —berak ote daki zertan?— euskal idazleari. Gure lurra, izan ere, eskola duzu, igartzeke irakasten duena.

Oartzuar augatik diost A. Garate'k: «Baserritar eskoladuna ta buru argikoa ta asko ikusia» dala. Beraz, leengo «Donostia'ko «Argla»-n eta oraintsu «Anaitasuna»-n nekazaritzako gaiak oso goitik erabilli oi izan ditu.

«Elorri» izenordeaz firmatu izan dizkigu euskal lanik geienak, «Euskal Esnalea»-n 1924'tik aurrera datoztenak eta. Or-emen eratu dituzten sariketetan ere, ez da atzeniengo geratu: «Euskal Esnalea»-k antola zueneko baten, «Orixe» geratu zan lenengo, «Elorri» bigarren ta R. M. Azkue, irugarren. Beste sariketa baten ere, Pasai'n bizi zan J. Garbizu, «Zubigar» olerkaria ta «Elorri» berdin gelditu ziran, lenengo ta bigarrengo sariak berdin banatuaz.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1926, XVI, 122 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, I, 274 orr.).

53.—PEDRO ARANGUREN MENDIZABAL (1903-...)

Prantziskotarra. Legazpia'n jaio zan 1903-4-15'an. Arantzazu'n osotzen ditu len-ikaskizunak, 1913'tik 1918'ra tartean, gero Arantzazu'n bertan eta Erriberri (Ollite)'n egiñik, 1919-1926, Filosofi ta Teoloji ikasketak. Apaiztu ondoren, Kuba'n lan egin zuen mixio-arloan, lumaz eta itzez.

EUSKALTZALE.—Euskal gaiak beti kezkatu izan dute. Eta »Arantzazu»-n, «Egan»-en eta «Euskera»-n agertzen dira bere euskerazko lanak. Euskaldunok lotsakor bait gara idaztean, ize-nordez firmatu ditu sarri bere artikulua. «Egan»-en (Donostia, 1957) daukazu beronen lan bikain bat; *Aita Astarloa, euskal idazlea*. Baita «Euskera»-n (Bilbao, 1961) ere, Aita Astarloari buruzko lan sakona: *Urteco Domeca guztiyetaraco verbal-di icasbidecuac* libururik ateratako adizkiak.

Lenengo lana, 1957'ko otsaillaren 2Pan, Donostia'n Urkixo aretoan irakurritakoa duzu, ta bigarrena, A. Villasante'k argitaratu zuen Euskaltzaindiaren aldizkarian, A. Bitor Garamendi'k eta Arantzazu'ko ikasle batzuk lan jatorrari egiñiko laburpen bezela.

(Ikus *Egan*, 1957, 5-6, 309 orr.; *Euskera*, 1961, VI, 59 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 88 orr.).

54.—ANTOLIN ALBERDI ARREGI (1903-...)

Soráluze'n munduratu du, 1903-9-2'an. Au ere, beste askotxo lez, «Kirikiño»-k egin zuen idazle. Ainbat egunerokotan agertazi zizkigun errialbistak, labur eta goxo. Oraindik ere idazten digu Paris'ko «Euzko-Deya»-n.

7) Argitaratu gaberik lanok utzi zituen: 1) *Andre Mari Gaztediaren biotzean*, goikoaren bigarren atala bezelatsu; 2) *Andre Mari Mirarietan*; 3) Gar-Mar'en *Sugerencias* (I Atala) euskeraz; 4) *Eresi Ikasbidea*, Euskaltzaindiari argitaratzeko emana; 5) Joan Gurutzekoaren *Gogo-Abestia* (Cántico Espiritual) eta *Maitasun-sugar bizia* (Llama de amor viva) euskeraz; 6) *buskal-esakera sailla, urteetan zear bildua*.

Onezaz gaiñ, maite zuen txistua, ta Markiña'ko txistulari Ansola anaientzat batez ere, lan auek mamindu zitun; 1) *Or konpon!*; 2) *Urrundik*; 3) *Nere andrea*; 4) Bach'en **Re** pitiñeko *fuga*; 5) Bethoven'en *Artzai-sinfonia*, ta abar.

NOLAKO IDAZLEA?.—A. Ibiñagabeitalk, «Andre Mari Euslerriko mendietan» aztertzean: «Beti ere karmeldarrak euskaltzale gartsu izan dira. Lekuona'tar Imanol'ek liburuaren AURKEZ'ean dion bezala, izan dute karmeldar oñutsak aurrelaririk euskal lasterka-zelaian. Aita Prai Bartolome «Euskalrrijetaco olgueta ta dantzeen neurrizco gatz-ospindua» eta «Icasiquizunac» idatzi zituen bizkaitar idazle trebea. Geroago ere izlari aipatu, eta idazle antzetsurik eman du Karmel'go ordenak. Pozgarria benetan... Aita Emilianoren gorako idazle bat euskera aberats, yori, ta yatorrez agertzea» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 60 orr.).

Eta «Andre Mari Gaztediaren eskuetan» liburuaz, L. Mitxelena'k: «Auxe esan genezake galari buruz; biziro egoki azaldu duela Aita Emiliano'k berea. Ia 300 orrialdeko liburu onek gai aberatsa du, ongi tajutua eta zeatz eta garbi aditzera emana. Izkeria berriz ederra ta ugaria. Eztabil egillea Txirrita-patroiarenekin: euskera landua du, jaso. Baña ez geiegi, edozein irakurlentzat adigaitz izateko adiñakoa ez, alegia. Ezur-muiñetan sartua deuka gure izkuntzaren izaera eta joskera eta lasai dabil

orri eskerrak erdi-mailla atsegin batean: gora-naiean, baiña ez goregi; erraz-zurrean, baiña ez narrasegi» (*Egan*, 1955, 1-2, 55 orr.).

fer•

(Ikus A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1952, 3-4, 60 orr.; berdin, 1954, azilla-lotazilla, 208 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1955, 1-2, 55 orr.; J. San Martin, *Egan*, 1967, 1-6, 114 orr., ta *Euskera*, 1968, 282 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 472 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, III, 132 orr.).

61.—ANIZETO ZUGASTI IRIONDO (1904-...)

Altza'n ludiratu zan 1904-4-17'an. Apaiza. Eliz-ikasteak Andoain'en eta Gazteiz'en egiñik, 1925'an artu zituen ordena txikiak eta 1927'an apaiztasuna. Ondoren, Lanziego'n egin zuen apaiz-laguntzale ta organu-joile; gero, San Pedro Pasai'n, Soraiuze'n eta Donosti'n kapillautzan jardunik. Euskaltzaindiko urgazle. Liturgia euskeraz eratzeko izentaturik dagoen lau Probinzietako Elizbarrutiko Batzordekoa.

EUSKAL IDAZLE.—Ikasle zala ta gero, beti azaldu izan zaigu euskaltzale zintzo. Gerra aurretik Donosti'ko «Argia» asterokoaren zuzendari-ordeko izan zan luzaro. Eta orrez gaiñ, «Euskal Esnaiea»-n, «Aranzazu»-n, «Zeruko Argia»-n, «Egan»-en eta abar idatzi du naikoa. Beronen lenengo lanak «Euskal Esnalea»^ (1926) datoz, bertsoz eta itz lauz. Eta «Argia»-k azken urteetan zekarzkin funts-lanak, ia beti, bereak ziran.

Ona argitara ditun lanik beiñenak:

1) *Maiatze'ko Loreak* (Zarautz, 1950).

2) *Jesus'en Bioizaren Illa* (Zarautz, 1951). Itxaropena Argitaldaria. 80 orrialde. Sarreran dio; «Gogoratzen, irakurle, igazko «Maiatze'ko Loreak» liburutxoa? Aretxen senidea nauzu aurtengo «Jesus'en Biotza'ren Illa». Aita bera degu biok, aitordeko bera, zar eta berri, soñekoak ere bai. Ua ba-omen dabil

Gipuzkoa'n erririk-erri, elizarik-eliza ta etxerik-etxe. Andre Maria'ren aintzarako ta kristau askoen onerako izan omen da. Ez nuke besterik nai nik neretzat asko zabaldu ta Jesus'en Biotza'ren aintzarik aundienerako izan eta kristau askoen onerako».

3) *Argi-bidea* (Zarautz, 1951).

4) *Garbitokiko Animen Bederatziurrena* (Zarautz, 1951).

5) *Bederatziurrenak* (Pasai, 1951).

6) *Ezotzi'ko Andre Mari'n Bederatziurrena* (Zarautz, 1952).

7) *Argi-bide txikia* (Zarautz, 1957). Itxaropena Argiáldaria. M. Lekuona'k «Egan»-en (1957, 3-4) onela: «Bear-bearreko zan liburu polita. Ez umetxoentzako, ez aundientzako. Bal bion arteko. Tarte eri bete bearrik gendukan gure Eliz-liburuetan. Eta betiko gure Zugasti apaizak bete digu. Eta bete ere ez nolana. Ondo ausnairtuta, ondo pentsatuta. Gaiaren aakera, ta itzaren egokiera. Betikoa azaldu zaigu gure Eliz-idazle oia. Goizarratsetako otoitzak, Meza Donea, «Otoitz ederrak», Aitortza, Jaunartze, Gurutzbide, Errosario Santu, Abesti-xorta Eliz-kanturik oituenekin... Eta dana, izkuntzarik ederrenean, umeen einetan. Edergarriak, gañera, eta ez nolanaikcak, A. Iriondo prantziskotarrak egindakoak; koloretan baleude, iñorako lotsarik gabeak, umeentzako erarik egokienean... Orra zer dan gure Zugasti'ren azkeneko liburua. 140 orrialde; boltxikorako neurrian; papera, txuri-txuri ta xendo-xendoa». Bizkaeraz ere, Kerexeta'tar Jaime'k atonduta, argitaratua izan da: Bilbao, 1965, «Encuademaciones Belgas» irarkolan, 118 orrialde.

8) *Amabirjiña Miraritsuari* (Donostia, 1962).

9) *Itun Berria* (Donostia, 1967). Izarra irarkolan. 636 orrialde. Liburu au egiteko esku artu dutenak: Orixe'k, «Jesukristo Gure Jaunaren Berri Ona» eta «Apostoluen Egiñak eta Idazkiak», Kerexeta'tar Jalme'k bizkaieraz eta Zugasti apaizak gipuzkeratuta, Gallastegi'tar Lander'en marrazkiekin.

10) *Salmudia* (Donostia, 1968). Izarra irarkolan. 357 orrialde. J. Kerexeta'k bizkaieraz egiña, gipuzkeraz jarrita. A. Zugasti'k sarreran: «Salmuak euskeraz. Zertarako? Euskaldunak Jaungoikoarekin, beren izkuntzan itzezin al izateko. Elizak beti izan du oso gogoko, Salmuak lagun, otoitz egitea. Orre-gatik, beren bizibideak ala eskatzen dualako, Eliza osoaren izenean, otoitz egin bear duten apaiz, pralle ta mojai, beren errezuetan, naiz bakarka naiz sdlean, besteak beste, Salmuak esateko ala kantatzeko agintzen die. Eta errezu ortarako liburu berezia dute, eta Salmuak dira errezu-liburu orren ardatz sendo ta mami gozo.

«Orain, ordea, kristau guztien bizitzan otoitz-bide au sar dedin egiñalak ari ditu Elizak. Ortarako, elizkizun askotako liturjian Salmuak irakurtzeko ala kantatzeko agindu die. Eta, ain zuzen, Batikano II Kontzilioak, elizetako apaizal eskatzen die, igandeetan eta urteko jalrik aundinetan, beren otoitzaldietako zati nagusienak, —bezperak batez; ere—, erriarekin batean esan ala kanta ditzatela (Cons. de S. Liturgia, 100). Kristaubizitzan ba-dira milla tankeretako gora-berak, eta oietako bakoitzari dagokion giroarentzat ba-ditu, Jaungoikoaren argibidez egindako Salmudiak, itz egokiak, gogoeta sakonak eta biotzkada xamurrak, pozaldlan oju egiteko, atsekabeen intziri, bearraidian eskabide; aulerian kemen eskatzeko, ezbearrean erruki, illun-orduan argi,erori-aldian itxaropen, zalantzan zuzenbide, pekatuan barkapen, grazian kaupen eta maitasun. Ori guztia *euskeraz*, zurea dezun izkuntzan, beste izkuntzek ez bezela, biotzean ikutu goxQ egiten dizun, zure amak erakutsitako mintzairan».

Olerki gisan, gogora dezagun emen, beiñola J. Aitzol'ek zesana: «Apal eta goxo bertso leunetan gai egokiak ikutzen ditu Zugazti apaizak» (*Eusko Olerkiak*, 1930, 22 orr.). «Euskal Eснаlea»-n eta Argia'ren «Egutegietan» batez ere, jatorki landutako poematxoak dauzka.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 913 orr.; *Egan*, 1954, 5 orr.; M. Le-kuina, *Egan*, 1967, 3-4, 237 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 175 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 91 orr.).

62.—GILLERMO LARRAÑAGA (1905-...)

Menpetasunaren seme dalarik arat-onat maiz ibilli bearra izanda ere, jakin du oindio nundik atera euskerari berea emateko bear izan duen astia. Nagiarena omen da «ez dut astirik» esaka jardutea.

Azkoiti'n jaioa dugu A. Larrañaga jesulaguna, 1905-4-10'an. Loiola'n, Oña'n eta Marneff'en eliz-karrera ta apaiztu ondoren, maixutza egin du ia beti, Karakas'en, Bilbao'n, Las Palmas'en eta Muskaria'n beintzat. Loiola'n zegoela, 1924'an, «júnior» bezela latin eta izkuntzak ikasten, Aita Ibero'ren liburuxka suspergarria irakurrita, Zaitegi, Andima, Lauaxeta, Muxika ta beste batzukin euskera ikastera bizkortu ziranetarikoa dugu. Eta euskera alde lan egiten jarri ziranetarikoa, alegia. Arrezke-roko da beronen) euskal zelatasun uka-eziña. Irakatsi artean ere, asti-orduetan, luma aizatu bear.

EUSKAL IDAZLE.—Venezuela'n irakasle zebilkigularik, «Euzko-Gogo»-n asi zan idazten, edo bere lanak argitara ematen beñik-bein.

Lan auek eskeñi zizkigun J. Zaitegi'k sortu ta zuzenduriko aldizkingi ortan: 1) *Venezuela'ko matxinadak amarzortzigarren gizaldian. Euskaldunak berotutako opillak?* (1956, VII, 114 orr.); 2) *Milla ta bat gauetako ipuiak* (1956, VII, 42, 57; 1957, VII, 37, 63; 1958, IX, 181 orr.); 3) *Anchieta'tar Jose Brasüeko mixiolari mirarigilleak Loyolako Iñazio deunari bere abizena zergatik ixiltzen}* (1957, VII, 103 orr.); 4) *Juan de Lakosa* 1958, IX, 284 orr.); 5) *Izkuntza ta abenda*, Arthur Kanpion'ena

euskeraz (1959, X, 23 orr.); 6) *Futbol'a* (1959, X, 150 orr.). Aurrerago oraindik, au argitaratu zuen: *Lenengo kerexalia* (Bilbao'ko *Euzko-Deya*, 1921, I, 24 orr.).

Baiña auxe dugu G. Larrañaga'ren lanik gotorrena: *Laudare Jakintza. Botanika* (Gazteiz, 1975). «Eset» irarkolan. «Kardaberaz Bilduma», 8. 183 orrialde. Liburu onekin jaso zuen egileak 1970'an, Karakas'ko ELE'k (Euskera Lagunen Elkarteak) jarritako «Andima Ibiñagabeitia Saria», lenengoa noski, milla dolarrekoa.

A. Larrañaga'k urte askotan izadi zientzi arloa irakatsi izan du Indautxu'n eta Tudela'n batez ere. Andima zanaren adiskide miña dugu, gaiñera, ta ez da bat ere arritzekoa gai orri buruz liburu eder bat ornitu nai izatea. Andima bera ortan aria dugu, dakigunez; «Euzko-Gogoa»-n ikusi dezakegu nola ibilli zitzaigun Botanika euskeraz eman naiez; baita aurrerago Lakoizketa, Arantzadi, Elizalde, Althebe ta beste batzuk ere ortan gurituak ditugu.

Botanika ezezik, Ikasgu nausietarako beste gai asko ere xeatu dizkigu azkoitiar bizkorrak euskeraz. «Bi ikastetxe auetan (Indautxu ta Muskaria) idatzi ditu —diosku Joxe M. Otamendi'k, «Landare Jakintza»-ren aurkezpena egitean— eskue-tan daukazun Botanika ta argitaratzeko presto dauden Geologn, Zoología ta Biología. Kirnika ere, zabal askoa euskeraz jantzi du. Batxilleratoko ikasleentzat liburu egokiak. Azken urteotan, bere lana ikastoleko gai izan ditzeken, ezikuntza basikurako textoeri eskeiñi die. Izadi arloko¹ textoeri ain zuzen».

Guenik, goresmen aspergarrietan naasi gabe, gizaseme zalu onen lana gogotan artu ta guztioi jarraibide izan dakigun, «Euskera»-k dakarrena aldatuko dizut. «Etengabeko langille isil jarraitua izan dugu —idazten du— Aita Gillermo Larrañaga. Hainbeste lan ditu atereak euskal aldizkarietan, eta hainbeste argitara gabeak. Beti irakaskintzan baritu, Ordenako nagusiek bialdu duten tokitan... Beste askok, toki aldaketa hoiien aitzakiaz aguro ukatuko zuen euskaltasuna, erromantikokeria baili-

tzan. Zuk ez duzu horrelakorik egin. Beti eraman duzu zeurekin euskeraren kezka, non-nahi zaudelarik. Eta euskeraren akb lan egiteko gogo obraz erakutsi eta mamitu duzu. Batez ere, Bidaktika eta Jakintza izan dira zuk jorratu, hornitu eta jantzi nahi izan dituzun sailak. Alde batetik, euskera horren premia gorritan dagoela ikusten zenduelako, eta bestetik zure irakaskintza ofizioak ere hartako galtzen zaituelako» (1971, 133 orr.).

Euskera arin, trinko ta garbia du. «Azkoiti» ta «A.» erabili ditu izenorde bezela.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 114 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 103 orr.; J. Bilbao, *Euzko Bibliografía*, IV, 601 orr.; *Euskera*, 1971, XVI, 133 orr.).

63.—MARTIN ITZIAR AGIRRE (1905-...)

Gizaseme jator, ixil, langillea. Azkoiti'n jaio zan 1905-11-11'an. Berea duen oski-denda batean lan agiñik bizi da; gaur alargun. Dakiana erriko eskolan eta irakurriaz ikasia du. Irakurriz, ala ere, gogo sendoaren jabe danak asko ikasi dezakenik ezingo du iñork ukatu.

Umetan txorizale zan, berak aitortzen digunez. «Nere aur-tzarroan —dio— emen inguruetako zugaztiak txoriz beteak ziran; eta umekoxkorrak taldean ibilli oi giñan kabi billa, ikas-tolatik iare genitun ordu guztietan. Jakiña izaten zan, gure atzaparretan erortzen ziran kabiei gertatu oi zitzaiena; eta ezin ba'genduan, artean kimuan generamakin griña asetzeko, etziran gure besotxoak arrika nekatzen, adar muturren baten zegon kabiko arrautzei edo txorikumari lurra joerazi arte. Mutikoskerretan berriz!., karnaba zale; eta areagoak ikusiak giñalako edo, gure okerrari utsa irizten genion. Gero gartzarogan, naiz ta nere ama eiztarien arerio purrukatua izan, beraren ustez elizkoi

kazkarrak ziralako, alako batean lortu nuan txisparen jabe izatea; eta eiztari zentzundun eta biotzdun izan bearrean, txispazale oietako bat biurtu nintzan...».

Ortan, guda etorri zan. Eta Martin'ek bere txispa utzi b^par. Zer egin ote zuen? «Ganbarako sakapean gorde nuan»- diosku. Eta or ibilli zitzaigun zati batean gorroto zuen zirimol lotsagarrian nastuta. Urazkenean. ala-bearrak saka eginda, Bilbao'ran tza jo zuen, eta emen diosku berak: «Urrutizkiñeko artu-emanen ikasketa batzuk egin ondoren, bizkaitar euskal mutillai osatzen zuten talde batera izendatu ninduten». Mendi ta ibar ibilli asko burutu ondoren, 1937-6-13'an, Bizkai'ko Burnigerriko guda oiñean, Fika'n gusntxoan aurkitzen zala, baitu ta Gernika'tik, Durango'tik, Otxaridio'tik zear Gazteiz'era eraman zuten ondo zainduta.

«Sierras Alavesas»-en eta Orduña'n egunak eg'ñik, dagonillaren lenengoetan Gazteiz'en zegoen berriz ere, espetxe biurtuta zegoen karmeldar Lekaidetxeko goiko gela batean. «Sartu ninduten gelan —dio berak— amalau-amabost gizon adiñeko zeuden, denak arabarrak, eta tartean laudiotar batzuek. Auek esan zidaten nola gela ontan Lauaxeta ta Plazet egon ziran. Baita erakutsi ere ormatik zintzilik zegon Ama Birjiña Karmengoa'ren lauki atzean, Lauaxeta'k, il aurreko orduetan idatzita utzi zuan, erderaz Ama Birjinari zuzendutako amalaukoa».

Eta gero? Berak: «Lekaretxe aretatik ertenda, luzaro ba?:-terrik bazter ibilli bearra izan nuanean, sarri samar erri-nr'ñ'ik jo oi ninduan. Lauaxeta zanak il aurrean Ama Birjiña'ri erd'ra-r zuzendutako amalaako maitagriak menperatu eziñik nenbillen beltzuratik ateratzen liaguntzen ziran» (*Olerkiak. Ldciaxeta*, 1974, 11 orr.).

Etxera biurtu zanean, etzuen geiago izkillurik gura izan, ez txoririk ez gizonik iltzeko, txoriak goresten eta gizonak maitatzen bizi-egunak eman baizik.

EUSKAL IDAZLE.— Liburu bi eskeiñi dizkigu, eder-ederrak.
Ona:

1) *Gure Txoriak* (Zarautz, 1966). «Itxaropena» argitaldaria. 203 orrialde. Kuliska Sorta, 61. Umetan kabiak puskatzen ibillitakoa izanarren, maite ditu txoriak, eta maitasun orrek bultzatuta eskeiñi digu idazti bikain au. Adi berari: «Jakintsu bat bazan Europa'n Erri baten jakintza-neurria, an bertan pakean bizi ziran txojrien urlri-ugaritasAinetik neurtzen zuana. Neurketa ori ontzat artzen badegu, gure Euskalerrri gaixoa bshe-rago ezin leike erori; lurra jo digu-ta... Gure mendi ta landa za-baletako ixiltasunakin, naigabez gogoa lurrera erortzen bai zai-gu». Olantxe da, izan ere. Eiztariok!; ez zaitezte orren an-ker izan!

Eta ondoren Euskalerrrian aurkitzen diran egazti-motaen ze-rrenda ikaragarri ematen digu: 1) *Itxas-egaztiak*, 26; 2) *Zezen-egaztiak*, 2; 3) *Itxas-ahate murgilanak*, 3; 4) *Itxas-ahate zerrak*, 3; 5) *Zinkunak*, 2; 6) *Putreak*, 4; 7) *Arranoak*, 4; 8) *Arranox-kak*, 8; 9) *Alkoiak*, 5; 10) *Eperrak*, 4; 11) *Urolloak*, 7; 12) *Eiz-egaztiak*, 6; 13) *Ollagor eta Istingorrak*, 4; 14) *Ipar-egaz-tiak*, 4; 15) *Kaiok*, 8; 16) *Antxetak*, 5; 17) *Itxas-enarak*, 4; 18) *Usoak*, 4; 19) *Mozollo ta antzak*, 7; 20) *Zirringillak*, 6; 21) *Okillak*, 7; 22) *Txori-andreak*, 5; 23) *Enarak*, 4; 24) *Eulitxo-riak*, 4; 25) *Erregetxoak*, 2; 26) *Txioak*, 4; 27) *Txinboak*, 5; 28) *Sasi-txoriak*, 7; 29) *Txindorrek*, 7; 30) *Ipurzuriak*, 3; 31) *Arkaitz-zozoak*, 2; 32) *Garraztaroak*, 3; 33) *Birigarroak*, 2; 34) *Zozoák*, 4; 35) *Burni-txoriak*, 2; 36) *Guriták*, 3; 37) *Buztan-ikarak*, 3; 38) *Antzandobiák*, 5; 39) *Gerri-txoriak*, 4; 40) *Kax-ka-beltzak*, 6; 41) *Berdantzak*, 6; 42) *Alejaleak*, 18 43) *Araba-zozoak*, 4; eta 44) *Beleak*, 9.

2) *Larraundi'ko Sendia* (Zarautz, 1968). Itxaropena irar-kolan. 152 orrialde. Nobela. Labur: bi idazti, zein baiño zein ederragoak.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 99 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 105 orr.; S. Onaindia, *Olerkiak-Lauaxeta*, n, orr.).

ALDIZKARI TA EGUNEROKOAK

«EUSKAL-ERRIA»

Donostia'n atera zan, 1880'tik 1918'rarre; 38 urte luzez: 78 ale. Jose Manterola'k sortu zuen. Auek zuzendu zuten: Jose Manterola'k (1880) Arzak'ek, L. Alen'ek eta Adrián Loiar-te'k (1910-1918). Lenengotan, erderaz «**Revista vascongada**» zeraman titulutzat: gero, 1893'tik, «**Revista Bascongada. Órgano dei Consistorio de Juegos Florales Euskaros de San Sebastián, de la Comisión de Monumentos de Guipúzcoa, de la Sociedad «Euskal Batzarre», de la Asociación Euskara de Navarra y del Folklore Basco-Nabarro**», eta azkenez, 1896'tik, «**Revista bascongada. Órgano del Consistorio de Juegos Florales Euskaros de San Sebastián, de la Comisión de Monumentos de Guipúzcoa, de la Sociedad de Bellas Artes, de la Asociación Euskara de Navarra y del Folklore Basco-Nabarro**».

Euskal Lore Jokuen B;atzarrea 1882-5-11'an sortua da. Batzordeok eratu ziran bertatik: Antzerki-saillean Irastortza, Beitia, Iraola ta Kamiruaga; musikareko: Gorostidi, Luis Maria Eleizalde ta Arzak; bertsolaritzarako: Muñoz, Zapirain eta Artola. Guztion gogo-indarrak alkar-txertaturik, lan oso balio-tsua burutu zuten euskal erdel aldizkari onen biran bildu ziran gizaseme jakintsuak. Euskeraz naiz erderaz, Euskalerriri buruz, batzuk gaiñ eta iraizeko; denak, ala ere, jakingarri. Ia berrogei urteko euskal giroaz jabetu nai dueank, ezer onik egin nai ba'du, arrobi ortara jo bearko du naitaez. «Bizi bedi euskera!» lauburupean, or idoroko du euskal literatura, euskal edestia, euskal tradizioak, eusko seme zangarren egite gurenak...

Antonio Arzak, ogei urtetan «Euskal-Erria»-ren zuzendari izanak, itzali baiño lentxoago', 880'garren zenbakia atera zuen, 1904-12-30'an. Etzuen oraindik bere lana utzi nai, ezta bere lurra ere. Azken olerki baten onela dio:

«Boga, mutillak, boga!...
Nijuan esaten
eta pixka banaka
itsasora sartzen.
Mendiak asi ziran
banatzen... banatzen...
Bildots eta txabolik
ez nuen ikusten,
danbolin eta kantak
etziran entzuten...
O nere lur maitia!
Non zera gelditzen?...
Ez, ez! Ezin esan det
zer detan sentitzen.
Baña... zutaz urruti
tristurak nau iltzen!

Boga! berriz lurrera
biurtu gaitezen!»

«EL BIDASOA»

Ona astekari zaar bat, Irun (Irantzu)'en 1880'an sortua ta oraindik ere jarraitzen duena. Aldi ta gora bera naikoa izan ditu; bi izkuntzatan argitaratu izan da geienez, euskeraz ta erderaz. Azken urteotako zuzendari, Emilio Navas.

«EUSKO-İKASKUNTZA»

Jakingarria noski erri naiz erakunde baten asiera; zer dalata, zerk eraginda gauza bat abiatzen dan jakin naia ez da iñolaz ere gurari zer noiz ta nola sortu zan jakin nai izatea, ez dugu errazoi gabeko zera.

1918'ko iraillaren l'tik 8'ra, Euskal Aldundien babesean, Oñati'n ospatu zan Batzar bedegarrean sortua dugu. Egun aietan aurkeztu ziran lanak sailkatu ta artutako erabaklak azaldu ta ikusia nola adierazi etzekiela aurkitu zan G. Mujika, Batzar aren goraberak panereratzean. An egin zan lana ta ortan erakutsi zan alkar-maitasuna, arrigarriak ziñez!

«Maitetasuna —dio—, alkarrenganako maitasuna izan zan an nagusi ta agintari. Zorioneko maitetasuna! Zortzi egunen epean aztuta utzi genituen asarre ta iskanbillak, aztuta arpegi illunak, baztertuta gogapen okerrak. Euskalerrla'ren alde aritu giñan guziok, zuzen, sendo, indartsu ta arduradun, neronen arteko akatsak eta esan-bearrak alde batera utzita. Buru ta biotz guzien inguruan maltetasun-lurruna zebillen, eta lurrunbarruan ibilli giñan guziok gogo ta atsegin. Lurrun orren susmoa gogoz zabalduko genuke idazti otan gogapen ixil, legun, kutun, eta goxoenak, barru barruan epelean bizitzeko jaiok bezela izaten dira, ta azalera ateratzea zail izaten da. Buru-lanak, bai, emen ikusiko dituzu: itzaldi, izketa ta erabaki guziak emen daude, argi ta zabel» (*Primer Congreso de Estudios Vascos Bilbao*, 1919-1-20, 7 orr.).

Euskalerriko lau Diputazioen indar-eragiñaz, ainbat gizaseme jakintsu, bertoko ta erbestetar, ezezik, inguruko gotzai ta España'ko Errege Alfontso XIII'garrena berbera ere, egun eta ikasgaia aietan esku artu gabe etziran geratu. Euskal-galak onartu ta aztertu nai izan ziran bereziki. «Gizaarteko erakusle ta buru izan bear diran legien billa; gure enda sendotu ta indartuko duten erabatóen jarrai; euskera zarra bizkortu ta zabaldu nairik; gure edesti aztu ta illundua argiz ase naiz; erriz jan-

tzitako arri ta euriak arkitu ta aztertu, ta erti ori, ta mendietan ia illean zeuden eresiaz jantzitako erria nola erne ta loratu ditzakegun begira; orain baño aukera ta bide obez mutikotxo ta neskatxo euskaldunak azi ta ezitzeko gure ikastetxietan zein bide erabilli bear ditugun jakin nairik, eta beste gai asko ta asko aurreratu naiean, guziak ikutu, astindu, garbitu ta zerbaitean argitu ziran Oñati'ko batzar eder aietan» *{ídem}*.

Euskeraren arloan lan egin zutenak batez ere, Batzar orren iraunkortasuna opa zuten. Zortzi egun aietan orixe zan bizi-bizi zebillen kezka euskaltzede bizkor aien biotz-barne. Alkarte bat eraiki bear zan, euskera batu, jaso-azi ta indartuz gure kulturaren piakundea zidor zabal aukerakotik zuzenduko zuena. Lau euskal Aldundien laguntzaz etzan ori eziña izango. Eta Batzarreko sail bakoitzak, ain zuzen ere, bi bazkide izentaturik zeuzkan ortarako; baita pixkaka osotu zuten Alkarte edo Baltzua eratuko zuen Araudi antolatuta ere.

Batzar iraunkorra osotzeko mintzodun auek izendatu ziran; *Gizarte ta politika Jakintza* sailletik: Biktor Artola ta Santiago Kuntxillos; *Enda* sailletik: Tolesfor Arantzadi ta Enrike Egueren; *Izkuntza* sailletik: J. Urkixo ta Eleizalde'tar Koldobika; *Eítesfi*-sailletik: K. Etxegarai ta Juan Allende-Salazar; *Ertisaiüetik*: Anjel Apraiz eta Jose Orueta; *Irakaskintza'úk*: Eduardo Landeta ta J. Leonzio Urabaien; *Eusko-Ikaskuntza'úk*: Esteban Bilbao ta Xabier Gortázar. Gipuzkoa'ko Aldundiak Julian Elortza izendatu zuen bera ordezkatzeko, Bizkaikoak Kosme Elgezabal, Araba'koak Jose Maria Unda ta Naparokoak Juan Jose Juanmartiñena.

«Eusker-Ikaskuntza», ordea, 1918-12-22'an Gipuzkoako Aldun-etxean izan¹ zan batzarrean, pentzu ta abar, onela geratu zan: Alfontso XIII erregea, *Ohorezko Buruzagi*; Arturo Kampion, *deduzko Buruzagi*; Julian Elortza, *egiazko Buruzagi*; Julio Urkixo, *lenengo Buruzagiorde*; Pierre Broussain, *bigarren*

Buruzagiorde; Idazkari orokor, Anjel Apraiz; Idazkariorde, Gregorio Mujika; Diruzain: Leonzio Urabaien; Diruzain-orde; Biktor Artola; Mintzodun: gorago aitaturiko beste guztiak.

Alkarte onek arrezkero lan ixilla baizen onurakorra egin izan du euskal kulturaren alorrean; Gure arazoan sartuta zirkun dagien erakunde ta aldizkariak lagunduaz batez ere. Lenengo iru illabetetik bein, eta gero urtero lez, argitaratzen dan bere Boletín, gutun edo Oroipenak ditugu lekuko. Ortze datoz Iruña'n, Gernika,n eta abar egindako Batzar nagusiak; ortze **RIEV** (Nazio-tarteko Aldizkaria), «Euskal-Esmalea», «Euskalerriaren Alde», «Eusko-Folklore» ta besteai emandako laguntasuna; ortxe 1930'an, «Euskaltzaleak» bazkunaltin batera, Bergara'n ospatu zan Euskal-Egnaren albiste... Beronek prestatu zuen 1931'an, Lizarra'n, 485 eusko Udalek oneritzi ta 15.000 euskaldunen aurrean txalotua izan zan Eusko-Araudia.

Urteak zear, ainbat liburu ere argitalduak ditu, sortzean artutako asmoan jarraituz. Ona sailtxo bat: *Eusko-Abestiak* (Bilbao); *Aurakuntza-Irakastia* (Bilbao); *Xabiartxo* (Tolosa, 1925), umeai euskeraz irakurtzen erakustekoa, «Euskalerriaren Alde»-k 1923'an sariztatua; *Umearen Laguna* (Tolosa, 1931); *Txomin* Ikasle (**Donostia**), Iturriotz apalzarena, aurtxoai irakurtzen erakusteko lenengo idaztia; *Martin Txilibitu* (Tolosa, 1931); Iztueta'ren *Gipuzkoako Dantzak*, 1826 egiña bera berriz emana, ots, 52 lan, musika ta izki; *Irritsa* (**Donosti**, 1926), Sakhespeare'ren «Macbhet» T. Altzaga'k itzulia; *Zenbakiztirlengaien Ikastia* (Madrid-Barcelona), Bruño Idaztiak; *Lege Zarrara ta Lege Berria* (Madrid-Barcelona); *Linguae Vasconum Primitiae* (Tolosa, 1933), Etxepare'ren olerkiak, 1545'an egin zan argitalpenaren facsimila; eta abar, eta abar.

Bai, su-emalle azkarra nunbait. Errepublikak etorri aurretxoan, esaterako, egunkari berri bat sortu nairik zebiltzan, eta Eusko-Ikaskuntza orretan ari ziranai lagundu ta indar-ematen. Luzear'ek onela botatzen zien «Argia»-iren zutoin artetik: «Oraintxe izan 'gera Eiusko-Ikaskuntza)ko areto-marieto zabalean:

antxe ikusi ditugu aur motroko orren apaldinak. Ez dute iñongo egozketaren bildurrik: dirua noski parra parra ibilliko dute; ta dana dalako eguogari berri ori, euskaldun guziyoi etorriko zaigu, txokoatiaren zirnllak kokotzian bera dljoazkigun garai ber-bertan... Eusko-Ikasguntzako guziya, bañan etzazute, putz emanda, argirik itzali» (*Argia*, 1929, garagarillak 30, igandea, 1 orr.).

«POXPOLIN»

Umetxoentzako aldizkaria. Lenengo urtea (Tolosa, 1935), I. Lopez Mendizabal'enean.

«IGANDE ORRIA»

Donostia'n asi zan irtetzen 1935 'an. Gipuzkoa'ko «Jaungoiko Zate» bazkunak; lenengo urtea.

«E I B A R»

Eibar erriaren agerkaria. Leendik zetorren argitalduaz, baiña guda ostean, berriz asi zan 1956'an, bere bigarren aroan. Bertako jazoera, kondaira, gizaseme ospetsu, erlijio-tanta, izkirimiri, olerki ta abarrez gozatua. Pedro Zelaia jaunak urteetan zuzendu digu.

«EUSKAL-ESNALEA»

Tolosa'n izan zuen asiera, 1908'an. Eusebio Lopez'en irarokolan. Iibeltzaren 15'an lenengo zenbakia, I urtea, 4 orrialde.

Garai artan lanean ari ziran albistari ta paper guztiai «Agur bat» egin ondorean, au diño; «Zertara ote gatoz? Zertara ez ote gatoz? — Au jakin bear da; gure irakurleak naiko dute noski garbiro esatea, eta gogo ta gogoz esango diyegu aurreneko egunetik. Erakustera ote gatoz? — Ezin ukatu: daki-gun pixka bateri erakutsi nai genioke: ez arrokeriz, arrotzeko biderik ez degu-ta; ez besteak baño trebegoak geralako, gu baño trebego diran euskaldunak baitira. Ikastera ote gatoz? — Balta, balta ere! Asko ta asko da ez dakiguna. AI balitz guzia naiko gendake ikasi; bañan ikasi gentzakeana beintzat ikaste-ko eresi aundiz gaiez. Zerbait erakutsi lezakean edozein betor: naiz euskeraz, ta naiz erderaz (beti euska'l-gayez ordea) min-tza bedi, eta pozik entzungo zayo. Gizonak zerbait aurreratu bearrekoak urte t'egun guziyak ditu: oraintxen ere ikastetxera joango giñake: eta euskera ikastera balitz, zale ta gogo gei-goz». Ez da era patala agerkari bati asiera emateko: orregatik irauñ zuen ainbat urtetan.

Ba-ziran orduan ere, euskera iltzear aurkitu arren, beronen osasuna baiño aizea astindu bearrezko zerata naiago zutenak. Zertako nasketak? Zertako ukabilmakillak? Ez, areik etzuten auzirik opa. Izkuntzari buruzkoa izango da beren lana, itzen joskerari ere arretaz begiratuko diona. Zergatik? «Euskaldunak geyenak (agiyan guztiyak) osoro aztuta bizi geralako. Itz Danakaz asko ta askok egin dute lana; guk ere egin nai ganduke; bañan itzak itzekin jostez, nal ta nai ez aurrenetik beintzat, ge-yago egin bearke». Eta ondoren dakarkigute beren egin-asmo guztia, zeatz azalduta.

Onelaxe asi ta aurrera atera zan bi urtetan. Baiña eragoz-pen eta traba batzuk tarteko, bigarren urtearen ardirantza, ots, 1909-8-15'an agertu zan azkenengo zenbakia. Guztiz 20 zenbaki. Urrengo bi urteeran, au da, 1910'an era 191 l'an, 21 eta 22 zenbakiak noski, Irun'en atera zituzten, lenengoa bi orrikin eta bigarrena laukin. Lenengoak oar bat zekarren: «EUSKAL-ESNALEA, Dagonillean atera zan zenbakia izkutatzean, erzan

betiko izkutatu; indar geiago bildura geroago ateratzeko izkutatatu zan. Ari da indarrak inguratzen, eta berriz ikusiko degu sendo, bikain eta mardul etxerik etxe. Baña ortarako bear diran bide ugariak ibilli arte, ez gera isilik egongo. Noizik bein, eta aldizka, zeredo-zer lagunai esan bearra gertatzen danean, aterako da EUSKAL-ESNALEA zuen etxerontz». Argi ageri da emen il arteraifio zuzendu zuen Gregorio Muxika'ren esku bizkorra.

Lenengo urte bietan —1908-09— aueu idatzi zuten: A. Kanpion, ?. Orkaiztegi, Atarbe, Uretz, Albizuri'tar Serapin, Zamarripa, Bera'tar Erramon M., Azkue, K. Etxegarai, Jatornzale, R. Garibarri, Irisasi, Eleizalde'tar Koldobika —ementxe argitaratu zuen onek bere *Kisto'ren Antz Bidea'ttn* zati bat beintzat—, A. eta G'tar (Arriandiaga ta G. Imanol) —ementxe argitara zuen onek ere bere *Josu-Kisto'ren Antzerpena*, zati batzuk—, eta gaiñerakoak.

EUSKAL ESNALEA etzan aldizkari baten titulua baka-rrik, alkarte bat ere ba-zan. Eta alkarte anek 1910-12-2l'an ospatu zuan bere lenengo bilkura orokorra, Gipuzkoako Aldundiko areto zabalelaln. Batzarkide zuzenleak autatu ziran bertan. 1911'tik aurrera, beraz, auek izan ziran alkarte orren zuzen-dari: Buru, Artur Kanpion; Buru-orde, Silbester Muñagorri; bigarren Buru-ordeko, J. Urkixo; Idazkari, Gregorio Muxika; Diru-zal, Jose Eizagirre; bokdak, K. Etxegarai, Luis Eleizalde, Juan Bautista Larrera, Toribio Alzaga, Kasildo Zabala, Basilio Iralzoz eta Juan Karlos Gerra.

Aldizkari bezela ere 1911'an asi zan; ilbeltzaren lenen-gotik, bere bigarren aldian eta lenengo urtean. Zortzi orri eukiko zituen, euskeraz utsez. Lendabiziko agurrean, onela: «Egi-azko euskalduna; euskaltasuna biotz-biotzeraño sartuta daukatenai; Euskalerriaren alde lan egiteko beroak bear diranean berak eskeintzen dituztenai; gure erria goratzeko, gure izkera pizkortzeko nagitasunik eztutental, gutarral, agur, biotz-biotzetetik! Lagunak gera, irakurle... Zerana zerala, atoz. Gogoz

ta polzik luzatzen dizut nere eskua; zuk zeurea ctzeratu. Euskalduna naizelako ta euskalduna zeralako, jo bosteko ori, adiskidea!»

Olaxe oratu zioten lanari, ta olaxe jarraitu zuten aspertu barik 1931'rarte. G. Muxika, ain gogotsu lan egin zuena, il zanean, orduantxe itzali zan EUSKAL ESNALEA ere. Ogei urteko lan bikaiña! Ordézkorik? Baita! Or J. Ariztimuño. Itzaliaren ordeze, 1933'an osotu zuen onek «Yakintza» billetteroia, 1936'rarte iraun zuena.

Ogei urte aletan idazleok izan ziran EUSKAL ESNALEA-n geien bat agertu ziranak: Txomin Agirre, Juan Bautista Aierbe, Seber Altube, E. Arrese, Juan Barrenetxea, Aita Bera, G. Muxika, J. M. Etxeita, K. Etxegarai, Jose Elizondo, Ziriako Garralda, Jose. I. Garmendia, J. Intxausti, **R.** Intzagarai, Aita Ipolito, Basilio Iralzoz, B. Iraola, M. Landerretxe, J. M. Lertxundi, E. Muxika, P. A. Ormaetxea, Manuel Pikabsa, **Rafael** Ugalde, J. I. Uranga, J. Urkixo, P. M. Urruzuno, P. Zamarripa, Iñazia Pradere, Antonio Arruti, Aita Intza, E. B. Akorgagoitia, S. Arizmendi, I. M. Etxaide, I. Lopez-Mendizabal, Blas Pradere, J. M. Tolosa, J. E. Zulaika, T. Arantzadi, P. Aierbe, P. Orkaiztegi, J. Zinkunegi, F. Belaustegigoitia, **R.** M. Azkue, Aita Arriandiaga, Arbelaitz, J. Etxeberria, J. Eltzo-Azpiazu, J. Eizagirre, N. Ormaetxea, Aita Olabide, Txori-Txiki, E. Urroz, T. Altzaga, J. Karrera, **Balentin Duralde**, L. Arregi, J. Arregi, J. Ezenarro, Luis Jauregi, M. Ibarbia, A. M. Labaien, Eugenio Larañaga, M. Lekuona, M. Madariaga, J. M. Mokoroa, K. Sagartzazu, Aita Soloeita, A. Zugastí, G. Bahr, J. Elortza, L. Guridi, M. Soroa, A. Anabitarte, G. Aladaba, J. Iruretagoiena, T. Larrea, K. Onaindia, M. **Rekondo**, P. Belaustegi, J. Aseginolaza, Gartzia Golderaz, M. Trueba, A. M. Zabala, G. Zabaleta, E. Furundarena, G. Lakonbe, E. Muxika, T. Arburu, P. Alberdi, J. Almandoz, M. Angiozar, T. Garbizu, **Ruiz** Erzilla, Z. Zabala, B. Amezaga, J. A. Arratibel, J. Arana, Bilbo'tar G., J. Gar-

bizu, A. Tapia, M. Unzalu, Aita Urban Manzisidor, Aita Kermeilda Manzisidor, Yurre'tar Julen, A. Telleria, Aita Lontzi, D. Martiarena, Blas Alegría, L. Aristizabal, N. Etxaniz, M. Intxaurre, P. Urkia, Urtsuya, E. Argarate, T. Elduaen, K. Enbeita, J. M. R. Eskalera Maldagan, J. Karrasked&-01arra, F. J. Landa buru, Larreko, Rufina Azkue, J. Garaialde, X. Lizardi, M. Oiartzabal, P. Mokoroa, Elurmendi, O. Apraiz, S. Onaindia, A. Arozena, P. Aranzabal, Rita Errezola, J. M. Irure, I. Garate, R. Kerexeta, Daniel Garbizu...

!

..3E i

«EGUNDIYA».—EUSKAL ESNALEA, alkarte zanez, laster asi zan liburuxkak atera, txapelketak eratu ta itzaldiak antolatzen. Urteak joan urteak etorri, idazti politak azaldu zitun batez ere, egutegi txanbelin bat, «Egundiya» (Tolosa,1909), zeritzaiona. Euskal Esnalea aldizkariaren lí'garren zenbaki ta 156 orrialdean, 1908'ko azaroan, onela dirakurgu: «Polita eta guztiz ederki ta txukun egiña omen da. Etxean dan tokirik ederrenean eta argiyanian zintzilika j artzeko egokiya. Asi urteberritik eta urte zarreraño euskeraz idatziya. Itzneurtuz, kontuz, igarkizunez oarkeraz ta esaera zarrez betia. Barabak, bijlüyak, ilberriyak, eguzkiyaren sartuaterak eta gañerako gauzak noiz diran jartzen ditubena. Euskaldun batek ere ez luke gelditu bear egundi au erosi gabe».

«Esku-Egundiya» (Irun, 1910), Valverde'ren etxean «Euskal-Esnalea»-ren eginduz argitaldua. 103 orrialde dauzka. Ederederra dugu Egutegi au, lenago Arana-Goiri'k egiñiko «Lenengo Egutegi Bizkaitarra, 1898» ormarakoaren antzerakoa ta Donosti'ko «Argia»-k geroago urteetan atera zuen bezelakoa.

Euskal literaturako bitxia au ere; egutegia' osatzerakoan esku artu edo-ta lanak bialdu zituztenen izenak jakitea. Ona lenengotik azkenera: Gregorio Mujika, Etxeita'tar Jose Manuel, Petra Belaustegi, Olaizola'tar Joseba, María O. Artiñano, Domingo Agirre, Jose B. Landa, Gaskue'tar Prantxisku, Bizente Monzón, Ramon Inzagarral, Eleizalde'tar Koldobika, Juan

Olazabal, Martin Landerretxe, Errenderi'tar Erraimunda A., Arturo Kanpion, Azkue'tar Dionisi, Alfredo Lalfitte eta Obineta, Ebaristo Txurruka, Urkixo-ko Julio, «Gipuzkoarra»-ren Zuzendaria, F. Lopez-Alen (Mendiz-Mendi), Ignazio K. Nuñez-Arizmendi, Etxegarai-ko Karmelo, Amonarriz'tar Andres, Ziaurritz'tar Doroteo, Telesforo Arantzadi, Kalasan-tar Lertxundi Aba, Iriondo'tar Toribio, Zabala'tar Kasildo, Kandido Olaskoaga, Bustintza'tar Ebaista, Azkue Abadea, Paulo Zamarripa ta üraga, Arantzadi-Etxeberria'tar Ingartzi, Eizagirre'tar Jose, Ramon Geibenzu, Bera'tar Erroman Mirena Aba, Irastorza-ko Jabier, Arrese-tar Emeterio, Gandasegi-ko Remijio, Aitube-tar Seber, P. M. Urruzuno, Amunarriz Apaiza, Jose Ganboa, Azkoitia'tar Ignazio Aita, Mujika-ko Serapio, Orkaiztegi-ko Patrizio Antonio, Rafael Pikabea, Juan Ignazio Urangea, irairoz-tar Basilio, Erraztitar J., Lopez-Mendizabal'dar Isaka, Arriandiaga'tar Imanol, Pepe Artola, Bonifazio Etxegarai, Balbino Garita-Onandia, Mujika'tar Tomas, eta beste batzuk.

ELERTI-BATZALDIAK.—Alkartea sortu zanetik, bere xedea orixe Dait zan, idazti, ipuin, olerki, itzulpen eta abarren batzardiak ospatzen asi ziran gizaseme adoretzu aiek; 1909'garrenean bertan eratu ta ospatu zuten lendabiziko batzddia, ipuin batzaldia nunbait. Gregorio Muxika'k eramane zuen lensaria, «Lorak eta Ogia» ipuiñarekin; J. M. Etxeita'k bigarrena, bere «Mari-Jesus ta Iru Artzañak»-atik- lendabiziko alde>-ra, bigarrena ta irugarrena, ordea, Petra Belaustegi'ren «Ametza»-k, Olaizola'tar Josebaren «Iziartxo edo Amarzerutarra'ren Eskerra»-k eta Maria O. Artiñano'ren «Ezin Aztu...!»-k jaso zituzten. Txomin Agirre, Bustintza'tar Ebaista ta A. Kanpion izan ziran epai-malko.

Ondoren ere, urterik urte, konta-ezin ala literatura batzaldi iragarri ta ospatu zituen «Euskal Esnalea»-k, gaur bakarrik eta biar «Euskalerraren Alde»<ekin batean.

ITZALDIAK.—Gizasemeok berez joten ei dugu lo[^]orrora: eder zaigu zer aundirik egin gabe, bizitza guri, zaloi ta limn[^]—koia eramatea. Bearrezko dugu, beraz, zerbait egiteko, noizik beiñeko eztenkadaren ziztada ustekabezkoa. Ortarako i[^]an ói dira geien-geienik naiko pozik artu ta entzuten solasaldiak-ortarako izan oi ziran baita EUSKAL ESNALEA-k srarai baten ia urtero eratzen zituanak ere. Amar bat urtean beintzat, asid ederrak antola zituen, eta liburuxketan argitaldu. S[^]í sai' ezagutzen dira, *Itzaldiak* tituluarekin. Ogetasei mintzaidi daude eurotan. Ona:

1) *Lenengo sailla*. Bost itzaldi daude: Mikel Urreta'ren «Edesti-aurrea. Leize>zu|loak»; Rafael Lairuribe'ren «"Ruskal-erriarentzat iru kalte»; Bonifazio Etxegarai'ren «Euskaldunak, euskeraz»; Biktor Garitaonandia'ren «Usandizaga. Bere bizitza¹ ta eres-egikuntz'a»; Jose Zinkunegi'ren «Eusko-abenda. Bere sendotasunalen, orain eta gero». 1920. 196 orrialde.

2) *Bigarren sailla*. Zazpi itzaldi dauzka: A. Jose. Ant. Doností'ren «Euskalduna, abeslari», Iñaki Artetxe'ren «Gure gaitzak»; R. M. Azkue'ren «Domingo Agirre, beretergo[^]n»; K. Etxegarai'ren «Agirre, olerkari»; Pierre Lhande'ren «Agirre, irakurgaikiña»; Antonio Paguaga'ren «Iparragirre: bere bizitza»; K. Etxegarai'ren «Euskalerriko itxas-gizonak. 1923. 184 orrialde.

3) *Iruugarren sailla*- Bost itzaldi; Jesus Leizaola'ren «Yar kintzarako gaitasuna»; J. M. Barandiaran'en «Eusko Mito[^]lojia»; Jose Maria Olaizola'ren «Bizente Goikoetxea», bi itzaldi; Juan Karlos Gerra'ren «Gure olerki zar-zarrak». 1924. 142 orrialde.

4) *Laugarren sailla*. Lau itzaldi: Agustin Anabitarte'ren «Antziñako olinpiar jolasak»; Polikarpo Larrañaga'ren «Arraie», bi itzaldi; Julia Femandes Zabaletarren «Emakumien etorkizuna». 1926. 167 orrialde.

5) *Botsagerren sailla*. Bost itzaldi dakarzki; Jose Olaizo>laren «Txistu ta txistulariak»; Jose Zinkunegi'ren «Kiroлак,

ongille ala kaltegarri?»; Justomari Mokoroa'ren «Euskeraren etorkizuna»; Iñaki Artetxe'ren «Sendakintza gizaldietan zear»; B. J. Larrakoetxea'ren «Gorbeieko gatzagintzea». 1928. 162 orrialde.

6) *Seigarren saila*. Lau itzaldi: Mikel Urreta'ren «Olio ta ollotegiak»; Frantzisko Muro'ren «Erestelkin edo fonografoaren berrogei ta amargarren urtebetea»; Iñazio Etxaide'ren «Telefonearen sortze ta aurrerapen»»; Nikolas Ormaetxea'ren «Oraindlañokj euskal-neurtizak». 1930. 168 orrialde.' Arira datorkigu emen laterazko esaera au: «Vita brevis ars longa», gizonak il arren, erti-lanak luze irauten.

1931'an ere, iru itzaldi egin ziran «Novedades» aretoan. Lenengoa apirillaren 19'an, Jose María Lojendio legegizonak errian zuen; gala: *Euskal-bakaldun bat: Iturbide ta Aranburu'tar Agustin, Mexiko'ko lenengoa*. 1783-1824. Bigarrena, apirillaren 26'an, Iñazio Maria Barriola osagilleak; gala: *Erri-sendakintza efsukáldunen artean*. Eta irugarrena, maiatzaren 3'an, Gillermo Lizaso'k; gaia: *Danbolintero ta txistulariak*.

ANTZERKI-LANAK.—Joandako gizaldiaren amairantza eta gu-rearen lenengo iru amarkostan batez ere, zabal bezin gartsu zebillen beiñola Peñafiorida'ko kondeak biztu-azi zuen antzerki-zuzia. Zuzi orriugarria eskeintzen Euskal Esnaleak egin zigunga, etzan ziarri makala izan: bazkun orrek, ainbat antzerkian bere pekoan argitaldu ta euskal erri osoan zabalazi izan ditu. Ona auek:

Iñazio K. Nuñez-Arizmendi'ren «Porru salda», bakar-izketa; I. K. Nuñez-Arizmendi'ren «Joxe-Ebaisto», bakar-izketa; A. Amundarain'en «Bertan goxo®», eresidun jostirudia; Alfonso Mari Zabalaren «Jauregi-errotako astoa», bakar-izketa, «Urruti-izketa», atal bateko antzerkia ta gizonezkoak bakarrik egitekoa, «Melitona'ren bi senarrak», atal bateko ta gizonentzako antzerkia, ta «Periyaren zalapartak», antzerti irrisua; A. Larraltz'en «Mendibe'tarren larriyak», atal batekoa, ta gizonez-

koentzat; Deñoka'tar Goserio'ren «Utzi bearko!», gizezkoentzat, atal batean, «Neskame berria», atal batekoa, emakumezkoentzat, eta «Gizon bikañak», gizezkoentzat, atal batean; Toribio Larrea'ren «Tripa-Zorria», atal batekoa ta gizezkoentzat; A. Larraitz'en «Morroi jatorra», atal batekoa, ta gizezkoentzat; J. Iruretagoieoa'ren «Gau-ostatua», atal batekoa, ta gizonenkoentzat; Manuel Rekondo'ren «Gizatxarra», atal batekoa ta emakumezkoentzat, eta «Trapu-biltzall°a». emakumeentzat bakarrik; Etxeberria-Tolosa'tar J. P.-ren «Urdinburu'ko Bitor»,bakar-izketa; Toribio Altzaga'ren «Ezer ez ta festa», jostirudia, «Txibiribiri», antzerki irritsua, «Bernaiño'ren larriyak», antzerki irritsua, «Amantx», bi ataldun antzerkia, eta «Biozberak», ekitaldi bakarreko irri-antzerkia; Iruretagoiena'tar Jcm'en «Atso poxpoliña», bakar-izketa; Arozena'tar Andoni'ren «Txilibitu», mutil-bakarrizketa, eta abar. Lenengo irurak izan ezik, beste guztiak «Izarra» bilduman daudenak dira.

LIBURUXKAK.—Ontan ere ezta urri ibilli. Ainbat ditu bsre idaztategian: Bilintx'en «Neurtitzak eta neurri gabeko itzak» (Donostia, 1911), K. Etxegarai'ren itzaurrearekin, 104 orrialde; Bizenta Mogel'en «Ipui onak» (Donosti, 1912), Txomin Agirre'ren itzaurrez; 130 orrialde; Agustin P. Iturriaga'ren «Jolasak» (Donosti, 1914), G. Muxika'ren sarrerddn, 215 orrialde; «Ziñistuten det Jaungoikoa'gan —Urikoa— Jon-uso» (Donostia, 1915), A. Trueba'ren ipuiñak J. M. Etxeita'k eta N. Larrea'k euskeraz ipuiñita, K. Etxegarai'ren itzaurreakin; 190 orrialde; J. B. Dasknagerre'ren «AtheKa-Gaitzeko oiartzunak» (Donostia, 1919), nobela berriz agitaratua.

Eta beste txikiago auek: «Lukainka» (1913), Arruti'tar Andoni Aitaren ipuiña, eta «Ola-gizona» (1913), olerkia; «Zarauzko erriya» (1912), Florenzio Aspe'rena; «Segurako eliz-nagusaren berri azalgarriak», (1912), eta «Alperrikako damua» (1912), Juan Bautista Aierbe'k egiñak; Liborio Azpiazu'ren «Zarauz'ko Euskal-jaletan egin zuan eliz-itzaldia» (1912); Jose

Elizondo'ren «Endo» (1911) ta «Larrosa ta Lauziri» (1913); Bera'tar Erroman Abaren «Aitz-gorrik Euskalerrria'n» (1911), olerkia; Jose Iñazio Garmendia'ren «Segurako euskeraren itxura berezia» (1911); R. Intzagarai'ren «Aizkorri» (1911), olerkia; Pierre Lhande'ren «Gure orma zarra» (1915); E. Muxika'ren «Umiak nigan betoz» eta «Mendiko pakea» (1913); Ignazia Padrere ta Arruti'ren «Zarauz eta bere kondaira» eta «Gipuzkoaren kondairarako Gorosabel'tar Pablo jaunak artu zituben nekeak» (1913); Juan Maria Ugarte'ren «Aitz-gorri» (1911), olerkia; Juan Bautista Larreta'ren «Zer ote gera gu?» (1915), 1915'an Oiartzun'en ospatu ziran euskal jaietan egiñiko itzaldia.

* * *

Ixilki izanik ere, arlo jakiñean lanari gogotsu emana bizi d'n gizaseme bat eriotzak bat-batez erditik kentzen digunean, aus-tuak gelditu oi gara. Olaxe gertatu ziran «Euskal Esnalekoak» ere G. Muxika itzali zitzaienean. Il-otoitzak Donostiako Iñaki Deunaren elizan egin ondoren, laster alkartu ziran. Beingoan, lanari jaraituz, batzaldi bat iragartzeko asmoa artu zuten, idaz-leen artean santiak eta gaiak iragarritz. Gaiak euek noski; a) «Gregorio Mujika, idazle»; b) «Gregorio Mujika, izlari» ta d) «Gregorio Mujika, idaztilari».

Itzaldiai buruz, au idazten zuten: «Udazkeneko gure itzal-di edo konferenzik kimatu nairik gabiltz. Ez dogu oralñarteño iñor begiz-jo itzaldi abetarako. Gertatu zaigun gure zuzendari maitearen eriyotzagatik, zenbaiteren aldakuntza izango dutela, siñisturik gaude. Nola nai ere, *Euskal-Esnalea*'k ezin utzi lezake egite auxe. Euskerari, itzaldi oyek eman oi diyoten onura, be-gien aurrean dago; ta aurrerantzerako ere, etzaigu almenik itxi-gortako, Jaungoikoa lagun» (*Euskal-Esnalea*, 1931-uztailla, 331' g. zenbakia, 126 orr.).

«GIPUZKOARRA»

Donostia'n agertzen zan abertzale asterokoa. 1907-5-18'an asi ta 1913'raiño lenengo', ta gero, urte mordoa ixillik eman ondoren, 1931-4'tik gerra egunetaraiño iraun zuen. Bi aroetan lan ederra ziñez aberri-auziaren alde burutu zuena. «Jaun-Goikoa eta Lege-Zarra» zuen ikurratz, Arana-Goiri'ren irakatsiari osorik lotua. Embeltran kalean, 11'an, bigarren oiñean zeukan bere idazkola ta banakla. Zuzendari: Santiago Meabe Bilbao.

Bostgarren urtea betetzean, 175'g. zenbakian onela zioan: «Urteoro bezela 1910 bukatzian Alderdi abertzaliak bere garaipenen artian zer jarri asko dauka. Guziak zenbatzera enua, lan luzegia izango litzake-ta; aundiyenak bakarrik gogoratuko ditut». Eta euskal-izenak zirala-ta, Gazteiz'ko Gotzaiak egiñiko artzai-idazkia aitatzen du, euskaldunen kaltez egiña noski, baiña jarraian diño: «Gure eskubidea ezagutuaz, **Doipuruak** gure semeai euzkel-izenak ezartzeko baimena eman zigun». Bigarren garaipena abertzaleak Lourdes'era egin zuten osterea zan: orduko izparringiak, «La Constancia»-k eta «El Correo de Guipúzcoa»-k batez ere, katolikutasuna akatu egin zioten abertzaleai, itz gaiztoz ta iraiñez iñundiko zaparrada lepotaturik. Oriñaitik, 1910'ko uztaillean peregrinazio larri bat eratu zuten Lourdes'era. Berri-emailleak onan: «Ainbeste aneika abertzaleak antxen erakutsi zuten katoliko ziran edo ez. Ez degu oraindik ikusi beste alako gauza ederrik».

1911'garren urtea, ordea, noiakoa izango ote? Osiñondo'k: «Alderdi abertzaiia lengua d'a, bere azkena kistera zuzen dijua, eta au iritxi arte ez du atsedengo; Euzkadi bere eskubiden jabe ikusi arte jarraituko dio ekindako lanari, beraz bai ditxarokegu urte berri onetan ere gure alderdiya etsaiak garatuaz dijuakiala. Garalpen oyek zer izango diran ez desakegu, eztakigu-ta».

Zintzo ateratzen zan larunbatero, **Raimundo** Altuna'ren irarkolatik. Lau orrialde luze-zabal zeuzkan, euskera ta erderaz. **Bost-sei** abetxo zekartzin euskeraz, igandeko **Berri Ona**, aste-

rako egutegia, lan sakonak, erretako berriak, ipui, olerki, gazi-gezak, izldrimiriak eta abar. Joskera oneko euskera zerabilten geienik. «Jel-Alde», —idazle ona ta ugaria—, «Ixilkor» «Kizkitza» —Arantzadi'ter Engartzi—, «Azkain», —Eleizalde'tar Koldobika—, Euzkeltzale», «Urki», «Azardun», «Egizale», Artur Kanpion, «Garbizale», «J. G.», Altube'tar Seber, «Besozabal», «Ezpei», «Gizaxo bat», eta besteak ziran idazle. Txit irakurgarriak dira, gaur ere, bertan datozen lanak.

«EUSKO IKASKUNTZAREN DEIA»

Donostia'n azaltzen zan 1919'tik 1936'rrarte. Erderaz: «Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos». Bibliografi-sailla.

«OYARTZUNGO ELIZ-ORRIYA»

1926'an etera zan lenengo orria, San Pedro egunean, Donosti'ko Iñaki Deunaren irarkolan.

«EUSKALERRIAREN ALDE»

Euskal kulturaz duinki arduratu zan aldizkarla. Au ta «Euskal Esnalea» Gipuzkoa'ko Aldundiak argitarazi zituen, bat euskeraz ta bestea erderaz, gure kulturari indar ematea gogotan zualark. Donostia'n atera zan, 1911-1931. Zuzendari: Gregorio Muxika. Au il zanean, biak mututu zitzaizkigun.

19i8'an il zan «Euskal-Bnria», bere eginbearra bete ondoren. Urte batzuk lenago, kimu berri lez jaiki zan «Euskalerriren Alde». Aldizkari au eskeinka zetozen lau gizon, euskal so-roan jakintsuak: Artur Kanpion, J. Urkixo, Txomin Agirre ta K. Etxegarai. «Itzal aundiko izenak lauak, diño J. Aitzol'ek,

euskal yakintza gai berezkan. Edesti, elerti ta elerkatzeak batez ere, langille zintzo ta maitaleak zituzten berofék». G. Muxika'ri eman zioten artezkaritza, ogei urtean onek zintzo ta maisuki eraman zuena. Bigarren euskal pizkundeko agerkaria izan genduen.

Zer asmok arnaskatzen otezuen? J. M. Bairandiaran'ek ederki, aitatu aldizkari bioi buruz; «Euskal ezikera ikasi, berotu eta indartu: auxe zan beren egitekoa. Asmo ortan, euskal ikas-kuntzai buruz, an-emen edaturik zebiltzan gogoeta eta eritziak azaltzen saiatu zan; baita ikaskunde askoi beren agerbidea ematen ere eta urdurarre egindako aurrerapenen ezaguera eskaintzen eta azterteka berriak kilikatzen. Aldizkari auen buruzpidea, azterketak euskal-galetan eraikitzea... Beren lanbidea gure giza-lutelesti, antropologi, arkeologi, kondaira erri linguistikaren arloetan zegon zundua. Lanbide ortan neurritz eta zuzen, aldekeri gabe, ibiltzea: auxe zan, leenengotik, aldizkarien sortzailleak adierazi zutenez, beren asmo ta egitaniau» (*Euskalerrriaren Alde*, Bilbao, 1974, itzaurrean).

Sortzailleekin batera, auek izan ziran lankiderik jarraikoenak: S. Muxika, B. Etxegarai, J. Altadill, T. Arantzadi, J. B. Aierbe, R. M. Azkue, J. M. Barandiaran, J. A. Donostia, J. Garate, O. Apraiz, D. Arfeitio, J. Arana, G. Etxebarria, J. Etalo, F. Gaskue, J. K. Gerra, J. Irizar, J. Iturrioz, **R.** Izagirre, **R.** Berraondo, F. Arozena, E. Eguren, A. Huarte, S. Ispizua, E. Eskarzaga, J. Izarra, G. Lakonbe, B. Lalfitte, F. J. Landaburu, P. Lhande, J. Larrea, M. Lekuona, A. Mendiola, E. Munarriz, J. **R.** Larinaga, N. Ormaetxea, N. Otaño, P. M. Soraluze, **R.** Sota, E. Urroz, J. Vinson, E. Urrutia, J. Zalba, W. Webster. F. Mendoza, J. Zufiria, eta besteak.

J. M. Barandiaran'ek gaiñeratzen digu; «Zoritxarrez ordea, 1931 go Uztaillean, ekintza ikusgarri aren zuzendari eta eraentzale bere aldi guztian izan genduen Mujika (Gregorio) jauna il zitzaigun eta bereala *Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal Esnalea* ixildu». Or gelditzen ziran, ala ere, bien lan ederrak; ez dira

gutxi biak, ark erderaz ta onek euskeraz argitara zituzten idazti mardul eta liburuxkak. Euskeraren alde osotu zuten lana, bikaña bene-benetan: «Euskalerrriaren Alde»-k, 1917-1930, berderatzi literatur batzaldi ospatu zituen, era askotako batzaldiak ospatu ere: elerti, edesti, olerki, ipuin, itzulpen, nekazaritza, euskal jaiak, eleizakoak... Jakingarria benetan aldizkariak lenengo ogei urteetan argitaratu ta azkenengo zenbakian (1930) datorren idazleen eta galen aurkibidea.

« A R G I A »

Asterokoa, Anbrosio Zatarain'ek bultz-eraginda, apaiz talde gazte batek sortua, euskal erri osoan mesede izugarria egin zuena. Euskaldunen albistaria noski. 1921-4-24'an atera zan lanbiziko zenbakia, Donostia'n, Garibai kalean, 28'an. Bitor Garita-Onandia zaldibartar apaiza, zuzendari 1929'rarte; au il zanean, P. Etxeberria, Jose Arrue, Anbrosio Zatarain eta «Luzear»'ek zuzendu zuten, urrenez urren. Euskeraz zetorren os[^]-osorik. eta edozein etxetan irakurtzen zuten: gai sakonak, edüio. kirol, ipui ta aleglak, olerki ta bertsoak, nefczari-adoak, ernetako izparrak. .. 1936'raino iraun zuen orrelaxe.

Sortu aurretik sortzailleak berak, zabalkunde orri ly+^f*-^m-azaltzen zuen zertarako ta zergatik zetorren *argi* berri au. ,*^{T7}^m-kalerriko semeak, batez ere, baserritakoak —zioan—, ez dute beste errietakoak bezela, bear-bearrezko gauza asko ikasteko biderik: ta ez dute, ematen etzaydako. Gaur-egunlan, iñoiz baño geyago idazten da, jakintza geyago azaltzen da, ta inguru guzietako gora-bera ta berriak ugariz agertzen dira, bai egunero ta bai aldizkingietan; baña erderaz, ta euskalerriko seme askok ez dute euskera baizik; beraz, bear-bearreko jakintzak eza-gutzeko aukera gabe arkitzen dira. Badira eusketrazkoak ere; gutxi ordea, ta onak izan arren, euskaldunen gogoia betetzeko

aiña ez diranak. Oarturik bada, utsgune au bete-bearrian arkitzen gerala, guzia euskeraz idatziko dan asteroko izparringi edo periodiko bat zabaltzeko asmoa artu degu...».

Asteroko onen egikizun eta arazoak dakarzki gero. «Auek izango dira azal-gaiak: 1.^a Deun edo Santuen asteroko izendegia; Eliz-jai, barau ta beste gertakizunak iragarriaz. 2.^a Igan-deetako Goizpar edo Ebanjeliyoa; ta bere atzaipena. 3.^a Euskel-lerriko berriak. 4.^a Inguru guzietako gertaerak. 5.^a Lugintza-gaiak. 6.^a Azoka ta perietako gora-berak. 7.^a Euskera erduis-bidea. 8.^a Euskerazko idazti berrien atzaipena. 9.^a Galdsrantzuna. 10.^a Ipui, izkirimiri ta abar».

Orduko agerkariak txaloka artu zuten. «Jesus'en Biotzaren Deya»k onela zemaion bere diosala: «Txalotu ditzagun *Argia-ren* sortzaile pixkor ta kementsuak; egikizun onurakorra ta eliz ta euskelkoa eskuetan daramate-ta. Bijoakie ba gure txalo bero beroa; ta betorzkigu len baño len argi berri onen izpiak. Gutxi al-degu, baño d-deguna berentzako da» (1921, jorrailla, 114 orr.).

1929-1-6'an, bere 402'garren zenbaikian, bederaitzigarren urtea asteen, au zion: «Urte berri on bat opa diye bere mai-teak, ta zapata berriyak laxter urratzeko doai neurri gabea».

Garai ortan auek idazten zuten geienetan: «Luzear», «Endo-ya», «Illaraga», «Garbi», «Luistar», «Odieta», «Qrmalda», «Maruri'tar Erramun», «Ernalzu», «Zubigar», «Basagoiti», «Ii-zardi», «Ernika», «Itxas-aurre», «Erauskin Errotari», «I. Lar-rakoetxea», «Olanburu», «Onbide», «Zubiaga'tar M. M.», «Jeme», «Patxo Maiota», «Irañeta-Ezkurdia», «Mendi-Lauta», «Batiz'tar Bingen», «Arrese'tar Emeteri», «Otarra», «J. Zubi-mendi», «Gazteluzar», «Iruzubi», «Mendi-xuri», «Larreko», «Garbiñe», «Uzturre», «Elurmendi», «Aitondo», «Sasoi», «Za-pel», «Zugaitz», «Abaraska», ta abar.

«JÚNIOR»

Donostia'n azaldu zan, 1919'tik aurrera. Euskaldun Luis-tarren aldizkaria zan, euskeraz eta erderaz. Luma ospetsuak ere idatzi zuten donostiar gazteen ilieroko ontan.

« K A I K U »

Donostia'n agertzen zan asterokoa, 1921'tik aurrera.

«EUZKOTARRA»

1921'an asi zan irtetzen. Bilbao'ko gazteen aldizkari «Euzko-Deya»-k onela: «Or zebiltzan gipuzkoar abertzaleak beren iritziak zabal-azteko aldizkaria bear zutela-ta. Lenengo «Azkatasuna» nai zuten; gero «Euzkotarra». Zorionak aneika» (1921, 96 orr.).

« A G E R E »

1925an asita, **Donostia'n** agertzen zan ilieroko aldizkaria.

«ARGIA»-REN EGUTEGIA

Ona Egutegi eder bat, txukun-txukun argitaratua ta Euskal-erriak gogoz irakurria. «Argia» asterokoak ateraten zuen 1922'tik gerrararte; amabost urtean. **Donostia'n**, Iñaki **Dauna**-ren irarkolan. Bigarren urtekoak 123 orrialde ta iragarkiak zekarzkin, «Txiki»-ren marrakiz edertuta, irudiz ta edergalluz jantzirik, eundaka lan jakingarriz ornitua.

Bigarren urtekoak irakurleei onela: «**ARGIA**, aurreko urtean agertutako asmoai buruz, euskaldunen onerako eta euskaldunei zerbait laguntzarren, lan eta lan, gogatsu jarraiturik, eta urtetik urtera bere lanak osatu ta obeagoturik, aurrera dioja. Astero-koaz gañera buruan generabilzkien egikizun batzuek, onuratsu ta bear-bearretakoak, beteak dira. *Eliz-libum* apain, berezi ta txukuna, eta *Eliz-abetesú* goxo, polit eta ederrak, badituzure. Beste asmo ta langai asko ere, gogozko ta onuratsuak benetan, baditugu: epea bear ordea, guziei bide-emateko. Gaur, 1923' garren urterako *Egutegi* au eskeintzen dizutegu. Joan dan urtekoa, **ARGIA**'k lenengo aldiz egiña, euskaldun guziak atsegiñez artu zuten... Gure anal maiteak **ARGI** A'ren lenengo *Egutegia*'ñ egin dioten abegi gogatsu orreri nola erantzun? —Bigarra lenengoa baño osoago, apain ta ederkiago egin eta ugariki zabalduaz».

Laugarren urtekoak au: «Itsumustu ta zabuka bada ere... aurrera goaz. Gure etorkizun eta elburua Jainkoaren eskuetan utziak ditugu, eta ekaltz-laño beltzak mendi tontorretan eta olatu asarreak itxas- gañean ikusi arren, lasai euskerarenganako maitasunez adoretu ta Jainkoaren baitara makurturik, aurrera beti. Aurten eskeintzen dizugun urteroko euskel-bazkaria, elikatura goxo ta ugariz ongarritua dezu: gorputz eta animaren alde gogozko zaizkizun gai asko ta asko dakarzkizu».

Amabostgarren urtekoak, onela: «**ARGIA**'ren *Egutegiak* bere amabostgarren urte ontan agur dagie irakurle guziei Urte Berri zoriontsu bat opa diela». Eta illabete bakoitzeko egun, Deun, eliz-gai-oar, baserri-lan, barazki, igali, loretegi ta abarrez gañera, erri-kanta, edesti-atal, esaera zar, bertso, olerki, ipuin, irakurgai ta olako interesgarri askoz beterik zetorren.

Auenak ziran geien bat lan oiek; E. Mujika, Larreko, Arrieta sendalaria, Jeme (Muxika'tar Gregorio), N. Ormaetxea, Garbi, Erreta, Lizarrazpi, Larramendi, E. Arrese, Luzear, Urtsuya, Teñe, Zarzalde, Mendizabal'dar Gaspar, Elustando'tar Franzisko, Elosu-Mendi, E. Ayanbe, Zubiaga, Kirikiño, Jnugeri'tar

Luis, I Erdoizta-Mendi, Emika, Markiegi'tar Peli, Garbi, Mendizale, Endoya, Ipurta;rgi, Lizardi, Baxerri, Zera, Urregarai, Olaburu, Sagartzazu'tar Kauldi, J.'tar Txomin, M. Lekuona, Zeleta, Elurmendi, Emaizu, Zubiaga'tar M. M., Urizar Joseba, Etxebarria'tar P., A-bi, Enbeita' tar Kepa, Irular, Lauaxeta, Basarri, Arduñbe, Pere Artola, Lontzi Aba, Zugasti'tar Aniketa, Luistar, Batiz'tar Bingen (Barbin), Oyan-Alde, Arizondo, Usrrea, Manezaundi, Enara, Sabiaga,T. Garbizu, Eüzondo'tac Jose, Zubieta, Karraskedo-Olarra, Ibargutxi, G. Manterola, Utsa, Amonatxo, Endaitz, Onantza, Urbil Abeletxe, Zurizai, Bonipagi Aita, Kai-Alde, Andoni, Lotsati, Atarka, ta abar.

«BERTSOLARIYA»

Errenderi'n azaldu zan, 1932'ko agorrillaren 20'tik 1932'ko agorrillaren 25'ra bitartean. Asterokoa. 54 zenbaki, 8 orrialde bakoitzak. Makatzaga'ren irarkolan, Biteri kalean, 32'garrean.

Ez zebiltzan oker asteroko au ondu nai zutenak. Bertsolari ta bertsolari antzeko askok eskatzen zituzten bertso zar eta berrik, irakurri ta kantatzeko noski. Ba-zan, bada, naia ta go-goia bertsoetarako, baiña etzan «xamur lengo bertso zar eder ayek» billatzea. Beraz, xede au zuten: bertsorik ederrenak bildu ta pixkaka pixkaka liburu bikain bat egin; zar eta berriz urte betean zerbait egingo. Lau orrialde eukiko ditu aldizkariak: «Aurreneko orriyak bertso berriyak, eta beste bi bertso zarrak, asko aztuta txokoan dauden Xabalategi, Pernando, Udarregi, Xorrola, Ardotx, Xenpelar, Larraburu, Lertxundi, Pello-Errota, Txillas, Lexoti, Bordondo, Bilintx, Anton Ixkiña, Otaño, Mendiage, eta beste geyagorenak». Ikus nere «Euskal Literatura»-n, IV'garren alean, 267 orrialdean idatzi nuena.

«ANTZERTI»

Euskaldunok, nik uste, antzerki zale gara. Ikusi ta entzuteko eskeintzen digutenak gatz-piperrik baldin ba'du, gaurko zinema ta telebista saioerara baiño pozago urbildu oi da gure jende zentzunduna. Or bait dago gure filosofi ta jakituria, gure oldarte, antze ta izatearen erakusmena; ao-zuri ta eleder-zaleentzat ere, makiña ateraldi biurkoi ta disditsu. Antzerki-lana, ez diñot, gure griñari bazka ernateko beste zabaldu danik; baiña oraiñarte egiña dugun osoa jaso, sailkatu ta irarri ezkeru, anitz liburu ondo mardulak osotzeko lain ba-da ziur asko.

Euskal antzeirikarieta lcratzerik bikaiñenatarikoa gerra aurreko ogetamar bat urtekoa dugu. Geroztik ere lan aundia egin dan arren, garai artako teatrugilleak eta antzez-taldeak garaitzekorik ez da ezagutu: panparroikeriak ez dira tremes, ezjakin ausartaren egiñak ere ez dira maiz esanen einera irixten. Orduan, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n baitik bat, urte barru osoan zebiltzan erriz erri antzez-taldeak. Eta, jakiña da, bearrak lan eragiten: teatru4anak bear ziran, eta antzerkiak eurrez sortzen.

Oitakoa dugu A. M. Labaien, len eta orain euskal teatru-lanean murgildua; antzerkilari jatorra, ogetamar bat teatru-lan idatzi dizkiguna. «Euskaltzaleak» bazkuna Antzerki-egunak ospatzen asi zala-ta, teatru-lanak bear zirala-ta, berak sortu zuen, eta bost urtetan aurrera eraman, Euskalerrian izan dugun antzerki aldizkari bakarra: «Antzerti». Tolosa'n, Lopez Mendizabarenean, asi zan ateratzen, 1932'an. Euskal antzerkiaren illerokQ onek 24 orrialde zekartzin lenbiziko zenbakian, «Txiki»ren marrazkiz edertuta. Lan berriak era zarrak ematen zituen. Toribio Altzaga'ren «Aterako gera!», egintza bakarreko jostirudia, 1888'garren urtean Euskal-itz Jostaldiak eratutako batzaldian len-saria irabazi zuenakin eman zion asiera.

Aurkezpenak onela zion: «Gaur lenengoz, irakurle maitea, ANTZERTI azaltzen zaizu. ANTZERTI bai, au da, Euskal Antzertiaren aldizkingia. Txild datorkizula egia da; baita ere

ordea, asmo aundi ta uste onez ornitua. Guziak, euskera ta gure Erria, antzertiaren bidez, suspertzearren. Asmo orek bete al izango ditugun ala ez gure adiskidien eskuetan dago. Ez ba'diguzute laguntzarik ukatzen ez degu utsegingo ta gero ta geiango gaur sortu dan aldizkintxo auxe sendotzen ta edertzen aleginduko gera». Eta, ain zuzen ere, orrelaxe jarraitu zuen bost urtean, 54 zenbaki aterarik; zenbaki bakoitzean bi ta iru antzerki zetozen. Lenengo ta azkeneko azal-bairruetan illeko berriak —argitaratutako antzerkienak, antzez-taldeenak eta abar— ematen zituen.

Jakingarri da-ta, ikus «Antzerti»-k argitara emaniko antzerki-lanen errenkada: 1) T. Altzaga'ren «Aterako gera!»; 2) Lizardi'tar Xabier'en «Laño ta Izar»; 3) A. M. Labaien'en «Maya»; 4) X'ek erderatik antolatutako «Guzik Gaxo»; 5) A. M. Labalen'en «Mateo Txistu»; 6) Lizardiren «Bi Aizpak»; 7) «Patxiko ta Martintxo», ume elkarrizketa; J. Nazabal'en «Zebatean sagarrak?»; 8) «Euskel Dantzak», P. A. Orkaiztegiarena; 9) Arostegi'tar P.'ren «Arantza», 10) T. Altzaga'ren «Zanpantzar»; 11) M. Sierra-L. Mendizabd'en «Seaska-abesti»; 12) Kardaberaztarren «Goimatasuna»; 13) P. Iturralde'ren «Egiazko Argia»; 14) Amonarriz'tar A.'ren «Ustegabeko Poza»; 15) A. M. Labaien'en «Iparragirre»; 16) I. Markiegi'ren «Poxpolin Gorria»; 17) Arozena'tar A.'ren «Andregak nal da...»; 18) Sopotek-J. Zaitegi'ren «Antigone»; 19) D. Mamresa'ren «Eskaleak»; 20) A. Arozena'ren «Urteurrena»; 21) Karraskedo-Olarraren «Txokolo txerri tratalari»; 22) Karraskedo-Olarraren «Etxe-aldaketa»; 23) A. Amonarriz'en «Iturrian»; 24) Pernaldo Urkia'ren «Aralar mendian»; 25) T. Altzaga'ren «Osaba»; 26) A. M. Labalen'en «Berezi»; 27) A. M. Labaien'en «Irri-Itzddia»; 28) Luzear'en «Neskamearen marmarrak»; 29) A. Etxabe-J. Zubimendi'ren «Mirentzu»; 30) Mujika'tar Tene'ren «Gogo-Oñazeak»; 31) A. Arozena'ren «Mox, miss, Xapi»; 32) A. Arozena'ren «Balujan»; 33) Paul Humpert'en «Eriotz-bide»; 34) A. Barriola ta Aizpurua'ren «Gai dagonaren indarra»; 35)

Lekuona anaien «Eun Dukat»; 36) A. M. Labaien'en «Gizon Bizarpietuti eta Emazte Bizartsuti»; 37) E. Gorostidi ta Agirre-txe'ren «Eleizatxoko Ardazlea»; 38) Muxika'tar Tene'ren «Gabor»; 39) A. Amooarriz'en «Biotz oneko neskatlla»; 40) Karaskedo-Olarra'ren «Garo-usaia»; 41) Brkiaga'tar Eusebi'ren «Antzerti yayan izan naz»; 42) A. Arozena'ren «Xanko ta Paxko»; 43) Markiegi'tar Peli'ren «Seme ondatzallea»; 44) P. Launda'ren «Senar bat neurrira»; 45) A. M. Labaien'en «Iruñeme».

«YAKINTZA»

Euskal kulturazko aldizkaria. Idazkola ta Banakola, Donostiko Aldundegian. I'go zenbakia, 1933'ko ilbeltz-otsailla. 80 orrialde. Sail auek dauzka; *Elerti-Literatura, Antzerti-Teatro, Irazkintza-Pedagogía, Edesti-Historia, Lege-Yákintza-Legislación, Gizartizti-Sociología, Erri-Yakintza-Etnografía Folklore, Ederti-Arte, Ereserti-Música, Bibliografía*. Euskeraz zein erderaz daude gal bakoitzari dagozkon lanak. Jose Ariztimuño, «Aitzol», zan zuzendari.

Nork sortu zuen? Oña Artezkaritzak dioskuna: «Ezin ordea euskal olertizaleak etsi, gure-gurea dan yakintzaren azalpide ta eragille diteken aldizkingirik gabe. Ta zirikada ugari ta eskabide itzalgarriak beartuta, «Euskaltzaleak» elkarteak beste aldizkingi berria argitaratzea erabaki du: YAKINTZA izeneko». Bada-kigu, nortzuk bultzatuta —olerkariak—, nork —«Euskaltzaleak bazkunak— atera zuen.

Eta asmoak? Entzun: «Asmoak, oñordekoarekin batera jositakoak dituzute. 1880'garrenean «Eusfcal-Erria»k «Gure eginbearra» idazpurupean eta 1911'garrenean «Euskalerriaren Alde»'k «Gure asmoak» buru zutela agertutako itzak, azkenal bezela jasotzen ditugu. Ez dauzkagu ordea «Euskal-Erria»k eta

«Euskaleriaren Alde»k zerabilzkiten gogoiak, aaztutzat. Sugar berriz ezetu nai ditugu. Erti, elerti ta yakitarau ikaskuntz, lan ta azterpen txertu bidez, bizitu nal genituzke».

Aro berri baten loratzea ikusten zan nun-nal. Eta Donosti'ko euskaltzale jator aiek etzuten lo egon gura, berpizkuode artan esku artu naia izate biurtu balzik. Orduko eusko pizkundean lankide izatea zan, beraz, «Yakintza»-ren elburua. «Baïña —dio— izenari dagokionez yakintza lanetan besterik ez, «Euskd-Erria» ta «Euskaleriaren Alde»k egindako pizkunde-lanari jarraituaz. Etzaiote euzko izatearen berloratze au osorik aiei zor. Ez, noski, nabaitzen dan su su-garraren indar aundienik ere. Gaurko aurreapenaren bultzagai eragikorrenak, ezin ukatu dituzken beste batzuek izan dira. Ta ez alderdikeri utsak, bal yakitarauzkoak ere. Aitatzea bidezkotzat daukagu. Gipuzkoar pizkunde-ikara onekin bateratsu, indartu ta zabaldu zan Bizkaya'n Arana'tar Sabin'ek asitakoa... Gogo-izakera ori aberastu, euskal yakintz metan gai berriak pillatu, eusko ikaskizun mota guzitan ikasian ta azterpena indartzea: ona YAKINTZA'ren elburu nagusia. Ontarako yakitarauzko asmoai lotuta agertzen zaizute» (*Yakintza*, 1933, 1'go zenbakia, 6-10 orr.).

Auek idazten zuten geien bat; J. Ariztimuño, Lizardi, Orixe, T. Agirre, Jautarkol, Loramendi, J. Artetxe, Tapia-perurena, G. Manterola, R. M. Azkue, M. Lekuona, Gaztelu, J. Zaitegi, P. Muxika, E. Erkiaga. J. Onaindia, E. Urkiaga, F. Loidi, A. Iralzoz, B. Etxegarai, J. M. Leizaola, J. Azpiazu, T. Arantzadi, E. Eguren, J. M. Izaurieta, Anjel Zabala, A. Eusebio Etxalar, F. Arozena, I. Goenaga, Martin Angiozar, A. Miguel Altzo, Dunixi, Aita Donosti, Aita Olazaran, Sabiaga, J. K. Gerra, B. Larrakoetxea, J. Aldamin, J. Thalamas Labandibar...

21 zenbaki atera ziran; 1936'ko Loreil-garagarrillekoa azkena. Arnas aundiko aldizkaria; dotore ta txukuna; «Euskaltzaleak» bazkunak ainbat olerkari, gazte ta zar, goi-mallako egin zituen. J. Aitzol su-emaille.

«EUSKO OLERKIAK»

Txalogarria ziñez «Euskaltzaleak» epe laburrean burutu zuen len ikaragarria. 1926'an asi zan ibiltzen, Elgoibar'ko San Lorentzo auzunean euskaltzale zintzo batzuk ospatu zuten jai eder batean. Urrengo urtean, 1927-9-4'an, Aretxabale'ko seme Felix Ugalde'k eraturako Arrasate'n egin zan Euskal-Egunean oiñarritu zan osorik, eta geroztik ainbat lan gogoangarri osotu zigun. Asmo ederrez galdatuak zebiltzan gizaseme suar aiek, eta asmo oietatik geienak aurrera eramaten saiatu ziran. Oietakoak noski eusko aurren Eguna, Euskal Eguna, Antzerti-Eguna, Olerti-Eguna...

Zazpi Olerti-Egun ospatu ziran, azkenengoa Lekeitio'n Azkue'tarren omenez. Olerti jaietan saritutako lanakin, eta beste onenakin, poesi-bilduma bat argitaratu oi zan. Bost olako bilduma ezagutezn ditugu, «Eusko Olerkiak» deritzenak. Donostiko Diputazioaren irarkolan ateraten zituzten. J. Aitzol'en itzaurrea dakarte danak. Errenderi'n, Tolosa'n, Ernani'n, Urretxua'n, Zarautz'en... ospatu ziran olerti-guduak.

ARABA, NAPARROA.

MUGAZ ANDIK

1915-1940

«Orain direla egun eta berrogeta hamar bat urte, Luden Bonaparte printzia jin zen Baiunara. Europako beste mintzairerik haborosiak ixtudiatu zutian, euskara ere nahi zian ikasi. Erran zeien, 7 mintzakietan, xiberotarra zela hobekienik kontserbaturik zena, bera ziñez estonatu zen, jakin zialarik, zertzaz bibliotekarik, libururik ere etzela, debozinezko ele batez kanpo.

Aholkatu zien, jua ledin Itxauspe kalunjiaren ikustera, xiberotarra zúa eta gizon ziñez sabant jakintsia.

Harek ere, erran zeion, etzela orako xiberotarra izkiribualat igaran. Bena nola konserbi eta begiratu duzie galdegin zeion Intxausperi eta hunek arrapostu:

Goguan konserbi eta elestaz begiratu. Bi sabantek deliberatu zien xibrotar aditzaren izkiribuz ezartia, batak ba zian jakitatia bere goguan, ben'ak aldiz, ezagutzen mintzairerik technique delakua. Lanak uken zutien xiberotar aditzaren sar-arazteko beste mintzairerik aditzen kadretan, eta bortz ehun bat paia bete zutien tink-tink eta orano erraiten zian Intxauspek etzutiála untsa ikertu bere gogoko zokuak oro-».

(Madaleine Jauregiberri)

LABURPEN

Euskal literatura mamitu ta osatzen ari geranoi egoki zaigu —nola ez?— euskal idazle guztien asnas-inkeza ta etemete osoz jabetzea. Ogiak ugaritzeko almen oso zuenak, Kristok berak ere, mirarizko asezte aren ostean gelditu ziran pusketak biltzeko agindu zien bere apostoluai. Ortan gabiltza gu ere.

r) ARABA'N.—Atamán eta aztertu naiez diardugun elerti-garai on-tan, Araba'n bereziki, iru idazle dauzkagu; *Jose Jauregi Uribarren*, Aita Anjelo, karmeldarra, kezka larri lez euskal miña barnean dara-billena; *Aita Juan Ibabe Iriondo*, prantziskotarra, ta *Andoni Urres-tarazu*, naizta euskaldun berri izan, ainbat lan egin diguna euskera arloan.

2) NAPARROA'N.—Naparroan, berriz, or dugu amairu baten izen-erreskada galanta. Emen dator aurrelari bezela *Aita Intza*, euskal idazle ta euskal bitxi biltzaille errimea, gaur ere Iruña'n, bere txoko ixil paketsuan, Arga ertzeko komentuan euskal lanari lotua bizi zaiguna: iñoiz «Zeruko Argia»-ren eta «Irujarrengo Prantziskotarra» aldizka-rién zuzendari izana. Ortxe datoz baita *Joakin Aldabe* olerkaria, *Kasto Intza*, euskal edergarri askoren biltzaille; ortxe *Paulo Arozena*, *Agustin Zarrantz*, Aita «Iraiiizoz», olerkari fina ta idazle ugarria; ortxe *Mikel Alizate*, *Aingeru Irigarai*, «Larreko» zanaren seme ernea, zer-bait jaso ta euskaldunoi eskeintzeko beti atzarri ta gerturik; ortxe *Jose Frantzisko Otermin*, *Jesus Flores Gofa*, *Juan Goikoetxea Zabalo*, *Manuel M. Apalategi*, Aita B. Ataun, lan askoren egille, gaur ere Ar-gentina'n «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos» daia-koaren artezkari dana; ortxe, azkenik, Aita Frantzisko Astiz, pasio-tarra, ta Bernardo Estornes Lasa, erronkariarra, beronen bi anaiakin batera, ezin-esan beste lan egin digun ta egiten ari dana.

3) MUGAZ ANDIK.—Mugaz andik ere, ots, Lapurdi'n, Baxenaba rre'n eta Zuberoa'n, naizta bide egaletako zugatz-tantaien antzera, bakan xamar, ba-dugu eredu ta erakuskirik, J. B. Daranatz, J. Xabano, M. Jauregiberri, Mayi Ariztia, L. Dassanze, P. Etheramendi, K. Dufau, R. Lafon, J. P. Zubiria ta J. B. Etxeberri urrutiegi utzi gabe, iru —P. Lafitte, E. J. Salaberri ta N. Tauer txekotarra—, oso aipagarri ditugula derizkit. P. Lafitte'k erraldoi pareko lan egin digu gazte-gaztetatik euskal arloan; Salaberri'k, ordea, uzta bikaiña eman digu, ta ortan jarraitzen du, Baiona'ko «Herria»-n aurki; eta Norbert Tauer, atzerritar izanik ere, euskera ikasi ta gure idazlen artean etzai-gu, dakigunez, atzenengo izan.

1) ARABA

1.—JOSE JAUREGI URIBARREN (1897-...)

Aramaio'n jaio zan Aita karmeldar langille ua, 1897-3-19'an, Etxaguen auzunean. «Pisia» ta «Kimia» euskeraz idatzi zizkigun A. Gabriel Jauregi'ren anaia. Kristo'ren zerbitzurako goideia izanik, Larrea'n artu zuen karmeldar soiñekoa 1913-8-5'an, urrengo urteko agustuaxen 6'an profesia egiñik. Gazteiz'ko ikasi zuen Jakintza eta Begoña'n Teologija ta gaiñerakoak, 1922-6-18'an Gazteiz'en apaiztasuna artuaz.

Bertatik Larrea'ko Ikastetxera bialdu zuten nagusiak irakasle, ta ortan ari izan zan 1923-1928 bitartean. Berton nintzan ni garai artan, eta ba-dut —nork ez?— nere, edo gure, maixua-ren gomutagarrkik asko. Neronek ere, bear bada, ura izan ezpalitz, ez nuen artuko euskal alorrean artu nuen arloa: garaiz erreza da zugaitz gaztea artez jartzea, ez ostera ain aise garai ori joana baldin bada.

1928'an Portugal'erantza joan bearra izan zuen, urte mor-doan —gaur izlari ta idazle, biar Aita Probintzialaren ordeko ta aolkulari— bertan bizi izanik; gerora berdin Kolonia'n eta Peru'n. 1960-1963 bitartean Larrea'ko nagusi zan, euskeraz ta erderaz konta ezin ala itzaldi egiñaz. Gaur Txile'n aurkitzen da, urtez beterik baiña langille: berak zuzentzen du ango karmeldarren «El Carmelo y Praga» aldizkaria.

EUSKALTZALE.—Merezi du onek ere arabar euskal idazleen artean, J. B. Gamiz, Barrutia, Ulibarri, Galindez, L. Latierra, Olabide... eta olakoen artean lerrokatzea. Liburu bezela zer

aunfirik argitara eman ez duen arren, eukeraz idatzi digun guztia bildumatzera ezkeror, idatzi interesgarriak osatzeko aña badugu or-emengo aldizkarietan barraiatuta. «Karmen'go Argia», «Euzkadi», «Karmel» eta gaiñerako karmeldar agerkerietan lan egin zuen baitik bat. Aramalo'ko euskera Bizkaikoa da, edo obeki, Leintz ibarrean, Eibar'en eta Markiñaldean agitz eta maizki egin oi dana: aditz-joko laguntzaille, adibidez, arnas gorrez erabilten da: «jat», «joan», eta ez «yat», «yoan». Euskera ortan ondu dizkigu A. Jauregi'k bere euskal lanak. «Aita Gotzon», «Anjelo», «Uribarri» ta antzekoak erabilli izan ditu askotan lanak izenpetzean.

Onezaz gaiñera, «azkenengo urte honeitan —diosku Uribarren'dar «Patxi'k— lan eder bat gertatu dau: «Euskal-aditza». Lan honetan, aurrez-aurre jarten dauskuz Euskalerriko lau euskalki nagusien aditz-jokoak. Oso lan interesgarria dogu euskalkiak euren artean dituen antzak eta ezbardintzak begikada batean ikusteko» (*Euskera*, 1972, 162 orr.). Lan au, izan ere, garrantzi aundikoa dugu gaurko batasun girorako bereziki; nik sarritan euki izan dut esku artean, argitara eman nairik ere bai. Egilleak, orraitio, gero ta osoago egin gura izan du; baiña ainbat arazotan buru-belarri sartuta bizi izan dalako, eztu egundo ere izan azken-orrazketa bear bezela egiteko astirik. Lna orregaitiñokarren or dago.

(Ikus *Boletín Oficial de la Provincia de San Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos*, 1976, 134 orr.; Patxi Uribarren, *Euskera*, 1972, 162 orr.).

2.—JUAN IBABE IRIONDO (1901-...)

Aramaio'ko Uribarri'n jaio zan Aita Frantziskotar au, 1901-3-27'an. 1917'an artu zuen Asis'ko Txiroaren jantzia, Arantzazu'n eta Olite'n eliz-karrera osaturik. Bukatu zuenean, Olite'n bertan apaiztu zan, 1924'an. Ondoren, Kuba'ko komentue[^]

tan igaro zitun amalau urte, Kristoren Itza ereiten batez ere. Andik Euskalerrira biurtu ta Zarautz'en eman zituen bi urte, ta Bermeo'n amabi; gaur Bilbao'n, Iralabari'n daukagu ogei Ca lau urte berton daramazkila, aitortu ta etxean bezela Bizkaiko erriz erri ere itzaldiak egiñik.

Euskaltzale zintzo, aldizkari askotan idatzi du; «Euzko Gogo»-n, «Goiz-Argi»-n, «Zeruko Argia»-n eta «Anaitasuna»[^] batez ere. «I ta Itarra», «Bilbao'ko Ibabe» ta olakoak erabili ditu lanak firmatzean.

«Goiz-Argi»-n dator Aita langille onek osoturiko «Izendegia».

3.—ANDONI URRESTARAZU LANDAZABAL (1902-...)

Ona euskaldun zintzo bat. Etzekian izkera ikasi zuen, baita beste askori erakusi ere, bere elizti ederraren bidez bereziki. Guztion eginbearra da ori, iñortxo ere baztertu gabe. «Euskaldun guzien eginbear nagusia —dio—, euskeraz egin, ikasi, goratu ta zabaltzea da. Ezin iñor aldatu bearkun ontatik; euskera alboan uzten duena, jakin edo ez jakin nai edo nal ez, gure Erriaren ondatzean erruduna dala esan bear» (*Gramática Vasca*, Itzaurrea, VII).

Arala'n jaio zan 1902-7- 16'an. Bere gurasoak: Jose Urrestarazu Urtubi ta Maria Babesne Landazabal Garagaltza; aita gazteiztarra, ta ama Arala'n jaioa. Batxiller ikasketak osotu zituen, 1918'an amaiturik. Orduantxe asi zan euskeraz ikasten Arara-Goiri'k sortu zuen «Euzkeltzale Bazkuna» ikaspideaz. Ondoren, Madrid'en egin zizkigun amaika urte ango Banco de Bilbao'n lan egiten: an ere euskera ikasteari ekin zion. 1935'an, Donosti'ra aldaturik, Bankoan bertan jarraitzen du, guda sortu arte; garai ortan ere euskeraz ikasten du T. Alzaga'k eta M. D. Agirre'k zuzendutako ikastaldietan ikasi ere.

Gerratean eta ondoren nundik eta nola ibilli zan berberak esaten dit 1977-8-5'an bidari zidan eskutitzean. «Gudaren asieran —diost— Donostia'ko gudari-talde batean sartu nintzan mendira joateko; lenengo urte artako iraillean Andazarrate'n zauriturik geratu nintzan, baña oso gauza txikia izan zan, zauri nagusia begi batean izan bazan ere. Gero «Araba» batallioia antolatu zanean, erabarra nintzala-ta, bertan sartu nintzan. 1937' ko urtea asi zanean, Euzko-Jaurlaritzak eratu zuen «ofizial»-entzako eskola berezian ikasten ari izan nintzan, Bizkaya'ren aurkako erasoaidia sortu arte; orduan «Estado Mayor»-era bialdu landuten eta bertan jarraitu nintzan Santoña'n jausi arte. Italiarrekin Laredo'n egon nintzan atzituta espafiarrak eldu arte; orduan iges egin nuen, baña egun gutxi barru berriz arrapatu ninduten eta Laredo'ko espetxean egon nintzan ia ku urtetan. Andik Doostia'ko Ondarreta'ra eraman ninduten egun gutxi barru bein-beñeko azkatasunaz irten arte. Urrengoan Araya'ra lenengoz eta Gasteiz'era bereala bertan gauza batzuetan lane-giteko. Geroko urteetan enintzan ondo ibilli, sei edo zortzi aldiz espetxera sartu ninduten, eta eztakit zenbat aldiz ertzai-ñengan deitua. Azkenez, 1953'garrenean iges-egin nuen Paris' era, ta ordudanik Euzko-Jaurlaritzan ari izan naiz lanean».

Euzko Jaurlaritzak, 1956'an, Munduko euskaldunen Batzar aundia eratu zuen, Paris'en. An artutako erabaki batetik «Euskal-Kulturaren Alde» batzordea sortu zan; ortan sartu zuten Urrestarazu idazkari izateko, ta ortan dago gaur ere. Batzorde orri elburu au eman zioten batzar aundi artan; «Batzarrean agerutako asmoak bildura, euskera gaizkatzeko egitarau egoki bat gertutzea». Iru urtetik iru urtera berak ematen du Agirre Saria ere. Euskaltzaindiko urgazle.

EUZKAL IDAZLE.—Euskeraz ikasi bakarrik etzuen egin, irakatsi ere bai; ortan ari izan da bere bizitza guztian. Berak esaten dit aipatu dudan idazkian: «Euskeraz irakasten ari-izan nalz beti, Gasteiz'en asita, gero Paris'en eta orain arte emen

(Baiona'n); ikastaldi oietako batzuk idazkien bidez eman ditut. Gasteiz'en ikasleak asko izan ziran, besteetan gutxi. Gasteiz'en izandako nire ikasle batzuk orain an bertan irakasle bezela ari dira».

Idatzi, ordea, eguneroko ta aldizkari askotan egin du. Geien Paris'ko «Euzko-Deya»-n idatzi digu; berak onela: «1954'garrenean asi nintzan, eta amaitu arte, izenpetzeke an agertu diran lan guztiak nireak izan dira». Gero beste aldizkari auetan: EAB-ren «Alderdi»-an asko, «Utarra» izenordekoz; «Euzko-Gogoa»-n bere izenenez; «Estibaliz»-en «Egino» izenordekoz, eta bere izenez; «Goiz-Argi»-n «Urabaln» izenordekoz; «Karmel-en asko, «Urtubi» ta bere izenez, itz lauz ta bertsoz: «Kairdaberaz»-en bare izenez; «Euskera»-n eta abar. Sarri erabilli du «Umandi» ezizena ere.

1957'rantza, batzaldi bat antolatu zuten Buenos Aires'en ango eakaltzaleak, eusko baserrian buruzkoa. Eta lenengo saria, Urrestarazu'ri ta Basurko'tar Jon'i eman zien erdibana. Baiona'ko «Sabindiar-Batza»-k, geroago, AtanarGoiri'ren omenez beste batzaldi batean, euskeraz egindako lanak saritu zitueri; era sari bat Urrestarazu'ri ta Aita Anasagasti praritziskotarrari erbibana eman zieten.

Orrez gaiñera, ona banaka argitaratu dizkigun liburuak;

1) *Gramática Vasca* (Zarautz, 1955). Donostia'ko «J. Urkixo» Mintegiaren babespean. Eliztia, esaerak era abar. 628 orrialde. Ezkeintza onen: «Bizian zear benetan maite izan naun Miren Terese nere arreba kutunari».

Elizti au osatzean kezka bizi bat agertzen du Umandi'k. Erri bakoitzak bere izkuntzan eutsi bear dio, izkuntza baita erri baten gogo berezi ta nortasuna dakarkiona. Orixegatik diosku: «Euskerari gogor eusten ezpadiogu, aurki Euskal-erri guzia Erdal erri biurtuko da; orduan ez izkuntzareik —euskerarik— ez eta euskal-gogorik. Gure gogoa zearo aldatua izango dugu;

eta gure baitan argi ikusiko ere, eiki, egiz san auxe: «izkuntzaz aldatzea, gcoz aldatzea». Euskerari eutsi nairik ari zaigu, ba, Umami naiz irakasten naiz eliztiak idazten.

Arrezkero beste bialdiz ere argitaratua izan da gramatika au. Lenengo argitalpena laster aitu zan, eta 1959'an, Donostia' ko Auñamendi Argitaldai'riak bigarrena egin zuen. Au ere agerturik, Kardaberaz taldeak atera dio irugarrenez: *Gramática Vasca, Método para aprender y enseñar el idioma vasco* (Gazteiz, 1976). Bi ale dira; lenengoak 584 orrialde ditu, ta bigarrenak, *Modismos, Vocabularios, Clave de temas*, 208 orr.

2) *Bizkaierazko Aditz-erák: Formas verbales vizcaínas* (Zarautz, 1955). Itxaropena'ren irarkolan. 94 orrialde. Bizkaiko aditza ikasteko, guztiz egokia. Ontan ere, «J. Urkixo» Mintegiak eman zion babesa, baita diruz batez ere laguntza ederra izan zuen Eibar'ko gazte talde batena.

3) *Aurreruntz. Porvenir* (Buenos Aires). «Ekin» Argitaldai'riak bere sail berezi «Aberri ta Azkatasuna» deritzaionean, 9'garren alea. Euskeraz ta espaiñeraz.

4) *Euskal-betekizunak* (Gazteiz, 1977). Oraintsu Kardaberaz taldeak argitara eman dion liburua, guztia euskeraz ta euskaratzaz egiña.

5) Eta azkenez, *Irazkintza* (Baiona, 1966). Ikastoletarako euskal aldizkaria. 1966'ko azulean atera zan lenengo aldiz; bi illebeterokoa izan zan, eta bere azken zenbakia 1967'ko iraila-urrillekoa izan zan. Oso laburra, beraz: euskeraz, espaiñeraz eta parantzeraz zegoen egiña. Aldi artan, mugaz andik ere, ikastolak eratzen asi zirala-ta, egokia iruditu zitzaion orrelako aldizkari bat sortzea. Baiña arpidetu ziranak gutxi izan ziralako, asmo eder ura azkenez utzi egin bear noski. Orain, ordea, «cassettes»-etan irartzeko ikaskai berezi batzuk gerturik dauzka.

* * *

Beioa emen beronen arrebaren aipamena ere, ots, Miren Terese Urrestarazu'rena. Araba'ko erri txanbelin Araia'n sortua duzu, bere neba bezela, 1907'an. Irakasleritza ukasi zuen, bere ogibideari asiera Soria'ko San Felices'en emanik; gero, Aulesti'ra bialdu zuten, eta ementxe, euskaltzale ta abertzale zan Alkorta izeneko famili zintzo baten etxean bizi zalarik, asi zan euskeraz ukasten ere; laterriko ikastolan bertan kritau-ikasbidea euskeraz ematen zuen, bere kabuz.

Gerra ondoko guztia egin du euskeraz erakusten: ni Gazteiz'en bizi nintzala —1941-42—, bere etxean eta kanpoan ematen zitun klaseak. «Olabide» ikastolea sortu zanean, an Lasarte'ko soro artean, antxe ari izan zan andereño bezela ikastola orren lenengo urteetan. Orain ere, zartzaroan sartuta, etxean ematen ditu euskerazko ikastaldiak. Ez da errez oiturari muzin egitea.

Ikasbide bikaiña, egiz, bi neba-arrebok damakigutena. Euskerarekin maiteminduruk, geure izkuntzari, geure izatezko arnasari eskeiñi diote beren bizi-odolaren edérrenik ederrena. Ez diegu gutxi zor.

(Ikus J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 164 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 113 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 73 orr.).

EGUNEROKOAK ETA ALDIZKARIAK

Gazteiz, Araba'ko uriburua, beti izan da kultura izen aundikoa. Igazitako gizaldiaren azkenerantz, batez ere, arabar jakintsu talde batek Gazteiz kultura maillan goi-goi jartea iritxi zuen. Euskaltzaletasuna ta elerti-griña sortu zuen talde orrek; auek ziran: Fermín íjerran, liburutegi eder bat asi zuena, Rikardo B. Bengoa, Enrike Belasko, Federiko Baraibar, Pedro Egaña, J. Apraiz, Moraza, Ortiz Zarate ta abar. Herran'ek sortu zuen 1878'an «Provincias Euskaras» aldizkaria. 1918'an sortutako «Eusko Ikaskuntza»-n lan txalogarria egin zuten O.

Apraiz'ek eta Enrike Eguren'ek; berton así zan «Eusko[^]Folklore», 1921'an; ementxe ospatu zuen «Eusko Ikaskuntza»-k bere laugarren Batzar orokorra, 1925'ko uztailaren 25'tik dagonillaren 1'ra.

Joandako gizaldian zerbait atzera jorik, prentsa naiko edatu zan Araba'n: 1845'an agertu zan «El Lirio», Erramon Ortiz Zarate'k zuzendua, 1847'an, «La Revista vascongada», Juan Aiala'k sortua; 1859'an «El Porvenir Alavés»; 1864'an, «El Fuerista», eta pikokari auek, «El Mentirón», «El Periquito entre ellas» ta «La Avispa». Karlatar gerra ondoan, «El Demócrata Alavés» agertu zan, erkal-zaleena; 1878'an, «El Anunciador Vitoriano», lenengo Julian Arbulo'k eta gero O'don Apraiz'ek zuzendua; 1880'an, «El Gorbea» agertu zan; 1884'an, «La Concordia», «El Diario de Vitoria» ta «El Semanal».

1890'an, gazteiztar Erminio Madinabem^Yk irasi zuen Gazteiz'en, irizbide aurreratuz irasi ere, «La Libertad» egunerokoa. Alderdikeri bagea zan, zirudienez, pentsakera guztiz zabalekoa, neurri ta eratasun aundiz edozeiñentzat irikia zana. Euskal Foruak nai zituen berriz oiñean jarri. Izparringi au, geroago, Luis Dorao'k erosi ta zuzendu zuen, 1936'rarte iraunik.

1901'an beste eguneroko bat jaiki zan: «Heraldo Alavés». Asieran etzuen, askok oi duenez, alderdi-lerarik erakutsi, baiña zarrontzale zanik ezin ukatu, begi onez zekusazkin beintzat oien arikoen uste ta asmoak. 1932'an itzali zan, «Pensamiento Alavés»-! leku emanik. Onek ba-zuen bere xede jakia. Jose Luis Oriol Uriguen'ek zuzendu zuen, gerra ostean ere jarraiturik. Gero etorri zan «Norte Exprés», bizitza laburrekoa. Gaur Bilbao'ko «La Gaceta del Norte» ta «El Correo Español-El Pueblo Vasco» ta Donosti'ko «La Voz de España» dira Araba'n irakurtzen diranak.

Aldízkarien artean aipatzea merezi dutenak dira auek: *Arabarra* (Gazteiz, 1912); erzuen bizi luzerik izan.

1) *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* (Gazteiz, 1921). J. M. Barandiaran'ek, 1921-4-2'an, gazte talde bat, eusko folklore zale zana, elkartu zuen Gazteiz'ko Apaiztegi Nagusian. Batzarraren asmoa garbi adierazi ondoren, guztien artean berealaxe antolatatu zuten «Euzko-Folklore» alkartea, Joxe Migel bera buru zalarik. Alkarte orren Zuzendaritza osotzen zutenak auek ziran: Jose Migel Barandiaran, ataundarra; Manuel Lekuona, oiartzuarra; Eukeni Larrañaga, Elorrio'ko; Jose Ariztimuño, tolosarra; Leon Bengoa, Zaldibarikoa; Manuel Lopez, Soskaño-Karrantza'koa; Juan Iruretagoiena, Zarauztarra; Juan Aranguren, Lepazpi'koa; Leonardo Guridi, Oñati'koa; Ander Agirre, Lezama (Araba)'koa; Tiburtzio Ispitzua, Larrabetzu'koa; eta Felix Zamalloa, Zornotza'koa. Bazkintza, 1923'til< aurrera, urtearen asikeran berriztatuko da. Onez gaiñera, baziran beste batzuk ere, babesteak, deduzkoak eta lankideak.

Euskalerrian oraindik jaso gabe zeuden gaiak —kanta, esatera, oitura, tresna, ta abar— biltzea zan beuren lana. Gero, bildutako lanakin liburu bat aterako zan urtero. Ordutik urrera, 1936'rarte, «Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore» agertu zan; gerra ostean, Donostia'n azaltzen da. Lan bikaiña benebeneran urterik urte burutu zana, ta gaur ere jarraitze duena. Munduko jakintsuen artean ots aundia du alkarte onek.

2) *Gure Mixiolaria* (Gazteiz, 1923). Erderaz- «Nuestro Misionro». Bi-illeroko aldizkari bikaiña. Euskeraz ta erderaz. Social Católica'k argitaratzen zuen. 1936'garrenean urtu zan.

3) *Idearium* (Gazteiz, 1934). Gazteiz'ko Elizbarruñiko Montepió'ren agerkaria.

Ba-dazaugu beste auek ere: «Surge», «Lumen», «Victorientsia», «Scriptorium Victoriense», arima-iapostolutzari ta ikerlanari buruz Gazteiz'ko Apaiztegi ta Eliz-barrutiak argitara ematen ditunak; eta Aurirezki Kutxaren «Sancho el Sabio» ta Txango-Alkartearen «Manuel Iradier», besteak beste.

2) NAFARROA

1.—MIKEL OLASAGARRE ZUBILLAGA (1886-...)

Aita Intza, kaputxinoa, oindio ere urtez betea Iruña'n daukaguna, Araiz ibarreko Intza erritxoan sortua dugu 1886-10-19' an. Iruña'ko Apaiztegian ikasi zitun latin eta ingurukoak; Sangotza'n (1902) profesia egin; Muskaria'n (1906) Filosofia ta abar ikasi; Iruña'n Teoloji-urteak amaitu ta bertan (1910-12-17'an) apaiz sagaratu izan zan.

Apaiztu ta urte bete gelago ikasten jarraitu ondoren, laster asi zan erriz erri izlari, garai artan bide gutxi bait zan, baso ta mendi oiñez ibillirik sarri. Soiñez ta adimenez azkarra noski, baita euskaltzale jator ere, etzuen naiko, Kristo'ren Itza adierazteaz: euskera ikasten zigun bide batez, erriaren aotik ainbat adizkera ta esaera zar txanbelin jasorik. Lekaide zintzoa zan A. Intza, Euskalerrria zuen bere lan-arlo, ta, Euskalerrria, bere izkuntzarekin eta izkuntzaren bidez, kristauago ta baliotsuago gertatzen zala, uste zuen. Eta uste du.

Ba-zuen ortan beste Aita bat ere: A. Oieregi. Adin berdíñekoak, ikaskide ta batera apaiz sagaratuak; eliz-karreran alkarrekin euskeraz egiñak, kezka berdiñez joak, apaiztu ondoren Iruña'ko komentutik euskal alorrean lan zegitenak, biak eragille bizkorrak. 1912'an, Katalunya'ko kaputxinoen illeroko orri bat artu "zuten, dena katalunieraz; bertatik esan zuten: «Guk ere alako orri egin ta atera bear genuke euskeraz». Nagusiagandik baimena atera ta 1913'gnekó uztailaren lenengoan azaldu zan «Irugarrengo Prantziskotarra» illerokoa, euskera utsean, 8

orrialdekin: Aita Intza zuzendari. Geiago; 1919'gneko urtarri-
llean asi zan «Zeruko Argia» ere: Aita Intza zuzendari. Biak
jarraitu zuten jori ta eder 1936'gneko gudararte.

Urte orretan Txile'ra aldatu zan, igeska bezela; eta 32 urte
bertan egiteko aldatu ere, 1968'raiño an lan egiteko noski. Urte
oietan itzuli bakarra egin zigun Euskalerrira, 1956-57'an, berriz
ere ara biurturik. An, Santiago'n eta Constitución urietan lanari
ekin zion gogotsu bezin zintzo. Gaur Iruña'n daukagu bere
zartzaro samurrean.

EUSKALTZALE.—Aurtzarotik dakar bakoitzak bere barne-
deia. Euskal lerak joa zebilkigun A. Intza gazte-gaztetatik. Eta
ortan darrai gaur-egunean ere. Etxetik zekien euskera, ari ta
ari, edertu, ikasi ta indartu egin zuen; A. Intza'ren gazte-
garaian moda bezela zeukaten erri askotako apaizak elizkizu-
netan erdera erabiltzea; intzarrak, ordea, sermolari zebilela,
euskaldun errietan euskeraz egin oi zuen, eta erdaldun errietan
erderaz, izkera garbi, jori ulert-errezean egin ere. Ondoren,
apaiz asko ere, aren bidea artu ta jarraitzen asi ziran, beren
itzaldiak euskeraz buruturik.

Orrez gaiñ, gauza bat maite dugunean, urkoari ere berau
eratsi nairik alegiñak egin oi ditugu. Xede ori egi biurtzeko sor-
tu zitun A. Intza'k lenengo «Irujarrengo Prantziskotarra» ta ge-
ro «Zeruko Argia» aldizkariak, gure erri-jendeak pozik artu ta
pozago irakurtzen zitunak: apostoladutza egiteko ere bide egoki-
egokia danik iñork ez digu akatuko. Euskalerrian zabaltzen
ziran agerkari biotatik, bigarrena batez ere, oso ederra zan.
Intza'k tai gabe idazten zuen, baita beste askori idatzi-azo ere:
garai artako kaputxino idazleak, Aita Donosti'k Agiña'n bezela,
oroitarri bat merezi lukete.

Izen ta izenorde auek erabilli zituen: «Intza'r Damas An.»,
«Kalparregi», «Ar'tar A.», «Irumugarrieta», ta abar.

EUSKALTZAIN.—Eguzki-izpiak, odeitarrak aien aurka mol-
tzotu arren, goiz edo berandu, egingo dute bidea argi-patsetan

diztikor agerturik. Berdin idazle onak. Euskaltzaindia sortu zenerako dizditsu zebillen A. Intza ta 1920-7-23'gneko batzarrean, J. Agerre euskaltzaiña lanpetuegi zegoala-ta, aren orde z berau izendatu zuten.

Andik laster, Iruña'n egokitu zuen Euskaltzaindiak bere batzarra; eta A. Intza artara azaldu lenengoz euskaltzain bezela: aste artan bertan, in zuzen ere, Eusko Ikaskuntzak billera orokor bat antolatu zuen Iruña'n, bi egunetan beintzat Iratxe'ra, Amaiur'era txagoak egiñik: beronek egin zituen, bai Iratxe'n A. Jostomari Mofcoroare© itzaldian erantzuna ta bai biaramonean Maia'n oroitarrria onetsi bitarteko mintzaldia.

1921'an ospatu zan Elizondo'n Euskaltzaindirako sarrera ofiziala. Itzaldi-gaia: «Naparro'ko Aditz-laguntzalea zaketazko esakeran» (*Euskera*, 1920-1921, 3 orr.). Aita Olabide josulagunak erantzun zion. Arratsaldean, Lekaroz'ko kaputxinoetan, Euskaltzain osoaren aurrean, Azkue jaunaren «Sasi-eskola» antzetzu zuten. Onez gaiñera, A. Intza'ren eragin-lanetatik bat auxe izan zan: Kanpion euskaltzaiña lagun zuela, Iruña'ko Gortzai Jose Lopez Mendoza'gana urreratu ta onegandik, Apaiztegian, euskal ikastaroa Teoloji ikasleentzat jartea.

Euskaltzain bezela, 1025'an Iruña'n sortu zan «Euskeraren Adiskideak» alkartean ere lan bikaiña osotu zuen A. Intza'k. Lendik zuen oitura umeen ikastokietara joan eta aiei euskeraz irakurtzen erakustekoa, alegia; alkarte au sortu zanetik, berenek laguntzen zion eskoletan sariak jarri, azterketak osotu ta sariak banantzen. Or eta an jai ederrak ospatzen ziran, jendeketa gaitzak bildurik: meza ostean, plazan euskal jai, musika, aurrezku, dantza ta itzaldiak, dana euskeraz; Napar-Aldundiaren ordezkarriak eta abar, Aurrezki-Kutxako txartelak eman oi zizkien ume-txoen, sari bezela.

IDAZLE.—Luma goxoa du A. Intza'k, len eta orain. «Zeruko Argia», «Irugarrengo Prantziskotarra», «Euskal Esnalea», «Euskera», RIEV, «Karmel», «Agur»-en idatzi du.

Liburuetatik auek ditu aipagarri:

1) *Jabier'tar Frantzisko Santuaren Bederatziurrena* (Irun?, 1922). 11 orrialde. Aldündiaren irarkolan.

2) *Kristau Ikasbidearen Vko ta H-garren Zatiaren Azalpena* (Iruña). Torrent y Santa Gruz'en irarkolan. 157 orrialde. Iruña'ko Apaizgaitegiko euskal irakasle ta ikasleai eskeiñia. Lendik ere, geien bat, «Zeruko Argia»-n argitara emanda zeuzkan lanok; ona berak diona: «Kristau-Ikasbidearen azalpen bateo bearra sumatzen da aspaldian gure artean. Erriak ere alako azalpen baten bear aundia zeukala sumatu nuen, gure anai artean Ebanjelioaren azi ona eragitera atera nintzaneko. Baño nork artu orrelako lan luze ta beste alde zalla? Onengatik egondu naiz urte sail batean lan oni ekiteko bildurrez, batez, ere ainbat apaiz jakintsuak nik baño lanbide au bete zezaketela ezagaturik. Baño azkenean iñork eltzen etziola oarturik, «Zeruko Argia.» azaldu zanean oni ekin nion, lan obegorik egin ez mezakelako ustean. Kaputzinoak Iruña'n argitaratzen dugun illabeteroko aldizkari ortan agertu diran lantxo batzuek dituzu, ba, eskuetan dauzkatzunak».

3) *Kristau Ikasbidea* (Iruña, 1927). Nekeetako Ama Birjiñaren irarkolan. 96 orrialde. Gazteiz'ko Eliz-Barrutirako ein zanarren antz-antzekoa, Mateo Mujika Gotzaiaren aginduz Napparorako egokitua.

4) *Erriarentzako Liturgia. Abendua* (Iruña, 1930).

5) *Naparroa-ko Euskal-Esaera zarrak* (Iruña, 1974). Arantzadi etxe-argitaldaria. 168 orrialde. Erriz-erri bildutako esae-rak; gazte samar asi zan eurok batzen. Ñapar errietan izlari, aitortzen eta aurrei euskeraz irakurtzen erakusten zebillela, asmo ori zuen gogoan daldal. Liburuari itzaurrea egiten dion Iraizoz'ko Polikarpo Aitak onela: «Urte aietan, bidenabar, beste zer bait ere egin zuen: Errietan, Jaunaren apez bati dagokion eginkizunak zintzo betetzen zituen bitartean, euskerari izan zion zaletasunak eragiñik, jendeen agotik entzuten zituen eus-

kerazko itz eta esaera zarrak biltzen asi zen. Eta mordoxká gailant bat bildu ondoan, Euskaltzaindiaren «Euskera» aldizkarian argitara eman zituen, sailka, 1927-1929 urtetan» (9 orr.).

. Eta A. Intza'k, liburua nola osotu duen esanik...:» 1912-tik 1936-ra bilduetatik sail batzuk agertu ziren Euskaltzaindaren «Euskera» aldizkarian (1927-1929), eta beste sail aundi bat 1936-an. Bi aldi oietan Euskalerra osoan bildutakóak nasteka eman nituen, eta geroago «Zeruko Argla»-n ere berdin. Iruineko «Principe de Viana»-n Naparroako batzuk agertu ziren. Baña, Naparroako guziak libuirutxo batean bildurik ematea obe izango litzakela adiarazi baitzidateri, orixe egin dut eskuetan daukazun liburutxo onekin. Emen sartu ditut bai lendik argitara emandako esaerak, ta bai geroztik bildu ditudan asko» (*Loe cit.*, 11 orr.).

Bi bilketa egin ditu, ba, A. Intza'k; lenengo 1912'tik 1936'ra, ainbat ñapar erritan esaera zarrak artzen saiaturik, eta bigarren 1936'tik 1973'ra; «bigarren aldi ontan —diosku— emalle gutxiago izan ditut, eta ala ere uzta ugariagoa bildu dut». Eta ondoren errien eta emailleen izenak aipatzen dizkigu. Ona zerbait; 1. «Sakan (Barranka) osoko esaerak» (1-185); 2. «Araitz-Ibarreko esaerak» (186-299); 3. «Larraun-Ibarreko esaerak» (300-696); 4. «Areso-ko; esaerak» (697-719); 5. «Leitza-ko esaerak» (720-784); 6. «Arano-ko esaerak» (785-854); 7. «Goizueta-ko esaerak» (855-920); 8. «Imotz-Ibarreko esaerak» (921-1357); 9. «Basaburu-ko esaerak» (1358-1456); 10. «Erasuñ era Ezkurra eta Saldias-ko esaerak» (1457-1574); 11. «Labaien, Urroz ta Zubieta-ko esaerak» (1575-1657); 12. «Ituren, Elgorriaga eta Doneztebe-ko esaerak» (1618-1659); 13. «Narbarte era Sunbilla-ko esaerak» (1660-1714); 14. «Bortz-Errietako esaerak» (1715-1868); 15. «Ultzama-ko era inguruetako esaerak» (1869-1965); 16. «Baztan-go esaerak» (1966-2204); 17. «Esteribar-ko esaerak» (2205-2249); 18. «Erro-Ibar-ko esaerak» (2250-2337); 19. «Aezkoa-ko esaerak» (2338-

2358); 20. «Saraltzu-ko esaerak» (2359-2409); 21. «Erronkari-ko esaerak» (2410-2415); 22. «Luzalde-ko esaerak» (2416-2489); azkena bilduak (2490-2500).

Donosti'ko Eloi Erentxun marrazkilariak eta bere anai Aita Felix keputxinoak egiñiko marrazki ederrez omituta dago liburua.

Naparru'ko Foru-Aldundiak lagunduta atera digu bilduma "eder-eder au.

(Ikus Felipe Aita, *Ensayo bibliográfico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* (1900-1960); G. Lakonbe, RIEV, 1927,726 orr.; Gabino Garriga, *Bol. Amer. de E. V.*, 1960, 140 orr.; L. Villasante, HLV, 397 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores Vascos*, 19 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 140 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 522 orr.; A. Irigarai, *Euskal Eснаlea*, 1926, XVIII, 93 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 386 orr.).

2.—JOAKIN ALDABE JOANIKOTENA (1893-1973)

Bidasoa ondoko Bera'n jalo zan 1893-2-9'an, «Bilkorrena» deritzan etxean. Bertako Aita Eskolapioen ikastetxean osotu zituen gaztetako eskolak. Geroago, itxura danez, pralle izan nalrik ibilli zitzaizun, lekaideen antzeko eliz-otoitzak egin oi zizkigun beñik-bein «Breviarium» errezatuaz. Bein baiño geiagotan aolku eske etorri zitzaldan, eliz-egutegian dudaz zegoela-ta.

1938'tik Orio'n bizi izan zan, eta bertan il ere egin zan 1973-7-6'an.

OLERKARI.—Etzan itz lauz ari izan, balña bertsotan bal. Orio'n kokatu zanetik konta ezin ala koplá borobildu zizkigun. Erreztasun aundia zuen ortarako, ta olermenak jota zebillen guztietan, idazkortza artu ta barrena bertsoz utsitu oi zuen.

Aldizkari auetan eman zituen bere lanak: «Gernika», «Euzko-Gogoá», «Karmel», «Olerti», «El Bidasoa», «Zeruko Argia», «Diario Vasco», Iruña'ko «Príncipe de Viana», ta abar.

Argitara zitunak eta azaldu gabe dauzkanak zenbatu ezkeru, berreunetik gora izango dira: nik karpera aundi bi dauzkat aren neurtitzez beterik. Ezta olerkari gorenengoa, baiña bertsolariak baiña goratxoagoko egazkada du. Bilduma ederra osatu lezake guzti auekin, «Auspoa»-k esaterako.

1971'an omenaldi eder bat egin zitzaion Orio'n.

(Ikus S. Onaindia, MEOE 1072 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 117 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 20 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 549 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 99 orr.).

3.—KASTO INTZA ARBEO (1894-...)

Kaputxinoen artean Aita Jorje Errietzua deritzana, Nafarroa'ko Errietzua'n jaio zan 1894-7-1'an. Altzatzua'n ikasi zituen latin eta ingurukoak, Sangotza'n soñekoa jantzirik 1909'an. 1910-1913 bitartean Ondarrabi'n ikasi zuen Filosofia ta abar; 1913-1917'ra, ordea, Iruña'n Teoloji ta ingumkoak, 1917'an Iruña'n bertan apaizturik.

Azkarra bait zan, eliz-kaskizunak egin tartean, batxiller karrera ere ofizialki burutu zuen, eta jarraiean Zientzi Doi-doiak ikasten jardun titulua gai oietan ere Madrid'eko Goi-Ikastetxean aterarik. Lekarotz'era bialdu zuten andik laster nagusiak maixutza egin zezan, eta olan ari izan zan 136'rarte; gerra zala-ta, Arjentina'ra jo zuen, eta an ere 16 urtetan Buenos Aires'ko «Euskal-Etxea»-n erakutsi. 1952'an Euskalerriratu zan berriz ere, ta arrezkero guztian Lekarotz'en daakagu irakasle.

IDAZLARI.—Maixutzaz gaiñera, beta izan duenetan, idazteari ekin dio atsik artu gaberikan. Umetatik ez zekien euskera ikasia du, ta zein euskeraz ta zein erderaz ederki atondu da bere liburuak argitaratzeko. Euskeraz, «Principe de Viana»-n idatzi du batez ere.

Ona errietzuarren liburu ta idatzi batzuk:

1) *Flor de Canciones Populares Vascas* (Buenos Aires, 1948). 356 orrialde. «Ekin» argitaldaria Sebaste Amorrortu ta Semeen irarkolan aterata. Euskeraz ta erderaz, Nestar Bas-terretxea'ren marrazkiakin.

2) *Vida, obra y Semblanza espiritual del Padre José Antonio de Donostia, Capuchino* (Iruña, 1956). «Boletín Oficial de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón»-ek, separata bezela, aterata. 71 orrialde. Lan jakingarria Aita Donosti'k euskal arloan egin zigunairekin jabetzeko. A. F. rierzu'k dioskunez, Aita Donosti, azkenengo bost illabetetan naikoa gexorik Donostia'n egon zan arren, itzik egiteko gauza etzala aurkitu zanean, Lekarotz'era, berak aln maite zuen komentura ekarri zuten, eta ementxe il zan, eta ez Donostia'n nik nere EUSKAL LITERATURAK, IV aleko 222'gn. orrialdean desatanez.

3) *Obras Musicales de P. Donostia*. Aita Donostia'ren Artxibua (Lekarotz). 1960'an atera zuen XII tomoetatik lenengoa, «La Navidad»; ale bi ezik, besteak argitara emanak ditu. Ondoren, mintzaldiak ere, J. 1., aterako dizkigu.

4) *Nafarroa-ko Euskal-Kanta Zaharrak -Viejas Canciones Vascas de Navarra* (Iruña, 1973). Gomez etxe-argitaldaria'ren. 269 orrialde. Euskeraz ta erderaz, musikaz eta marrazkiz eta oarkizun askoz ornituta. «Euskerazko kantu hauek —dio biltzailleak— bereziko Nalarroako euskal-herrientzat direla egia da, bai. Bainan halere Nafarroako bertze herri guziei, balta txikienei ere, eskaintzen dabet lore-bilduma hau. Guk, Naian rroaren erditsuan yaio garenok, berdin ederresten eta bihotzez maite ditugu gure aldameneko bi naf ar zatiak: bal *Erriberako* nekazalگو-lur gizen ugariak, bai *Mendiáldeko* oihan ostotsu eta ibar xoragarri eta mendixka berdeak» (*Eskeintza*, IX orr.).

5) *Euskal-gaietaz*. 1) «El Principe L. L. Bonaparte» (Iruña, 1959); «Principe de Viana» boletinean dator; 2) Jose Ma-

ritorena'ren «Axular ala Yaun Beñat?» argitalpena, beronek gertatua da; 3) «Material folklórico de la Collectanea Lingüística de Humboldt. Canción dei Vino».(Gazteiz, 1971); «Sancho el Sabio» boleteiñean datoit, XV urtea, XV alea, 91-115 orrialdeetan; 4) «Excomuni6n por el Abad de Urdax» (Iruña, 1972); «Fontes Linguae Vasconum» aldizkarian daukazu, 371-375 orrialdeetan.

6) *Euskal gaietatik kanpo*, erderaz ainbat liburu dauzka: 1) «A Dios por la caridad» (Buenos Aires, 1944); Ama Teodomira Intza'ren oroitzez, Martin Eiheralar'ek egiña: Teodomira Intza bere arreba da, ta Martin Eiheralar, Aita Errietzu bera; 2) Alemanetik itzulita, Schuster'en «Historia Bíblica», ale bitan; 3) Frantsetetik itzulita ere ba-ditu lau bat liburu garrantzizkoak...

(Ikus A. Irigarai, BAP, 1949, 452 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1958, loi orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 563 orr.).

4.—PAULO AROZENA URRUTIA (1896-1964)

Kaputxinoetan Aita Arraloz'tar Artzaña, Arraioz ñapar erri-txoan jaioa dugu 1896-2-23'an, Altzatzu'n latin-eta ikasi ondoren, 1914'an buruñurdun jantzia Sangotza'n artu zuena. Filoso-fi-gaiak Ondarrabi'n eta Teoloji-ikastaroak Iruña'n amaitu zituanean, napar-uriburuan bertan apaiztu zan, 1922-4-15'ao. 1931'tik 1940'ra mixiolaritza egin zuen Guam ugartean, eta geroago Manila'n. 1963'an aul ta gaixo Euskalerrira itzulirik. Iruña'n il zan 1964-1-31'an.

EUSKAL IDAZLE.—Meza berri emanda laster asi zan «Zeruko Argia»-n idazten. Orrela jarraitu zion, bizkor bezin zentzu-nezko, idazkortza erabiltzeari, zein Euskalerrian zala ta zein mixiolarari urrutiko lurraldeetan, guda zala-ta Aita buruñurdunen aldizkari edarra urtu zan arteiño.

Lendabizi «Begi-Beltx» izenordez idatzi zigun; gero, «Arraioz'ko Artzaia», «Arraloz'tar Pastor A.», ta abar. «Zeruko Argia»-n eta «Iruugarrengo Prantziskotarra»-n azaldu zizkigun bere lanak, bertsoz eta itz-lauz: atsegin zitzaion mixio-izparrak bialtzea, euskera garbi, goxo ta bizian. Ona, 1936-5-11'an, Guam'dik igorritako lantxo au:

«Nere «Zeruko Argia» maite maitea: Agur eta agur. Maiazaren bosgarren egunean Guam'en zitzaiguna adieraztera noakizu: eta egun ori gure Olano eta Urteaga'tar Mikel Aingeru Gotzai egindako urte betetzea zala ta, atsegingarria da denentzat. Aitzineko igandean (maiatzaren iruen) Gotzai Yaunak adiztera eman zion Guam'go erriari, il orren bosgarrena, egun berezla zala beretzat.

«Egun ortan Donostia'ko uri polit eta ikusgarrian Gotzaiakoa artu zuela eta urte-muga orretan kristau guztiak berak emango zuen Meza entzutea naiko lukeala. Eta aal zuten guztiak Gure Yauna ere artu zezatela. Zeruko argitasuna eskatuz. Bai eta Agana uri buru ontako kristau zintzoak entzun ere Gotzai maitearen oiña. Lauak baño len elizara etorri ziranak ere baziren. Eta Meza bitartean antxen ari ziren lan ta lan lau edo bertz Misiolari aitortegietan yandea ezin lekutuz.

«Bortz bortzetan atera zan aldarera Gotzai yaun guziz agurgarria. Eliza bete-betea yandez,, Gotzai Yaunaren Meza entzutera ettorriak... Meza kantatua izan zan eta Meza ondoren Gotzal Yaunaren eraztunari musu ernatea... Sei terdiak baziren elizkizuna bukatu baño len,.. Yaun artze bikaña izan du genuen, eta Gotzai Yaunak eta bertze Aita Misiolari batek eman zuten,

«Goizeko lauak baño len San Antonio'ren elizatxo batera yoana zan Aita Misiolari bat. Eta angoak egin zituztenean, ara nun berekin dakarzkien ezin konta al yende gure Gotzai Yaunari «aunitz urtez»-koa eman eta bere eraztunari musu ematera. Orduan bai gure eliz nagusia leporaño beterik gelditu zala.

«Egun orretan Guam'go Misió onetako Misiolari guztiak bildu ziran, eta argazkkxo bat «Zeruko Argia»-rentzat atera nai izan zuen. Olano eta Urteaga'tar Gotzai Yaun Agurgarria, «Aunitz urtez...».

Apaiztu ondoren urte batzutan izlari ibilli zan ñapar erri-txoetan, bidenabar lan eder-ederra egin zuen, bere erri ta inguruetan batez ere, aundaka ta eundaka itz oindio iztegiatan ez zeudenak —ezta Azkue'renean ere— jaso ta sailkatuaz.

Mamitu zizkigun olerkiak goxo-goxo egiñak daude.

(Ikus *Zeruko Argia*, 1931, dagonilla; S. Onaindia, MEOE, 966 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 569 orr.).

5.—AGUSTIN ZARRANTZ BERMEJO (1897-...)

Aita Polikarpo Iraizoz, kaputxinoa; «Urtsuia», «Irisarri» ere bai euskal literaturan. Bere «Urte guziko igande ta jaiegunetako Ebanjelioak (Iruña, 1933) azaltzean, «Zeruko Argia»-k onela egin zuen aurkezpena: «Urtero-urtero «Erriarentzako Liturgi» salla argitara ematen digu. Ona igaz argitaratu diguna: Urte guziko Igande ta Jaiegunetako Ebanjelioak. Euskera jatorrez jantziak, Iraizoz'ko Polikarpo A.'k egiñak diranez. Aski da berak egiñak dirala jakitea aintzakotzat ez ezik, txaloka ere artzeko. Naiz apaizentzat naiz errirentzat guztiz onurakor beraz» (*Z. Argia*, 1934, azaroa, 374 orr.).

GIZONA.—Nalarroa'n, Ultzama ibarreko Iraizoz erritxoan sortu zan 1897-1-37'an. Altxatzu'n ikasi zuen latin eta abar, 1908-1912 bitartean, Sangotza'n egiñik profesia ta bostgarren latin-urtea. 1914'tik 1917'ra Ondarribi'n Filosofia ta Iruña'n Teologia burutu ondoren, bertan apaiz sagaratua izan zan 1921-3-26'an. Ondoren, urte bete ta erdi lez egin zituen Zu-

rich'eko *Ikasgu* Nagusian ele-jakintza edo Filolojia romanika ikasten; Euskaltzaindiak bekaz lagundu zion ortan (*Eurkera*, 1921-12-29, 3'gn. urtea, 14 orr.).

Gero, 1923-1930'an, Iruña'n daukagu, bere apaiz-egikizunetan eta «Zeruko Argia»-ri kontu egiten. Emen idazten ditu olerkiak, salmu-ifzulpenak, musikarako itzak, ugari. 1930-1950 bitartean Lekarotz'en bizi da gazteen irakasle ta bidenabar arimadanak etxeko elizan eta inguruetakoko erririk geienetan euskeraz buruturik. Urte mordoren ostean, beste ogei urtez, 1950'rik 1972'ra, Erroma'n Ordenako Zadorlaritzan, Sekretaritzan, buru bezela egin zuen. Geroztik Lekarotz'en daakazu.

EUSKAL LANA.—Anitz lan egiña duzu A. Iraizoz, euskeraz ta erderaz, bere bizitzaldi osoan. Ondarrabi'n jakintza ikasten ari zala ekin zion aztuxe zeukan euskeraz sustraiz jabetzen. Sortu berri zan Euskaltzaindia bera ere laster konturatu zan aren balioaz, eta al zuen guztietan lagundu zion: Euskaltzaindiko da aspaldi danik.

Idazle, berriz, 1919'an «Zenuko Argia» ateratzen asi zanezik dugu. Aita Intza ta Oieregi izan ziran «Irugarrengo Prantziskotarra» ta «Zeruko Argia» asi-azo ta arnas aunditan aurrera atera zituztenak; oien artekoa genduen A. Iraizoz ere. «Gai mamitsua artuta —diosku A. Yurre'k—, lan argi ta polit-politak euskera erraz ta errikoi ta ulerterrazean egin oi zituan; bestetan berriz olerki txanbelin ta bioztiak, kataluineratik edo alemaneratik edo gerkeratik edo heberkeratik edo latinetik... Kontu irakurgarri ta politak, batzutan bereak, besteetan izkuntzetatik itzuliak... Zein ederki ta egoki noski! Irarrutsak ere berak zuzentzen zituan...». Zenbaki bakoitzean bi-iru lan bereak ziran.

Erria ere, apaiz bezela berea zuen erria, etzeukan piper utzia. Igande ta jaiegunetan albokoetara, napar-mendialdeetako

euskal erritara zuzendu oi zan, an eta emen, Kristoren itza ira-, garri, aitormenak entzun eta siñisgaiak erakusten. Urteak eman zizkigun jardun orretan.

IDAZLE.—Doi-doi aitortu dugu A. Iraizoz'ek euskeraz ta erderaz idazten zuela. Ikus itzazu banako liburuetatik batzuk,

a) *Euskeraz*:

1) *Urte guziko Igande ta Ebanjelioak* (Iruña, 1933). Erriarrentzako Liturji saillekoa. Neketako Ama Birjiñaren irarkolan. 83 orr.

2) *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia* (Iruña, 1934). Lau Ebanjelioetatik itzez-itzez aterata. Iruña'ko kaputxinoetan. 558 orr. «Zerako Argia»-n onela: «Begietarako oso atsegiña da: papera mea, fina, izkiak aundiak eta zabal jarriak, oso errez irakurtzeko eran; Xii eta 560 orrialde ditu; 38 edergarri, Jos. Speybrouck'ek egiñdc. Luze-zabalean gizonaren eskua ez du betetzen, lodian ez da beatz bat. Beraz sakela aundlaren bearrik ez du norik berekin beti erabiltzeko. Mamia oso banaturik dauka, zatitxoka irakurtzeko eran. Zer geiago nai litzake? Artu eta irakurtzea» 1935, otsaila, 2'gn azalean). Liburu onen gaia lenagótik, puskaka, «Irugarrengo Prantziskotarra» deitu aldizkarian argitaratua izan zan.

Sarreran onan azaltzen digu bere asmoa, lau Ebanjelio idazleak, Mateo, Markos, Luka ta Juan, aitatu ondoren: «Lau Ebanjelari oiek ez dizkigute beti berdin kontatzen Yesusen esan" egiñak; batzutan bai lauak berdin, beste batzutan berriz batek alde batera, besteak bestera; batek geiago, besteak gutxlago; batek gertakari bat jakiñarazten digute, besteak berriz ez. Guk auxe egin dugu bada; lau gizon oiek beren liburuetan dakazkiten berri guziak beren itzeldn, guk geren itzak sartu gabe, batera bildu ta gero ori euskeraz yarri euskaldunentzat. Gure lan au egiteko beste izkuntzetan egindako liburu asko begien aurrean eduki ta areta baliatu gerala aitortzen dugu» (*Sarrera*, XI orr.). Aita Iraizoz'en lana, beraz, «Eyangeliorum Concor-

dia» esan oi zaien oietakoa da. Beste euskal idazle batzuk ere olako zerbait egitan salatuak dira: leenengo Aita Añibarro, adibidez, eta oraintsuago Mundaka'ko seme. Bernardo Garro, «Otxolua»; auek tamalez ez dute oindio argirik ikusi.

3) *Lapurren menpean; Erensuge Gomaren soldadü-taldean atxillo egondako Misiolari baten oroitzapenük* (Iruña, 1935). «Zenuko Argia»-n dator 1935'gneko garagarrillean asi ta 97 orrialderaiño. Gerra sortu zalako etzan geiago azaldu, «Zeruko Arhia» itzali bait zan. Gaiñerakoa A. Iraizoz'ek berak dauka, eskuz idatzita. Itzulpena da, A. Soloeta, **Dima**'ko se* mearen «Mi cautiverio bajo el Dragón Rojo» (Buenos Aires, 1934) euskeralduta.

4) *Gurutze Bidea*. Bertsotan. Ainbat erritan erabili izan dute garizumaz eta Aste Santuz, egoki asko. Irutan gutxienez ikusi du irar-argia.

5) *Arimaren Zuzenbidea* (Gazteiz, 1952). Montepio Diocesano'n. 106 orrialde, Donosti'ko «M. B. Anal-etxe»-k babes-tuta. Donostia'r Gabriel/A. Kaputxinoak egña, A. Iraizoz'ek euskeraz. «Arimaren' bizitzan —dio egilleak— zuzen ibiltzeko ta irauteko aolku edo erakutsiak, Kristori benetan jarraiki nai dioten kristauentzat».

6) *Dabid'en Eresiak*. 150 dira guztiz Dabid erregearen salmuak. Iraizoz'ek zenbat lez euskeraztu ote zituen? Ez dakigu. Ez dira gutxi «Zeruko Argia»-n datozenak, baiña ez saillean, banaka, axerinka baizik, l'go salmua, «Beatus rir» —Zein zorionekoa dan, galztoekin. bat ere nasi gabe, beti Jainko-legearen bidetik dabillan gizona!—, «Zeruko Argia»-k 14 urte zera-mazkillatuta, 1932'gneko orrillaren zenbakian, 71 orr., dator. Eta orrelaxe ondoren, atertu gabe.

7) *Beste lan batzuk*. Aitaturiko liburu ta idatzi auetaz kanpo, ainbat gauza dauzka A. Iraizoz'ek «Zeruko Argia», «Iru-

garrengo Frantziskotarra», «Euskera», «Euzko-Gogoa», «Oler-ti» eta olakoetan, bertsoz eta itz askatuz argitaratuak, eta beste naikoa oraindik argia ikusi gabe.

b) *Erderaz:*

1) *Los Ideales de San Francisco de Asís* (Iruña, 1926), Aita Hilarino Felder'ena, doitzeratik itzulia. Bi ale, 297 ta 299 orrialdékin. Buruñurdunen irarkolan. Argentina'n egin zan beste argitalpen bat itzulpen beronena.

2) *Consejos de los Misioneros de China*. 30 orrialde. Iru-ña'n kaputxinoen irarkolan. Doitzeratik itzulia au ere.

3) *Jesús de Nazaret* (Buenos Ares, 1949). H. Felder'ena, itzulita. 327 orrialde. Desclee ta De Brouwer argitaldariaik.

4) *Crítica de Asís sobre el Cristianismo de Occidente* (Bue-nos Aires, 1950). Ata Thomas Ohm, beneditarrena, doitzeratik itzulia. Desclee de Brouwer'en argitalpenak. 159 orralde

5) *El Cadallero de Cristo, Francisco de Asís* (Barzelona, 1959). Felder'ena, doitzeratik biurtua.

Alemán zekilako, Nagusiak eskatuta egin zun lenengoenaren itzulpena; bestea, ordea, guda osteko urteetan burutu zituen, aldez euskeraz idatziak erdi-galazita zeudelako, ta aldez eskabi-deak artzen zituelako; itzultzen.ari izan zan, Berak baiña eus-kerazko lana izan du beti gogokoetik.

OLERKARI.;—Aldizkariak konta ezin ala idazle sortu ta ma-mitu izan dituzte, txalogarri dira beraz beren atea, idazle gaz-teentzat batez ere, zabal-zabalik uzten dituztenean. A. Iraizoz'ek ba-zuen bere asmakizunak eta biozkadak nun adierazi: «Zeruko Argia». Itz lauz ez ezik, gazetetan asi zan bertso^lantxoak ere onduten. «Zeruko Argia»-ren 1919'gko 5 zenbakian, 83'garren ornan dator beronen lenengoetako bat, «Aurtxo gaixoa» deritzaiona.

«Aingeruen artean
Aingeru egiñik,
begira dagokizu
zeru gorenetik»,

diño poliki asko. Ez dezu egundo txcri-kantu asi-berrienik entzun? Alaxe izan oi dira, ezpai barik, olerkari guztien lenasperenak ere, egiñago ta gotorrigo doaztenak: leenengo! kontu ta ipui motzak, olerkitxoak, norberarenak naiz itzuliak; gero, iraupena duen artistari dagozkionak, ausartak, jaso ta biziak...

Era orretan, xamur eta erabakitsu, garrantzizko zeregiñetan bizitzaldia eman bear izanik ere, barneko ari olerkizkoari dardar eragiñaz ainbat olerld-lan goxo osotu dizkigu: salmuak, aur-kantak, amalauko giarrak... Ondorioz, egiazki esan zezakean L. Mitxelena'k: Aita Iraizoz'i «zor dizkiogu doixtar olerkari erromantikuen itzulpen leunak eta oraiñago «Irisarri» izenordepean, osoz eder diran soneto sail bat eskeiñi digu, euskeraz idatzi diranik oberenak dituzu bear bada». Eta ondoren, elizizlaritzak eta uzkuertz-literaturak, beti bezela, Euskalerrian izen aundiko idazle batzuk ditugula aitortu ostean, J. B. Eguzkitza Bizkaia'n, Aita Polikarpo *Iralzoz* Nafarroa'n eta Aita Iñaki Manzidor Gipuzkoa'n aipatzen ditu gallenen artean, A. Irazoz-gatik gutxik bezela darabilela euskera esanik.

Irigarai jaunak onela «Yesu-Kristo gure Yaunaren Bizitza»-ri buruz: «Aita Iraizoz'ek duen euskera eder errkoi duzu] ez ulertzeko erreza bakarrik, baita irakurtzeko atsegingarri ere. Egillea, alaxe, euskaldun idazlerik fiñenatarikoa da ta erri-izkuntza ta esakera politak ondo ezagutzen dituna. Geiena gipuzkera du, ta aski napartarra ere, lapurtar adizkerak iñoizka sartzen ditula. Euskaldun irakurle edozeiñentzat irakur-idazti ezta izango noski, euskal liburuak izan bear lituzteken baldintza biak bait dauzka: gai aldetik *interesa* ta erakarpena, oneran Jesus'en Itza bera da, ta erabilli dan *izkera* erreza ta laua, ots, gure baserritarren euskera bizi-bizia» (RIEV, 1935, 397).

Oierkari bezela, diot nik, gauzak alderdi leunetik soegiten dakiana dala A. Iraizoz; eskeñi dizkigun lan guztietan orrela agertzen da, mee, goxo ta ditzikor. Badaki gaia aukeratzten, eta gai ori jantzi nabarrez apaintzen. Olerkariagan beti gaia ta izkuntza eskatzen zaizkigu.

(Ikus *Yakintza*, 1935, 404 orr.; RIEV, XXVI, 1936, 387 orr.; S. Onaindia, MEOE, 992 orr.; L. Mitxelena, HLV, 153 orr.; BAP, Akesolo, *Jaunaren Deia*, 1972, abendua, 41 zenbakia, 313 orr., eta 1951J5²⁵ orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 17o orr.; L. *Diario Vasco*, Donosti, 1973-2-18'an, Kardaberaz Taldeak igandero idazten duen saillean; J. Bilbao, *Eusko-Bibliografia*, IV, 404 orr.).

6.—MIKEL ALTZATE EGOZKUE (1899-...)

Ai kaputxinoa. Leitzarra. Altzatzu'n, Sangotza'n, Ondarribi'n eta Iruña'n ikasi ondoren, Iruña'n bertan apaiztu zan 1925'an. Gaur Iruña'ko komentuan bizi dan arren, Arjentina'n igazi izan digu bere bizitza osoa.

Leitza'n jaioa dalarik ere, bera ume zala sendia lekuz aldatu ta Iruña'ra joan zalako, umetan ez zekien euskerarik gutxi-gutxi baiño. Ikasi egin zuen alere, eta «Zenuko Argia»-n idazteraiño ikasi ere. Berau izan zan, gaiñera, 1954'an, Euskalerrira itzuli bat egin zuenean, aldizkari eder au berriz sortzeko orotariko aalegiñak egiñik, lenago legez argitaratzea lortu zuena.

Urteetan egin izan du Arjentina'ko Euskal Etxean euskera irakasetea. Orren frutu bezela ba-du liburu aipagarri bat: *Elementos del Idioma Vasco* (Buenos Aires, 1928). «La Baskonia» irarkolan. 78 orrialde.

7.—AINGERU IRIGARAI TA IRIGARAI (1899-...)

Gizaldiak zear, euskaldun seme jatorrak sortu dizkigu Bidasoa ibai ertzean poliki datzan Bera uri xarmantak; askoren artean, Pio Baroxa, eleberri parasta erderaz mamitu ziguna.

Ementxe, Bera'n, jaioa dugu aingeru Irigaxal euskal idazle yaioa ere, 1899-3-1'an. Leen-ikaskizunak bere sorterrian burutuz gero, batxiller eta mirikuntza ikasi zizkigun. Ondoren, ain zuzen ere, Iruñean daukagu 1926'an ango Erruki-Etxeko sendalari, eta 1929'an uriburu artan bertan Txikien Ebaztegioko osasun-j agole.

Geroztik, Donostia'ra aldatu ta bertan bizi da.

Auritze'ko seme argi Fermín Irigarai osagille ta euskal idazle ugari jasoaren semea duzu. «Apat-Etxebarne» darabil lanak izeopetzean.

EUSKALTZALE.—Nolako egurra alako ezpala, dio esakun zaarrak. Aita idazlari bizkorra zanezker, semeak ere tankera ortako izan bear. Gazterik asi zitzaigun idazten, bai euskeraz eta bai erderaz. Idatzi du bereziki; «RIEV», «Gure Herria», «Anuario de Eusko Folklore», «Euskera», «Yakintza», «Euskal Esnalea», «BAP», «Egan», «EID», «Principe de Vlana», «Diario de Navarra», ta beste aldizkari batzuetan.

Benetako gizonaren zentzuak eskatu bezela igitzen du beti bere luma jakin aditua. Artzaillea barik, emalea dala adikatzen dana, esan oi da; emen bestera aitortu bear; Irigal etzaigu egundo ere ematen aspertu. Sendia aurrera atera bearrak lan eragin dio, idazteko ere orraitio izan ditu oraindik bere asti-uneak: betaz egon zaigun guztietan idazteari ekin dio, euskal gaiak begi argla egiñik.

Orrez gaiñ, 1929'an sartu zan Euskaltzaindian laguntzaille bezela, ta 1941'an euskaltzain oso izendatua izan zan. Ortan ere, euskal alkarte onek illero ospatzen ditun batzarretara joanik, lan txalogarria egon izan digu. 1951'tik ara, ots, *Egan* sortu

zanetik, Antonio Arrue ta L. Mitxelena'kin batera, aldiz-kari berria zuzentzen du, bertan lan zenbait, «Naas-maas» deritzan saillekoak batez ere, argitara emanik.

Ona argitaratu dizkigun liburu ta lanik beiñenak:

1) *Lakoizketa apez jauna eta euskera* (Bermeo, 1926). «Euskal-egunetako Itzaldiak»-en dator, 61'garren orrialdean.

2) *Traducción al vascuence de un Capítulo de «El Quijote»* (RIEV, 1928, XIX, 598 orr.). Separata bezela (Donostia, 1929), eta gero BAP (1947, III, 197 orr.). Cervantes'en liburu ospetsuko IX'garren atala duzu, euskaldun (bizkaitar) lerdin eta mantxatar kementsuaren arteko borroka azaltzen duena.

3) *Oihenart, poeta* (RIEV, 1928, XIX, 71 orr.).

4) *Un acta de ayuntamiento en lengua vasca* (RIEV, 1932, XXIII, 665 orr.).

5) *Cantares de Navidad, Año Nuevo, etc.* («Anuario de Eusko folklore», 1933, XIII, 9 orr.).

6) *Euskaldun antzertia* («Gure Herria», 1933, XIII, 316 orr.).

7) *Una poesía de Chamisso sobre Etchahun* (RIEV, 1933, 618 orr.).

8) *Euskaltzaindiaren laguntzaleak* (EID, 1933, XV, 10 orr.).

9) *Documentos para la Geografía lingüística de Navarra* (RIEV, 1935, XXVI, 601 orr.).

10) *Euskal liburu zaarretako zenbait yakingarri* («Yakin-tza», 1936, IV, 83 orr.).

11) *El euskera en Ar tajona* («Yakin-tza», 1934, II, 128 orr.).

12) *XVII garren mendeko iru eskutitz* («Egan», 1955, VIII, 1-2, 10 orr.).

13) *Naas-maas* («Egan», 1956, IX, l'an asita amar bat artikulu).

14) *Euskal-literaturaren bilduma laburra* («Egan», 1956, 1, 12'garrenean asita zazpi lan jakingarri.

15) *Euskalerriko Ipuiñak* (Zarautz, 1957). Itxaropena irarokolan 232 orrialde. «Kuliska Sorta», 17'garren zenbakia. M. Lekuonak onela: «Ipuiñak, izkuntza guztien literaturaren zatirik oituenak izan oi dira. Oituenak, eta ederrenak ere bai. Esan dezagun, ordea, ipuiñen gai au, gizon landuena ez baño erri xumearen sorkaria areago izan oi dala. Ipuiñik —ederrena— jaberik gabeak izan oi dira, literatura orotan, ots, jabe bakoiztarrik gabeak; erriarenak, izen gabeak. Orregatik ipuin-sortarik geienak, «bilduak» izan oi dira. Irigarai jaunak gaur aurkezten dizkigunak ere, alaxe dira: erriaren aotik «bilduak» —ale batzuek ez bestea—. Biltzalleak, Barandiaran, Azkue, Caro, Irigarai... Irigarai jaunak euskeraz ikasteko-edo argitaldi ditu. Bañan gure idazleentzako gai bezela ere aukerakoak bait-dera. Edo-ta ethnographoentzako, beren ethnographilanak osatzeko» (EGAN, 1957, 5-6, 363 orr.). Beronek antolatu ta argitara zigun balta, Kirikiño'ren *Abarrak* libururik jasota, beste sail bat ere.

16) *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako Euskal idazlanak* (Iruña, 1958). Enrike Zubiri Gertari (1867-1943) eta Pablo Fermín Irigarai Goizueta (1889, 1949) idazleen lanak. Gomez'en irarkolan. 193 orrialde.

17) *Lizarraga Elkano'koa* («Euskera», 1959, IV, 119 orr.).

18) *Mogel eta Literatur-euskera* («Egan», 1959, XII, 130 orr.).

19) *La lengua vasca en los siglos XVI al XIX* («Geografía histórica de la lengua vasca»-n dator, askoren artean egiñiko lana, Auñamendi bilduma, 13'garren zenbakia, 67-106 orrialdeetan.

20) *Poesías populares vascas* (Donostia, 1962). F. Michel'en «Le Pays Basque» liburuko XX'garren kapitutua euskeraz jarrita. Auñamendi bilduman, 22 ta zenbakiak,

21) *Esbozo crítico, con textos, de literatura euskara profana* (Iruña, 1965). «Principe de Viana»-n lenengo, 98-99 zínbaketan, eta separata bezela gero.

22) *La obra dei Príncipe Bonaparte* (Donostia, 1966). Separata, BAP'ettk, XXII, l'go ingurraztia. 10 oriralde.

23) *Noticias y viejos textos de la «Lingua Navarrorutnr»* (Donostia, 1971). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A.'k aterata, Juli Karo Baroxa'ren itzaurrea. Lau zati ditu: 1) Joan mendeetako euskal textuak; 2) Gure edestiko kimu naikoa; 3) aur-jolas, ipuin eta olakoak; et a4) Elebitsu edo bilinguismua ikutzen du. «Liburu atsegiña dugu —dio J. San Martin'ek—, berri, xehetasun eta gehigarri askoren txokoa» (*Egan*, 4-6 (1970) ta 1-6 (1971), 89 orr.).

24) *Onaindia-rren «Euskal Literatura» liburuan buruzko lanak* («Egan», 1-6, 1973, 113 orrialdean, eta «Diario de Navarra»[^]).

25) Ainitz kritika, berri ta xeaztasun «RIEV», «BAP», «Principe de Viana»-n eta abarren, Txomin Aguirre, Azkue, Axular, Bustintza, Y. Etxaide, N. Etxaniz, Loidi Bizkarrondo, Gaxitegi, F. Idoate, J. Garate, J. M. Iribarren, Iturriaga, P. Iraitzoz, Lizardi, L. Mitxelena, R. Tagore, A. Trueba. Oskar Wilde, P. Zamarripa, Tournier-Lafitre ta beste askoren idaztiak aztertu ta bere iritzia, beti neurritsu ta sen aundikoa, adierazi ta emanez.

Gaiñezkakoa litzakigu emen nola idazten duen galdezka aritzea. Ez al dugu guztiok ezagun? Ala ere, irakur zazu zati-txo au, beiñola bezela gaur ere, bizi asko gure literatur-euskeraren inguruan darabilgun auziari buruzkoa noski.

«Dakusagun —<io— zer zioten duela 40 urte euskalari ezagun batzuek. Ezta oraikoa eskuara bateratu baten .griña:

1922 urtean, Euskaltzaindiak lau batzarre bil-arazi zituen horretarako, Bilbon, Donostian, Baztanen eta Hazparden. Entzun ziran 14,15 kitze eta opinione kolore guzitakoak, eta oroen gai-ñetik Broussain orduko-Hazpameko alkatearen eta Champion izkiriatzalllearen informea. Harritzeko da bi jaun jakitsun horien azalpena... Emanen ditzuegu aditzera opinione batzu, on balta ikustea zenbait gauzetan aitzinamendu poxibat dugula; eztu balio beti nigarrez eta etsiturik ibiltzea.

«Broussain eta Champion jaunek ez dute bere izkiribuan alde bat autatzen euskalki bat literario gisa, besteen kalte ez egiteagatik, baina gipuzkoarraren alderat ixurtzen dira. Naiz bizkaitarra, diote, bardiñena den, sendoena eta edatuena; lapurtarra ongienik izkiriatua, eta ziberotarra izpkitutsuena. Gipuzkoarraren eta lapurtarraren arteko autsi-mautsi bat proposatzen dute, besteetatik ere hartuz. B. Gaubeka, Bermeoko liburugilleak dio; bizkal-eskuara, autatu besteak baztertu gabe, eta erdal usaiñeko hitz oro kendu. Mikolas Cortes, Bilbao>ko apezak dio: eztela euskalki bakar bat autatu behar *langue littéraire* bezala. Aski dela aur euskaldunei irakurtzen irakastea; eta euskera hori erritarra nai du, eta ez garbizaleena. A. Zabala Arana gramatikalaria gipuzkoarra ere, euskalki bakarraren kontrakoa da.

«Federiko Belaustegigoitia, Garitaonandia («Argla»-ren zuzendari zena), Eguzkiza eskualzaina, eta Azkue gure eskualzain buru malte zena, lauak bizkaitarrak, giputz euskalkiaren alde dira. Eta Azkue horren inguruan eraiki nai izan zuen gipuzkera osotu hura. Bide bat sumatzen zitaion gipuzkoera osotua delako horri. Eta Franziako eskuaraz ez zen guri bezik axolatu.

Belaustegigoitia iskribauak zion: «Euskera bakar batera joan laster edo erdera bakar batek lurpetu (ehortzi). Gipuzkoako euskera (eta euskera erreza eta errikoa) ala erdera, guretzat beste biderik eztago».

Amayur-ko erretore ospetsua iskiriatazaillea izan zen Gurutz Goienetxe jaunaren opinioea irakurri nai dautzuet, zentzun handiko hitzak direlakotz denbora haietako... Nere iduripena deus gutikoa bada ere, aal bezain lañoki eta garbi emanen dut. Guzien gogorako gauza litzake eskualdun guzien artean odolez bat garen bezalaxe, eskualera bakarra izatea. Baiñan erran beharko baitugu naski aspaldiko itz neurtzailleak ziona: *Video meliora, proboque, deteriora sequor...* Bearko. Ikusten dugu denek oberena litzakela eskualera bat artzea; baiñan denekin gelditu beharko. Zergatik? Hará zergatik. Urrats horren ematea gauza zailla, nekosa eta eskuararentzat kaltegarria izan laikelakotz.

Hori egitekotan, bat bear genuke artu. Zein? Ezta errex erabakitzea. Eskualdunek buru gogor aire bat ba dugula dera-sate bazterretan; hori ez ala izan ta ere, au bai egia aundi bat da, eskualduna atxikia dela bere gauzei, baita bear ere; eta ez luke neork nahiko bere amaren altzoan ikasitako *era* bazterrerat uztea, zokorat igortzea.

Euskalki guzietarik bat artzea orai bein, ez da egoki den gauza. Erran dut, *orai bein*. Gero zer egoki izain den, geroak erakutsiko du. Eskuararen batasun hori, ez indarka, baizik bere baitatik etorri bear den gauza da. Guzien gogorakoa. On aundiak emain luzken gertaera; eta denek, bakoetak egiten aal dute-na egiñez, urraska urraska bilatu bear duguna...

Eskuara izkiriatuaren batasuna, ezin da beraz erdietsi Euskaltzaindiaren agindu edo gramatika baten medioz, horiek denak ametsak direlakotz; bainan izkiriatailleek asko egin dezaketela nago, euskara idatziaren desberdintasunak ttipitzeko; gero eta geiago edatuz izkiributan erdiko-eskuara edo erdiko molde bezalako bat» {*Gure Herria*, 1959, 233 orr.).

Ar nal izanez gero, bada emen zentzun-alerik.

(Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1957, 5-6, 363 orr.; A. Arrue, *Egan*, 1958, 3-6, 238 orr.; N. Kortazar, *El Bidasoa*, 1960, 758 zenbakia,

8 orr.; N. A. G., *Egan*, 1965, 1-6, 141 orr.; P. L. Henry, *Folklore*, Dublin, I, 1959; J- San Martin, *Escritores euskérikos*, orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 601 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 418 orr.).

8.—MANUEL MARIA APALATEGI ZURUTU.ZA (1901-...)

Aita Ataun'go Bonipagi, Ataun-San Gregorio>'ko «Sabiagá» baserrian jaio zan 1901-6-13'an. Altzatzu'n ikasi zigun latin eta abar (1914-18); Sangottza'n egin zuen iru botoen eskeintza, 1919-8-15'an; Ondarribi'n Jakintza ta Iruña'n Urtziztia ikasi ondoren, Mateo Muxika'ren eskuz kaputxino-apalz sagaratua izan zan 1927-6-11'an. Bertatik lan ikaragarria egiten asi zan, izlari ta idazle, Lekarotz'en, Donostia'n eta Ondarribi'n bizi izanik; 1933'ko urriletik, Aita Dámaso Intza gexorik zegoela-ta, «Zerako Argia» ta «Irugarrengo Prantziskotarra» beronen zuzentzapean utzi zituzten nagusiak.

1936'an, gerra sortu zanean, Ond'arribi'n aurkitzen zan, eta uztaillaren 19'an Guadalupe'ko espetxean sartu zuten; baiña laster Frantzia'ra aldatu al izan zuen, Baiona, Tolosa, Barzelona, Valenzia, Madrid eta abarretik ibilliaz 1938-12-5'an, ordea, Tolosa utzi ta Arjentina'rako bidean jarri zan. An Buenos Aires, Kordoba, Mendoza... izan ditu bere biziko lantegiak: iñoiz aspertu gabe lanari ekin dio, etxeko nagusi ta elizetako parroku bezela sarri: irakasle ta aolkulari, makiña bat dakite Nueva Pompeya'ko komentu ormak, esate baterako: ainbat batzar eta itzaldi,, apostolutza lanetan! Urtez urte Arjentina'n egin duen lana, eta egiten ari dana, ez da errez adieraztekoa.

EUSKAL IDAZLE.—A. Bonipagi'k maite du Euskalerrria, eta maite du baitik bat euskaldunen izkera. Ikasle zala asi zan idazten: 1920'gn. jorrailleko «Zeruko Argia» zenbakian dator bere lenengo euskal lana. Geroztik, apaiztu ostean batez ere,

idatzi zuen aldizkari ortan, eta «Irugarrengo Prantziskotarra»-n. Ainbat gezur-izen erabili ditu lanak azpi-marratzeam; «Sabiaga», «Irular», «A. B. A.», «Legatemendi», «Prantziskotarra», «Ekain», «Ereñotzu», «Aritzosto», «Gudariarteko», eta abar. Aitaturiko bi aldizkari aletan ez ezik, Donostia'ko; «Argia»-[^] «Yakintza»[^], «El Día»-n, «Lecaroz»-en, «Edutes Franciscaines»-en, «Nueva Pompeya»-n, «Euskal Esnalea»-n, Buenos Aires'ko «Boletín Americano de Estudios Vascos»-en, eta abar; Boletín au berak zuzentzen du aspalditik.

Aipagarri dituzu bere liburu aukerak;

1) *Egiatzko Jainkoa* (Donostia, 1932). Antzerkia, iru ekitalditan. Salestarren «Santa Justa y Rufina». Euskeraz. 63 orr.

2) *Asis'ko Frantzisko Deunaren Bizitzatxoa* (Iruña, 1932). Irudi ederrez apalnduta.

3) *Asis'ko Beartsu Maitalea. H. Gheon'en* «La Vie profonde de St. Francois d'Assise», euskeraz.

4) *Instituto Americano de Estudios Vascos* (Buenos Aires) 1943'an irasia. Ainbat idatzi du A. Ataun'ek aldizkari ortan, bal euskeraz eta bai erderaz; balta itzaldi ederrak eman ere, «Francisco de Vittcria», «Bernard d'Etxepare», «Azkue» ta olako galetaz, alkarte orren babesean.

5) *Erriarentzako Liturgia. Aste Nagusia* (Iruña, 1931). Nekeetako Ama Birjiñaren irarkolan. 39 orr.

6) *Euskál-Irákaspidea. Gramática dei Euskera* (Donostia, urterik gabe). Giputz euskalkia. Arrigaral'rena, A. Ataun'ek arzetu ta geiturik. «San Ignacio» irarkolan. 477 orr.

7) *Clave de Temas. Itzulbidea* (Donostia, urterik gabe). Gipuzkeraz. Arrigarai-Ataun. «San Ignacio» irarkolan. 111 orr.

8) *Amal* (Yakintza, 1934, 19-32 orr.). R. Tagore'n antzerkia, euskeraz.

9) *Gure Aditza. El verbo vasco.* (Buenos Aires, 1960). «Ekin» etxe argitaldairiak. 179 orrialde.

Ba-ditu oraindik ari ta oni egiñiko itzaurreak eta liburu-agerkunde ta aurkezpenak; T. Jakakortajarena'k itzuli zuen *Matxin Burdin* (Buenos Aires, 1972), adibidez.

Liburuotatikj neretzat, «Euskel-Irakaspidea» duzu ederrena, besteai ezertxo ere kendu gaberik. Nik, eta nere antzera beste askok, erabli izan dute euskeraz sakon ikasteko; arrobi bikaiña noski, aditza ikasteko ta euskal esaera txanbeliñak. Ederki diño «Zeruko Argia»-k (1932, ilbeltza) paper orian); «Euskal Irakaspide au, berritua, zuzendua ta jakingarri askotan ugaritua izan da. Izkuntzak ikasteko gaur erabiltzen dan irakaspideari darraikio Ataua Aitak. Ariketa asko ikaskai bakoitzaren ondoren. Eta atzetik oraindik Itzulgaiak ipintzen ditu. Onela ikasleak ikaskai bakoitzeko itz berriak eta aditzaren erabilketa berria, erraz ikasi lezake. Aditzaren jira-biretan lengo irakasletatik berezi egin da. Iketazkoa, zuketazkoarekin batu egin du, bigarren lagunean. Euskaldun jator batek sustraiz ta bere jira-biraren zuzentasun ta zorroztasuna ikusteko egoki dago. — Erdaldun euskera ikasten asten danak ere, berritze onen izpidea edo arrazoia bereala ikusiko du. Baño zuketako bataren eta askoren jirarbira bereixtea ezta erraz egingo. Bein oartzuz gero, ta iketazkora oitzen asi, bi erabilkerak, naiz zaketazkoa, nalz iketazkoa laxtarrago edo batean ikasi dezazke. Irakasle batek ikaslerik motelenari ere, bereixkuntza ori garbi egiten erakutsiz gero, erraza ta maitagarri egingo zaien Irakaspidea irudi zaigu».

.Ezta naikoa,-euskal idazle ona izateko, euskera sustralz jakitea bakarrik; idazleak berak esanari ezarten dion sena, gozotasuna, bizitasuna ere bear-bearrezkoa da. Doai biok dauzka A. Ataun'ek. Irakur, eredu bezela —, «Paduako Antonio Deuna Euskalerrian» izenpuruz beñola idatzi zuen lañaren zatitxo au.

«*Arbiña*. Sukarrietako lurretan, Santindere zarra egon zan ugartetxo ondoan, izen bereko ondartzan dago Antonio deunaren amaren aldeko smandrearen sortetxea¹ dala diotena. Gaur

egunean, elizatzko orren garako aldean dago Bilboko Aurrezki-Kutxak egidak© «Begoñako Andre Mariren Aur-etxe» ikusgarria.

«Iturriza, Bizkaiko edeslariak dionez, emezortzigarren men-dearen azkenaidera egiña da elizatzko ori. Busturia inguruko kristauak egin zuten guzien artean'. Berori egiteko asmoa berriz Gernikako andre batena izan zan: Eriandi zegolarik, elizakoak ere artuta, Antonio deunari otoitz egin zion, senda zezala; eta baldin sendatzen bazan, Sukarrietan aren izeneko eüatzkoa jasotzeko egiñalak egingo zituela agindu zion; eta arako irudia berak eramango zuela. Andre ura sendatu zan eta baita elizatzkoa egin ere. Inguru aietako kristauak eraspén aundia erakusten diote elizatzko orri; bañan ez dira asko izango noski, Arana eta Goiri' tar Sabin argi eta jainkozkoak baño eraspén aundiagoa izan zutenak elizatzko apal arentzat. Ekaitzen indar ondagarrietatik begiratu naiez edo, berak sartu zituen oraindik ere elizatzkoari itzal egiten dioten zuaitz ederrak; eta elizatzko ortan egin zuen bere eskontza... Antonio deun pakezalea, bere etsai guzietatik begira ezazu maite zaituen Euskalerrria!» (*Zeruko Argia*, 1932, garagarrilla, 104 orr.;

Olerkigintzan ere egin zizkigun bere saioak «Zeruko Argia»-n, eta oraindik ere egiten ari da «Boletín dei Instituto Americano de Estudios Vascos» dalakoan. Ba-du ederraren sena, ta euskal joskera biribilük.

(Ikus P. Felipe de Fuenterrabia, *Ensayo Bibliográfico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragóh* (1900-1950); A. Irigarai, RIEV, 1934, 199 orr.; J. San Mañtün, *Escritores euskéricos*, 29 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 69 orr.).

9.—JOSE FRANTZISKO OTERMIN OLASAGARRE
(1902-...)

Intza'n jaiotako Aita kaputxino onek ere, naiz-ta euskeraz askorik idatzi ez, merezi du emen lasterreko aipamena beintzat.

Eliz ikasketak osoturik, 1927'an eman zuen meza berria Iruña'ko kaputxinoetan. Euskaltzale sutsua zetorren gaztetatik, euskeraz ederki zekiela. Baiña mezakotu ta bertatik, nagusiak Txile'ra bialdu zuten mixiolari, eta an diardu oraindik ere bere arima arloan.

Lenengo urteetan ainbat lan txanbelin agertu zituen «Zeruko Argia»-n. Ipuin politak, esaterako, bertsoz ta itz lauz, berak egidako marrazki asmotsuz apainduta. «Ikasi, Ikasi!» zan bere saila, 1930-1933 urteetan argitaratua.

10.—JESUS FLORES GONI (1904-1936)

Arbitzu'n jaioa. Aita kaputxinoa. Eliz-karrera bukatu ondoren, Iruña'n apaiztu 1929-3-29'an, eta lau illabete doi-doi igarota, nagusiak Txina'ko lurraldeetako Pingliang'era bialdu zuten mixiolari. Baiña an itxaropenez beterik lan zegiala, «tifus» dalako gaitzak jo ta, 32 urte besterik ez zituala, 1936-5-24'an il zan.

Ango kronikak bialtzen zituen «Zeruko Argia»-ra poliki idatzita.

(Ikus *Zeruko Argia*, 1934, garagarilla, 291 orr.).

IL—JUAN GOIKOETXEA ZABALO (1905-1973)

Lezaeta, Larraun ibarreko erritxoa dugu, Lekunberri ta Azpirotz'tik urbil xamar. Ementxe jaio zan J. Goikoetxea 1905-

11-19'an. Náparra izanik ere, Gazteiz'en egin zituen bere apaiz-ikasketak. 1928'an artu zuen apaizgoa, eta bertatik Ultzama'ko ibarrean, ots, Ilarregi erri paketsu sekulakoan asi zan bere arima-zerbitzuari buruzko lanetan. 1933'an, ala ere, Arbizu'ra, Arakil ondoko erritxora aldatu zuten, eta ementxe eman zuen eriotzaren deia artu zuen arteko' guztia, berrogei urtean noski.

«Euskera» aldizkariak onela: «Berrogei urte hauetan, bere buru argi eta bihotz zabalean arkitu izan dute beti Sakanako apaizkideek kontseilari jatorrena. Euskaltzale kementsua, Arbizu-ko herria dugu bere lan sakonaren lekuko. «Halako aipaiz asko behar zituela Eskualeniak errepikatzen zen ahoz aho; eta hauxe da egin genezakean aipamenik hobereana. Arbizu-ko herriak omenaldia egiña dio» (*Euskera*, 1974, 438 orr.).

Euskaltzaundiko laguntzaille zan. Eta, zazpi zortzi urtez, Iruña'ko «Principe de Vis na» euskal aldizkarian idazten zuen; elix-gaia zuen beti maite.

Donostia'n il zan, 1973-6-30'an.

(Ikus J. San Martin, *Euskera*, 1977, XIX, 463 orr.).

12.—BERNARDO ESTORNES LASA (1907—...)

Erri ertilariak -dela an dela emen beren oroigailu yaukalak euki oi dituzte; Italia, adibidez, oietakoa dugu. Olako zer-bait da emen; ertilari bipil baten oroitzapenez jasotako arri-mokor biziaren aurrez-aurre gaudela dirudi: nik bederen orrela ikusten dut Estornes Lasa'tarren lana. Lan izugarria, ziñez, Euskalerrriaren aide burutu dutena. Ta olako gizasemeen begitan, iñor ba'gara beintzat, txapela erantzi bear dugu.

Iru anal ditugu gaur ere ortan ari diranak; Bernardo, Jose ta Mariano. Irurok langille aspergaitz, irurok erraldoi euskal kulturaren arloan.

Izaba'n sortua duzu Bernardo E. Lasa, 1907-5-1 lan. Izaba'n bertan egin zituen lenengo ikasketak, eta, 1923'tik aurrera, Zaragoza'n ikasi zuen, Salerosketan Ikerle ta Maixu titulua lorturik. Orduantxe asi zan etzekian euskera ikasten ere. 1930'an Donostia'n daukagu, Eusko Ikaskuntza'ren Liburutegiko buru dala. Idazten diardu Bilbao'ko «Euzkadb[^]n, Iruña'ko «La Voz de Navarra»-n eta RIEV aldizkarian bere lanak azaldurik. Garai ontan sortzen du «Beñat Idaztiak» liburu sorta, edo-ta «Zabalkundea» sorta, 20 aletik gora argitarara emanez.

Gerra zala-ta, Frantzia'ra iges egin zuen, beste askoren antzera. 1936-1940 tartean, bertan bizi da, Pabe'n, LiUe'n eta Le Havre'n. Paris'ko «Euzko-Deya»-n idazten du. Iñazia Zubizarreta Etxabe'rekin ezkontzen da. 1940'an Txile'n daukazu; angou euskaldunen «Batasuna» ta «Euzkadi» agerkarietan idazten digu, baita bertako «La Nación» eta «El Mercuricx» izparringietan ere. 1958'an Euskalerrira biurtzen da, Donostia'n bere egoitza jarririk; urte ortan sortzen ditu «Auñamendi», «Aralar» eta «Azkue» bildumak, eta 1960'an eratzten du «Auñamendi» elerti-artxibua, 1967'an, Sangotza'ko Lore-Jokuetan, lenengo saria eskuratzen du bere «Erronkariko kor gizon» olerkiarekin; urrengo urtean ere, Sangotza'ko Lore-Jokuetan, sari-tuak izan ziran bere «Gabrieliko jurazailearen garaiko» ta «Cuentos roncaleses». Donostia'n bizi da, bere bi anai, illoba Idoia Estornes Zubizarreta ta I. Goikoetxea'rekin, «Auñamendi» bildumetan lan gotorra osaturik.

IDAZLE.—Ezta errez B. E. Lasa'ren liburu-zerrenda osoa ematea. Beude emen ala ere, izabatar argi onen idatzirik irtenenen bilduma beñik-bein.

1) *Erronkari (El Valle del Roncal). Geografía, historia, costumbres* (Zaragoza, 1927). «La Academia». 291 orr.

2) *Sabin euskalduna* (Zarautz, 1931). Eusko Argiáldaria. 126 orr. Irakurtzeko liburua.

3) *Mapa de Euzkadi* (Zarautz, 1932). Euskeraz.

4) *Resumen biográfico basko* (Zarautz, 1933). Editorial Vasca. 15 orr.

5) *Historia del País Basko* (Zarautz, 1933). Editorial Vasca. 448 orr.

6) *Indumentaria baska* (Zarautz, 1935). Itxaropena. 152 orr.

7) *Historia Baska* (Zarautz, 1935). Itxaropena, 124 orr.

8) *Euskal-Edestia* (Zarautz, 1935). Itxaropena. 124 orr. Artzelus'tar Ander'ek gipuzkeraz jarritakoa.

9) *Euskadi'ko Edestia* (Zarautz, 1935). 88 orrialde ta marrazkiak. Umiei eusko-edestia erakusteko lenengo idaztia.

10) *Estética Vasca* (Buenos Aires, 1952). «Ekin» etxe argitaldariak. 356 orrialde. Sei sail ditu liburuak: 1) Erraza, jai, oitura ta abar; 2) Euskaldunaren ertirako trebetasuna; 3) Erri Ederrak; 4) Gizartea; 5) Euskal bizitza, ta 6) Balioak.

11) *Eneko Arista, fundador del Reino de Pamplona* (Buenos Aires, 1959). 248 orr. Eun urteko euskal edestia. 752-852.

12) *El Ducado de Vasconia* (Zarautz, 1959). Itxaropena. 233 orrialde.

13) *Euskaldunak* (Baiona, 1943). Aintzina'k argitaratuta. 70 orr. Estornes Lasa'rena, Txabier Gazteiz'ek lapurdieraz jarrita.

14) *Orígenes de los Vascos* (Zarautz, 1959). I. 418 orr. II. (1960), 496 orr. III (1965), 460 orr. IV (1966), 468 orr.

15) *Geografía histórica de la Lengua Vasca* (Zarautz, 1960). Ale bi, askoren artean.

16) *Antología literaria vasca* (Zarautz, 1964). Ale bi.

17) *Historia General de los Vascos* (Zarautz, 1964). 192 orrialde.

18) *Sobre historia y orígenes de la Lengua Vasca* (Zarautz, 1964). 292 orrialde.

19) *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Iru Gorputz ditu Enziklopedi onek: A, B, Z. Editorial «Auñamen-

di»-k ateratzen ditu irurak, Zarautz'koi Itxaropena etxe argitaldarian. B Gorputzeko lenengo alea •—*Literatura*— 1969'an atera zan, 719 orrialde; bigarrena, 1970'an, 583 orrialde; irugarrena, 1973'an, 606 orrialde; ta laugarrena, 1977'an, 622 orrialde. A Gorputza —*A-Amuzti*— 1970'an asi zan, eta VIII' garen alea —*Corral-Decía*— 1977'an zabaldua daukagu. C Gorputza, ordea, Bibliografía —*A-Biblia*— 1970'an asi zan azaltzen, eta VI'garren alea —*Navarra-Poyd*— esku artean dabilgu ederki azalaztua. Beraz, iru gorputzak doaz aurrera, bakoitza bere bidean eta einean.

Lan eskerga oni asiera ematean, egilleak au aitortzen zigun; «Lan onen asmoa ez da berria Auñamendi Argitaldarian. 1935'an, «Beñat Idaztiak» Argitaldaria izenekoa ari izan zanean, Zabal-kundea Bilduma eman zan argitara, jadan 70 liburuen mukuru osatu duen gaurkoaren kidea. Aldi artan «Euskai-Jakite Iztegi» bat prestaeran zan, aren liburuxka azalgarria ere argitaratu zalarik, gerla sortu zalako banatu ahal izan ez bazan ere. 700 1.000 arteko orrialdedun 6 edo 8 liburu osatu bear zituen, 100.000'en bat lerroaldi eta 400.000'en bat edergarri sartzen ziralarik. Gaur xede hura azi egin da, lehenengo egingala idazlan aundietan emandako jakitate-sail batekin eta Bibliographia agurgarri eta larri batekin osatuaz. Beraz, asmoa ez zan berria egia biurtzen ari diran argitaratzeleen artean».

Nortzak ditugu asmo au aurrera daramaten gizaseme ausartak? «1935'go egingala eta oraingoa —darrai— Beñat Estornes Lasa jaunak sortuak izan dira. «Jakite-Iztegb'ko lerroaldien alfabetazko antolapenaren eta «Erabidezko Enziglopedia»ren eskemaren egilea da. C Saila, «Bibhographia»'rena, Yon Bilbao jaunak sortua eta egiña izan da. Neurritz gorako egintza onekin bukatzen da guzia. Enziklopediak, dan bezela, Beñat Estornes Lasa jauna, Euskaltzaindiaren Laguntzale eta Zabal-kundea, Auñamendi. Azkue eta Aralar bildumen Zuzendari-sortzale, du zuzendari eta eragile. Esan dan bezela, bere-bere

du izenburuen alf abetazko antolapena eta, ortarako, aldez aurretik jakite-arlo bakoitzeko izen-sall bereziak egin bear izan ditu. Alkarketako eta zuzenketako lan kautuan bere alaba Idoia Estornes Zubizarreta anderoñoa izan du lankide trebe».

20) *Colección «Auñamendi»*. Euskal gaietaz geien bat diardun bilduma au Mariano Estornes Lasa'ren «Oro del Ezka» (Zarauz, 1958), Erronkari'ko oiturazko liburuarekin asi zan, eta gaur bere 112'garren zenbakian doa; sorta ederra noski. Onez gaiñ, «Colección Azkue»-k bere amargarrena darama; «Aralar» saillak bere zortzigarrena, ta «Lengua Vasca»-k bere amabostgarrena, ta Anexa batzuk.

Badauzka oraindik beste lau argitalpen beintzat oso ondo egiñak: 1) «Historia y Fueros dei País Vasco» (Zarautz, 1971), Itxaropena, 682 orr.; 2) «Historia y Fueros dei País Vasco» (Zarautz, 1972), Pedro Madrazo'rena, ale bi, Navarra-I, 683 orr., ta Navarra-II, 541 orr.; 3) Orixe'ren «Euskaldunak poema eta Olerki guziak» (Zarautz, 1972), Itxaropena, 703 orr.; eta 4) «Cómo han sido y cómo son los vascos» (Zarautz, 1974), izakera ta jazkera, Itxaropena, 542 orr.

«Beñat», «B. E. Lasa» ta «B. E. L.» erabilli ditu lanak siñatzean.

OARRA.—Enaiz eztabaida zalea, denbora alperrik galtzea balta. Ixiltzen danak, baiña, esana onez artu oi duela, sarri entzuna dut. Bein eta berriz bota didate nola ez diodan zerbait erantzuten B. Estornes Lasa'k, berton aipatu dugun idazleak noski, bere «Literatura-IV»-aren sarreran nitaz idazten duenari. Egiak berez bide egiten, eta ezertan ez sartzekotan nengoan, baiña iñoizka adiskideen esana ere egin bear-ta, ezinbestean bezela diot ondorengo au.

B. E. Lasa'k, dalako IV'garrenaren sarreran, bereak eta bost bota zizkidan aurka. Iñondik ere arira ez zetorkiola gisa orretan barnea asazkatzeak, zerbait adierazten du: ba-duela nere

aurkako zital gordiña. Ez dakit zergatik, ez bait dugu sekulan zeziorik, ez goraberarik izan, bai ordea alkarri lagundu. Berenez ez duela ori idatzi siñistu gura nuke, beste norbaitek muiñak galdatuta baizik.

Nere lanari ezarten dizkion 24 lerroetan lau pekatu larri egozten dizkit bereziki. Ikus dezagun egitan ala laiño zuritan dantzatzen dan idazlea.

—Berari jarraiki ibilli omen naiz, idazleen sailketan batez ere. Zergatik lenengo Bizkaikoak, gero gipuzkoarrak, arabarrak, napartarrak eta abar? Edozein gaitan lojika pizkat ondo dagoelako. Oien zeaztasunak ez omen dut esaten nondik jasoak diran: zeuk artu zenitun leku beretik. B. E. Lasa'k 1969'an argitara zuen bere «Literatura» lau aleetatik lenengoa; nik, ordea, 1954'an eman nuen «Milla Euskal Olerki eder», eta ortxe olerkari bakoitzaren izenpean datoz millaka zeaztasun, 290 baiño idazle geiagori buruzkoak; nerearen aurretik Orixe'ren «Euskal-literaturaren atze edo' edesti laburra» (Donosti, 1927) ta P. Lafitte'ren «Eskualdunen Loretegia» (Baiona, 1931); urrengoa nerea duzu euskal litraturaren kondaira bezela ere: geroztikoak dira L. Mitxelena, L. Villasante, Auñamendi, I. Sarasola, Erzibengoa-Ezkiaga ta besteenak. Bakoitzari berea.

—Bere textuak itzuli omen ditut. Baüteke. Baiña noren textuak? B. E. Lasa'renak ala euskal idazleenak? Ortara ezkerro, zenbat itzulpen egin dituen Auñamendi'k ere nere olerki-bildumatik! Azpi-jokoan ari omen naiz ortan, esaldiak orai eta gero laburtuaz, azeriari bildots-larrua leporatu naian bear bada. Eta au aitzen emateko, itz joko trebea dagi berak. Emen ere iñoren aoz diarduala dirudi.

—Azken gizaldiotan batez ere, berak, atariko bezela ale bakoitzaren sarreran jarten duen politikazko giroa ebatsi omen diot. Ezer bada ere, ez gauza aundirik. Berak izan ditun liburua euki ditut nik ere begipean: Herran'en «Biblioteca», Arana-Goiri'ren garaikoak, «Euzkadi» aldizkaria ta egunerikoa

(1913-1937), «Aberri» ta «Aberrija», «Euskalzale», «Ibaizabal», «Euskal Esnalea», RIEV, «Euskalerriaren Alde», «Euskal-Erria», «Jaungoiko-zale», «Zeruko Argia», «J. B.-ren Deya», «Argia», «Ekin», «Euskera», «Euzkerea», «Eusko Ikaskuntza», «Eskualduna», «Gure Herirá», ta abar, aztertuak ditut naikoa zeatz leen eta orain. Beraz, belar guria aukeran duen ardia, ez doa iñoren landara.

—Laugarren obena, bitxikeri utsezkoa: bere izenik ez ei dut aipatzen nere «Euskal Lkeratura»-n. B. E. Lasa ta Auñamendi ez ote dira gauza bat bera? Ni ortan nintzan beiñik-bein. Eta idazle bakoitzaren fitxapean ez dut iñoiz ere, bear bada beintzat, aipatu gabe Auñamendi utzi. Ni, beti, zeazten dudan idazleaz zerbait esan duten guztiak aipatzen saiatu izan naiz. Baiña nola? Ontaz ez da konturatu B. E. Lasa: al dala, mendez urren, aldian aldiko, zaarrenetatik gazteenetaraño; ez da konturatu, bestela elukean esango nik erabiliko —onen duda ere badu— 30 libururen artean berea 25'garren lekuan aipatzen dudarik. Or agertzen diran liburu ta aldizkarietatik berea 1969' anargiteratua da; aurretik doaztenak lenago argitalduak dituzu. Aituko al gara?

Gauzak bare xamar artu ezker¹, beraz, ez dituzu orren pekatu astun, edozein idazlek jauki oi ditun oben arinxek baik. Ala ere, iñoren begian laster samarra ikusten, eta nobere-nean agarik ere ez. B. E. Lasa'k aspaldixean begi-lausotuz ikusten ditula dirudi nere lanak. Ez nabil egiari ziri egin nairik: lau urte joanak dira esan itzaurrea idatzi zanetik, eta B. E. Lasa'k berean dirau oraindik ere. Arestian jaso nuen (1977-5-30'an) «Diccionario Enciclopédico-VIII»; ale ederra nunbait, aurretikoak legez. «Cultura» itzaren barrutian 36 orrialdeko estudió bikaiña dakar, gain-gaiñeko so-egite zabalez osatua; aozko kultura, idatzia, iturriak, zabalkundea.. orrialde ugari trinkoetan damakigu. Beste batzuen artean birritan aipatzen nau ni; olerki-saillean, adibidez, berezko zitzaion ni aipatzea,

eta «Olerti», amar urtetan etengabe, euskal olerki sail osoa bere gaiñ eraman izan zuena: merezi zuen, aipamen berezia. Baiña ezta, erbiak ota-gaiñez bezela, zapart egin du oartzake.

Garai ontako liburuak zeatz —meatz aipatzen ditu; aizu zan eta bidezko «Joiasketa» (584 orr.), «Gure Urretxindorra» (232 orr.), «Bergili'ren Idazlanak osorik (382 orr.), eta itzulpenetatik Dante'ren «Jainko-Antzerkia», Orati'ren «Odak», Eso-po'ren «Alegiak» aipatzea, eta ez ditu aipatzen. Aldizkarietaz, 31 aundi aztertzen ditu ta 30 txiki: «Karmel» (14 urtez azaldua) ta «Olerti» (10 urtez) ez ditu aipatzen. Kuliska Sorta'ko ene libururik (*Iru poema* ta *Enbeita Oleskari*) ezta Etor'ekorik (*Euskal Literatura*, lau ale) ez du aipatzen, edo-ta ozta-ozta irairzeko zerbait. Azken urteotako euskal idazleen artean ez dakar nere izenik, eta 1951'tik bederen idatzi ta idatzi ari naiz. Omer'ek ere noizpeinka lo? Baliteke.

Lo ori ala ere eztago ongi kondairagille bategan. Ageri danez, ezta idazlearen gaitza, ikuslearena baizik. Aipatu dudan «Cultura» lanetik agertzen danez, «Euzkerea», I. Sarasola ta ni begitan gauzka B. E. Lasa'k. Edo-ta ertzetuak laga nai gaitu; gaur begitan artu ezkeru, olakoa saiets utzi oi dugu, aotan artu gabe, ibil dadilla bere kasa. Gaur gçgerkeria omen duzu au, ta alderdi politikuak, beren azken auteskundeetarako solasaldietan aldarrikatzen zutenez, izurria ta kutsudura bezin txarra ei duzu ori, eta, jakiña, olako kutsu-edena gizartetik jaurti bearko.

(Ikus Esteban Urkiaga, *Euzkadi egunerikoa*, 1931; *Yakintza*, 1933, 157 orr.; Fermín Iturriotz, *Eusko Ikaskuntza*, 1932, 53 orr.; *Euzkerea*, 1933, II, 436 orr.; L. Peña Basurto, *Munibe*, 1959, XI, 103 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1952, 247 orr.; P. Lafitte, *Basque-Eclair*, 1969-7-1'an; J. Artetxe, *Zeruko Argia*, 1971; Auñamendi, IV, 129 orr.; J. Bilbao, *Ewsfeó Bibliografía*, III, 218 orr.).

13.—FRANTZISKO ASTIZ ARREGI (1908-...)

Xabier'ko Prantzisko Deunaren Aita Andres deritza pasio-tarren lagundian. Imotz ibarreko Goldaratz'en jaio zan 1908-11-22'an. Onen aita, bertsolaria, aipatzen du Azkue'k bere «Euskalerriaren Yaldntza»-n, ainbat ipuin kontau zizkiola-ta.

Eliz-gizon izan nairik, Gabirilko pasiotarren ikastetxean ikasi zuen lenengo, gero Angosto'n. Mellid'en eta Bilbao'n karrerea amaiturik. Tafalla'n bizi da gaur Eliz-Eskugoa ta Idazteuna gazteei azaltzen.

Erderaz ta euskeraz idatzi du; erderaz, Deustu'ko «Redención»-en eta «La Cruz»-en, eta euskeraz «Principe de Viana»-n batez ere.

Bereak ditu bi liburuok: *Las grandes interrogantes* (Zalla, 1952), erderaz; ta *Goldaraz'ko bersolariaren kontu ta bertsoak* (Iruña, 1960), euskeraz ta erderaz. Bere aita Andres Astiz Ode-riz'en bertsoak eta ipuiñak dituzu.

Ez dauzkazu pipermin gabe Aita Frantzisko'k «Principe de Viana»-n, «Ikasi-Mikasi» izenpean idazten dizkigun lan eta kontu arin gozoak.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 44 orr.; Auñamendi¹, *Literatura*, IV, 156 orr.).

EGUNEROKOAK ETA ALDIZKARIAK

Naparroa'n ba-zan kultura gose ta gogomiña. Ona zenbat eguneroko ta aldizkari azaltzen ziran leengo mendearen azke-nerantza: «La Voz de España» (1868-1871), karlisten eguneroko; «El Eco de Pamplona», gero «El Eco de Navarra»-n (1876) biurtua, Nikanor Espoz'ek zuzenduta; «El Arga» (1877); «La Paz»; «Lau-Buru» (1881); «El Navarro» (1881-1884), libera-len eguneroko; «El Eco de Tudela» (1884); «El Liberal Na-

varro» (1886-1887); «La Tradición Navarra» (1884), Alalino Txabarri ta Bronte'k sortua; Ilario Olazaran'en «Estella» ta «Navarra lustrada», bizitza laburrekoak; «El Aralar» (1894), eguneroko foruzalea; «La Avalancha»; «La Bandera Tracidional» (1884), asterokoa; «Heraldo de Navarra» (1897), Sagasta' ren jarralleena; «El Porvenir Navarro» (1898-1911); «La Nueva Navarra» (1900); «El Azote» (1901); «El Heraldo de Estella» (1902-1903), 77 zenbaki, Jesus Lasuen zuzendari; «El Demócrata Navarro» (1904), Esteban Frauka zuzendari; «El Obrero Republicano» (1905-1922), Fabián Zaboran zuzendari, eta abar.

Oraingo gizaldiko laurok —«El Pensamiento Navarro», «Diario de Navarra», «El Pueblo Navarro» ta «La Voz de Navarra»-k—, ordea, bizitza luzeagoa izan dute.

«El Pensamiento Navarro» 1897-10-17'an jaio zan, eta, «Jainkoa, Aberria ta Erregea» laburupean, karlatarren amets-elburuak babestu ta zablal-azi zituzten. Zuzendri, Eustakio Etxabe Sustaeta, ta 1933'tik, 30 bat urtetan, Frantzisko Lopez Sanz. Gaur ere, dakigunez, argitaratzen da, naiz-ta politika arloan, azken urteotan baitik bat, aski samar aldatua.

1903-2-29'an agertu zan «Diario de Navarra»; beronen zuzendari urte askotan, baita Errepublikaren denboran ere, Raimundo Gartzia, «Garcilaso» zeritzana. Etxuen politika alderdi batekin ere loturarik, baiña eskuindarra zan argi ta garbi bere joera, Eusko Estatutoaren kontra gogor jokatu zuen.

1916'an sortua zan «El Pueblo Navarro», 1923'tik Frantzisko Jabier Arbizu'k zuzendua. Liberal arikoa geien bat, eta Errepublikaren etorri zanean, monarkiarekin batera ezkutatu zan.

«La Voz de Navarra» 1923'an asi zan bizi izaten. Euskal interesak era goraberak aldeztu zituen, Euzko Alderdi Jeltzalearenak batez ere. Errepublikaren alean erzan zalantza gabe bizi; erkal-zale zan, balta katoliku zintzo ere, ta bein baiño geiagoan erakutsi zigun etzerorrela bat erkal gobernuaren geie-

gikeriekin. Jose Agerre'k, euskal idazle jatorrak, zuzendu zuen luzaroan. 1936'ko guda sortuaz itzali zan, eta beronen irarkolean fdanjisten lenengo egunerokoa, «Arriba España», asi zan irtetzen, 1975'an erabat urte zana nunbait.

«La Voz» au baiño lenagotik ere, ba-zuten napartar abertzaleak beren asterakoa: «Napartarra». 1911-1-8'n agertu zan lenzenbakia. Aspaldiko ametsa beterik, or tresna ederra Aberri-zabalkunderako; Arana-Goiri'ren ideiak edatu bear ziran, eta onek iñarrosiko du ñapar lurra, euskalduna ta euskaldun ez dana, Mikel Goi-aingeruak, Euzkadi'ko Zaindari bipillak sagaratu. Egun gomutagarria, ondorengoak ere pozik gogoraziko dutena. Nainun, ibar, lau ta mendietan laster ikusiko dugu Jelaziaren garatze indartsua. Lenengo zenbakiak lan auek zekartzin: «¿Somos retrógrados?»; «A qué aspira el Nacionalismo Vasco»; «Gora Euzkadi!»; «Saludo»; «Sabino dñe Arana-Goiri»; «Conquista de Navarra»; «Quisicosas»; «Salvemos la Patria»; «Una pregunta», eta «Ujuiiii», euskeraz. San Jose Plaza'n zeuden Idazkola ta Banakola.

«Napartarra»-ren orriak euskeraz ta erderaz daude. Erderaz, beste askoren artean, A. Kanpion'ek idazten du. Eta euskeraz, auek geienetan: «Txomin», «Ibardi», «Eultzale», Elgorriaga'ko «Aspaldikua», «Patxi», «Goyerri», «Apeztegirena», «Sornetxu», «Arandi», «Egiya», Patxiku», «Beyenetxe», «Txangoa», Mirentxu», «Zorgin», eta gaiñerakoak. Guztiok ere, errez ta poliki darabilte luma.

«AMAYUR»

Iruña'n jalo zan 1931'an. Ango abertzale gazteen asterokoa. Kementsu gorde zuten napartarrak Maia'ko gaztelua; indrtsua-goaren su ta ezpata-pean, ala ere, erori ziran gaixoak, Miranda'ko konde espaiñarrak suntsituak. Amaiur'en ba-zan 1922'an jasota oroitarri eder bat, baiña 1931'an piper-pota zaleak apurtu egin zuten.

«REVISTA EUSKARA»

Juan Iturralde Suit'ek, 1877'an, amabi bat lagun batu zituen «Asociación Euskara» zeritzanari asiera emateko; urrengo urtean, urtarrillaren 8'an, iragarki bat zabaldu zan Zuzendaritza Batzordeak izenpetuta. Batzordea auek osatzen zuten: Esteban Obanos, buru, Florenzio Ansoleaga, Estanislao Arantzadi, Salvador Etxaidie, Erramon Irurozki, Fermín Iñarra ta Juan Iturralde Suit, idazkari.

Alkartearen elburua au zan, egitarauak ziñoanez; geure izkuntza, literatura ta kondaira zaindu ta zabalazi, Euskalerriko legeak aztertu ta ikasi, eta alegiñak egin gure erria bere balio guztietan aurrera eramateko. Etzan politikan sartzen, bere agiritatik ikusi lezakegunez.

Alkarte onek bere aldizkaria zeukan: «Revista Euskara» (Iruña, 1878). Joakin Lotda'ren irarkolan, Merkaderes kalean, 19. Sei urtean atera zan, sei ale eder guztira. I. 1878-12-2'an, 304 orrialde; II. 1879'an, 784 orrialde; III. 1880'an, 387 orrialde; IV. 1881'an, 420 orrialde; V. 1882'an, 384 orrialde; VI. 1883'an, 388 orrialde.

Aldizkariaren Batzordea auek asotzen zuten: Nikasio Landa, zuzendari; Teofano Kortez, idazleen buru; Norberto Irigoien, argitaratzaile; Erramon Irurozki; kontu eroale, Bruno Iñarra, ta idazkari, Ermilio Oloriz.

Bere sallak zeuzkan aldizkariak; I. *Euskera ta euskal literatura*: Esteban Obanos, buru; Jenaro Martin, bokala, ta Fidel Pueio, idazkari. II. *Etnografi, edesti, erti ta legegintza*: Juan Iturralde Suit, buru; Florenzio Ansoleaga, ta Salvador Etxaide, idazkari. IIL *Nekazaritza*: Giriotz markesa, buru; Joakin Azkona, bokala, ta Krisostomo Beunza, idazkari. IV. *Irakaskintza ta zilleitasuna*: Fermín Tirapu, buru; Leonzio LTbillos, bokala, ta Rikardo Gartzza, dazkari. V. *Langintza*: Anizeto La-

garde, buru; Florenzio Artetxe, bokala, ta Serafín Olloki, idazkari. VI. *Salerosketa*: Migel Ormaetxea, buru; Martin Irigaral, bokala, ta Prudenzió Jorge, idazkari.

Garrantzi aundikoa duzu aldizkari au euskal istorirako, baiña Napparroa'ri dagokionerako batez ere. Beroni adore berezia ezarri ziona, J. Iturralde Suit izan zanik ezin dezakegu uka. Ainbat lan dakartzi euskeraz, orduko euskal idazle onenenak ain zuzen ere.

«ZERUKO ARGIA»

1919'an jaio zan, Iruña'n. Illeroko aldizkingi edergarriduna, Aita kaputxinoak zuzenduta. Iruña'ko Neketako Ama-Rirjiña'ren irarkolan. 16 orrialde.

Lenengo urtean, oi danez, idazle ta abar, zeuzkaten indarrak aztatu ondoren, bigarrena asikeran au iragarten zuen idazkaritzak: «Urte pozkarritik ateratzen da «Zeruko Argia», urte pozkarriagoan sartzeko, itxuraz. Neurririk gabe geitzen ari zaizkigu artzaleak eta zarrak berritzen salleka. Azi onak lur onagoa arkitu du Euskalerrri maite ontan. Eta alegia, landare berriak zañak ondo artu lurrean eta pixkat gogortzen danean bizitza ugariago izaten du ta zitu edo frutu geiago ematen ere bai. Ala zai degu 1920'ko urterako «Zeruko Argia»-gandik.

«Gure lantegia ugaria da. Langilleak eztaude lo, naiko gaia ba-dator; ernatzeko lekua eta beta bear. Bearrenezkoak iñoiz utzi gabe, besteai pixkaka tokia egiñez, alaxe goaz «Zeruko Argia»'ren lenengo asmoa zabalduz eta itzemaná betez. Lenengo urte ortan asiera eman besterik eztegu egin. Nai genduke ba pozik ba-zaudete lengo urtekoaz, pozikago utzi arpidedun guztiak urte ontan. Ortarako uste degu len-lena goitiko argia ta urrena zuen laguntza».

Asmo oiek irteera ona izan zezaten, nola saiatu zitzaizkigun idazle azkarrok: Aita Intza, Eskoriatza, Altzo^Azpi'tar Didatka,

Arbelaitz, Oyartzuna, Jauregi'tar Koldobika, Ambrosio Anaia, Tudela'tar K. A., Yurre'tar Julen, Osinburu, Aldaz'tar Iñazio, Urtsuya, Lizartza'tar Andres, Añaldekoa, Izaskun, Oteiza'tar Dionosi, Azurzi, Kalparregi, Tolosa'tar Marzelino, Oleartso, Leiza'tar Makos, Ataun'dar Bonipagi, Begi-beltx, Errenderi'tar Erramun, Donostiar Gabirel, Arraioz'tar P., Arronar Simeon, Iraizoz-ko P., Maruri'tar Erramun, Ziganda'tar Andoni, Justomorí, Larreko, Ibarretxea'tar Iñaki, Amalalde, Zubigar, eta beste asko.

1936'ko gerra sortu zanean, ixildu bearra izan zuen beti eder ta txukun zetorkigun illeroko onek.

«EUSKERAREN ADISKIDEAK»

1925'an eratu zan alkarte au. Napartar talde bat da, politikarik gabe, Nafarroa'ko oitura, izkuntza ta gauzak maite dituztenak. Euskera dute elbururik bereziena, euskera erakutsi, beroni indarra eman, ederrazi. Orrez gaiñ ere, Nafarroa'k aspaldi danetik —ba al dakigu noiztik?— bereak ditun zainmamiak, ekandu, kirol eta jolasak, dantza, musika, abesti ta gaiñerakoak zabaltzen salatu. Araudiak orrela zioan beintzat, eta firmatzen zutenak euek ziran: Jenaro Larretxe, Aita Intza, Jerardo Balkarlos, Mikel Intxaurrondo, Mikel Espartza, Jose Mari Huarte ta Domingo Beunza.

A. Intza berak onela: «Euskeraren Adiskideak» izena eman giñion Irunan sortu zen lagun-arte, alkartasun bati. Euskeraren aide lana lasa egiteko, euskera gaitzen ari zen alderdieten euskeraz irakurtzen ta idazten aurrei erakusteko, ta aur ikasle euskera zekienei, Nafarroko Aldundiaren bidez, bere Aurrez-kutxan diru zenbait jartzeko, oso ongi etorri zen. Etzen «Abertzale» zeritzairen lagun talde bat, baizik abertzale ez giñanena, nalz abertzaleei atea ez ertxi.

«Ortarako elkartasun onen leñbiziko Buru, Larratxe'tar Jenaro, beratarra, Iruñeko Alkate izan berria aukeratu giñuen; aren ordezkari, Nagore'tar Leandro- jauna, Iruñeko udal-etxe-ko idazkutx-zain zena. Tenore artan Naparroak zituen gizon euskaldunik aipatuena elkartasun ortan geniltun. Aitzinetik gure gizon aundi Irigarai jauna jartzeko, iru sendalari ba'genitula erranen dizuet Sendalari-Buru Irigarai, Tirapu'tar Bernardino ta Pedro Moreno. Gure lagunarteko gizonik bikañena, geren Gotzai Mateo Mujika izan giñuen. Urrena Oroz'tar Lorentzo, Baleztena'tar Ignazio ta Irujo'tar Jabier, aldun jaunak, «Manezaundi» Enrike Zubiri, Apezgaitegiko iru Euskal-Irakasleak: Intxaurren Migel, Esteban Irañeta, Blas Fagoaga...

«Euskeraren Adiskideok euskerari gure errietan eusteko, euskal jal sail bat egin genitun: gogoan dauzket Etxarri-Aranatz'en, Lekunberrin, Auzan, Berroetan, Donezteben (Euskaltzaindi osoarekin), Otsagi (Otxagabian) eta Ezkarotzen egin-dakoak» (*Euskara*, 1973, 188 orr.).

«IRUGARRENGO PRANTZISKOTARRA»

Iruña'n sortua dugu 1913'an Aita kaputxinoen illabetero-ko au. 8 orrialde zeuzkan, eta Asis'ko Prant isko santuaren Irugarrendarren artean zabaltzen zan. Gogoz irakurtzen zuten or-emen aldizkari txipi au. Sei urteren buruan beintzat, Naparroa'n eta Gipuzkoa'n batez ere, sei milla iyekiraiño zabal-tzen ziran. Berton idatzi zuten Aita buruñurdunen arteko eus-kal idazlerik punterengoenak.

«LEKARROZ»

Donostia'n azaldu zan lenengo zenbakia, 1923'an. Baztan ibarreko Ikastetxe txairo artan ikasten zutenen aldizkari ederra. Gerrararte atera zan.

3) MUGAZ ANDIKOAK

1.—JEAN BAPTISTE (D)ARANATZ

Ezpelta'n jaioa; baiña ez dakigu oraindik noiz sortu zan, ez noiz itzali zan. Baiona'ko katedraleko kalonje ta euskal gauzak arakatuz idazle trebe izan zan arren, gizaseme jakintsu onen irudia biribildu gabe daukagu oindio.

Ziur jakin ezta ere, 1889'ranta artu zuen apaizgoa, eta andik amar urtera legez Baiona'ko Gotzaiaren idazkari da; ospe aundia zeukan, bai goterki barruan eta bai urian, eta 1907'an Baiona'ko Eliz Nagusiko ohorezko kalonje izendatu zuten. 1937'ranta il zan.

Lan izugarria burutu zuen; frantsesez geiena, baiña euskal gaiak astinduaz beti. Danetik idatzi zigun, euskal edesti, izkuntza, gizaseme¹ guren..., zeri etzion ikutu? Bere garaiko aldizkari ta egunerokoetan lankide izan zan; agerkari auetan datoz bereziki aren lanak: «Gure Herria», RIEV, «Atheneum», «Revue de Gascogne», «Revue Historique et Archéologique du Béarn et du Pays Basque», «Bulletin de Musée Basque», «Bulletin de la Société Bayonnaise d'Etudes Regionales», «Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Regionals de Bayonne», eta abar.

Euskaltzale jator, Azkue jaunari etzion gutxi lagundu onek bere Iztegi aundia (1906) argitaratzean, Duvoisin'en iztegia aldatuz eta lenengo aleko orrialde guztiak beren irugarren karutsetan irakurriaz. 1907'an, RIEV sortu zanean, an asi zan idazten; berdin, 1921'an ere, «Gure Herria» sortu zanean: bi aldizkariotan eten barik idatzi zuen, 1936'gn urteraiño.

Ainbat liburu argitaratu zituen, bereak eta iñorenak, bakar rrik eta B. Dubarat'ek lagunduta, euskeraz eta frantsesez. Ona batzuk: *Exercicio izpirituala...* (Baiona, 1901 ta 1906); *Un gran natur aliste basque. Armand David. 1826-1900* (Baiona, 1929); *Igandea edo Jaunaren eguna* (Baiona, 1910); *Incendies des cathédrales Pyrénéenses: Olor on, Aire, Boyarme* (Baiona, 1922); *Une lettre missive de Henri IV* (Paris, 1914); *Le Père Clement (Duhalde) d'Ascain, 1696-1781* (Baiona, 1921); *Haraneder'en Testament Berria* (Paris, 1908); *Vieilles trouvailles* (Baiona, 1918); *Recherch.es sur la ville et VEglise de Bayonne* (Baiona, 1910); *Curiosités du Pays Basque. Ale bi* (Baiona, 1927), ta abar. Azkenengo bi liburuotan, milla bitxikeri argitaratu zizkigun Euskalerruari buruzkoak.

Olerkari ote genuen? Aitaturiko *Curiosités* liburuan dator «Eskuara» poema bikaiña, euskera goretsiz egiña. Daranatz'ek izenpetzen du. Leendik ere argitaratua zan: Biarritz'eko «Biarritz-Thermal»-en (1911, 3'gn. zenbakian), Donosti'ko «Euskd-Erria»-n (1911, LXIV, 23 orr.), eta liburuxka bezela (Baiona, 1911), Lasserre'ren irarkolan. Ala ere, zeinbaitzuk uste dute ez dala berea. Poema au zala-ta, Julen Vinson'ek bere euskerazko «Hamalaurkuna» ondu zuen, 1911-2-12'an.

(Ikus R. M. Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, I, XIII qrr.; J. Vinson, RIEV, 1911, 101 orr.; S. Onaindia, MEOE, 615 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1950, 127 orr., 1957, 183 orr., 1960, 144 orr., ta 1961, 88 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 194 orr.; J. Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, 534 orr.).

2.—JOANES XABAÑO (1881-1975)

Aldude'n sortua, 1881-12-10'an. Larresoro'n ikasi zuen, eta ikasgoak burutu zituanean Paris'eko Arrotz-Mixio edo «Missions Etrangères» deritzan Alkartean sartu zan. 1906'an apaiztu ta bertatik Japon'era joan zan mixiolari. Zortzi urte egin zituen

an, baiña laster bere nagusiak Paris'era deitu zioten berriz ere, gazteen morala erakutsi ta lagundiko idazkari orokor izan zedin. Ainbat lan orretan egiñik, zahartuta, bere sorterrira itzuli, Al-dude-Eznazu txokora noski; etzan emen ere geldirik egon, «Li-buru eta paper zaharretan —diosku P. Lafitte'k— ikerka laket zuen, bereziki Kintu-ko eta Baigorriko eskualdeko ixtorioaz ezin asean eta non nahi gogotik mintzo». Azkenik, Montbeton'eko Apaiz-zanartegian il zan 1975-4-11'an.

Euskaltzale jator zanez, Tokio'n mixiolari zegoela ere, Baiona'ko «Euskalduna» eta «Eskualdun ona» astekarietara bialdu oi zitun bere lanak euskeraz, «bere mintzaira aberats eta gar-bian» idatzia. Paris'en, «Eskualzaleen Biltzarrak» euskeraz ikas-teko jarri zituan kurtsoetan berau izan zan maixu ainitz urrez. Euskaltzaindiko laguntzaille zan.

(Ikus P. Lafitte, *Euskera*, 1975, XX,545 ^{orr}-; J- B. Etxeberri, *Guse Herria*, 1975, 175 orr.).

3.—MADALENA JAUREGIBERRI (1884-1977)

Atarratze kantoiko Alotze errixkan sortu zan 1884-10-13'an. Sendi euskaltzale jator bateko alaba. Paube'n osotu zituen Irakaskintzako goi-ikasketak. Erakuste-j arduña maite izan diu, ta egin izan du, Arjentina'n emandako bost-sei urte ezik, bere bizitza osoa Euskalerrian igaro du-ta, Sibas erri pertxen-tan bereziki. Irakaskintzan burutu duen lanagatik «Palmes Aca-demiques» artu zuen frantses gobernuak emanda. Euskaltzain-diko urgazle ere ba-genun, 1957'en Baiona'n Bonaparte Prin-tzeari egin zitzaion goratarrean izendatuta.

IDAZLE.—jEuskeraz ta pranfsesez idatzi du «Gure Herria», «Herria», «Basque-Eclair» ta «Soud-Ouest»-en beintzat; gure izkuntza goratuz ta babestuz idatzi ere.

Laket zalo teatrua. Eta orretan ari izana dugu: antzerkiak ondu ta antzez-taldeak sustatu ta borobildu.- berau izan zan **Donibane-Lohitzun**'go «Begiraleak» taldearen lenengo Buruzagi; talde onek lan bikaiña egin zuen gizaldi onen irugarren amarnakoan batez ere: garai artan **Donosti**'n ere jarri oi ziran «Saski-Naski» antzeko lauki bizi, polit, atsegingarriak, margo ta argi-naste aundi gabe, baiña biotzari zirrara galantak ematen zizkiotenak nunbalt.

Jauregiberri'k ba-dauzka olakoetan antzeztutako lanak. Ona iru beintzat: 1) *Mirakuiiu bat*; 2) *Zikoitza*, ta 3) *Eskualdun jantziak*. Marioneta-lanak dituzu.

Ona, azkenez, beste amets bat bere azken urteotakoa: euskaldun ez diran eskoletan euskera sartu. Badu ortarako ikasbide gaurko-gaurko bat, Paue'ko Izkuntz-Zaingo begiraleak ontzat emana. Metodu onen bidez, maixuak euskeraz jakin ez arren, euskera irakatsi lezakete; diska batzak dira kantu ta guzti, textua euskeraz ta frantsesez dutela. **Bidasoa**'z emengo eskoletarako ere ederki letorzki oien iduriko dískak.

Ziboze Sibasia bere egoitz apaiñean il zan 1977-9-23'an.

(Ikus A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 170 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 36 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 108 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 521 orr.; *Gure Herria*, 1959, XXXI, 145 orr.;; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 475 orr).

4.—MAYI ARIZTIA (1887-1972)

«Mayi Ariztia» ipuinlari bikain duzu, 1887-7-28'an Sara'n munduratuá. **Diharasarri** Gotzaiaren illoba. Sara'n bertan eta Mont de Marsa'en ikasi zigun.

EUSKAL IDAZLE.—Gaztetatik zetorren argi ta erabakitsü, ta urteetan aurreratuz doai oiek gailendu egin zitzaizkion nabarmenki. Apurka apurka euskal idazle trebe biurtu zan, ipuisalllean batez ere.

«Gure Herria»-n, «Herria»-n, «Egan»-en eta «Anuario de Eusko Eclklore»-n idatzi du. «Gure Herria»-n asi zan, 1934'an, bere *Amattoren uzta*, ipui sorta mardula argitaratzen; «Eusko-Filklore»-n (1934) *Leyendas laburdinas* eman zizun, eta «Egan»-en (1949) *Bi ohoinen ichtoria*.

«Gure Herria»-k saporata bezela *Amattoren uzta: La moisson de Grand'mere* (Baiona, 1934) eman zigun. «La Presse» irarkolan. 73 orrialde. «Amatto au —diosku P. Lalitte'k sarre-ran—aur askoz inguratua, baiña gazteegi oraindik biran ditun aurak zenbatzeko, Sara'ko Lehetxipia etxean bizi da: Marie Ariztia andrea da. «Uzta», ordea, folklore-zale bikain onek gaur euskal erriari eskeintzen dion eusko-ipuin zaarrez osaturiko bilduma zoragarria duzu» (3 orr.).

Amasei ipuin dira guztiz, poliki, errez eta xarmant aundiz, «biper eta gatz», umetxoentzat atsegingarri, edestu ta sailkatuak. Berak onan aintzin solasean: «Oharturik nere haurrak zein prestuki egoten ziren, lorietan, xoratuak, ixtorioi aditzen, etxeko neskatoek kontatzen ziozkatarik, gogoatu zitzaidan behar nituela ixtorio zahar horiek, eskribuz eman, beldurrez eta ahantz. Eta gero, nere hurrek erran detzozten beren haurren, hek, ttildtan, horren goxoki entzun zituzten ixtorio berak. Baziren, frariko, neronek hurrean, aditu nituenak, eta zein gogotik, entzuten nituen berritz! Hola bildu nuen beraz ixtorio andana bat. Geroztik, Aita Donostiak sustaturik, egin ahalak egin ditut ixtorio multxu hori emendatzeko. Baditut zenbait bilduak, xerri lanetako ekarria ginuen emazteki baten ganik: harrek odolkiak eta lukenkak egitean, ixtorioak erran eta, nik, har».

Itsasu'ko artzain bategandik ere asko jaso zituen- baita Sara'ko midiku zahar bategandik, eta batez ere Sara'n sortu ta Zugarramurdi'n bizi zan zahar ipuin esale bategandik. Zahar au ara ta ona ibilli oi zan, gure bertsolariak lentxe, ipuin-esale jator. «Ibil arazten zuten —dio Ariztia'k, etxez etxe, arto xuritzetan, auzo guziak elkarretarat bildurik arto xuritzen hari zirelarik, harek ixtorioak erran, eta bertzek, entzun, ernerik, loaletu gabe, beren lana gisa hortan aiseago ta gehiago egiteko, omore hobean! Alaber eremanazten zuten, etxetan Eguerriko bespera arratsean, gauerdiko Meza bitartean, ixtorio erraten haritzeko. Ekarrarazi nuen, gure etxerat, xoilki, bere ixtorio ederran kontatzeko. Pasatu zituen bi egun; ez nuen atxikitzen ahal izan gehiago: sobera griña zuen etxean utziak zituen bere iloba tiki umexurtzez. Ikustekoa zen, zein goxoki eta eztiki kontatzen zituen bere ixtorioak, Ebanjelioa bezein egiak izan balira bezala, hitz bat uts gabe! Bere ixtorioak kontatzen zituen, supazterean jarririk, kapelua kendu eta belaun punttan emanik, begiak erne, urrunerat begira. Zer noren goxoak iragan ditudan harkin!».

Arrituta zegoen Mayi arek zuen memoriaz; ez zekien irakurtzen, ez idazten; liburuetan ezer ikasi gabe, bere aurretikoen-gandik artuaz oroitzen zan ederki. Onela bukatzen du ipuin-biltzailleak bere itzaurrea; «Agian irakurtuko dituztenek izanen dute nik horien hartzean izan dudan atsegin bera. Eta dena izanen da gure Eskuararen onetan, harén maitarazteko eta heldarazteko, Jainko maiteak haala nahi duelarik!» (5-7 orr.).

Izlari ere ibillia dugu. 1933'an, esaterako, Donostia'ko Uda-ikastaroetan «Uskal-etze Zaharrak» gaiez ederki mintzatu zan.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 34 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 524 orr., eta *Diccionario* (An-Artazu), 432 orr.).

5.—LOUIS DASSANCE (1888-1976)

Uztaritz'en sortu zan **Dassance** 1888-8-20'an. «**Dassance** tarren familia —dio P. Lafitte'k— lekuko zaharrenetarik da. Aspalditik eman ditu notari eta kargudunak, bal eta fama handiko apez euskaltzale bat; Pierre-Néré'e **Dassance**, Pamiers-ko apezpikutzat galdegina» (*Eusker*a, 1976, 364 orr.).

Uztaritz'en bertan osotu zituen len-eskolak eta Larresoro'ko Seminario txikian bigarren mallakdak, eta laboraitza gogoko zuelako, Paris'eko «Institut National Agronomique» dalakoan atera zuen Lugintzarmaixu titulua. Gaztetan atsegin zitzaion oianetan zear eiztari ibiltzea, balta pelota jokua ere; bi gai oietaz ainbat lan mairatu zizldgun gero. 1914'gneko gerran ibilli zan bere adiñekoekin, zerbitzu^sari bezela bi medailla etxe ekarriz. «Etxerat itzuli-ta —dio P. Lafitte'k— laborantzari berriz ere lotu zitzaion hortzez eta haginez; laster neka-z'ári buruzagiak onartu ziren harén seriosari, eta cfizioko batasunetan egin zioten leku, bai Euskal herrikoetan, bal departamendu guzikoetan».

Bere sendiko lanetarik kanpo, Uztaritz'en bertan zerbitzu ederra egin zuen: ogei urtean erriko «axuant» ta 1939'tik bertako auzapez edo alkate beste ogei urtetan. «Orotan zer nahi zerbitzu erainik —berriz ere P. Lafitte'k—, ez da harritzeko esker onez, choreak egin baitiozkate: «Legión d'honneur» delakoaren gainerat, hamar bat medalla eta kurutze ukan ditu bere merezimenduen gatik».

Ez, etzan edonor **Dassance** jauna. Ikusi ta agurtu genuen-tan beti agertu izan zitzaigun gizaseme berezi bezela. P. Lafitte'k: «Gizona» zela erraitea aski dela uste dugu, gizonki erman baitu bere bizi guzia, zuhurtzia handirekin, beti denen zerbitzuko, denekilakua egiñez, zuzenki bainan arraild, pazientzia legetzat harturik, Jainkua lagun. Ezen fededuna zen. Ez zuen bere fedeaz espanturik egiten, bainan ez zuen izkututzen:

Laket zuen elizan ibiltzea eta aitortzen zuen euskal liturgia berriak barria hunkitzen ziola bihotza. Apiolaren 13-an eliza-koak hartu ta, biharamun goizeko oren batean pausatu da eza-gutza osoan, ezti-ezria, bere andreak era bortz haurrek ingur- ratzen zutela. Mundu bat bildu da harén ehortzetarat ortzirale sainduz, eta oraino gehiago harén hil-mezarat. Bazko biharamu- nean, dlepartamendu guzitik bainan bereziki Euskal-herriko alde gehienetarik» (*Loe. cit.*, 36-6 orr.).

EUSKALTZALE.—Euskal kulturak ere beti kezkatu zuen (d') Azantza jauna. 1921'an, Salnt-Pierre, Barbier, Gxobi, Apez- tegi, Eüzalde, C. Dufau, Xoribit lagun zituela, «Gure Herria» aldizkaria sortu zuen, kulturazkoa noski. Ementxe atera zitun bere lanik bikaiñenak euskeraz ta frantsesez: euskal olerkariak aipatu ditu, Etxahun, Beñat Mardo, Elizanburu ta Goroztarzu; bertso zahar asko argitaratu ditu; Lapurdiko ainbat berri, pe- lotatien edestia ezagiuvazi du, **D**arrigol gramatikazalea, eta abar. 1928'tik berak eraman zuen aldizkari orren diru-kontu osoa.

1921'an, orduko gazte talde batekin, «Eskualzaleen Biltza- reea» sortu zuen, eta 1925'an, Jean Etxepare medikuaren orde, buru ezarri zuten, 34 urte kargu ortan egiñik: beronen garaian izan ziran «batasun horren egunik ederrenak, lagunak ostera bilduz, gazten arteko euskal sariketak, bertsolariak, teatrola- riak sustatuz». 1960'tik alkarte orren deduzko buru izan zan.

Agerkari auetan idatzi zuen: Baiona'ko «Eskuelduna», «Gu- re Herria», «Gure Almanaka», «Herria», «Bulletin de Musée Basque...». Liburuxka bat ere atera zuen Uztaritze zarraz: «*Ustañtz: ses assemblees, son tribunah* Frantsesez.

1949'an euskaltzain oso izendatu zuten. **D**enbora aiek, antza, etziran xamurrak, eta ona nola ibilli ziran sarrera-eguna ospa- tzeko. «Euskalzain berriaren sartzea —dio P. Lafitte'k— **D**o- nostian egin beharra baiginuen, kazeta guziek aintzinerik na-

saiki aipatu zuten gertakaria. Jende hainitzek etorri gogo zuten jai hartar at, mugaz bi aldetarik. Lapurtar andana bat ba ginen Dassance jaunaren segi. Diputazioneko plazarat hurbiltzean, gure harritzea: Karrikak soldaduz beteak! Zerbitzarik orduan auxe atera zuen: «Errak, Luis, ohore handitan errezebituko hie!» Bainan Oleaga etorri zitzaikun biderat: «Gobernadoreak ez gaitu uzten!» Itzuli ginen jin-bidez, eta Baionan egin zen sartzea, ondoko egun batez» (*Loe. cit.*, 365 orr.).

Gogora au ere. 1957'an berak eraiki zuen «Ikas» alkartea, eskoletan euskera sar-azi nairik. Eta, azkenez, Paris'en datzan «Conseil National de Défense des Langues et de Cultures Regionales» deitu alkargoaren buru-orde ipiñi zuten.

(Ikus T. Monzon-Olaso, *Gure Herria*, 1962, 231 orr.; J. B. Etxeberri, *Gure Herria*, 1962, 226 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 64 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 531 orr., eta *Diccionario* (Corral-Decía) 610 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, II, 541 orr.; P. Lafitte, *Euskera*, 1976, 364 orr.).

6.—PIERRE EIHERAMENDI (1891-...)

Maule'n jaio zan 1891-12-28'an. Apaiz-karrera osotu ondoren, Aldude'n eta, egon zan erretore, arima zaintzari ta idazteari osoan emana.

Euskaltzale fina. 1920'rantzasi asi zan euskeraz idazten; «Gure Herria»-n datoz bere lanak. 1953'an euskaltzain urgazle izendatua izan zan.

Euskaldunak eta euskaldun ez diranak euskera ikasteko erreztasuna izan dezaten, ba-dauzka iru liburuxka frantsesez: 1) *Méthode pratique pour apprendre le Basque* (Paris, 1929). Maisonneuve irarkolan. 142 orrialde; 2) *Cours Mayen* (1930), ta 3) *Cours Supérieur* (1938).

(Ikus P. Lafitte, *Gure Herria*, 1929, IX, 376 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 84 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 547 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, III, 303 orr.).

7.—KRISTOPE DUFAU (1888-1922)

Senpere'ko semea. Sendagille, ta musikari emana oso: ainbat euskal eresi doñutu zituen. Larresoro'n eta Paris'en ikasi zuen. Lendabiziko Munduko Gudan Oiñezkoen 144'garren Gudaroztean egin zuen osalaritza, Verdun'en eta Fort de Vaux'en egonik. Baiona'n il zan 34 urtekin; gudan igarotako neke lam-en ostean, gaitz etoi batek' eratsi zuen illobira. Senpere'k oraindik ere negarrez oroitzen du bere osalari gazte argia.

1921'an «Gure Herria» agerkaria irasi zuten euskaltzale sutsuen arteko dugu; maite-maite bait zituen euskaldunen izkuntza, oitura^ekandu, lege, kantu, dantza ta eusko^nortasuna erakusten diguten beste agerkunde guztiak. «Gazte hiltzera dohanaren kantua» duzu aren azken lana, fede biziz ta biotzondo beroz egiña.

Senpere'n eman zioten lurra aren gorpuari, ta «Gure Herria»-k dakar (1922, 673 orr.) aren obi aurrean Ribeton medikuak irakurri zuen itzaldia.

(Ikus J. Riezu, *Flor de Canciones Populares Vascas* (Buenos Aires, 1948), 21 orrialdean; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 20 orr.).

8.—NQRBERT TAUER (1898-...)

Txekoslobakia'ko PizenPilsen urian munduratua dugu 1898-6-6'an. Praga'ko Salerosketa Goi-Eskolan ikasi zuen, 1914'ük 1917'ra. Lan Agirietako Zalgoko ta Praga'ko Udaletzeko Diplomazi-zerbitzukoai 1918'tik 1958'ra; amar urtean, 1929-1939, Madrid'en bizi izan zuen bere aberriko Arrotz-aremanetako Zaingoko arduradun bezela. Gera artan ezagutu zuen Euskalerrria, naiz-ta geroztik ere maiz emen egona izan. Praga'n bizi da gaur, zartzaro erosoan.

EUSKALTZALE.—Euskaltzale ez[^]ezik, euskal idazle kartsua dugu Tauer. L. Mitxelena'k onela: «Nola aditzera eman, aditzera eman bearrik balego, zenbaiteraiñoko zorra dugun euskaltzale arrotz onengana? Gutariko zenbait baiño geiago arduratzen da euskeraren biziarekin eta lantzeaz, eta are esango muke trebeago mintzatzen ikasi duela, arlaren ariaz, jaiotzez euskaldun garan asko baiño» (*Egan*, 1963, 1-3, 149 orr.).

Nundik nora erne ote zitzaion griña ori? Berak dliosku: «Ogei urtedun gazte bat izanik, Euskalerrira lenengo etorri nintzan eta euskal abenda garbi ta sendoa, inguratzen duten ernetako abendekin zer ikusirik ez duena, baita ere Euskalerriren oitura jatorrak eta kanta ederrak txoratu naute. Abenda arri-garri onen izkuntza ederra ikasteko asmoa arturik, Baionako liburutegi batean euskerazko liburu batzuek, oien artean Kampion'ek idatzitako euskal-iztia erosi nitun. Eta etxeratu ondoren, kemen aundiarekin ikasten eta euskerazko liburu berriak erosten asi nintzan. Orain nere euzko-liburutegian eundaka zenbaki daukadaz. Eta onela piztu zaida euskaldunenganako maitatsutta. Atzerritar asko bezela, ikasten ez-ezik, baita biotz-biotzez eta barren-barrendik euskera goxo eta eztitsúa maitatzen dut» (*Bere Idazkiak*, 7 orr.).

Ona egin zuen lenengo osteran, Euskalerrlak egiaz irabazi zion biotza, ta geroztik euskaltzalerik pórrokatuena duzu. 1935'an asi txekeraz Euskalerrria goratzen, ango «Prehled» agerkari katolikuak euskaldunai eskeiñi zioten zenbaki berezian idatziaz. Ondoren, 1942'tik batez ere, euskeraz idazten asi zan «Euzko-Deya»-n, «01erti»-ai, «Karmel»-en, «Egan»-en, «Geriúka»-nj «Umeen Deya»-n era abarretan.

Euskaltzaindiko urgazle da 1955'tík. Buenos Aires'ko; «Euskaltzaleak» bazkunakoa da, baita «Instituto Americano de Estudios Vascos» izenekokoa ere.

Ainbat sari jaso ditu: 1959'an, Mexiko'ko Euzko- Batzoklak «Euskeraren Pizkundea» lana saritu zion. Buenos Aires'ko

«Euskaltzaleak» euskeraren eguna ospatzeko oitura zuten len-
dik, eta 1954'an, «Idazkuntza» deritzan Batzorde bat sortu
zuen; Idazkuntza orrek, bere asmoa zanez, euskaldunak zirikatu
zituen beren alkar idazteak euskeraz burutu zitzaient; ortarako
norgeiagoketak antolatzen asi zan, urtero, euskeraren egunean
sariak, aurretik jarriak, emanez. Nor-geiagoka oietan Tauer
izan zitzaigun txapeldun sei-zortzi urtean, urtean 300 bat idaz-
ki ari ta oni idatziz.

«Euskaltzaleak» gogoz biltzen zituen idazki oiek, eta 1962'
an, sari bezela, liburuxka bat —*Nere Idazkiak* (Buenos Aires,
1962)— osotu zioten, sarrera jori, 25 idazki ta txekarraren 5
olerkiz ornituta. «Ekin» argitaldariaren irarkolan. 84 orrialde.
Txekera ba-ditu oindio, «Narodni obzer» aldizkarian baitik
bat, euskaldunai buruzko lan batzuk: *Baskové* (Euskaldunak),
1936; *Baskovtina a její dnesni dituace* (Euskera ta beronen
egoera), 1965; eta besteak.

Nik ere, nerez, au diot: euskaltzale kartsu oni, Tauer jau-
nari, iñoiz ez diogula, euskeraz idatzi ta idatzi, guri zabar xama-
rroi egin digun mesedea bear bezela ordaindu al izango. Bue-
nos Aires'ko «Euskaltzaleak» goratarrea egin zion «bere anei
edo millagarren eskutitzaren idaztea» zala-ta. Baiña ez uste izan
txapelketetako diruagatik euskeraz idazten asi zanik, gure erriari
ta geure izkuntzari dion maitasunagatik baiño: «euskera ikasi
zuenetik, kemen guziz ekin zion mintzaera zar berdkigabsan
idazten». Badu onek mamia, baita gure literaturan «zera» ere.

(Ikus G. Garriga, *Bol. Amer. de E. V.*, 1957, 123 orr.; J. Artetxe,
Portar bien, 1957, 170 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1963, 1-2, 149 orr.;
J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 159 orr.; Auñamendi, *Literatura*,
III, 593 orr.).

Gironda'ko Mérignac'en sortu zan, Bordel'eük sei kilometrorra, 1899-8-4'an. Lendabiziko eskolak bere sorterrian arturik, Bordel'en egin zituen bigarren maillakoak. 1916'an, «Ecole Normale Supérieure» ikastetxe nagusian artu zuten, ikasketak jarraitzeko; balña urrengo urtean, gerra zala-ta, soldadu joan bear izan zuen.

Andik iru urtera fisolofizko «agregazionea» irabazi zuen. Eta arrezkero filosofia erakutsi du geien bat, Alencon'en bi urtez, Paue'n amar urtez, Bordel'eko «Michel Montaigne» lizeuan lau urtez. 1937'an tesis bat apailatu zigun. 1939'an, berriz ere gerra zala-ta, Lafon teniente ordeko lez artilleriara igortzen dute. Urrengo urtean doixtarren menpe jausten da, ta atxillo daukate amairu illabetez, eta 1941'an, osasun urrikoa zan-eta, Frantzira itzultzen utzi zioten.

Berriz ere, 1943'tik 1948'ra, bost urtez filosofia irakatsiko du. Baita, 1944-5-2'an, «tesis haundi bat aurkeztuz XVI garren mendeko euskal aditzaz», doctor titulua irabazi ere. Euskaltzale jator bezela, berak ideki zuen 1948'gneko urrian, Bordel'eko Ikasgu Nagusian, euskal izkuntza ta literaturazko irakaskuntza nagusia; 21 urtezberak euki zuen irakstegi au, eta gero Jean Haritsxelhar jaunari utzi zion.

EUSKALTZALE.—Gizaseme jakintsua zan, izkuntzalari bezela batez ere. P. Lafitte'k onela: «Erran gabe doa hainitz jatónsu-batasünetan barne zela, bai Frantzian, bai Belgikan, bai Rusian; asko eta asko aldizkairitan idazten zuena; bai Parisen, bau Donostian, bai Tolosan, bai Tiflizen, bai Salamankan; mintzaldi egiteko prest zagola ezker eta eskuin, berezki «Congreso» etan. Mila arrazoinekin bildu zuen Euskaltzaindiak eta euskaltzain oso egin, bai euskal-hizkuntzalari gisa, bai Akitania euskal ohiaren seme gisa» (*Euskera*, 1974, 6 orr.). 1953'an egin zuten euskaltzain.

Nola ikasi zuen euskera? P. Lafitte'k berriz ere: «Hamar urtez udan Larrañen ibili da gure Lafon, xuberotarren euskararen ikasten. Denbora berean liburuz-liburu Caucase-ko mintzairai berri ere hasi zan biltzen. Emeki-emeki jabetu zen ez dakit zonbat hi kuntzaz: ulertzen zituen frantsesa, latina, greka, alemana, rusoa, kaskoia, española, anglesa, zazpi euskal-herrietako euskalkiak, eta georgiarra arras beretu zuen, haletan nun Georgiako gobernuak hari eman baitzion hango hiztegi nausiaren ikuskatzeko eta zuzentzeko lana» (*Le. cit.*, 7 orr.).

Nudik eme ote zitzaion Kaakaso'ko izkuntza-zaletasuna? Lafon'ek Platon'ez egin nai izan zuen bere tesisa, aren izkera bereziaz jabetuz; Platon'en arbasoak Kaukaso alderik jatxi omen ziran Elade'ra, beren gisako ele askorekin. Orduan asi zan, euskera ta georgiera, ahaide urbillak zirala esan ziotelako, euskera ta georgiera ikasten.

Lafon'ek lan ederra burutu izan du euskal literaturan, izategia, aditz jokoa, joskera, idazle zarrak (Leizarraga, Etxepare, Betolaza, Oihenart eta abar) ederki ikertu ta adieraziz.

(Ikus P. Lafitte, *Euskera*, 1974, XIX, 5 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, IV, 564 orr.).

10.—PIERRE LAFITTE ITHURRALDE (1901-...)

Oian trinkoan ibilliz ez da gaitza tantai eder baten aurrean otoz-otoan aurkitzea. Berdintsu, ausaz, euskal literaturan ere. P. Lafitte jauna, bederen, olaxe danik ezin ukatu: ariz-ariz lan egiñik tantai galant biurtua duzu aspaldi danik. Bere bizialdi guztian jarduna da euskal kezkek artua, nekez ta alaz bizi izana. Euskalerrriak asko zor dio P. Lafitte'ri, literatura zelaian bereziki; gaztetatik gaur arte, egundo ere gogobetatu gabe, gure elearen balioaz oarturik, lan izugarria burutu digu. Eta onek eluke itz utsetan galdu bear.

BIZITZ-OSTOAK.—Luhosoaln sortu zan P. Lafitte, 1901-5-21'an. Len ikasketak, 1908-1912, Iterrotz'en osotu zizkigun, gero Beloke'ko ikastetxean, 1912-1919, batxiller eta gaiñerakoak egiñik. Baiona'ko Seminario aundian ikasi zituen elizkarrerako goi-eskolak, 1924-7-13'an apaizgoa arturik. Gero ere oraindik, bi urtetan, Tolosa'ko Instituto Katolikuan eta Letra-Ikasguan egin zituen ikasgaiak sakondu ta tinkotzen.

Orduan berean, ots, 1926'an, Ustaritze'ko Seminario Txiki-ko irakasle izendatua izan zan; eta arrezkero guztian ortxe jarraitzen du, bere etengabeko lañaren erraiñuak nainoiz ta noranal dizditsu bialdurik. 1928'an Letretan lizenziatu zan; ementxe dagoela idatzi ditu konta ezin ala artikuluk; ementxe zegoela sortu zuen «Aintziña» illerokoa, 1934-urrilletik 1937-iraillera agertu zana; 1940'an, apiriletik abuztura, gerran ibilli zan, Injenieruen 7'gn. gorputzean; ementxe sortu zuen, 1944'an, «Herria» asterokoa, 1967'raiño zuzendu ere egin zuena; 23 urteko lan bikain. Ementxe zegoela autatu zuten, 1953'an, euskaltzain oso; ementxe zegoela baita Baiona'ko Eleiz Nagusiko kalonje deduzko izendatu zuten 1961'an. Eta, gurenez, ementxe daukagu gaur ere, liburu zar eta berriz, bertso-paper zar eta berriz inguraturik, lanari, euskal lanari gogo zoli ta biziz ekiñaz.

Eragille ere izan da. Ezta errez zenbatzea egiñak ditun mintzddi mordoak; eta eguneroko, asteroko ta agerkarietan azaldu dizkigun lanak, argitaratu dituen liburuak, idatzi ditun liburuak... Bizitza osoa euskera ta euskaldunaren zerbitzuan.

IDAZLE.—Euskeraz eta frantsesez idatzi du. Ona lan oieterik batzuk.

a) *Euskeraz:*

1) *Egiazko argia. Azken gerlako gertakari bat* (Baiona, 1927). «Gure Herria»-n dator, VII, 104, 302 ta 494 orrialdeetan; baita «Antzerti»-© ere, 1933, 14 ta 15 zenbakian, Tolosa, Lopez-Mendizabd'enean. Lau ekitalditako antzerkia.

2) *Julien Héguy apheza* (Baiona, 1930). «La Presse» irarokolan. 12 orrialde. Baita «Gure Herria»-k ere, 1930, X, 312 orrialdean.

3) *Eskualdunen Loretegia. XVI garren mendetik hunaíeko liburuetatik* bildua. Lehen zatia (1645-1800). (Baiona, 1931). Lassere'k argitara emana. 133 orrialde. Lendik «Gure Herria»-n ere, 1929-1930-1931 urteetan azaldua. Aspaldikoa da, noski, gure artean euskal liburu zaharrak berriz argitaratzea; baiña nork erosi? Ori zan P. Lafitte'ren kezka, gaurdan bezelaxe. Ortik otu zitzaion idazle ta liburu zahar oitatik irakurgai sail bat aukeratzea. «Zahar ala berri —dio—, eskuarazko irakurgai andana bat —eskuratu halikatu guziak— bururen-buru iraganik, gehieneti zatiño bat edo bertze hartu dazkotegu, on zirela agertzeko iduritu zaikunean. Hemen dituzu zati horiek bildurik. Gutiz gehienak ederrez hautatu ditugu, bertzeak bitxi ala idazlari famatu baten antze berezia erakusterat emaiten dute-lakotz... Irakurgaiak urteka ezarri ditugu, zaharrak lehen, irakurleak ikus dezan eskuara mailka goiti ari mendez mende. Zati bakotxari eratxiki zaizko asko argitasun, idazlarien bizitzea laburzki emaiten dutenak eta behar orduan hitz adigaitzak adierazten» (*Irakurleari*, 5 orr.).

4) *Elizako liburu tupia* (Baiona, 1931). S. Durruti'rena, Lafitte'k zuzendu, geitu ta argitaratua.

5) *Euzkadi. Bixtan da Espainian*. P. Lafitte'rena diñoenez.

6) *Koblakarien legea* (Baiona, 1935). «Gure Herria»-k aterata, 16 orrialde. «Bi hitzez erran ditake —dio— koblakari bati baitezpadako zaizkola jekiua eta jakitatea. Jeinu, jiteak emaiten du, beraz Jainkoaren ganik heldu da Jakitatea, parte jitetik, parte ikastetik. Aaken pundü hau baizik ez dugu hemen hunkitako: nehoari ez dezakegu guk dohain berezirik eman; bainan xcüki zombait xehetasun, zombait konseilu xume, sortzetikako doháinen azkartzeko, laguntzeko eta ahalik hobekiena

baliarazteko» (1 orr.). Sailtxo auek arrotzen ditu: 1) *Gela*; 2) *Mugak*; 3) *Pertsua*; 4) *Kobla*; 5) *Mintzairia*; 6) *Edergailuak*, eta 7) *Azken Hitza*. Intz-tanta pitiñak, beti eder.

7) *Euskal-Herriaren alde. Euskal-herri-zaleen chedeak baitzepadako chehetasun batzuez laburzki argituak* (Baiona, 1937). 41-6 orrialde. «La Presse» irarkolan.

8) *Kantuz* (Baiona, 1939). «Le Livre» irarkolan. 208 orrialde. Kanta sail ederra, «Aintzina»-k argitara emana.

9) *Jesu-Kristore>n Bizitzea edo Ebanjelio tupia* (Baiona[^] 1939). Ch. Paillart. 80 orrialde. Bigarren ager-aldia ere Baiona'n egin zuen «La Presse» etxe argitaldaria. 134 orrialde.

10) *Hazila edo Hilen ilabethea* (Baiona, 1943). «La Presse» irarkolan. 69 orrialde. Liburuxka au irakurtzen duenari esker ona erakusten dio egilleak, esanik: «Irakurtzaileri hitz emaiten diotet meza salnduan, bizi naizeno, hetaz eta hien hilez orhoituko naizela; geroxago, zerutik ere egin-ahala lagunduko ditut, Jainkoak nahi badu segurik» (*Aintzin-solasa*, 3 orr.).

11) *Herriaren aldeko kantuak* (Donibane-Lohitzune, 1935). 4 orr.

12) *Murtuts eta Bertze. Artho churitzeko zonbait ichtoria chahar* (Baiona, 1945). «La Presse» irarkolan. 55 orrialde. «Aintziña» bilduma.

13) *Mend,e huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak* (Baiona, 1974). «Gure Herria» aldizkaritik. «Cordeliers» irarkolan. 23 orrialde. 1973-3-21'an, Donostia'n eman zuen itzaldia.

14) *Idek eta zabal gogo-bihotzak* (Baiona, 1974). 72 orrialde.

15) *Bernardo Gazteluzar olerkaria (1629-1701)*. Ikus «Gure Herria», 1974, 9, 69 ta 161 orrialdeetan.

Onezaz galñera, «Gure Herria»-n, «Herria»-n, «Euskera»-n eta abar datozen ainbesterañoko lanak: «Nola egin den Aldudé», «Eskualzaleak Alduden», «Atlantika-Pirene etako sinheste

zaharrak», «Eskuará Kanbon», «Gonzalve edo ostatu betea», «Eguberri-aroa Eskualdunen ohiduretan», «G. Lacombe», «Rene Lafon zenaz zonbalt hitz», eta besteak.

Gogora baita antzerki auek ere: «Orratza», «Sarea», «San Frantses», «Chalbaten merchika-ondoak», «Eguberri», «Maritxu», «Merkatuan», «Amerikanoa», «Mirikuan», «Illargia», «Oyharzunak», «Hil-biziaren ordenua» eta «Auspoa» bilduman datorren «Mañex Etchamendy (1873-1960)», 1972, 244 orr.

2) *Prantsesez:*

3) *Les études basques a travers les siècles* (Baiona, 1932). 1932-1-7'an Euskal Museuan emandako itzaldia. «La Presse» irarkolan. 16 orrialde. Ikus «Gure Herria» ere., 1932, XII, 139 orrialdean.

2) *Ai. le chanoine Gratien Adema (1828-1907). Ai. l'abbé Jean Barbier (1875-1931)*. Baiona, 1933. «La Presse» irrakolan. 47 orrialde, 1933-3-2'an, Baiona'ko Apalzikastegi nagusian emandako itzaldia.

3) *Euskal-Herriaren alde (Por le Pays Basque). Court commentaire du programme eskualerriste a l'usage des müitañts* (Baiona, 1933). «La Presse» irarkolan. 43-V orrialde.

4) *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarra et Soule* (Baiona, 1942). «Le Livré»-k. 91 orrialde. Itzddla. «Aintziña» bilduma.

5) *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona, 1944. «Le Livre» liburutegiak. Bordele'ko Delmas'en irrakolan. 489 orrialde. Lau zati ditu gramatika eder onek: 1) *Leñ-asi-masiak*: izkiak, euskeraren etorkia ta edapena; esaldien erakuntza; 2) *Esaldian aditz ez diran gaiak*: mugitzak, nolazko itzak, adierazgarri-malllak, itz aldakaltzak; 3) *Aditza*: aditza erabat, nor ez diran erak, nor-erak; 4) *Joskera*: *ar-emaneko joskera*[^] aditz-esaeren joskera, irudiak. Egitan idatzi zuen L. Mitxele-na'k: «Bada iritzi bat arras zabaldua dagoena Euskal-errian eta Euskal-errikan kanpora. Iritzi orren arabera, Lafitte euskaltzain

jaunaren Gramatika da arki ziteken euskal-gramatkarik osoena eta, erabat esateko, onena. Gogoz aldatu dut iritzi ori onera, neroni ere bat bait-nator orrelan... Bestetan ere liburu onezaz mintzatu bearko dut eta aski izan bekit oraingoz esan dudanaaz» (Egan, 1963, 1-3, 144 orr.). Bigarren argitalpena 1962'an izan zuen. ' : .

6) *Georges Lacombe 1879-1947* (Baiona, 1949). «Courrier»; irarkolan. 11 orrialde. Ikus baita «Herria»-n ere, 1949, ingurrazti bezela. Euskaltzaindian sartu zaneke itzaldia duzu.

7) *Autour de Ja Bible traduite en basque por le père R. Olabide* (Baiona, 1959). «Herria»-en argitalpenak, «Cordeliers» irarkolan. 24 orrialde.

8) *Les courantes de pensé dans la Uttérature basque cori-temporaine* (Baiona, 1969).

9) *Dictionaire basque- franeáis et frangais-basque, par le R. P. Lhande, S. J. Ae l'Academie basque, avec la collaboration de M. Vabbé P. Lafitte et M. l'abbé Aranart, professeurs au Petit-Séminaire d'Ustaritz*. P. Lhande'ren Iztegiaren lí'garren ale au, 1932'an orrela iragarria izanagatik, ezta oraindik azaldu.

10) *Lexique jrangais-Basqué* (Baiona, 1954). 568 orrialde. «Herria»-k argitaratuta. Andre Tournier'ekin batera burutu zuen laña.

11) *Poèmes basques de Salvat Mgnho- 1749-1821* (Baiona, 1972). «Ikas» argitaldaria. 200 orr. 51 poema dauzka, itzuli ta oarrez ornituta. Ander Okaña'ren irudiak.

Aipagarri dira oindio «Gure Herria»-n eman dizkiguii lan auek ere: «Sabin Arana Goiri, sa vie, son oeuvre, son ínflueñce» (1966), «Un inédit d'Arnaud d'oyhénart: L'Art poétique basque» (1967), «Copiage bio-bibliographique autour du poete Jean d'Etcheverry» (1968), «Salvat Monho, poète basque 1749-1821» (1970), «La Littérature basque dans l'ambiance d'Ustaritz» (1964). Baita «L'Etat actuel des études basques», Sorbona'n egin zuen itzaldia ere.

OLERKARI.—Ez dugu sarri liburuetan irakurri, ez itzaldietan entzun, P. Lafitte olerkari danik; eta ain zuzen, gaztetatik ortan aritua da. Berariz utzi dut atzenerako luhosotarrareni doai au. Ba-du idaztiño bat ere olerkiz ornitua: *Ithurralden Kantuak* (Baiona, 1932). «La Presse»-en irarkolan «Lasserre» eta «Le Livre» liburutegiak argitara emana. 62 orrialde. 25 olerki guztiz.

Kantu liburu ederra, Iturralde'k bere atsegin eta atsekabeak laiñoki abesten dizkiguna. Berak diosku garbai Iturralde nor dan eta zer dan liburua. Iturralde gizon gazte bat da, ogei ta amaika urtekoa, «itsaso axala bezain aldakorra —dio—. Itsasoa egun jabal, bihar hasarre; egun irriz iguzki ederrari, bihar ekaitz nahasiari ilun eta hits. Nere laguna berdin: orai dena irri eta bitrikerla, sarri dena otoitz eta liburu, gero begi-ninia bezain minbera eta nigarti; batean kongragazioneko neskatxa bezain herabe, bertzean ozarraren-ozarrez buhamla ahantz-arazten. Bainan, dela atsegin ala atsegabe, uri ala aterri, beti kantuz gure gizona; iduri eta kantu horrek bozkarioa luzatzen zion, eta ordu txarretako kiretsa ezitzen. Bera bezalakoa da egun eskaintzen daukun liburu xumea: dena kantu; eta kobla batzuetatik bertzetara nolako aldakuntza! Segur ez dute iduri iturburu beretik sortuak direla, nahiz guziek erakusten duten eglazko eskualzale baten nahikari suharra» (*Ithurralde beti kantuz*, 3 orr.). Mami ta iduri, ederto landurik dagoz guztiak.

«Gure Herria», «Aintziña», «Herria», «Eusko Jakintza», «Euzko-Gogo», «Ikuska», «Antzerti», «Axular», «Gernika», BAP, «Euskera», eta abarretan idatzi izan du.

(Ikus Lauaxeta, *Euzkadi*, 1931-11-20; *Yakintza*, 1933, 79 orr.; Pedro Garmendia, RIEV, 1933, 321 orr., ta 1936, 600 orr.; S. Onaindia, 1954, 1130 orr.; *Gure Herria*, 1952, 315 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1963, 1-3, 144 orr.; N. A. G., *Egan*, 1963, 4-6, 233 orr.; San Martin, *Egan*, 1963, 1-3, 145 orr., eta *Escritores euskéricos*, III orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, 172 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 56 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 561 orr.).

11.—JEAN PIERRE ZUBIRIA IRIGOJEN (1902-...)

Senpere'n jaioa 1902-1-2'an. Berak bere kasa ikasi izan du dakian guztia. Eta erakusten digu, ez izan dudarik, jakituri berarizkoa bere kopla dotore biribilduetan. Maite du —nork ez luke bear?— euskera, bere izkuntza ezta; maiz goratzen du ahapaldi goxotan. Nik, nere olerki bilduma, «Milla Euskal Olerki Eder» deritzana, osotzerakoan bat autatu nuen berea, «Eskuara»: poema ontan goi-goi jartzen du euskalduna ta bere euskera. Eta olerkariak. Amar ahapaldiko lan eder ontako laugarren ahapaldiak onela kantatzen:

«Barbier eta Otxalde, Etxahun, Oxobi,
bertze hoitabortz ere heiekin koblari:
Gu ere gaiten heien sailean bermaturik segi,
bizi dadin eskuara orai eta beti» (1174 orr.).

Izan ditu sariak ere. 1960'an, beste baterako, bigarrena eraman zuen bere «Maritchu» poemak, irugarrena bere «Haitzhaundia»-k eta aipua bere «Eskuara gure ama»-k.

«Gure Herria» illerokoan eta «Herria» astekarian idatzi du batez ere.

(Ikus S. Onaindia, *Milla euskal Olerki eder*, 1954, 1174 orr. *Gure Herria*, 1960, 92 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 174 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 73 orr.).

12.—ETIENNE JOSEPH SALABERRI (1903-..)

Idazle porrokatua, astero datoz bere artikulua «Herria»-n euskeraz eta frantsesez. Urte askoak dirala asita, eztu inoiz ere uts-egin bere kazetari jardunean. «So Egilea» darabil euskerazko lanak izenpetzean: beti eder ta maixuki.

Eleta'n jaioa da «Garra» etxean, 1903-2-18'an; etxe orretan sortua zan, baita, Garra Salagoiti (1736-1808) apaiza ere, Donibane-Lohitzun'eko Ur-Elesti Ikasgua jarri zuena. Beloke'n ikasi zuen lendabizi, eta gero Ustaritze'ko Apaizgaitegian. Filosofia ta abar Baiona'ko Seminario Nagusian, azken goi-ikasketak Tolosa'ko Unibertsitatean buruturik; bertako Letra ikasguan lizenziatu zan Filosofi ta Letretan, eta Instituto Kalolikuan Eskolastikuen Jakintzan.

Arrezkero, au da, 1931'tik 1958'ra, gerra urteetan (1939-1945) izan ezik, Ustaritze'ko Seminario Txikian' Filosofia azaldu izan du. Gudaldian doixtarren mende jausi zan, 1940'tik 1945'ra baituta egon bear izan zuen «Stalag IV B»-ean; etzan an ere esku-zuri egona: «Stalag IV B»-eko ikastetxea sortu zuen, ikurritz onekin: «In veritate libertas». Atxilotu lagunak Salaberri berau aukeratu zuten Ikasgu ortako buru. Askatasuna lorturik, bere oizko zeregiñetara itzuli zan berriz ere.

1958'an, Balona'ko San Luis Ikastetxeko irakasle izandatu zuten, Villa Pia'n filosofi-galak azaldu ta len-arauak edo Propedeutiko ikastaroa zuzendu zezan. Urrengo urtean, gaiñera, Guyon Gotzaiñak Baiona'ko Katedraleko deduzko kalonje izendatu zuen. Ustaritz'en daukagu, langille gaur ere.

EUSKAL IDAZLE.—Gaztetan asi zan luma erabiltzan, eta ge-roztik ez dio eman pakerik idazteari. Euskeraz «Herria»-n, «Gure Herria»-n, «Gernika»-n, «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, eta abar idatzi du, ta prantsesez «Basque-Eclair», «Chanteclair», «Messenger du Sacré-Goeur», «Les Echos des Conféranoes de St. Vincent de Paul», eta olakoetan. «Herria»-k prantsesez ekarri oi duen orrialde erdia beronek idazten digu beti, «Tribune Libre» idazpurupean. Gai asko jorraturik ere, euskal auzia zitzaiotse atsegiñen. Bardauzka saio batzuk ere, lerdengi osotuak: «Du régionalisme a l'internationisme», «La fête dans l'âme basque», «L'homme basque», «La messe sur le Pays Basque», «Le Pédagogue et le Commissaire», eta besteak.

Balña «So Egilea»-en lanik ederrenak, euskerazkoak ditugu noski, euskal literaturarako beiñik-bein. Sakon, errez ta bizkor idazten du, kazetari egiazko bati dagokionez. Irakur, eredu bezela, ondorengo zatiño au, gaur ekarri didaten «Herria» (1977-6-30) 1402'tik artua; «Ingles leinua» deritza; «Hemetzigarren mendea izan da mende inglesa. Victoria erregiñaz erran zitakeen, hamaseigarren mende espaiñolean Felipe bigarrenaz zerasatena; «Iguzkia ez da behinere etzaten harén rntasunen gaiñean».

«Geroztik lehengo etxetiarrak jalgi dira beren askatasunaren jabe, oraingo etxeko-jaun. Horiek hola, egunda inokotan bizi ingles leinua. Lau gizonatarik bat munduan barne dago leiñu hortan. Eta egon nahi. Inglaterrako erregina ez da gehiago herri guzietako erregina. Baiñan leinu osoaren lehendakaria.

«Ez du indarrrik Inglaterrak bere belaun pean atxikitzeko urrungo herriak, bera baino eremuz, jendez, eta askotan indarrez eta ontasunez aberatsago dituen herriak. Indarrak egin dezakeena egin dezake atxikimendua. Indarra desegin-eta gelldi ditake atxikimendua. Indarraren lokarria kauskor. Atxikimendua soka iraunkor. Ingles leinuaren azauak ez du oraikotik lokarri indarra. Atxikimendua du bere soka.

«Inglaterra hala atxikia da Elisabeth bosgarrenari, ez bakarrik delaketz erregina, bainan ere delakotz ingles leinuaren artzaina. Commonwealth, ingles leinuaren izena».

Gisa onetan, bizkor ta jakintsu darabil Salaberri'k bere luma. Berri bat eman-ala, jakituri poxia ere beti ezarriko digu le-rron artean. Kazetariak, ain zuzen, ez du albistak emanez naikotu bear, oien barne ta inguruak nola diran eta nola joan bear duten adierazi ere bai, alegia, Filosofi-pitiño bat guztiz ederto dator gure idazlanetan, gidari legez; ori gogo izaten du beintzat irakurleak.

Eta orixe da izan ere Salaberri'ren lanetan aurkitzen duguna euskaldunak nai duen euskal jakituriaren gatza ta pitsa.

Olerkarien eremuan, berriz, gain-gaiñetik bota du orkatza. Ainbat poema ditu, or-emen, euskal aldizkarietan sakabanatuak. Ba-du teatrulan bat ere: *San Pranses Xavierekoa*. Labur: idazle, izlari, irakasle, olerkari, berri-emaille dugu eletar argi au, euskerearen onerako urterik urte lan jatorra burutu diguna.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1140 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, 176 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 120 orr.; San Martin, *Escritores euskéricos*, 154 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 79 orr.).

13.—JEAN BAPTISTE ETXEBERRI (1903-...)

Donestihiri'n jaioa, 1903-3-3'an. Beloke'n eta Baiona'n osotu zituen bere apez-ikasketak. Euskaltzale jator. Euskaltzaindikoa.

Aldizkariotan idatzi du: «Eskualduna», «Almanak» ta «Gure Herria»-n. Azkenengo ontan lan auek izenpetu ditu: «Aita Iribarne misionezta» (1964, 372 orr.), «Ichtoriocha harrak» (1965, 51 err.), «Ursuiako lorea» (1965, 138 orr.), «Lengengo denboratan» (1966, 221 orr.), «Santa-Cruz» (1968, 97 orr.).

Liburuok ere bereak ditu;

1) *Zeruan buruz* (Baiona).

2) *Michel Garicóitz Sainduaren bizia eta bertuteak* (Baiona, 1962). P. Lalitte'k aintzin-solasa. 244 orrialde. Iru zatitan banatuta dago: Bizitzea, Bertuteak, Hiltze eta ospe. L. Mitxelena'k onela: «Leenak eta azkenak Santu euskaldun onen bizitza eta eriotza agertzen digu —«tiletz-tiletz», Lafitte jaunak ederki dion bezala—, bizi zeñekoa eta il ondoren anitzen go-goetan itzali ezten «irugarren bizitza». Eta bizitzaren ondoan, ark sortu zuen «Bihotz Sakratuaren aphezen batasuna» deritzan obraren sortzea eta zabaltzea. Eztigu gaiñera Michel Garicoitz basamortuko bakardadean bezala agertzen, bere garaiko eta mendeko gizonekin atengabeko ar-emanetan baizik...

«Orrezaz landara, bigarren zatiak eskeintzen duen baiño geiago ematen du, ezpaita egillea Michel Garicoitz'en birtuteez ari soil-soillik, erabat birtuteez baizik. Nolabait esan, kristau-ikasbide zabal baten irudiko da, anitz gertakari eta istorio, zaar eta berri, dituela bidelagun, antziñako eta geroágoko zenbait euskal idazle presturen moduan eta eran... Arriturik utzi nau bere (euskeraren) aberastasunak, arriturik eta izuturik, ezpaita iztegietatik artua, baizik eta berezkoa, ao-mintzaeraren iturri garbitik dariona: maiz aski, azkenik, iztegietan arkitzen eztena. Bere liburua irakurri ondoren, asia nauzute pentsatzen ez ote mukean euskeraz ikasten abiatu bear, eta asi-asieratik abiatu, gaiñera» (*Egan*, 1963, 1-3, 151 orr.).

3) *Frantziako Erregiña* (Baiona, 1966). 286 orrialde.

Iru liburuok, beste lanak bezela, goxo idatziak daude. Irakur zatiño au Mixel Garicoitz'en apez-izan naia dala-ta, «Egun batez —idazten du—, bere baitan senditzen zuelakotz apez egiteko deia, erran zion amari: «Ama, apez egin nahi nuke!» -«Hi, haurra, apez! Sobera pobreak gaituk hortako!» -«Hi, apez! zion erran aitak ere, badakik arras untsa ez dutala linja, truzoaren pagatzekorik». Haurra ixilik egon zen, bainan etzuen bere xedeari uko egiten.

«Lan bat manatzen zioten aldi guzietz Michelek erraiten zioten ait'ameri: «Mancha, eginen dut zuek errana, bainan dakizuen bezala, apez egin nahi dut». Anartean bere aitak igorri zuen Michel laborari-etxe batetarat mutil bezela, Donapaleuko ondoan den herri tiki baterat, Unhaso Angelurat. Ezin gehiago maite era estimatzen zuten etxe hortako nagusiek beren sehia... Geroxago, Michel itzuli zen etxerat hamasei urte zituelarik. Sekulan bano gehiago apezteko gogoaz zuen» (18'garen orr.).

(Ikus L. Mitxelena, *Egan*, 1963, 151 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 82 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 83 orr.; J. B. bao, *Eusko Bibliografía*, 255 orr.).

EGUNEROKOAK ETA ALDIZKARIAK

i. «ALMANAKAK» .

-. XIX'gn gizaldia, iñoiz esan da, euskal agerkarien goizna-barra izan zala mugaz andik, ots, Lapurdi'n, Benaparroa'n eta Zuberoa'n. Eta *almanakak*, aipatzen dizkigu aurrenik P. Lafitte'k. Uztaritze'ko komentuan kapellau izan zan Etxeberri apezak atera zuen lenena 1848'an, eta geroztik uts-egiteke azaldu izan dira Baiona'n, "Miarritze'n naiz Pabe'n molde, jas ta eite berdiñeko ürtekariak. Ona batzuk;

— *Almanaka berria edo egunaria*. 1880 urtearentzat. Ilabete guzietako denboraren indikazionarekin eta bertze asko, erran zakar, titxo ta-ixtoriorekin (Baiona, 1879). 37 orrialde. Urteetan iraun zuen almanaka onek. 1914'raiño, Etxepare anden ekiñez.

— *Almanaka berria edo Ziberouko eta Base-Nabarreko egunaria* (Paube, 1887). 30 orrialde. Arreta aundiz egiña. Luzaro azaldu zan, 1914'raiño bai, Zalgiz'ko Iribame apezak argitaratuta batez ere.

— *Almanaka berria edo eskualdun egunaria* (Donibanej 1885). '"" .--- *Eskualdun Gazetaren Almanaka* (Baiona, 1887-1890).

— *Eskualdun laborarien adiskidea* (Baiona, 1900).

— *Esküaldünentzat eskuarazko egunari edo almanaka berria* (Baiona, 1903-1908).

— *Eskualdun Ona Almanaka* (Baiona, 1904-1907). 46 orrialde. .; -

— *Eskualduna'ren Almanaka* (Baiona,-..;1920).;: , •-:/:

Almanaka edo urtekaria (Baiona, 1924). «Gure Herria»-ren Egutegia, v.

— «Courrier» agerkariak ere euskeraz atera zuen (Baiona, 1931).

— *Gazteen Almanaka* (Baiona, 1933). ;

..—*Eskual Egutegia*(Baiona, 1933), J. Elizalde'k atera zuen.

«FEDEAREN HEDAMENEN URTEKARIA»

x<Annles de la Propagation de la Foi> zan euskeraz, Baiona'n 1877'tik aurrera azaldu zana. Abbadie apez jauna izan zan agerkari onen buruzagi ta itzultzaille jarraikoa. Bi-illerokoa zan, eta geien baten LasserreVen irarkolan azaldua. Fedearen zabalkundeko berriak eman oi zituen. Abbadie'k, 1891'an, Joahategi'ri laga zion egiteko ori, eta onek Landérretxe'ri.

Nolako euskera ote zebiltzaten zegizkiten itzulpen oietan? P. Lafitte'ri laket zitzaiona ez noski, onela bait dio; «Itzulpen oiek, oso merezigarri dirake Jainkoaren aurrean ezmezik gabe, baiñan euskai jítátik urrutixe ditugu» {*Le Basque et la littérature d'expresion basqué*, 61 orr.).

Geure egunotararte jarraitu izan dute itzulpenok.

«ESKUALDUNA» ASTEROKOA

T886'an, «Réveil» zefitzan euskal aldizkari txiki bat atera, zuten Baiona'ko errepublika-záleak, eliz-gizonen aurka atera ere. Bertanbera izan zuten erantzuna. Urrengo urtean, bada, ots, 1887'an, Denibane-Garazi'tik diputadu zan Luis Etxeberri'k *Eskualduna* sortu zioten. Ark amar urtetan ekin zion, onek ordea berrogetaz urtetako bizia izan zigun.

Astekari berri au, asiera-asieratik 1916'rarte, lenengo Larresoro'n irakasle ta gero Baiona'n kalonje izan zan Hiriart-Urrutí apezak zuzendu zuen. Lendabiziko zenbakia Donibane-Lohitzun'en agertu zan, eta besteak Baiona'n. 1904-1-8'tik 1907-12-27'ra, *Éskualdun Ona* izenarekin irten zan, urrengo urtean, 1908'an, asierako izenburua artuaz, ots, *Eskualduna, Journal basque français hebdomadaire*.

Euskeraren; alde makiña bat on egin zuen albistari onek, zuzentzaille gotorrek izan zituen aldioro. Hiriart-Urrutí, kazetari bezela, kidekorik etzuen zan; nola joko egin ba-zekian, gaur goxo biar biurri, gaiak nola eskatzen zion; orain errikoi ta ots aunditsu gero. Orixe gure egunotan legez, garai artako maixu izan zan euskal idazle zar eta gazte askorentzat. Onen lanetatik sail bat beintzat, «Jakin» taldekoak liburu polit baten eskeñi digute oraindik orain.

Blas Adema'k artu zuen 1917'an aidizkariaren buruzagitza, ta, J. Hegi, Mixel Iriart, Konstandindarrak eta enparauak lankide zituela, bultzada indartsua eman zion. Andik bederatzi urtera, berriz, au da, 1925'an, Saint-Pierre'k eraman zitun zuzen-ugelak; gero, Soubelet kalonjeak, eta onen ondoren S. Arotzarena'k: auen eskuetatik igo zuen *Eskuálduna'k* aomenaren gaillurrik gorengenera.

Idazle elite —gaiña ta muiña— bat zegoen beti zuzendarien biran. Auetatik bakoitzak zeukan zegokion sail auta, idazgai berezia noski. P. Lafitte'k auek aipatzen dizkigu batez ere: Apeztegi, Otazehe, Iturbide, Elizalde, Barbier' apezak; Maurizio Souberbielle ta Etxepare midikuak; **D**asanze, Istiart, Landetxeberri, Etxebarne, Irola, Olagarai, Leon, Lassalle, Saldu-bide, Borotra, Dirazar, Aranart, **D**onetx, eta abar.

«SAN FRANTSESEN DEIA»

Baiona'n azaltzen zan, 1912'an asita. Koputxinoak eta Frantziskotarrak ateratzen zuten, Baiona'n, Donapaleu'n eta Pabe'n zeuzkaten, San Frantzisko'ren Irugarren Ordenako taldeentzako batez ere. Zarata ta julu-ala ergel gabe, urte ta urteetan edatu zuen Asis'ko Santu aundiaren arnasa euskal erretako sukalde urrutietan ere. Txalogarria benetan aldizkari onen lana ta iraupena. Aita Eusebio illez gero, ixildu zan.

«GURE HERRIA»

1921'ko urtarrilla, l'go urtea. Baiona, 15, rue de Luc. *Illabete* guziez agertzekoa. E. Blazy, zuzendari. Aldizkari ederra, euskal arloan goitik eta iraunpentsu beti jokatu duena; erri-jakintza ta literaturari begira, beroni esker, ainbat lan arruntez eta askotariko gaiez agertu dira bere orrietan. 1921'an, euskaltzale talde suar batek —Saint-Pierre, **Dassanze**, Blazi, Oxobi, Elizalde, Barbier, Apeztegi, **Dufau**, Iturbide-irasi ta bultz-araz zuen, eta orduan emaniko gurpil-xixtu ta abiadan darrai oraindik ere.

Zer asmok ote zekarren gure alorrera? Josep Xoribit'ek, euskaldun diputaduak, onela, agur egiterakoan:

«Zer da «Gure Herria...?» Beira berari. Zer nahi ote du...? Gazte batzuen gogotik ateraten da eginbide egiazko bat betez, euskaldunen arima zakarra beti egon dadin pizturik. Arima hura da gure arrazako lehen-haurraren ohakoa bizitu duena, eta gar saindu batez berotu duena. Eta eskualduntasan horren itzul-inguruak, bidexkak, harat-hunatak, barneko mamia eta bihotza nahi dituzte beren gorde lekutik jaliarazi. Halaz eza-gutuko ditugu gure aberastasun gehienak. Lurpean dagon urre

ehortzari norik erranen dio ontasuna? Ontasun bilakatzeko haintzurak behar du agertu. «Gure Herria» izanen da haintzur hura» (1921, I, 7 orr.).

E. Blazi zuzendariak ere: «Sortu gira, argitarat ausartatu gira. Eskual-Herriko iguzki gozoak demagula indar eta iraupen: gu bereak gaitu, bere haur eta ume. Gura erroen finkatzen ari ginelarik oraino itzalpean, lurrean gorderik haziak egiten duen bezela, zuetarik askok sustatu gaituzte, ezin ahantzizko solasak helarazirik. Emazue hor! lan bat hasten duzue bailezpádakoa! Holako baten behar gorrian ginauden, lokartuak iduri baikinuen bertze Eskualdunen artean. Ikusi dakezue Eskual-Herriaren hego aldea, erlea bezela lotua lanari, Eskualdunen gogo bihotzeri eman beharrez alhapide gozoena. Emazue hor eta egon hazkar! Har bitzate hemen adiskide guziek gure esker minenak».

Euskeraz ta erderaz zetorkigun. Lenengo zenbakiak auek euskeraz; «Aintzin-solasa», «Agur», «Gure Herria» (Oxobi'ren olerkia), J. Barbier'en «Ixtorio-Mixterio», «Eskualdunak», «Anxuberro'ren lan luze baten asiera), Zerbitzari'ren «Arto xuritzetan», Axular'en «Xinhaurria», «Haurren xokoa: Zer da zer?», «Bertze irakurgaietan» (Oxobi'k idatzia).

Auek ziran bertan idazten zutenak; Anxuberro, Apeztegi, Arotzarena, Barbier, Xoribit, Daranatz, Dassanze, Dextepare, Dufáü, J. Eizagirre, Mayie Elissague, Mañex Etxamendi, Etxeberri, Garazi, G. Hérelle, Larreko, P. Lhande, Oxobi, E. Souberbielle, J. Vinson, P. Iturbide, Zerbitzari, P. H. Capdevielle, Ibarnegaral, Bengoetxea, Garmendia, H. Gavel, Jean Lamarque, Lurtxuri, Jean Saint-Pierre, P. Veyrin, B. Bordaxar, L. Colas, P. Foix, B. Larregi, Leon Leon, Teñe, Odón Apraiz, Diego J. Altzo, Kirikiño, E. Decrept, J. A. Donostia, Enbeita'tar Kepa, J. Ezenarro, Joan Garbizu, P. Lafitte, Maruri'tar Erramun, Sataka, F. Dospital, Jon Arospide, E. Blazi, P. Duhaur, M. Etxeberri, M. Gorostarzu, A. Irigarai, A. Leon, Pikoxet, Mayi

Ariztia, J. Babaki, S. Erramuzpe, **R.** Gallop, Zubimendi, **R.** Cruzacq, P. Dop, A- Durrutí, J. Etxekoin, Fermín Iturriotz, J. Urkixo, P. Iturralde, J. Garate, P. Narbaltz, L. Poxelu, D. Soubelet, Bilharia, Paul Etxenike, Pedro Garmendia, L. Gaian, P: Intxüspe, J Oxarango...

Jarralkian, Europa'ko gerra zala-ta, 1939'tik amar urteko ixilaldi latza. 1960'rarte etzan agertu «Gure Herria». Bitartean illak ziran apeztegi, Etxepare, Barbier, Blazi, Mayie Elissague, E. Soubervielle, Lakonbe, Daranatz, Larreko ta beste batzuk, Zer egin? Lehen bezin kartsu lanari oratu. Beraz, 1960'ko ur-tarrilla-otsallarelun asi zuten berriz ere aro berri bat, ogei ta bigarren urtean. L. Dassance'k zeukan Uztaritze'n aldizkarla-ren begira-ardurea, J. Saint-Pierre zuzendari zalarik.

Idazle berriak ere, gazte ta adoretzu, jaiki ziran or-emendik: P. Espil, Iratzeder, Paul Guilsou, S. Mitxelena, E. Salaberri, M. Sota, M. Intxausti, Constantin, J. Agerre, M. Arkangues, J. Hiriart-Urruti, J. M. Leizaola, Klement Matbieu, P. Oihan-buru, N. Tauer, A. Tournier, Gaetan Bernoville, G. Eppherre, T. Monzón Olaso, P. Lartzabal, Jauregiberri, Mark Legasse, J. M. Barandiaran, J. Kamino, E. Erkiaga, Harriague, M. Itzai-na, A. M. Labaien, E. Lambert, J. K. Abeberri, J. B. Mendion-do, Nikolas Altzola, P. Hegitoa, P. Naert, I. Darrikau, Erdo-zalnzi, M. Labegerie, M. Iruxo, J. Haritsxelhar, J. Artetxe, E. Bidegain, P. Arburu, E. Goienetxe, JJ. Minaberri, Uharriet, P. Arradoi, M. Elso, L. Etxezaharreta, B. Goiti, Harrazpi, P. Landaburu, Ande-Reño, J. M. Satrustegi, J. Fourkade, **R.** Arrue, **R.** Laxalt, Etxar-Lohigorri, L. Villasante, Marider...

«AINTZIÑA»

Alkarte bat zan lendabizi: «Traits d'union mensuel des régionalistes basques-français» (Baiona, 1934). Aldizkari bat atera zuten izen berenez, 1934' ko urriletik 1937'ko irailera; guztiz 33 zenbaki.

Arrez gero, «Aintziña» batasunak, europar gudaldian ere, Mark Legasse'ren agintzapean, argitara zituen, eta ditu, onako liburuxkak: «*Euzkadi*, ma patrie», «Euskaldunak», «Petite Histoire religieuse de Pays Basque», «Axular», «Zer eta zer» (Hiriart-Urruti), «Murtuts eta Bertze» (Ithurralde), «Haur-ilke, haurrendako» (Oxobi), «Kantuz», «Errepikan», «Xaramela», ta abar.

Azkenez, Baiona'ko «Courrier»-ek ere ba-zuen asteroko euskal atala, atsegiñez irakurtzen zana, P. Larramendi'ren zuzendaritzapean osotua.

«RIEV»

Aldizkari ederra, 1907'an J. Urkixo'k irasi ta 1936'garreneko gudararte iraun zuena. Guztiz 26 ale mardul, oraintsu **Retena** jaunak berriz ere (Bilbao, 1969) osorik argitaratu diguna. Titulua: «**Revue Internationale des Etudes basques**», edo; «**Revista Internacional de Estudios Vascos**». Egoki dator Iparragirre'k esana: «Eman da zabal zazu munduen frutuba»; eta B. Etxepare'k: «Euskara, jalgi adi mundura».

Euskaldunaren doaietatik bat orokortasuna duzu. J. Urkixo'k orokor, guztiena gogo zuen bere aldizkaria; ez Auñamendi gaiñ ankalatraba, Laterri biren erdian, Euskalerria zekusalako, lur-bira osoko kulturaz ta arnasaz adoretuak gure izkuntza ta gaiak nai zituelako baizikan.

Orrelaxe egin zuen egin ere J. Urkixo'k. Euskera ta Euskalerriri buruzko gaiak funtsez ezagutu ta ikasi guraz aspalditik zebiltzan ainbat jakintsu —doixtar, errusiar, ingeles, frantses,

españiar— korapillo estuz itsatsirik, bere aldizkariaren orrietan lankide jarri zituen, ango ta emengo, euskaldun ixurki bien artekoakaz batera. Gure mendearen lenengo arhárkotik Endaia'n bizi zan J. Urkixo, atzerritar jakintsu askorekin artu-eman ertsia zeukda, bizi ere. Izkuntzalari zan eta maite zituen antzeko griñak jota euskal arloan lan zegitenak: Georges Lacombe, esaterako. Adiskide miñak ziranez, sarri alkarrekiko solasaldietan ikutzen omen zuten lan ortarako agerkariak zeukaten obaria. Autu oietatik erne ta jalgia duzu, adarretik kimu bezela, gaur ere atsegingarri zitzaigun **RIEV** aldizkaria.

Lenengo zenbakiak Baiona'n atera ziran, Lamaignére irarkolan, eta gero Donostia'ko Aldundiko irakorlan. Bi-illerokoa zan, eta ale guztiak zetozen lan trinko, giar eta jakintsuz orniduta. Lenengo urteko sei zenbakiak 700 orrialde osotu zituzten. Frantsesez, espaiñeraz, doitxeraz eta euskeraz zeuden lanak, idazle bakoitzak bere izkuntzan idatzita. Lenengo urtean datoz euskerazko lanok; Txomin Agirre'ren «Garoa» (42, 172 ta 543), Tartas'en «Onsa hilceco bidia» (27, 189), Zabala'ren Ipuñiak (91, 529), X.-ren «Kresala» (167), G. Muxika'ren «Txoroa»(207), J. B. Darrikarrere'ren «Eresiak eta hipuinak» (320), X.-ren «Euskal Esnalea» (324), Bernat Etxepare'ren «Kantuya» (372), F. X. M. Munibe'ren «El Borracho burlado» (383, 418), P. Zamarripa'ren «Maitonen poza» (424), M. Landeratxe apezaren «Euskalzaleen Biltzarra» (429), G. Muxika'ren «Euskeraren alde» (544), H. U.-ren «Hilak hil» (617), Albizuri'tar Serapin'en «Euzkerearen alde» (624). Ondorengo urteetako zenbakietan ere berdin, konta ezin-ala euskal lan zaar eta berri argitaratu zituen J. Urkixo'k.

1922'an, lau urte aurrerago Oñati'n ospaturiko Euskal Bartzar aunditik jaiki zan Eusko-Ikaskuntzaren agerkari biurtu zitzaigun. Orduko idazierik onenak, etxeokak eta kanpoak, berton zuten billera, eta amaikatxo lan eder, liburu kritika, iker-azalpen eta berri interesgarri eman ziguten urte ta urteetan.

Beste askoren artean auek beintzat idatzi zuten, beronen orrietan: Adema, Agirre, Albizuri, Alford, Althabe, Altube, Allende-Salazar, Amador Karrandi, Anabitarte, Andurain Mairre, Apraiz anaiak, Aranegi, Arantzadi, Arziniega, Areitio, Arigita, Arozena, Arriandiaga, Arblzu, Arzadun, Azaróla, Azkue, Azpiazu, Báhr, Bárada, Baraibar, Barandiaran, Barbier, Baroxa Batkabe, Basterretxea, Berraondo, Bosch Gimpera, Branet Bouda, Brondal, Kanpion, Rastillo, Castro, Ziadontxa, Gourteault, Charencéy, Xoribit, Dáranatz, **Darrikarrere**, **Decrept**, **Dodgson**, **Domingez Arevalo**, **Donostia**, **Dorkasberró**, **Doussault**, **Dubarra**, **Dicere**, Etxegarai anaiak, Egia Ruiz, Eguren, Eguzkitza, Estornes Lasa, Etxeberri, Eys, Faddegon, Farinelli, Fita, Galbarriatu, Galdos, Galindez, Garate, Garmendia, Gaskue, Gaveí, Geers, Giese, Gorosterratzu; Gorostiaga, Gortázar, Göuld, Goutman, Gracy, Garnault, Graziani, Gerra, Gurrutxaga, Herbst, Herelle, Herran, Herrero Gartzia, Hiriart-Hurruti^ Howley, Huarte, Humboldt, Intzagarai, Intza, Iriarte, Irigaral, Irigoien, Iruña, Izagirre, Jaurgain, Joannategi, Jorda Gallastegi, Jouy, Jullian, Kolowrat, Labreuche, Lakarra, Lasa, Lekuona, Jejartza, Lakonde, Lafitte, Lafond, Landerretxe, Larrasket, Larriñaga, Larrieu, Leon, Leturia, Lewy, Lezama-legizamon, Lhande, Linschman, Lizardi, Lojendio, Medinabeitia, Mahn, Marr, Meillet, Mendoza, Menendez Pidal Merino Urrutia, Merry, Meyer-Lübke, Vasconcellos, Minvielle, Montevilla, Monzón, Mugartegi, Serapio ta Gregorio Muxika, Munarriz-Urtasun, Navarro Tomas,, Gdriozola, Ormaetxea, Orueta, Pérez Goiena, Pérez Mingez, Lorenzo Pérez, **Rollo**, Sánchez Mazas, Santamaría, Saroihandi, Schuchardt, Schulten, Schurhammer, Scoane, Sozeta, Spitzer, Staffe, Susaeta, Tola, Uhlembeck, Unamuno,, Ürabaien, Adolfo ta Juli Urkixo, Uniñuelá, Valle Lersundi, Belasko, Veyrin, Villabaso, Vinson, Winkler, Irizar, Itúrbide, Zabala Arana, Zamarripa, Zabala, Zaitegi" ta Enrike Zubiri.

NOR-ETA TOKI-IZENEN

AURKIBIDEA

- Abando: &7, 119.
- Abasolo (J.): 101, 103, 104.,; 105, 162.
- Adema (J. B.): 137.
- Agaña 226.
- Agerre (J.): 138, 142, 374.
- Agirre (Tx.): 9, 18, 133, 134, r137; 142, 173, 212, 239, 346, 392
- Agirre (J. A.): 108, 250.
- Agirre (T.): 172, 267, 268, 269.
- Agirre (M. D.): 172, 307, 308, 309, 365.
- Agirre (J. M.): 192.
- Agirreolea (F.): 146, 147. Aierbe.(J.J.): 173.
- Aierbe (F.): 173.
- Aitzol(J.): 289, 290, 292, 293, 297, 312, 324, 346., 356., 357, 371.
- Alzkibel (B.): 18."
- Akesolo (L.): 68, 288, 291. :
- Alberdi (A.): 304
- Albizuri (J.): 208.
- Aldabe (J.): 361, 377.:
- Altube (S.): 145, 197, 297, 346;-
- Altuna (J.): 66, 67, 153.
- Alizate (M.): 361, 388.
- Altuna (F.): 90, 118.
- Altzola (E.): 82. : v
- Altzola (N.): 81, 83., 84. :
- Ametzaga (B.): 17,'91, 94, 95.
- Anabitarte (A.): 144, _ 145, : 172, 221, 341.
- Apalategi (M. M.): 361.; 395, 397, 3 9 8 :
- Apraiz (O): 138. ' -
- Araba: 22, Í2Z,-,Í28,-f30k.'141, 361; .369. Aralar: 17, 299."'
- Arana-Goirb (Sr): 11.:~2,.,.34, 46, 66, 114, 119, 120, 121, 127, 130, 176, 356, 367; '
- Aranburu (Z.): 146, 149. :7:
- Aranguren (L) • 165. •
- Aranguren -(P):- 304.
- Areitio (F.): 62, 291. ' :
- Argarate (R.): 172.
- Arin (FJ): 241. ' v
- Arin (M.): 147M5Í. '
- Aristizabal(ÍL.): 3.03.º; P:7-
- Arizmendiarieta (Í:M.>: 79.º;167.
- Arozena (F.): 249,' 25Í, 356;
- Arozena (P:)T 361, 38Q.;382.;; v.
- Arregi (J.): 49., 50.
- Arrese-Beitia (F:J: 22, ;32,-; J262,
- Arriandiaga OA.): 48> 'W¿; 46,4Í7, 133, 231. -. -
- Arrinda(Á.-): 2Í4. r- '
- Arrospide (J. BJ: 20, 21. ' - . -
- Arrue (J. M.): -189.,i90, '
- Arrue (A.):'305, 30?; -'
- Arruti. (A.): 343.
- Artetxe (J.): 187, 356. 'J - . V;-
- Artetxe (L.): .167..." :? .:j • ;
- Artibai: 19.
- Artzai (A.): 79. ; ;,~ ;' ;:
- Artzeluz (A.): 167. ,196,¿348.,351,

- Artzubiaga (Z.): 22, 57, 120, 136, 154, 155.
 Astiz (F.): 361, 408.
 Ataun: 215, 216, 395.
 Atotxa: 182.
 Atutxa (J.): 85, 86.
 Atxuri: 7.
 Axangiz: 88.
 Axular (P.): 21, 235.
 Aurre-Apr aiz (B.): 284.
 Azkue (R. M.): 9, 22, 136, 137, 141, 143, 144, 145, 176, 215, 303, 341, 356, 392, 415.
 Azkue (D.): 53, 193, 194.
 Azkunaga (J. R.): 22.
 Azkunaga (K.): 31.
 Azpeitia (J.): 145, 172, 204, 205, 207.
 Azpiazu (JO): 146, 147.
 Barandiaran (J.): 317, 318, 319, 321.
 Barandiaran (J. M.): 21, 70, 106, 172, 214, 217, 341, 347.
 Barazar: 7.
 Barinaga: 79.
 Barrenetxea (J.): 17, 74, 75, 77, 156, 221, 383, 413.
 Barriola (A.): 18, 188.
 Batiz (B.): 17.
 Baztarrika (I.): 76.
 Beaskoetxea (I.): 165.
 Bedaio: 224.
 Beizama: 173, 218.
 Belaustegigoitia (F.): 17, 23, 27, 138, 144, 393.
 Bereziartua (L.): 247, 248.
 Bermeo: 29, 30, 31, 57, 58.
 Berriatua: 19.
 Bilbao: 10, 18, 19, 20, 32, 46, 49, 50, 53, 69, 79, 86, 99, 108, 123, 149, 166, 191, 204, 285, 302.
 Bizkaia: 9, 20, 22, 28, 31, 39, 44, 48, 64, 65, 72, 108, 121, 130, 134, 141, 163.
 Bustintza (E.): 17, 80, 81, 82.
 Bustintza (G.): 47.
 Busturia: 20, 57. •> *•
- Dámaso Alonso: 9.
 Dante: 7.
 Danaratz (J. B.): 362, 415, 416, 448.
 Dassanze (L.): 362, 421, 422, 423, 442, 443.
 Deustu: 108, 408.
 Dolometa: 31.
 Donibane Lohitzun: 109.
 Donostia: 32, 45, 50, 53, 163, 180, 193, 204, 218, 285.
 Dufau (K.): 362, 424, 443.
 Duralde (B.): 166.
 Durango: 24, 28, 36, 38, 48, 62, 64, 65, 66, 67, 68, 83, 85, 129, 148, 151, 192, 206.
 Eguzkitza (J. BO): 9, 88, 133, 137, 141, 144, 154, 155, 156, -157, 234, 268.
 Eiharamendi (PO): -361, 423.
 Eizagirre (J.): 18, 117, 331.
 Eleizalde (Kj): 116, 117, 118, 133, 134, 135, 137, 138, 141, 346.
 Eleizegi (KO): 172, 218, 219, 220.
 Elgezabal (K.): 28, 29, 131, 132, 134, 135.
 Elissague (M.): 21.
 Elizalde (J.): 21, 422, 442.
 Elorriaga (J. J.): 238.
 Enbeita (K.): 20, 32, 33, 34, 64, 120, 125, 152, 153, 444.
 Enbeita (I.): 17, 32, 33, 34, 125, 153, 156.
 Enbeita (B.): 17.-'.
 Erkiaga (E.): 96, 167, 352, 356.
 Ernakulam: 166.
 Ernani: 186, 218, 230.
 Errazti (J. M.): 18, 138.
 Errazti (KO): 18, 117, ' .
 Errenteria (GO): 89, 120.
 Errexil: 194.
 Estornes Lasa (BO): 361, 400, 401, 403, 404, 447. ' .
 Estornes Lasa (M.): 401, 404.
 Estornes (I.): 401, 404.
 Etxabe (M.): 314.
 Etxaide (I. M.): 141, 342, 392.

- Etxalar (E.): 133.
 Etxaniz. (N. A.): 172, 223, 278, 279, 280, 282.
 Etxeandía (J.): 68.
 Etxebarria (T.): 171, 172, 198, 199, 202, 288.
 Etxebarria (J. -A.): 302.
 Etxebarria (F.): 70, 71, 161, 288, 289, 290, 292, 348.
 Etxeberri (J. B.): 362, 438.
 Etxegarai (K.): 9, 18, 126, 136, 173, 341, 387.
 Etxepare (J.): 21, 422.
 Ezenarro (J.): 220.
 Ezkurdia (J. A.): 241.

 Flores Goñi (J.): 361, 399.

 Gainzarain (I.): 18.
 Garate (J. M.): 19.
 Garate (J.): 285, 286, 287.
 Galbarriatu (R.): 45.
 Garbizu (J.): 172, 228, 229; 230, 303.
 Garbizu (D.): 242.
 Garbizu (T.): 299.
 Garitaonandia (B.): 18, 144, 145, 244, 289, 341, 393.
 Garmendia (J.): 172, 243, 246, 270, 271, 273. •••
 Gartzia Goldaraz (J.): 18, 230.
 Garriga (G.): 45, 195.
 Gaubeka (Bj): 17, 57, 58, 59, 127, 144.
 Gazteaz: 39, 44, 52, 64, 69, 79, 88, 101, 106, 134, 150, 163, 166, 168, 214, 274, 366.
 Gernika: 20, 44, 46, 48, 57, 58, 62, 108, 157.
 Gerra (B.): 182.
 Giltsoa (P.): 66.
 Gipuzkoa: 9, 24, 130, 141, 171, 258.
 Goenaga (I.): 147, 149.
 Goethe (J. W.): 94.
 Goikoetxea (X.): 266, 267.
 Goikoetxea (J.): 361, 399, 400.
 Goikoetxea (I.): 401.-

 Goikoetxea (J. J.): 48, 49.
 Goikoetxea (F.): 48, 49.
 Goikoetxea (J.): 48, 49.
 Goioaga (F.): 164.
 Goiria (J. A.): 17.
 Goirigolzarri •(X.): 298.
 Gorbea: 7, 70.
 Gorostiaga (E.): 17, 106, 107, 160.
 Gortázar (J.): 118, 119:
 Guridi (J.): 191.

 Ibabe (J.): 361, 364, 365.
 Ibarbia (M.): 166.
 Ibartutxi (J. K.): 9, 42, 138,-154, 155, 157, 352.
 Ibarrangelua: 68, 90.
 Ibiñagabeitia (A.): 17, 77, 82, 91, 96, 147, 280, 318, 321, 325.
 Idiazabal: 203.
 Intza (D.): 10, 107, 143, 144, 253, 254, 361, 372, 373, 374, 376, 383, 412, 413, 448, :
 Intza (K.): 361, 378.
 Intzagarai (R.): 137, 344. ;
 Intxusagarri (J.): 60, 61.
 Iraizoz (P.): 241, 356.
 Iriarte (B.): 146, 151.
 Irigarai (F.): 138.
 Irigarai (A.): 305, 361, 389, 390/391, 444. • - - - -
 Irigoien (J. R.): 213.
 Irigoien (R): 315, 316, 317. -
 Iruretagoiena (J.): 274, 276, 278.-343.
 Itxina: 7.
 Itziar (M.): 172, 327, 328, 329.
 Iturzaetai 22.
 Iturriotz (A.): 287, 288.
 Izurtza: 31, 32, 64, 83, 84, 85.

 Jokakortajarena (Tx.): 269. '
 Jauregi (K.): 144, 156, 172, 244, 253, 254, 257, 269, 351, 413.
 Jauregi (J.): 361, 363, 364.
 Jauregiberri (M.): 359, 362, 417, 418. ••"
 Jauregizar (J. M.): 29.-'V

- Hernandorena (T.): 172, 264, 265, 267.
- Kannemann (K.): 130.
- Kanpion (A.): 18, 133, 137, 144, 153, 173, 176, 346, 359, 374.
- Karakas: 92, 199.
- Karraskedo-Olarra (J.): 172, 238, 239, 354.
- Kerexeta (J.5: 81, 323, 324. / Kerexeta (P.): 294.
- Kirikiño: 9, 18, 66, 67, 80, 97, 98, 100, 117, 125, 133, 138, 153, 231, 444.
- Kortazar (>N)s 221\ Kottayam: 194. ' •
- Labaien (A. M.): 43, 97, 172, 184, 211/219, 258, 259, 261, 263, 264, 283, 284, 309, 313, 352, 334, 355.
- Lafitte'(P.): 68, 201, 362, 417, 419, 421, 427, 428, 429, 430, 432, 433, 434, 438, 441, 442, 448.
- Lhande (P.): 133, 137, 142,-143, 341, 344.
- Landerretxe (M.): 137, 441.
- Lafon (R.): 362, 427, 428. •
- Lakonbe (G): 21, 142, 143, 432, 447, 448.
- Lardizabal (P.): 146, 148. "•••"
- Larrakoetxea (B): 17, 52, 53, 54, 56, 156, 342, 356.
- Larrañaga (G.): 325, 326.
- Larrañaga (I.): 227, 228, 248.
- Larrañaga (E.): 69, 156, 37H ••
- Larrea: 37, 160, 163, 164/ 165, 166, 264, 363.
- Larrea (R.): 63, 71, 72, 101.
- Larreta (J;-B.): -18, 138, 344.
- Lauaxeta: 10, 66, 125, 147, 153; 156, 169, 229, 292, 325, 328.
- Laudio: 23, 157. "••"
- Lekeitio: 48, 61, 67, 88.
- Lekuona (M.): 138, 141,;171, 172, 232, 234, 236, 237, 245, 271, 273, 352, 356, 371.
- Leizaola (J. M.): 171, 250, .252, 341, 356,;:
- Lemoniz: 89.
- Lezo: 228.
- Linschmann (T.): 130.
- Lizardi: 10, 169, 193, 229, 269, -292, 356, 392, 448.
- Lizarralde (J.): 13.
- Loiola: 48, 86, 149, 150, 151, 289, Lojendio (J. M.): 141, 342, 448. .
- Loramendi: 10, 75, 76, 213, 229, 356.
- Lopetegi (L.): 146, 149.
- Lopez-Mendizabal (I.): 133, 138, 172, 174, 176, 179, 180, 244, 353.
- Madrid: 46, 50, 108, 176, 191, 215, 231, 311, 365, 379.
- Magunagoikoetxea (J.): 165.
- Malaxetxebarria (P.): 23.
- Manzisor (A.): 164.
- Manzisor (I.): 164. ""
- Manzisor (I. M.): 172,
- Manterola (G.): 9, 38, 39, 42, 43, 138, 154, 155, 157, 352, 356.
- Markiña: 19, 37, 69, 101, 102, 164, 165, 173, 202, 206, 317.
- Mathieu (K.): 109.
- Mayi Arizti: 362, 418, 419, 420.
- Milloi: 19.
- Mistral (G.): 88.
- Mitxelena (L.): 75, 179, 209, 223, 237, 246, 295, 298, 305, 321, 387, 392, 405, 425, 432, 438.
- Mokoroa (J. M.): 172, 295, 296, 298, 299, 342.
- Monzon-Olaso (T.):172, 251, 309, 310, 311, 313, 314.
- Mugiro (J.): 164.
- Mujika (M.): 212, 226, 295.
- Murua (R.): 172. "•"
- Muxika: 20, 34. "••"
- Muxika (G.): 18, 172, 173, 182, 183, 187, 313, 351, 447, 448, .
- Muxika (E.): 299, 351. "••"
- Muxika (K.): 203. ; •
- Naf arrete; 1Q6. rL: /
- Nafarroa: 130. : ;j r.7

Oar-Ártefa (J. A.): 17, 88, 89, 154, 157Í •. '••
 Oiartzun: 232.
 Olabeaga (L.): 172, 300, 301, 302.
 Olabide (R.): 48, 133, 135, 137, 141, 143, 148, 151, 288, 390, 391, 374.
 Olaéta (S.): 62, 63".
 Olabarrieta OL.): 146, 148. -••••
 Olaizola (J.): 172, 185, 186, 187, 188, 245, 341.
 Olano (M. A.): 225.
 Olazaran (J.): 64.
 Onaindia (S.): 199, 284, 356.
 Ondarrabi: 23, 50, 74, 75, 176, 226, 228, 231, 243, 264, 274, 380, 396.
 Ondarreta: 65.
 Oñati: 29, 52, 134, 142, 188, 191, 211, 229, 447.
 Orihuela: 231.
 Orixe: 10, 75, 125, 138, 146, 156, 237, 252, 279, 303, 342, 356, 448.
 Ormaetxe (J.): 63.
 Ormaetxea (L.): 293.
 Orduña: 108.
 Ortuzar (R.): 30.
 Otermin (F.): 361, 399.
 Otxolua: 9.

Peña Albisu (X.): 77.
 Pérez Arenaza (M.): 166.
 Peru: 164.
 Picasso (P.): 171.

Sagartzazu (K.): 243, 244, 245, 247.
 Sagartzazu (D.): 274.
 Salaberri (E.): 362, 435, 436, 437.
 San Martin (J.): 198, 199, 200, 201, 204, 208, 244, 246, 392.
 Santander: 275.
 Sarasola (J.): 248.
 Sarasola (I.): 405, 407.
 Shakespeare (W.): 54, 55, 56, 91.
 Sarobe (P.): 146, 150.
 Sevilla: 44.

Sota Aburto (M.): 65, 66, 67, 68, 153.- "i: "i: "i:
 Sukarrieta: 21, 154. -

Tauer (N.): 180, 362, 424, 425, •426.
 Teñe: 156, 172, 209, 211, 212.
 Tolosa: 43, 45, 47, 122, 173, 174, 191, 211, 218, 267.
 Txile: 165, 242, 295; 1363, 373.

Ugartetxea (F. M.): 37, 38.
 Unzueta (S.): 87.
 Uriarte (J. M.): 43.
 Uribarren (P.): 364.
 Uribe (Z.): 36.
 Uriguen (A.): 165.
 Urkidi (J.): 31.
 Urkiola: 33.
 Urkixo (J.): 133, 136, 138, 173, 446, 447.
 Urkixo (G.): 131.
 Urionaguena (J. S.): 163.
 Urrestarazu (A.): 361, 365, 367, 368.
 Urrestarazu (M. T.): 369.
 Urreta (M.): 135, 136, 342.
 Urriolabeitia (A.): 155.
 Urrutia (G.): 43, 44, 45, 47, 144, 155.
 Usandizaga (J. M.): 187.

Vijayapuram: 102.
 Villasante (L.): 128, 141, 405, 445.
 Villasevil: 275.

Xabaño (J.): 362, 416, 417.
 Xemein (Z.): 18.

Zabala (A.): 224, 225.
 Zabala-Arana ((J.): 44, 46.
 Zafra* 44
 Zaitegi (J.): 147, 149, 151, 267, 268, 269, 325, 448.
 Ziburur: 7.
 Zarate (M.): 43, 82, 98, 202.
 Zatarain (A.): 180, 181, 348.

Zarrantz- (A.) 361, 375, 382, 383,
384, 385, 386, 388, 393, 413.
Zeanuri: 38, 39, 43, 48, 52, 85, 105,
106, 160, 164.
Zegama: 174;
Ziarsolo (M.): 17, 96, 97, 98, 99,
100, 166.
Ziburu: 88, 148.
Zinkunegi (J.): 127, 138, 171,
194, 197, 341.
Zizurkil: 173.
Zornotza: 39, 57, 71, -72, 90, -91,
101, 150, 154, 205, 271. . . ;
Zubiaga (M. M.): 147, 150, 162.
Zubikarai (A.): 167.
Zubillaga (J. K.): 224.
Zubiria (J. P.): 362, 435.
Zugatza (L.): 65.
Zugatza (F.): 147, 150, 156.
Zugazaga (J.): 105.
Zugasti (A.): 172, 322, 323, 324,
352.

AURKIBIDEA

Auresolasa	7
----------------------	---

BIZKAIA (1915-1940)

Laburpen	17
jose María Garate Gallastegi	19
Juan Bautista Arzospide	20
jose Ramos Azkunaga Arregi	22
Primítibo Malaxetxebarria	23
Federico Belaustegigoitia	23
Kósme Damián Elgezabal	28
Jóse Maria Jauregizar	29
Karlos Azkunaga Arregi	31
imanol Enbeita Erretereria	32
Zirilo Uribe	36
Frantzisko M.Ugartetxea	37
Gabriel Manterola Urigoitia	38
Gotzon Urrutia.,	43
Gabín Bustintza Gortázar;	47
Goikoetxea Anaiak: Juan Jose ta Felipe	48
Jóse Arregi Garaigordobil	49
Benito Larrakoetxea	52
Bitor Gaubeka;	57
Joseba Intxusagarri;	60
Felix Areitio Ariznabarreta	62
Segundo Olaeta Mugartegi	62

Ramón Larrea Ibarretxe	63
Juan Ormaetxe Uribarrena	63
Juan Olazarán Larrinaga	64
Manu Sota Aburto	65
Jose Etxeandia Beaskoa	68
Eugenio Larrañaga Landaburu	69
Felipe Etxebarria Alakano	70
Nikolas Barrenetxea	74
Jose Maria Arizmendiarríetáf	79
Antonio Artza Liona	79
Erróse Bustintza Ozerin	80
Eustakiá' Altzola Lizuhdia	83
Juan Atutxa	85
Sorne Unzueta	87
Jose Antonio Oar-Arreta	88
Frantzisko Altuna Mendiola	90
Bizente Ametzaga Aresti	96
Ziarsolo'tar Manu	96
Juan 'Abasólo Lekue	105
Jon Zugazaga eta Larrabeiti	105
túlojio Gorostiaga Etxebarria	105
Joseba Andoni Agirre Lekube	108
Egunerokoak. Aldizkariak	III
«Euzkadi» aldizkaria	114
«Jel»	118
-«Bizkaitarra»	119
«Egutegiak»	12a
«Pizkundia»	123
«Euzkadi», egunerokoa	124
«Hermes»	125
«preintza»	126
«Euzko-Deya»	126
«Euskaltzaindia»	128
«Euskera»	141
«jesus'en Biotzaren Deya»	145
«Euzkerea»	152
:«Jaungoiko-zale»	154

«Ekin».	157
«Amti'ko Deya».	160
«Karmen'go Argia».	160
«^guna».	166
«Euskalerria».	168

GIPUZKOA (1915-1940)

Laburpen.	171
Juan Jose Aierbe Irastortza.	173
Isaak Lopez-Mendizabal.	174
Anbrosio Zatarain.	180
Aita Basilio Gerra.	182
Gregorio Mujika Mujika.	182
Jose Olaiola.	185
Jose Martin Arrue Galdos.	189
Jose Maria Agirre Antia.	192
Dionisio Azkue Arregi.	193
Jose Indalezio Zinkunegi Arruti.	194
Toribio Etxebarria Ibarbia.	198
Kintin. Muxika Oiarbide.	203
Julene Azpeitia.	204
Errobustiana Muxika Egaña.	209
Jose Ramon Irigoien Irazu.	213
Jose Migel Barandiaran.	214
Katalina Eleizegi Maiz.	218
Isidor Ezenarro Goenaga.	220
Agustin Anabitarte Iratzu.	221
Jose Ramon Zubillaga.	224
Mikel Aingeru Olano Urteaga.	225
Iñazio Larrañaga Lasa Gotzaia.	227
Juan Garbizu Salaberria.	228
Jose Gartzia Golaraz.	230
Manuel Lekuona Etxabeguren.	232
Jazinto, Karrasko-Olarra.	238
Juan J. Elorriaga Gomez.	239

Iñazio Alfonso Ezkurdia	241
Frantzisko Arin Dorronsoro	241
Daniel Garbizu Salaberria	242
Klaudio Sagartzazu Sagartzazu	243
JLorentzo Bereziartua Balerdi Gotzaia	247
Jeronimo Sarasola Treku	248
Fausto Arozena Arregi	249
Jesus Maria Leizaola;-...-...;••: ...;...;...;...;	250
Luis Jauregi Etxenagusia	253
Antonio Maria Labaien Toledo	258
Teodoro Hernandorena	264
Tomas Agirre Urdalleta	267
Garmendia Kortadi'tar Jon	270
Dionisio Sagartzazu Sagartzazu	274
Juan Iruretagoiena Aiestaran	274
Nemesio Agapito Etxaniz Aranbarri	278
justo Garate Arrióla	285
Antonio Iturriotz Urizar	287
Frantzisko Etxeberria Tolosa	288
Luis Ormaetxea Arraie	293
Paulo Kerexeta Urrutia	294
Justo Maria Mokoroa Myxika	295
Tomas Garbizu Salaberria	299
Iñaki Olabeaga ta Aldanondo	300
Luziano Aristízabal	363
Pedro Aranguren Mendizabal	304
Antolin Alberdi Arregi	304
Antonio Arrue Zarautz	305
Maria Dolores Agirre Lasheras	307
Telesforo Monzón Olaso	309
Maria Etxabe Aldai	314
Erroman Irigoien Mitxelena	315
Julian Barandiaran Kortazar	317
Anizeto Zugasti Iriondo	3 ²²
GAllemo Larrañaga	325
Martin Itziar Agirre	3 ²⁷
Aldizkari ta egunerokoak	330

«Euskal-Erria»	33°
«El Bidasoa»	331
«Eusko-Ikaskuntza»	332
«Poxpolin»	335
«Igande Orria»	335
«Eibar»	335
«Euskal-Esnalea»	335
«Gipuzkoarra»	345
«Eusko Ikaskuntzaren Deya»	346
«Oyartzun'go Eliz-Oriya»	346
«Euskalerriaren Alde»	346
«Argia»	348
«Júnior»	350
«Kaiku»	350
«Euzkotarra»	350
«Agere»	359
«Aj"gia»-ren Egutegia	350
«Bertsolariya»	352
«Antzerti»	353
«Yakintza»	355
«Eusko Olerkiak»	357

ARABA, NAFARROA. MUGAZ ANDIKOAK
(1915-1940)

Laburpen	361
--------------------	-----

1) Araba

Jose Jauregi Uribarren	363
Juan Ibabe Iriondo	364
Andoni Urrestarazu Landazabal	365
Egunerokoak eta Aldizkariak	369

2) Naf artoa

Mikel Olasagarre Zubillaga	372
Joakin Aldabe Joanikotena	377
Kasto Intza Arb ^o .	378
Paulo Arozena Urrutia	380
Agustin Zarrantz Bermejo	382
Mikel Alizate Egozkue	388
Aingeru Irigarai ta Irigarai	389
Manuel Maria Apalategi Zurutuza	395
Jose Frantzisko Otermin	399
Jesus Flores Goñi	399
Juan Goikoetxea Zabalo	399
Bernardo Estornes Lasa	400
Frantzisko Astiz Arregi	408
E'gunerokoak eta Aldizkariak	408
«Amayur»	410
«Revista Euskara»	411
«Zeruko Argia»	412
«Euskeraren Adiskideak»	413
«Irugarrengo Frantziskotarra»	414
«Lekaroz»	414

3) Mugaz andikoak

Jean Baptiste (D) Aranatz	415
Joanes Xabaño	416
Madalena Jauregi.berri	417
Mayi Ariztia	418
Louis Dassance	421
Pierre Biheramendi	423
ÍCristope Dufau	424
Norbert Tauer	424
Rene Lafon	427
Pierre Lafitte Ithurralde	428
Jéan Pierre Zubiria Irigoien	435

Etienne Joseph Salaberri	435
Jean Baptiste Etxeberri	438
Egunerokoak eta Aldizkariak	440
«Almanakak».	440
«Fedearen Hedameneko Urtekaria».	441
«Eskualduna» asterokoa	441
«San Frantsesen Deya».	443
«Gure Herria».	443
«Aintziña».	446
«RIEV».	446

Aita Onaindia, Amoroto-n jaioa dugu, 1909'an. Karmeldarra. Berrogei bat urte daramazki euskerari ta, batez ere, euskal literaturari lotua. Liburu mordoxka du argitara emanik Adibidez: «Milla euskal olerki eder» (1954), «Iru poema» (1962), «Eguneroko Maza», Kerexeta'rekin batera (1963), «Onbidia» (1963), «Gure Bertsolariak» (1964), «Jolasketa» (1965), «Enbeita Oleskaria» (1966), «Bergili'ren Idazlanak osorik» (1966), «Gure Urretxindorra» (1971), «Goiznabar» (1971), «Eskulitzak» (1974), «Lauaxeta-Olerkiak» (1974), ta abar. Onez gainera lan asko ditu aldizkarietan, eta itzulpen auek: Horatio'ren odak. Dante'ren Suleza ta Esopo'ren ipuiak Urte askotan KARMEL eta OLERTI zuzendu ditu.

Bere lanik nabarmenena, ala ere, auxe düzu: «Euskal Literatura» Arnas aundiko lana. Lan osoak sei-zazpi ale izando ditu. Iru ezagurzen dituzu lendik ere. Bostgarrena düzu orain esku artean daukazuna. Ondoren etorriko dira besteak.

 ETORBIDEAN
KULTURA